

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Zuzendaritzaren buru: Fr. Luis Villasante

Euskera XXIX (2. aldia)
(1984, 2)
29
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Maketazio eta orrazketak: R. B.
Fotokonposaketa: Rali

Elkar, E. Koop. grafikagintza
Autonomia, 71 - 48012 Bilbo

©Euskaltzaindia
Ribera, 6 - 48005 Bilbo

ISSN. **Euskera** 0210-1584

ISBN. 85479

Dep. Leg.: BI 767-85

JOSE MANTEROLARI OMENALDIA

Donostia, 1984-IV-27

JOSE MANTEROLAREN OMENEZ

Donostian, 1984, Apirilak 27

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak: (1)

Aurten betetzen dira ehun urte Jose Manterola jauna hil zela. Otsailaren 29an gertatu zen Manterolaren heriotzea. Gaztetasunaren lorean hil zen, 34 urte zituelarik. “Consummatus in brevi explevit tempora multa”, dio Jakituria-riaren liburuak, eta agian hemen ere hori bera esan daiteke.

Belaunaldi haren dardarak jaso eta ulertzen asmatu zuen Manterolak, joan den mendeko larogeigarren urteko belaunaldiarenak. Bihurgune gaitz batean aurkitzen zen orduan Euskal Herria; saminez betea, foruak galduak, odol hustua eta pobretua gerraren ondorioz. Baina zorigaitza norbere nortasunean barnatzeko bide ere gerta daiteke. Eta ordu onean, eta Manterola eta beste zenbaiti esker, hala gainditu zen bihurgune latz eta ilun hura.

Bi ekintza —kultur alorreko ekintzak, noski—, zein baino zein emankor-rragoak, zor dizkio Manterola jaunari Euskal Herriak. Lehenbizikoa: Euskal Kantutegiaren argitalpena. Kantutegi honetan Manterolak ez digu eman —izenburuari begiratuz lehen kolpean inork pentsa zezakeenez— herritik jasotako kanta edo bertso bilduma, ez. Euskal olerkari edo poeta landuen olerkiak, —hori bai, euskalki guztietatik hartuak—, sorta edo bilduma batean bildu eta eman zizkigun, zernahi ohar eta xehetasunekin aberastuak, gainera. Gaur orduan baino hobekiago ezagutzen dugu euskal literatura zaharra, baina garai hartarako urrats haundia izan zen hura.

Eta lehen ekintza hura bururatu bezain laster, bigarrena burutzera lotu zen Manterola jauna: *Euskal-Erria* aldizkaria sortzera. Euskal kultura jator bat nahi zuen lehiarazi, bultzatu, eta hortan zebiltzanen asmo eta lanak nolazpait batu. Hortarako sortu zuen Manterolak *Euskal-Erria* aldizkaria.

(1) Guztion gogoan dagoen gertaera negargarri bategatik —Enrique Casas jaunaren hilketa, alegia—, Manterolaren omenaldi hau atzeratu beharrean gertatu ginen, eta orduko partez gaur egiten dugu.

Esan izan da aldizkari horrek ekarri zizkion buruko min eta nekeek eraman zutela hilobira Manterola jauna muga baino lehen. Ez dakit. Baliteke. Zernahi gisaz, Manterolaren obrak bizitze luzea izango du. Arzac eta Lopez Alen zuzendariei esker, 1918ra arte iraun zuen. Euskal kulturaren arrangura sentitzen zutenen agerkari, bultzatzaile eta gordailu izango da tarte horretan.

Manterola donostiar jatorra zen, Donostian jaioa eta Donostian hila. Euskaltzaindiari iduritu zaio mendeburu honen muga, ez Euskaltzaindiak eta ez Donostiak, ez dutela pasatzen utzi behar omenaldi xalo baina barrenkor bat berari eskaini gabe.

Señoras, Señores: (1)

José Manterola muere en San Sebastián el 29 de febrero de 1884. Ahora hace un siglo. También aquel año fue bisiesto. No tenía aún 35 años (le faltaban 23 días para cumplirlos, pues nació el 23 de marzo). "Consummatus in brevi explevit tempora multa" (Sap 4, 13), dice el libro de la Sabiduría y tal vez no esté del todo fuera de lugar la cita. Manterola supo percibir y captar las vibraciones del pueblo en aquella encrucijada difícil de los años 80. El país se hallaba dolorido por la pérdida de los fueros, empobrecido y desangrado por los efectos de la guerra civil. Pero la desgracia ayuda a veces a profundizar en las propias raíces y a tratar de conectar firmemente con ellas creando cultura propia. No fue el único ciertamente, pero tal vez es el más representativo de aquel momento crucial.

Dos grandes iniciativas culturales se le deben: el Cancionero Vasco y la revista *Euskal Erria*.

La primera de ellas, el Cancionero, en contra de lo que pudiera sugerir el título, no es precisamente una recopilación de poesía y canto popular, sino más bien una vasta colección de poesías de autores vascos más o menos cultos, de todos los dialectos, con traducción, notas al texto, noticias biográficas de los autores y a veces incluso melodías. Para aquella época supuso un gran esfuerzo de recopilación el reunir todo este material que se hallaba disperso y ofrecerlo al público con comentarios etc.

Una vez coronada esta obra, Manterola se lanzó a su segunda gran iniciativa: la creación de la revista *Euskal-Erria*, que tenía como designio fundacional el impulsar y aunar los esfuerzos por crear una cultura vasca seria y auténtica. Dicen que los trabajos improbables que se impuso le ocasionaron la temprana muerte, pero a pesar de ello su obra le sobrevivirá y aun alcanzará larga vida, pues la revista duró hasta 1918 gracias a los esfuerzos de Arzac y

(1) Por el triste suceso del asesinato del Sr. Casas nos hemos visto obligados a retrasar hasta hoy el homenaje a José Manterola.

López Alén. En la *Euskal-Erria* se dieron cita cuantos en la época sentían la inquietud de promover la cultura vasca.

Manterola era donostiarra de pura cepa. A Euskaltzaindia le ha parecido que ni ella ni Donostia podían dejar pasar la fecha de este centenario sin dedicarle un sencillo pero entrañable recuerdo.

En el frontispicio del primer número de la revista *Euskal-Erria* figura un artículo con el título “Nuestra misión”, que seguramente es de él. En el mismo se pregunta Manterola si es mejor que todos los pueblos de España se uniformen perdiendo sus peculiaridades, o que, al contrario, las conserven. Opta por lo segundo, y en consecuencia añade:

“A recoger y transmitir los rasgos peculiares de la vida propia de estas siete provincias, que forman lo que podemos llamar la HEPTARQUIA EUSKARA, a dar a conocer su antiquísima lengua, su especial literatura, sus originales cantos y tradiciones, su historia, sus leyes y sus costumbres, reuniendo cuanto de más curioso se ha dicho de ellas, reproduciendo los trabajos de más interés, inéditos, agotados ya o poco conocidos de nuestros antiguos y más distinguidos escritores, y buscando el apoyo de cuantos prestan hoy culto y nombre a las letras bascongadas, para hacer así de nuestra revista un verdadero Album, un archivo manual de curiosidades del país, se dirigirán todos nuestros esfuerzos.

Ajenos por completo a toda tendencia política y de bandería, lejos de ese árido e intrincado campo sembrado de espinas y de zizaña, procuraremos llenar la misión que nos imponemos, con una voluntad firme y leal, encaminando todos nuestros trabajos a la felicidad de la Euskal-Erria, y a la unión franca y cordial de todos sus hijos.

Modestas, tan modestas son nuestras fuerzas cuanto es sincera y recta nuestra intención; procuraremos, no obstante, por todos los medios, hacernos dignos del favor del público, e ir mejorando paulatinamente nuestra Revista, en cuanto lo permita el apoyo que el país nos preste en la empresa” (*Euskal-Erria*, tomo 1.º, 2.º semestre del año 1880, p. 4).

Creo que a cien años de distancia estas palabras siguen siendo actuales.

JOSE MANTEROLA, EGILE ETA ERAGILE

Donostia, 1984-IV-27

Juan San Martín

Donostiar ospetsuen artean tokirik gorenetakoa merezi du Jose Mante-rolak, bereziki gure kulturgintzaren munduan eta euskara zuzpertzez. Horre-gatik, legezko zitzaion Euskaltzaindiari bere heriotzaren mendeurrenez ome-nalditxo hau eskaintzea.

Aurtengo martxoaren 23an bete ziren ehun eta hogeitamabost urte Jose Manterola hiri hontan Narrika kaleko 1ean jaio zela eta San Bizenten bataia-tu. Laburra izan zen beretzat mundu hontako bizitza, baina bere iragan labu-rrean zenbat lan on egin zuen ez da hain erraz neurtzekoa. Denboraz izan zuela diot bizitza laburra, ez ordea ekintzaz. Bere lana ikusirik argi dago den-bora labur hura ongi aprobetxatu zuela eta edonori zaio luze; baina jakin zazue 35 urte bete gabe hil zela, 1884ko otsailaren 29an, intelektu lana hain buruz bete zuen gizona. Donostiako Santa Maria elizan egin ziren bere ani-maren aldeko hiletak. Gazte joan zen, baina bere gogoa utzi zuen ondoren-goan baitan, euskaldungoak iraun zezan. Eta gaur egungo euskaltzaleok ezin esan berari ezer zor ez diogunik.

Manterola erromantiko giroan hasia eta hezia zen. Gaztetxotatik txerta-turik zeraman gogo suharra bere herri hontako gauzen alde eta hortarako jakintza sendoz jabetzen ahalegindu zen lehenik, ondorean frutu onak eskaini ahal izateko asmoz. Bere aita, Gregorio Manterola, diputadu jenerala izan zen, jakintzaz nahiko ondo hornitutako gizona. Jose berak Bergarako Semi-nario hartan egin zituen batxiler ikasketak, Valladolid, Zaragoza eta Madrid-en jarraitzeko Filosofía y Letras karrera bukatu arte. Haurtzarotikakoa bai zuen literaturarako zaletasuna, eta estudioak amaitu baino lehen hasi zen Madrid-eko *El Resumen* aldizkarian idazten, gero foruzaleen *La Paz*-en eta liberalen *Aurrera* aldizkarietan gure herriaren defentsaz kolaboratzeko. Lehen liburua ere gaztetxo zela burutu zuen: Gipuzkoako gida esku-liburu bat argitaratuz 1871. urtean, artean hogetabi urte baizik ez zituela. Handik bi urte barru *Diario de San Sebastián*-en zuzendaria zen. Laster lortuko zuen Donostiako Biblioteka Munizipalaren zuzendaritza. Eta, horrez gainera, Ins-tituto Nacional de Segunda Enseñanza-ko irakasle zen.

Erromantiko giroaren seme zela esan dugu. Oroi Iztueta eta Chahok ereindako hazia Bilintx eta Iparragirrekin loretua zela. Hortik aurrera, erromantikoen gailurrean aurkitzen direnetakoa dugu Jose Manterola eta bere ekintzarik handiena *Euskal-Erria* aldizkaria sortzean eta bere inguruan garai-ko jakitun eta idazle guziak biltzean datza. Bildu ere, mugaren bi alderdietako euskaltzale eta euskalariak bildu zituen. Horrela egin zen aldizkari hura bere izenaren jabe. Eta, gure kulturgintzan ari zirenek lehen aldiz izan zuten elkarturik lana egiteko aukera. Gero etorriko ziren ikerketaz eta politikaz ikuspegi berrituagoak eskainiko zituztenak, baina uka ezinezkoa zaigu berpizkundearen hasieretan zein garrantzitsua izan zen Manterolaren lana.

Egia esan, ziorik ez zitzaion faltatu bere gazte denboran. Hurbildik eza-gutu zuen karlisten bigarren gerratea, bertako lekukotasunik ere eman zuen kronika gisa *Diario de San Sebastián* hartan; baina egiazki bultzarazi zuena foruen galerazpena izan zen. Berez pizturik zekarren gogoari su eman bai zion 1876. urteko uztailaren 21ean Espainiako gobernuak gure foruak eragoztiko zituen legea eman zuenean. Egun hortan, bere zuzendaritzapean argitaratzen zuen *Diario*-an berri ematean, orla beltzez agertu zuen, azpian honako hau iragarritz: "Los fueros han muerto!" "¡Vivan los Fueros!". Hori zelata, Institutoko irakasletzatik bota zuten. Baina hortik hartu zuen euskal gaietan lehen baino sutuago aritzeko indarra. Jarrera horren lehen agerpena izan bai zen *Cancionero Basco* (1977) zeritzan bildumaren publikatzea.

Entzutea dugu, eta nonbait irakurri ere bai, Manterolak, erreakzionario gisa jokatu zuela geroztik. Holakorik gertatzen baita erreakzionario hitza oker erabili nahi dutenen artean. Baina, erreakzionario izateko ez dugu uste idea atzerakoien aldekoa zenik. Cadiz-ko Konstituzioa aurrerakoia zen oraindik feudalismopetik irten gabe zeuden herrientzat; baina, 1812an inglesen *Habeas corpus*-ean oinarriturik egin zen lege hura inork ez digu frogatu gure herri honentzat lege zaharreko foruak baino hobea zenik, Gure egunotan ere gertatzen zaigu holakorik. Baina, gauza bat da reazioa eta oso beste bat kontraekintza. Eta, kontraekintza zen Manterolaren bidea, inposatu nahi zutenen kontra eta bere herriaren alde. Horrela agertu zuen bere gizontasuna. Garai hartan Madrid-eko Congreso eta Senado osatzen zuten gehienek, alde-rantziz, gure lege zaharrei buruzko ez jakintasuna baizik ez zuten agertu. Eta, oraindik hemen gabilta orduko okerrak zuzendu ezinik.

Manterolak, bere kontraekintza hori alderik zuhurrenetik eraman zuen, bake bidez eta kulturgintzaz.

Fr. Michel eta M. J. Sallaberryk egin zituzten kanta bildumen jarraian etorri zen Manterolaren *Cancionero basco*, kanta zahar eta aintzinako euskal poeten lanak bilduz eta argitaratuz. Taxuz bete zuen lan hori, bere denborako poeta euskaldunenak ere gehituz. Bilintxen zenbait lan ere betiko galduko ziren berak jaso ez balitu. Aurkeztean, doinua zutenak pentagramaz jartzeaz gainera, batzutan egileen biografiak ipiniaz eta beti filologia oharrez aberas-tuak edo zenbait aburu erantsiz. Gazteleraazko itzulpena ere jartzen zien eta inoiz frantsezezkoa ere bai.

Garai hartan eta aldi berean, Lapurdiko Urruña eta Saran bazen eskualzale mugimentua; bestalde, Iruñeko Asociación Euskara de Navarra hasia zen lanean eta *Cancionero Basco* baino urte bete geroago sortu zuten *Revista Euskara* (1878-1883); Araban ordea, Fermin Herrán-en inguruan ari ziren; eta, Bilbo aldea ere lo ez zegoela aitortu behar da. Hala ere, euskararentzat Manterolaren ekintza zen probetxuzkoena. R. Becerro de Bengoak hara nola agertu zuen bere iritzia, 1880. urtean, *Irurac-bat* aldizkarian: “Don José Manterola, que con una entereza y un corazón de un gran éuskarro ha repartido, no sólo por los hogares del país, sino por todos los pueblos del mundo civilizado, do quier que hay bibliotecas y librerías, esos albums originales, que contienen las producciones de nuestros poetas, por él traducidas y comentadas con exquisito acierto y esmero y que llevan el sencillo título de *Cancionero Basco!* Las páginas de este libro se devoran, no se leen, por cuantos conocen la lengua de Larramendi y de Garibay, y a través de las estrofas, con la traducción a la vista, tratan de contemplar con creciente curiosidad, los que ignoran el vascuence, a los desconocidos y originales poetas de la apartada tierra. Para todos tiene, en efecto, misterioso y especial atractivo este libro”.

Hemen, euskaldunak harriturik gelditu ziren euskara idatzian hainbeste lan eder ikusteaz eta gainerakoak ere euskarazko literatura errespetu gehiagoz begiratzen hasi ziren. Lastima kanta haiek eskoletan ez erakastea; lastima, benetan, euskaldunoi gure errotikako literaturaren berri haurtzarotik ez emana. Orain, ehun urte igaro ondoren gailtza huts hori zuzendu nahian eta, zoritxarrez, ez borrokarik gabe.

Cancionero basco hura hiru urtez bukatzean beste lan handiago bati oratu zion, bere ekintza guzietatik emankorrena sortuz 1880. urtean: *Euskal-Erria* aldizkaria.

Manterola ohartzen zen kulturgintzaz zeregin handia bete beharrean ginela. Garai hartako idazlerik gehienak aldizkariaren inguruan bildu zituen, eta hura ere ez zen mugatzen Gipuzkoan; Euskal Herriaren zazpi aldeetakoek ez ezik euskalari arrotzek ere beren lanekin parte hartu zuten. Aldizkariaren orrialdeetan orotarik bildu zuen: arkeologia eta historia ikerketetatik, ohitura eta etnografia zein ahozko literatura bilketetatik sorketazko literaturgintzara arte. Gainera, kontu handia izan zuen politika arazoekin nahastu gabe ibiltzeaz, gehiengoaz baliatzearen. Horregatik, bertan idatzi zutenetakoak ditugu, besteak beste: Arzak, A Arana, K. Etxegarai, Otaegi, Arrese eta Beitia, Artolatarrak, Elizanburu, Iraola, S. Baroja, E. M. Azkue, ... euskaraz lanak argitaratu zituztenen artean, eta erdarazkoetan: A. Trueba, Iturralde y Suit, Delmas, P. Egaña, F. Baraibar, F. Sagarminaga, Bonaparte printzea, W. Webster, Julien Vinson, A. d'Abbadie, A. Campion eta abar.

Euskal-Erria aldizkarian gai interesgarri guziek izan zuten lekua, Wentworth Webster-ek aitortu zuenez, gure literaturaz, musikaz, kondairaz, herri jakintzaz eta abar zerbait jakin nahi zutenentzat ezin zela artxibategi hoberik ukan *Euskal-Erria* aldizkaria baino.

Bere lan hori aurrera eroan ahal izateko, egia esan, Antoine d'Abbadie eta Achille Fouquier-ek beren agiritegi eta liburutegiak erabiltzeko atea idekiz aukera guziak eskaini zizkioten. J. Vinson eta L. L. Bonaparte printzearengandik ere agiri eta aholku laguntzak jaso zituen. Egiazki, *RIEV* aldizkaria eta Eusko Ikaskuntzaren sorrerazko aurrerapena izan zen *Euskal-Erria* aldizkaria, euskalari guziak bilduz gure herriari buruzko lanak erarik orokorrenez ematen erakutsi zigunez.

Inguruan langile laguntzaile onak izan bazituen ere, guziak elkartzeko gidaritza erakutsi zigun. Horregatik, bere heriotza geroztik ere frutu onak ematen jarraitu zuen hazia ondo eraginik utzi zuen landarak. Gidaritza onaren ondorioa zen. Iraolak ongi esan zuen Manterolagatik, "gure gidari eta argia". Itxura batean, *Euskal-Erria* aldizkariaren jarraipenak ez zuen izan inolazko eragozpenik bere bidean ihardutzeko. Bere orde, lankide izan zuen Antonio Arzak geldituko zen aldizkariaren arduradun, baina maisuaren hutsunea omenezko liburuaren sarreran agertu zuen: "Negarrak paperean arrastorik utziko balu, ez nuke tinta bearrik itz oek izkribatzeko..." esanaz hasi bai zuen eresi kutsudun hiletazko artikulua hura.

Bazen beste ekintza bat ere *Euskal-Erria* aldizkariaren babespean sortzaile izan zena. Sortzaile ez ezik antolakizunak ere beren lepotik eraman zituen: Euskarazko itz-jostaldien Batzarrea (Consistorio de los Juegos Florales) zeritzana, 1882an programatua. Egia esan, d'Abbadiek sortu zituen Euskal Jaiak (Fiestas euskaras) antzerako zer bait zen, behar bada ez hain garrantzitsua; baina gure gizon burutsua bere eskuz behar bezala gidatu baino lehen hil zen. Honen egitekoa, literatur, musika eta pintura lehiaketetarako deiak.

Idea handiak zituen eta proiektu bat bestearen ondorean emanaz joan zen bere bizitza labur hortan. Herioa hurbil zetorkionik jakin gabe eta presa-ka.

Baina, otoi, eragilez gainera egile ere bazen, aldizkariaren zenbaki guzietan anitz idatzi zuenez. Frutu onik eskaini zigun arlo hortan ere. Bere lan horietatik ezer goraiatzekotan "Apuntes necrológicos" eta "Autógrafo y noticias", "Curiosidades bascongadas" eta "Efemérides basco-nabarras" sailak dira gogoangarriak, Euskal Herriak eman dituen era askotariko pertsonaien berriak eman bai zituen. Euskal idazleetarik toki berezia izan zuten Axular, Mendiburu, Larramendi, Etxeberri Sarakoa, Iparragirre, Pascual Iturriaga eta beste zenbaitek. Horien bizitza eta lanei buruzko berriez gainera ikerketarik ere eskaini zigun. Adibidez, bera izan zen Sor Luisa-ren *Gabon sariak* lehen lehenik Muniberena zen ustea zabaldu zuena.

Euskara idatzian ere ez zen labur gelditu, artikulua eta saio asko idatzi zituenez, beste zenbait itzulpenez gainera, horien artean Teocrito eta Anacreonte griego klasikoetatik. Euskaraz eta gazteleraz, XIX. mendean lehen partetik Donostian egin izan ziren ihauterieri buruz ere idatzi zuen.

Bestalde, sorketazko literatura lanak ere egin zituen eta aipatzekoak dira poema hauek: Itanasia, Amalauduna, Aita Mendiburu, Somaketa, Munduko esamesak, Kantauria eta epika gisa, latinez titulatuz idatzi zuen poema luzea, *Post tenebras spero lucem*.

Manterolaren beste alderdi bat, gure artean ez hain ezaguna, hizlari polemistarena da; bereziki foruen eta euskararen alde nabarmendu zen Donostiako Ateneoan. Garai hartan Joakin Jamar omen zen Ateneo hartatik igaro zen hizlari bizi, argi eta polemikoena; arrazoi bidez apenaz inork menderatzen zuen. Jose Goikoa buru zela mahai-inguru bat eratu omen zuten, euskara bai ala ez, eztabaidatzeko. Mahaikide ziren Jamar, Serafin Baroja, Egoskozabal eta gure Manterola. Publikoaren aurrean haizetu zuen Jamar jaunak: "¿Hasta qué punto es cierto que encierra un gran interés la conservación de la lengua euskara? ¿Hay realmente un interés en conservarla y procede que se hagan serios esfuerzos para ese fin?". Hitzetik hortzerako ihardespénak izan omen ziren Jose Manterolarenak, euskararen garrantzia agertuz eta bere berbizkundearen premia azalduz. Bere argudioak hain arrazoizkoak eta hain zorrotz esanak omen ziren, Ateneoko entzuleen aldetik inoiz ez omen zen jaso halako txalorik.

Gertakari horiek, gaurko gaiak balira bezala agertzen zaizkigu. Euskarra, gure herriaren arima iduritzen zitzaion Manterolari: Hizkuntzaren heriotza eta Euskal Herriarena batean ikusten zuen. Gaur egun ere, askorentzat hala da. Gaurko zoritxarra ordean, idea hori ontzat hartzen dutenek ere, gehiengoan gazteleraz mintzo direla. Ez da erraz igartzekoa euskarak zein duen bere etsairik handiena, bere kontra dagoena ala asmoz alde egonarren ez ikasi eta ez mintza, besteren arazoa balitz bezala jokatzeko duena. Baina, gaur hemen Manterolaren jokabidea interesatzen zaigu.

Manterolaren ikuspegia oso zabala izan zen, ideak argi eta garbi zituen, bere denborako beste euskaltzale batzuk bertsolaria mesprezuki erabiltzen zuten garaian, berak bertsolari saioak antolatzeari eman zion, sariak jarri ere bai, eta beretan epaimahaiko izan. Kultur maila guziak probetxugarritzat zituen, zein *élite*arena hala populuarena, eta euskal literaturak guziak behar zituen.

Bere heriotza uste gabekoa izan zen eta laster zabaldu zen berri beltza Euskal Herriaren zazpi alderdietara. Eragin handia izan zuen. Horren oihartzuna hara nola adieraziz aditzera eman zuen Klaudio Otaegik: "Lapurditikan Ebroraño, aii! tristero dago guzia". Orduko euskaltzale eta abertzaleen bihotzak ilundu ziren, eta bere publikazioetan lankide zirenek galera haren sentipenez, bat-bateko bilduma eskaini zioten. Bilduma hartan bada eresi hunkigarriarik, baita ere bere jokabide zintzoa zorrotz agertzen duenik. Horietako adibide bat Arturo Campion Euskaltzaindiaren sortzaile eta Manterola hil zen urte berean *Gramatica bascongada* publikatu zuenarena dugu. Gaur oraindik ez datorkio hain gaizki eta merezi du hemen irakurtzea; hara zer zioen:

“La manifestación más enérgica de la personalidad de un pueblo, el testimonio más elocuente de la supervivencia de una raza, el instrumento más poderoso de las reivindicaciones nacionales, es el lenguaje: un idioma es una frontera.

Al convertir José Manterola todos los rasgos de su espléndida inteligencia hacia la lengua euskara, fue un gran patriota.

Su nombre fue limpio espejo de los buenos que defienden al país basconavarro y anatema de los villanos que sirven o ayudan a sus perseguidores, o transigen con sus enemigos. ¡Bendito sea!”.

Gainerakoan, omenezko liburu hartan, laudoriorik ez da falta.

1902. urtean, Donostiako kale bati bere izena jarri zitzaion, Baina, euskaltzaleok ahantzirik ez ote dugu eduki?

Berak utzi zigun hilburukorik onena, euskal literaturaren zabalkundez eta indarberritzez *Cancionero basco-z* gainera, *Euskal-Erria* aldizkaria eta honen jarraipena izan ziren. Ordurarte, gure intelektu jendea oso sakabanaturik ibili zen eta bere eraginezko lanetatik datorkigu bilduz eta elkarlanez ari-tzea, ekintza haietarako kideak ondo hezituak jarri zituen. Aldizkariaren zuzendaritzan honako hauek izan ziren, elkarren jarraian: A. Arzak, F. López Alén eta T. Altzaga. Azkenik, bizitza labur hartan aski egin ez balu beza-la, bere paper argitaratu gabeen artean aurkitu ziren, besteak beste, 1877an osatu zuen bilduma interesgarri bat, “Refranes y proverbios”, 1911.ean *Eus-kalerraren Alde* aldizkariak argitaratuko zuena. Nonbait, El Cid Campeador bakarrik ez zen hil eta gero ere batallak irabazi zituen. Kulturazko batalletan behintzat, kontuan hartzekoa dugu Manterolaren lana. Bere heriotza min sen-dagaitza izan bazen ere, RIEV, Eusko Ikaskuntza, eta beste zenbait ekintza-ren bide idekitzaile izan zen eta neurri batean Euskaltzaindiak ere bere partea zor dio.

MANTEROLAREN “CANCIONERO BASCO”

Donostia, 1984-IV-27

Jose Antonio Arana Martija

Juan San Martinek eman digun biografian ikusi dugunez, gazte, 34 urtekin, hil zen Donostian Jose Manterola Beldarrain. Hil zenean oso ezaguna zen eta baieztatzeko ez dago besterik liburu hau ikustea baizik: *Donostian. Manterolari 1884*, omenaldi gisa argitaratua, orduko euskalzaleen izenekin hornitua. Baina *Cancionero Basco* delako bilduma argitaratzen hasi zenean ez zen hain ezaguna, 1877.eko Azaroan ez zuen oraindik gauza askorik argitaratu eman eta.

Sei urte lehenago *Guía manual de Guipuzcoa*, liburu mardul bat, eta zabalkunde handia izan zuena argitara emanda zeukan. Eta Donostian eta inguruan Manterolaren izena zabalarazi zuen 22 urtekin prestatu zuen lehen lan honek. Baina izatez Cancioneroa izan zen Manterolari entzute handia eman zion lana. San Martinek aipatu ditu zehatz eta mehatz Manterolaren lanak eta ez noa berriz zerrendekin zuek aspertzera. Baina bere biografiaren puntu batzu ikutu beharrean aurkitzen naiz, hemen esanda dagoenez, Bibliotekaria ere izan baizen eta, ene ustez, neri dagokit xehetasuntxo hau argitzea. Letren irakasle laguntzailea izan zen Donostiako Institutuan: Profesor Auxiliari de Letras izan zela diote orduko Institutuaren Memoriak, 1879tik aurrerakoak, behintzat. Beraz, Karlsten Gudua bukatuta erasoak sufritu izan bazituen, urte horretan berriz onartua izan zela adierazten digute Institutuko Memoriek. Eta Parisetik Juan Carlos Guerrari egindako gutun batetan, 1880.ean, hala aipatzen dio Manterola adiskideak. Eta Institutuko Irakasle laguntzaile izateak badauka zerikusirik Manterolaren beste lanpostu batekin: Donostiako Udal Bibliotekaren zuzendaritzarekin, noski. Institutuko Irakasle laguntzaileen betebeharra, orduko araudietan agertzen denez, Bibliotekariaren laguntzaile izatea ere zen. Hor dugu ba Manterola Institutuko Bibliotekaren liburuzain orde egina eta hemen egindako lanak zabalduko zion seguraski Udal Bibliotekako bidea. Erakunde honen lehen urratsak Sebastian Miñanok eman zituen, *Diccionario Geográfico de España y Portugal* delakoaren egi-leak, 1840 inguruan. Eta Biblioteka honen lehen zuzendaria Jose Lopez Aizpuru hil zenean, Manterolari eman zioten zuzendaritzako ardura, 1884an hil arte ondo baino hobeto bete zuena. Hau zen nere oraingo lanpostutik esan behar nuena.

Baina Manterolaren *Cancionero Basco* komentatzea da nere gaia eta harira noa zuzen. Gaztetatik hasi zen Manterola euskal kultur alorretan mugitzen eta euskarak ere kezkatzen zuen gure donostiar gaztea. Euskararen alde hiru bilduma osatzen hasi zen, lehena, *Refranes y Proverbios vascongados. Reunidos en colección y ordenados por José Manterola*. Argitaratu gabe utzi zuen lan hau eta gero, 1911.enean, “Euskalerriaren Alde” aldizkariak argitara eman zuen. Bigarren bilduma, euskal deiturena, 1881.ean argitaratu zuen Manterola berak: *Colección alfabética de Apellidos vascongados*. Francisco José Irigoyenek Mexikon 1809an kaleratua hartu zuen Manterolak oinarritzat, Astarloa, Hervás eta beste etimologisten oharrekin gehituz eta berak egindako eranskin eta argibide batzuekin apainduz. Hirugarren bilduma gaur aztertu behar dugun *Cancionero Basco* da. 28 urte zituelarik plaza-ratu zuen Manterolak bilduma honen lehen alea, 1877.eko Azaroaren lehen egunetan.

Euskararen egoera larria askotan salatu zuen Manterolak Donostiako Ateneoan izan ziren mahai inguruetan. Orduan ere egoera sozio-linguistikoa ez zen gure hizkuntzarentzat lagungarria, 1857.eko Hezkuntza Publikoaren Legeak euskara programetatik baztertzen baizuen gaztelaniari lehentasuna emanaz eta bide zabala irikiz. Euskaldunak, katalanak eta galiziatarrak lege horren aurka batzeko eta hizkuntza minoritarioak bultzatzeko proiektu bat asmatu zuen Manterolak. Horregatik burutu zitzaion literaturaren bilduma bat osatzea eta asmo hori betetzeko prestatu zuen 1200 orrialdedun antologia bat, hiru urtetan zehar, 1877.etik 1880 arte hiru liburutan kaleratua.

Cancionero Basco delakoaren hitzaurrea Donostian izenpetzen duenean, hil askotan prestatutako lana dela aitortzen du Manterolak. Prestakuntza honen berri bazekien Angel Allende Salazar jaunak eta hala agertzen digu *Biblioteca del Bascófilo* liburuaren hitzaurrean. 1877an lortu zuen gernikarrak lan honekin Madrideko Biblioteca Nacionalaren saria, nahiz eta hamar urte geroago argitara eman, egilea hil ondoren. Beraz, Manterolak bilduma argitara eman orduko, lanaren berri emanda zeukan Allende Salazarrrek. “En estos momentos —diosku hitzaurrean— un distinguido literato publicará en San Sebastián un cancionero bascongado en que se contengan las mejores poesías de nuestros escritores”. Baina Allende Salazar-en bibliografian ez da Manterolaren Cancioneroari dagokion fitxa bibliografikoa agertzen, bibliografoak ez zeukalako orduan liburua eskuetan. Hurrengo euskal bibliografietan bai agertzen da lan honen fitxa. 1891an argitaratzen du Sorarrainek bere Katalogoa eta aipamena egin ondoren, Antonio de Truebak “Noticiario Bilbaino”n (1878-9-18) esandakoa dakar: “No debía haber en la tierra vasco-navarra un pueblo, ni una corporación que no depositara y conservara religiosamente en su archivo un ejemplar de este libro”. Julien Vinsonek ere aipatzen du Cancioneroa bere Bibliografian eta hemen fitxa hutsa baizik ez badu ematen, lehenago zeukan idatzia Manterolak prestatutako lanaren goramena, “Revue de Linguistique et de Philologie comparée” aldizkarian, 1878an. Arturo Campionek ere, urte berean, bilduma honen laudorioa egin

zuen Iruñeko "Euskara" aldizkarian (Ikus 1878, 3. zenbakia, 54-63 orrialdeak). Londoneko "The Academy" aldizkariak ere hitz beroekin txalotu zuen *Cancionero Basco* delakoaren agerkundea.

Politikoki hil zorian aurkitu zen gure Euskal Herria 1876an eta politika bidetik ez bazuten orduan zereginik ikusten, kultur arloan hasi zen gure berpizkundea. Eta Jose Manterola izan zela honetan aitzindaria esan dezakegu. Berak sortutako *Euskal Erria* izan zen lehen kultur aldizkaria eta *Cancionero Basco* lehen poesiaren antologia. Azter dezagun bada lehena izatetik gainera, ona eta oinarria izan zen bilduma.

Izenburuak hala dio: *Cancionero Basco. Poesías en lengua euskara reunidas en colección, ordenadas en series, y acompañadas de traducciones castellanas, juicios críticos, noticias biográficas de los diversos autores, y observaciones filológicas y gramaticales*. Hasierako plangintzan eskainitakoa bete zuenez, ez da gutxi Manterolak ematen diguna. "Cancionero" hitza erabili zuen Manterolak lanaren atarian eta hitz honen erdal esangurak ematen digu bildumaren mamia: Colección de poesías recogidas de varios autores. Beraz olerkien bilduma bat dugu, edo "colección de canciones", "canción" = composición en verso que se canta o compone a propósito para que se pueda poner en música" delarik. Baina funtsez Manterolaren bilduma literaturaren antologia da. Musika ere ematen digu Manterolak, baina ez dio honi garrantzi handirik ematen, 12 doinu baizik ez baitzikigu aurkezten. Hitzaurrean dioenez, "aquellas poesías líricas más populares serán acompañadas del canto correspondiente, a cuyo efecto se agregarán al fin de cada tomo, y por vía de apéndice, las hojas de música que sean necesarias". Eta egia esan, argitara emandako doinuak, gehienak, orduan eta orain oso ezagunak dira.

Ordurarte argitaratutako hiru bilduma erabili zituen Manterolak esku artean: Francisque Michel-en *Le Pays Basque...*, lehena baina, berak dioskunez, Iparraldeko olerkiak dira bilduma honetan azaltzen direnak eta Hegoaldekoak nahi zituen berak adierazi. Berdin gertatzen zaio Salaberry-ren *Chants Populaires du Pays Basque* delakoarekin. Iturri honetatik zerbait gehiago hartzen du, eta hemen ikus dezakegu Manterolaren asmoa bilduma literario bat egitea zela, testuak baizik ez baititu Salaberryrengandik hartzen, salbuespen bat edo besterekin. Azkenean, Santestebanen *Colección de Aires Vascongados* ere aipatzen du iturritzat, baina ez du aintzakotzat hartzen, "utilísima para la historia de la música popular vascongada (pero que) carece por completo de importancia bajo el aspecto literario" iruditzen zaiolako. Hemen ere agertzen da literaturaren lehentasuna. Zurrusta meheko bildumak ziren ba eskuarteko bildumak, eta biltzeari ekin behar zion berea osatzeko. Eta hori da benetan lanaren balioa, hainbat lan berri argitaratzea. Hau da lanaren egitura:

LEHEN SAILA (1877-1878)

I. Tomoa. 1877, Azaroa. *Amodiozko Kantak*. 99 orrialde.

I.1. *Iparragirre: Nere maitiarentzat* (G).

I.2. *Oihenart: Argia darizanari* (Z).

I.3. *Iztueta: Kontzeziri* (G).

I.4. *Gibert: Andregeia* (L).

I.5. *Bilintx: Juramentuba* (G).

I.6. *Belsunzeko Kondea: Gabazko Kantua* (BN).

Eranskina: Iparragirre, Iztueta eta Giberten doinuak.

II. Tomoa. 1877, Abendua. *Bestelako Kantak*. 99 orrialde.

II.1. *Etxepare: Heuskara, jalgi adi kanpora*. (BN).

II.2. *Serafin Baroja: Ai hau dolorea!* (G).

II.3. *Jose Joakin Ormaetxea: Saphok Phaoni, Oda*. (G).

II.4. *Txori erresinula*.

II.5. *Iparragirre: Nere etorrera lur maitera* (G).

II.6. *Franzisko Manuel Egaña: Agur* (G).

II.7. Beste olerki batzu.

Eranskina: Ai hau dolorea eta Txori erresinularen doinuak.

III. Tomoa. 1878, Urtarrila. *Olerki alai eta satirikoak*. 97 orrialde.

III.1. *Bilintx: Zaldi baten bizitza* (G).

III.2. *Edalen elheak* (BN).

III.3. *Larralde: Mutil zaharra* (L).

III.4. *Meager: Ardoari jarritako hitz neurtuak* (G).

III.5. *Ezkontzako konsultazionea* (BN).

III.6. *Bilintx: Ja-jai!* (G).

III.7. *Ramon Artola: Erariaren bertuteak* (G).

Eranskina: Meager eta Zaldi baten bizitza-ren doinuak.

IV. Tomoa. 1878, Otsaila. *Alegiak*. 97 + XVI + 8 orrialde.

IV.1. *Bonaparte: Ereilearen Parabola* (Euskalkietan).

IV.2. *Esne saltzailea* (G, L, B, Z).

IV.3. *Otsoa eta arkumea* (G, L. Z).

IV.4. *Azeria eta akerra* (G, Z).

IV.5. *Belea eta azeria* (G, L. Z).

IV.6. *Astoa eta txerria* (G, B).

Eranskina: *Hiztegia eta Aurkibidea*.

BIGARREN SAILA (1878)

I. Tomoa. 1878, Apirila. *Bilintxen argitaragabeko bertsoak*. 117 or.

I.1. *Gaztetan jarriak dama bati*.

I.2. *Neskatxa bati mutil batek jarriak*.

I.3. *Izazu nitzaz kupira*.

I.4. *Villegas-en "Al céfiro" antzekoak*.

I.5. *Doloresi*.

I.6. *Bertsolarien gudua*.

I.7. *Hitz-lauzko lanak*.

II. Tomoa. 1878, Maiatza. *Bestelako kantak*. 91 orrialde.

II.1. *Iparragirre: Viva euskera* (G).

II.2. *Salaberri: Zolferinoko ixua* (BN).

II.3. *Elizanburu: Nere etxea, edo Laboraria* (L).

II.4. *Bilintx: Kontzezirentzat* (G).

II.5. *Txorinua kaiolan* (Z).

II.6. *E.M. Azkue: Antxinarik ona!* (B).

II.7. *Eperraren kanta* (G).

II.8. *Bat-batekoa* (G).

II.9. *Kantak* (G).

II.10. *Koplatxu bat* (B).

Eranskina: *Iparragirre, Bilintx eta Txorinua kaiolan-ren doinuak*.

III. Tomoa. 1878 (Ekaina). *Kanta Historikoak*. 93 orrialde.

III.1. *Leloren Kantua*.

III.2. *Altabiskarko kantua*.

III.3. *Beotibarko kantua.*

III.4. *Iparragirre: Gernikako Arbola (G).*

IV. Tomoa, 1878, Uztaila. *Denetariakoak.* 107 orrialde.

IV.1. *Etxepare: Hamar manamenduiak (BN).*

IV.2. *Etxeberri: Iainkoaren manamenduak (L).*

IV.3. *Pouvreau: Iainkoaren manamenduak (L).*

IV.4. *E.M. Azkue: Dies irae, dies illa, euskarazko bertsoan (B).*

IV.5. *Munduko gauzen funts-gabetasuna (L).*

IV.6. *Etxeberri: Noelak (L).*

IV.7. *Jose Bizente Etxegarai: Eguberri kantak (G).*

IV.8. *E.M. Azkue: Gaboneko kantak (B).*

IV.9. *Jose Antonio Uriarte: Neskabila esne saltzailia (B).*

IV.10. *Josefa Bizenta Mogel: Otsoa ta bildotsa (B).*

IV.11. *Josefa Bizenta Mogel: Belea ta aizeria (B).*

IV.12. *Antonio de Trueba: Hiru lan Manterolak itzuliak (G).*

HIRUGARREN SAILA (1880)

Tomo bakarra. 467 orrialde.

Hitzaurrea.

Algunas observaciones sobre ortografía euskara.

Artzaina ta bere gaznak (L).

Arana, Aita Jose Inazio (G)

1. *Hamarrekoak.*

2. *Zortziko haundi bat.*

3. *Lope zanaren zortzikoa hamarrekoan.*

4. *Juan Sebastian Elkano getariatar jaunari, mundua jirabiratzten.*

5. *Gurutzearen garaitupena euskaldunakin Nabas-en.*

Arrese-Beitia, Felipe (B)

1. *Ama euskeriari azken agurrak.*

Artola, Ramon (G)

1. *Egunsentia.*
2. *Ilunabarra.*

Arzak Alberdi, Antonio (G)

1. *Azken agurrak gure etsiagoari.*

Azkue, Eusebio Maria (B)

1. *Apolo eta musak.*
2. *Saguak eta katua.*
3. *Astoak arrantsia.*
4. *Emakumian sendotasuna.*
5. *Gizonkeria eta gizontasuna.*
6. *Ziri bertsoak.*
7. *Ave maris Stella.*

Baroja, Serafin (G)

1. *Ziri-bertsoak.*
2. *Arrats izugarria.*

Berjes de Sara, Joannes (L)

1. *Artzaingoa.*

Bizkarrondo, Indalezio "Bilintx" (G)

1. *Loriak.*
2. *Beti zutaz pentsatzen.*

Dibarrart, Pierre (L)

1. *Txinaurria eta txoria.*

Elizanburu, Jean Baptiste (L)

1. *Maria.*
2. *Aingeru bati.*

Guilbeau, Martin (L)

1. *Laborariaren doatsutasuna.*

Iturriaga, Agustin (G)

1. *Alegi argitaragabeak.*
2. *Artzai koplak (Bergiliren I. Egloga).*
3. *Koplarien tema Palemon Juez dutela (Bergiliren III. Egloga).*

Mendibil, M.P. (L)

1. *Artzain dohatsua.*

Otaegi, Klaudio (G)

1. *Silbiaren heriotzan. (Arolasen itzulpena).*
2. *Jesukristoren igoeran edo igandean (Fray Luis de Leon, itzulpena).*
3. *Kanpoko bizitza (Fray Luis de Leon, itzulpena).*
4. *Itxia egondu zan presondegian (Fray Luis de Leon, itzulpena).*

Sor Juana Ines de la Cruz

1. *Arantzazuko Amabirginari Kantua.*

Sueskun, Migel (G)

1. *Lope zanaren sortzikoa.*

Uriarte, Jose Antonio (B)

1. *Alegi argitaragabeak.*

Eranskinak

1. Tomo honetan agertzen diren hitz guztien Hiztegia, euskara-gaztelania-frantsesa.

2. Elizanbururen kanta bien doinuak.

3. Aurkibideak gaika, egileka eta euskalkika.

Parkatuko didagute hain zehazki Manterolak argitaratu zituen lanak zerrendatzea. Baina beharrezkoa zela uste izan dut bi arrazoi gatik: bata, hiru sail edo liburuen mamia ezaugarazteko eta donostiar honek burutu zuen lanak zeukan garrantzia azaltzeko; eta bestea, eta hau da neretzat arrazoirik aipagarriena, inork ez duela, nik dakidanik behintzat, lan hau behar den bezala orraztu eta eskuartean erabilten ditugun bibliografietan ez direla egileen lanak banan banan aipatzen. Jon Bilbaoren Euskal Bibliografian, esaterako, ez dira aipatzen, egileka, Manterolak argitaratu zituen lanak. Beraz, gure literatura aztertzeke beharrezkoa da hemen emandako zerrenda, inon agertzen ez diren aipamen bibliografikoak edukitzeko.

Adibide batzu emango ditut. Ezpeletako Edmond Giberten *Andregaia* ez du Jon Bilbaok aipatzen idazle honen lanen artean. Eta doinu ta guzti dakar Manterolak. “Intxauspeko alaba” kantatzeko erabiltzen den doinua da Gibertena, Sebero Altubek ederki harmonizatu zuena. Jose Joakin Ormaetxea ezezaguna da gure idazleen artean eta bere *Saphok Phaoni*, *Oda* ez da inon agertzen. Lersundi Generalaren osaba omen zen Ormaetxea jauna. *Edalen elheak* ere ez da inon argitaratzen ez bibliografietan aipatzen. Larralderen *Mutil zaharra* aipatzen du Jon Bilbaok, baina 1864.eko argitalpena, Sarako Euskal Jaietan egindakoa, oso arraroa oker ez banago. Iruñeko “Euskara” aldizkarian ere argitaratu zela dio Jon Bilbaok; baina ez dio lehenago eman zuela ezagutzera Manterolak. Erramon Artolaren *Erariaren bertuteak* lana ez du aipatzen Jon Bilbaok. Bonaparte Printzearen *Erailearen Parabola* Londonen argitaratu zen 1878.eko lehen egunetan eta argitalpen hau aipatzen du Jon Bilbaok. Baina ez du esaten —eta Bonaparteren bibliografia osatzeko beharrezkoa dela, nik uste— 1878an, Otsaileko alean, argitaratu zuela Manterolak Londoneko argitalpen originala oraindik bero zegoelarik.

Eta nork daki Iturriaga, Goietxe, Iza, Artxu, Zalduby (Hergarayen ize-nordearekin), Baroja, Juan Antonio eta Bizenta Mogel, eta Jose Antonio Uriartek idatzitako alegien itzulpenak argitaratu zituela Manterolak? Etabar, etabar. Sarritan lehen argitalpena, eta batzuetan orain arte daukagun bakarra eman zigun Manterolak. Eta hau jakin behar den gauza da. Horra hor nere xehetasunen arrazoa.

1877.eko Azarotik 1878.eko Uztailerarte eten gabe lanean jarraitu zuen Manterolak lehen bi sailak edo liburuak argitaratzeko. Juan Oses izan zen lehen bi tomo hauen inprimatzailea, *Diario de San Sebastian* egunkaria inprimatzen zuen berbera. Bi lehen liburu hauetako musika grabauak Enbeltran kalean zegoen Arrietaren Litografiak egin zizkion. Hirugarren liburua 1880an argitaratu zen, bigarrena bukatu eta urte terdi geroago, Barojaren moldiztegian inprimatuta. Musika grabauak Ordozgoitiren Litografian egin zituen. Lehen aldiko bi liburuak *Cancionero Vasco* dute izenburutzat eta hirugarrenak *Cancionero Basco*. Hirugarren liburu honetan lehen “vasco” eta “vascongado” idazten zirenak orain “basco” eta “bascongado” bihurtzen dira. Ezin zuen besterik egin Manterolak Ortografiari buruz bertan dioenaz ados etortzeko. Ortografia baturako ematen dituen arauetan dakar Manterolak Akademia baten faltaren arrenkura. Hara zer dioskun hirugarren liburu horren XIII. orrialdean:


La falta de una Academia que regulara la parte material de la escritura, la carencia de cátedras... ha sido la causa de la lamentable confusión que ha existido y existe todavía respecto a la ortografía euskara.

Hogeitalau urte lehenago salaketa berdina zeukan eginda Aizkibelek. Aizkibeldarrekin harreman estuak izan zituen Manterolak. Udal Bibliotekaren zuzendaritza hartu zuenean, Aizkibelen liburu guztiak bertara ekartzea lortu zuen Manterolak 1878.eko Martxoan. Biblioteka honetan ezagutu zuen

Manterolak Jose Maria Iparragirre bertsolaria, Ameriketatik etorri ondoren bertan azaltzen baitzen irakurle artean. Eta Iparragirreraren bertso batzuekin iriki zuen Cancionero-ren lehen tomoa, *Nere maitiarentzat* testu eta doinuaz emanaz. Baina Santestebanen doinuarekin ematen digu bertso hau



eta ez Iparragirrek berak kantatzen zuen eta geroztik hain ezaguna egin den beste honekin:



Iparragirrerena beste hiru bertso ematen dizkigu Manterolak, bi doinurik gabe, *Gernikako Arbola* eta *Nere etorrera lur maitera*, eta hirugarrena doinuarekin, *Viva euskera!*, Aizkibel jaunari zuzendua. Bigarrenari dagokion doinua delata esan behar da Euskal Herri guztian oso ezaguna dela honako hau



baina Azkuek dioskunez ("Euskalduna" 1896-9-20) Iparragirrek erabilten zuena beste hau izan zela



Manterolaren Cancioneroan agertzen diren doinuak aipatzen gabiltza-nez gero, eta nere txosten hau hain aspergarri izan ez dadin, beste pare bat bakarrik komentatu nahi nituzke. Lehen Aita Domingo Patrizio Meagher-ek (1703-1772) *Ardoari jarritako hitz neurtuak*. Hamazortzigarren mendearen erdi inguruan Meagher-ek jarritako bertsoa hala kantatzen zen orduan eta hala jarri zigun Manterolak:




Badauka doinu honek bere historitxoa gure ahozko literaturan. Julio de Urquijok dioskunez (EEA, 1913, 78 orr.) Bonaparteren paperen artean Xabier Maria Muniberen *El borracho burlado* operaren doinu zati bat aurkitu zuen, Txanton Garroteren "Canzoneta" hain zuzen




Ai niri ~~za~~ egin ote zat



adnez i biltzen aztu zat




bu rua jasq_e zindet



lurra e dira_ezindet




triste dut biotza guztiz



e dan dezadane a berriz

Doinuak berdinak direla ezin uka eta gaia ere berdina dela esan behar. Baina norena da doinua, Meagher-ena ala Muniberena? Urquijok Muniberen alde jotzen du, baina nik esango nuke josulaguna dela honetan lehena. Peña-floridako Kondeak 1764an bere opera antzeztu zuenean, 61 urte zituen Meagher-ek eta ordurako aspalditik Ardoari bertsoak jarriak zirela sinistu beharko genuke.

Baina urteak joan eta etorri, doinu hau aldatzen joan zen herriaren ahoan eta bertsolarien artean ere, eta hara nola geratu zen Xenpelarren bertsoetan



I a gu ri ak e gin du
 bade gu zeinek agin du
 ez oraindak umil du
 elkarregana bildu
 gerranaiduen gu zi a
 berari kendu m zi a

Azkenerrako utzi dut bertsolaritzan kantatzen den doinu berezi bat, *Esne saltzailearena*. Nondik datorkigu bertso neurri hau eta berari dagokion doinua? Manterolak, lehen Saileko IV. tomoan, eman zigun Agustin Paskual Iturriagak La Fontaineren *La laitière et le pot au lait* alegia itzuli zuena. Doiturik ez digu Manterolak ematen, baina denok ezagutzen dugun hau da, Iturriagaren lehen bertsoa erabiliez



Neska txa bat ziho -an
 Plazara neguan
 eskuan txintxila ta
 kaikua buruan.
 Gorputz liraina zuen
 gerria txit meha
 ilea erperaino
 urre kolorea.

1840an idatzi bazuen Iturriagak alegi honen itzulpena, badakigu noiztik datorkigun bertsolarien doinu berezi eta eder hau.

Beste doinu batzu ere ematen dizkigu Manterolak Cancioneroan:

— Serafin Barojaren *Ai hau dolorea* bertsoei Mariano Zuaznabar jaunak jarritako doinua.

— Salaberryren bildumatik hartutako *Txori erresinula*.

— Bilintxen *Zaldi baten bizitza* bertsoei Santestebanek jarritako doinua.

— Bilintxen *Kontxesirentzat* bertsoei Santesteban berak jarritako doinua.

— Salaberryren bildumatik hartutako *Txorinua kaiolan*.

— Elizanbururen *Maria* eta *Aingeru bati* dagozkien doinuak.

— Iztuetaren *Kontxesi* bertsoen doinua.

Iturriagaren lanak biltzen zebilenean, Hernaniko Kanposantua ikustera joan zen Manterola eta ez dut uste orduan pentsatuko zuenik, hain gazte zelarrik, laster beteko zela beregan Agustin Paskual Iturriagak han jarritako epitafioa:

Laster esango da zuengatik
esaten oi dana orain gugatik:
Ill ziran!

Eta Manterola hil zenean, musikarekin eman zioten agurra donostiarrek, hain zuzen, Felipe Gorritik hiletetarako musikatu zuen *Marcha Funebre* batekin. Orain duela ehun urte.

JOSE MANTEROLAREN OMENEZ

Donostia, 1984-IV-27

Josemari Vélaz de Mendizabal

Jaunok:

Gaur urtebete, oso oker ez banago, Gasteizen egiten zuen Euskaltzaindiak bilera hango Diputazioan. Egun haundia neretzat, bertan Euskaltzain urgazlearen titulua eskuratu bait nuen. Egun hartan arabar baten omenaldia ospatzen genuen, Juan Bautista Gamiz-ena hain zuzen, eta Euskaltzaindiak euskara goratu nahian ihardundako gizon bat omendu —eskertu— nahi zuen.

Gaurkoan, berriz, Jose Manterolaren mendeurrena ospatu nahi dugu, eta honela beste aukera bat ematen diogu *herri gizon* bati, bere nolakotasunak zeintzu izan diren denok ezagutu dezagun.

Plazaratu egiten ditugu gure gizonak eta horixe da garrantzitsuena, ene ustez, era honetan bideak zeintzu izan diren eta jorrocketak nolakoak egin dituzten garbi gera baitaiteke. Nahiz eta, Juanitok esan bezala ehun urte edo gehiago emanda gero egin...

Eusko Jaurlaritzaren izenean mintzatzen ari natzaizuelarik, eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari. Berak dagien lana eta esfortzua eskergarria baita.

Legealdi berri baten aurrean aurkitzen gara. Datozen urteetan Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak eskutik joan beharko dute gure hizkuntzak dituen arazo eta zailtasunetik garaile irten ahal izateko.

Ez dugu ahaztu behar bi Erakunde hauen helburuetan euskararen bizi-tza aurkitzen denik. Euskaltzaindiak euskara aukeratu zuen eginkizun bere sorreratik. Eusko Jaurlaritzak orohar, Euskal Herria du xede. Eta denok dakigun bezalaxe, ez dago Euskal Herririk euskararik gabe. Eta honetan, gure aldetik behintzat, ez dago zalantzarik Euskararen garapenak kezkatzen gaitu, bertako enpresan ahalegin guztiak gutxi direlarik. Baina fedeak (itxaropenak) zutik dirau, gure Herri honetan esperantza guztia baitugu ipinita.

Baina indarrak batu eta zuzendu beharrean aurkitzen gara. Alperrik saiaturiko gara nork bere bidea aukeratuz gero. Ezinbestekoa zaigu elkarrekin

ibiltzea eta, horretarako, gaur arteko urratsak estuagotu behar ditugula ustedut, indarrean haz daitezen.

Gure Herriak lehenago inoiz bizi ez izandako uneak ditugu gaurregunekoak; politik agintaritza —boterea— tinkatzen ari zaigu. Berezko egiturak zaizkigu nagusitzen ari, gureari berezko Herri baten mamia eskeintzen ari gatzazkiolarik. Eta, ez ahaztu, Euskadik euskara behar du Euskal Herria izateko.

Beraz, jarrai dezagun gurea den hizkuntza honi ahalik eta bitartekorik egokienak ematen.

JEAN SAINT PIERRE
“ANXUBERRO”ren OMENEZ

Milafranga, 1984-VI-24

SAINT PIERRE APEZPIKU EUSKALTZALEA

Milafranga, 1984-VI-24

Beñat Larramendi, Milafrangako Auzapeza

Aita Villasante,

Jaun euskaltzainak,

Jaunak eta andereak,

herri guziaren izenean, bai eta herri gizonen eta ene izenean dautzuet deneri: “Agur, agur-t-erdi, Ongi etorri eta Milesker!”.

“Ongi etorri!” zueri, Milafrangako herri huntarat lehen aldikotz heldu zireztener. “Milesker!” euskaltzain guzier zuen artarentzat herri huntako seme baten ohoratzeko.

Joanes Saint Pierre apezpikua nor zen edo zer zen, nik baino talendu gehiagorekin segur norbaitek aterako du: Gizon horren bizia zer izan den eta bereziki zer egin duen euskararentzat erranen, bainan ez nuke atxiki nahi enetzat eta aipatu gabe utzi, hemen gure aitzinean ditugula Saint Pierre apezpiku horren iloba garbiak.

Joanes Saint Pierre-n anaia zaharrenak Piarres zuen izena eta haren alaba Marie Jeanne, hameka haurretarik zaharrena hemen dugu: Berak bere hameka haurrak eta “assistance publique” delakoaren beste bi altxatu ditu.

Bertze anaia bat, mutikoetan hirugarrena, Joxep deitzen zuten. Gazterik joan zen Kanada-rat eta handik itzuli-ta ezkondu Legarre-rat. Honen alaba, hemen behar zena, ezkontzaz etxen gelditu da, bainan hemen dugun Marceline-k Joxep hori bera' zuen aitagarreba.

Mutikoetan azken aintzinekoa zen Janbattist, bertze ainitz Euskaldun bezala, hamazazpi urtetan urez haindirar, Chile-rat joan zena. Han frantses batekin ezkondu eta familiaturik, 1935 ean itzuli zen Milafranga-ko xoko maite huntarat eta ohantze berria egin zuen “Iguzki-mendi” etxean: Elisabeth eta Adrienne, haren bi alabak hemen ditugu.

1884.eko martxoaren 28.an Etxelekua deitu etxean sortu zen omen Joanes Saint Pierre apezpikua. Duela hogoi-ta-bortz urte, Baxenabarre-tik jin nitzelarik bizitzera Lapurdi-ko xoko huntarat, ene auzo auzoan ziren lau

murru zahar eta jakin nuen hori zela apezpiku zenaren sortetxea. Ez nuen usteko egun batez gizon handi, argi, euskaldun garbi, bertute handiko horren goresmena egiteko kargua!

1949.ko urriaren 21.ean, orai duela hogoi-ta-hamabortz urte, gure herri-tarra hautatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain bezala. Ez zuen harek ere pentsatzen egun batez Euskaltzaindia bilduko zela hain maite zuen Milafrangan, Etxelekuko, Argizabaleko, Tipieneko etxe itzuli horietan!

Atzo zen Jondoni Joani, Joanes Saint Pierre-n besta.

Egun Besta-berri: Euskal Herriko herri ta herrixka guzietan ba da Milafrangan bezala, kantu, soinu, atabalari, Sakramendu Sainduaren ohoretan.

Kantu, soinu eta atabal horiek izan ditela Milafrangarren ezagutza, goresmena eta agurra, duela ehun urte Etxelekuan sortu zen Joanes Saint Pie-rrentzat!

JEAN SAINT PIERRE JAUN APEZPIKUAREN MENDEBURUA

Milafrangan, 1984, Ekainak 24

Fr. L. Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Milafrangako jaun auzapeza Larramendi jauna eta Milafrangako herri-tarrak

Euskaltzaindiko jaunak

Hainbeste tokitarik etorritako jaun-andreak:

Ene lehen hitzak zuretzat izan bitez, Milafrangako auzapez zaren horrentzat, eta Milafrangako herriarentzat, Euskaltzaindiari hain ongi etorri amultsua egin diozutelakotz. Lorientz ikusten dugu egun Milafrangako herria, herriko seme famatu baten mendeburua baitu ospatzen. Saint-Pierre jaunak anitz titulu bereganatu ditu haren oroitzapena egin dezagun. Eliz gizon zelarik, hainbeste eginbide eta kargu bete zituen: apez, misionista, Seminarioko irakasle, kalonje, Apezpikute giko idazkari eta azkenik Apezpiku izateraino.

Baina Euskaltzaindiak, zor duen bezala, Saint-Pierre jaunaren nortasun joria ikusalde batetik hartuko du batipat, besteak ukatu gabe: euskaltzale suharra zela, eta euskararen alde burutu zuen lan gaitza.

Badakizue zer den eta zertarako den Euskaltzaindia. Euskararen Akademia da; euskara begiratzeko eta lantzeko ezarriarik den batasuna; eta batasun honek euskara hedatzen den leku guztietara euskararen arrangura eta grina hedatu nahi du.

Mitxelena jaunak behin esan zuen egungo euskaldunoi geure arbasoek zama handiegia, pisuegia utzi zigutela. Bai. Euskara zinezko kultura baten tresna zalu eta trebe bilaka dadin, lan gaitza egiteko dago, dena edo ia dena egiteko dago oraino. Lan hori bultzatzeko eta aitzinatze sortu zen Euskaltzaindia, eta horretan da. Baina berak bakarrik guti dezake. Euskaldun guztien laguntza eta atxikimendua nahi eta behar du.

Euskararen Akademia hau 1919. urtean sortu zen. Eta sortze egunetik beretik Saint-Pierre jauna euskaltzain urgazle izendatua izan zen, esan nahi

baita, “membre correspondant”. Horrek adierazten digu garbikienik zenbataraino zen ezaguna eta aitortua garai hartan Saint-Pierre jaunaren euskaltzaletasuna. Baina euskaltzale bezala burutu zuen lana xeheki aztertzen ez naiz hasiko. Bada hemen eginbide hori nik baino hobeki bete dezakeenik.

Hemen, Milafranga Lapurdikoan, sortu zen duela ehun urte. Bi ibairen artean kokaturik delakotz, berak “Mesopotamia” deitzen zuen eskualde xarmant honetan. Hemen sortu eta hazi, nahiz eta gero bere sorterritik urrun ere bere eginbideak beteko dituen, azkenik hiltzera berriz sorterrira etorritz.

Saint-Pierre jauna hil zenean, *Gure Herria* aldizkariak —zeinen sortzailetarik bat izan baitzen— zenbaki berezi bat eskaini zion. Zenbaki horretan Lafitte jaunak badu artikulua eta bertan hara zer-nolako aitormena egiten duen: Saint-Pierre jaunari, Seminarioko irakasle zenean, kaskoan sartu omen zitzaion, ez dakigu nondik eta nola eta zergatik, mutiko hark euskara behar zuela arras ikasi eta bereganatu, eta hainbat entseatu eta tematu zen, non azkenean bere xedea ardietsi baitzuen, eta nola ardietsi, gero! Bete-betea eta mukurruki. Besterik egin ez balu ere Saint-Pierre jaunak Lafitteren euskal bokazionea biztu baizen, ongi merezia zukeen egungo omaia.

Euskaltzaindiak honelako paradak baliatzen ditu euskararen amodioa eta grina buru-bihotzetan sustatzeko. Ongi daki mintzaira honek guztion sostengua eta laguntza behar duela, iraungo baldin badu. Zinez, obra handia da euskararen salbamenduko obra, eta guztien lankidegoa galdegiten duena: guraso, ikasle, irakasle, apez, kazetari, idazle, bertsulari, koblakari. Baditugu mirailak. Horietako bat Saint-Pierre jauna, Milafrangako semea. Badugu non ikas.

Baina hemen nahi dut gauza bat garbi utzi, eta da: euskararen aldeko gure lana ez doala nehoren kontra, ez duela deus ikustekorik bortizkeriarekin, nahasmenduekin. Ez. Ez gara ere politikaz ari. Euskara da gure politika bakarra. Euskaldunak beren mintzairari atxikiak izan daitezten lan egin: horra. Euskal Herri honek bere nortasuna gorde dezan bideak apailatu, baina bakezko bideak. Gure herri honi arrazoiak eta bideak erakutsi nahi dizkiogu, arbasoengandik hartu duen hizkuntza bizirik atxiki eta ondokoei pasa dezan. Euskal nortasunari eta kultura propioari leial egon dadin. Hori da guztia. Hori da gure programa, eta ez besterik.

Aitzineko egunetan Euskaltzaindia, eta bereziki Dialektologiazko komisiunea, Uztaritzen lanean izana da, obra handi bat, Euskararen Atlasa, apailatzen. Kaskoinek egina dute beren mintzairaren Atlas; euskaldunek, aldiz, egin gabe dugu geurea. Uste dugu euskara den bezala, bere hedadura guztian ezagutzeko, tresna guztiz baliosa izango dela Atlas delako hori. Baina honelako lan handia behar bezala burutzeko, aitzinetik eta arduraz gauza asko apailatu behar dira, eta, hain zuzen, pretagailu horiek egiteko izan dira Uztaritzeko lan-egunak. Baina Uztaritzeko ihardukitze horietaz xehekiago mintzatuko da ene ondoko mintzaria.

Eni ez zait besterik gelditzen Milafrangako auzapez Larramendi jaunari eta Milafrangako herriari berriz eskerrak ematea baizen.

NOR ZEN MGR SAINT PIERRE

Milafranga, 1984-VI-24

Piarres Lafitte

Egun ospatzen dugun euskaltzale handiak ere idazlanetan hiru izen erabili ditu: *Jean Saint Pierre*, *Joastipi Etxeleku* eta *Antxuberro*.

Milafranga *Etxelekuan* bizi ziren *Jean Saint Pierre* eta *Catherine Antxuberro* senar-emazteak. Laborariak ziren. Izan zituzten bederatzi haur: lau alaba eta bortz seme. Egun omendatzen duguna zortzigarrena zen. Sortu zen 1884 eko martxoaren 28 an, duela beraz ehun urte. Herriko etxean aitaren izen deiturak eman ziozkaten: *Jean Saint Pierre*. Bainan etxen euskaraz *Joastipi* deitzen zuten edo laburkiago *Papiti*.

Muttiko erne eta hartze onekoa atera zen. Bere lehen eskolak aitasorekin egin zituen, ezen aitaso horrek zahartu-eta ere, zerbaitetako on izan nahiz, auzoko haurrak biltzen zituen, katiximarekin batean erakasten ziotela euskaraz irakurtzen eta izkiriatzen.

Geroxago Marty izeneko bikarioak Joastipiri erakatsiko zion frantses eta latin poxi bat. Schlegel jaun errektorak beretter hartu zuen eta haurrak salatu zion apeztu nahi zuela.

Etxeakoak ez ziren batere harritu: jadanik seme zaharrenetarik bat trapista edo beneditano xurietan sartua zitzaioten eta alaba bat Afrikako serora xurietan: hau ondoko urtetan bere kongregazione guziko lehen buru hautatua izan baitzen, ez zitaken nor nahi.

Zer nahi den, Joastipi Larresoroko semenario ttipirat igorri zuten, bortzgarrenetik hasteko, 12 urtetan. Milafrangako larretan libro ibiltzen usatua, lanak ukan zituen ezin etxekotuz. Kaperan ixil egoitea onartzen zuen, baina ezin jasan zezaken eskolan, lotegian, jateko lekuan mintzatu gabe egoitea. Letzionen ikasteko, beharriak tapaturik, etxean bezala, orroaz errepikatzen zituen ikasgaiak, bazterrak airean zauzkala. Erakasle batzu etsituxeak ziren, ez jakinez zer egin pottoka hezgaiz hortarik. Abbadie superiorari aldiz manera horiek nortasun baten markak baizik etzitzaiatzon eta artetan, aitzakiak aitzaki, Etxelekurat igortzen zuen sort-herriko airearen hartzerat. Emeki emeki Joastipik semenarioko arak hartu zituen eta bere eskolako lehena jalgai ikasgai guzietan.

Gehientasun hortaz ez zen batere hartua, eta lagunak ez zitzaizkon aihertzen: denekin adiskide, nor nahirekin ari zen jostatzen ala pilotan, ala musean, eta superiorak nahiantak galdatzen zituelarik lur laneko, hura ere hor zuten, haintzurra eskuan, beti alegera.

Egun batez superiorak erran zion Saint Pierre gazteari: “*Beltxiño!* (izen goiti hori emana zion) nahi nauka hargintzan lagundu?”.

“—Bai gogotik, Jauna!

“—Milesker! Habil tresnategirat, hor atxemanen dituk eskorgak, pala, gisua, hots! mortero egiteko guziak. Ni banioak etxe gibelesko murru hartarat.”

Beltxiño badoa tresnategirat, zaku batetarik ixurtzen du eskorgetarat saka ahal gisu, pala emaiten du gainetik eta superioraren ganat eremaiten du guzia. Abbadie jaunaren harritzea!

“—Bainan, mutikoa, hori duka morteroa? Gisu idorrek neholaz ere ez ditik murruko harriak elgarri lotuko. Habil gisu horren ureztatzerat!”.

Mutikoa jua da eta gisua urez itotzen du, ahia bezalako zerbait baitu eskorgetan. Berriz hona non mutikoa heldu den nagusiaren ganat. Hurbiltzen zaio eta alegia urrats faltsu bat eginik, uzkailezen dio talasta bat mortero zangoetarat.

Gizonak erraiten dio garrazki: “Ehuena kasu emaiten ahal?” Eta badoa ahurtara bat belarrekin bere eskalapoinen xukatzerat.

Itzultzean hor du apendiz, burua apal, iduri urrikitua, eta erraiten dio

“—Kontent nuk: ikusten diat ihaurrek ikusten dukala zenbatetaraino ergel haizan!”.

Saint Pierre-k berak kondatua daut ixtorioxka hori.

18 urtetan bakalorea airez-aire iragan zuen eta semenarioko ikasle hoberearen saria ukan zuen.

1902 ko udazkenean sartu zen Baionako apezgaitegi handian, eta errex-tasun handirekin jarraiki horko ikas-ekai guzietan.

1906 ean, prefetaren manuz batallun bat soldado etorri ziren Baionako Semenari handirat eta fueratu zituzten apezgai guzietan. Gobernua jabetu zen etxeaz eta hari zatxizkon lurrez.

Jaun apezpikuak Saint Pierre igorri zuen Tolosarat grado baten biltze-rat: zortzi hilabeteren buruan letrazko lizentzia sakelan zuen, Unibertsitateak emanik.

1908 ko irailaren 13 an apeztua izan zen Baionako apezpikuaren kape-ran eta ari izan zen Erroman teologiaren sakontzen. Bi urterik barne lizen-tziadura eta doktorgoa bildu zituen.

1910 ean, Erromatik lekora, Baiona ttipiko bikario izendatua da eta hasten da apez lanetan, kartsu kartsua, kateximaz eta gaztez arta hartzen duela eta, bere lehen predikuez jendea loriatzen duela.

1912 ko uztailean huna non misionest kargua emaiten zaion. Apeztegi-tan ekartzen du amore ona eta girixtinoek ez dute aski ahorik haren euskaraz-ko predikuen goresteko. Harekin kofesatzen direnek aipatu dute haren konseiluen zuhurtzia.

1914 ko otsailaren 20 ean, Nay-ko Seminario handirat deitua da, morala erakasle eta apezgaien kontseilari. Denbora berean haren gain daude predikatzen erakastea eta soziologi-auzien berri emaita. Apezgaiak alegeratu ziren aire fresko bat ekartzen ziotela.

Zorigaitzez, agorril hastean, gerla handia piztu zen, eta gure apezari behartu zitzaion armadako eriketari bilakatzea, kolpatuen biltzeko eta hospitalerarat eremaiteko. Gudukariekin bizi zen lanjer handian, bi aldiz tiroz zautua izan zen, eta aita familiako baten orde joan zen behin, etsaien lerroeri hurbil, lagun sastakatu batzuen bila, Alemanen xixpek debekatu nahi zutelarik. Aipamen ederrak egin ziozkaten aintzindari frantsesek eta gerlako kuru-zea ere eman.

Hiriart-Urruty kalonje famatuak otoizturik, Saint Pierre orduan hasi zen Baionako *Eskualduna* izeneko astekariaren berriketari bezala, euskaraz izkiri-riatzen. Ene gustuko, gudu lekuetarik igortzen zituen artikuluen bilduma ez da haren obretarik mendrena. Hartze luke ikertze berezi bat.

1918 ko martxoaren 28 an Saint Pierre serjanta, Montdidier hiriari hurbil, berriz ere kolpatua izan zen eta Alemanek presoner hartu zuten. Eritegi batean atera zioten aztagainean sartua zitzaion bala eta apezgai presoneren buruzagi eman zuten Limburg-en. Hor irakurri zituen lehen aldikotz Schuchardt-en euskal ixtudioak.

1918 ko azaroaren 11 an, Alemanek amor eman bezain laster, presonek beren kurutze eta medailak prestatu ziozkaten Saint Pierre serjantari eta, papoa xingola horietaz apaindurik, Limburg-eko aitzindari aleman lehenari joan zitzaion trein bat galdeginez, Frantziarat lehen —bai— lehen sartzeko. Ardietsi zuen eta Limburg-aldean ziren presonerak berehala beren etxetarat itzuli ziren.

Baionako apezpikuak ideki-arazi zuen bere hirian eraikia zuen Semenario berria eta Saint Pierre harat bildu zen 1919 ko Bazko biharamunean.

Nik han ezagutu dut eta harek sustatu ninduen euskararen ikasterat, orduan eta geroztik ere; eskerrik handienak zor baitauzkiot. Nitaz bertze apezgai hainitz akulatu zituen euskaraz izkiriaterat, hala nola Leon, Arotzarena, Picochet, Lompageu, Landetxeberri, Aranart, Soubelet, Gréciet, Lanouguère eta abar...

Berak ere, bere teologo lanen artetik ez zuen euskalzale lana baztertzen. Euskaldunen historia euskaraz nahi zuen izkiriatu eta hortarako ekaiak biltzen ari zituen. Aire hartzerat ortzegunetan gidatzen gintuelarik aipatzen zauzkun bere aurkiberriak eta loriaturik beha gindauzkion.

Zorigaitzez Jaun apezpikuak kendu zaukun eta diosesari buruzko zerna-hi karguz ito zuen, *Eskualduna* kazeta ere haren gain utzia izan baitzen 1925 ean.

1929 an Frantzia guziko *Eukaristiaren Biltzarra* egin baitzen Baionan, hura zuten ezarri ororen kudeatzaile eta berriketari. Hain ederki ereman zuen bere lana, non Mgr Lemaître Kartago-ko artxapezpikuak galdatu baitzuen bere apezpiku laguntzat.

Ondoko udaberrian Erromatik jin zitzaion Baionako apezpikuari gutun bat, erran zezon sekretuki Saint Pierre kalonjeari laster izanen zela apezpiku izendatua.

Mgr Gieure-k Saint Pierre gaizoari komisionea egin zionean, hau zuri-zuria jarri zen eta atera zituen lehen hitzak hauk izan ziren: "*Kaka zaharra! Je ne suis pas fait du tout pour cela, Monseigneur!*". Apezpikuak ihardetsi zion: "*Ne vous fâchez pas, mon ami! Après tout, ce n'est pas un deshonneur d'être évêque!...*" Zer nahi den, 1930 eko ekainaren 5 ean, Baionan, handi-enean, apezpiku ordenatu izan zen eta Kartago-rat joan. Hiruzpalau urteren buruan artxapezpikua hoztu zitzaion eta ez zion lanik kasik deus emaiten.

Handik permisionez jin zitzaikun batez ez zaukun deus holakorik salatu. Salbu oroit naiz gutarik batek erran ziola: "*Akituxea iduri duzu, Jauna: Sirocco haize hori biziki gaixtoa omen da!*". Saint Pierrek ihardetsi zuen: "*Sirocco-a hor da, Zaharra ere hor baita... Bego hortan!*". Uste izan ginuen *Zahara* deitu desertuaz mintzo zela. Geroztik konprenitu dugu nor zitaken, gogoan zuen *Zaharra*.

Azkenean gauzak hainbertzetaraino gaizkondu zitzaizkoten, non Mgr Lemaître-k jakinarazi baitzuen Erromarat ez zuela Saint Pierre-n beharrik.

Zer gertatu zen bada? Badakikezue apezpiku bakotxak hiru urtetarik igorri behar duela Erromarat bere diosesako gorabeheren berri? Mgr Lemaître-k *gorak* aipatzen zituen *goraki* eta *beherak* ahanzten. Erroman denak jakin nahi-eta, Saint Pierre-ri galde egin zioten zerbait garbitasun eta hunek "arrosekin" batean "arrantzak" ere aipatu. Erroman Artxapezpikuak ukan zituen erasietarik aise asmatu zuen nor ukan zuten *beheren* argitzailea.

Hain xuxen orduan berean Nancy-ko apezpikua hil baitzen, Erroma-tik hiru apezpiku-gaien izenak igorri ziozkaten Frantziako presidentari, hirueta-rik zoin zuen nahiago. Saint Pierre hiruetan zen eta presidentak hura zuen hautatu. Hemengo deputatu batek sekretu hori ikasirik, berria hedatu zuen eta Erroman ez dute nahi sekreturik sala dadin: horra gure Saint Pierre apezpikutegirik gabe.

Bere biziko azken 14 urteak frango trixteki ereman ditu: titulu eder bat karreatzen zuen bainan araberan bizitzekorik ez, meza-sariez kanpo. Arima on batzuek laguntzen zuten. Erretreta zenbait, predikuak galdatzen ziozkaten besta handientzat. Berak ez zuen deusik galdatzen, ez zen pleinitzen. Ez zen den gutienik etsitua. Zerbitzu egiterat prest zen eta partikulazki euskalgoari nolako laguntza ez dio egin!: kazetetan, aldizkarietan izkiriatur, Miarritzeko Biltzarra gerizatuz, euskalzaleak akulatuz, *Herria* kazeta sortuz, *Gure Herria* piztuz, liburu berriak presentatuz, Ameriketako euskaldunak bisitatuz, hots gu guzien atsegin eta penetan parte hartuz.

Hiruetan-hogoi-ta-zazpi urtetan itzali zitzaikun Baionako serora Domnikanoetan 1951 ko abendoaren 18 an. Katedralean hil meza eder bat ukan zuen: kardinale bat, hiru apezpiku, apez eta serora hainitz, departamenduko eta bereziki Euskal Herriko zer nahi jende bazen bildurik haren ohoretan eta harentzat otoitz egiteko, esker onez.

Gero hortxe, Milafrangako eliza alarzean ehortzi dute, hain maite zuen sort herrian.

Haren itxura gogoan dut oraino. Iduri zait ikusten dutala heldu, besoak dilindan, urratsa bizi, doi bat zeharkatuz, pilotari asko bezala, ile ta betileak zubeltz kolore, soingaina eta kopeta apalkara, larru bronzatua, begitartean trixteziazko itzal bat bezala. Nola ahantz haren batbateko jauzia, iduri amets batetarik azartzen zela, haren besoaren luzatzea eta eskuaren hedatzea, bihoztetikako agur ozen batekin adixkideki on-hartzen zintuela?

Horra nolakoa zen ene oroitean Milafranga eta Euskal Herria hain handiki ohoratu dituen apezpiku euskalzalea.

JOANES SAINT PIERRE APEZPIKU EUSKALTZAINAREN OBRA

Milafrangan, 24-VI-1984

P. Charritton

Nihork egin zezaken baino hobeki erran digu P. Lafitte jaun kalonjeak, nor zen Joanes Saint Pierre apezpiku euskaltzaina. Funtsean hemen gutartean ez da nihor P. Lafitte-k baino hobeki hura ezagutu duenik. Orain niri dagokit erraitea zer egin duen, hots zer idatzi duen, gaurregun ohoratzen dugun Milafrangar euskaltzaleak.

Berehala aitortuko dizuet ni ere lehen lehenik baliatu naizela P. Lafittek argitaratu zuen liburu batetaz: Apezpiku zena hil-eta, laster, P. Lafittek pres-tatu zuen "Les meilleures pages de Mgr Saint Pierre" deitu liburua (1952, Imprimerie Le Courier, 9 rue Jacques Laffitte, Bayonne). Liburu horretan bildu dira, loretegi batean bezala, gure idazlearen idazlan hoberenak. Zori-gaitzez liburu hori aspaldian agortu zen.

Dena dela, liburu horretan daude lehenik, latinezko bos-pa-sei orrialde "Alexandri-arren eraginaz Ovidio-rengan" (145-150); aski baitira ikusteko zein ederki zerabilan latina Etxeleku-ko semeak.

Liburuaren parte nagusiak ordea, erran gabe doa, frantsesez eta euska-raz ditugu; biak elgarren bete, nahiz guk euskarari hurbilagotik behatzen dio-gun. Frantsesezko zatiak beraz eskaintzen dizkigu Ameriketako itzuli baten oroitzapenak, Baiona ta Lapurdi-ren arteko gatazken XIV. mendeko historia labur bat, Euskal Herria-ren geroaz eman hitzaldi bat eta Euskal Literaturaz beste bat, gehienak *Gure Herrian* argitaratuak, eta azkenekotz, artikulua bakar batzu, Baiona-ko "*Le Courier*" egunkarian agertuak.

Badakigu bizkitartean frantsesezko beste artikulua asko bagenituzkela biltzeko, bai *Gure Herria*-n, bai "*Le Courier*" egunkarian (160 artikulua bederen eman baitzituena), bai *Eusko Jakintza*-n. Ez dezakegu alabaina ahanztz linguistika gaiak landu zituela Saint Pierre-k eta euskararen eta Afrika-ko mintzairaren arteko harremanak ikertu; nahiz ez zitzaizkion lan horiek Karla Bouda alemanari asko gustatu (ikus *Eusko Jakintza*, vol III, 1949, 46-48. orr.).

Euskarazko lanei behatzen badiegu hor dugu ipui bat "Mariederren ezkontza" deritzana, honela hasten baita: "Ezpeletarra nuen aitaso. Jainkoak

ereman zuen mundutik, adinean han harat joana, lanaren borroka higiturik azkenean. Gizon zuhurra izana bere denboran, itsusi baita nihaurek erraitea, bainan lagunkina...” Ez die ipuiak nihungo Daudet frantsesaren ez Barbier euskaldunaren idazkiei zorrik. Zorigaitzez egileak ez baitio lagunik eman!

Saint Pierre zenak egin zituen prediku sermoi eta hitzaldiak ordea ez ziren bakarrak izan. *Gure Herria*-ren zenbaki bereziak (*Gure Herria*, 1952, 1) eskaintzen digun orrialde osoko foto paregabeak —Baigorriko trinketea hartu baitute Saint Pierre apezpikua mintzo, Dassance eta Etcheverry-Aintchart xaharraren artean— ez ote digu adiarazten zer predikari miresgarria zen Hazparneko misionest ohia? Bainan predikalkitik ari zelarik orduan apeza, ez ziren oraino elizetan sartuak gaur darabiltzagan tresnak. Solasak orduan airatzen ziren eta galtzen, ez biltzen, non ez ziren izkribuz ezartzen. Badakigu ere askotan predikariek ez dituztela beren sermoiak idazten. Horiek hola, galduak dira beraz sekulakotz gure apezpiku euskaltzainaren hitzaldi gehienak. Gelditzen zaizkigun bos-pa-seiak hor ditugu beharrik, haren talendu aberatsaren lekuko: Axular-ez emana Saran, lehena, 1925 ean; Abbadie kalonjeaz bigarrena Bitirinan, 1929 an, eta Euskaldunen dohainez beste bat Domintxainen, 1938 an.

Joanes Saint Pierre euskal idazlearen idazlan gehienak halere haren euskarazko artikuluak dira: 1914 eko gerla hasi zelarik, *Eskualduna*-ren buruzagiak, Hiriart-Urruty bere irakasle ohiak, eskatu zion berriak igor zitzaion gerla-tokietarik eta, hasian hasi, J. S. P.-ek jarraituki gerlako berriak igorri zizkion *Eskualduna*-ri bera Alemanen eskuetan, 1918an preso erori arte. Gerla ondoan, astekari berean, “Ikusiak” izenburuarekin, agertu zituen oraino Alemaniako oroitzapenak.

Ordu berean, hots 1919 ko udaberrian, Joanes Saint Pierre Baionako seminario handiko irakaslea hasi zen *Euskadi* Bilboko egunkari abertzalean Iparraldeko berrien noizean behin emaiten, bere amaren izenaz, Anxuberro izenpetzen zituela: Hogoi-ta-hamar bat artikulu agertu ziren horrela *Euzkadin*, 1919 ko maiatzaren 17 tik, 1920 eko abuztuaren 25 ra. Gero Anxuberrok bere saila utzi zion Jean Elissalde Zerbitzari adixkideari.

Ondoko urtean, Saint Pierre, Dassance, Oxobi, Zerbitzari, Blazy, Apes-teguy eta beste adixkideek sortzen zuten *Gure Herria* aldizkaria. Lehen zenbakian berean agertu zuen Saint Pierre-k bere xedea: euskaldunen historia eta euskal arbasoen urratsak, burutik buru, xeheki euskaraz ezartzea. “Eskualdunak” izenburuarekin agertu ziren horrela bederatzi kapitulu, 1921 eta 1922 an. Erromatarren mendera heldu zen euskal historiagilea. Orduan aurkitu ilunbeek lotsatu ote zuten, ala apezpikutegiko idazkaritzan sartzearekin bera lanek ito? Ez dakigu. Dena dela, Annibal-ekilako harremanetan baratu zitzaigun euskarazko euskaldunen lehen historia.

1925 an bizkitartean, bere lan guzien artetik, Joanes Saint Pierre-k hartu zuen, Jean Blaise Adéma kalonjearen eskuetarik, *Eskualduna*-ren buruzagitza. Bera apezpikutu arte, kargu hori begiratu zuen; 1925 tik 1930 arte beraz.

Geroago ere, sorterrirat itzuli ondoan, artikulu bat edo beste idatzi zuen Saint Pierre-k 1939 eko gerla hastean *Eskualduna* kazetan, eta gerla ondoan berriz *Herria*-ren sortzailetarik izan zen.

Horiek hola bada, artikulu horiek oro bil baginetza, P. Lafitte-k argitaratu zuen liburu bakarraren orde, bi liburu gotor bagenituzke: bat frantsesezko lanekin, bestea euskarazkoekin. Hea nork eginen duen lan hori? Euskaltzaindiak berak ala Euzko Ikaskuntzak? Nola ez aipa alabainan, Euzko Ikaskuntzak holakoxe bat zor diola Saint Pierre apezpikuari? Ez baitzen bakarrik bera *langile on* izan gure Milafrangar idazle jakintsua, baina bai ere *eragile handi*. Horra zergatik 1948 an *Eusko Ikaskuntza lagunartea* berpiztu zelarik Baionan, Saint Pierre apezpikua ezarri zuten elkartearen ohorezko lehendakari.

Baina lehenagotik ere eragile handi agertu zitzaigun gure gizona, bereziki 14 eko gerla ondoan Baionako seminarioan irakasle sartu zelarik, orduan baitzituen euskal lanetara bere ikasleak bultzatu, P. Lafitte-k salatu digun bezala. Eta geroago berdin, bai *Eskualduna* kazetarekin, bai *Gure Herriarekin*, bai *Herriarekin*, bai *Euskaltzaleen Biltzarra*-rekin, beti bultzatzaile hoberenatarik izan da. Funtsean euskaltzaleen ta euskaldunen apezpiku bati zoakon bezala. Egun ilunetan eskas genuen euskaldunen apezpiku euskalduna ez ote dugu alabaina izan, Joanes Saint Pierre, Milafrangako semea?

Eta hemen, zuen barkamenarekin, nahi nioke galde bat egin Erroman teologia ikasi zuen Etxelekuko Joastipi-ri. Nihaur denboran han gaindi ibilirik, oroitzen naiz teologoek egundainotik bereizten zituztela Jainkoaren bi laguntza mota, bat deitzen zutena “grazia” eta bestea “karisma” izenekoa. Zehaztasunetan sartuz, asko grazia molde badugu. Karismak aldiz ez dira ainitz aipatzen. Gure teologoek maiz “apparatzik” kutsu bat badutelako, menturaz, eta karisma horiek ez dituztelako hain gogoko. Karisma horiek dira alabaina, Jainkoak, Berak dazkien xendra-bide ta bazter-bidetarik, gizonei bidaltzen dizkien laguntzak. Hots, “kontrabandoz” bezala, heldu zaizkigu laguntza berezi horiek.

Ta hain zuzen, Erromak euskaldunei eman ez dizkigun gure apezpikuen orde, Jainko Jaunak eskaini baitzikigu Saint Pierre, Larrañaga, Olano bezalako apezpiku bazterreko zenbait, gogoeta nago aspaldian, zergatik ote eta noiz arte nahi gaituen Jainko Onak horrela gobernatu Euskal Herriko bere umeak, ez eliza legearen graziaz, baina bai “sasikume bastartak iduri”, karisma bidez? Horra Joanes Saint Pierre euskaltzain zenari gaur helarazi nahi diotan galdea eta eskea: Helereraz diezaiola ene otoitza Jainkoari.

Anartean, gure idazle handiaren obra guzitik solas bakar bat bereziko dut —gaurko gure herriaren egoerari ongi doakona, eta Iratzeder adixkideak bere olerkiaren lematzat hartu zuena (*Gure Herria*, 1952, 1 “Ai haren burua!”) 1948 an Miarritzeko Biltzarrean Saint Pierre-k bota baitzuen: “Ils ont peur de nous!”, “Bai, gure beldur dira!”. Hori izanen da nere alaba tipiarri helaraziko diotan Milafrangako apezpiku zenaren mezua.

KRISTAUAGO ETA EUSKALDUNAGO

Milafranga, 1984-VI-25

Xavier Diharce

Mezako hitzaldia:

Egun hartan Besta-Berri zen; aita Xavier Belokekoak zuen meza-ko hitzaldia.

“*Ogi hau jaten duena nitaz biziko da... biziko da betiere*”. (Jn. 6,57, 58).

Milafrangar maiteak, euskaltzale adiskideak,

Aurten ehun urte, herri huntako Etxelekuan zortzigarren haur bat sortzen zitzaioten: mutiko bat, apeztu eta apezpikutu behar zena.

Hamar urtetan, begiak goiz-argia bezein erne eta izarrez beteko gau iluna bezein gogoetatsu, hamar urtetan hartu zuen lehen aldikotz Jesus Jaunak munduari ekarri Ogia.

Geroztik eta hiltzerainoko gora-beheretan, Ogi hau izan du bihotzaren hazkurri, biziaren iguzki.

Ogi horrek eman dio, hameka urtetan, amaren heriotzeko bihotz-mina gainditzekoa.

Ogi horrek eman dio, hamabi urtetan apezterat joateko gogoia.

— Anaietan bazuen bat, sei urtez zaharragoa: bazoan maiz harekin Mendigain alderat, handik euskal-bazterten miresteko eta Jainkoaren Erreinuko muga amesteko.

Gogoan zuen jadanik, apezpikutzean hautatuko zuen hitz-lemak diona: *Albae sunt ad messem*, ogi-landak xuhailtzen, ontzen ari dire eta biltzaileen beha daude.

Udazkenean Larresoroko apezgaietan sartzen zen; eta ondoko udaberrian joaten zitzaion anaia, hemeretzi urtetan, fraidetzerat.

* * *

— Ez zitaken Besta-Berri baino egun egokiagorik hauta, *Mgr. St. Pierre-n* ehungarren urtea ospatzeko.

Bere bizian goren-goreneko urratsa, hedadura handieneko lana zoin izan du-eta? Ez ote, hogoi-ta bederatziko Eukarizti-biltzar nausia Baiona-n muntatzea?

“*Ni naiz Ogi bizia*” errana du Jesus Jaunak. Egia zaukan hori *St. Pierre* jaun apezak, egia eta den egiarik ederrena.

Lurreko ogia jaten dugunean, ogia gutaratzen dugu eta guretzen; zeruko Ogia jaten dugunean aldiz, Kristo-ganatuak gare eta Kristo-tuak. Zerurako egarria emana zaiku bai eta jaidura tzarrerri nausitzeko indarra.

Zeruko Ogia hartzen dugunean, gutan bizi da Jesu-Kristo: gure lanak ta minak harekilakoak dire, harenak dire; eta gure bizi guziaz eginak gare Jainkoaren Erreinuaren eraikitzaile.

* * *

— Gaur Euskal-Herriko apez guzien artetik, zertako gertatzen zait neri Milafrangar Apezpiku zena, Besta-Berriko meza huntan, aipatzea?

Fraide bati zoakon beharbada egun mintzatzea, fraidetu zitzaion anaiak ixil-ixila ereman baitu bizia, haren urrundik laguntzaile. Bere hautuz mutu egoitea ez aski, itsu egona da lan-ixtripuz bere azken urtetan. *Mgr. St. Pierre* hil den urte hartan berean, hura ere pausatu da (*).

Ez dut anaia ezagutu, bainan *Mgr. St. Pierrekin* bat izan ditut haremanak: hiru aldiz izan naiz haren etxean.

Lehen aldian, apezpikutu zen eta laster, Afrikako nere osaba aitaxuriarekin: hamabi urte nituzken eta entzun nituen Kabiliar apez beharraz mintzatzen, bai eta Berber mintzairak euskararekin zuken eiteaz.

Bigarren aldian, Alemanen urtetan. Lepo makurtuen ta buru apalduen urte beltz hoitan, xut baitzaukan harek beti burua, izan nintzaion

(*) 1877-an, martxoaren 21-an sartu zen Jean-Marie St. Pierre Divielle-ko fraidetxean; betiko botuak 1903-an egin zituen, martxoaren 19-an.

Landesetan zen fraidetxe hori, fraidegai eskasez, 1932-an hertsia izan da; eta gure anai Jean-Marie Bretaniako “*La Meilleray*”-rat joan da eta han hil.

adiskide batekin ikusten. “*Aintzina*” ilabetekaria sortu edo berpiztu nahi ginuela aditurik, bere kar handiaz sustatu gintuen.

Hirugarren aldian, ordukotz fraidetua, ekarri niozkan Beloke-ko gazteak agurtzerat; eta, Elizako kantuen alde, lan batzu egiten eta zabaltzen hasi ginenean, hitz hau igorri zautan: “*Aspaldiko ene ametsa zen Beloke-n asenta zadin, bertzeak bertze, zenbeit urte hautan ezarri duzuen laguntza. Eskuararen eta Eskualdunen sustengu, Jainkoaren legean eta arbasoen bidetan. Jainkoak lagun ditzala zuen xedeak*” (10/8/51).

— Lau ilabete geroago hiltzen zitzaikun, berrogoi-ta hamekan. Ez ziren ordukotz salmoak euskararatuak, ez eta beraz herrietan kantatuak; ez zen oraino apez ta fraide multzo bat liturgiaren euskararatzen hasia, meza saildua ere ez zen oraino euskaraz emana eta Erromak onartua.

Hoik guziak ikustean eta aditzean, nola zen loriatuko!

* * *

— Berrogoi zortzian, hiru urte hil-aintzin, hitzaldi bero bat egin baitzuen Miarritzeko euskal-biltzar handian, entzuna izan dut: “*Ai! Haren burua, bihotza hortzetan mintzatu denean...*”.

Haren oihuaren indarra, haren suaren ederra, erdal-jendez eta udatiarrez ondatua zen Miarritze hortan, euskal-seme herabetueri bota diotenean: “*Gure beldur dire, gure beldur!*”.

— Ezin berriz piztuz ginabiltzan gerla-ondoko urte hoitan, hor zagon Milafrangar Apezpikua: euskal-izaitearen lekuko, geroaren moldatzaileen aintzindari, Jainko-zaleen ta euskaltzaileen buru.

Apezpiku handi izana eta orai kurutze-ekarle handiago, bazabilan, betiko sineste berean, Iguzki sailduari so: “*Ogi hau jaten duena biziko da betiere*”.

* * *

— Hau erran izan daut: “*Bere mendietarik ikusten ditu Euskaldunak Errege ta Errepublikak sortzen, Errege ta Errepublikak hiltzen; eta Euskalduna badago euskaldun. Horrela dagola beti xut, bere gizontasunean eta bere sinestean*”.

— Oraiko nahasmendu eta herritarren arteko etsaigoak ikusiz, erranen zuen aintzinat:

*Zeruko Ogiak haz ditzala euskal-bihotzak, bat izan ahal ditezen.
Bat izanez geroz, Kristo beren artean eta beren lokarri izanen
dute; eta Kristo gurekin bada, gurekin ari bada,
guzien gatik ere, bizirik egonen gare
gero-ta euskaldunago, gero-ta kristauago,
bai gaurko mundu berrian, bai geroko bizi betierekoan.*

NAZARIO OLEAGAREN OMENEZ

Bilbo, 1984-VII-27

EUSKALTZAINDIAREN ETXE BERRIA ZABALTZEAN

Bilbon, Plaza Barria 15; 1984, Uztailak 27

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Patxi Zurikarai, Diputadu jauna
Euskaltzainkideak
Jaun-Andreak

Gaur estreineko aldiz batzarrea egiten du Euskaltzaindiak etxe galant honetan, Bizkaiko Diputazioari zor dion honetan. Jaunak: Ondo ohartzen naiz gertaera honek kolkoan gorderik dakarren esanahiaz eta garrantziaz. Zinez aro berri batean sartzen da gaur Euskaltzaindia. Urrats handia benetan gaur ematen duena.

Baina gaurkoa ongi ulertzeko atzokoa ere pixka bat gogora dezagun.

Guztiok dakigun bezala, Euskaltzaindia sortu zenetik hirurogei eta gehiago urte paseak dira. Orduan Euskaltzaindiak alogeraz hartu zuen Erribera kaleko etxebizitza hura —gaur den baino handiagoa zena, hori ere ez da ahaztu behar—, baina behin-behinean edo probisionalki hartu zuen, hots, leku egokiagoren bat bilatu artean. Hala aitortzen da argi eta garbi urte haietako gutunetan: Euskaltzaindiaren behin-behineko etxea deitzen zaio. Ikus, adibidez, **Euskera**-ren lehen zenbakia, 67. orrialdea. Badakigu, ordea, askotan zer gertatzen den: behin-behinekotzat hartzen diren gauzak gero betiko izaten direla. Erribera kaleko egonleku hark ere bizitze luzea izan du. Azkuek bere mendean ez zuen besterik ezagutu.

Azken urteotan, berriz, Euskaltzaindiak hazkunde handia eta miraritsua ezagutu du, eta gainera zetorkion eskabideari erantzungo bazion toki hura baino egokiagoa behar zuen inondik ere. Liburutegia, bulegoak, fitxategiak, artxiboa, fonoteka, batzar gelak... hainbeste gauza gero eta beharrago zirenak. Zerbait erremediatu zen egoera hau 1979. urtean Bizkaiko Diputazioak Arbieto kaleko etxebizitza utzi zigunean. Orduan bulegoak hara eramán ziren, liburutegia Erribera kalean utzirik. Hain zuzen, iazko uholdean hutsa-gatik libratu zen liburutegia hondamenditik. Suaren beldurra ere maiz izan dugu.

Egoera honek beste alde txar bat zuen: gauzak hiru edo lau leku desberdinetan eduki beharra. Liburutegia toki batean, bulegoak beste batean, salmentetako liburuen gordailuak beste bi edo hiru tokitan etab.

Orain dena etxe egoki batean kokatua izanen da. Bai. Hemendik aurrera, etxe galant eta apain honi eskerrak, dena leku batean eta Euskaltzaindiak duen egitekoari eta egitekoaren garrantziari dagokion bezalako etxean behar bezala jarriak izango ahal dira! Euskaltzaindiaren izenean eskerronik biziena agertu nahi diot Bizkaiko Diputazioari egin digun mesede paregabe eta esker-ga honengatik.

Gauza jakina da Euskal Herriko lau Diputazioen umea edo sorkaria dela Euskaltzaindia, eta lokarri hori guk gogoz aitortzen dugu. Baina aparteko modu batez Bizkaikoarekin lotura bereziak ditugu, zeren eta berau izan baitzen Euskaltzaindia sortzeko arazo honetan aurrea hartu zuena.

Euskera agerkariaren lehenbiziko zenbakian, 39. orrialdean, hona zer irakurtzen dugun:

“Orra azkenez, urrezko izkiz Euskaltzaindiak bere etxeko atari-gainean ezarri bearko duan eguna: 1918'ko Urtarrillaren 25 garrena”.

Egun horretan Elgezabal'tar Kosme eta Landaburu'tar Peli jaunek proposamena egiten diote Bizkaiko Diputazioari euskararen Akademia sortzeko asmoa onart dezan, eta era berean asmo hau beste euskal Diputazioei pasa diezaien, gero lauron artean asmoa obretan ezartzeko. Eta dakizuen bezala, halaxe egin zen.

Euskera-ren zenbaki berean, 52. orrialdean, Euskaltzaindiko lehen batzarrearen erabaki hau dator: Euskaltzaindiaren etxea edo bizitokia Bilbon izango dela. Eleizalde egin omen zuen eskari hau. Orrialde azpiko oharrak honela dio: “El domicilio de la Academia, a propuesta del Sr. Eleizalde y consultados los académicos de otras regiones, se resolvió establecerlo en Bilbao, como tributo debido al fuerte impulso que surge de aquella villa para todas las manifestaciones de la vida vasca. Allí radicarán las oficinas y demás dependencias estables de la Academia, sin perjuicio de que las reuniones puedan celebrarse en San Sebastián y otros puntos que se juzguen convenientes”.

Beraz, Eleizalde eskaturik, Euskaltzaindi sorberriak egindako lehen batzarrean —eta batzarre hori Donostian izan zen—, erabaki haur hartzen da: Euskaltzaindiaren etxea Bilbon egongo dela. Horren arrazoia ere entzun dugu: Bilbotik euskal gauzetarako bultzada edo eragin handia zetorrela. Bai. Euskaltzaindia sortzeko arazoan ere hala gertatu zen. Lau Diputazioek amankomunean sortua da Euskaltzaindia, baina aitzindu zena edo aurrea hartu zuena Bizkaikoa izan zen.

Guztiok dakigu, ordea, Euskal Herri hau, nahiz eta herri bat izan, nola dagoen gatzatua edo mamitua; nola, alegia, nortasun berezia duten lurralde historikoz osatua den. Euskaltzaindiak ere, urteak joan eta urteak etorri, beste hiriburuetan Ordezkaritzak jartzeko beharra somatu du, baina Euskal-

tzaindiaren batasuna inolaz ere zatitu gabe. Hala daude gaur Euskaltzaindiaren Ordezkaritzak Donostia, Gasteiz, Iruñe eta Baionan. Eta zenbait batzorderen lantegiak ere, gaurkoz behintzat, Ordezkaritzetan kokatuak daude, batzordekideen erosotasunari begiraturaz; baina, azkenik, jakina, dokumentazio guztia Bilboko etxera ekarriko da, zeren hemen baita Euskaltzaindiaren egoitza edo etxea.

Errepika dezadan berriz ere: Euskaltzaindia lau Diputazioen sorkaria da eta aparteko modu batean Bizkaikoarena. Lokarri hori gogo onez aitortzen dugu eta orain ere hortan gara.

* * *

Eta beste zerbait ere ospatzen dugu gaur: Nazario Oleaga euskaltzain eta Euskaltzaindiko Idazkaria izan zenaren jaiotzako mendeurrena. Urte askotan ezagutu nuen D. Nazario Euskaltzaindiko batzarreetan. Gizon “benetalaria” —Severo Altubek dakarren hitz batekin esateko—, legea zehatz betetzea maite zuena.

Gerra ondoko **Euskera**-ren lehen zenbakia haren ahaleginei esker atera zen. Eta berak eskaturik egin nituen nik zenbaki horretarako Aurkibide haiek, lehen aroko **Euskera**-ren Aurkibideak. Baina garai hartan ez genituen Arantzazun zenbaki denak, edo ez zeuden behar bezala enkoadernatuak, eta eragozpen hori agertu nion. “Zatoz neure etxera —esan zidan—, han ditut denak ongi erreskadatuak eta hartu behar dituzun garbitasunak”. Eta halaxe egin ere nuen.

Baina gero, zenbaki hura agertu zenean, 1953. urtean, istiluak izan zituen, legezko baimenik gabe atera zelako, eta aurpegia eman behar izan zuen. Orain lehen aroko **Euskera**-k bir-argitara direnean, zenbaki hori ere bir-agertu da eta baita garai hartako batzar-agiriak ere, gaur arte agertu gabe egon direnak. Eta pixka bat bitxia edo arraroa dirudien zerbait azaltzen da batzar-agiri horietan. Behin eta berriz dator zertzelada hau: D. Nazario ez da etorri batzarrera, eta ez dakigu zergatik, beti hain txintxo etortzen izan den gizona... Edozeinek pentsa lezake, hori irakurtzean, haserreturik edo egongo zela Euskaltzaindikoekin, baina ez zen batere hala. Ene ustez, hau da arrazoia: **Euskera** zenbaki horren istilua konpondu arte ez zuen agertu nahi. Berak bere gain hartu zuen, ba, aldizkaria gerra ondoan argitaratzearen erantzunkizuna, baina uste ez bezalako oztopoak aurkitu zituen, eta harik eta auzia konpondu arte, ez zuen agertu nahi. Azkenean lortu zuen baimena, baina aldi hartakotz bakarrik. Ikusten duzuenez, urte latzak ziren haiek, eta Euskaltzaindiak asko zor dio D. Nazarioi urte zail haietan egin zuenagatik. Baina hemen dugu Gorostiaga jauna, D. Nazarioi buruz berariaz eta espresuki mintzatuko zaiguna, eta ni ez noa gehiago esatera.

Bizkaiko Diputazioari eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen. Eskerrak, egin digun opari eta mesede handi honengatik. Lehen ere esan dut: Ondo ohartzen naiz gauza batez, eta da: Gaur aro berri bat hasten dela gure erakunde honentzat. Aro berri hori izan dadila euskararentzat emankor, dohatsu eta ondoriotsua.

NAZARIO OLEAGA EUSKALTZAIN ZENAREN OROIMENEZ

Bilbo, 1984-VII-27

Juan Gorostiaga

Euskaltzainok eta adiskideok. Gehienok adiskideak gara. Pozgarria da Euskaltzaindiarentzat lenen aldiz etxebarri edo egoitza barri honetan sartzea, eta berton jarlekua hartzea. Pozgarria eta samurra, Nazario Oleaga euskaltzain kide zanaren oroimen hau egiteko. Holan gure euskaltzain zaharren asmoak eta lanak aurrera doakez betiko bakean. Ilargi zaharra barri bezala; zaharra eta barri, barri eta zaharra. Hirurogei eta bost urtetxo honeitan, 1918an, hau da, Oñatiko Batzarrean Euskaltzaindia sortu zanetik euskerak eta euskaltasunak ilunaldi eta hutsaldi, gure partetik be, haundiak ikusi ditu.

Don Zirilo Arzubiagak, Zornotzako *jaungoikozalea* aldizkariaren eragile, Paris edo Londresen egon zanean, hauxe idatzi eban (*Anaia*-n, Parisen, eusko apaizek ataratzen eben aldizkarian):

“Gure eusko ikastolak itxita dagoz, gerra denporan, hau da sartadarik aundiena. Urte askoren buruan, gau eta egun, askotariko lanez idatzitako euskal idazti ederrak, suak iruntsi ditu; bai, *jaungoikozale* bazkuneko abade ixil eta apalak, ogei eta bost urte onetan, argitaldu ditu idazti mamitsuak, gure Erriaren kristautasuna biziago eta beroagotzeko ziran idazlanak; hau arrigarria. Kristoren izena ao miinean darabilenak, sutan ondatu ditue. Etxean, kalean, elizan bertan euskeraz mintzatzea eragotzia...”.

Baina gu etorri gara bakean bizitzeko eta jakin behar dugu zer pasatu zan. Gaur etorri gara euskaltzain zanaren gorespena egiteko. Gure artean, beraren andra alarguna, Nazarioren alarguna, asmoz behintzat hemen dago, eta beste etxeokak: anaiak, semeak...; batez be Jesus, gure lagun urgazlea. Horregatik ba, euroi guztioi, gure besarkada maitekorra.

Euskalduna zan, Nazario, euskaltzalea. Eztakit idazlaria ete zan, eta mintzalaria edo hablista ete zan; Baina ondo egiten eban. Euskalaria zan. Beti galdetzen ibiltan zan euskera zaharra zelakoa zan Donostiara joaten ginean: hau zer da? Zeanuri, zer da? Oleaga, zer da? Zein izen da hau? Beti galdezka. Ez zan ibiltan txantxetan. Eta euskaltzaina. Ganera legegizona eta Euskal Herriko edesti edo historian, jakitun. Eta, batez be, langile sutsua. Inor baino zadorlari edo idazkari kargua hartzeko hain egoki, nire ustez.

Beraren zadorlari liburu edo aktetan dago berak idatzita geure Euskaltzaindiaren edestia: 1941-1961 bitartean. Zenbakiok dira etorkizuneko euskerarenak. Baina edesti bizia, ez motela, sakona. A. Luis Villasantek esan deusku Euskaltzaindia zelan ibiltzen zan lehen. Aurrera ba, goazen aurrera. Nahiz euskaraz nahiz erdaraz, ulertuko garala, uste dot.

Nazario Oleaga, Bilbon jaio zan, Uztailean, orain ehun urte; orain ospatzen dogu beraren mendeurrena. Erronda kalean jaio zan. Hogei urte lehenago Unamuno kale bertan jaio zan. Hemen jaio eta hemen hil zan. Lehenengo ikasketak Eskolapioetan egin ebazan, eta gero Deustuan. Eta 1905ean, Lizentziatua zan: “Licenciado por la Universidad de Salamanca”.

Eta beraren bufeta edo, hemen Bilbon, ipini eban. Baina Zeanurin —Arratiko herritxu bat— “ejerció el cargo de Secretario”, 1925arte. Baita aukeratu eben: “Vicedecano, en funciones de Decano de Colegio de Abogados de Bilbao”.

“Las manifestaciones Culturales de Nuestro Pueblo, tuvieron más que atisbos ya en el siglo pasado, aunque muchas veces también en Vizcaya y en otras partes se escribió poco en euskera, y aún se perseguía. En Getxo, mi pueblo, aquellos representantes de los pueblos, porque no sabían euskera no fueron admitidos, fueron rechazados. Y patrocinado, en el primer Congreso de Estudios Vascos, por las cuatro Diputaciones y por los tres Obispos de las diócesis de Vitoria, Pamplona y Baiona, en la Universidad de Oñate, en 1918, el Rey Alfonso XIII, inauguró Euskaltzaindia”.

Lehenengo urteetan, Euskaltzaindia, ederto joan zan, argi, mardultsu; gerra denporan, dena hondatu zan, Zirilo Arzubagak gorago esan dauanez. Baina gero, berriro, hartu eban bizia, eta orain arte. Jaungoikoari eskerrak, ondo bizi da. Ondo bizi da, nire ustez, holako gizonak, holako jakintsuak ikusi... holako bihotza ikusita... hau ederto doa... baina etorkizuna zelakoa izango dan eztakigu. Beti gabiz pentsetan zer izango dan... eztakigu. Oraingoa, hau da. Lehen Euskal Herri —Euskadi— bakarra zan. Orain, nire ustez, bi etnia edo lau subetnia dira.

Orain, Euskaltzaindian, 24 bazkide; lehen, hasieran, lau; gero hamabi... apurka apurka joan da zabaltzen, mardultzen. Baina, 1919an, Nazario Oleaga, urgazle aukeratu eben. Eta, 1948an ‘elegido por la Comisión de Juristas para el estudio de ordenación del Derecho Civil de Vizcaya, y también fue miembro de la Junta de Cultura de Vizcaya’. Publicó en euskera el libro de Gregorio Mugica: *Zurtasun gogoa*.

1961ean, hil zan eta gure *Herria* aldizkariak hau ekarri eban:

“Mugaz handitik hona, Nazario Oleaga, Euskaltzaindiko Sekretarioa, hil da”;

Argi eta garbi esan eban.

Urgazle egin ebenean, *Erizkizundi Irukoitza* delakoan; gero R. M.^a de Azkuek gipuzkera osotua esaten eutsonean, euskeraren batasunean sartu zan.

Gero, 1931.ean, Bilbon 'La Junta de Gobierno de euskerazaleak. Bizkai-koa' egin zan, eta Nazario Oleaga, Lehendakari edo Buru aukeratu eben. Halan ba, euskeraren zahartasuna, euskeraren batasuna, euskerazko etimologiak, bertsolariaren txapelketetan eta abarrean sartu zan. Langile sutsua zan, baina beraren lana itzi barik. Holan ba, gure edesti edo forua sakondu eban.

1941.ean Zadorlari edo Idazkari egin eben. Horrela hil arte. 1957an, R. M. de Azkue jaunaren omenez, hitzaldia egin eban.

Liburutegi eder bat itzi deusku. Liburutegi sakona, mamitsua. Berton gauza asko baliotsuak dira: "biblioteca rica y variada".

Aita Intzak, artikulu batean, hau diño: "Euskaltzaindiko neure leenbizi-ko laguna izan zen Nazario Oleaga. Nazario fue, desde el principio, de los urgazles que acudieron a las reuniones de Bilbao con más asiduidad. Un gran entusiasta de la Academia ya que acudía a las reuniones".

Aurreragotik, beti gurekin izaten zan Nazario Oleaga jauna. Así, dicho con amor y con admiración.

Eta orain beraren bizitza sakon edo intimora pasatuko gara. Zer zan barnean? Gizon jatorra, ederra. Txikia zanean —txikitan berak esaten eban— makaltsua zala. Eta amak sendagilearengana eroan ebala. Sendagileak: fruta asko jan behar ditu honek.

— Amak: eta dirua nun dau horretarako?

— Medikuak: ba daukazue. Hau gizon haundia izango da.

Gu Donostiara joaten ginenean, hilean behin edo, bidean ez ginan ixilik joaten. Resurrección M.^a de Azkue be berbatsua zan eta beti gai bat. Orduan Ormaetxea eta ni urgazleak izan ginan.

Bazkaltzean, Hotel Arana edo Aritz hotelean, limoia ekarten eben arrai-negaz. Eta hau, zertarako da? "Arraina ona eta freskue ba da, ez dogu horren beharrik".

Beraren buruaz kezkatutik ibiltzen zan. Niri esaten eustan:

— Oleaga, zer da?

— Nik: Oleaga, apellidu edo abizen edo deitura bat da. Euskal Herrian eta baita kanpoan be.

Bernard Diaz de Castillock Amerikako historia bat idatzi eban, eta han hau diño:

"Fulano de tal, el Olea; Olea, natural de Medina de Campo".

Eta Santanderen be, Reinosan, herritxo bat dago: Olea.

Hori euskera da, nire ustez. Olea, Oleaga, Ola... zer esan nahi dabe?

Nik behin esan neban **Euskera** agerkarian: "*Ola* = aula, aula de los pastores" (Vulgar "ola").

Gero artzainek itzi ebezan ardiak eta burdinaz hasi ziran. Burdina ebagiten... errementariak ziran. Eta horregatik, Zuberoan gaur egun 'rural edo pastoral' adierazi nahi dau. Baina gure artean, Bizkaian eta Araban, 'ferreria' esan nahi dau.

'Oleaga': Olea-ga: 'el olea': Olea + a.

Bizkaian: Bizkaian: ga: artikulua. 'Balenziaga': Valencia + aga: 'el Valencia' = Valencia-tik etorri zan bat; 'el francés, la Francisca, el Francisco'... antzera. 'El' sartzen dabe leku batzutan. Gandiaga < el Gandia. Bedia-ga "el Bedia".

Ansola 'la ferreria de Anso': *Anso* izen germaniko bat: anso, antso... Anselmo... sancius, Santxo, Santso... Ansoleaga: Anso + 'el' Oleaga... el apellido 'el Olea'.

Hemen, Bilbon: Colón de Larreategi: 'tegi 'local, sitio'...' el sitio donde vive un tal 'Larrea', el apellido 'Larrea'.

Novia de Salcedo: bi abizen edo deitura batu egin ziran: 'fulano Novia'... eta beronen andrea edo emaztea 'M.^a de Salcedo'. Gero euskaraz: 'Zugasti Novia'.

Usparitxa auspo + arotzaga.

Zeanurin, 'Vitoria' = 'Bitturi' esaten zala adierazten euskun Nazariok. Gero, ba, 'Zeanuri', 'Bitturi' = analogiatatik.

Zeanuri = Villacián, Izauri-eta = Villahizan, Herramelliri = Villaramiel eta, etc.

Gaztelugatx: 'San Juan de la Peña del Castillo': 'el Castillo empinado'. Berau, Iturizak be badakar. Baina ezta holan. Aragoian, Monastegi bat egoan. Gero, el rey Sancho edo beste batek Bizkaira ekarri eban; 'La ermita de San Juan de la Peña del Castillo' = Gaztelu-atx.

Ozaeta: 'Frias'; Marieta: 'Marias'.

Erronkarin: Idogoras = Irigarai...

Azkuek bere hiztegian: "*abaxi*": apaches: Los Apaches de Paris.

Bizkaian: ikusiko dot; Iparraldean: ikusiren dut... forma del futuro: "he de ver" "-ren" sufijo por persona... nork dauka arrazoia?

Nazario Oleagak perritxekoak asko maite zituen, perritxekero haundia zan. Zeanurin egon zanean, mendi eta pinadietan ibiliz, 25 mota ezagutu zituen. Nazariok bi perritxeko mota edo barri Katalunia'tik ekarri ebazan.

Nazario Oleaga sekretarioa zan. Eta sekretario berbak zer esan gura dau? Las funciones del secretario: redactar y certificar las actas. Extender y firmar los documentos que escriba la sociedad, la Academia. Llevar la corres-

pondencia y los documentos de ella. Presentar cada año y leer en sesión pública una memoria de resultados.

Guztiau, Oleagak pozik eta ederto bete eban.

Guzttoi eskerrik asko. Guztiontzat besarkada bat eta baita Nazarioren etxekoentzat be.

Orain Jesus Oleagak —gure Jesusek— dauka azken hitza. Berak emon deiela. Eskerrik asko.

NAZARIO OLEAGAREN OMENEZ

Bilbo, 1984-VII-27

Jesus Oleaga

Jaun-andreak, Adiskideak:

Poz-pozik entzun dautsagu antxiñako gure adiskide biotzeko ta agurgarri dan Juan Gorostiaga jaunari, berak Euskaltzaindiaren izenean egin dauan berbaldia, nire aita izan zan Nazario Oleaga Muguruza-ri buruz.

Ain zuzen be, biar dira eun urte (Uztaillaren 28,a) Bilboko Ronda kalean jaio zana. Au dala-ta, neure barru-barruko pozaldia agertu nai dautset egintza agiri onetan eskuartu daben guztiori, nire eskerroneko berba laburren bidez.

Eskerrak damotsuedaz benetan; leenen nire amaren izenean; ainbat urte daukazanarren, gure artean bizi izateko indarrak emon dautsaz Jaungoikoak; ondo erakusten dausku ama izatea zer dan, etxeko arazoetan arduratsu eskuartzen dauala, Don Nazario bizi zanean be egiten ebanez, naita zartza-roan zerbait gitxitu indarra.

Oraintxe be, asti asko emoten dau bere senarrak ainbeste maite eban euskerea zabaltzen. Era berean, onen seme-alaba eta nire anai-arreba diranen eskerrona agertzen dot, etxeko gustiok jaso genduan gure izkuntzaganako matasuna jakinerazorik.

Agirian dagoz, eta gaur egun lagunak onetara adierazo dauskue, bai izparringietan ta bai emen darabilgun eginkizun alaian, Don Nazarioren ardurea ta buru-ekintza euskeraren eta Euskaltzaindiaren alde. Izan be, Euskaltzaindia eratu zan urte berean, Euskaltzaindiko Urgazle egin eben milla bederatzigarren urteko Urrillaren 26an. An dago, agiri ori gaur be gure aitaren lan-gelan, Euskaltzaindiko Buru ta Idazkari ziran R. M.^a de Azkuek eta Luis Elizalde izenpetuta.

Guzti ori ederto ta artez azaldu dausku Juan Gorostiaga jaunak. Argi dago sakonkiro ezagutu ebala gure aita. Nok jakin, Azkue jaunagaz batera, baita beste lagun oso gitxi ebela eurakaz, Ribera kaleko 6garren etxean euskaltzalle areik egin ebezan orduak, baita egunak eta urteak, euskera lantzen, indartzen eta zabaltzen?

Orregaitik, gure etxekoai dagokionez, eun urteurren au ospatzean, abagune au oso gogoko egiten yakula esan bear.

Beste alde batetik be, gogoan dabe Don Nazario, Abogadu lez, beronegaz artu-emonak izan ebezan pertsonak (emen ikusten dodaz adiskide batzuk), aren jokabide zuzena, aren adorea ta kemena —batzuetan estu-samarra izanarren be—; ezaguna zan aren egikera berak erabilten ebazan auzi-arazo guztietan, Bizkaian eta Bizkaitik kanpo.

Es dausat jarraituko ari oni, bera ta bere nortasuna zuetariko askok ezagutu eben-eta. Baiña bera ezagutu ez eta aregaz artu-emonik izan ez ebenai, auxe esan daikeet; guztientzat adiskide zintzoa izan zala. Eta orixe izan daiteke emen, orain eta beti, aren mandaturik onena, ori eta aitatu dogun Euskalerra edo Euskadi, onen Foru ta Legedi eta euskeraganako ardurea. Bizi bedi beti ardura ori gure erriaren ondoan.

Agur eta barriro be, etorri zarien guztiori eskerrik beroenak.

SEBASTIAN ANTONIO DE LA GANDARA BIZKAIKO IDAZLEA

Bilbo, 1984-VII-27

Jose Antonio Arana Martija

Maisu dudan, eta aspaldidanik adiskide, Juan Gorostiaga jaunak, Nazario Oleaga Euskaltzaindiko Idazkari eta, dirudienez, Zadorlariaren oroipen eta goramena egin digu. Beste Bizkaiko idazle bat aipatzea dagokit, gaur bizkaitarrok harro egoteko karirik badugu eta. Euskaltzaindiaren jaiotzean Bilbok eman bazion babesa, lehen egoitza eskaintzean, hemen gaude gaur egun historiko batetan, Diputazioak, Bizkaikoak noski, aurrerantzerako eskaintzen digun egoitza berrian. Ez naiz ni inor eskerrak agertzeko, Euskaltzaindiak eta Euskal Herri guztiak ematen baitiote Bizkaiko Diputazioari emaitza honegatik neurrigabeko eskerrona. Baina Bizkaiko idazle bat aipatuaz, Sebastian Antonio de la Gandara, alegia, eta nere herkidea gainera, Bizkaiko Erakunde nagusiak ere baduela arrazoirik uste, harro eta pozik izateko, hurbil, eta orain etxean daukan Hizkuntz Akademiari orain ere beharrezko babesa eman diolako.

Lehen ere eginak ditu halako laguntzak Bizkaiko Diputazioak. Euskaltzaindia sortzeko lehen urratsak berak eman zituen eta gogoan ditugu denok 1906an eta 1907an Adolfo Gabriel Urkixok, orduko Ahaldun edo Deputatu Nagusiak prestatu zituen Arautegiak, eta Bizkaiko Diputazioa izan zela Euskal Herriko besteei Euskararen Akademia bat sortzea eskatu ziena. Baina hori ia gaurko historia da. Gandara bizkaitarraren lana aztertu behar dugunez, XVIII. mendera joko dugu Diputazioaren laguntza bitxi bat gogoratzeke. Gandara aipatukeran beti dugu inguruan Larramendiren itzala. 1762an gutun batekin igorri zion Gandarak Larramendiri urte bereko Abenduan idatzi zuen *Gabon Santa Guernicacoa*. Eta Loiolatik erantzun zion Larramendik, hurrengo Urtarrilaren 23an, honako hau:

«Irakurri ditut Gabon Kantak eta azkenean paratu diotet “Impri-mantur”, hain daude ederrak, gozoak, kilikorrak. Etzaiteala aurrera-ko nagitu ez alpertu: ixeki sail honi, molda itzazu honelako asko ta ugari...»

Hain “mexhu chito Arguiti”gandik “icaslechu humil zindoak” hartu zuen adorea ez zen makala izan eta 1763an bi gutun zuzendu zizkion Gandarak Larramendiri, udan eta gabonetan. Baina ez du Larramendiren eran-

tzunik eskuratzen eta minduta agertzen zaigu gure Gandara 1764.eko Abenduaren 20an, Larramendiri igortzen dion bigarren Gabon Kantarekin batera zuzentzen dion gutunean: "Aginduta deustazunari, ahal dodanez egiten deustadala deritxat". Horretan amaitzen dira josulagun eta abadearen harremnak.

Ordurako argitaratuta zeuzkan Larramendik *De la antigüedad y universalidad del bascuense en España* (Salamanca, 1728), *El Imposible vencido. Arte de la lengua bascongada* (Salamanca, 1729) eta *Diccionario Trilingüe* (San Sebastián, 1745). Baina bigarrena kaleratu orduko ez zen hain ezaguna, eta gutxiago lehena kaleratu orduko. Ba, hemen dugu Larramendiren biografarako datu bitxi bat: Labayruk esaten digu (1) 1728an ehun dukat bidali zizkiola Larramendiri Salamancara Bizkaiko Diputazioak "Gramatica del Bascuence" hori argitaratzeko. Xehetasun gehiago ematen dizkigu Fidel Sagarminagak (2):

«El 24 de Mayo se despachó un libramiento de cien ducados de vellón en pago de una letra a la vista, enviada al Padre Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, maestro de teología en su Colegio de Salamanca, para ayuda de costa de la impresión del Arte del Bascuence que sacó a luz, en vista del memorial presentado de parte de Larramendi en las últimas Juntas Generales, y que se remitió para que lo resolviera, con otros memoriales, al Gobierno.»

Baina laguntza hori ematea erabaki orduko eztabaidak eta istiluak izan ziren Batzarretan eta Diputazioan, Sagarminagak zera esaten baitigu toki berean:

«No se debe pasar en silencio un papel de autor anónimo, que suena escrito como informe pedido por el Señorío, bajo el título de *Reparos historiales que se hacen a la dedicatoria que el Padre Larramendi, de la Compañía de Jesús, hizo a la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa del libro titulado "El imposible vencido"*. En dicho papel se ataca duramente a Larramendi, imputándole, entre otras cosas, el haber apropiado a Guipúzcoa las glorias pertenecientes a Vizcaya.»

Dena den, azken erabakia laguntza ematea izan zen eta hor dugu Bizkaiko Diputazioak euskararen alde XVIII. mendean egindakoa. Gipuzkoa maiteago izatea Larramendi giputzak normala iruditzen zait, baina Bizkaiaz zeukan irudia, euskararen arloan behintzat, ez zen Gipuzkoaren hainakoa eta hala azaltzen du, Gandarari 1763an idazten dion gutunean:

«Halako gutunik, zurea bezelakorik, inork ere ez dit egin Bizkai alde hortatik; Gipuzkoatik ere gitxik.»

(1) ESTANISLAO JAIME DE LABAYRU y GOICOECHEA: *Historia General del Señorío de Bizcaya*. Bilbao-Madrid, 1895-1901, VI. Tomoa, 156 orr.

(2) FIDEL DE SAGARMINAGA: *El Gobierno y Régimen Foral del Señorío de Vizcaya*. Bilbao, 1892, III. Tomoa, 345 orr.

Liburuak inprimatzeko laguntzak orduan ere ugari eman zituen Bizkai-ko Diputazioak. Larramendirena ez ezik, 1722an beste erabaki berdintsu bat hartu zuen sasoi hartan, eta aipatzen badut, gure bibliografian ezezaguna delako da. Labayruk (3) dioskunez:

«Presentó don José Ibáñez de la Rentería cuatro tomos que en 1673 escribió el Bachiller Simón de Ibarra conteniendo 1.118 páginas y se deliberó, después de resolver darle las gracias a Rentería, que el futuro Gobierno de Bizcaya confiriese lo preciso para imprimirlos. Sin embargo, el tratado aludido que trataba de la Nobleza de Bizcaya y sus Encartaciones no vio la luz pública, ni se sabe dónde para.»

Labayruk ematen zigun zehaztasun hau ematea beharrezkoa zen, Renteriarena dela liburuaren esaten baitigu Sagarminagak (4):

«Acordaron y decretaron sus Señorías (el 22 de Julio de 1722) que se den las gracias al Señor Doctor don Joseph Ybañez de la Rentería, Predicador de sus Magestades y Cronista de este M. N. Señorío, por el zelo y vigilancia con que ha escrito sus memorias en cuatro libros; y cométele a los Señores del Gobierno futuro contemplen pre-misso lo necesario, las providencias para la impresión.»

Simon de Ibarrarena zen beraz inon agertzen ez den lau tomoetako Memoria hau, eta inprimatu ez bazen, nonbaiten egongo da eskuskribua.

Larramendirekin loturik dago josulagunek Bilbon zeukaten Ikastetxea. 1726an, Matematika Katedra bat sortzeko bidea bultzatu zuen Bizkaiko Diputazioak (5) Martxoaren 31an:

«Decretaron se haga insinuación de tan importante utilidad a la señora doña Josepha Adan de Yarza, como Fundadora y Patrona de unas cátedras que con el señor A. Miguel Velez de Larrea, su marido difunto, instituyó y dotó en el Colegio de la Compañía de Jesús de la Villa de Bilbao, para que tenga a bien prestar su consentimiento a fin de que parte de aquella dotación sirva para la manutención de una Cathedra de Mathematicas en el referido Colegio... tratando al efecto con los RR.PP. Rector y Religiosos del referido Colegio y sus Superiores.»

Larramendi eta Gandararen arteko harremanak bukatuta hiru urtera, 1767an, Espainiako Karlos III. Erregeak josulagunak egotzi zituen Martxoaren 29ko Dekretu baten bidez. **Apis** aldizkari arraroan ematen dizkigu Labayruk egozketa honen berriak (6): Bilboko josulagunek Civita-Vechia

(3) E. J. LABAYRU: *Op. cit.* VI. Tomoa, 123 orr.

(4) F. SAGARMINAGA: *Op. cit.* 261 orr.

(5) E. J. LABAYRU: *Op. cit.* VI. Tomoa, 140 orr.

(6) E. J. LABAYRU: *Apis* aldizkaria, 1888-1-26, 4. zka. 25-29 orr. eta 1888-2-2, 5. zka. 31-36 orr.

aldera irten zirela Maiatzaren 3an diosku. San Andresen izena zeraman Ikastetxe honetara, San Juan Parrokia ekarri zen orduan. Lekeition josulagunek zeukaten Ikastetxea Nautika Eskola izatera bihurtu zen, bertan ematen ziren latin ikasketak moztuz, Erret Dekretuaren eritziz “la enseñanza de latinidad no es necesaria en aquel pueblo”. Urduñako Ikastetxea ere itxi egin zuten egun haietan, 1769.eko Maiatzaren 16an, eta apaiz bihur eta okerrak biltzeko egoitza izatera desmeztatu zuten, beste batzuen artean baldintza hau jarritz: “que estos eclesiásticos, sobre su doctrina y buen ejemplo, posean bien el Bascuence”.

Norbaitek esan dezake luzeegi haintzakotzat hartu ditudala hemen josulagunen arazoak. Baliteke, baina ez dut halakorik egin lehen aipatutako Larra-mendiren itzala azpimarratzeagatik bakarrik, josulagunek XVIII. mendean euskararen aitzindariak izan zirelako baizik. Mende honen lehen erdian jaiok bereizten baditugu, apaiz pila azaltzen zaizkigu, baina gehienak Doktrina egileak edo itzultzaileak ditugu, eliztarrak heitzeko testu egileak, adibidez:

Martin Arzadun, 1675-1741
 Joannes Haraneder, 1669-
 Jose A. Mikelestorena, 1710-1785
 Martin Duhalde, 1733-1804
 Andre Baratzia, 1738-1826
 Juan Inazio Gerriko, 1740-1824
 Juan Bta. Agirre, 1742-1823
 Juan Antonio Moguel, 1745-1804
 Joannes Lizarraga Elkanokoa, 1745-1823
 Salvat Monho, 1749-1821

eta bakoitzaren alboan jartzen dudan datan lanak argitaratu zituzten honako hauek: Mixel Xurio (1718), Juan Irazusta (1742), Martin Maister (1757), Frantzisko Xabier Lariz (1757), Bartolome Olaetxea (1763) eta gure Sebastian Antonio de la Gandara (1757). Garai honetan eman dezakegun laikoan zerrenda hautatuagoa da, beharbada:

Joannes Etxeberri, Sarakoa, 1668-1749
 Pedro Inazio Barrutia, 1682-1759
 Frantzisko Xabier Maria Munibe, 1723-1785
 Martin Harriet (1741)

Apaiz eta laikoetatik aparte, erlijiosoen artean Frantziskotarrek eman zizkiguten bi izen XVIII. mendearen lehen erdian:

Juan Antonio Ubillos, 1707-1789
 Juan Antonio Añibarro, 1748-1830

Baina euskararen erabilera eta gure hizkuntzaren ikerketetan josulagunek ematen digute Ilustrazioaren mendean zerrendarik interesgarri eta ugariena:

Manuel Larramendi, 1690-1766

Joan Bautista Gamiz, 1696-1773

Agustin Basterretxea, 1700-1761


Domingo Patrizio Meagher, 1703-1772

Agustin Kardaberaz, 1703-1770

Sebastian Mendiburu, 1708-1782

Diego de Goitia, 1739-1829

Hona hemen Ordena hau bereizteko arrazoia. Baina, hala eta guzti ere, ez da bereiztasunaren arrazoi bakarra, gure Gandararen garaikidea baitugu Agustin Basterretxea, josulaguna eta bizkaitarra. Bere *Jesu Christo gure Jaunaren Passioa*, hainbat aldiz kaleratua, oso ezaguna da oraindik gure artean eta Gandararen sasoian bezala kantatzen dugu egunotan Gernikan. Datorren urtean ospatuko dugu Erromualdo Galdos josulagunaren mendeurrena eta eibartar honek argitara emandako liburuxka baten berri eman nahi nuke gaur, gure bibliografietan agertzen ez baita. Donostiako Nueva Editorial zelaioan argitaratu zuen Aita Galdosek 1928.eko Aste Santuan 48 orrialdedun eta neurri handiko liburuxka bat, Basterretxearen bizkaierazko testua eta Kardaberazen gipuzkerazkoa emanaz, euskalki bietarako orduan erabiltzen ziren doinuak ere agertuz (7). Aita Jose Antonio Uriartek esan zigunez, 1760 baino lehen argitaratu zen Bilbon bizkaierazko testu originala, eta urte horretan argitaratu zuen Kardaberazek Iruñean gipuzkerazko testua, *Christauren bizitza* liburuaren orrialde barnean. Gero, 1777an agertu zen, Bilbon kaleratua, lehen ezagutzen dugun bizkaierazko argitarazioa. Argitalpenen artean, Euskaltzaindiaren ardurapean Alfonso Irigoyenek 1959an egindakoa dugu, ohar mamitsuekin (8). Bizkaierazko testua kantatzeko doinu nahiko desberdinak erabiltzen dira, nahiz eta melodiaren arkitektura aldetik antzerakoak izan. Irigoyenek bat ematen digu, Aita Iturria frantziskotarrak bildua. Beste bat ere badaukat Aita Jose Domingok Markina aldean bildutakoa. Guk Gernikan kantatzen duguna hau da:



(7) Y. L. GALDOS-TAR ERROMAL: *I.H.S. Yosukisto gure Yaunaren Nekaustea euskerazko neurtitzez*. San Sebastián, Editorial Nueva, S. A., 1928, 48 orr. 23,5 × 27 zm.

(8) ALFONSO IRIGOYEN: *Euskal-Kantak*, Euskaltzaindiaren ardurapean, Bilbao, 1959, 17-23 orr.

bardin ez badot negar e-gi-ten 10

harriz-ko - a dot bihotza 8

guztiok lagun 5

abestu daigun 5

bere penazko_eriotza 8

Bizkaierazko testuarekin kantatzen dugun doinu honek oso ondo errespetatzen du bertso berezi honen egitura, hots, 10, 8A, 10, 8A, 5B, 5B, 8A. Baina Gipuzkoan kantatzen den doinuak, edo Mutrikun Aita Jose Arrue frantsizkotarrak hartutakoak eta Aita Galdosek liburuxkan argitara emandakoak, behintzat, Bizkaiko zazpiko bertso berezi hori seikoa bihurtzen du, bostgarren eta seigarren 5B eta 5B lerroekin hamar silabadun lerro bakar bat eginez. Eta ez da hau aipagarri bakarra; Kardaberazen itzulpena kantatzeko erabiltzen den doinu hori, Gipuzkoa aldean bakarrik noski, Euskal Erri osoan kantatzen dugu orain hiletetako liturgia berrian, zenari azken agurra eliz barruan ematerakoan.

Jesu-kristori kendu ezker 10

be-ka-tu-a-kin bi-zi-tza 8

baldin ez padet negar egiten 10

harrizko-a det biho-tza 8



Luzea izan bada Basterretxearen aipamena, gaur eta hemen gure harira ondo datorrena da, ene ustez, beste XVIII. mendeko idazle bizkaitar bat gogoratu baitugu, eta bidez batez, Gandararen sasoiko doinuak kantatu baititugu.

Sebastian Antonio de la Gandara bere lanetatik ezagutzen dugu soilik; gernikarra zela badakigu, baina ez dugu oraindik lortu jaiotza eta heriotzako daturik. Lehendik daukat idatzita (Ikus "Euskera" 1976, 89-98 orrialdeak) orain arte jakin izan dugun guztia. Ene ustez 1700 inguruan jaio zen eta 1780 inguruan hil zelakoan nago. Gernikako Andra Maria Parrokian izan genuen apaiz. Xabier Altzibar adiskideari zor diot Calahorrako Artxiboan gordetzen den agiri baten berri: 1743.eko Apirilaren 4an bilera bat egin zuten Busturiako Bikariako Kabildoek eta Gernikako bi Eliz edo Parroki batuen ordezkari gisa azaldu zena gure Sebastian Antonio de la Gandara izan zen, ordurako Benefiziari osoa zena. Geroago, berak dioskunez, "Protonotario Apostólico, Presbítero Beneficiado de esta Villa de Gernika" izan zen. Parrokiaren etxazain edo mayordomo kargua eduki zuen 1749 arte eta zazpi urtetan edo Madrid aldera joan zela esango nuke (1749-1756) azken urte honetan sinatzen baitu erdal olerkitxo bat Gortean. Gernikara itzuli zen lehen Gabon Kanta (1757) idatzi orduko eta beste euskarazko lanak ere Gernikan sinatu zituen gero.

Gernikan sinatzen du Larramendiri 1764.eko Abenduaren 20.an idatzitako gutuna eta bizkaitartzat hartzen du Larramendik lehen esan dudanez; giputzak euskalzaleagoak zirela uste zuen andoindarrak eta hala diotso Gandarari: "Agur Gandara jauna, giputz labaina dirudizuna, lausengar ta txuriketaz apaindua" giputzen mailara heldua, beraz. Eta Bizkaiko euskalkian idazten saiatzen zaigu Larramendi, maite duela gainera aitortuz: "Horra bukatu dot gutun nekagarri hau, **zeuben** (9) eskarako **berbeagaz**. Eskara guztiok **dodaz** maite, ta gozo!"

Orduko bizkaiera ezagutzeko testuak baditugu, baina Gernikan dagoen bat ez da orain arte argitara eman eta atsotitz honen berri ematea dagokit. Gandarak ezagutu zuen seguraski, bera zegoen Parrokian idatzita baitago 1734.etik. Andra Maria Parrokiaren kanpai artean, gorengoen artean hegoalderantz kokatua da, inskripzio hau daramana: "Santa Barbara ora pro nobis. Año de 1734 (goiko aldean), **Zeuc enzunago erioyzea davcazu urrago**" (beheko aldean). Bizkaiera garbian idatzita dago errefrau edo atsotitz hau, "z"

(9) *Zeuberi* agertzen da Telletxea Idigorasen transkripzioan.

fonema “tz” ez ezik errespetatzen duena eta “y” bokalen artean. “Cuanto más me oigas, más cerca tienes la muerte” diosku Gernikako kanpaiak.

Gernikatik Larramendiren herri ingurura bagoaz, Hernanira, alegia, beste atsotitz eta esaldi pila bat aurkitzen ditugu orain arte inork erabili ez duen testu batetan. 1744an hauzitara eraman zituzten hernaniar batzu eta defentsiorako bildurik hauzi paper bitxi bat argitaratu zuten (13 orrialde ditu, 29 × 19 zentimetrodunak) gure bibliografietan ikusten ez dudana eta Azkue Bibliotekan datzana. Hala dio paperaren izenburuak: *La tertulia de Hernani a los bien intencionados, salud y Pascua Florida*. Gaztelaniaz idatzia da, edo hobe esan inprimatua eta tarteka azaltzen dira euskarazko hitz eta esaldiak. Ager-tzen diren ordenan emango dizkizuet, ezer aldatu gabe:

1. Beraz, guezurra diote.
2. Ez orixe, gaz pipertuac gaude.
3. Idiac bearrean, gurdia orro.
4. (Plantar todos los) lancberis.
5. Tonto lapicos.
6. Ba padiagu, arriari agoza.
7. Esquerric asco.
8. Gaudem isilic.
9. Musean jocatu dira, eta laguncho ori ibilli da noronz eguzqui aronz burusi.
10. Urlia, baiote?
11. Alajaña, ezpaderitzat eguia.
12. Eta au onela ezpada, oquerrac zecen ditzala. Eztidilla zapuztu; noizean bein loac artzen du edocein.
13. Gvudeo berriz isilic, ezperen mingaña dilit dilit dagoquit.
14. Igues vide farragarria.
15. Onec eztaquite latin hura (tempus loquendi et tempus tacendi).
16. Goacen bada urren artean.

Hor uzten dut beste batzuentzat transkripzio hau, interesgarria delakoan. Baina, Larramendiren antzera, hirureletakoa da Hernaniko Tertuliaren agiri hau, frantsesez ere idatzia baita: *A revoix Messieurs* (sic), *au revoir* esan beharrean. Bitxia dugu beraz Hernanin 1744an atera zuten hauzi paper hau.

Berriz Gandararen harira jo beharko dugu, bera eta bere lana baitira aztertu behar ditudanak. Sei dira Gandararen lanak, euskaraz idatziak, orain arte nik ezagutzen ditudanak. Kronologikoki lehenak, hiru Gabon Kanta, jadanik argitaratuak. Beste hiru, gaur lehendabizi moldiztegiko bidea hartzen dutenak. Gaztelaniazko olerkitxoak ere baditu, baina ez diegu hemen tokirik utziko (ikus “Euskera” 1976). Orain arte argitara emandakoak honako hauek dira:

1. 1757 - *Gabon Canta del año de 1757 Euskera* agerkarian eman nuen honen berri, 1976, 89-98 orrialdeetan).
2. 1762 - *Gabon Canta Guernicacoa. Hurte 1762* (Joseba Andoni Lakarrak aurkitu zuen Real Academia de la Historiako Artxi-

boan eta "Idatz & Mintz" aldizkarian argitara eman zigun testua 1982, 2) (10).

3. 1764 - *Guernicaco Gabon Cante. Hurte 1764*. Jose Inazio Telletxea Idigoras jaunak aurkitu zuen Madriden, Real Academia de la Historiako Artxiboan hau ere eta Manuel Lekuona jaunaren irazkinekin BRSBAP aldizkarian argitaratu zuen, 1966, 2, 157-171 orrialdeetan. Lan honekin batera eman zigun baita ere Telletxea jaunak Gandararen gutun bat, Larramendiri zuzendua (1764-12-20) eta andoaindarraren beste gutun bat, Gandarari zuzendua (1763-1-23).

Eta argitara gabeak, hiru hauek dira:

4. 1768 - *Ama maitegarriari Zortziko. Cecellaren 3, Hurte 1768*.
5. 1768 - *Ama maitegarriari bere jaiozan. Cecellaren 14 garrenean. Urte 1768*.
6. d.g. *Ardaoaren ganian*.

Baina azken hiru hauen testuak eman orduko, ohartxo bat egin beharrean aurkitzen naiz. 1976an lehen Gabon Kanta argitara eman nuenean, Gandarak lelo edo euskaritxuan darabilen hitz bat, hots, FARARIRA, zer zen ez nekiela esan nuen. Geroko Gabon Kantan ere, hots, 1764an, TANTARARAI hitza darabil Gandarak. Biak dira onomatopeiak, testu gabeko melodiaren zati bat kantatzekoak, XVII eta XVIII. mendean erabiltzen zirenak. Baina lehen onomatopeiari buruz gauza bitxi bat irakurri nuen geroztik, Eximenoren *El Arte de la Música* liburu ederrean. Josulagun honek —berriz josulagunak— Gregorio Bellabene (1720-1803) italiarraren Meza bat kritikatzuten zuen, ahotsen kontrapuntuagatik, bata bestearen atzetik etorririk, TARARI-RA nabarmentzen zelako. Lau ahotsetarako musikatutako Meza honetan, ahots bakoitzak libreki testua kantatzen zuenez, entzuten zen bakarra zera zen:

1. bonae volun TA tis
2. Ado RA mus Te
3. Glo RI ficamus Te
4. Ado RA mus Te

Kritika hau 1774an egin zion Eximenok musikegileari, beraz Meza hori ordurako eginda zegoen, Gandararen garaian. Hain nabarmena bazen entzuten zen TARARIRA hori, Meza horretatik atera ote zuen gure Gandarak Madriden edo entzun ondoren?

(10) J. A. Lakarrak eman zidan originalaren fotokopia. Nik daukadan Gandararen originalarekin konparatuz, Madriden dagoena ez da Gandararen eskuizkribua, kopia bat baizik. *Idatz & Mintz* aldizkarian agertzen den testuak bi errata ditu: 5. bertsoan, azken lerroan, "gustua" dio eta "gustia" esan behar du. 6. bertsoan, azken hurrengo lerroan "Berazo" dio eta "Beraro" esan behar du.

Goazen Gandararen lan ezezagutuak ematera. Esan dugunez, hiru dira, Ama maitegarriari, Ama Birjinari alegia, 1768an egindakoak lehen biak, eta Ardoari egina bestea, baina data gabe eta amaituke berau. Testuak emango ditut, metrikaren ezaugarriak alboan jarritz.

I

AMA MAITEGARRIARI, ZORTZICO

- | | | |
|-------------------------|-----|-----------------------|
| 1. Cerren zarean ceurez | 7 | 4. Ceure ideric inox |
| ama onguiroa, | 6 A | izan estalaco, |
| Virgiña, ceugan daukat | 7 | esta izango bere |
| neuronen gogoa: | 6 A | mundua daneco: |
| icendatuagas ceu | 7 | orregaiti, Andrea, |
| poza dot artuten, | 6 B | bacarra zara zu; |
| amudioz jatala | 7 | enda guztioac alan |
| bioza beteten. | 6 B | aitortuten dogu. |
| 2. Gustiori ederra | | 5. Edocein becataric |
| oranen bagaric, | | dau igueslecua |
| zara, Jaunaren escuz | | ceugan, escatuagas |
| sortu cineanic: | | ceuri amparua: |
| eguiya gordetarren | | Estaquiana ondo |
| vicia emonda, | | arte au billatzen, |
| artez eguin nai neuque | | bere burua berac |
| ceu gañanz egada. | | deungaro dau galtzen. |
| 3. Sortuera ceureac | | 6. Ceruco Erreguina, |
| onezco barria | | balia zaquiguz, |
| mundu char oni eutsan | | erregututen auxe |
| ecarri, Maria: | | egongo gachazus: |
| Jaungoicoaren seme | | izan dedilla gueure |
| bococh beticoa | | arnasa azquena |
| zala sabel ceurean | | Jesus onenarequin |
| araguitzeco. | | ceurorren icena. |

Cecellaren 3 Hurte 1768.

Bizkaierazko sei bertso hauek badute balio literarioa eta hizkuntzaren lekukotasuna ere. Baina nik hemen azpimarratuko nukeena da **zortziko** izena ematen diola Gandarak bertso molde honi, benetan gaur **zortziko txikia** denari. Beraz ez da *Ituringo Arotza*-rena ezagutzen dugun zortziko txikirik zaharrena, Gernikan egindako Gandararen hau baizik.

II

AMA MAITEGARRIARI

BERE JAIOZAN

- | | | | |
|------------------------|-----|-------------------------|--|
| 1. Jayo cinean | 5 A | 4. Bera ceurezat, | |
| zori onean | 5 A | da ceu berenzat, | |
| ceruetaco lorea | 8 B | esan seusquneti, zara: | |
| Ceuxec isurten | 5 C | bada ceuleguez | |
| dozu Adanen | 5 C | esta inor, ez, | |
| humeenzat amorea | 8 B | izango aren gogara. | |
| 2. Ceure arguiac | | 5. Lurre ez ece, | |
| gueure begiac | | cerua bere | |
| gutziz alegretan ditu | | ceugana dago jarquiric: | |
| cerureanic | | ceure jaiozan | |
| ondo lastanic | | biac egozan, | |
| munduac artuten zaitu. | | miraritu ta ixilic. | |
| 3. Dauco biotza | | 6. Da Guztiala | |
| motzaren motza | | chit liberala | |
| oneresten ezteuzanac | | ceugaz, Maria, ciertu: | |
| eguiya dala | | ceuc gustiraco | |
| ceugan davela | | daucazulaco, | |
| atseden gosoa Jaunac. | | gura dozunean aguertu. | |

Cecellaren, 14 garrenean. Urte 1768.
Gandara.

Metrika aldetik neurri handietara jo du oraingoan Gandarak, hots, 10 + 8 silabadunetara, nahiz eta hamar silabadun lerroarekin 5 + 5, errimadunak biak, egin. Agustin Basterretxeak egindako berbera, beraz.

III

ARDOAREN GANIAN

- | | |
|-------------------------|-----|
| 1. Ni nas aguintari bat | 7 |
| ez guizon es andra, | 6 A |
| munduan bici dirian | 7 |
| lau partiden jabe: | 6 B |
| Guichi vizi leiteque | 7 |
| munduan ni bague: | 6 B |
| estauco gustorican | 7 |
| enabenac maite | 6 B |

2. Ardaoa dot izena	7
au gusto gozoa	6 A
gustoac berac mindu	7
espadau ardaoa,	6 A
ardaoric estanian	7
da gueure gorputza,	6 B
muguertasuna salbu-	7
ta, zacu bat utsa.	6 B
3. Erregue, ta Erreguina,	7
apaizac, anaiac,	6 A
zarrac, eta gasteac	7
dirade zaleac.	6 A
Mundu gustiac naidu	7
ardaoa adisquide	6 B
.....	
.....	

Amaitu gabe utzi zuen Gandarak hirugarren bertso hau, zortziko txikian asmatua, baina puntuak ondo zaindu gabe. Ardoari egindako hirugarren kanta bat dugu hau, Gandararen garaikide ziren Meagher eta Munibek egindakoen antzerakoa. Gandarak aipatzen dituen apaizen artean ez zegoen Manuel Larramendi, berak esaten baitio 1763.eko gutunean: "Ni hiruroguei ta amairugarren urtean sartua nabil... ardoric iñoiz ez, beti ura edaten dedala". Gandara, ordea, apaiz edaleen artean ote zen? Hau dugu Sebastian Antonio de la Gandara, XVIII.mendean bizkaitar idazlea.

GAI LABURRAK

MAILEGU HITZEZ

EUSKAL HITZEN AKABUKO -O ETA -U ZENBAIT AUTORETAN

1984-II-29

Alfonso Irigoien

Joan den hilean lan bat moldatu nuen: “Bizkaian -o + -a elkarketa -oa egiten den eremuko hitz mailegatu arruntak azken -o eta -u bokalei dagozkiena, azentua ere gogoan harturik”. Hura ez dago autoreen izkribu zaharretarik bildurik, eremu jakin bateko hizkuntza bizitik baizik. Aurrean duzuna haren osagarri da, hain zuzen ere han tratatu ez zen alderdi hori ikusten baitu, neurri batean bederen, eta neurria, alegia, nahi den bestean zabal daiteke autore gehiagori kargu hartuz gero.

Amaierako bokalari dagokionez formak era bitara agertzen direnean elkarren parean datoz.

abapuru, P. Ab., 104: **abapurubac**, sagar mueta bat.
abendu, Belap., II, 14: **aventuco lehen Igantiaren aitecinian erraiteco**, baina 112: **adventu lehen Igantetic**,..., Leic., “Kalendrera”: **advendva**.
abespelu, P. Ab., 138: **abespeluban**, baina hala ere 84: **abespeluan**.
abisu, Ax.: **abisu**.
abokatu, Belap., II, 67: **gouré avocatu icateco**.
adimendu, Leic., 326: **adimendu**, Ax.: **adimendu**.
adio, Ax.: **adio**.

adjutu / ajutu, P. Ab., 99: **vide adjutuba**, baina Maisterrek **ajutu** erabiltzen du zentzuaren aldetik ñabardura berdintsua, baina ez berdina, duela, III-garren orrialdea: **eta escupian den diocesaren pharte-batec ecin escola houn hoyetariec ajuturic ukheiten beitecian**, ..., V-garren orrialdea: **haren berauren ajutiareki**, hau da, **ajutu + -a = ajutia**, hain zuzen ere X-garren mendeko glossa emilianenseetan irakur dezakegun **ajutu** hitz berbera eta Maisterrek hainbat aldiz dakarrena. Honezaz dudak agertu berri badira ere ez dut uste lekurik gelditzen denik horretarako.

adulterio, Ax.: **adulterio**.

adultero, Leic., 298: **adulteroéc**, ergat. pl.

aho, Belap. 45: **ahoa**, P. Ab., 50: **aoz**.

aholku, Belap., 50, 51: **aholkia**.

aiduru, Belap., 35: **aiduru baitçaudian**.

aingeru, Leïç., 451: **aingueruäc**, ergat. sing., Ax.: **aingiru**, Belap., 42: **ainguriac**. Latinez **angelus**, -i, grekozko **áγγελος** hitzetik, irakur bedi **ángelos**.

aitzinamendu, Ax.: **aitzinamendu**.

akometamendu, Ax.: **akometamendu**.

akordu, baina **akort** (izan), Ax.: **akhordu**, **akhorduan** egon, **akhort** izan.

Ikus **desertu**, **kontentamendu** eta **prestu**.

akulu / **akulo**, P. Ab., 149: **aculu**, Leïç., 224: **akuloén** contra.

akusamendu, Ax.: **akhusamendu**.

albo, P. Ab., 59: **albo**.

almorzu, P. Ab., 119: **almorzutaco**.

alokairu, Leïç., 208: **alocairutic**, Ax.: **alokairu**.

alzairu, Ax.: **alzairuzko**.

amarau, Ax.: **amarau**.

amoltsu, Ax.: **amoltsu**.

amorio, Leïç., 422: **amorioa**, Ax.: **amorio**.

amu, Ax.: **amu**.

amulu, P. Ab., 126: **amulu edo quirru...**, 139: **amuluba**.

anatomico, P. Ab., 53: **anatomico ona**. Latinez **anatomicus**, -i, grekozko **anatomikós** hitzetik.

animo, P. Ab., 77: **baña**, **animo**.

antzitu, P. Ab., 109: **bei antzituba**.

antzu, Ax. **antzu**.

anu (egin), Ax.: **anu**.

anzo, Leïç., 328: **erho anço minço naiz**, Belap., 72: **ceren nola espiritia-**
ren anço han baitago.

apairu, Belap., 111: **apairu**.

aparailu, Ax.: **aparailu**.

apetitu, Ax.: **aphetitu**.

apo, Ax.: **apho**, P. Ab., 88, zentzu desberdina duela: **apo** / **apua**.

apostolu, Leïç., 208: **apostoluē cōtuā**, Ax., **apostolu**, Belap., 37: **aposto-**
lier, dat. pl. Latinez **apostolus**, -i, grekozko **apóstolos** hitzetik.

arao, P. Ab., 106: **birao ta araoca**.

ararteko, Leïç., 335: **arartecoa**, Ax.: **ararteko**, Belap., 150, **femeninora-**
ko: arartecossa.

arau, Ax.: **arau**.

arazo, P. Ab., 128: **arazo**.

arbuio, Ax.: **arbuio**.

ardao / **arno**, P. Ab., 44: **ardao**, Ax.: **arno**.

arerio, P. Ab., 81: **arerijua**.

arkakutso, P. Ab., 182: **arcacutsua**.

arkosko, P. Ab., 118: **arcoscuen gañian**.

arku, Ax.: **arku**.

arlo, P. Ab., 48: **arlo**.

arnegu, Ax.: **arnegu**, Belap., 90: **arnegu**.

arno, ikus **ardao**.

aro, P. Ab. 216: **aro edo guirnaldac**.

arrano, Ax.: **arrano**.

arrastu, P. Ab., 174: **arrastuba**.

arrau, Ax.: **arrau**.

arrisku, P. Ab., 102: **arriscuric**.

arro, P. Ab., 44: **arro**.

arrosario, Belap., 146: **arrosarioaz**.

artikulu, Ax.: **artikulu**.

arto, Ax.: **artho**, P. Ab., 69: **arto**.

arzipizpiku, Ax.: **arzipizpiku**. Ikus **ipizpiku**.

asaldu, Ax.: **asaldu**.

asmu / asmo, Ax.: **asmu**, P. Ab., 61: **asmoz**.

asto, Ax.: **asto**, P. Ab., 49: **asto**.

atsitu, P. Ab., 94: **piztija atsitu zapalari**.

atso, P. Ab., 71: **atso**.

atzo, P. Ab., 116: **atzocua**.

auspo, P. Ab., 130: **auspuen illeta soñu ta...** Ikus **hausko**.

auzo, P. Ab., 64: **auzoco erri bateti**. Ikus **hauzo**.

azao, P. Ab., 151: **azauac**.

azaro, P. Ab., 138: **lur... azaro onecuan**.

baimendu, Ax., sust.: **baimendu**.

balaku, Ax.: **balaku**. Ikus **palagu**.

balio, Leic., 337: **ez... du...** **balio**, Ax.: **balio**, Belap., 99: **valioa**.

balsamo, Ax.: **balsamo**, Belap., 65: **balsamoaren urrin honac**, ergat. sing. Latinez **balsamum**, -i, grekozko **bálsamon** hitzetik.

bandio, P. Ab., 134: **bandijua**.

bano, Leic., 311: **ezta vano içan**, Ax.: **bano**.

barano, Belap., II, 115: **su horren baranoan**.

barberu, P. Ab., 44, 45: **barberuba**.

barieku, P. Ab., 59: **barijecubetan**.

barkamendu, Ax.: **barkhamendu**, Belap., 38: **bekhatien parcamentia**. Ikus **parkaziño**.

barru, P. Ab., 44, 45: **barruban**. Dударик gabe Zuberoako **barruki** hitzak -ki berrekailua darama, 'gorta' zentzua harturik, Belap., II, 19: **Jesus Christ sorthu deya behardun eta nekeçu? Bay duda gabé, barruki batetan sorthu denaz gueroz, ...** Azkue-ren hiztegiak ez dakar Zuberoan arrunta den hitz hau, baina bai Nafarroa behereko "**barroki** (BN-ald), establo", eta Bizkaiko "**barro egin** (B-I): a) **atrapar**, b) **incluir**", -o amaieradunak.

basa-asto, Ax.: **basa-asto**.

basa-idisko, P. Ab., 109: **basa-idisko**.

basko, P. Ab., 187: **basco**, Ifarraldeko euskalduna.

baso, P. Ab., 47: **basoarteti**, baina Maisu Juanek, anatomiaz ari dela, dio, 83: **ta au da eracusteco cer dirian vasuac**.

bateiu, Belap., 61: **batheyuco houra**.

bazcalondo, P. Ab., 192: **bazcalondo**.

bazco, Leiz., 297: **bazcoa**, Ax.: **bazko**, Belap., 35: **bazcoz**, 112: **bazco zaharra**.

begiramendu, Ax.: **begiramendu**.

begitaziño, P. Ab., 155: **beguitacinoren bat**.

behar-ondoko, Ax.: **behar-ondoko**.

bekatu, Leiz., 395: **bekatuagatic**, Ax.: **bekhatu**, Belap., 34: **guiçonaren bekhatlagatic**, P. Ab., 149: **pecatu**.

belauriko / **belauniko**, Ax.: **belhauriko**, Belap., 68: **belharico**, P. Ab., 128: **belaunico**, baina 106: **belaunbico**.

belo, Belap., II, 50: **Eliçaco velo houra**.

belu, P. Ab., 69: **belutuco jacu**.

benigno, Leiz., 308: **benigno da**, mailegu berria, noski.

berandu, Ax.: **berandu**, P. Ab., 124: **berandu**.

berbaro, P. Ab., 153: **verbarua**.

berbo, P. Ab., 200: **verbuetan**.

bergamallu, P. Ab., 134: **bergamalluba**.

bero, Ax.: **bero**, P. Ab., 121: **bero**.

berso, P. Ab., 61, 62: **versua**.

beso, Ax.: **beso**, P. Ab., 76: **beso**.

billau, P. Ab., 217: **billauquerija**.

birao / **burho** / **borhau**, P. Ab., 219: **biraoa**, Ax.: **burho**, Belap., 90: **borhau**.

birigarro, P. Ab., 180: **birigarro**.

bizio, Ax.: **bizio**, Belap., 23: **vicioac**.

bolu, P. Ab., 151: **bolu**.

borogu / **phorogu** / **forogu**, Belap., 113: **borogu**, Leiz., 361: **phorogu**, Ax.: **forogu**.

borreru / **borrero**, P. Ab., 63: **borreru**, Ax.: **borrero**.

boto, Belap., 90: **voto saintiac**.

bozkario / **boztario**, Leiz., 288: **bozcario**, Ax.: **bozkario**, Belap., II, 18: **boztario**.

brindo, P. Ab., 112: **brindo zure ta familija guzti onen osasuneraco**.

buraso, ikus **guraso**.

burgu, Belap., 33: **Nazaret Galileaco burguiian**.

burko, P. Ab., 129: **burco**.

buru, Leiz., 208: **buruä**, Ax.: **buru**, Belap., 37: **buru**, P. Ab., 43: **buru-ban**.

burutazino, P. Ab., 154: **burutacino**.

damu, Ax.: **damu**, Belap., 18: **damu**, P. Ab., 72: **damu**.

datibo, Leiz. "Çvberoaco herrian vsançatan eztiraden hitz bakoitz ba-tzu", ey, er: **datiuo**.

deabru, Leiz., 304: **deabruén mahainean**, Ax.: **deabru**, Belap., 34: **deebriari**, dat., P. Ab., 63: **diabruba**.

debeku / **debetu**, Ax.: **debeku**, Belap., 112: **noiz dira devetu...?**, 115: **devetu da**.

debozino, Ax.: debozino.
 defuntu, Ax.: defunktu.
 delikau, P. Ab., 46: delicau.
 desamorio, Ax.: desamorio.
 desertu / desert (egin), Leic., 208: eguin bedi haren habitationea desert,
 baina, 220: desertuan, Belap., II, 41: desertian. Ikus akordu, kontentamendu
 eta prestu.

desgobernu, Ax.: desgobernu.
 deskargu, Ax.: deskargu.
 deskonsolatu, Ax.: deskonsolatu.
 deskontentamendu, Ax.: deskontentamendu.
 desordenu, Ax.: desordenu.
 despatxu, P. Ab., 193: despachubac dacaz declarazinoiac.
 despendio, Leic., 302: despendioz.
 desterru, Ax.: desterru.
 dibino, Leic., 279: diuinoa.
 diptongo, Leic., "ABC", 3: diphtōgoa. Latinez diphthongus, -i, edo dip-
 thongos, -i, grekozko diphthoggos formatik, irakur bedi diphthongos.
 diru / diharu, Ax.: diru, P. Ab., 50: diru, Belap., 102: diharia.
 dizipulu, Ax.: dizipulu, Leic., 217: discipuluzco compainiá.
 dohatsu, Ax.: dohatsu, Belap, 39: dohaxiec, ergat. pl.
 dolu, Ax.: dolu, Belap., 66: dolu bizi bat.
 dongaro, P. Ab., 46: dongaro.
 donu, Ax.: donu.
 drezu (eman), Leic., 350: neure eguitecoey dreçu eman drauqueedan
 sarrienaz.

ebanjelio, Leic., 333: euangelioco eguiác, Ax.: ebanjelio, Belap., 144:
 evangelloa. Latinez euangelium, -ii, grekozko euaggélion hitzetik, irakur bedi
 euaggélion.

edergaillu, Ax.: edergaillu.
 ederto, P. Ab., 46: ederto.
 ekandu, P. Ab., 212: ecandubac.
 elementu, Belap., 84: laur elementiac.
 emendaillu, Ax.: emendaillu.
 enbarazu, P. Ab., 75: embarazuba.
 endelegamendu / entelegu, Ax.: endelegamendu, Belap., 50: entheleguia.
 endrezu, Ax.: endrezu.
 enganamendu / enganio, Ax.: enganamendu, Leic., 360: enganiorequin.
 enkantu, P. Ab., 165: encantu.
 enparau, P. Ab., 110: emparauba.
 enpatxu, Leic., 302: empatchuric batre.
 enpeñu, P. Ab., 198: empeñu.
 enplastu, P. Ab., 77: emplastu.
 enseiu, Ax.: enseiu.
 entregu, Ax.: entregu.

- eredu, Ax.: eredu.
- eregu, P. Ab., 130: eregu ta ogui biguna.
- eremu, P. Ab., 74: eremutar, Belap., II, 113: eremiala ioan cen.
- erloju, P. Ab., 115: erlojuban.
- ero, Leic., 328: erho, Ax.: erho, Belap., II, 48: erho, P. Ab., 121: ero.
- erramu, Belap., 142: cergatic erramuz benedicatcen eta eskiala emaiten
- dira erramiac Procesionala joaitian?
- errebañu, P. Ab., 52: errebañu.
- erregalu, P. Ab., 88: erregaluban.
- erregeldo, P. Ab., 119: erreguelduac, Maisu Juanen ahotan, Peru-k
- aupatsac.
- erregu, P. Ab., 67: erregu.
- erremedio, Ax.: erremedio, Belap., 52: erremedioez.
- erreprotxu, ikus reprotxu.
- erretillu, P. Ab., 54, 135: erretillu.
- erro, Leic., 283: erroa, Ax.: erro, P. Ab., 122: errua.
- errosario, P. Ab., 113: errosarijua.
- erru, P. Ab., 47, 72, 192, 213: erruba. Ikus herru.
- eskallu, P. Ab., 123: sei escalluc, ergat.
- eskandalu / eskandalo, Ax.: eskandalu, Leic., 337: scandaloa. Latinez
- scandalum, -i, grekozko scandalon hitzetik.
- esklabo, Leic., 299: sclaboa.
- eskolau, P. Ab., 111: escolauba zara.
- eskoplo, P. Ab., 152: escoplua, arotzarena.
- eskribau, P. Ab., 79: escribau.
- esk(i)ribu, Leic., 454: scribuz, Ax.: eskiribu.
- eskrupulu / eskrupulo, Leic., 287: scrupulo, P. Ab., 75: escrupulubetan.
- esku, Ax.: esku, Belap., 70: eskietara, P. Ab., 49: escu.
- eskudo, P. Ab., 73: escudo bi, diruari dagokiola.
- eskumuku, Belap., 108: escumucuren penan.
- espíritu, Leic., 327: spiritubat, Ax.: espíritu / spiritu, Belap., II, 78: Espi-
- ritu saintia.
- espilikazino, P. Ab., 174: esplicacinuac. Lan honetan, batzuetan, halako
- egitura duten hitzen akabuan artikulua ezarriz gero beste bide bat hartzen da,
- P. Ab., 116: satisfacinoia.
- esportzu, Ax.: esportzu.
- esposo, Ax.: esposo.
- estakuru, Ax.: estakuru.
- estatu, Ax.: estatu.
- estekaillu, Leic., 376: estecailluetarano.
- estraiño, Ax.: estraiño.
- estropu, Ax.: estropu.
- estu, P. Ab., 82: irrinza estuba / estuban iminten dozu nire jaquituriya.
- estudio, Ax.: estudio.
- eterno, Ax.: eterno.

exenplu / exenplo, Leïç., 303: **exemplutan**, Ax.: **exenplo**, P. Ab., 194: **ejemplu**.

exzesibo, Leïç., 316: **excessiuoqui**, mailegu berria, noski.

ezko, Ax.: **ezko**, P. Ab., 73: **bacarric miña dauca chito ezco ta zolija**.

ezkutu, Ax.: **ezkutu**, P. Ab., 100: **ezcutuban**.

falsu / falso, Leïç., 218: **falsuac**, Belap., 47: **iakile falsu ez içala**, Ax.: **falso**.

famatu, Ax.: **famatu**.

fermu / fermo, Leïç., 314, 330: **fermu**, Ax.: **fermo**.

fido (izan), Ax.: **fido**.

fiko, Ax., **fiko**. Ikus **piko**.

filosofo, Ax.: **filosofo**. Latinez **philosophus**, -i, grekozko **philósophos** hitzetik.

finko, Ax.: **finko**.

flaku / flako, Leïç., 272, 331: **flaccu**, Ax.: **flako**.

forogu, ikus **borogu**.

foru, ikus **poru**.

franko / frango, Ax.: **franko**, Leïç., 326: **frangoqui**.

frutu / fruitu, Belap., 52: **frutu**, Ax.: **fruitu**, Leïç., 407: **fructu**.

gabiko, P. Ab., 138: **garramauta**, **gabicotu** biar da, ta **gabico** eguinac **sartuten dira** uretan.

gaixo, P. Ab., 47: **gaisuen artian**, 79: **gaissua**.

gaixto, Leïç., 326: **gaichto**, Ax.: **gaixto**, Belap., 18: **hayen gaistokeriac**, P. Ab., 63: **gaisto**.

galatiano, Leïç., 334: **galatiano**.

galburu, P. Ab., 151: **galburu**.

galgarau, P. Ab., 68: **galgarauba**.

galto, Belap., 28: **galthoa**.

ganadu, P. Ab., 87: **ganadu baltza / ganau zurdaduna**, 183: **ganadu**.

gandu, P. Ab., 146: **besteti amuluba**, au **ganduba** eta **perreztupetuba**.

gantzutu, Ax.: **gantzutu**.

garatxu, P. Ab., 149: **garachuba**, **burdiari dagokio**.

garau, P. Ab., 89: **garaubaz**.

garaziatsu, Ax.: **garaziatsu**.

gardu, P. Ab., 195: ..., **ceñen soloa dagoan laarrez**, **muguitaz**, **azquiz**, **garduz**, **zalgaz**, **zoragariz** **beteric**.

garraio, Ax.: **garraio**.

gastu, Ax.: **gastu**, P. Ab., 191: **gastubac**, **baina baita ere**, 75: **gure castubac**, **ergat. sing.**, 189: **castuba**.

gatibu, Ax.: **gathibu**, Leïç., 378: **gathibu**. Azken honi mailegu arrunta erabiltzeak ez dio galerazten kanpotikako forma berria ere ontzat hartzea, 326: **captiuo beçala**. Ikus **katigu**.

gau, Ax.: **gau**, P. Ab., 66: **gau**.

gaxo, Belap., II, 4: **gouré laborari eta cabaleçain gachoac**.

gatzelu, Ax.: **gatzelu**.

gaztigu, Leïç., 399: **gaztiguä**, Ax.: **gaztigu**, Belap., II, 41: **barourez eta besté gaztiguiez**.

gernu / **garnu**, Ax.: **gernu**, P. Ab., 87: **garnuoncija**.

gero, Ax.: **gero**, Belap., 130: **guero**. P. Ab., 45: **guero**.

gerrestu, P. Ab., 43: **guerrestuba**.

gerriko, Ax.: **gerriko**.

gertu, Leïç., 321: **guerthu**.

gibelamendu, Ax.: **gibelamendu**.

girstino, Ax.: **girstino**, Leïç., 414: **christino**. Ikus **kristiñau**.

giro, P. Ab., 138: **guiro**.

gobernamentu, Leïç., 308: **gobernamentuac**.

gobernu, Leïç., 378: **gobernua**, Ax.: **gobernu**.

godo, P. Ab., 197: **godo**.

gogo, Leïç., 208: **gogo**, Ax.: **gogo**, Belap., 45: **goure gogoac**, P. Ab., 62: **goguan**.

golko, Ax.: **golko**.

gonburu, P. Ab., 123: **gomburubaren erreseria**.

gorrotu / **gorroto**, Ax.: **gorrotu**, P. Ab., 44: **gorroto ta igüin**.

goru, P. Ab., 121: **goruric ez**.

gosesto, P. Ab., 92: **gosesto**.

gozatu, P. Ab., 89: **urda gozatubac**.

gozo, Ax.: **gozo**, Belap., 118: **meçaco Sacrificiotic goço harceco**, 149: **cer goço hantic giten çaiçu?** P. Ab., 58: **janari gozuac**.

gradu, Ax.: **gradu**.

grano, Ax.: **grano**. Formaren aldetik ikus **garau**.

greco, Leïç., 307: **grecoric**.

gudu, Leïç., 330: **guduac**, Ax.: **gudu**, Belap., 95: **gudukaz**.

guraso / **buraso**, P. Ab., 57: **guraso**, Ax.: **burhaso**.

gustu, Ax.: **gustu**.

gutizioso, Leïç., 414: **guthicioso**.

hausko, Ax.: **hausko**. Ikus **auspo**.

hastio, Belap., 106: **haren hastio ukheitia**.

haurzaro, Belap., II, 22: **haurçaroa**.

hautu, Ax.: **hautu**.

hauzo, Ax.: **hauzo**. Ikus **auzo**.

heredero, Leïç., 404: **heredero**, Ax.: **heredero**.

heretiko, Leïç., 382: **guicõ hereticoa**, Belap., II, 124: **gueroz ardura hereticoec eta fede gabec hil eraci dutienez**. Latinez **haereticus**, -i, grekozko **hairetikós** hitzetik.

herio, Leïç., 456: **herioac**, ergat. sing., Ax.: **herio**, Belap., 78: **herioa**. P. Ab., 208: **erijuaz**.

herratu, Belap., 150: **Evaren haur herratiac**.

herru, Ax.: **herru**. Ikus **erru**.

hildo, Ax.: **hildo**.

hosto, Ax.: **hosto**.

humano, Leič., 293: **...ezta ičan sapientia humanoren hitz gogagarritan**, P. Ab., 84: **corputz humanua**.

husu, Ax.: **husu**.

idisko, P. Ab., 58: **idisco**.

idolo, Ax.: **idolo**. Latinez **idolum**, -i, edo **idolon**, -i, grekozko **eidolon** hitzetik.

ifernu / **infernu**, Ax.: **ifernu**, Belap., 17: **ifernuco penez**, P. Ab., 161: **infernuetara**, giputzaren ahotan. Ikus **inpreiñu**.

ijto, Ax.: **ijto**.

indigno, Leič., 306: **indignoqui**, mailegu berria, noski.

infinitu, Ax.: **infinitu**.

infirmu, Leič., 330: **infirmu**, mailegu berria, noski.

inguru, Leič., 208: **ingurucoric**, Ax.: **inguru**, P. Ab., 92: **inguruban**.

inklinazino, Ax.: **inklinazino**, P. Ab., 184: **inclinacino**.

inkontru / **enkontru**, Ax.: **inkontru**, Belap., 119: **espiritu gaistoen encontriari**.

inpreiñu, P. Ab., 65: **impreinuba**. Ikus **ifernu**.

inprentzu, Ax.: **inprentzu**.

inspirazino, Ax.: **inspirazino**.

inxensu, Belap., 145: **inchensu**.

inzirrikatu, P. Ab., 99: **ate incirricatuba**.

ipizpiku / **apezkupu**, Leič., 412: **ipizpicuagana**, Ax.: **ipizpiku**, Belap., 18: **goure jaun Apezcupiac**, ergat. sing. Latinez **episcopus**, -i, grekozko **episkopos** hitzetik.

iskibidu, P. Ab., 92: **atralaca ta isquibiduric**.

itsaso / **itxaso**, Leič., 328: **itsassoan**, Ax.: **itsaso**, P. Ab., 175: **ichasocua**.

itsu / **itxu**, Ax.: **itsu**, P. Ab., 191: **ichu**, Belap., 57: **uxu**.

iturburu, Ax.: **ithurburu**.

itzul-inguru, Ax.: **itzul-inguru**.

ixillu, P. Ab., 135: **issilluba**, olako tresna.

Jainko / **Ja(u)ngoiko**, Leič., 304: **laincoari**, dat., Ax.: **Iainko** / **laungoiko**, Belap., 17: **Ginco**, P. Ab., 69: **Jangoicuaren verbia**, baina, 57: **Jaincua**.

jakinsu, Leič., 294: **iaquinsu**, Belap., 97: **iakinsu**.

jangar(t)zu, P. Ab., 89: **jangarzututu**, baina, 121: **jan gartzu**.

jarleku, Ax.: **iarleku**.

jateko, Ax.: **iateko**.

jenderazino, Ax.: **ienderazino**.

jenero, P. Ab., 83: **Anatomijac daucaz lau genero**.

joko / **joku**, Ax.: **ioko**, Belap., 110: **ioco gastoac**, baina, 91: **iocu**, II, 40: **jokiac**, P. Ab., 200: **joco**.

judaismo, Leič., 332: **iudaismoan**.

judizio, Ax.: **iudizio**.

judu, Leič., 209, 333: **iuduac**, Ax.: **iudu**, Belap., 143: **judien uxueria**

Jesus Christen hil eracitiaz.

ujamentu, Belap., 58: **ujamentia**.

- julgamendu**, Ax.: **iulgamendu**.
juramendu, Leïç., 210: **iuramenduz**, Ax.: **iuramendu**.
justu / justo, Ax.: **iustu**, Leïç., 212, 312: **iustoa**.
kaiku, P. Ab., 135: **caicuba**.
kako, P. Ab., 94: **cacuan**.
kamelu, Ax.: **kamelu**.
kanderaillu, Belap., 141: **khanderailluz**.
kanpo, Leïç., 328: **campotico gauçac**, Ax.: **kanpo**, Belap., 61: **campoeta-ra**, P. Ab., 214: **Marteren campuan**, 83: **campoco ta barruco gachac**.
kantiko, Leïç., 449: **canticoa**.
kantu, Leïç., 437: **cantu**, Ax.: **kantu**.
kañu, P. Ab., 134: **cañuba edo aisevidia**.
kapitulu, Ax.: **kapitulu**, Belap., 155: **capitulu**.
kapurtxino, P. Ab., 130: **capuchino**.
kargu, Leïç., 217: **cargu**, Ax.: **kargu**, Belap., 17: **cargutan dutien arimac**.
kario, Ax.: **kario**, Belap., 21: **aurhide karioac**, 100: **kharioegui**.
karlo, Ax.: **karlo**.
karnazeru, P. Ab., 52: **carnaceruba**.
kartilago, p. Ab., 83: **cartilagüen ganian**.
kartujo, P. Ab., 130: **cartujo**.
kastigu, P. Ab., 185: **castigu**.
kasu, Ax.: **kasu**.
katigu, P. Ab., 144, 209: **catiguban**. Ikus **gatibu**.
katillu, P. Ab., 54: **catillu**.
kato, P. Ab., 127: **burdin cato bat**.
katoliko, Leïç., "Fedeco ArticiuIvez", 15: **catholiccoa**. Latinez **catholicus**,
 -i, grekozko **katholikós** hitzetik.
katu, P. Ab., 45: **catubagaz**.
keinu, Ax.: **kheinu**.
kexu / kexo, Belap., II, 60: **khechueria**, eta era berean, 24: **uxueri hartan**,
 hau da, **uxu + eri**, ikus **itsu**, Ax.: **kexo**.
kirru, P. Ab., 117: **quirru**.
kitu / kito, P. Ab., 79: **quitu**, Ax.: **kito**.
klaru / klaro, P. Ab., 65: **claru**, Leïç., 213: **signo claro bat**.
kobao, P. Ab., 98: **cobauan**.
kofau, Ax.: **kofau**.
koipatsu, P. Ab., 70: **coipatsu**.
kolpu, Belap., II, 50: **beré bougharrer colpu emaitzez...**
konbersazino, P. Ab., 68: **conversacinoric**.
kondizino, Ax.: **kondizino**.
koneju, P. Ab., 92: **conejuba**.
konfusino, P. Ab., 185: **confusino**.
konparazino, Ax.: **konparazino**.
konplezino, Ax.: **konplezino**.
konplimendu, Leïç., 286: **complimendua**, Ax.: **konplimendu**.

konseillu, Leič., 213: **conseillutic campora ilkitera manaturic**, Ax.: **konseillu**, P. Ab., 171: **conseju**.

konsentimendu, Leič., 298, 322, 331: **consentimendu**, Ax.: **konsentimendu**.

konsiderazino, Ax.: **konsiderazino**.

konsolamendu, Ax.: **konsolamendu**.

kontenplazino, Ax.: **kontenplazino**.

kontentamendu, Ax.: **kontentamendu**. Axularrek **kontent (izan)** ere badarabil, eta **kontentez**; Gernikako Marijesietan: **kontentuaren aundiz**. Ikus **akordu**, **desertu** eta **prestu**.

kontrario, Leič., 361: **contrario**, Ax.: **kontrario**.

kontu, Leič., 208: **contuco cen gurequin**, Ax.: **kontu**, Belap., 101: **contu hersi bat eman**, P. Ab., 60: **contu**.

konzalo, P. Ab., 86: **conzaluac**, txerriari dagozkio.

konzillio, Ax.: **konzillio**.

kornadu, Ax.: **kornadu**, dirua.

koropillo, Ax.: **koropillo**.

korromio, Ax.: **korromio**.

kostu, P. Ab., 53: **zeure costura**, 79: **costubac**.

kozu, ikus **kutsu**.

kredo, Belap., 39: **credoac**, ergat. sing., P. Ab., 157: **credua**.

kristiñau, P. Ab., 67: **cristinauba**. Ikus **gristino**.

krosko, Ax.: **krosko**.

kruselu, P. Ab., 78: **cruselu**.

kuartillu, P. Ab., 44: **cuartillu**.

kurazino, P. Ab., 78: **curacino**.

kutsu / kozu, Ax.: **kutsu**, Belap., 92: **bekhatiaren khoçutic guiveltuz**.

laako, P. Ab., 50: **zulo bacochari laacua**.

laatro, P. Ab., 152: **laatrua**, arotzarena.

laido, Leič., 414: **etzayola laido**, Ax.: **laido**, Belap., II, 49: **laidogarri**.

lakirio, P. Ab., 155: **burdin laquirijo bat**.

laku, Ax.: **laku**.

lanbo, Ax.: **lanbo**.

lano, Ax.: **lanho**.

lapiko, P. Ab., 73: **gure lapicoco arbi, aza, ta oquela zantarra urre biur-tuco jacu bere auan**.

larru / narru, Ax.: **larru**, Belap., II, 114: **larru**, P. Ab., 86: **narruba**.

lasto, Ax.: **lasto**, P. Ab., 70: **lasto**.

lau, P. Ab., 95: **lautasuna**.

laudorio, Leič., 411: **laudorio**, Ax.: **laudorio**, Belap., 134: **Gincoari biz laidorio**.

lausengu, Leič., 360: **lausenguzco hitzez**, Ax.: **lausengu**.

lauso, P. Ab., 43: **beguijac lausotuta**.

laxio, Ax.: **laxio**.

laxo, Leič., "ABC", 2: **lacho**, Ax.: **laxo**.

- lazo, Ax.: lazo.
 leiho, Leiz., 328: leiho, Ax.: leiho.
 leinu, Leiz., 282, 446: Beniaminen leinutic, Ax.: leiñu.
 lejitimo, Ax.: lejitimo.
 leku, Leiz., 208, 218: lekurát, Ax.: lekhu, Belap., 23: lekhu, P. Ab., 64:
 lecura.
 lekuko, Ax.: lekhu.
 lelo, Ax.: lelo, P. Ab., 219: noc atera bere lelo ta temati?
 lepo, Ax.: lepho, P. Ab., 53: lepotic.
 letratu, Ax.: letratu.
 libramendu, Ax.: libramendu.
 liburu, Leiz., 208: liburuän, Ax.: liburu, P. Ab., 57: liburu.
 liho / lino, Ax.: liho, P. Ab., 137: lino.
 linbo, Ax.: linbo.
 lo, Ax.: lo, Belap., II, 42: loa, P. Ab., 51: lo.
 lolo, Ax.: lolo.
 lopeto, P. Ab., 87: lopia ó lopetua, txerriari dagokio.
 luzamendu, Ax.: luzamendu.
 luzaro, Ax.: luzaro.
 mahatsarno, Leiz., 453: mahatsarno, Belap., 70: mahaxanoa —ez da
 erratua—, P. Ab., 95: matsardaua.
 maillu, Ax.: maillu, P. Ab., 127: mallutzarpeti / mallupian, 135: mallu-
 bac.
 maingu, Leiz., 211: maingu, Ax.: maingu.
 mairu, Ax.: mairu. Ikus mauru.
 maisu, P. Ab., 51: maisu, Ax.: maestru.
 makallao, P. Ab., 193: macallao.
 maku, P. Ab., 134: macubac, olari dagozkionak.
 malgu, Leiz., 298: malguëc, ergat. pl., Ax.: malguki, malgutu.
 mallatu, P. Ab., 77: buruco mallatu, tontor, ta epaijac.
 malo, P. Ab., 122: lecuban lecuban malua, gurian andijagua.
 malpekau, P. Ab., 79: ezta illgo atsua, malpecau, ez.
 manaiu, Ax.: manaiu.
 manamendu, Leiz., 207, 324: manamenduac.
 mandatu, Ax.: mandatu, P. Ab., 107: igues eban mandaturic ichi бага.
 mando, Ax.: mando, P. Ab., 183: mandua.
 mantenu, Ax.: mantenu.
 manto, Belap., II, 48: soldadoec escarlatazco manto batez estali cien.
 mantso, Ax.: mantsoki.
 manu, Leiz., “ABC”, 2: manu, Ax.: manu, Belap., 24: elizaren maniac.
 maradizino, Ax.: maradizino.
 mardo, P. Ab., 52: ardi batzuc dagoz mardo ta guicenac.
 marrageru, P. Ab., 66: marrageruben izara latzen artian.
 martirio, Ax.: martirio, Belap., II, 122: martirioz. Latinez martyrrium, -ii,
 grekozko martýrion hitzetik.

- martxo**, Belap., 32: **Andre Dana Maria martchocoan**.
mauru, P. Ab., 124: **maurubac**. Ikus **mairu**.
mazu, P. Ab., 138: **mazubaz**.
mediku, Ax.: **mediku / midiku**, P. Ab., 45: **medicu**.
mehatxu, Leic., 213: **mehatchuz**, Ax.: **mehatxu**, Belap., 18: **mehatchurie handiena**.
memorio, Leic., 362: **memorio**, Ax.: **memorio**.
menbro, Leic., 212: **membro**, Belap., 115: **membro**, Ax.: **mienbro**.
mendeku / mendekio, Ax.: **mendeku**, Belap., 57, 105: **mendecu**, Leic., 285, 323: **mendequioa**.
merezimendu, Ax.: **merezimendu**.
meritu, Leic., “Fedeco Articulvuez”, 19: **merituz**, Ax.: **meritu**.
merkatu, Belap., 100: **eliçatic edo merkhatutic erran eraciten eztiene...**
mesp(e)retxu, Belap., II, 40: **mesperetchu**.
Ikusi denez **jalo** hitzean joera biak hartzen dira ontzat, zeren, nahiz eta zenbait lekutan bai **j** eta bai **i** berdin ahoskatu, desberdin ematen baitira izkribuz, eta Lapurdin ere berdin da, ikus **iayo**, Leic., 164, eta **yaio** Hiribarren-en baitan, **Eskaldunac**, 17 orr., Joannes d'Etcheberri medikuak, ordea, gauza bererako **jajo** ematen du bere lanetan, 77 orr. (5).

Baina hitzaren hastapeneko **j** grafian gaztelaniazko **j**, [x], bezala ahoskatzearen ohitura ezkututzen da batez ere, eta ebakera hori kasuren batzuetan erdian ere gertatzen denez gero, —gaztelaniatik berrikitan mailegaturiko hitz arruntetan beti—, **x**, [š], baten segida izan daiteke, azken jatorria [j]-an ez duela, euskarazko iturburua duten hitzetan hastapenean gertatzen ez den erara. Horrela, ahoskatzearen eraginez **ajola** idazten baldin bada, horren azpian **axola** dago, eta ez ***aiola**, eta **gizarajo** edo **gizagajo** eginez gero **gizagaxo**, eta abar, eta **luju** eginez gero —ikus Arratia eta Mungiako ene lana—, gaztelaniazko **luxo**, **x** = [š] duela, latinez **luxus**, -us, hau da, **x** = **ks**, eta **antoju**, gaztelaniaz **x**-ekin nahasirikoa aurrekotzat duela, latinezko **ante oculum**. Hala ere **erloju** forma, erdarazko **j**-ren gisara ahoskatutik, **erloiu** erara ere ezagutzen da euskaraz, [j] duela, eta latinezko **horologium**, -ii, grekoz **horológion**, delatik dator.

Berdin da Barcelona-n argitara izan den **Scriptores latini** sortan ere. Ikus Seneca-rena, Barcinone MCMXXVII, **De constantia sapientis**, VIII, 1, **Praeterea iustitia nihil iniustum pati potest, quia non coeunt contraria**.

Berdin da **Colección hispánica de autores griegos y latinos** sortan ere. Ikus T. Lvcreti Cari, **De rerum natvra**, I, Barcelona MCMLXI, I, 358, **Denique cur alias aliis praestare uideamus / pondere res rebus nilo maiore figura?**

Classiques Granier sortan, ordea, beste bidea jarraitzen da. Ikus Ovidio, Paris 1957, **Tristes**, I, 1, 37, **Judicis officium est, ut res, ita tempora rerum / quaerere: quaesito tempore, tutus eris**.

(5) J. M. Hiribarren, **Eskaldunac**, Bayonan 1853. Hordago-k haren erretratuzkoa eman zuen, Donostia 1979. Joannes d'Etcheberri, **Obras vascongadas**, con una introducción y notas por Julio de Urquijo e Ibarra, Paris 1907.

Leizarraga-k 1571-garrenean, hastapenean **ia**-gisakoak erabiltzen ditu: **iaiqui**, **iaquin**, **ioan**, **iuramendu**, baina erdian **etsayac**, **ezpaltzayo**, eta abar, **layo** hitzean ikusi dugunez, eta Lapurdin bada gauza bera aditzera emateko bai hastapenean eta bai erdian **j** grafia erabili izan duenik ere, ikus **Meditacioneac**,... Eliza-gizon batek eginac, Bayonan 1809, "Prefacioa", **haujen**, 1 orr., **Majestate**, 68 orr., **hantusteari** hurbildanac **darrajo** jauzcortasuna ta **pairu-escasa**, 290 orr. **joatea**, 291 orr., **jasan**, **lejal**, 326 orr., **lakheta** zajo, **ematen zaje**, **ematen deraje**, 327 orr. **jende**, 400 orr., **sorhajoa**, baina hala ere, 3 orr., **heien**, 31 orr., **arraio**, 38 orr., **leialqui**, 40 orr., **launa**, eta inoiz, 46 orr., **bazayo** ere, eta abar. Lehenago, gorago ikusi dugunez, Urkixo-k argitaratu zituen J. d'Etcheberri-ren esku izkribuetan, **jaquitea**, 74 orr., **joan citçajoela** ... / **anaja** **Emperadore**, 86 orr., **presunaja**, ... / **Bajonaco** **Ippizpicuac**, **ergat**, frantsesez Bayonne, baina hala ere **mintço çayelarikan**, 74 orr., **atheraja**, 75 orr., **Birlatutic** **Hendajera**, 79 orr., **arbujo**, ... / **etsajac**, 82 orr., **citçajon**, baina **baitçaye**, 84 orr., eta abar. Luis-Luziano Bonaparte printzeak argitara emanikako **Bible saindua** liburuan Duvoisin kapitainak, haren eraginez, (1) notan ikusi dugunez, **ene anaya**, Jenesa, XX, 5, **sehia aitzinera** goan **zitzayo**en, Jenesa, XXIV, 17, eta **arinki** **pegarra** **besoetara** **jautsirik**, eman **zioen** **edatera**, Jenesa, XXIV, 18, erakoak ematen ditu.

Azkenengo hau, ez aurreragoko besteak, **erloiu** gisara idaztea litzateke zuzenena, erdiko silabetan, bokal artean daudenean, bestelako hitzetan egin ohi den erara -i- grafia duela, [j] baten oinarria duten guztiak bezala, eta hori berori egin daiteke latinetiko mailegu berrietan ere, hala nola **proiektu**, latinez **proiectus**, -a, -um, **proiektzio**, latinez **proiectio**, -onis, eta abar, —hala idazten da latinez **Diccionario ilustrado latino-español, español-latino**, quinta edición, Barcelona 1960, delakoan, erromatarren denborako tradizioari segida emanik—.

Baina, hala ere, hitz arruntetan -i-ren aurrean -j- idatzi beharko litzateke behar den bezala bereiz daitezen bata eta bestea: **birjina**, **ijito**, **erlijio**.

Bilbon 1984-garreneko apirilaren 16-an.

BESTE ZENBAIT GAI

“(E)ZA” ADITZ-ERROA DATIBOKO ADITZ-JOKOETAN AUTORETAN ZEHAR

Yon Etxaide-Itharte

Euskal aditz jokoetan aldakera eta nahaste handiak ditugu eta nahasmen honetan, ugaritasun kaltegarri honetan argitasunik egingo baldin badugu, ordenu pixkabat jartzea oso beharrekoa zaigu.

Nik sail bat aukeratu dut aditz-joko aldakerak biltzeko, alegia, “(e)za” aditz-erroaren erabilkera datiboko jokoetan euskal-tekstoetan zehar. Izan ere, sail honetan sortzen den nahastea —joko zuzenetan bestelako batasuna eta txukuntasuna dago— ikaragarritzkoa baita.

Nere lanerako zenbait egile edo autore giputz, nafar eta iparraldeko hautatu ditut. Bizkaian ez da aditz-erro hau erabiltzen, inoiz erabiltzen baldin baten ere (1) eta Gipuzkoan ere ia galdurik dago datibotan, bere ordeztu Bizkaiko “egi” aditz-erroa sartu delarik, dirudienez “egin” aditzetik hartuta. Hau dela-eta, Gipuzkoako autoretan bi aditz-erroak bildu ditugu, *-eza-* eta *-egi-* alegia, elkarren arteko borroka nabari dadin. Irakurleak konproba dezakeenez, borroka honetan, nahiz eta beti atzeraka, inperatiboan eutsi zaio sendoenik *-eza-* aditz-erroari. Agirre Asteasukoak, esate baterako, aginkorrean (inperatiboan) bakarrik darabil, eta ez beti.

Neure lana hiru zatitan bereizi dut: lehendabizikoan non-nahiko eta noiz-nahiko gramatikalariai dagoz; bigarrenen, Gipuzkoako eta Nafarroako noiz-nahiko irazleak eta hirugarrenean, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak, hauek ere noiz-nahikoak. Ez ditut sailkatu ez alfabetu ordenuz, ez eta ere garaiari dagokionez, zeren lan hau liburu bat irakurri-ala egiten nuen eta irakurri nituen ordenean joan nintzen idazten. Modu honetaz, lan hau osatzen —aspertu eta nekatu naizen arte— hamar-hamabost urte jarri dut. Baina uste dut, egile bakoitza hitzaurre honen azke-

(1) Hona adigarri batzuk: Beraren alabantzan / kantadu *dezagun* (Marijesiak. M. Lekuo-
na, Literatura Oral Vasca, Idazlan guztiak, 450 p.). Bart arratsian zer pasatu dan / konta *deza-
gun* Belenen (Idem., 457 p.). Atsegin ar *ezazu* (=ezazue), / Belengo pastoreak (P. I. Barrutia,
Acto para la Nochebuena / Gabonetako ikuskizuna, Teatro Zaarra, 38 p., Auspoa). Dagianak
agindua, jan *dezala* (Refranes y Sentencias 1596, 95-garrena). Egun ona sar *ezak* etxean
(Idem. 98-gna.). Az *ezak* erroia, diratan begia (Idem. 136-gna.). Azarkuntzeak bildurra *bez*, ze
ilteko edo biziko gudura goakez (Idem. 165-gna.). Uler *ezak* lenago ta itz egin geroago (Idem.
194-gna.). Iagi zidi (zen) nagia, erra *zizan* (zezan=zuen) uria (Idem. 294-gna.). Zamarien osti-
koa da gextoa, norberak ar *bez* (beza) bere idekoa (Idem. 363-gna.), eta abar. Guztiok, ordea,
aditz-joko zuzenak dira. Datiboko aditz-jokoetan ez dut inoiz *-eza-* aditz-erroa aurkitu bizkaie-
raz.

nean eta aurkibidean ikus daitekeelarik, eta bakoitzaren berri ematen delarik, nongoa eta noizkoa zen aditzera emanaz, aipatutako ordenuek ez dutela inportantzia handirik.

Aditz itzulpenak gipuzkerara eginik daude eskuarki, zeren aditz batuauren aurrekoak baitira. Euskaltzaindiak aditz-batasuna egin zuenean, euskara batura itzultzen hasi nintzen. Beraz, irakurleak bitariko itzulpenak ikusiko ditu. Baina, honek ere ez du inportantzia handirik. Beharrekoa, itzulpen ezagun bat ematea da.

Itzulpenetan hutsak izan daitezke, pasarte batzuk oso ilunak baitira eta ni ez bainaiz gramatikalarri iaioa inondik ere. Honetxegatik, asmatzen zailak diren aditz-jokoetan, tekstoinguru luzea jartzen saiatu naiz, ni baino gizon argiagoez eta begi zorrotzagoez igarri diezaioaten hutsik izan ote den.

Honatz orain aztertu ditugun obragileak:

I. GRAMATIKALARIAK

1. Aita Larramendi (1690-1766, Andoain, G).
2. Aita Añibarro (1748-1830, Areatza-Billaro, B).
3. Franzisko Inazio Lardizabal (1806-1855, Zaldibia, G).
4. Intxauspe Kalonjea (1815-1902, Zunharreta, Z).
5. Bonaparte Printzea (1813-1891, Inghlaterra).
6. Arturo Campión (1854-1938, Iruñea, N-G).
7. Luis Eleizalde (1873-1923, Bergara, G).
8. R. M. Azkue (1864-1951, Lekeitio, B).
9. Inazio Maria Etxaide (1884-1962, Donostia, G).
10. Pierre Lafitte (1901 jaio, Luhosoa, L).
11. Intzar Damaso (gaurkoa, Intza/Araitx, N-G).
12. Martin Harriet (Gramatika eskuaraz eta frantzesez: 1741, Larresoro-n bizi, L).
13. Pierre d'Urte (Donibane Lohizunen jaio, L. Grammaire Cantabrique Basque: 1712).

II. GIPUZKOA ETA NAFARROA GARAIKO IRAZLEAK:

1. Juan Bautista Agirre (1724-1823, Asteasu, G).
2. Aita Krispin Beobide (1848-1891, Azpeitia, B).
3. Aita Agustin Kardaberatz (1703-1770, Ernani, G).
4. F. I. Lardizabal (1806-1855, Zaldibia, G).
5. Aita Mendiburu (1708-1782, Oiartzun, G).
6. Jose Inazio Gerriko (1740-1824, Segura, G).
7. Txirrita bertsolaria (1860-1936, Ernani, G).
8. Juan Irazusta (Ernialde-ko erretore, G. "Doctrina Cristiana": 1742).
9. Gregorio Arrue (1811-1890, Ernani, G).
10. Juan Franzisko Goñi: Doctrina cristianaren lembiziko prinzipioa, 1828, N-G).
11. "Catecismo manuscrito en euskara alto navarro": XVIII-gn. mendea, N-G.
12. Jose Kruz Etxeberria (1773-1853, Oiartzun, G).

13. Juan Inazio Iztueta (1767-1845, Zaldibia, G).
14. Joakin Lizarraga (1748-1835, Elkano, N-G).
15. Josepe Otxoa Arineko (1672-1743, Ordizia, G).
16. Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851, Ernani, G).
17. Juan Antonio Ubillos (1707-1789, Amasa, G).
18. Jose Migel Barandiaran-en herri-jakintza bildumatik jasoak, XX-gn. mendea, G.
19. “Textos vascos del siglo XVIII, en tierra de Estella”, N-G.
20. Iuan Beriain, Uterga-ko erretorea. Bere obrak: 1621 eta 1626. N-G.

III. LAPURDI, NAFARROA BEHEREA ETA ZUBEROAKO IRAZLEAK

1. Voltaire: “Tresora hirur lengualetakua: Frantzesia, Española eta Heskuara”, 1620.
2. Joanes Etxeberri (Ziburu, L. Bere obrak: 1627/1631/1636).
3. Jean Hiriart-Urruti (1859-1915, Hazparne, L).
4. Joanes Etxeberri (1668-1749, Sara, L).
5. “Gudu Izpirituala” (N.I.D., Donibane Lohizune, L, 1750 eta 1827).
6. Joanes Haraneder (jaio 1669, Donibane Lohizune, L. “Philotea” liburua: 1750).
7. “Xiberua eta Marzelina” eta “Recoquillard eta Arieder”. Lendabizikoa XIX-garren mendekoa eta bigarrena XVIII-garrenekoa. Z.
8. Jakes Oihenart (Uharte/Amikuze, N-B. “Kaniko eta Belxitina” 1848).
9. Iuan de Tartas (jaio 1610/12. “Ontsa hiltzeko bidia”, 1666. Z).
10. Jean Pierre Arbelbide (1841-1905) Zaro, N-B).
11. Duvoisin Kapitaina (1810-1891, Ainhua, L).
12. Axular (1556-1644, Urdazubi, N-G. Sara-ko erretore, L. “Gero” liburua, 1643).
13. Xurio (hil 1718, Azkaine, L. “Jesu-Kristoren Imitazionea”: 1720).
14. Bernat Larregi (Uztaritzeko eta Basusarriko erretore, L. “Testamentu zaharreko eta berriko historia”: 1775/77).
15. Harizmendi (Sara-ko koajutore, L. “Ama Birjinaren hirur ofizioak”: 1660).
16. Argaiñaratz (Ziburuko bikario, L. Bere obrak: 1641 eta 1665).
17. Ioanes Leizarraga (1601-ean hil. Jaio: Berazkoitze, L. Bere hiru obrak 1571-ean argitaratu).

DATOZENAK

Lehenengo zatia

I. Aita Larramendi	605
II. Aita Añibarro	607
III. Francisco Ignacio Lardizabal	609
IV. Intxauspe Kalonjea	611
V. Bonaparte Printzea	614
VI. Arturo Campión	619
VII. Luis de Eleizalde	619
VIII. Resurrección M. ^a de Azkue	621
IX. Ignacio M. ^a Etxaide	623
X. Pierre Lafitte	626
XI. Dámaso Intza	627
XII. Martin Harriet	628
XIII. Pierre d'Urte	628

LEHENENGO ZATIA

I. AITA LARRAMENDI (S.I.)

“EL IMPOSIBLE VENCIDO”

(Arte de la Lengua Bascongada. Su autor el Padre Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, Maestro de Teología de su Real Colegio de Salamanca. Nueva edición publicada por los Hijos de I. Ramón Baroja. San Sebastián. Establecimiento tipográfico de los Editores, Plaza de la Constitución, 2. Año de 1886).

Aita Manuel Larramendi'ren bizitza eta lana oso ezaguna da. Honetxegatik labur-labur emanen dugu bere berri. Andoain'en jaio zen 1690'garren urtean. 1707'an Jesusen Lagunartean sartu zen. Ikaskizunak amaituta, Valladolid'eko ikastetxean Filosofia eta Teologia erakusle jarri zuten. Gero Salamanca'ko Jesuitetxean eta Unibersidadean jardun zen maixu. 1730'ean bere Aitanagusiek, Carlos II'garrenaren alarguntsaren arima-gidari izendatu zuten. 1733'an utzi ahal izan zuen kargu hau eta Loyola'ra erretiratu zen eta bertako etxe-santuan hil zen 1766'gn. urtean, 76 urte zituelarik. Urtebete geroago jesuitak España'tik boteak izan ziren Carlos III'garrenaren aginduz. Haren obrarik nagusienak hauetxek dira: 1. “De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España” (1728); 2. “El Imposible Vencido” (1729); 3. “Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria” (1736); 4. “Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín” (1745); 5. “Corografía o descripción general de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa” (1882). Euskaraz idazki labur batzuek bakarrik utzi zizkigun. Beste idazlan batzuek argitaratzeko gelditu ziren: zenbait herejien kontra, Aita Mendiburu'ren kontra euskal-dantzen garbitasuna defendituz, hiztegi lan berriak eta abar. Ikus guztihontaz Aita Villasante'ren H. de la L. V.

OPTATIVO PRESENTE**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: diezadán (neri), diezaán/diezanaán (1) (hiri), diezazún (zuri), diozán (hari), diezagún (guri), diezazutén (zuei), diezatén (haiei). (51^{gn}. horrialdetik 82^{garrenera}) (2).

FUTURO CONDICIONAL**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: badiézat (neri), badiezak/badiezán (3) (hiri), badiezazu (zuri), badioza (hari), badiezagu (uri), badiezazue (zuei), badiozate (haiei) (51-82).

IMPERFECTO 3**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: ziezadán (neri), ziezaán/ziezaanán (4) (hiri), ziezazun (zuri), ziozán (hari), ziezagún (guri), ziezazutén (zuei), ziozatén (haiei) (51-82).

IMPERATIVO**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: biezát (neri), bioza (hari), begigu (5) (guri), biéza (6) (haiei). “Bizaik-bizain”, “bizaizu” eta “bizaizute”^{ri} dagozkienak eztakarzki (51-82).

(1) Diezaán/diezanaán, behar luke izan. Nunbait, hutsegitez agertu da “diezanaan”. Beste era batean: diezakan/diezanan.

(2) Larramendi^k *diezadan, diezazun, diozan...* irabiatzen du, Añibarro^k, *dizadan, dizazun, diozan...* eta Lardizabal^{ek} *dizadan, dizazun, dizayon...* eta era berean beste adizkeretan. Badago nahaste hontan zer pentsa.

(3) Badirudi “badiezák” behar lukela izan.

(4) Badirudi “ziezanán” behar lukela izan. Orobat: ziezakan-ziezanan.

(5) Normalki “biezagu” (bizaigu/bizagu) behar luke izan. (6) Orain arteko sistemari jarraituz “biozate” behar luke izan.

INDICATIVO PRESENTE ABSOLUTO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: diezaket (neri), diezakek (hiri), diezazuke (zuri), diozake (hari), diezaguke (guri), diezazukete (zuei), diozakete (haiei), Aditz-joko batzuetan “i” letrak azentua darama eta bestetan ez. Hikako aditz-emea (dieza-ken) falta du (139-143).

PRETERITO IMPERFECTO ABSOLUTO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: ziezaket (neri), ziezakek (hiri), liezazuke (zuri), ziozake (hari), ziezaguke (guri), ziezazukete (zuei), ziozakete (haiei). Azentuez berdin diogu. “Liezazuke”ren aldakera bezala “ziezazukete” ematen du eta “ziezazuke” behar luke. Ostera, “ziezazukete”ren ordeztakar “liezazukete”, baiñan “ziozake”ren ordeztako bezala “lioazuke” dakar (139-143).

II. AITA AÑIBARRO (ANTXIKOTARRA)

“GRAMATICA BASCONGADA”

(Para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros. Por el P. Fr. Pedro Antonio de Añibarro, Misionero apostólico del Colegio Seminario de Zarauz de la Observancia de N. P. S. Francisco. “Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo”. Tomo III. 1969. Excma. Diputación de Guipúzcoa. Gráficas Colón, S. L., San Sebastián, 1970).

Pedro Antonio Añibarro (1748-1830), Antxikotarra, Arratia’ko Area-tza/Billaro’n jaio zen. 1764’an Bilbao’ko Jaun-Done Antxiko’reñ komentuan fraide sartu zen. Apaizgintza Bilbao’ko komentuan hasi eta Arantzazu’n amaitu zuen. Apaiztu, 1772’gn. urtean egin zen. Arantzazu’n eta Frias’en (Burgos) urte mordoska egin zuen. 1790’ean, 42 urte zituelarik, Zarautz’ko Misiolari-Etxera aldatu zen. 1794’an frantsesen kontrako gerla hasi zen. Hauek, Frantzia’ra preso eramán zuten gure Aita Añibarro, baiñan berehalaxe bakeak egin ziren eta bi hillabete barru berriz ere Zarautz’en zegoen. Berriz ere gerla nausitu zen 1808’tik 1814’ra, “Guerra de la Independencia” delakoa alegia, eta aurrekoan bezala fraideak sakabanatu behar izan zuten. Añibarro’reñ obrak ugariegiak dira hemen aipatzen hasteko. Irakurleak ikus ditzake Aita Villasante’reñ H. de la L. V.’an.

Aita Villasante'k, "Gramática Vascongada"ri ipiñitako hitzaurrean dio: "Parece claro, por lo demás, que la consulta directa al pueblo ha sido la fuente principal de este trabajo del P. Añibarro. Las observaciones que menudean en el libro acerca del uso de una formas u otras, lo están delatando". Aita Añibarro'k herri xeheari egiten zizkion galdekizunok Misiotan zebilelarik Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparroa zear.

"GRAMATICA BASCONGADA"

CONJUGACIONES GUIPUZCOANAS

IMPERATIVO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: bizat (neri) bioza (hari), begigu (guri), bieza (haiei). "Biza-zu" eta "bizazue" eztakarzki "Begigu", "-(e)gi-" aditzerrodunaren ordeztu, "bi-zagu" behar luke (102-106 hor.).

OPTATIVO O SUBJUNTIVO (PRESENTE)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadala (neri), dizazula (zuri), diozala (hari), dizagula (guri), dizazuela/dizazutela (zuei), diozatela (haiei). Berdin: dizadan, dizazun, diozan... (102-106).

FUTURO CONDICIONAL

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: badizat (neri), badizazu (zuri), badioza (hari), badizagu (guri), badiezazue (zuei), badiozate (haiei). Pluraleko bigarren pertsonak, antza, "badiezazue" behar luke eta ez "badiezazue" (102-106).

PRETERITOS DE SUBJUNTIVO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizadala (neri), zizazula (zuri), ziozala (hari), zizagula (guri), ziezazuela (zuei), ziozatela (haiei). Berdin: zizadan, zizazun, ziozan...

(102-106). Oharra: “zizadala” deduziñoz atera dugu, bigarren pertsona baka-
rrik baitakar datiboko lehenengotan: Zuk jan zinizadala. Hemen ere, singula-
rreko “zizazula”ri, “zizazuela” dagokio pluralean eta ez “ziezazuela”. Beste-
la, singularrean ere “ziezazula” egin behar da, norma edo metodo bat jarrai-
tuko baldin ba’da.

POTENCIAL PRESENTE

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizaket (neri), dizazuke (zuri), diozake (hari), dizaguke (gu-
ri), diezazuké/diezazukete (zuei), diozake (haiei). Hemen ere, irabiakera siste-
ma ez urratzeko, “diezazukete” baiño hobe litzake “dizazukete”. Bigarren
“diozake” (haiei), pluralizatu gabe dago. “Diozakete” behar luke (115-117).

POTENCIAL PRETERITO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizaket/lizaket (neri), lizazuke (zuri), liozake (hari), lizagu-
ke (guri), lizazuké (zuei), liozakee (haiei). Bi atzenekuok “lizazukete” eta “lio-
zakete” eginda, egokiago gelditzen da (115-117).

III. FRANCISCO IGNACIO LARDIZABAL

“GRAMATICA VASCONGADA”

(Escrita por D. Francisco Ignacio de Lardizabal, Beneficiado de la Igle-
sia Parroquial de Zaldivia en la Provincia de Guipúzcoa. San Sebastián,
Imprenta de Ignacio Ramón Baroja, 1856).

F. I. Lardizabal (1806-1855), Zaldibia’n jaio zen. Lazkao’ko karmelite-
tan egin zituen lehenengo ikaskizunak. Gero, Burgos’en jarraitu zuen estu-
diatzen eta Madrillen bukatu. Apaiztu zelarik, bere herriko erretore izendatu
zuten eta bertan iraun zuen bizitza guzian. 49 urte zituela hil zen, 1855’ean
Gipuzkoa soildu zuen kolera-morboren izurrite ikaragarria bide zela. Lardi-
zabal’ek bi obra utzi dizkigu: “Testamentu zarreco eta berrico condaira” (To-
losa, 1855), eta “Gramática Vascongada” hau (Donostia, 1856).

GRAMATICA VASCONGADA”**IMPERATIVO****Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: bizat (neri), bizazu (zuri), bizayo (hari), begigu/bizagu (guri), bizazute (zuei), bizaye (haiei) (28-29 eta 90-91 horrialdeak).

SUBJUNTIVO PRESENTE**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizazun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizazuten/dizazuen (zuei), dizayen (haiei) (28-29 eta 90-91).

SUBJUNTIVO PRETERITO**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizazun (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizazuten/zizazuen (zuei), zizayen (haiei) (28-29 eta 90-91).

POTENCIAL PRESENTE**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizazuke (zuri), dizayoke (hari), dizaguke (guri), dizazuteke (zuei), dizayeke (haiei) (36-37).

POTENCIAL PRETERITO**Harrek (ekar)**

Gipuzkeraz: lizadake (neri), lizazuke (zuri), lizayoke (hari), lizaguke (guri), lizazuteke (zuei), lizayeke (haiei) (36-37).

IV. INTXAUSPE KALONJEA

“LE VERBE BASQUE”

(Par l'abbé Inchauspe. Ouvrage publié par le Prince Louis-Lucien Bonaparte. Bayonne, Veuve Lamaignère née Teulière, imprimeur, rue Pont-Mayou, 39. Paris. Benjamin Duprat, Libraire de l'Institut, de la Bibliothèque Impériale, etc. Rue de Cloître-Saint-Benoît, 7. 1858.)

Manuel Intxauspe kalonjea (1815-1902), Zunharreta'n (Zuberoa) jaio zen baserritar familia batean. Apaiz ikaskizunak Baiona'ko Seminarioan egin zituen eta 1840'an apaiztu zen. Apezpikuak bere ondoan hartu zuen eta luza-ro gabe Baiona'ko San Leon Hospitaleko (gaur Eusko-Museua) kapellau izendatu zuen eta 22 urtez iraun zuen kargu hontan (1842-1864). 1855'ean kalonje ohoredun izendatu zuten; 1863'an kalonje tituludun. 1869'an Lacroix gotzainak sekretariotzat hartu zuen eta Erroma'ra eraman zuen Batikano Konziliora teologu gixa, Ducellier apezpikuarekin sekretario eta Bikario Nagusi izan zen (1878-1887) eta Fleury Hottot'ekin Bikario Nagusi. Hau hildakoan, urrengo apezpikua izendatu arte Bikario Buru bezala gobernatu zuen gotzaingoa (1889-90). Garai hontan gure kalonjeak oztopo gogorra izan zuen herri-agintaritzarekin eta horretxegatik, Jauffret Baiona'ko gotzain izendatua izan zenean (1890), bere kargutatik erretiratu behar izan zuen. Atzeneko 12 urteak Omizegaiñe'n igaro zituen arreba batekin. Xehetasunak eta Intxauspe'ren obrak Villasante'ren euskal-literatura liburuan ikus.

SUBJONCTIF OU FORME RÉGIE OPTATIVE (PRÉSENT)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: dizádan (neri), dizayán/dizañán/dizázün (hiri-zuri), dizón (hari), dizágün (guri), dizazién (zuei), dizén (haiei) (1).

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizazun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizazuten (zuei), dizayen (haiei) (2).

Lapurteraz: diezadan (neri), diezazun (zuri), dezon (hari), diezagun (guri), diezazuen (zuei), dezoten (haiei) (3).

1) 267 horrialdea.

(2) 482-483-484 horrialdeak.

(3) 482-483-484.

SUBJONCTIF OU FORME RÉGIE OPTATIVE (PASSÉ)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: lizádan (zizádan) (neri), lizayán (zizayán)/lizañán/lizázün (hiri-zuri), lizón (zizón) (hari), lizágün (guri), lizazièn (zuei), lizén (zizén) (haiei) (270 hor.).

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizazun (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizazuten (zuei), zizayen (haiei) (485-486-487).

Lapurteraz: zezakidan (neri), zezakizun (zuri), zezon (zizon) (hari), zezakigun (guri), zezakizuen (zuei), zezoten (zizo(ke)ten) (1) haiei (485-486-487).

SUPPOSITIF OU CONDITIONNÉ (FUTUR)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: balizat (neri), balizak/balizan/balizázü (hiri-zuri), balizó (hari), balizágü (guri), balizazie (zuei), balizé (haiei) (275).

POTENTIEL (PRÉSENT ET FUTUR)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: dizakédát (dizáket) (neri), dizákek(n)/dizakézü (hiri-zuri), dizakio (hari), dizakégü (guri), dizakezié (zuei), dizakie (haiei) (317-318).

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizazuke (zuri), diozake (hari), dizaguke (guri), dizazuteke (zuei), diozakete (haiei) (497-98-99).

Lapurteraz: dizakedake (neri), dizakizuke (zuri), dizakioke (hari), dizakiguke (guri), dizakizueke (zuei), dizakiokete (haiei) (497-498-499).

IMPERATIF

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: bizat (neri), bizak(n)/bizázü (hiri-zuri), bizó (hari), bizágü (guri), bizazie (zuei), bizé (haiei) (263-64).

(1) "Zizoten" behar luke, baiñan "zizoketen" dakar, hutsegitez noski.

Gipuzkeraz: bizat (neri), bizazu (zuri), bizayo (hari), begigu (1) (guri), bizazute (zuei), bizaye (haiei) (479-80-81).

Lapurteraz: bizat (2) (neri), bizazu (3) (zuri), bezo (hari), bizagu (4) (guri), bizazute (5) (zuei), bezote (haiei) (479-80-81).

CONDITIONNEL FUTUR ET POTENTIEL CONDITIONNEL

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: lizakédát (léiket) (neri), lizákek (likéik, léikek)/lizáken (líkéiñ, léiken)/lizakézü (likéizü, léikezü) (hiri-zuri), lizakió (líkió) (hari), lizakégü (guri), lizakezié (zuei), lizakié (haiei) (303). Gipuzkera-Lapurterarik eztakar.

POTENTIEL (PASSÉ)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: zizakédan (neri), zezakéiyan (zizakeyán)/zezakéiñan (zizakeñán)/zezakéizün (zizakézün) (hiri-zuri), zezakiön (zizakiön) (hari), zizakégün (guri), zizakéizien (zizakezién) (zuei), zezakién (zizakién) (haiei) (326-327).

Gipuzkeraz: zizadakean (neri), zizazukian (zuri), ziozakean (hari), zizagukean (guri), zizazutekean (zuei), ziozaketea (haiei) (500-501-502).

Lapurteraz: zizakidakean (neri), zizakizukean (zuri), zizakiokean (hari), zizakigukean (guri), zizakizuekean (zuei), zizakioetekean (haiei) (500-501-502).

Oharra: Ikus dezakegunez, zuberotar aditz-jokuotan, datiboko ezaugarri bezala “i” letra erabiltzen da eskuarki. Halabaiña, “potentiel passé” delakoan “e” letra ere badarabil. Forma zuzenetik hartutako “e” hau euskalki guzietan datibotan sartzen ari zaigu bidegabeki. Zuberorok ere, Intxauspe'ren liburu hontan ageri zaiguna baiño ondalan handiagoa egiña dizu, ondorengo adigarriotan ikus daitekenez:

Nula gazte beniz orano,
Eta ez ikhasirik mintzatzen,
Hartü libertatia
Pharka DEZADAZIEN.

-
- (1) Bizkaierazko —egi— aditzerroduna. Normalki “bizagu”.
 - (2) Subjuntiboaren arabera “biezat” behar luke izan.
 - (3) Idem, *biezazu*.
 - (4) Idem, *biezagu*.
 - (5) Idem, *biezazute*.

Hots, "dizadazien" (= dizaidazuten). ("Kaniko eta Belxitina", 49 ahapaldia, 28 hor., Kriselu-18, 1971).

Propi ala ez propi
Erradazie fite;
Bestela aldiz, kanpua
Biek har EZADAZIE.

Hots, "izadazie" (= zaidazute). Idem, 223 ahap., 66-67 hor.).

"Eman DEZAZIELA grazia
"Etxilat irüski ützültzeko".

Hots "dizaziela" (= dizazutela). Idem, 413 ahap. Baiñan 407^{gn}. ahapaldian *dizaziela* darabil: "Jinkuak eman dizaziela".

Etxahun'ek berriz honela esaten dio Defis Juezari: "Irus estima nirozü, Jauna, ene büria, emana ahal ba'nezazü merexi uhuria" (Zoriontsu estima nezake, Jauna, nere burua, eman ahal ba'nizazu merezi duzun ohorea). Beraz, "nezazü", "nizazü"ren orde. Ikus dezakegu, bada, "i"ren ordeko "e" aspalditxotik errotzen hasia dugula. Gipuzkeraz, aginkorrean, "bizagu" eta "bizagute"ren orde, "begigu" eta "begigute" darabilzki, Aita Larramendi'ri harturik, antza. Hauek bizkaieratik sartutako formak ditugu eta "za" aditz-errodun konjugaziño egitura urratzen dutelako baztergarri dira. Lapurterazko aditz-jokotan ere "e" letrak zenbait tokitan baztertu du "i" datibo-ezaugarria.

V. BONAPARTE PRINTZEA

"LE VERBE BASQUE EN TABLEAUX"

(Accompagné de notes grammaticales, selon les huit dialectes de l'euskara: le guipuscoan, le bisciaïen, le Haut-Navarrais septentrional, le Haut-Navarrais méridional, le labourdin, le Bas-Navarrais occidental, le Bas-Navarrais oriental et le souletin; avec les différences de leurs sous-dialectes et de leurs variétés. Recueilli sur les lieux mêmes de la bouche des gens de la campagne, dans cinq excursions linguistiques faites dans les sept provinces basques d'Espagne et de France pendant les années 1856, 1857, 1866, 1867, 1869. Par le Prince Louis Lucien Bonaparte. Londres, 1869).

Luis Luziano Bonaparte (1813-1891). Luziano Bonaparte'ren semea zen. Ingalaterra'n jaio zen eta Waterloo'ko gudaldiaren ondoren familia guzia Itali'ko Musignano'ra aldatu zen. Hemen ikaskizun sakon eta oparoz jantzi zuen bere burua eta 20 urtetan Maria Ana Cecchi florenziar andereñoarekin ezkondu zen, baiñan, nunbait, etziren ongi etortzen eta horretxegatik separaturik bizi izan ziren. Andrea hil zitzaiolarik, Clemencia Richard'ekin ezkondu zen, hots, Claudio Otaegi euskaltzalearen emaztearen aizparekin. Gaztetan Europa eta Ipar-Amerika zear ibilli zen, Kimika eta Mineralojia estudiatuz eta gero linguistika. Napoleon III'garrenak printze tituluz gafiñera, urteko 130.000 liberaren emari egin zion. Bere bizilekua Ingalaterra'n ipiñi zuen eta oso-osoro linguistika lanetan murgildu zen. Enperadoretza erortzearekin (1870), ia bizigarririk gabe gelditu zen. Heriotzak Urbino'ko Fano'n, Adriático itxasertzean, dei egin zion eta bere hilotza Londres'en hobiratu zuten. Villasante'k dion bezala, bere jakinduri zabala hizkuntzetara zabaltu zen bereziki eta hizkuntzen baitan euskara zuen begiko nini. Bere lanak frantse-

sez, ingelesez, italianoz, españolez eta euskaraz argitaratu zituen. Bost etorraldi egin zituen Euskalerrri'ra, 1856'an, 1857'an, 1866'an. 1867'an eta 1869'an, bere euskal-ikaskizunak egiteko. Ibillaldi hauen fruitu izan ziren bere lanak. Hona hemen batzuek: *Langue basque et langues finnoises* (1862), *Curiosidades euskaras* (1866), *Le verbe basque en tableaux* (1869), *Deux Cartes des sept Provinces basques* (1869), *Les dialectes d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal* (1872), *Le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.* (1877), *Observaciones sobre el vascuence de Navarra* (1881), *Carta lingüística* (1883), etab. Bere lankiderik nagusienak izan ziren: Intxauspe, Zuberotar kalonjea, Duvoisin lapurtarra, Uriarte, antxikotar bizkaitarra, Bruno Etxenike naparra, Claudio Otaegi giputza, Mariano Mendigatxa erronkariarra etab. Heriotz-ondoren, gure Printzearen euskal-biblioteka inprimatua Chicago'ra joan zen. Eskuidazkien jabe eusko-ahaldundegiak egin ziren. Ikus xehetasun gehiago Villasanté'ren liburuan.

IMPERATIF

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: (bizat (neri), bizazu (zuri), bizayo (hari), begigu (1) (guri), bizazute (zuei), bizayote (haiei).

Lapurteraz: biezat (neri), biezazu (zuri), biazto (hari), biezagu (guri), biezazue (zuei), biazote (haiei).

Zuberoeraz: bizat (neri), bizazü (zuri), bizo (hari), bizagü (guri), bizazie (zuei), bize (haiei).

Haut-Navarraiz Méridional: bezada (neri), bezazu (zuri), bezo (hari), bezagu (guri), bezaze (zuei), bezote (haiei).

Bas-Navarraiz Oriental: bezaat (neri), bezauzu (zuri), bezako (hari), bezau (1) (guri), bezauzie (zuei), bezee (haiei).

SUBJONCTIF (PRÉSENT)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizazun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizazuten (zuei), dizayoten (haiei).

Lapurteraz: diezadan (neri), diezazun (zuri), diozan (hari), diezagun (guri), diezazuen (zuei), diozaten (haiei).

Zuberoeraz: dizadan (neri), dizazün (zuri), dizon (hari), dizagün (guri), dizazien (zuei), dizen (haiei).

(1) Badirudi Bonaparte'k ere Larramendi'ri jarraitzen diola. Normalki, dakigunez, “za” aditz-erroaz baliatuz, “bizagu” behar du.

(1) “Bezaugu”ren laburpena, noski.

Bas-Navarraïss Oriental: dezaan (1) (neri), dezaun (zuri), deza (hari), deza (guri), deza (zuei), deza (haiei).

SUBJONCTIF (PASSÉ)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizazun (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizazuten (zuei), zizayoten (haiei).

Lapurteraz: ziezadan (neri), ziezazun (zuri), ziozan (hari), ziezagun (guri), ziezazuen (zuei), ziozaten (haiei).

Zuberoeraz: lizadan (neri), lizazün (zuri), lizon (hari), lizagün (guri), lizazien (zuei), lizen (haiei).

Haut-Navarraïss Méridional: zezadan (neri), zezazun (zuri), zezon (hari), zezagun (guri), zezazen (zuei), zezoten (haiei).

Bas-Navarraïss Oriental: zezaan (3) (neri), zezazun (zuri), zezakon (hari), zezaukin (4) (guri), zezazien (zuei), zezeen (haiei).

POTENTIEL (FUTUR)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizazuke (zuri), dizayoke (hari), dizaguke (guri), dizazuteke (zuei), dizayoteke (haiei).

Lapurteraz: diezadake (neri), diezazuke (zuri), diozake (hari), diezaguke (guri), diezazueke (zuei), diozakete (haiei).

Zuberoeraz: dizakedat (5) (neri), dizakezü (zuri), dizakio (hari), dizakegü (guri), dizakezie (zuei), dizakie (haiei).

Haut-Navarraïss Méridional: zadake (neri), zekezu (zuri), zoke (hari), zaguke (guri), zakeze (zuei), zokete (haiei).

(1) Normalki: dezadan.

(2) Normalki: dezaugun.

(3) Normalki: zezadan.

(4) Normalki: zezaugun.

(5) Datibo bikoitza *da + t* (= dizaket/dizadake).

Bas-Navarraiz oriental: dezakeat (1) (neri), dezako (hari), dezaueu (2) (guri), dezeke (haiei) (3).

POTENTIEL CONDITIONNEL (Futur présent)

Harek (ekar)

Gipuzkeraz: lizadake (neri), lizazuke (zuri), lizayoke (hari), lizaguke (guri), lizazuteke (zuei), lizayoteke (haiei).

Lapurteraz: liezaket (neri), liezazuke (zuri), liozake (hari), liezaguke (guri), liezazueke (zuei), liozakete (haiei).

Zuberoeraz: lizakedat (4) (neri), lizakezü (zuri), lizakio (hari), lizakegü (guri), lizakezie (zuei), lizakie (haiei).

Haut-Navarraiz Méridional: lezadake (neri), lezakezu (zuri), lezoke (hari), lezaguke (guri), lezakeze (zuei), lezokete (haiei).

Bas-Navarraiz Oriental: lezakeat (5) (neri), lezakio (hari), lezaueu (6) (guri), lezeke (haiei) (7).

SUPPOSITIF DU POTENTIEL (Présent)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: badizat (neri), badizazu (zuri), badizayo (hari), badizagu (guri), badizazute (zuei), badizayote (haiei).

Lapurteraz: badiezat (neri), badiezazu (zuri), badioza (hari), badiezagu (guri), badiezazue (zuei), badiozate (haiei).

Zuberoeraz eztizu edo eztakar behinik behin Bonaparte’k. Berdin diogu Naparroa’ko bi irabiakerez.

(1) Badirudi “dezakedat” laburturik dela, hots, Zuberoa’ko “dizakedat” bezala datibo bikoiztuna.

(2) Normalki: dezauegu.

(3) Bigarreneko datiborik eztizu, ez sigularrekoa, ez pluralekoa.

(4) Datibo bikoitza: da + t (= lizaket/lizadake).

(5) Badirudi “lezakedat” laburturik dela, hots, Zuberoa’ko “lizakedat” bezala datibo bikoiztuna.

(6) Normalki: lezauegu.

(7) Bigarreneko datiborik eztizu, ez singularrekoa, ez pluralekoa.

SUPPOSITIF DU POTENTIEL CONDITIONNEL (Futur)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: balizat (neri), balizazu (zuri), balizayo (hari), balizagu (guri), balizazute (zuei), balizayote (haiei).

Lapurteraz: baliezat (neri), baliezazu (zuri), balioza (hari), baliezagu (guri), baliezazue (zuei), baliozate (haiei).

Zuberoeraz: balizat (neri), balizazü (zuri), balizo (hari), balizagü (guri), baliazie (zuei), balize (haiei).

Haut-Navarraïs Méridional: balezada (neri), balezazu (zuri), balezo (hari), balezagu (guri), balezaze (zuei), balezote (haiei).

Bas-Navarraïs Oriental: balezaat (1) (neri), balezauzu (zuri), balezako (hari), balezau (2) (guri), balezauzie (zuei), balezee (haiei).

OPTATIF DU POTENTIEL CONDITIONNEL (Futur)

Harrek (ekar)

Zuberoeraz: ailizat (neri), ailizazu (zuri), ailizo (hari), ailizagü (guri), ailiazie (zuei), ailize (haiei).

Oharra.—Aditz-jokuok tauletan emanak daude Bonaparte'ren liburuan. Honela: gipuzkeraz: huitième tableau; lapurtera: dixième tableau; zuberoera: onzième tableau; Haut-Navarraïs Méridional: dixième tableau supplémentaire; Bas-Navarraïs Oriental: quatorzième tableau supplémentaire. Gipuzkeraz, Lapurteraz eta Zuberoeraz beti datiboko "i" ezaungarria ageri zaigu, baiñan napar formetan "e" bihurtzen da. Larramendi'k, Añibarro'k eta Lardizabal'ek ere, hala nola Intxauspe'k, beti "i"ri eusten dioten gipuzkeraz, nahiz-ta garai haietarako "gi-" (da-gi-on = di-za-ion) errodun adizkerak oso sartuak egon Gipuzkoa'n. Ohar gaitezen ere napar hegoaldeko adizkera batzuek aditz-erroaren aurreko partea galdu egiten dutela: zadan = dezadan/dizadan, zadake = dezadake/dizadake; horrela bi sail hauetako adizkera guziak. Bonaparte'k Behe-Naparroa Sortaldean bildutako jokaldiak eta López Ibarra'ko erretoreak darabilzkieanak (honek Amikuze'ko euskaran idatzi zuen) bateratsu datoz. Hona hemen adigarri batzuek Alfonso Rodriguez'en "Práctica de la perfección cristiana" liburuaren itzulpenetik atereak (3):

(1) Badirudi "balezadat" laburturik dela, hots, bi datiboduna. Aski litzake ordea "balezat", Zuberoa'ko "balizat" bezala edo napar-hegoaldeko "balezada"ren antzo.

(2) Dirudienez "balezaugu" da forma osoa.

(3) "Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo". Tomo I, 1967: "Apuntes léxicos de la traducción bajo-navarra de Alfonso Rodríguez (1782)". "El año 1782 se publicó en Aviñón un resumen arreglado de la "Práctica de la perfección cristiana" del Padre Alfonso Rodríguez con el título: Alphonsa Rodríguez, Jesusen Compagnhaco Aitaren Guiristinho perfeccionariaren praticaren pparte etat Heuzcarala itculia. Heuzcara becic eztaquitenen daco, Avignhonen, Antonio Aubanel Liburu Salzaliaren, eta Aita Seindiaren choil Imprimuzaliaren Beithan (1782). Amikuze'ko euskaran idatzia dago (sortaldeko behe-naparreraren baitakoa, beraz) eta liburuan egille-izenik aipatzen ez baldin ba'da ere, G. Lacombe'ren azterraldiei eskerak badakigu López zuela deitura eta Ibarra'ko (Donaisti-Ibarra'n) erretore zela. "Apuntes léxicos..." en egille, berriz, Fray Andere Lizartzako da, Antxikotarra. Gaztelerazko itzulpenak beronek egiñak dituzue.

“Sorik ere *eztezakoola* egin” = “que no le puede mirar” (“Hastio” hitza, 108 hor.); “Bizia edeki *zadazu*” = “quitame la vida” (“Edeki” h., 123 h.); “Igurikiten dizi, zabal *dezakogun*” = “espera a que le abramos” (“Etsi” h., 132 h.); “Dakielakotz horiek orok *eztezakootela*, ez ogenik egin, ez bilo bat idok” = “porque sabe que ninguno de esos le puede hacer ningún mal, ni arrancarle un pelo” (“Ogen” h. 151-152 hk.). Hirugarren personako datibuak, “*dezakon*” (Bonaparte), “*dezakogun*” (López), “*k*” gozagarria darabilte “*i*” ordeztu (dezaion/dizaion). Orobat Gipuzkoa’n toki batzuetan “*zaio*” eta bestetan “*zako*” esan ohi da.

VI. ARTURO CAMPION

“GRAMATICA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS DE LA LENGUA EUSKARA”

(Por D. Arturo Campión. Tolosa: 1884. Establecimiento tipográfico de Eusebio López, Sucesor de la Viuda de Mendizábal, Calle de la Solana, n.º 8).

Campion’en bizitza eta obra txit ezaguna da eta horretxegatik eztugu hemen aipakizunik egingo. Haren berri, nun nahi arki dezake irakurleak, euskal-literatura liburuetan, enziklopedietan eta abar. Haren obrak berriz errez arki ditezke liburu-dendetan eta biblioteketan. Hemen aipatzen dugun bere gramatika hotsandikoa izanen da noski zaillena arkitzen. Aditz-tabuletan Campión’ek Bonaparte Printzeari jarraitzen dio urratsez-urrats. Lau euskalkietako irabiakerak eztute bereizkizun txipienik. Beraz, ezer berririk ematen ez digunez gero, ez aldatzea pentsatu dugu, zeren Campión’en tabulak Printzearenak berberak baitira eta ez hain oparoak. Esaterako, Naparroa’ko euskalkiak ezpaitakarzki Campión’ek. Halabaiña, eztugu pasa izan gura Gramatika baliotsu honen aipakizuna egiteke, batez ere hau errezago delako ardiesten Bonaparte’ren aditz-liburua baiño eta hau ezin eskura dezakeanak, bada-kike, Campión’ez baliatuz, Printzeak bildutako aditz-joko berberak dauzkala eskumenean. Irakurleak barka bizaigu bada laburtasun-zurrean egiten dugun mozketa hau.

VII. LUIS DE ELEIZALDE

“MORFOLOGIA DE LA CONJUGACION VASCA SINTETICA”

(Tomo I. La conjugación sintética guipuzkoana en el tratamiento cortés. Bilbao, Imp., Lit., y Enc. de Eléxpuru nos. 1913).

Eleizalde’tar Koldobika (1873-1923), Bergara’n jaio zen eta Bilbao’n hil. Batxilleratua bere sorterrian hasi eta Zaragoza’n bukatu zuen. 1899’an zientzia-lizenziadutza ardietsi zuen eta geroago alkar-lehiaketaz Gastehiz’ko Institutoko matematika katedra. Geroago Bizkai’ko Ahaldundegiak erakus-

keta aztertzaile izendatu zuen. "Euzkadi" aldizkariaren zuzendari eta Euskaltzainkide nagusi izan zen. Denok dakigu Sabindar purrukatua izan zela. Halabaiña, esango nuke, Sabino'ganako amodioak eta bere dotriña politikuak eragin ziotela gehiago postura hortara, harek euskara-gaietan eman zituen arrazoiak baiño. Bere obra ugarien artean aipa ditzagun, eskuarteak daukagunaz gainera: "Apuntes para una teoría de las figuras circulares" (Madrid, 1904), "Raza, lengua y nación vascas" (Bilbao, 1911), "Países y Razas" (Bilbao, 1914), "Landibar" (eleberria, 1918), "Metodología para la restauración del Euzkera" (Cong. Est. Vasc., 1919), "El problema de la enseñanza en el País Vasco" (Congr. Est. Vasc., 1919), "La lucha por el idioma propio" (hitzaldia, 1919), "Kisto'ren Antz-bidea", hots, Kempis euskaraturik ("Euzkadi"n), "Halidon Murua", "Halidon Hill" ingelesetik euskaraturik ("Euzkadi"n) eta beste aunitz idazlan, olerki eta itzulpen, "Euzkadi"n, "RIEV"en eta beste zenbait aldizkaritan.

PRETERITO IMPERFECTO HIPOTETICO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: zizadan (neri), zizatzun (1) (zuri), zizayon (hari), zizagun (guri), zizatzuten (2), (zuei), zizayen (haiei) (110 eta 111 horrialdeak).

TIEMPO FUTURO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadake (neri), dizatzuke (3) (zuri), dizayoke (hari), dizaguke (guri), dizatzuteke (4) (zuei), dizayeke (haiei) (112).

MODO IMPERATIVO (Presente)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: bezat (neri), bezatzu (zuri), bezayo (hari), bezagu (begigu) (guri), bezatzute (zuei), bezaye (haiei) (113-114-115).

(1) Eleizalde'k "zu" datibo ezaugarria "tzu" bihurtzen du, bere ustez eta aburuz partikula hau hots gogorrekoa delako.

(2) Orobat, "zute" "tzute" bihurtzen du.

(3) "tzu" = "zu".

(4) "tzute" = "zute". Ohar hau eztugu gehiago eginen.

MODO SUBJUNTIVO (Presente)

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: dizadan (neri), dizatzun (zuri), dizayon (hari), dizagun (guri), dizatzuten (zuei), dizayen (haiei) (117-118).

TIEMPO FUTURO ABSOLUTO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: lizadake (neri), lizatzuke (zuri), lizayoke (hari), lizaguke (guri), lizatzuteke (zuei), lizayeke (haiei) (121-122).

TIEMPO FUTURO CONDICIONADO

Harrek (ekar)

Gipuzkeraz: ba-lizat (neri), ba-lizatzu (zuri), ba-lizayo (hari), ba-lizagu (guri), ba-lizatzute (zuei), ba-lizaye (haiei) (123-124).

Oharra.—“Pretérito Imperfecto hipotético” delakoa eta “Modo Imperativo” jokoz-joko aldatuak daude, testuan bezalaxe. Besteak deduziñoz atera behar izan ditugu, aditzaren egitura-legeak jarraituz, zeren hirugarren personarik ezpaitu ematen Eleizalde’k. Zergatik ezta-kigularik, aginkorrean “e” ezaugarria darabil (b-e-zat) eta beste danetan “i” (d-i-zadazun). Baiñan “e” hori ez darabil lehendabiziko eta bigarren pertsonetan “i” batez lagundurik, gerora Orixe’k, Olabide’k eta euren jaraitzaileak egingen dutenez. Alegia, “bezat”, “beatzu”, “beza-gu”... darabil Eleizalde’k, Naparroa’ko aditz-joko herrikoien gisara eta ez geroko eskola berriak emandako “bezait”, “bezaizu”, “bezaigu”. Tankera hontako aditz-jokoak eztitut inun ikusi ahal izan. Badirudi (eztut seguratu nahi ordea) Orixe’k erabili zituela lehenengoz. Hirugarren pertsonako datibotan berriz herrikoiak dira, Naparroa’n eta inguruetan behintzat (be-zaio/dezaion/dezaioke). Baiñan baita ere: bezako/dezakon/dezako.

VIII. RESURRECCION MARIA DE AZKUE

“VERBO GUIPUZCOANO”

(Apéndice de la “Morfología Vasca”. Editorial Vasca. Bilbao, 1932).

Resurrección Maria de Azkue (1864-1951), Lekeitio’n jaio zen eta Bilbao’n hil. Batxilleratua hiriburu hontako institutuan egin zuen. Gero, apaiz-goari ekin zion Gastehiz’ko Seminarioan, teologian maixutuz (1881-1885). Ondoren Eskritura Saindutan eta “Derecho Canónico”n maixutu zen Salaman-

ca'n (1855-1888). Azken urte hontan apaiz ordeatu zen eta euskal-ikastaldiak Bilbo'ko Institutoan emateko, Bizkai'ko Ahalundegiaren katedra irabazi zuen. Euskara eta musika ziren bere bi zaletasun handiak eta horrela musika ikaskizunak egiñaz Bruselas'en eta Kolonia'n egon zen. Euskaltzaindia sortu zelarik 1918'an, lehendakari izendatua izan zen eta 1927'an gaztelerazko akademiku nagusi izendatu zuten Euskalerria'ren aurkezle bezala. Azkue'ren obra izugarria ezin aipa diteke errenka labur hauetan. Irakurleak arkitu ahal izanen du, Villasante'ren, Mitxelena'ren, Estornes-Lasa'ren edo Onaindia'ren euskal-literatura liburutan.

Aginkorreko datiboez ari delarik transitiboko aditz laguntzaillean, hone-la dio Azkue jaunak (144 hor.): “Muchas de sus flexiones no las usa ya el pueblo, y en muchísimas otras se vale, casi en todas partes, del núcleo del auxiliar bizkaino *egin*, habiendo desaparecido el de su propio auxiliar *ezan*. Por “dámelo tú, varón y hembra” sólo en Oyarzun y Amezketá me dieron *eman zadak* y *eman zadan*. En todos los demás pueblos por mí consultados recogí, con ligeras variantes, *emaidak* y *emaidan* y sus negativas *ezeidak* *eman* y *ezeidan* *eman*. Y aun en el mismo Oyarzun las flexiones correspondientes a “dánoslo” y “dáselos a ellos” no son, por lo menos en labios de mis colaboradores, no son *eman zaguk* y *eman zaek* sino *emaiguk* y *emaiek*”.

Subjuntiboko aditz-jokoez transitiboko laguntzailletan, honela dio Azkue jaunak: “sucede en este modo, respecto del uso del núcleo verbal, lo que en las flexiones del modo precedente, de imperativo; es decir, que en las flexiones meramente objetivas vive el auxiliar *ezan* y en las flexiones de recipiente ha sido generalísimamente sustituido por el auxiliar *egin* del dialecto bizkaino” (145 hor.). Eta 147 garren horrialdean berriro dakio: “En las flexiones receptivas de subjuntivo correspondientes al paradigma XLI, el auxiliar bizkaino *egin* ha usurpado el puesto de *ezan*. Sólo en Astigarraga y Oyarzun vive el núcleo *za* (1). En los demás al efecto consultados, se oyen ejemplos como *eman daiodala* o *deiotala* “que yo se lo dé”, *eman daiozula* o *deiiozula* “que vos se lo deis”..., etc.”

“Hoy lo ordinario en todos los pueblos es recurrir al infinitivo para expresar estas ideas, valiéndose de *nik berari emateko* y *zuk berari emateko* en vez de las susodichas flexiones.

(1) Astigarraga eta Oiartzun'ez gaiñera besteok gaiñeratuko nituzke: Amezketá (aipatua), Abalzizketá, Orendain, Altzo, Lizartza, Gaztelu, Oresa, Leaburu, Ibarra, Belauntza, Berrobi, Elduañen, Berastegi, Urnieta, Ernani, Errenteria, Lezo, Pasaia, Irun eta Ondarrabia. Uste dut Naparro-mugaldeko herriotan gehiago edo gutxiago (baiñan gero ta gutxiago) oraindik zenbait kasutan kontserbatzen dutela “-za-” aditzerroa. Hontaz gaiñera esango nuke aginkorreko forma batzuek (za(i)dazu/za(i)dak, zaiozu/zaiok, zaizkidazu/zaizkidak, zaizkiozu/-zaizkiok...), naiz-ta galurrean, Oria'ko ibarluzera guzian erabiltzen direla oraindik Alegi'tik Orio'raño eta erabiltzen eztenari ere oso ezagun eta etxeko egiten zaizkio. Baiñan, Azkue'k dion bezala, aztarrenak besterik ez tira gelditzen. Beraz, bildurrik gabe esan diteke gaur Gipuzkoa'n erabiltzen diren datiboko aditzerroak “egin” etik atereak direla.

“No vale la pena de exponer un paradigma de flexiones casi todas difuntas” (148). Hau dala-ta Azkue’k eztitu ematen datiboko adizkerok. Potenzialekoak ere arrazoi berberagatik baztertzen ditu. “En las flexiones potenciales —dio lehen Euskaltzainburuak— y especialmente en las familiares reina un caos tal que su detallada exposición hastiaría al lector, si antes al expositor no le hubiera vuelto loco” (149 hor.).

IX. INAZIO MARIA ETXAIDE LIZASOAIN

“DESARROLLO DE LAS CONJUGACIONES EUSKARAS”

(Perifrásticas y sintéticas, respetuosas y familiares. Por D. Ignacio Maria Echaide. Ingeniero Industrial. 1944. Gráfico-Editora, S. L. San Sebastián).

Inazio Maria Etxaide Lizasoain (1884-1962), Donostia’n jaio zen Abenduaren lehenengoan, Batxilleratua libre ikasi zuen, bere familia urte erdi bat Donostia’n eta beste erdia Bergara’n bizi baitzen aldi hartan. 1900’en batxilleratua bukatu zuen eta Industrietako Injinadoretzari ekin zion Bilbao’ko Eskolan eta 1906’an titulu jabe egin zen. 1907’ko Agorrilean (Abuztuan). Gipuzkoa’ko Ahaldundegian sartu zen, “Catastro Industrial” izeneko zerbitzuan. Txipitan ikasitako euskara ahazturik zeukan eta 1907’an ikasten hasi zen. 1909’ko Martxuan Ahaldundegiko industria-injinadore izendatu zuten; izendapen honen barruan Probintzi-Telefonutzaren zuzendaritza sartzen zen. Urte bereko Iraillean “Juventud Integrista”ko lehendakari bereixia izan zen eta kargu hortan iraun zuen ezkondu arte. 1910’ean gazteri hontan euskal-ikastaldiak eratu zituen, bera eta D. Ramón Intzagarai zirelarik irakasle. Urte berean “Banco de San Sebastián”eko aholkari izendatu zuten. 1915’eko Apirillean Maria Dolores Itarte Alberdi’rekin ezkondu zen. Ezkontza honetatik 10 seme-alaba sortu ziren. 1926’an Donostia’ko Telefonu Munizipalarekin lankidetzan, Peninsulako lehendabiziko telefonu-automatizatzea egin zuen Donostia’ren hamabost kilometroko inguruan. 1928’an “La Cruz” asteroko katolikua ateratzen du partidu integristatik ateratako bere lagunekin eta bertako lankiderik saiaturienetakoia izan zen 1936’raiño. “Legión Católica”ren fundatzailetakoa izan zen halaber (1928). 1932’an, “La Cruz”eko lagunekin “Centro de Actuación y Propaganda Católica”, gazteen biltokia, eta “Editorial Católica” fundatu zuen. 1940’an “Alfa” Eibar’ko josteko makiñetan aholkari izendatu zuten eta 1945’ean “Muebles Alfa”n. 1942’an euskaltzain nagusietakoa hautatu zuten eta 1951’an euskaltzainburu. 1949’an Gipuzkoa’ko telefonutzaren buruzagigoa utzi beharrean arkitu zen, “Compañía Telefónica Nacional” delakoa jabetu zelako Gipuzkoa Ahaldundegiaren Telefonuaz. 1953’an “Orden Civil de Alfonso X el Sabio” lagunartean onartua izan zen. 1954’ko Abenduaren lehenengoan Ahaldundegiaren injinadore kargutik

jubilatu beharra tokatu zitzaion eta hamabost egun geroago, enbolia baten ondorenez, anka bat moztu behar izan zioten. Donostia'n hil zen 1962'ko Hazillaren 14'an. Bere obrak ezin aipa ditzakegu ugariaren ugariz. Irakurleak ikus ditzake "Desarrollo de las Conjugaciones Euskaras"en edo "Etxaide Jauna" liburuetan.

SUBJUNTIVO (PRESENTE)

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: dizaidan (neri), dizaizun (zuri), dizaion (hari), dizaigun (guri), dizaizuten (zuei), dizaien (haiei). (27-74 horriak).

SUBJUNTIVO (PRETERITO)

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: zizaidan (neri), zizaizun (zuri), zizaion (hari), zizaigun (guri), zizaizuten (zuei), zizaien (haiei). (27-74).

IMPERATIVO

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: bizait (neri), bizaizu (zuri), bizaio (hari), bizaigu (guri), bizaizute (zuei), bizaie (haiei). (27-74).

POTENCIAL (PRESENTE-FUTURO)

Harrek (Ekar)

Gipuzkeraz: lizaidake (neri), lizaizuke (zuri), lizaioke (hari), lizaiguke (guri), lizaizuteke (zuei), lizaieke (haiei). (27-74).

Oharra.—Gure aitak alde nabarmen bat dauka beste tratadistekin; alegia, bestek, hirugarren personetako datibo ezaugarriaren ("o" eta "e") aintzinetik bakarrik darabilte "i" letra gozagarria eta gure aitak datibo guzien aintzinetik darabil. Esaterako, Bonaparte'ren "dizazun", "dizaizun" da nere aitarentzat, "dizadan", "dizaidan", "dizagun", "dizaigun" etab. Orixe-Olabide-Lekuona'ren eskolak ere, "i" hau datibo guzitan darabil, baiñan lehenengo "i" "e" bihurtuz: *dezaizun, dezaidan, dezaigun...* Halabaiña, tankera hontako aditz-jokoak, nik dakidalarik, eztira iñun agertzen, hirugarren personako datibotan izan ezik (dezaion/dezaien).

Bai, oster, *dezazun, dezadan, dezagun*, baiñan hauek oso desegokiak dira aditz-joko zuzenak nahastan direlako. Bestalde, “dizaizun”en tankerako aditz-joko banaka batzuek agertzen dira, baiñan eskuarki ageri dena “dizazun” da. Ene aitak “i” gozagarria datibo guzitara zabaldu zuen eta Gipuzkerazko irabikeraren norma bezala ezarri. Hona hemen adigarri herrikoi batzuk:

Zapata txuri, paperez;
Eudi denian baterez...
Nagusi jauna, esan BIZAIGU
Asiko geran ala ez.

(D. Manuel Lekuona’k aipaturik, “Egan”en (5-6), 14 hor. Gabon-Kantak, 1956.)

“Ez BALIZAIGUKE eman” (“Asis’ko Loria”, Fr. Krispin Beobide, 79 h., “Auspoa”, 1966).

Berez kupi gaitzala
Guziyon jabiak,
Ta eman DITZAIGULA
Abillidadiak

Ahapaldi hau Pello Errota’rena da. *Ditzaigula* = *dizaizkigula*, plurala sortaldeko euskalkien eran egiñaz (“Udarregi bertsolaria”, 36 h., “Auspoa”, 1966).

“Aita, eman BIZAIT nai nuan penitentzia” (“Asis’ko Loria”, Fr. Krispin Beobide, 154 h., “Auspoa”, 1966).

“Barka ZAIZKIGUTZU gure zorrak” (“Baserritar jakintsuaren etxeko eskola”, Gregorio Arrue, 123 h., Tolosan, Pedro Gurruchagaren moldiztegia, 1878).

“Naiz munduak, eta infernuak eman DITZAIZKIGULA kanpotik, eta barrendik, milla tentazio eta su” (“Urteco igande guztietarako platicac edo itzaldia”, Joakin Lizarraga Elkanokoia, 115 h., Ignazio Ramon Baroja’ren moldiztegia, 1846).

“Orretarako lagun ZAIGUZU zeru-lurreko Jueza” (“Santa Genobeba’ren bizitza”, Juan Kruz Zapiain, “El mundo en la mente popular vasca”, Tomo III, Colección Auñamendi, 1962, 143.h). “Komeni ba’da, eman ZAIGUZU ondo iltzeko graziya” (Idem., idem., 173 h.). Zapiain’ek 1899’gn. urtean kopiarazi zuen.

“Gaur dala Maria Kale,
Bihar dala Zantantzart,
Egin DIZAIGUN arte
Tripan larruak zart.”

Orio aldean kantatzen duten bezala. (“Zeruko Argia”, “Hemen dira” artikulua, Otsailak 24, 1974).

“Nai DIZAIGULA Jaunak egun au ekarri,
Barkatzen diogula zinez elkarri,
Ikusi genezake egun au guk sarri,
Laztan gogoz emanaz bata besteari;
Ez fia iñori, fuero kontu ori;
Gure buruari, ikusiak ikusi,
Fia gauz ori.

(“MUNAGORRI”, “Iturriaga’ren bertsoak”, 84’gn. paia. Antonio Maria Labayen, Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, S. A. San Sebastián-Usurbil, 1976.)

X. PIERRE LAFITTE ITHURRALDE

“GRAMMAIRE BASQUE”

(Navarro-Labourdin littéraire. Edition revue et corrigée. Editions des “Amis du Musée Basque” et “Ikas”, Bayonne. Imprimeries Delmas, Bordeaux, 1962.)

Hona, Juan San Martin'ek (“Escritores euskéricos”, 111 hor.) ematen dizkigun berri labur-laburrak Pierre Lafitte jaun apez kalonjeaz: Lapurdi'ko Luhoso'n sortu zen 1901'eko Maiatzaren 21'ean. Uztartitze'ko Seminarioko irakasle eta euskaltzainkide nagusia da. “Herria” asterokoaren zuzendari 1944'tik 1967'ra. Frantsesez idatzirik dauka: “Les études basques à travers les siècles”, “Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule”, “Pour le Pays Basque”, “Lexique Français-Basque” (André Tournier'ekin) eta “Grammaire Basque”. Euskaraz: “Julien Héguy apheza”, “Ithurralden kantuak”, “Egiazko argia” (antzegintza), “Koblakarien legea”, “Ebanjelio ttipia”, “Eskual Herriaren alde”, “Eskualdunen Loretegia”, “Hazila”, “Orratza”, “Chalbaten mertchika-ondoak”, “Murthus eta bertze”, “Georges Lacombe”, “Hil bizia”, “Atlantika-Pirene-etako sineste zaharrak”, “Pierre Topet-Etxahun”, Zuberotar koblakariaren bizitza Haritxelhar'enetik laburtua, etab. Orain, Euskalerrri'ko hizkuntza-atlasean lanean ari da Jacques Allières'ekin lankidetzan. Euskal-literaturaren historia bat ere prestatzen ari omen da euskaraz. Liburu zahar-berrien ediziñoetan eta aldizkarietan erruz lan egin du. 1967'garren urtean ezagutzera eman zigun “L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenar”, 1665'ekoa, orain agertu berria, hitzurre eder batez.

“(E)ZA” aditz-erroaz diarduela datibotan (306-307 horriak), “Temps radicaux” izenez taula hau ematen digu Lafitte'k:

	Présent	Imperatif	Eventuel	Imparfait
Singularrean:	dieza-	bieza-	lieza-	zieza-
Pluralean:	dietza-	bietza-	lietza-	zietza-

Eta ondoren ohar hauek egiten ditu: “588. Remarques.—1. Les temps radicaux sont très souvent réduits. *Ieza* devient *eza*; *ietza* devient *etza* ou *itza*. Cela ne va pas toujours sans inconvénient. La plupart des suffixes-agents, on risque de ne pas savoir si *eman dezagun* veut dire: *donnons-le* ou *qu'il nous le donne*. Il faut donc conserver la forme *diezagun* (1) pour le second cas”.

(1) Gipuzkeraz: *dizagun*. Gu ere gauza berbera esanak gaituzu arestian. Nunbait, hone-txegatik Orixe'k asmatu zuen “dezaigun”. Ez ote zuen hobe, ordea, “diezagun” edo “dizagun” literatur-tradiziodunak erabiltzea, eskola berri bati hasiera eman gabe?

Nota.—Quelques écrivains contemporains, pour éviter l'équivoque, ont inventé des monstres comme *eman dezaukun*, dont le *u* s'explique peut-être par une fausse analogie des radicaux en *au* du verbe *ukan*. Il faut absolument bannir de tels barbarismes.

Lafitte’k salatzen dituen monstrokeriok, idazleek ala herriak asmatuak ote dira? Zeren, tankera hortakoak Luis Luziano Bonaparte Printzeak herrian jaso baitzituen Behe-Naparroa Sortaldean. Hona gure Printze maiteari estudio hontan jasotako batzuek: dezaun, dezaui(g)un, dezaunien, zezauzun, zezauki(g)un, zezauzien, bezauzu, bezau (=bezaugu), bezaunie, etab. Gero darraikio:

“II. Les suffixes *ko* et *kote*, à lui, à eux, sont exclusivement bas-navarrais dans ce verbe (1). En labourdin, on emploie *o* et *ote*: ces suffixes, ainsi que *e*, à eux, font disparaître le *a* du radical. Ex.: *eman diezon* (diez(a)on), pour qu’il le lui donne; *eman dietzoten* ou *dietzen* (dietz(a) oten/dietz(a)en), pour qu’il le leur donne” (2).

XI

Intza’r Damaso fraide euskaltzaiñak, “Larraun eta bere euskalkia” deitu lanean (“Euskera”, 1957, 95/96 horrialdeak), Larraun’go herri-aditza estudiantuz, datiboko hirugarren pertsonari dagozkion jokuok ematen dizkigu: nezaiokek/nezaioken, dezaiokek/dezaioken, zezaiokek/zezaioken, giñezaiokek/giñezaioken, ziñezaiokei/dezaiokezui, lezaiokei/lezaiokei. Ikus ditekenez, bi irabiakera sistema nahasirik daude hemen. Batetik dezaiokek/dezaioken/dezaiokezui, gazteleraz presenteko adizkerez itzultzen direnak (puedo, puedes, puede...) eta besteak gazteleraz “potencial simple” izenekoez itzuliko genituzkeanak (podría, podrías, podría...). Horrela, “hik egin dezaiokek” (=dizaiokek), “tu le puedes hacer” da eta “hik egin hezaioke (*hizaioke), “tu le podrías hacer”. Baiñan hemen, aditzerroa nola erabiltzen den ari gara estudiantzen soil-soilki eta dakuskegunez Larraun’en eta dirudienez Naparroa guzian “i + za” galdurik da eta datiboko hirugarren personetan “e + za” darabilte. Aita Intza’k eztu beste datibotako adizkerarik jaso. Erabiltzekotan (duda egiten baitut, zeren egunez-egun galtzen ari baitira), dezagun (=dizagun), dezazudan (=dizazudan) etab. erabili bide direla uste dut.

(1) Ikus gure estudioko Bonaparte’reñ tauletan, Bas-Navarrais Oriental delakotan: deza-kon, bezako, zezakon, dezako, balezako... eta Ibarra’ko López erretorearen dezakoola, deza-kogun, dezakootela...

(2) Aurrena “diezaon”etik “diezon” egin zen eta gero “dezon” (preterituan “nezon”). Orobat potentzialean “dezoke/nezoke”. Ikus, esaterako, Iriart-Urruty, estudio honen hirugarren zatian.

Nota.—Les vieux auteurs labourdins, par une assimilation qui nous paraît pléonastique, transformaient souvent le *e* du radical en *o* devant les suffixes *o* et *ote*. Ex.: *diozon*, *diozoten*. Nous n’encourageons pas cet usage, pas plus que le changement systématique de cet *e* en *a*, dont Axular nous donne pourtant l’exemple”. Ohar honen baitan beste jakingarri hau dakar: “*Ko* est parfois remplacé par *io*. Ex.: *dezaiola*, au lieu de *dezakola* ou *dezola*”.

Hainbestean amaitutzat jotzen ditugu Lafitte jaunak bere Gramatika ederraren 306/307 horrialdetan dakartzkien oharpen ernegarriak.

XII

Martin Harrieta (Harriet), Larresoro'ko errege-iskribau zenak, euskal-gramatika bat argitaratu zuen Baiona'n 1741'gn. urtean: "Gramatica escuaraz eta francedez, composatua frances hitzcunca ikhasi nahi dutenen faboretan".

Harrieta'k adizkera gutxi batzuek besterik eztitu ematen "(e)za" aditzetrokoak datibotan. Bakan hauek aginkorrari dagozkio, baiñan "d" letrarekin hasiera emanaz, Lapurdi'ko usadio zaharrean. Hona hemen adizkerok Harrieta'ren liburuko 223/224'gn. horrialdetatik aterata:

Eman DIEZADAK (gip. *zaidak*), hik neri (donne moi).

Eman DIOZOK (gip. *zaiok*), hik hari (donne lui).

Eman DIEZEK (gip. *zaiek*), hik haiei (donne leur).

Eman DIEZAGUK (gip. *zaiguk*), hik guri (donne nous).

Eman DIEZADAZU (gip. *zaidazu*), zuk neri (donnez moi).

Eman DIOZUZU (gip. *zaiozu*), zuk hari (donnez lui).

Eman DIEZAGUZU (gip. *zaiguzu*), zuk guri (donnez nous).

Eman DIEZEU (gip. *zaiezu*), zuk haiei (donnez leur).

Eman DIEZADAZUE (gip. *zaidazue*); zuek neri (donnez moi).

Eman DIOZUZUE (gip. *zaiozue*), zuek hari (donnez lui).

Eman DIEZAGUZUE (gip. *zaiguzue*), zuek guri (donnez nous).

Eman DIOZUZUETE (gip. *zaiezue*), zuek haiei (donnez leur).

Oharra.—Ikus nola betetzen den hemen Lafitte'k eman legea, alegia, aditzetroko "e" (di-e-zok, di-e-zozu, di-e-zozue), "o" bihurtzen da datiboko hirugarren pertsonatan (di-o-zok, di-o-zozu, di-o-zozue).

XIII. PIERRE D'URTE

"GRAMMAIRE CANTABRIQUE BASQUE"

(Faite par Pierre d'Urte. 1712. Manuscrit de la Bibliothèque du comte de Macclesfield. Publié pour la première fois sous les auspices de la Société Ramons. Par les soins du Rev. *Wentworth Webster*, de Sare, en grande partie aux frais de M. Antoine d'Abbadie, membre de l'Institut. Extrait du Bulletin de la Société Ramond (1896-1900). Tiré a cent exemplaires. Prix: 15 Francs. Bagnères-de-Bigorre. Imprimerie D. Bérot 1900).

Piarres Urte lapurtar idazleaz gauza gutxi dakigu. Donibane Lohitzun'en sortu zen eta kaputxino egin zen. Gero protestantismura bihurtu zen eta Ingalterra'ra ihes egin behar izan zuen. Hiru obra utzi zituen idatzirik; “Biblia Saindua”ren bi zati: “Ethorkia” (Génesis) eta “Ilkhitzea” (Exodo). Bi zatiok Dogson'ek argitaratu zituen 1894'gn. urtean Oxford'eko Unibersidadearen babesean. Bigarrena, eskuartean daukaguna da eta hirugarrena “Dictionarium Latino-Cantabricum” oraindik argitaratzeko dagoena. Badakigu Piarres Urte Donibane Lohitzun'en jaio zela eta Ingalterra'n hil, baiñan ezta-kigu jaiotza eta heriotza urterik.

Harrek (ekar)

Lapurteraz: DIEZADAN (dizaidan), neri (Il me...); DIEZAAN/DIEZANAN (dizaikan/dizaiñan), hiri (Il te...); DIOZON (dizaion), hari (Il luy...); DIEZAGUN (dizaigun), guri (Il nous...); DIEZAZUN (dizaizun), zuri (Il te...); DIEZAZUEN (dizaizuen), zuei (Il vous...); DIOZOTEN (dizaien), haiei (Il leur...). (172 horrialdea).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: LIEZADAN (zizaidan), neri (Il me m'...); LIEZAAN/LIEZANAN (zizaikan/zizaiñan), hiri (Il te... t'...); LIOZON (zizaion), hari (Il luy...); LIEZAGUN (zizaigun), guri (Il nous...); LIEZAZUN (zizaizun), zuri (Il te... t'...); LIEZAZUEN (zizaizuen), zuei (Il vous...); LIOZOTEN (zizaien), haiei (Il leur...). (175 hor.). Badakar adizkera honen aldakera bat 82'gn. horrialdean, sujetuak nahiz “l”kin nahiz “z”kin egiñaz. Honela: ziezadan/liezadan, ziezazun/liezazun, ziozon/liozone, ziezagun/liezagun eta abar.

Harrek (ekar)

Lapurteraz: BIEZAT (bizait), neri (m'me); BIOZO/BIOZA (bizaio), hari (Luy...); BIEZAGU (bizaigu), guri (nous...); BIOZOTE/BIOZATE (bizaie) haiei (Leur...). (203 hor.) “Bizaizu” eta “bizaizute”ri dagozkien aditz jokoak falta dira (teorian “biezazu” eta “biezazue” izanen lirake). Gogoan eduki Larramendi'k eta Añibarro'k hutsune berbera dutela. Arrazoi ezkutu-ren bat izanen da koinzidentzia hontan.

Harrek (ekar)

Lapurteraz: BALEZAT/BALIEZAT (ba'lizait), neri (Il m'... me...); BALIEZAK/BALIEZAN (ba'lizaik/n), hiri (Il t'... te...); BALIOZO (ba'li-zαιο), hari (Il luy...); BALEZAGU/BALIEZAGU (ba'lizaigu), guri (Il nous...); BALIEZAZU (ba'lizaizu), zuri (Il t'... te...); BALIEZAZUE (ba'li-

zaizue), zuei (Il vous...); BALIOZOTE/BALIOZATE (ba'lizaie), haiei (Il leur...). (204/205 horrialdeak).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: DIEZAT/DIEZAKET (dizaidake), neri (Il m'... me...); DIEZAK/DIEZAN/DIEZAKEK/DIEZAKEN (dizaikek/n), hiri (Il... te... t'...); DIOZOKO/DIOZO/DIOZA/DIOZOKO/DIOZAKE (dizaioke), hari (Il... luy...); DIEZAGU/DIEZAKEGU (dizaikegu), guri (Il... nous); DIEZAZU/DIEZAKEZU (dizaikezu/dizaizuke), zuri (Il... te... t'...); DIEZAUIE (1)/DIEZAKEZUE (dizaikezue), zuei (Il... vous...); DIOZOTE/DIOZATE/DIOZOKETE/DIOZAKETE/DIOZOKETEOTE (dizaieke), haiei (Il... leur). (213/214 horrialdeak).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: ZIEZADAN/ZIEZAKEDAN (zizaidakean), neri (Il... n'... me...); ZIEZAAN/ZIEZANAN/ZIEZAKEAN/ZIENAKENAN (zizaikekan/zizaikenan), hiri (Il... t'... te); ZIOZON/ZIOZOKON/ZIOZOKEN/ZIOZOKEON/ZIOZAN (zizaiokean), hari (Il... luy...); ZIEZAGUN/ZIEZAKEGUN (zizaigukean), guri (Il... nous...); ZIEZAZUN/ZIEZAKEZUN (zizaizukean), zuri (Il... t'... te); ZIEZAZUEN/ZIEZAKEZUEN (Zizaizuketen) zuei (Il... vous...); ZIOZOTEN/ZIOZOKOTEN ZIOZOKETEN/ZIOZOKETEON (zizaiekean), haiei (Il... leur...). (222/223 horrialdeak).

Harrek (ekar)

Lapurteraz: BADIEZAT (ba'dizait), neri (Il... me m'...); BADIEZAK/BADIEZAN (ba'dizaik/n), hiri (Il... t'... te...); BADIOZO (ba'dizaio), hari (Il... lui...); BADIEZAGU (ba'dizaigu), guri (Il... nous...); BADIEZAZU (ba'dizaizu), zuri (Il... t'... te...); BADIEZAZUE (ba'dizaizue), zuei (Il... vous...); BADIOZOTE (ba'dizaie), haiei (Il... leur...). (238 horrialdea).

Oharra.—Preterituko supositubuan *balezat/baliezat, balezagu/baliezagu*, forma bikoteak darabilzki. Honek aditzera eman gura du, noski, “i”, datiboko ezaungarria, erortzen hasia zela garai hartan. Presenteko potentzalean, *diezat, diezak, diozak, diezagu...* tankerako adizkerak darabilzki normalen alboan, alegia, “ke” potentzial ezaungarririk gabe. Erabiltzen ote ziren ziñez Urte'ren garaian? Guk duda egiten dugu, zeren Urte baiño lehenagoko idazle zaharretan ere ezpaitugu horrelakorik ikusten. Subjuntiboko potentzalean (igaroardian), subjuntiboko forma soillak errepetitzen ditu, potentzialak bailiran. Hala nola: ziezadan = ziezákedan, ziezáan = ziezakéan, ziozon = ziozoken, ziezágun = ziezakégun eta abar.

(1) Zalantzarik gabe inprentako hutsegitea da, zeren, “ke” ahalmen erakusgarria kenduz DIEZAZUE gelditzen zaigu eta hala behar du izan, pluraleko aditz-jokotan DIETZATZUE agertzen baita (213 hor.).

DATOZENAK

Bigarren zatia

I. Juan Bautista Agirre Asteasukoa	632
II. Aita Krispin Beobide	636
III. Aita Agustin Kardaberatz	638
IV. Francisco Ignacio Lardizabal	640
V. Aita Mendiburu	642
VI. Jose Ignacio Gerriko	644
VII. Txirrita	646
VIII. Juan Irazusta	647
IX. Gregorio Arrue	648
X. Juan Francisco Goñi	649
XI. "Catecismo manuscrito en euskara alto navarro"	650
XII. Jose Cruz Etxeberria	651
XIII. Juan Ignacio Iztueta	654
XIV. Joakin Lizarraga Elkanokoa	655
XV. Josepe Otxoa Arineko	661
XVI. Agustin Pascual Iturriaga	662
XVII. Juan Antonio Ubillos	662
XVIII. Jose Migel Barandiaran'en Herri-Jakintza Bildumatik jasoak	663
XIX. Textos vascos del siglo XVIII, en tierra de Estella	665
XX. Iuan Beriain	669

BIGARREN ZATIA

I. JUAN BAUTISTA AGIRRE ASTEASUKOA

“JESU-CRISTOC BERE ELIZARI UTZI CIOZCAN ZAZPI SACRAMENTUEN GANEAN ERACUSALDIAC”

(Juan Bautista Agirre, Asteasu'ko Erretoreak. Tolosa'n: Andres Gorosabel'en moldetegian, 1850'garren urtean.)

J. B. Agirre (1724-1823), Asteasu'n jaio eta hil zen. 1803'gn. urtean “Confesioco eta Comunioco Sacramentuen gañean Eracusaldiac” argitaratu. 1850'gn. urtean, hil ondoren, beraz, Tolosa'ko Gorosabel'enean beste hiru “Erakusaldi” argitaratuak izan ziren: “Jesu-Cristoc bere Elizari utzi ciozcan Zazpi Sacramentuen gañean Eracusaldiac”, “Jaungoicoaren Legueco Amar Aginteen gañean Eracusaldiac” eta “Jesu-Cristo eta Virgíña chit Santaren Misterioen, eta beste cembait gaucen gañean Eracusaldiac”. Bi lehenbizikoak erabilli ditugu gure lanerako. Agirre, giputz-klasikotan on-onenetakoa dugu, ezpairik gabe.

I'GO LIBURUA

- 74. Ken ZEKIOLA erregiñari bizia (=zizaiola).
- 77. Erakutsi ZEGIEN Obispo jaunak (=zizaien).
- 110. Egin DEGIOKEAN Apaiz ez danari (=dizaiokean).
- 120-121. Begira DEGIOGUN gure animen onari (=dizaiogun).
- 127. Galde BEKIE batzuei (=bizaie).
- 191. Aita eman BEGIT etxetik dagokidana (=bizait).

- 210. Begiraldi bat eman DEGIEGUN (=dizaiegun).
- 226. EZTAKIELA (1) eman onelakoai absuluziorik (=ez dizaiela).
- 244. Utzi ZEGIDALA pakean (=zizaidala).
- 248. Iges egin ez DEGIOZUN (=dizaiozun).
- 254. Lagun DEGIZUEN (=dizaizuen).
- 255. Alda DEGIDALA beste penitencia batera (=dizaidala).
- 273. Baimena eman ZEGION artean (=zizaion).
- 316. Bestek txanda atxitu DEGIZUN beldurrez (=dizaizun).
- 316. Erregu DEGIOZUEN... Jaungoikoari (=dizaiozuen).
- 318. Esan DEGIOKEZU (=dizaiokezu).
- 472. Senda ZEGIOLA gaixo zeukan bere morroia (=zizaiola).
- 624. Galde BEGIO bakoitzak bere buruari (=bizaio).

Oharra.—74'gn. horrialdekoa pasibo-eran interpreta daiteke, hots, “Erregek agindu zuan, ken ZEKIOLA Erreginari bizia” (El rey ordenó que se le quitara la vida a la reina). Orobat 126'gn. horrialdean: “Agintzen da, ken dakiola bizia”. Pasibo eran dago ere 69'gn. horrialdean: “Jaunari nai dakiola” (que le plazca a Dios), “Dizula” eta “didala” indikatiboak ere badarabilzki subjuntiboko eginkizunean, hala nola: “*Dizula*, bada, Jauna, nere gogo onek komunioak adiña onra, eta atsegin; eta *didala* niri bear dedana”. Kasu hontan “dizula” = *eman dizazula* da eta “didala” = *eman dizaidala*.

“Erakusaldi” liburu hau arintxo bildurik dago. Honetxegatik pentsatu dugu, Agirre Asteasu'koa ongi ezagutzeko gai hontan, premiazkoa dela azterketa sakonago bat egitea. Hona, beraz, bigarren liburutik, hots, “Jaungoikoaren Legeko” erakusaldietatik jasotakoak:

3. Aditzera eman GIOZKATZU nere erriari (=zaizkiozu); 4'garrenean berdin; eman GIOZKATZU eskerrak egiñ dizkitzun mesede guziak gatik (273). Oharra: Adizkera osoa “egiozkatzu” litzake.

5. Agindu zion, esan ZEGIELA, prest arkitzen zala, Israeldarrak bere jendetzat berezkiro artzeko (=zizaiela).

6. Esan GIEZU, garbi ditzeela (ditzatela) beren soñekoak (=zaiezu); ongi begira GIEZU, Kristaua, bigarren aginteak debekatzen dizkigun gauz oei (37); aita barka GIEZU, ez dakie alabaña zer egiten duen (107); jaten eman GIEZU ongi, eta emango dizue nai dezun eznea (185); galde GIEZU, nere Kristaua, gizon zintzo, eta adituai (192); Utz GIEZU bada kezka oriei (288). Adizkera osoa: EGIEZU.

6. Mendiaren inguruan siñalatu GIEZTETZU muga batzuek, eta ez dira oetatik igaroko (=zaizkiezu).

(1) “Eztaquiela” idatzirik. Beraz: *ez dakiela* eta, apika, inprentako hutsez, “ez dagiela” ere izan daiteke.

7. Goizean esango dezu: nork eman LEGIKEDAN arratsaldea, eta arratsaldean esango dezu: nork eman LEGIKEDAN goiza iristea (=lizaidakean); nork eman LEGIKEDAN, Jauna, infernuan ezkutaturik egotea zure asarrea igaro dediñ artean? (461).

18. Eskeñi BÉGIO bere biotza (=bizaio).

28. Gorde DEGIÖGUN dagokan begiramentua (=dizaioGUN). Adizke-ra hau nun nahi darabil: Eskatu DEGIÖGUN (86); egin DEGIÖGUN (90); begira DEGIÖGUN (261); jarraitu DEGIÖGUN (271), 283, 401, 408, 421 etab.

44. Eman ZEGION zegokan kastigua (=zizaion); Ainbesteraño oña-zeak, eta egarriak estutzen zuen, non otsegiten zion Abrahani, bidal zezala arren Lazaro, urtan beatza bustirik, mingaña eza ZEGION piska bat (497).

63. Zuk alaere ezin bere aurpegira eranzun DEGIOKEZU gurasoari orrelako gauzarik (=dizaiokezu); Sagararen urrena esan DEGIOKEZU Jesus onari (247); opa izan DEGIOKEZU (445).

74. Begira ZAYOZU olla-kolka bati (=zaiozu); eska ZAYOZU Jaunari (95); Izan ZAYOZU Birjiña txit Santari jayera andi bat (135); Biur ZAYOZU jabeari bere gauza (176); ager ZAYOZU, bera zure biotzean artzeko, nai bero, eta egarri andi bat (247); Eska ZAYOZU Espiritu Santuari bere lagunza (273); 335, 367, 459, 501.

94. Emakumea, utzi GIDAZU pakean (egidazu=zaidazu); Jauna barka GIDAZU (111); Esan GIDAZU, Kristaua (309); Esan GIDAZU oraiñ (318); Esan GIDAZU, Kristaua.

100. Eragin ez DEGIOZUN len gogora etzayon gauz okerren bat (=dizaiozun).

102. Barka GIOZKATZUE elkarri oraindañoko utsegiteak (=zaizkiozue); Guziaren eskerrak eman GIOZKATZUE Jaunari (235).

111. Nik esaten dizuet, egin DEGIEZUELA al dezuen ongia gorrotatu zaituenai ere (=dizaiezuela).

111. Barka ZAIKIGUTZU gure zorrak (=zaizkiguzu).

122. Itzegin GIOZU baten, edo biren aurrean (egiozu=zaiozu); aditzera eman GIOZU bekatariaren gañean agintea duanari (122); itzegin GIOZU (123); Birjiña txit Santari izan GIOZU jayera andi bat (147); Aditzera eman GIOZU bada arzayari (335).

125. Jauna, esaten zion, barka GIZKIDATZU, nere lagun urkoak nigatik egin dituen bekatuak (=zaizkidazu).

141. Ez da bekatu, oartuta borondateak leku eman DEGION artean (=dizaion).

146. Baña esan ZADAZU (=zaidazu); esan ZADAZU oraiñ (243); esan ZADAZU, Kristaua (263); esan ZADAZU oraiñ (315); esan ZADAZU, eskerbagea (461); esan ZADAZU, bekataria (497).

169. Atera BEGIT berorrek (=bizait).

192. Ez DEGIOZULA irabaziaren aitzakian dirurik eman (=dizaiozula).

192. Etzaitzezela gauz oetan urduritua izan, baizik galde ZAYEZU gizon adituai, zer bekatu gabe egin dezakezun (=zaiezu); galde ZAYEZU jakintsuai (279); Begira ZAYEZU eskergabea, nere eskuai, oñai, eta sayetsari (460).

193. Ezin eman DAGIKEO Eliz lurrik (=dizaioke). Hemen ordea ez luke aktiboko adizkera erabilli behar, pasibokoa baizik: DAKIOKE (1).

245. Eman DEGIDAZUN, Zerurako bidean bear, eta on izango dedan guzia (=dizaidazun).

249. Esan ZADAZUE, nere Kristaubak (=zaidazue).

269. Agindu zuan gañera, ekarri ZEGIOELA karidadearen eratzuna (=zizaiotela); eman ZEGIOELA eratzuna (312); ekarri ZEGIOELA leneko janzeria (501); ipiñi ZEGIOELA eratzuna; ekarri ZEGIOELA Jauna Erlijioso ari (509).

282. Eman DEGIOLA Jaunak ordaña (=dizaiola).

292. Niri eman dizkidan egunak eman DEGIOZKALA Jaunak berari ere (=dizaizkiola); ez DEGIOZKALA konfesatu Apaiz ez danari (343).

330. Eman DEGIKEOLA absoluzioa (=dizaiokeala/dizaiokeala).

344. Alaere etziran Kristaurik geyenak zentzatu, eta agindu zuan berriz Elizak, gaitzaren eta onaren ezagueran sartutako Kristau guziak aitortu DEGIOZKEELA beren bekatu guziak urtean beñ bederik barkatzeko eskua duan Apaizari (=dizaizkioketela).

363. Agindu zuan Gobernariak, eman ZEGIOZKALA emakumeari amar dukat (=zizaizkiola).

363. Ken ZAYOK ere dirua (=zaiok).

363. Biur ZEGIOLA gizonari eman zion dirua (=zizaiola); erregutu zion Jaunari, aditzera eman ZEGIOLA Dabidek itz aetan zionaren ezaguera (508).

399. Iritsi DEGIDAZULA zure Seme Jaunagandik (=dizaidazula).

400. Begira DEGIEGUN gure bide, eta ibillerai (=dizaiegun); berdin-berdin 408, 420, 421... horrialdetan.

(1) Orobat 446'an: *Norinai gogora etorri DAGIKEO zerbait*. Kasu hontan ere pasiboko DAKIKEO edo DAKIOKE erabilli behar zukean. Barkagarri bekio nahaste errez hau.

446. Jainkoak barka DEGIDALA (=dizaidala).

468. Españako Errege Felipe bigarrenak agindu zuan, etzezala iñork ere esan, ez kantatu itz desonestorik, ez gauaz, ez egunaz, kale, plaza, eta bideetan: eta aginte au autsitzen zuanari eman ZEGIZKIOLA eun azote, eta bota zedilla erritik (=zizaizkiola). Hemen ere, gure Agirre'k pasiboa erabilli behar zukean aktiboaren orde, urrengo "zedilla" adizkera pasiboan erabillia dagoen bezalaxe. Honela beraz: "eman ZEKIZKIOLA eun azote eta bota zedilla erritik" (que se le dieran cien azotes y que se le expulsara del pueblo). Bestela, biak aktiboan: "eman *zegizkiola* (=zizaizkiola) eun azote eta bota *zezatela* erritik".

Oharra.—Ikus dezakegunez, Agirre'k, bere Erakusaldien bigarren liburu hontan, eskuarki EGI aditz-erroa darabilkigu (aginkorreko bigarren pertsonetan GI soilki). Pasiboko adizkera batzuek ere ba-darabilzki, hutsegitez, aktiboaren orde, baiñan hala ere esango nuke gure Asteasuarra Gipuzkoa'ko klasikotan erregularrenetakoa dugula. ZA aditzerroa aginkorreko bigarren pertsonetan bakarrik darabil, GI'rekin nahas-mahas, batean bat, bestean beste.

II. AITA KRISPIN BEOBIDE (ANTXIKOTARRA)

"ASIS-CO LORIA"

(Francisco Santu aundiyaren eta pobrien Aita-lenaren bicitza, bere seme Beovide-co Aita Fr. Crispinec izcibitua. Tolosan, Francisco Muguerza-ren moldiztegi-an, 1885'an.)

Aita Beobide (1848-1891) Azpeitiarra zen. Antxikotarren anaiartean sarturik, hamar urte Donaphaleu'n egin zituen. 1875'garren urtean Tolosa'ra aldatu zen eta handik laister Zarautz'a. Aipatutako urtean apaiz ordenatu zen Gastehiz'en. 1884'garren urtean berriz ere Tolosa'ko Anaietxean genduen eta hemen argitaratu zuen "Asis-co Loria". Tolosa'n hil zen 43 urte zituela. Guk "Auspoa"ren ediziñoa erabilli dugu (1966).

15. NENTZAKIO eskañi liburutxo au (=nizaioke).

30. Beste bizitza obe bati ekin ZEKION (=zizaion); barka ZEKION (155); eman ZEKION (314).

56. Santuak azaldu ZEKIOLA bere gogo edo naia (=zizaioa); eman ZEKIOLA (169); begira ZEKIOLA (183).

46. Nola utzi ZEIOKION artu zuan bizitzari (=zizaiokean). *Zegiokean* edo *zekiokean* bihurriturik da noski.

48. Agindu zuan ekarri ZEIOTELA zerbait (=zizaioleta). Ikus adibide gehiago horrialdeotan: irten ZEIOTELA (223); izan ZEIOTELA (247); eska ZEIOTELA (248); ebaki ZEIOTELA (249); eman ZEIOTELA (252); izendatu ZEIOTELA (268); izan ZEIOTELA (360); eman ZEIOTELA (377); izan ZEIOTELA (391); irakurri ZEIOTELA (394).

244. Ekin ZEIOTEN berriro gogotik (=zizaioleten).

57. Eman DEIZUTELA Jaunak bere pake santua (=dizaizutela); eman DEIZUTELA (62); erakutsi DEIZUTELA (393).

58. Deitu GINIOKE emendik aurrera gure Aita-len Santuaren bizitzaren zati oni bere agiriko bizitza (=genizaioke); jarrai GINIOKE onen aztarnai (184).

60. Baldin norbaitek nai badu nere ondoren etorri, uka DEIOLA bere naiari, ar-dezala gogo onez bere gurutzia ta darraitela (=dizaiola). Ez DEIOLA gure biotzak diruari begia argitu (67); galde DEIOLA (99); agindu DEIOLA Eliasi (237).

67. Zeruko desneke betikuak, aztu azi DIZKIGULA lurreko neke laburrak (=dizaizkigula).

73. Jesukristok azaldu DEIGUN bere gogoia (=dizaigun).

244. Eman DEIGULA baimena (=dizaigula).

79. Eskatu DEIOGUN erri inguruko elizatzko bat (=dizaioGUN). Jarrai DEIOGUN (117); lanari ekin DEIOGUN (162); izan DEIOGUN (346).

79. Ez ba'LIZAIGUKE eman (=lizaiguke).

82. Zer gauza obiagorik eskain GENTZAIEGUKE (=genizaieguke).

84. ETZEIOLA esan ñori (=zizaiola). Utzi ZEIOLA predikatzen (143); esan ZEIOLA (197); lagun ZEIOLA, arren (291); eraman ZEIOLA ogi pixka bat (351).

359. Oñazpiko iltziaren punta kakotuak ETZEION min eman (=zizaion).

99. Biali DEITALA Jaungoikuaren erantzueria (=dizaidala). Ez DEITALA eskerrik eman (377).

111. Luziago izkiribitu ZEIELA (=zizaiela). Esan ZEIELA aldegin zezatela (148); erakutsi ZEIELA bere jakinduri ura (327).

118. Egin BEZAIORazio Jaungoikoari (=bizaio).

126. Nik zer NEIKIOT, jauna, eman? (=nizaioke).

146. Nik ezin NEIOKET onela bidiari jarrai (=nizaioke).

154. Aita, eman BIZAIT nai duan penitentzia (nere aitak bezala).

176. Jauna, utzi BIZAT esaten (=bizait).

185. Ken ZIOZKATELA arabakiak (=zizaizkiotela).

198. Gurutzeko erotasunari jarrai DEIOTAN (=dizaiodan).

198. DEIOTELA begiratu (=dizaioleta).

205. Artu duten bizierari jarrai DEIOTEN (=dizaioleten). Lagundu DEIOTEN (222).

237. Asi zan gogoratzen (Elias) nola egokiena erantzun al ZAIOKIAN galdera aieri (=zizaiekean).

253. Jaungoikuak barka DEIZULA (=dizaizula). Barka DEIZULA (358).

276. Galde ZITZAIKION Franziskori (=zizaiokean).

321. Ez DEIOZULA emendik aurrera iñori egin kalterik (=dizaiozula).
 332. Zenbat lagundu NEIOKIAN (=nizaiokean).

Oharra.—Dakuskegunez, Crispin Beobide'k ere eskuarki *-egi-* aditz-gunera jotzen du, bere bizigaraian Gipuzkoa'n zabalduena zegoena. Hiru kasotan jotzen du *-za-'*ra: *bezaio*, *bizait* eta *bizat*. Beste batzuek berriz esango nuke gutxi-gora-behera eratuak direla, belarriak kaso bakoitzean agindu-ala, aditz-erakunde normetara lotu gabe. Esaterako: *nenzakio*, *zeiokion*, *ginioko*, *neikiot*, *neioket*, *ziozkatela*, *zaiokian*, eta *zitzaikion*.

III. AITA AGUSTIN KARDABERATZ

(1) "AMA VENERAGARRI JOSEFA"

(Sacramentu guziz santuarena ceritzanaren bicitza eta birtuteac. Aita Agustin Cardaveraz-ec Loyolaco eche santuban animen oneraco euzcaraz ipiña. Tolosan: Eusebio Eusebio Lopez-en moldizteguian, 1903-garren urtean).

A. Agustin Kardaberatz (1703-1770), Ernani'n jaio zen. Jesu'en Lagunartean 1721'ean sartu eta 1729'an apaiztu. Bilbao'n eta Oñate'n urte batzuek egin ondoren, Loyola'ra aldatu zen 1736'an. 1767'an, Jesu-Lagunen jautikitzea zela-ta, haur herbestetuok Aita-Santuaren Legerrietan babesa aurkitu zuten. Kardaberatz, Bolonia ondoko herri txipi batean egon zen hil arteraño. Ez ditzakegu hemen aipa haren obrak, 14 baitira, Villasante'ren Euskal-Literatura liburuan ikus ditekenez. Gure lanerako erabili ditugunak hoetxek dira: "Ama Veneragarri Josefa", bigarren ediziñoa (lehendabizikoa 1882'an egin zen Tolosa'n), "Senar emazte santuac" eta "Aita San Ignacioren egercicioen gañean".

20. Lo egiteko leku edo oitxo bat egin ZIOZALA (=zizaiola). Bere aitari, arren, lagun ZIOZALA (66); duda artatik libratzeko jarren! bereala eranzun ZIOZALA (74); eska ZIOZALA (122); kordegabetze artarako zer bide izan zuen esan ZIOZALA (139); errierta eman ZIOZALA (171); indarra eman ZIOZALA (176); eska ZIOZALA Jainkoari (203); orazioa ondo egiteko ikasbidea eska ZIOZALA (227); osasuna Jaunari eska ZIOZALA (241).

132. Josefak erregutu zion jarren! egin ZEGIOLA karidade (=zizaiola); eman ZEGIOLA aditzera (184); utzi ZEGIOLA... gurutze bat (198).

91. Larga BEGIO (=bizaio).

105. Emen infernuko atea zabalik ikusiko banu ere, amore itsusi onen indarrari ezin gañ artu NIZAYOKE (=nizaioke); uste dezu ezin erregu NIZAYOKEALA nik nere Aitari (375).

137. Tormentu aiek eskañi ZEKIOZKALA Ama Birjiñari (=zizaizkiola).

162. Oek lagun ZEGIOTEN fundazioan Ama Maria Teresa Gurutzekoari (=zizaioten); utzi ZEGIOTELA (195).

164. Egin BEGIT ez nadilla il (=bizait).

181. Eman BEGIOZKA eskerrak Jainkoari (=bizaizkio).

194. Agindu NEGIOLA etsaiari gure Jaunaren izenean (=nizaiola).

- 204. Eman ZAYOZKAGUN eskerrak (=dizaizkiogun).
- 272. Jainkoak guziori bere grazia DIGULA (=eman dizaigula).
- 276. Ez BIZAYE eman errosariorik (=bizaie). Erreza-erazi BIZAYE Aitagurea (276).
- 283. Jarraitu DEIZUDAN (=dizaizudan). Esan DEIZUDAN (351).
- 286. Eman ZADAZULA (=zaidazula).
- 286. Begira GIDAZULA (=zaidazula).
- 288. Kanta DEGIZUDAN (=dizaizudan).
- 289. Eman DEGIDAZULA (=dizaidazula); piztu DEGIDAZULA (295); iri-txi DEGIDAZULA (362); DEGIDAZULA, indarra (288).
- 308. Beldur izan DEYODAN (=dizaiodan).
- 325. Gurutzea eramaten lagundu ZEYON (=zizaion).
- 334. Eman DIZAYOLA amoriyo andi bat (=dizaiola).
- 341. Iritsi DIDAZULA eskatzen dizudan graziya (=dizaidazula).
- 351. Konserba DIZADAZULA nere pekatuben damuba (=dizaidazula).
- 364. Idiki DEGIGULA iritsi nai gendukean zerurako bidea (=dizaigula).
- 380. Zeñ nai dezute askatu DIZAZUTEDAN, Barrabas, edo Jesu-Cristo dei-tzen dana? (=dizaizutedan).
- 386. Jendeari esan ez DIZAYOTEN (=dizaioten).

(2) “SENAR EMAZTE SANTUAC”

(Necazari ezcondu, ta befte guciac, lurrean ceruco bicitza eguiteco Ifpillu eder biciac: S. Ifidro Achurlari, ta bere Emazte Santa Mariaren Bicitza. Jefuf-en Compañiaco Aita Aguftin Cardaberaz-ec emanac. 1766.en. Iruñean: Antonio Caftillaren Echean.)

- 26. Jaunari eska DIOZAGUN (=dizaioGUN), gure semea bizirik DIGULA (=eman dizaigula).
- 75. Jainkoari eska DIOZAGUN (=dizaioGUN), biderik onena, bere enemigoen kontra erakutsi DIEZAGULA (=dizaigula).
- 86-87. S. Isidro milagrosoari biotzetik deitu, ta ermedioa eska ZIOZALA (=zizaioLA).

(3) “AITA SAN IGNACIOREN EGERCICIOEN GANEAN”

(Orien lau asteetaco meditacio laburrac edo egercicioen lau-garren partea. Jesu-sen Compañiaco Aita Agustin Cardaberazec animen oneraco emanac. Tolosan: D. Francisco de la Lama-rén Echean). Eztu urtea ipintzen.

42. Nere konzienziari galdetu nai diot, ta esan DIZADALA: Jainkoak zertako nauka mundu onetan? (=dizaidala).

50. Lagun ZAGUZU arren (=zaiguzu). Ori beti eska ZAIOSU (55). Lagundu ZAIESU (59). Erakarri ZAGUZUTE (65-66). Kosta ZATZU (110).

61. Jainkoari eman DIOZAGUN (=dizaigun).

Oharra: Bi azken liburutan -za- aditz-guna darabil soilki, zalantzarik gabe bere Ernani'ko hizkuntzari zegokiona. Lehendabizikoan oster, ezagun du Azpeiti-Azkoitietako hizkeraren eragiña. Izan ere ba-dirudi aldi hartan -za- aditz-guna osotoro kontserbatzen zela datiboko adizkeretan Ernani'ko ballaran, eta Loyola'ko ibarrean berriz, orduko zeharo edo ia zeharo galdua zegoen.

IV. FRANCISCO IGNACIO LARDIZABAL

“TESTAMENTU ZAR TA BERRICO CONDAIRA”

(Munduaren asieratic Jesucristo-ren Ebanjelioa Apostoluac erakutsi zuten arteañoco berri, Escritura Santutic atera ta, euskeraz Apaiz Francisco Ignacio Lardizabal Zaldibico Beneficiaduac len ipiñi, eta Orkaiztegui-ko Patricio Antonio apaizak zuzenduta orain berriro argitaratzen diranak. Tolosan: Eusebio López, liburuguillearen echean 1908-garren urtean.)

F. I. Lardizabal (1806-1855) Zaldibia'n jaio eta hil zen. Lehen ikaskizunak Lazkano'ko karmelitetan egin zituen, Burgos'en jarraitu eta Madrillen bukatu. Apaiztu zelarik, bere herriko erretore eta benefiziatu izendatu zuten. Kolera-morboz hil zen, izurrite honek 1855 garren urtean Gipuzkoa-zear egin zuen erasoan.

34. Begira BEKIO (=bizaio). Eman BEKIO (266).

46. Bedeinkapena eman DIZADAZUN (=dizaidazun). Esan DIZADAZUN (230).

47. Gogia ta ardoa ugari eman DITZAIKIZULA (=dizaizkizula).

50. Zor zayen begirune guzia gorde DIZAYEGUN (=dizaiegun); agindu DIZAYEGUN (613).

69. Agindu zuen eraman ZIZAYOTELA (=zizaiotela); dirua ere itzuli ZIZAYOTELA (75-76); Jainkoari gogoz eskatu ZIZAYOTELA (406).

138. Jende guziari irakurri ZITZAYOTELA (=zizaiotela); lagun ZITZAYOTELA (149); bere oyarekin eraman ZITZAYOTELA (214); eskubide ura eman ZITZAYOTELA (622).

76. Bidari oyek itzezin ZIZAYOTEN baño lenago (=zizaioten).

139. Jainkoari bakarrik zor zayon agur-ona Israel-tarrak eman ETZITZAIOTEN (=ez zizaioten); naspil artan zerbait egin ZITZAIOTEN bildurrez (655).

77. Nori bere dirua isillik zakura itzuli ZIZAYOLA (=zizaiola); nagusiaren ize-na ipiñi ZITZAYOLA (125); eskatu ZIZAYOLA (405); berri-eman ZIZAYOLA (542).

242. David-ek Joab-i gaztigatu zion... Urias bialdu ZITZAYOLA (=zizaiola); auzian lagundu ZITZAYOLA (320); erregeri aginderao ZITZAYOLA (407); plate-
ra batean eman ZITZAYOLA (507); baimena eman ZITZAYOLA (661).

152. Etsayari arpegi eman ZIZAYON (=zizaion); iñork txarkeririk egin ETZI-
ZAYON (386).

80. Aita bere aide guziakin erakarri zezala, ta bear zuten zer-jan guzia berak
eman ZIELA (=zizaiela).

85. Faraon-ek gizonari gogoak eman al-DIZAYOKEAN asmorik gaiztoena
artu zuen (=dizaiokean). Zure nayari gogor egin DIZAYOKEANIK (406).

77. Gizon ayei zerraikiela eta esan ZITZAYELA (=zizaiela); eraso ZITZAYE-
LA (234); iragarri ZITZAYELA (608); itzezin ZITZAYELA (641).

435. Auzoak zer egiñik eman ETZIZAYEN (=ez zizaien); utsegiña barkatu
ZIZAYEN (440).

685. Ezpata bularrean ipiñi zioten, zeukana eman ZITZAYEN (=zizaien).

78. Zer erantzun DIZAYOKEGU gure Jaunari? (=dizaiokegu). Zer ordain
eman DIZAYOKEGU (368).

86. Nik billatu DIZAZUDAN iñude bat (=dizaizudan). Zugandik alde egin
baño lenago egin DIZAZUDAN (297-298); nik egin DIZAZUDAN (539).

89. Baso mortuan ofrendak egin DIZAZKIDAN (=dizaizkidan).

98. Jaunari kantatu DIZAYOGUN (=dizaioGUN); eskeñi DIZAYOGUN
(368); errukimentua eskatu DIZAYOGUN (372); lanbide oni utzi DIZAYOGUN
(459).

149. Bost Errege ayen indarra ezin gogor egin ZIZAYEKETELA (=zizaieke-
tela).

202. Senar on batzuek eratu DIZAIZKITZUTELA (=dizaizkizutela).

204. Iñork ezer egin ez DIZAZUN (=dizaizun).

244. Jainkoak barka DAGIDALA (=dizaiala).

267. Zurgin edo arotzak ere bialdu ZITZAYOZKALA (=zizaizkiola).

317. Jaunari barkaziyoa eskatu BIZAYO (=bizaio); agiria eman BIZAYO
(485); arria bota BIZAYO (526).

324. Zuen ergelkeria aintzakotzat artu ez DIZAZUTEDAN (=dizaizutedan).

377. Josias-i etzeritzan utzi ZIZAYOKEALA (=zizaiokeala).

387. Iñork ezin igerri ZIZAYOKEAN eran (=zizaiokean).

556-557. Iñori gogoak ere eman ezin ZITZAYOKEAN miraria egitera zijean
(=zizaiokean).

558. Besterik ezin egin ba ZITZAYOKEAN ere (=zizaiokean).

667. Nai zuena egiteko eskubidea eman ZITZAYOKEALA (=zizaiokeala).

433. Arpegi eman DIZAYEKEGU (=dizaiekegu).

498. Uste al dezute, nik on ori egin DIZAZUTEKEALA? (=dizaizutekeala).

511. Nola eman DIZAGUKE onek jaten bere aragia? (=dizaiguke).
528. Gelan sartzen danean esan ez DIZAZUN (=dizaizun).
528. Ez DIZAYEZULA deitu zure adiskideai (=dizaiezula); Bekatu au aintzat ez DIZAYEZULA arren artu (620).
532. Esan DIZAYEN emen zer gertatzen dan (=dizaien).
532. Moises ta Igarleak badituzte... aditu BIZAYETE (=bizaiete).
563. Aitari eskatu ezin DIZAYOKEDALA (=dizaiokedala).
577. Zer bildur eman DIZAYEKEAN (=dizaiekean).
586. Eskerrak eman DIZAIKAGUN (=dizaizkiogun).
589. Jendeari esan ez DIZAYOTEN (=dizaioten).
592. Gauza bat beste iruditut ZIZAYOKEAN bildurrez (=zizaiokean).
623. Nik nola igerri DEZAYOKET, nork erakutsi ez badet? (=dizaioket).
683. Ainbeste jendekin batetik, eta elkarren arteko eguneroko auziyakin bes-tetik, igerri DIOKEGU erri itxi bat nola arkituko zan (=dizaiokegu).

Oharra.—Dakusagunez, Lardizabal'ek *-(e)za-* adizkuna darabil: *di-za-dazun*, *di-za-iegun*, *zi-za-iola*, etab. Halabaiña, tarteka-marteka lege hau urratzen du beste formak erabilliz. Esate-rako, pasiboko *bekio*, *bizaio*'ren ordez. "Za" aditz-guna "tza" bihurtzen du zenbaitetan: *zi-tzaiotela*, *zitzaiola*, *zitzaiela*, etab. Behin, indikatiboko *ziela* darabil (80) *zizaiela*'ren ordez, beste behin *dizazkitzutela*, bere sistemako *dizazkitzutela*'ren tokian. Halaber, *dezaioket* (=di-zaioket) eta *diokegu* (=dizaiokegu). Ikus bere "Gramática Vascongada"n darabilzkien aditz-jokoak. Denak edo ia denak normalizatuak dira "i" datiboaz eta "za" adizkunaz baliatuz (d-i-za-da-zu-n).

V. AITA MENDIBURU

"JESUSEN AMORE-NEKEEI DAGOZTEN ZENBAIT OTOITZ-GAI"

(Jesusen Konpañiko A. Sebastian Mendiburuk eguiñak. Bigarren liburua. Tolo-sako liburuguille Eusebio López-en Echean, 1904-gn. urtean).

A. Sebastian Mendiburu (1707-1782), Oiartzuarra zen. 1725'gn. urtean Jesusen Lagunartean sarturik dakusagu eta ikaskizunak amaituta, Iruñean egin zuen kabi. Hemen hogeitamar urte egin zuen predikutan eta misiotan Naparroa'ko euskal-herrietan zear. Iruñean euskara hizkuntza bizi zen garai hartan, San Zernin deritzan elizan sermoi egiten zuen gure mintzairan. Bere egontokia, Loyola-alditxo batez lan-dara, Iruñea izan zen eta bizitza guzia Jesusen Bihotzaganako jaiera zabaltzen jardun zen. Bere etorriagatik Cicerón euskalduna deitua izan zen. Jesuitak jaurtikitzean, Ita-lia'ra jo behar izan zuen eta Bolonia'n hil zen 1782'gn. urtean. Aita Mendiburu'ren obrarik hotsandikoena da hau. Lehendabiziko ediziñoa Iruñean egin zen 1759-1760 urtetan. Gu, Tolosa'n, hiru tomotan egindako argitarapenez baliatu gara (II'gn. tomua).

40. Aitari ofrend au eraman ZEZOKEN apaizik? (= zizaiokean). Ezin egin ZEZOKEN ezer etsaiak Job Santuari (390).

84. Otrontze guzietan ken DEZOKEGU (= dizaiokegu) zer edo zer (geren buruari).

24. Bertatik ken DIEZADAN (nere oben-kulpa guzien kargatzar astuna) (= Dizaidan).

158. Jaungoikoari erran DEZOKEZUNA (= dizaiokezuna).

159. Jaungoiko maiteak DIZULA... laguntza (= eman dizaizula).

178. Begira DEZOLA bere prestutasunari (= dizaiola); ken DEZOLA bere biotzeko tristura (352).

178. Erakus DIEZATELA beren bekatu beltz arrigarrien itsustasuna (= dizaie-tela).

291. Orobat gertatzen zaie lurreko erregei ere; bada oriek ere beste edozein lekutan baño naiago dute, eska DAKIEN, eman nai dutena (= dizaien).

227. Ori oriei eragiten dienak (naiz eragin DAKIELA bortxaz bezala, edo beren gogo gaistoaren, edo makurren kontra) egiten dute... (= dizaie-la).

180. Jaun berak DIDALA, ... argia, indarra, ta laguntza (= eman dizaidala). DIDALA bada: bai arren, bai! (181). Jesus maitagarriak DIDALA (193). Ala DIDALA berak...anitz grazia (194). Nere Jaungoiko berak DIDALA (506).

181. Niri DIDAN nere Jaungoiko maitagarriak (= eman dizaidan).

204. Erantzun DEZOTEN oni (= dizaioten); galerazi ez DEZOTEN (233); ubel-deak galerazi ez DEZOTEN onzi berari (296); nastu oi die anitzi beren burua, egin DEZOTEN ez-aditu (306); bizia kendu DEZOTEN (329).

277. Ken DEZOTELA Lazaroren gorputz illari gañeko bere arria (= dizaiote-la); lagun-egin DEZOTELA (280); erditsi DEZOTELA... ones-damu bizi bero bat (280); erditsi DEZOTELA izu-damua (280); ez DEZOTELA gaurgero eman (471).

280. Eska DEZOKE au (= dizaioke).

224. Eska DEZODAN nere Jaungoiko maitagarriari (= dizaiodan).

308. Ikasi bearko du mediku beragandik zer gauzak utzi, gaitzik egin ez DEZAIOTEN (= dizaioten).

313. Egin DETZOKALA bekatariari gure Jaungoiko maitagarriak, nai adiña oju ta dei (= dizaizkiola).

364. Ken EZADAZU (= zaidazu) zuk nere kaliz latz edo edari miñ au; ta INDAZU (= eman zaidazu) beste bideren bat, munduko gaistoen zorrak nik atera-tzeko.

375. Errazago eragin DEZADATEN niri (= dizaidaten).

400. Ezin garbi ZENEZOKE zuek zerok zeren esku leun-zuri-ederrekin? (= *zenizaioke*, baiñan ez “zuk”, “zuek” baizik, hots, gaurko *zenizaioke*te).

404. Jaungoikoak barka DITZAKIDALA guzi guziak niri (= dizaizkidala).

414. Beren buruei galdegin gaistoak begira ZEZOTEN (= zizaioten). Jesusi ken ZEZOTEN... bere bizitza (457).

416. Ken ZEZON... bere bizia (= zizaion); kenerazi ZEZON Pilatosek (417); eman ZEZON zegokan sententzia (447).

422. Orra Satanasek gizon bati, ... eragin DEZOKENA (= dizaikena). Au berau erran DEZOKI Aita berari Jesusek gaur ere (424).

424. Eskatzen ziozkan gauzak eman ZETZAZKON (= zizaizkion).

473. Barka DAGIEZUN zuk bekatari gaisoei (= dizaiezun).

480. Erran BEKIE bataiatu geienei, entzun dezatela egun-oroko beren meza (= bizaie).

491. Zer erran DEZOKET nik bekatari txar zentzu gutizko eskergabeak? (= dizaioket).

492. Ken EGIOZUE lenbaitlen (= zaiozue).

509. Begira EGIOZU, bada, bein ta berriz (= zaiozu).

509. Begira DEZUZULA zuk (= dizaiozula).

510. Ez DEZUZUTELA kendu zuek zeren Errege Mesiasi (= dizaiozuela).

Oharra.—Dakusagunez, Mendiburu'k *-eza-* aditz-guna darabil eskuarki, galdurik duten datibo-ezaungarria bi aditz-jokotan agertzen zaigularik: *ken diezadan* (d-i-eza-da-n) (124) eta *erakus diezatela* (d-i-eza-te-la) (178). “Dezoten” laburtuaren ordezt, behin “dezaioleten” darabil, jatorriz “diezaioleten”. Lapurdi'n “diozaten” edo “dezoten”. *Dakien, dakiela, bekie*, pasiboko formak ere tarteka ba-darabilzki aktibokoaren ordezt. “Egi” sustraiaun aditzak ere bai noizik behin, *dagiezun, egiozu, egiozue*, bezala. Baita ere *didan/didala* tankerako subjuntibo zaharretik gelditzen zaizkigun aztarrenak, seguru aski *idazu/indazu* aginkorraren sail berekoak. Baita ere agertzen zaigu aditz-joko bat, *ziezazun* (1), soifnekoz subjuntibo dena, baiñan zentzuz indikatiboa: “Oroitze onek eragin *ziezazun* (= zizun) zuzen ta bear bezala egiten zenuen zere lana edo gauza?” (59 hor.). “Zenuen” aditz-jokoa baztertuz ulerkorrage egiten zaigu esaera hau. Gogoan eduki aurreko galderak ere indikatiboan daudela: “Egiten zenituen” (bi aldiz), “oroitzen ziñan”.

VI. JOSE IGNACIO GERRIKO

“CRISTAU DOCTRINA GUZTIAREN ESPLICACIOAREN SAYAQUERA”

(Euscarazco platica edo doctriñetan partituri, Don José Ignacio de Guerrero, Mutiloaco beneficiaduac eguiña. Iruñeco obispo jaunaren baimenarequin. Bigarren liburua edo tomoa. Tolosan: Mendizabalen alargunaren moldizteguian, 1858 garren urtean).

J. I. Gerriko (1740-1824), Segura'n jaio zen, nahiz-ta jatorriz Mutiloarra izan. Gazte zelarik Madrillera joan zen bere osaba batekin. Han Filosofia eta Teologia estudiatu zuen. 1762'an, hutsik gelditu zelarik Mutiloa'ko elizako benefiziadutza,

(1) Zatikatzuz: z-i-eza-zu-n, -eza- duelarik adizkuna. Gaurko indikatiboak adizkuna deusezturik dizu: z-i-zu-n.

Gerriko’k Gipuzkoa’ko bidea hartu zuen, apaiz egin zen eta kargu horren jabe egiñik, hil arteraiñokoan eduki zuen. Hemen, bere obra bakarraren bigarren tomoaz baliatu gara.

6. Jaungoikoak arren argitu ditzala eta erremediatzeko indarra DIELA (= eman dizaiera).

12. Erregutu DEGIOGUN guziok Ama Birjiñari (= dizaigun). Eskatu DEGIOGUN... Maria Birjiña guztiz miragarriari (21); begiratu DEGIOGUN mundu onetan (37); eskerrak eman DEGIOGUN (95); eskatu DEGIOGUN... Jaungoikoari (154); erregutu DEGIOGUN guziok Jaungoikoari (165); eman DEGIOGUN... eskerrak (168); Jarraitu DEGIOGUN... Jesu-Kristoren umiltasunari (186).

12. Iritsi DEGIGULA Espiritu Santuaren argia (= dizaigula).

53. Indarra eta grazia arren eman DEGIZUELA (= dizaizutela); eman DEGI-ZUELA zuen borondate erabagea ukatzeko, eta eskuratzeko indarra (144).

55. Nere ondoren etorri nai duenak, uka beza edo eskuratu beza bere burua: ar beza bere gurutzea; eta niri jarraitu BEKIT (= bizait).

56. Arren barka ZEGIELA (= zizaiera); arren barkatu ZEGIELA (73).

66. Alakoai kendu DEGIELA gaitzerako daukeen eskualdia (= dizaiera).

73. Eskatu EGIOZUE gogotik, zuen adimentuak argitu ditzala (= zaiozue).

81. Jaungoikoak bada, arren, guziok argitu gaitzala eta DIGULA gogo bizi eragile bat (= eman dizaigula); berak DIGULA bere amorio santua (154); gogo bizi bat DIGULA (165); guzioi bere grazia DIGULA (223); Jaungoikoak DIGULA arren guzioi (283-291-381) e. a.

82. Birtuteari gogotiago jarraio DEGIOZUEN (= dizaiozuen).

83. Euskeraz zuzentasuna esan DEIKIOGU (= dizaiokegu); ezin gaitzik biurtu DEIKIOGU (226); deseatu DEIKIOGU (226); ezin ondo iritzi DEIKIOGU iñoren gaiztakeriari (225).

114. Ezin iñori gaitzik batere egin LEIKIOBELA (= lizaiokeala).

117. Baña ezin birtute oriek guziak dotriña batean aditzera eman NEIKEZU (= nizaizezue).

124. Konseju eman DEIKION jakinsuren bati (= dizaiokean).

129. Bere pekatuak... ezin Jaungoikoak barkatu LEIZKIOLA (= lizaizkiekeala).

152. Zuek ere begiratu DEGIOZUELA (= dizaiozuela); Jaungoikoari txit sarri eta benetan eskatu DEGIOZUELA (196); iñori arren gaitzik EZTEGIOZUELA egin (215).

152. Barka EGIZKIGUZU gure zorrak (= zaizkiguzu); (233) Berdin.

152. Aita, barkatu EGIEZU (= zaiezu); arren barkatu EGIEZU (233).

152. Barkatu DEGIEN (= dizaien); indarra eman DEGIEN (199); dagokien atsedena jai egunetan eman DEGIEN (174).

153. Gaizki kendu dizkiguen edo ondasuna edo honra edo fama ona biurtu DEGIZKIGUELA (= dizaizkigutela).

159. Jaungoikoak bizia ken DEGIDALA (= dizaidala); pazienza eman DEGIDALA (222).

97. Errespetoa ekarri EGIOZU (= zaiozu); larga EGIOZU aldarean zure ofrendari (230).

226. Deseatu ote DEIKIEGU (= dizaiekegu).

227. Neretzat nai nukean ainbe ondasun Jaungoikoak eman DEGIOLA (= dizaiola).

(Oharra.—Aditz-joko hauek, bigarren liburuko lehenbiziko 25 kapitulutan bildu ditugu. Ikus dezakegunez, Gerriko'k “egi” adizkuna darabil beti. Behin, “jarraitu *bekit*” pasiboko adizkera darabil, *begit* aktiboaren ordez. Hau “jarraitu” aditzaren pasibutasun eragina izan daiteke ordea, nahiz-ta Gerriko'k aktiboki irabiatu eskuarki (jarraitu degiogun). “Digula”, aditz-errorik gabeko subjuntibo zaharra ere maiz darabil, “eman dizaigula” adieraziz. Gaur formulako eseretan bakarrik kontserbatzen ditugu adizkerok: Jainkoak egunon dizula, gabon Jainkoak diela, on egin dizuela, bejondigula et. ab.

VII. TXIRRITA

Jose Manuel Lujanbio Erretegi (1860-1936), izengaiñez “Txirrita”, Ernani'ko Latze-zar baserrian jaio zen. Hamahiru edo hamalau urte zitularik, Altxa'ko “Txirrita” baserrira aldatu zen famelia. Hemen bizi izan zen hil arteraino eta hemendik hartu zuen izengoitia. Aita Zabala'k bi liburu argitaratu zituen gure bertsolariaz: 1) *Txirrita, bizitza ta bat-bateko bertsoak*, 2) *Txirritaren bertsoak*. Beroietatik adizkera batzuek bildu nahi izan ditut (gutxi, zorigaitzez), zeren bertsolaria baita herriaren hizkera-ahotsa.

1/20. Bera eroriko dek, ez AKIYO bultza (= zaiok).

2/60. Nai dubenari saldu BEZAIIO (= bizaio), (“Nagusiya ta maiztarra”); eman BEZAIIO, eran dezala (136), (“Galai on bat”).

2/99. Jaungoikuak egun on DIZUELA (= eman dizaizuela), (“Bartolo ta Mari Iñaziren pasadizuak”).

2/114. Danak alkarri lagun ZAIOGUN (= dizaiogun), (“Norteko tren-bideari”). Izan ZAIOGUN kupira (168), (“Amets bat”).

2/119. Eskarmentua sartu DEIELA (= dizaiela), (“Ezkioga'ko agermenari”).

2/206. Baso bat sândo eman KIDAZU (= zaidazu).

2/207. I, Txirrita, kanta AKIOK orroko eskeko orri bertso bat! (= zaiok).

(Oharra.—Batetik “(E)ZA” aditz-erroa darabil (bezaio, zaiogun), bestetik “(E(G)I)” (deiela, kidazu) (1) eta pasiboko “akiyo” (= hakio). Alegia, pasiboko “joan hakio” (vétela), giputzok

(1) Deiela = degiela eta kidazu = gidazu = egidazu.

aktibora ekarri dugu, eta horrela, “eman zaiok” esan beharrean, “eman hakio” esaten hasi giñan. Baiñan, gaitza barrurago sartu zaigu, “h” sujeto-ezaugarria galdu dugulako. Alegia, n(a)-kio, h(a)-kio, d(a)-kio, g(a)-kizkio, z(a)-kizkio, d(a)-kizkio aditz-jokotan, sujetoak beti aintzinetik behar du, baiñan, azken adigarrian ikus dezakegunez, “Txirrita”ri zuzentzen zaionak “akiok” dio, aurretik falta zaion sujetoa atzetik erantxiz. Orobat, “huke” esan beharrean (n-uke, h-uke, l-uke, ...), askok “ukek” esan ohi dute. Txirrita’ri etzitzaion gaitz hau itsasi, baiñan kostatarrok belarria txit egiña daukagu “esan akiok” entzutera eta ontzat eman ez-ezik, “jator-tasun” kutsu bat bereganaturik duela irizten diogu. Baiñan, mingarri baldin ba’zaigu ere, baztertu behar dela aitortzen dugu. Azkenik, DIZUELA (= eman dizaizuela) subjuntibo zaharra darabil formulazko esaera batean.

VIII. JUAN IRAZUSTA

“DOCTRINA CRISTIANA”

(Aita Gaspar Astete Jesuitac erderaz eguiña. Ipiñi zuan eusqueraz: Don Juan de Irazusta Erretore Hernialdecoac, ceña dan Provincia Guipuzcoacoan, eta añaditucion Encarnacioco, eta Eucaristiaco misterioen explicacioa bai eta ere Confesio on baten condicioac, eta Acto fedeko, Esperanzaco ta Caridadecoac. Tolosan: Lalamarren alargunaren moldizteguian, 1859).

Eztakigu Juan Irazusta delako hau nor zen, baiñan ba-dakigu goian aipatu dugun ediziñoa baiño ehuntsu urte lehenagokoa zela, zeren “Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco”n dakuskegunez (Literatura, I, 254), 1742’an beste adiziño bat atera baitzen Iruñean eta beronek dionez arrakasta handia izan zuen. “Escrito en mal vascuence”, bukatzen du. Hala ere guk zerbait onik atera diogu.

4. Eman IGUZU gure eguneroko ogia (= zaiguzu).
4. Barka GIZKIGUTZU gure zorrak (= zaizkiguzu).
7. Erakutsi EGIGUZU Jesus (= zaiguzu).
15. Esan EGIDAZU bada (= zaidazu).
29. Eta gero eman DIZAGULA gloria (= dizaigula). Eman DIZAGULA Jaungoikoak gorputzarentzat mantenu konbeni zayona (30).
31. Ez DEGIGULA utzi, Jaungoiko gure jaunak erorten (= dizaigula).
30. Barka DIZKIGULA Jaungoikoak gure pekatuak (= dizaizkigula).
35. Izan EGIOZU bada debozio eta erregutu EGIOZU egunero (= zaiozu).

Oharra.—Dakuskegunez, Irazusta’k “egi” eta “za” aditz-erroak nahas-mahas darabilzki. “Eman iguzu” = “eman egiguzu” ote da, ala “iguzu” adizkera bereizia (= eman zaiguzu), “idazu/indazu”ren (= eman zaidazu) senidea? “Barka dizkigula”: ba-dirudi, indikatibo soiñekoz jantzirik subjuntibo zaharraren aztarrena dela, hala nola “dugun edan” = “dezagun edan”.

IX. GREGORIO ARRUE

“BASERRITAR JAQUINTSUAREN ECHECO ESCOLA”

(D. Juan Jose Moguel, Marquiñaco apaizac Vizcai-eusqueran atera eta D. Gregorio Arruec Guipuzcoacora itzulia. Tolosan: Pedro Gurruchagaren moldiztegiuan, 1878 garren urtean).

Jatorrizko liburuaren izena. Juan Jose Mogel'ena, alegia, “Baseerritaar nequeza-leentzaco escolia” zen, Bilbao'n inprimatua 1816'an. Villasante'k dio liburu honek zenbait ediziño izan dituela, horietako bat Gregorio Arrue'k (1811-1890) gipuzkeraz jarria. Ba-dirudi honek etzuela lehenbiziko ediziñoa erabili itzulpena egiteko, 1845'ean Gastehiz'en inprimatutakoa baizik, beronen titulua “Baseerritar jaquitunaren echecho escolia” baita. Arrue Ernaniarra zen, baiñan bere bizitzarik gehiena Zarautz'en egin zuen eskola-maixu. Bere lan ugaria itzulpenetan eman zuen soilki. Euskera dotore eta apaiñean idazten zekien.

4. Eskatzen diot Jaunari, DIELA hitz bakoitzari eta guziaz onetarako indarra (= eman dizaiela).

6. Jaungoikoak eman LEGIKEGUN familiari (= lizaigukean).

30. Nai genduke adierazi DEGIGUZUN eskeñi diguzuna (= dizaiguzun).

34. Esan DEGIGUTELA (= dizaigutela).

34. Begira DIEZAYELA bere abaraska eta eztaia (= dizaiela).

34. Galde BIZAYE (= bizaie).

41. Eman DEGIOZKAGUN, bada, esker ugariak (= dizaizkiogun).

41. Jarrai ZAYOGUN leyal bere dotriña santuari (= dizaiogun). Eska ZAYOGUN Jaungoikoari (58). Erregu ZAYOGUN beragatik (80).

46. Iñori ezin esan LIZAYOKEAN (= lizaiokean); pekatua dala gizonak bere buruari erakarri LIZAYOKEAN kalterik andiena (51). ¿Au da gizonak bere buruari eman LIZAYOKEAN tajua? (189-190).

51. Erregu BIZAYO ondo pekatariak Jesus gure amorez gurutzean josiari (= bizaio). Esan BIZAYO aur bati ogei bider Aita gurea (116).

67. Ez BEGIT esan orañ tontoren batek (= bizait).

69-70. Danik itxuenari ager eragin LIZAYOKEE beren Egillearen anditasuna (= lizaiokete); galde LIZAYOKEE jakintsu bati (167).

82. Eragin DEGIOZKATZUELA familiari zuen lanak (= dizaizkiozutela).

97. Ama garbiak ez DEGIELA erakutsi dantzarik (= dizaiela).

122. Utzi ZAYOZU pakean (= zaiozu); ETZAYOZU jarraitu taldeari edo askori (101).

123. Barka ZAIZKIGUTZU gure zorrak (= zaizkiguzu).

125. Txarkeria egin DAKIEN deseoz egongo lirake noski (= dizaien).

129. Esan ZAGUZU (= zaiguzu); esan ZAGUZU zerbait (142).

132. Ezin guziak azal NEGIZKITZUTE (= nizaizkizukete).

133. Onen iritziari jarrai ZAYOZUTELA (= dizaiozutela); begira ZAYOZUTELA pekatuari etsairik andienari bezela (197); Jarrai ZAYOZUTELA Ama Birjiñaren berarizko jayera eta debozioari (197).

138. Bere osasunagatik Jainkoari erregu ZEGION (= zizaion); erregutu zion Inesi bere semea piztu ZEGION (153).

138. Esan GIOZU gaxoari, diru bat artu dedala (= zaiozu).

142. Non eziñ LIZAYOKEEN ipiñi (= lizaioketen).

144. Goizago eman ZEGIELA beren estadua bere mendekoai (= zizaiela).

154. Eziñ iñork neurririk ipiñi LIZAYOKE (= lizaioke); ¿Zerk aztu erazi LIZAYOKE betiko bizitza? (181).

162. Esan ZEGIOLA nor zan (= zizaiola).

163. Lagun ZADAZU salbaziorako bidean (= zaidazu).

163. Erregutzen dizut, ekarri DEGIDAZULA gure Jauna Ostegun santuz komulga nadiñ (= dizaidazula).

167. Eman LEGIZKIE konsejuak (= lizaizkieke).

174. Makilla motz onekin galantak eman BEGIZKIELA (= degizkiela). Arrue etzen ohartu erlatiboko “-(e)la” atzizkiarekin, ez ditekeala erabil aginkorreko “b-” aurritzki ezaungarria. Beraz, BEGIZKIE edo DEGIZKIELA erabilli behar da. *Begizkie = bizaizkie eta degizkiela = dizaizkiela.*

174. Erakus DIZAYELA dotriña ona (= dizaiela).

175. Zor bakar au ezin paga LIZAYEKEELA (= lizaieketela).

177. Ezin utzi LIZAYEKEE ezkongayaren etxera joaten (= lizaieketete).

183. Ez DEGIOTELA luze iritzi (= dizaiotela).

187. Nork lotu LEGIOZKAKE bere eskuak (= lizaizkioke).

Oharra.—Ikus dezakegunez, Arrue’k, eskuarki, bi erakuntza darabilzki: “i + za” eta “e-gi”; hontaz gaiñera, “za” aditzerroa hasieran jarriarik, alegia “d + i” baztertuz (zaiozun = dizaiozun). Tarteka-marteka “diela” subjuntibo zaharra (= eman dizaiela) ere ba-darabil.

X. JUAN FRANCISCO GOÑI

“DOCTRINE CRISTIANAREN LEMBIZICO PRINZIPIOA”

(Zeiñ baite esribitue Juan Francisco Goñiren escuz, eta acabatue Marchoco Illeren oguei te batean, mille ta zorzieta eun ta oguei eta zorzi garren urtean Maquirriango Escolan).

Makirriain’go eskola-maixuak 1828’garren urtean izkiriatutako kristau dotriña hau, “Euskera” aldizkariak argitaratu zuen 1960’garren urtean. P. Diez de Ulzu-

rrun'ek diogunez ("El Catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", "Euskera", 1960, 377 hor.), Ioane Antxiko Goñi, Makirriain'go eskola-maixua nongoa zen ezta-kigu. Darabilen euskeragatik esan daiteke ordea, Iruñerri'koa zela, hots, Iruñe'ko eskualdekoa, ingurutakoa. Esku-idazki hau Zildoz'ko (Ezkabarte aranean) Perutxena etxean aurkitu zen 1933'an. Sermoi paper batzuek darakuskigutenez, 1878'gn. urtean Zildoz'en euskeraz predikatzen zen.

379. Eman DEZAGUZU guri geren egunoroko ogie (= zaiguzu). Erakusi DEZAGUZU Jesus zure sabeleko fruitu bedeikatu (380). Eman DEZAGUZU guri geren eguneroko ogie (393).

379. Barka DEZKIGUZU guri geren zorrak (= zaizkiguzu). Idem. (393).

381. Niori daus ebasia EZTEZOGULE (= ez dizaigula); Niori daus ebatsi EZTEZOGULE (397); Niori falso testimonio gaixtorik eratxiki EZTEZOGULE (397).

393. Jangoiko gure jaunek erreine DAZAGULE guri geren arimetan (= dizai-gula). Forma normala DEZAGULE da. Hutsegite bat ote?

393. Eta berzean DIGULE bere glorie (= eman dizaigula).

393. Jangoiko gure Jaunek man DEZAGULE mantenimentu konbenientea gorputzen dako (= dizaigula).

393. Jangoiko gure Jaunek barka DETXAGULE guri geren bekatuek (= dizaizkigula).

Oharra.—Dakuskegunez, Goñi'k aditz-errotzat "eza" darabil. Sistema honek nahastea dakar, zeren DEZAGULE, esate baterako, "dezagula" eta "dizaigula" da. Hona adigarri bat "dezagula" aditzera eman nahirik: "In DEZAGULE Jangoikoaren borondatea lurrean gaudenok" (393). Aginkorrean "ezaguzu" erabili beharrean "dezaguzu" darabil. DEZKIGUZU forma laburtua da (= dezazkiguzu?), DAZAGULE hutsegitea da noski, geroxeago "dezagule" singularra eta "detraxagule" plurala ematen baitizkigu. "Eza"z gaiñera "digule" subjuntibo zaharra darabil.

XI. ESKUZ IDATZITAKO KRISTAU DOTRINA GOI-NAPAR EUSKARAZ

Aingeru Irigarai euskaltzain jaunak argitara eman zuen "Euskera"n ("Catecismo manuscrito en euskara alto navarro", 1961, 161 hor.). Eztu ipintzen idatzaldi mugarik, baiñan Irigarai'en ustez XVIII'gn. mende azkenetakoa da. Azken jabea, Iruñe'ko Karmeldarren komentuko A. Muniozguren izan zen. Orain, Gipuzkoa'ko Ahaldudegiko liburutegian datza. Eztizu egile izenik ematen. Mintzairari ipar-ego nahaste derizkio Irigarai jaunak.

162. Egun EGUZU guri geren egunoroko ogia (= eman zaiguzu).

162. Barka DIETZAGUZU guri geren zorrak (= zazkiguzu); itzuli DIETZAGUZU zure begi miseriakordiazko oriek gugana (163).

164. Niori deus ebasia EZTIOZOGULA (= ez dizaigula); Niori deus ebatsi ez DIOZOGULA (172); Niori falso testimoniorik altxa edo gora ez DIOZOGULA (173).

164. Zorzigarrena niori falso testimoniorik altxa edo gora ez DIEZOGULA (= dizaiogula). Hutsegitea dirudi, zeren hiru aldiz “dio” agertzen baita eta behin baka-rrik “die”.

170. Jangoikoak eman DIEZAGULA egunean eguneko sustentu korporala eta espirituala (= dizaigula); Jangoikoak barka DIEZAGULA guri geren zorrak (171). “Dietzagula” behar luke izan (= dizaizkigula), *zorrak* pluralean baitago.

170. Barka DIETZAGUTZU (= zaizkiguzu), hots “-gutzu”, “-guzu”ren orde. Aginkor-erak sobera du aintzineko “D” hori.

Oharra.—Dotriña hontan “i” dativo ezaungarria ikus dezakegu “eza” aditzerroaren aintzinetik. Beraz, hemen eztago adizkera zuzenekin nahasterik Makirriain’goan bezala. Morfolo-jiari dagokionez “diezogula” adizkerak “diozogula”k baiño jatorrago dirudi, zeren aditz-jokoa osoan emanik “diez(a)(i)ogula” izango litzake. Beraz, hemen ere *i* + *eza* dago eta “diozogula”n ez. Datiboko hirugarren pertsonaren ezaungarria bigarren “o” da eta ez lehenbizikoa. Honek, aditz-erroaren (*eza*) “e”ri tokia kentzen dio. Hemen ere adizkera aginkorrek lege-kontrako “D” haskiña daramate. “Eguzu” = “iguzu”, “idazu/indazu”ren senidea ere ba-darabil.

XII. JOSE CRUZ ETXEBERRIA

“DEBOCIOZCO BICITZARACO SARRERA”

(San Francisco Salescoac aterea zuanetic Aita Fray José Cruz Echeberriac, Zarauzco Misioneruac Eusqueraz jarria, eta guerostic, demborarequin sortu zaizcan uts-aldi edo palta asco, Apaiz batec berriro zucendua; gueituaz Meza ondo entzute-co, conciencia examiñatzeco, confesatzeco eta comulgatzeco modu egoquiac. Tolo-san: Francisco Muguerzaren moldizteguian, 1885 garren urtean).

Josepe Gurutze Etxeberria (1773-1853) Oiartzun’en sortu zen. 1801’garren urtean Zarauz’ko Antxikotarren Anaietxean dakusagu. Sermolari iaio eta saiatua omen, iñor gutxi bezala. Gipuzkoa’n eta Naparroa’n erein zuen bereiziki Jaunaren hitza. Frantsek, Españiako Askatasun Gerla delakoan preso hartu eta Frantzia’ra eraman zuten. Napoleon’en erortzearekin libratu zen. Bere liburuak: 1) Aztertzen dugun haxe. Villasante’k dionez gutxieneko sei argitarapen izan ditu, lehenbizikoa 1821’ean eta azkena 1901’ean. Guk 1885’ekoa erabili dugu. 2) Ongui bizitceco ta ongui iltceco laguntza. 3) Cristau Doctriña Euskaraz. 4) Jesusen imitacioco edo bera-ri jarraitzen erakusten duen librubu.

VI. Eman DIZAZULA onetarako Jaungoikoak bere grazia (= dizaizula); eska zayozu Jaungoikoari eman DIZAZULA beraren gogokoa dan bat (15); eman DIZAZULA oriek ongi kunplitzeko grazia (38); orretarako lagun DIZAZULA (58); eskayozu lagun DIZAZULA (95) (115); lagun DIZAZULA (360); eman DIZAZU-LA ayetan irauteko laguntza (428); argi DIZAZULA entendimentua (437).

9. Sinistu ZADAZU (= zaidazu); lagun ZADAZU (80); entzun ZADAZU bada (166); esan ZADAZU (167); aditu ZADAZU (226); begira ZADAZU errukiz neri ere (441).

15. Eska ZAYOZU Jaungoikoari (= zaiozu); erregutu ZAYOZU (44); dei ZAYOZU zure Aingeru guardakoari (86); eskañi ZAYOZU zure biotza Jaungoikoa-

ri (98); agertu ZAYOZU (371); erantzun ZAYOZU modu onian (433); begira ZAYOZU Jesusi lurrean auzpeztua (441).

17. Eska DIOZAZULA biotz guztitik Jaungokoari (= dizaiozula).

19. Eziñ egin DIEZAKEGU gerra (= dizaiekegu).

19. Utsegite txikiak eta pekatu benialak ezin kendu DITZAKIGUKETE animako bizia (= dizaigukete).

34. Eman DEIOZULA nere animari (= dizaiozula); ez DEIOZULA... aserriari atea idiki(187); ez DEIOZULA zure biotzari... (216); ez DEIOZULA... lekuri eman (244); ez DEYOZULA... asmatu (282); ez DEIOZULA aren pekatua... iñori agertu (282); ez DEIOZULA tentazioari begiratu (360); ez DEIOZULA ere beste itzik esan (361); eman DEIOZULA aditzera leyalki (386).

57-58. On iritzi ZAYEZU... mesedeai (= zaiezu); begira ZAYEZU sarri (119); Obedi ZAYEZU gustoko gauzetan (200).

59. Eman DIEZELA bere grazia Demonioaren mendetik ateratzeko (= dizaie-la).

69. Egiazko debozioa alkantatzia eragotzi DITZAKEGUTEN PALTAK (= dizaizkiguketen).

78. Elizan ordu bat pasatzia, ez aitag, ez amak, eta ez emaztiak arrazoyarekin eragotzi DIZAKEZUTE (= dizaiekezute).

86. Deitu DIOZAKEZU Ama Birjiñari (= dizaiokezu).

90. Eman DIZAGULA bere Seme Jaungoikoaren graziak (= dizaigula). *Dizaz-kigula* behar luke.

98. Eman DEGIOLA indarra (= dizaiola).

99. Zure asmo santuak kunplitzen lagun DIZAZUTEN (= dizaizuten).

100. Eman BIOZKA eskerrak Jaungoikoari (= bizaizkio).

100. Eska BIOZA barkazioa Jaungoikoari (= bizaio).

102. Zori onekoa Jaungoikoari egiaz esan DIOZAKEN anima: Zu zera Jauna nere gorde lekua, ... (= dizaioken).

119. Eman DIOZAGUN beti aditzera (= dizaiogun); eska DIOZAGUN Jaungoikoari (346); eman DIOZAGUN BADA GUK MUSU AINBESTE ATSEGIN-TASUN EMATEN DIGUN Salbadoriari (385); Jaungoikoari esan DIOZAGUN (391); eskeñi DIOZAGUN dulce-siku edo legorra (392).

135. Ez da izango ez aitarik, ez amarik, ez emazterik, ez senarrik, maiz komulgatzia eragotzi DIZAKEZUNIK (= dizaiekezunik).

165. Edozeñek kontu egin DIOZAKE (= dizaioke); eziñ añ erraz erakutsi DIOZAKE Zeruko bidea (322); eziñ iñoiz tentazioak gaitzik egin DIOZAKE (361).

168. Mai buruan jartzeko agindu DIZAGUTEN (= dizaiguten).

194. Jaungoikoaren miseriakordiar dei ZAI OGUN (= dizaiogun).

196. Ez DEYEZULA... lekuri eman (= dizaiezula); ez DEIEZULA eman (286); ez DEIEZULA begiratze gaizto bat baizik egin (364); ez DEIEZULA utzi (371).

203. Birtute onen lenbiziko malla edo graduaren aldetik kontu, kristau maitea, ez DIOZULA inolaz lekuri eman zure biotzean edozein moduzko atsegin gaiztoai (= dizaiozula).

224. Zure pobrezak, kristau maitea, bi gauza txit onak ditu, eta orien bitartez merezimentu asko eman DITZAKIZUE: (Adizkera hau ezta oso erreza itzultzen. Singularreko bigarren pertsonari zuzentzen zaion aldetik ba-dirudi “dizaizuke” edo “dizaizkizuke” izan behar duela, “asko” indeterminaduak adizkera singularrean eta pluralean onartzen baitu. Bestalde, badirudi ez “zuri” baizik “zuei” esan gura duela idazleak eta orduan “dizaizukete” edo “dizaizkizukete” izanen litzake).

246. Amorio zikiñ eta ketsu oni su eman DIOZAKIEN tratabide eta okasio guztietatik (= dizaioketen).

269. Eman DIOZALA grazia zure projimoari (= dizaiola).

302. Nola batzuen, ala bestien bidez eraman DIOZAKEGUN amorioz biotza (= dizaiokegun).

316. Gorde ZAIOSUTE, bada gizonak, amorio biguñ, iraunkor eta biotzekoa zuen emaztiai (= zaioszute).

319. Ez DIOZAZUTELA eman lekuri onra ori galtzeko gauzari (= dizaiozutela).

343. Utzi DITZAYOGUN, kristau maitea, mundu itxuari (= dizaiogun). Eskuarki “diozagun” darabil. Esaera singularrekoa da eta honetxegatik “dizayogun” behar luke. “Ditzayogun” = *dizaizkiogun* da, inolaz ere. Segurantzia falta zaio idazleari.

346. Usuen egoak bezelakoak eman DITZAGULA (= dizaizkigula).

349. Ezin kalterik egin DIZAKEGU (tentazioak) konsentitzen ez degun bitartean (= dizaiegu).

364. Ezin gaitzik egin DITZAKIGUKETE Jaungoikoa serbitzeko asmo leyalian irauten badegu (= dizaigukete). Hemen ere “dizakigukete” behar luke, esaldia mugatu gabea baita (*gaitzik*). Pluralean ba’lëgo (*gaitzak*) ongi legoke. Beraz, “ditzakigukete” = *dizaizkigukete*.

386. Nola giatu bear zeran erakutsi DIZAZUN (= dizaizun).

419. Esan DITZAIOSKEZU zure buruari (= dizaiokezu). Hemen ere “dizaiokezu” behar luke. “Diozakezu” ere badarabil.

433. Eman bear degu guk ere aditzera debotoak edo birtutetuak izan nai degula, orrela bizitzen utzi DITZAGUTEN (= dizaiguten). Hemen ere “dizaguten” behar luke.

433. Ez EGIOZU ukatu (= zaiozu).

434. Orobat esan DIZAKEZUT, nik ere, zuri (= dizaiekezu).

441. Begira ZADAZU errukiz neri ere (= zaidazu).

452. Agertu EGIOZKATZU zure pekatu mortal guziak konfesore Jaunari (= zaizkiozu).

457. Erregutzen dizut josi DITZAIZKITZULA nere biotzean, fede, esperanza eta karidadezko sentimentuak (= dizaizkidazula). Aditz-joko hau oker emana dago, datiboko lehenbiziko pertsonaren ezaugarria (da = *a mi*) falta baitu. Bi letra "t" k ere sobera ditu. Bere ezin asmatuan, datiboko adizkera gabe, zuzenekoa erabil zeza-kean, "ditzazula", alegia, askozaz errezagoa.

Oharra.—Dakuskegunez, Etxeberría'k "za" darabil aditz-errotzat eskuarki, aintzinetik "i" erantxita. Bestetzutan, ordea, "i + za" ordez, "i + tza". "Za" soilki ere ba-darabil adizkerari hasiera emanaz. Halaber, "e(g)i" aditz-erroa eztizu zeharo baztertzen, batzutan "egi" eta bes-tetan "ei" erabilliz. Indikatiboaz ere baliatzen da subjuntiboaren ordez (dizula = dizaiozula).

XIII. JUAN IGNAZIO IZTUETA

"GUIPUZCOACO DANTZA GOGOANGARRIEN CONDAIRA EDO HISTORIA"

(Beren soñu zar, eta itz-neurtu edo bersoakin, baita berac ongui dantzatzeco iracaste edo instruczioac-ere. Obra balio andicoa eta chit premiazcoa, Guipuzcoatarren jostaldi gaitzic-gabecoakin, lendabizico etorki España argui eta garbi aien oitura maitagarrien gordacaiatzeco. Beraren egillea, D. Juan Ignacio de Iztueta, Guipuzcoaco erri leial Zaldibian jaioa. Tolosan: Eusebio López-en Moldizteguian 1895-garren urtean eguiña).

Juan Ignacio Iztueta (1767-1845), Zaldibia'n jaio eta hil zen. Gaztetandik dantzaria izan zen eta gerora euskal-dantzen eratzaille, zuzendari eta Maixu. Ogibidez, aurrena kapagin izan zen bere herrian eta gero zerga-biltzaille Donostia'n. Hiru aldiz egon zen ezkondua. "Kontxesi" (Bengoetxea) famatua hirugarrena izan zuen. Bere bizitza, ibillaldi arre eta illunetan nahasia dago eta honetxegatik zenbait gartzelaldi ezagutu zuen. Berak esana zen Foruak salbatzeko biderik onena euskara sustengatzea eta sendotzea zela. Hemen aztertzen dugun liburuak bi ediziño izan zituen, 1824'koa eta 1895'ekoa. Hontaz gaiñera beste liburu bat ("Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia") eta eskutitz luze bat (Juan Jose Mogel'i egiñikoa) utzi zituen.

20. Eman DEGIZULA urte askotako bizia (= dizaizula).

58. Jarri BEGIZKIO bidaje jakin bat egiteko, edozeiñ gizoni, bi bide (= bekizkio). Iztueta'k gaizki darabil adizkera hau, zeren "begizkio" transitiboa baita eta "bi-zaizkio"ri erantzuten dio. Kasu hontan ordea intransitiboa da: Jarri bekizkio (póngasele).

60. Esan BEGIT nork naik (= bizait).

64. (Esan zion) jo ZEGIOLA San Sebastianen izenarekin deitzen dan soñu zar pozkidatsu ura (= zizaioia); otsegin omen zion emazteari, bota ZEGIOLA anka tartera gelako atearen atzean zegoen beste makilla lodiagoa (196).

79. Ainbesteraño igorik arkitzen dirade ezik, ez dute nai danboliñaren izenarekiñ iñork deitu DIEZATEN ere, ez bada, primer silbo, segundo, músico mayor, eta onelakoakin (= dizaieten).

82. Joerazo bear zayo arratza lenagoko danboliñen modura, aniz ez DEGIO-LA ukitu ere gañerako soñu eta tokietan (= dizaiola); biraldu DEGIOLA bestea (95); idem. (97).

84. Beragatik, egin ZEGIOTELA atsegin ixiltzeaz (= zizaiotela).

88. Esan EGIDAZUTE orain (= zaidazute).

89. Eta au ez dakienak ¿zer lagunza modu egin DIOZAKE dantzariari (= dizaioke).

95. Egin DEKIOLA atsegin beraren eskura dantzara etorzeaz (= dizaiola). Pasiboko “dakiola” ote? Ala “deguiola”ren ordez “dequiola”, inprentako hutsegitez?

97. Egin DAKIOLA atsegin beraren eskura dantzara etortzeaz (=dizaiola). Pasiboa aktiboaren ordez.

148. Ikusleak esan ez DEGIOTEN (dantzariari) artoa jaten al diola ezkerreko anak (= dizaioten).

167. Bañan bai jostatzen utzi DEGIOTEN (= dizaion).

167. Aski da eman DAKION (Gobiernoak) lokabea ta estalpea (= dizaion).

167. ¡Ain gostu gutxian josta erazi DAKIOKE diarte edo pueblo bati danik aundiena eta zenbatetsuena izan arren! (= dizaioke).

Oharra.—Iztueta’k gehienbat darabillen aditzerroa “egi” da. Pasibokoak ere badarabilzki: dakion, dakiola, daioke, ... “I + za” delakoak ere ba-ditu: d-I-o-ZA-ke, d-I-e-ZA-ten.

XIV. JOAKIN LIZARRAGA ELKANOKOA

“URTECO IGANDE GUZTIETARACO PLATICAC EDO ITZALDIAC”

(Nafarroan, Elcano deritzan errian, bertaco vicario jaun Don Joaquin Lizarragac compoundu eta predicatuac. Donostian, Ignacio Ramón Baroja-ren moldizte-guiari, 1846).

Joakin Lizarraga (1748-1835), Naparroa’ko Elkano’n (Iruñe’tik hurbil), jaio eta hil zen. Lizarraga’reñ mintzairak garrantzi handia du, zeren euskera aspalditxoan galdurik dagoen bazterretako lekuko baita. Zorigaitzez, obra hau franko gipuzkeratua dago geroko eskuz. Jatorrizko esku-idazkia Iruñean gordetzen da eta den-denean aztertzeke hara jo behar. Gure klasikotan eztago goi-naparreraz ikziriatu duen beste idazle naparrik, kristau dotriñez aparte. 1776’an Jesuita sartu zen Loyola’n. Urtebete geroago ordean, Jesulagunak jaurtiki zituzten Españaiko Erregeren lurraldetatik eta bere sorterrira itzuli behar izan zuen. 1774’gn. urtean Elkano’ko erretore izendatu zuten eta kargu hontan iraun zuen heriotzeraíño. Obra hontaz gaiñera besteok ere idatzi zituen: 1) Copla guisa batzuc molde gutitacoac, celebratus Jesus Jaunaren amoreac ta favoreac. 2) Jesus-Cristoren Evangelio Sandua Juanec dacarren guisara. 3) Jaundome Antxiko Xabierrekoaren bizitza liburutxo bat. Hemen aztertzen dugun Platica edo Itzaldi liburua 1802’gn. urtean amaitu zuen: Anno Domini 1802.

6. Nork eranzun DIZAYOKE millatatik bati galdeera oiek egitean (= dizaioke); Jaungoikoak bakarrik eman DIZAIOKE gizonari ainbeste indar (68); eta zer protxu eman DIZAIOKE gizonak Jaungoikoari? (85); eta onek erran DIZAIOKE: aplika bizat buldaren induljenzia (103); Nai badu erran DIZAIOKE onela (129); Bertze aldetik ezin aipa DIZAIOKE konfesoreak iñori konfesioko gauzarik (135); Nork ezer egin DIZAIOKE onelako faborea, onelako anparoa duenari? (192); Nork eragutzi DIZAIOKE oroitzea bere Jaun onaz? (385).

10. Zertan geiago erakutsi DIZAKEZUT au, ezpada zuri, neretako beretxitua (berexitua?) zaukatzianari, trabajuak eramatean baño? (= dizaikezut/dizaizuket).

12. Nai duenak etorri nere atzetik, uka BIZAIE bere burua bere naikundeai (= bizaie).

15. Aita, dio, barka BIZAIOTE, zeren ez dakite zer ari diran (= bizaie); Aita, barka BIZAIOTE, zergatik ez dakite zer ari diren (49); Eman BIZAIOTE bere Ministroai (1) ongi mintzatzeko grazia (95); Aita, barka BIZAIOTE, zeren ez dakite zer ari diren (174).

15. Zeren deus guti da guri egin DIZAKEGUTEN guzia Jaunari eginaren aldean (= dizaieketen/dizaiguketen).

16. Jaungoikoak lagun zaitzala, ta fortuna on DIZULA (= eman dizaizula).

16. Eman DIZAGUN barkazioa (= dizaigun); egin DIZAGUN Jaungoikoak guri mesedea (31); Errukara (2) dirudi, baña geiago egin diogularik Jaungoikoari, nai degu barka DIZAGUN (174); Ez bengantzarik artu sekulan; barkatu, barka DIZAGUN Jaungoikoak (476); Jaungoikoak guri ere eman DIZAGUN grazia (377).

20. Ezin paga DIEZAGUKELA (= dizaigukela).

25. Eska ZAIOGUN grazia (= dizaiogun); Urte au bukatu urrean da, bukatze-ra doa; eraginarazo ZAYOGUN bada urteari bere testamentua (37); eska ZAIOGUN grazia (92); ofrezti ZAIOGUN karidadearen urretxo au bederik (174); Lenik eska ZAIOGUN (189); Egin ZAIOGUN gustoa gure Artzai onari (225); Egin ZAIOGUN bere diosala Maria Santisimari (241); Onen bear gara orai ta beti: eska ZAIOGUN (254); Eman ZAIOGUN bada berea Jaungoikoari (386).

38. Betoj jakintsuak, letu BIZATET zer dion or (= bizaidate).

39. Danielek erraten dio turditu gabe: Errege Jauna, bertze bati eman BEIZKIO (begizkio) bere emaitzak edo erregaloak (= bizaizkio).

53. Zer nai duzu egin DIZAZUDAN? Jauna, eranzun zion, ikusiarazo dizadazu (= dizaizudan); zer nai dezu egin DIZAZUDAN? Itsuak eranzun zion: Jauna, ikus dezadan(98).

53. Ikusiarazo DIZADAZU (= zaidazu).

(1) Jaungoikoak bere Ministroai, hots, apaizai.

(2) Ba-dirudi, Lizarraga'k maiz darabilen hitz honek *gogorra* edo *gogortxo*a esan gura duela, beste adigarri hontan hobeto ikus ditekenez: Errukara dirudi, onestea (maitatzea) kontrarioak, baña egin ditekete bakarrik nai izatearekin (173). Azkue'k "algo fuerte" itzultzen du. Gogoan har dezagun toki batzutan *erru* = *zail* dela eta hontaz "errukara" = *zailtxoa* litzake.

60. Zuen artean pekaturik gabe dagoanak tira BIZAIO lenbiziko arria (= bizaio); erran BIZAIO bere buruari (95); erran BIZAIO bakoitzak bere buruari (159); nai duenak etorri ene atzetik ukatu BIZAIO bere burua bere buruari: ar beza bere gurutzea, eta segi naza (177); Jauna, erraten zion Dabidek Jaungoikoari, para (jar) BIZAIO guardia ene aoari (292); Jauna guarda naza, ez diot nai gaizkirik niori, bai onetsi (maitatu) berorren atenzioz, egin BIZAIO ongi ari eta niri ere bai (342); on egin BIZAIO ari eta orobat niri (376); Baña eska BIZAIO miserableak (401).

37. Balia DIZAION (Pasio santua). Ba-dirudi kasu hontan DAKION behar lukela izan; Jaungoikoak egin DIZAION konbertitzeko grazia (89); ez du sufritu nai, iñork itz bat erran DIZAION (328); Bai, dio, baña Jauna perlesia ken DIZAION nai genduke (344). Guztiok ene aitaren “dizaion”ekin bat egiten dute.

80. Etorri nai duenak ene atzetik... uka BITZAIZKA bere buruari bere naierak... eta segitu naza (=bizaizkio).

89. Ez dute onelakoak merezi Jaungoikoak itxoron DIOZATEN (=dizaieten).

94. Apez aitai, Bikario, eta Erretoreai agintzen die Elizak igande, eta jai andietan berarik (bederik) eman DIOZATELA beren Parrokiakoai doktrinaren alimentua (=dizaiaela); nork nai aplikatu DIOZATELA induljenzia (arimai), aplikatzen zaie Elizaren izenean (105).

99. Eranzun DIOZAGUN (=dizaiozun); baña lenik eska DIOZAGUN Jaungoikoari argitasuna (127).

108. Eranzun ZAIOTEGUN orain grazia oiek diruz logratzearen gañean erreparoa paratzen dutenai (=dizaiegun).

110. Jaungoikoaren semea baldin bazera agin ZAIEZU arri oei egin ditezela ogi (=zaiezu).

111. Baña badegu konsuelo bat, eranzun DIZAIOKEGU (deabruari): ez diat nai, oa i, baitakik bidea (=dizaiokegu).

115. Eman DIZAGULA indarra, grazia, laguntza, garaitzeko (=dizaigula); Guzoi begira DIZAGULA Jaungoikoak (381); berak eman DIZAGULA grazia ezagutzeko eta gozatzeko ongi (414).

115. Naiz munduak, eta infernuak eman DITZAIZKIGULA kanpotik, eta barrendik, milla tentazio eta su.

119. Ezin eman ZIZAGUKEAN Jaungoikoak bere grazia sakramentuen seña-le oiek gabe? (=zizaigukean).

125. Pekatariak preso daude Deaurruaren (deabruaren) prisiondegian; giltzak daukazkite penitenziako sakramentuan beren eskuan, iñork ezin debekatu DITZAZKIOTEN moduan, eta deskuidatzen dirê? (=dizaizkien).

163. Begira ZAIOZU goitik bera (=zaiozu); erran ZAIOZU zure buruari (163); zuk begira ZAIOZU Jaungoikoari (178).

169. Nai dezu egin edo erran DIZAZUTEN gaizkirik zuri? (=dizaizuten); ez zenduke naiko, bearrean arkitzen zeranean, egin DIZAZUTEN on edo serbitzu zuri? (169).

199. Libre dago justua. Onen pribilejioa da, naiz aldartez irri egin DIOZATE-LA eta desprezioa mundukoak, estimatuak eta billatuak izatea bear den orduan (=dizaiotela).

211. Agintzen eska ZAI OGULA (=dizaiogula).

214. Nola nai dut egin DIZARATEN niri nai detana, ez badut nik egin nai berak agintzen duena (=dizaidaten).

219. Pobrea eta ongi guzizko pobrea da bekataria, zeñi, ertxirik Jaungoikoak bere ateak, ezin zerutik iñork eman bait DIOZAKE lekurik (= dizaioke).

220. Zein da egin DIZAI OKEENA gaitz grazian dagoanari? (=dizaiokena).

245. Ez da on sobra bildur izatea, jakiñik ez DIZAKEGULA iñork eraginarazi bekaturik (=dizaigukela).

260. Eman ZAGUZU gure egun oroko ogia (=zaiguzu).

264. Eman BIZAGU sustentoa, zazpi ogiz (=bizaigu); Maisu Jauna, badakigu egi erralea (egi-esalea) dela eta erakusten duela Jaungoikoaren bidea egiaz, erreparatu gabe personen gora beran; erran BIZAGU bada, zer iduri zaio, zillegi da ematea Enperadoreari tributua, edo ez? (382); eman BIZAGU, otoi, ala estimatzea berorren gorputz ta odolaren misterio sagraduak (437).

268-269. Aur bat dago ezin xasiz edo jasoz karga edo zama; lagun BEZO jigante batez, arin aisa darama ya (=bizaio).

269. Kontrara mundukoiendako nekosoa da, zeren birtute faltaz indar guti duten, eta ez duten merezi lagun DIZAIOTEN Jaungoikoaren graziak (=dizaien); Dira beldur konfesatzeak gaitz egin DIZAIOTEN? (349).

284. Erran diozu barka DIZAIOLA etsaiari? (=dizaiola); paga DIZAIOLA munduak (328).

288. Kontatzen du San Marcosek egungo Ebanjelioan, ekarri ziotela Jesus onari sor eta mutu zegoan bat, bere eskua gañean para ZIOZAN (=zizaion).

328. Paga DIZAZULA munduak (=dizaizula).

362. Senda ZIZAIOLA bere semea (=zizaiola); eskatzera joan zan senda ZIZAIOLA semea (362).

377. Egin ZAI OGUTEN ongi gaizki egin digutenai (=dizaiegun).

381. Barka DEIZKIGUTZU guri geren zorrak (=zaizkiguzu).

413. Konfesa ZOZIE edo zaiozue Jaunari (=zaiozue).

413. Konfesa BEZOTE Jaunari (=bizaiote).

426. Baña ez aditzearekin, bakarrik balio LITZAIOTEKE Kristioen fedeak, eta karidadeak (=lizaieke). O + TE = E da, baiñan ene ustez "lizaiekete" behar luke izan, zeren kristauen fedea eta karidadea bi baitira eta hauek balio diete bekatariei (Bekatariez ari baita, "bekatu egiteko guapo eta penitentzia egiteko flako" diren bekatariez).

429. Eman BEKITET lizenzia (=bekidate, pasiboan, baiñan "eman" aktiboari "bizaidate" dagokio).

429. Ezperen ken BIZATET bizia (=bizaidate). Hemen aktiboki erabilia dago; beraz, ongi. Bi aditz-jokuok alkarrengandik oso hurbil daude, eta beharbada horretxegatik, belarrira ez min egiteko-edo konjugaziño liferentetan ipiñiak daude.

430. Egin DITZAIKZKIOTEGUN sufragioaz (=dizaizkiegun).

432. Pobre onak, nobleak eta Jaungoikoaren onetsiak (maitatuak) dira; ala banintz ni! berak ez daukate baliorik orain, guk balio DIOZAGUKETE asko moduz, nai badegu (=dizaiekegu).

434. Aipaturik modua nola guk balia DIZAIOTEKEGUN (arima aiei). Itzulpena: *dizaiekegun*.

Oharra.—Lehenago esan dugun bezala, liburu honen testua oso gipuzkeratua dago. San Juan'en Ebanjelioarekin alderatu besterik eztago dioguna ikusteko. Aditzean ere beste horrenbeste gertatzen zaigu, sistemaz aldatua baitago, esate baterako zeharo gipuzkeratua. Adibidez, D + I + ZA (dizaion, dizaioke...) aditz-jokoak eztira Lizarraga'renak, honek D + EZ(A) baitarabil (dezon, dezoke...). Itzultzaileak, “dizaigun/dizaiegun” tankerako adizkeren ordez, gipuzkera zaharreko “diozagun/diezagun” adizkerak darabilzki tarteka-marteka; beraz, hauek ere eztira Lizarraga'renak. Aginkorreko B + I + ZA (bizat, bizagu, bizaio...) erabat giputzak dira. Lizarraga'k bezat, bezagu, bezo... esango luke. Berebat, zaiozu, zaiogun, zaiozuten, aditz-erroz hasten diren adizkerak eta zer esanik ez Z + I + ZA (zizaion, zizaiokean), hala nola gipuzkera zaharreko aldakera: ziozan, ziozakean... Esan diteke beraz, aldatzailearen hutsegitez libratutakoak bakarrik direla Lizarraga'renak, hala nola, *bezo*, *zozie*, *bezote* eta besteren bat. EGI aditz-errotik ere badago: deizkigutzu, beizkio (degizkiguzu, begizkio)... Baita ZA aditz-erroa TZA bihurtuta ere: ditzaizkigula (dizaizkigula).

Lizarraga gipuzkeratuaren azterlan hau egin ondoren eta Lizarraga jatorra sakon-xamar ezagutzeko etsi-xamarturik nindagoela, ardietsi nuen Mirari Bidegain andereñoaren bitartez, “Seminario de Julio Urquijo”ko “Jesucristoren Evanjelio Sandua Juanec dacarran guisara”. 250 aleko ediziño hau Luis Luziano Bonaparte gure Printze ahortzi eziñak argitara eman zuen Londres'en, 1868'gn. urtean. Bidenabar, lerro hauetaz baliatu nahi dut, Mirari Bidegain andereñoari ene eskerrik beroenak emateko, Diputazio'ko liburuak neregixa erabiltzeko ematen didan libertadeagatik. Adigarri hauen lehendabiziko zenbakia esaldiari dagokio eta bigarrena horrialdeari.

25-8. Eta ezpaizue beár eman ZEON niork testimonio gizonas: ezi berak zekie zer dën gizona baitan (=zizaion).

21-14. Erraten dió Jesusek: Emastèkia, sinesta ZADAZU, etorri déla ordua, noiz ez oyan góntan, eztaré Jerusalemén adoratuko baituze (baituzue) Aita (=zaidazu). “Góntan” = hontan.

46-22. Sinesta ba ZINDEZOZIE Moisesi, sinesta ZINDEZAKETE agián niri ere. Gip.: Sinista ba'ZENIZAIOTE Moises'i, sinista ZENIZAIKETE agian neri ere.

34-25. Erran zióte bada ayék: Jauna, betiró eman BEZAGU (=bizaigu) ogi goi (hori); Inguratu zúte bada bera judioék, ta erraten zióte: Noiz árteo gauzki dudan (gauzka zalantzan)? Ori (berori) barinbada Kristo, erran BEZAGU klaro argiró (24-46); Erraten dio Filipek: Jauna, erakutsi BEZAGU Aita, eta áski dúgu (8-63).

7-34. Bada zirauteláik galdegiten, goratu zé, ta erran zióte: Zuetáik nor ere aurkitzen dën bekaturik gabe, ark lenbizikorik tira BEZO arrukáldia (harrikaldia). Bezo = bizaio.

21-42. Baña nola ikusten duén orái, eztakigu: edo nork idiki-tión begiök, guk eztakigu: berórri galdegin BEZOTE: badú adín, berórrek erran béz (beza) bere búruas (=bizaïote).

37-47. Ezpaitut (ezpaditut) egiten ene Aitarén obrak, ez sinetsi niri. 38. Baña iten baditut: naiz niri eztidazen (ez didazuen) sinetsi nai, sinetsi ZOZIE obraei, ezauntzekö, ta sinestekö Aita dagöla ni-baitan, eta ni Aita-baitan (=zaiezue). Arestian ikusi dugu Platiketan, “zaiozue”ren itzulpenez erabiltzen (Konfesa zozie Jaunari).

22-50. Baña oraño ere badakit edozéin gauza eska DEZON orrék (berorrek) Jangoikoaí, emanen diöla Jangoikoak (=dizaion); orái dakigu badakiela orrék (berorrek) guzia, ta eztuëla beár galdegin DEZON niörk: ontan sinesten dügu Jangoikoa-gánik atra (atera) déla (30-71).

37-62. Erraten dio Pedrok: Zergátik ez DEZOKET segi orái? Ene anima orrengatik (berorrengatik) utziko düt (=dizaïoket).

13-63. Eta edozéin gauza eska DEZÖZEN Aitari ene izénean, ori eginen düt: izan dāyen (dadien) oorátua (ohoretua) Aita Semean (=dizaiozuen); Ez nauzie (nauzue) zuék autātu ni: baizik nik autatu zaitzet zuék, ta paratu zaitzet (jarri zaituztet) joatekö, ta fruitu ematekö: ta zuén fruituak iraun dézan: edozein gauza eska DEZÖZEN Aitari ene izenean, eman DEZAZIEN (=dizaizuen) zuëi (16-67).

2-72. Ala nola emán zion berari potestáde gizajende guziarén gain, eman DEZOTEN berak bizitza betirókoa, orrék (berorrek) berái emanikáko guziari (=dizaien).

21-77. Zergátik galdegiten dida niri? Galde BEZOTE aditu nautenéi, yá (ia) zer mintzatu diotétén (dieten): orrá ayék badakite zer erran duten nik (=bizaie). Arestian ikusi dugu *bezote=bizaio* (haiek galdegin bizaïote itxuari). Hemen berriz, Jesus'ek esaten dio Pontifizeari: berorrek galde bizaie aditu didatenei.

39-79. Baña usánza dúzie, utz DEZAZETEN bát libre bázkooan: nauzie (nahi duzue) bada utz DEZAZETEN libre judioén erréga? Badirudi lehengo kasuan “dezazéten” = DIZAIZUTEEN itzuli behar dela eta bigarrenean DIZAIZUTEDAN, alegia, “que os dejen (ellos) a vosotros” eta “que os deje (yo) a vosotros”.

15-85. Erraten dió Jesusek: Emastékia, zergatik zaude negárres? Nor billatzen dúzu? Ark ustés zén baratzezáyá, erraten dió: Jauna, orrék (berorrek) kendu barin-badú (baldin badu), erran BEZADA non paratu (jarri) duén: eta nik eramako düt (=bizait). Ene iritzian, “Ark ustés ZEN baratzezáyá” = “ark ustez ZELA baratzezaia” itzuli behar da. Alegia: *ze = zen* eta *zen = zela* kasu hontan, nahiz eta eskuarki gure “zèn” izaki, hots, erlatibo tankeran, presenteko “den”en laguna.

17-85. Errán zio Jesusek: Ez nazázula nai ukitu, ezi oraño ez náiz igán ene Aita-gána: baña zoáz ene anayen-gána, ta erran ZOZUTE: Banoáye igánes ene Aita-gána, ta zuen Aita-gána, ene Jangoiko, ta zuén Jangoikoa-gána (=zaiozue).

“Jabier'tar Frantzisko Santuaren bizitzatxoá” deitu liburutxotik (Iruñan'n, 1922) bi adigarri jaso ditugu. Hona hemen:

10. Eman zio lendanik orren señale zenbait Jangoikoak bein mostratu zio bere borondatea zela, zerbitza ZAION Indietan, ta balema bekala (ba'lerama bezala) indio bat bere soñean (sorbaldan) ezin jasos: berze bein adiarazi zio pasatu bear zuen

(=zuèn) trabajuketa andia: baña naiz bai, alaere Jangoikoaren amores asi ze oyus, yago (gehiago), Jauna, yago, yago (=zizaion/ziozan).

23. Jaungoiko (sic) berak argitus, bazekie Sanduak Indian asko gauza agitzen ziranak Españean. Bein kongojaturik bota ze agos bera goatze baten gañean, egon ze ala nola sentidoik gabe; ta gero txutiturik erran zun (sic), Jaungoikoak (sic) barka DEZAZULA, urlia (=dizaizula).

Oharra.—Dakusagunez, Lizarraga’k beti D + EZA sistema darabil. Zalantzarik gabe “I” eroria dute adizkerok. Halaxe *dezon diezon*, izanen zen, *dezazula diezazula, bezo biezo* eta abar. “I” datibo ezaugarriaren galtze hau Nafarroa garaian eta beherean gertatzen da baitipat, Bonaparte’ren tabuletan dakuskegunez. Alderdi txar bat dauka, alegia, batzutan jokaldi zuzenekoekin nahasten dela. Adibidez: DEZAZULA, zuk egin *dezazula* eta harrek egin *dizaizula* da. Eskertzekoa da benetan Jaundone Antxiko’ren bizitzatxo hau argitara eman zutenek, zen zenean egitea, alegia, Lizarraga’ren mintzaira batere aldatu gabe.

XV. JOSEPE OTXOA ARINEKO

DOCTRINA CHRISTIANAREN EXPLICACIOA

(Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itceguiten dan moduan Erri Noble onen instanciaz escritu ceban beraren Vicario, eta Capellau D. Joseph Ochoa de Arinec: Pueblo onetaco Aurray iracasteco. Urte 1713. Donostian: Pedro de Ugarte, ren Echean). Nik bigarren ediziñoa erabili dut. Beronen titulua: “Ordisiako Doctrina Christiana da Gipustarren Hauskarasko libruetatikan saarrena. 1902 Urtean. Berriz argiratu dezu Done-Bastian-en Lamberto Lancis-en Echean”. Josepe Otxoa-Arin Ordizia’n jaio zen 1672’gn. urtean eta 1697’an bikario bezala ageri zaigu Ordizia bertan. 1743’gn. urtean hil zela ere badakigu, baiñan besterik ezer gutxi. Hau dugu Gipuzkoa’n inprimatu zen lehenbiziko euskal-liburua, gipuzkeraz. 1691’gn. urtean beste dotriña bat argitaratu zen baiñan bizkaieraz eta ezta beronen alerik konterbatu.

11. Zorzarrenak, testimonio falsorik inori jaso ez DIOZAGULA (=dizaio-gula).

40. Eman DEIGUN (Jaungoikoak) eskatzen diogun guzia (=dizaigun).

51. Ezin eskatu DEIKEON moduan bere konsorteari (=dizaiokean).

58. Bakoitzari zor dion azienda, interesa, onra, edo fama restituidu, edo biurtu DIOZAKEALARIK ere, biurtzen ez dionean (=dizaiokealarik). Gogoan har dezagun adizkera hau bigarren ediziño hontan zuzendua dagoela, zeren lehendabizikoan DIZOCOALIC ageri baita, baiña Campión eta J. G. Oregi jaunek uste izan zuten, adizkera itxuragabe hau kajistaren erruz erten zela eta erregulariki itxuratu zuten.

94. Itaundu BEGIO konfesoreari (=bizaio).

96. Bada orrenbestez eman NEIKEO kausa, edo motiboa (proximoari), artu dagian (dezan) bertatik neuronon kontra odio, edo gaitzerizteren bat (=nizaioke).

Oharra.—Dakuskegunez, Otxoa-Arin’ek ZA eta EGI edo EI aditz-erroak darabilzki: dio-ZA-gula, d-EI-gun, b-EGI-o. Datiboko adizkera hauen erabilkizunean pobrea dela aitortu behar.

XVI. AGUSTIN PASCUAL ITURRIAGA

DIALOGOS BASCO-CASTELLANOS

(Para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa, por D.A.P.I.P. Hernani, año de 1842.)

26. Esan ZADAZU, Basilio (=zaidazu).

40. Ezin esan DIZAZUKET zer gogoz zure jolasa (solasa, jarduna, eleketa) entzuten dedan (=dizaizuket).

63. Euliak jo ez dezan, eta arrak sortu ez DITZAIZKION: ara zer egiten duten, toki askotan (=dizaizkion). Halabaiña, gatzaz ari da eta arrak *sortu ez dakizkion* edo hobe, *arrik sortu ez dakion*, esan behar luke. Pasibo ordeaz aktiboa erabili du.

“Obras inéditas de Iztueta” deritzan liburutik (La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968), Iturriaga’k Iztueta’ri egin zizkion eskutizetatik hauetxek atera ditugu:

172. Ez DIOZAKET agertu (=dizaioket).

175. Millaka eskerrak eman BIZAIZKIE (hutsegitez “bizaisguie”) jaun galant eta adiskido on oiei (=bizaizkie).

175. Nai BIOZAYO (=bizaio).

176. Erakutzi BEGIE nola portatu bear dan bein etsaia aspian artu ezquero ez geroago altxatzen usteko (=bizaie).

Oharra.—Dakuskegunez, Iturriaga’k eskuarki “-za-” aditz-erroa darabil. Behin, ordea, “-tza-” (nahiz ta “t” hori “zki”z gaiñerako pluralgille bat izan ditekian) eta beste behin “-egi-” (begie).

Agustin Pascual Iturriaga (1778-1851), Ernani’n jaio eta hil zen. Eliz-gizon ikaskizunak Andoain’go Apaizkaitegian egin zituen eta gero Oñati’ko Ikastetxe Nagusian. Apaiztuz geroztik, bere bizitza guzian irakaskintzan jardun zen. Literaturazale eta kultura handiko gizona zen. Bere ideia zabaltasunagatik enziklopesditatzat salatua izan zen faltsuki, beti iraun baitzuen Elizaren ortodoxia barruan. Beharbada politikaz karlista izan zen, zeren hauek gerla galdu zutenean (1839) sasi-muga pasa behar izan baitzuen eta Milafranga’ko Larraldeja jauregian (Lapurdi) bizi izan zen, baiñan, 1841’ean edo 1842’an behintzat berriro Ernani’n dakuskegu. Iturriaga’reñ sona eta fama bere alegi edo fabuletatik datorkigu batez ere.

XVII. JUAN ANTONIO UBILLOS

“CHRISTAU DOTRIN BERRI-ECARLEA”

(Christauari dagozcan Eguia sinis - beharren- berria dacarrena. Jaun Claudio Fleuri Abadeac arguitara atera zuanetic Fray Juan Antonio Ubillos-coac Eusquerara itzulia. Bi parte edo zatitan berezia, ta erdiratua. Lendavicicò zatiac dacar, Jaincoarèñ legue zarrean, ta berrian guertaturicaco gauzen berri laburra: Bigarrenac, Christavac jaquin, ta sinistu behar dituan, eguien eracustea, ta icas-videa. Behar bezala. Tolosan: Libruguille Francisco de la Lama-rèn Echean, 1785 Urtean).

16. Bestek guri egitea, naiko ez gendukean, gauzarik iñori egin ez DIOZAGULA (=dizaiogula).

18. Jainkoak eman zion Abrani, Isaak zeritzan seme bat; eta erakutsi ziona, sinistu ote zuan, eta esan ziona, egingo ote zuan progatzeko eta ekusteko, agindu zion, doai-eskeñi, edo Sakrifizioan present egin ZIOZALA bere seme maite onezaz, Aldare batèn gañean bizia kentzen ziola (=zizaiola); an eskatu zion bere Aitari, alba-zan, ken ZIOZALA Pasiocò Kaliz latz, edo edari miña; ta eman ZIOZALA beste bideren bat, mundukò gaiztoen zorrak ateratzeko (87).

22. Egondur ziran oek (Moyses eta Aaron) Faraonekin eta Jainkoaren izenean agindu zioen, utzi ZIEZELA, maite zituan, Israeltarrai, edo Jakoberen odoletik ziranai, Ijtitotik irteten (=zizaiela).

51. Nabucodonosor Erregeak eragin zuan, gizona zirudian, urrezko tallû, edo estatua bat, eta agindu zuan, guziak agur egin ZIOZAE LA urrezko gizanz hari (=zizaiotela); eremutik jetsi zan Galileara. An esan zien lau Arranzaleri, jarra(i) ZIOZAE LA (76).

176. Bai-ta ere agintzen digu, hondra dezagula Erregea, ta errespetoa ekarri DIEZAGULA, haren ordeaz agintzen duen, Kargudunai, ezaguturik, Jainkoak ipiniak dirala guziak, zein bere tokian (=dizaiegula).

214-215. Olio bedekatuarekin eria ganzutzen duela begietan, belarrietan, sudurretan, ahoan, eskuetan, oñetan, ta gerri-aldean, edo bekatu-bide guzietan, eta ganzutze bakoitzean eskaten dioela Jainkoari, barka DITZAIZKALA eriarri, bere gorputzeko zati, edo parte bakoitzarekin egin dituan, bekatuak (=dizaizkiola).

Oharra: Ubillos'en adizkera I + ZA da, baiñan gipuzkera zaharreko ordenean erabillirik, hots, DIOZAGULA eta ez DIZAI OGULA, ZIOZALA eta ez ZIZAIOLA. Behin “TZA” aditz-erroa darabil (ditzaizkala).

Juan Antonio Ubillos (1707-1789), Amasatarra zen, baiña aita Andoain'goa zuen Ubiluts baserrikoa. 1722'an Antxikotar jantzi zen Arantzazu'ko Etxe-Donoan eta hemen egin zituen bere lehenengo estudioak. Arantzazu'tik Alacalá'ra joan zen goi-ikasketak egitera. 1755'ez geroztik, Maixutu zelarik, fraidegaiei filosofia eta teologia erakusten dakusagu Tolosa'ko eta Arantzazu'ko komentuetan. Jakintsu handi bat izan zen eta Fleuri'ren itzulpen hontaz gairera, hiru filosofia-liburu lodi utzi zituen idatzirik latinez: *Philosophia Rationalis*, Donostia'n, 1775; *Philosophia Transnaturalis*; Donostia'n argitaratua ere eta *Philosophia Naturalis*, Gasteiz'en, 1762 (1).

XVIII. JOSE MIGEL BARANDIARAN'EN HERRI-JAKINTZA BILDUMATIK JASOAK

EL MUNDO EN LA MENTE POPULAR VASCA (Tomo III) (CREENCIAS, CUENTOS Y LEYENDAS)

Colección Auñamendi, 1962

53. Orroko urritz orri kenduta ekai (ekarri) EAZU (egidazu?) ur ale'at (urr ale bat). Badirudi laburpena egidazu → eidazu → eiazu → eazu izan dela (=zaidazu). (XI, Ataun, Gip.).

(1) Gauza jakinguratsu bezala esan dezagun Aita Ubillos Antxikotarra izan zela “h” letraren aintzindari egoaldeko Euskalerria'n. Intelektual bat eta Arantzazu'ko Anaiarteko irakasle izan zen eta gaur ere intelektualetan eta Arantzazu'ko fraide gaztetan ditu “h” letrak defenditzaillerik handienak.

62. Bixigûk esa'ementzion utzi ZEIOLA libre (=zizaiola/ziozala). (XIII, Ataun, Gip.).

94. Urdûn gizon arek esa'ementziên: nik emango izuêt zaku'at bete urre eta baso'at; emendi urte beteako asmatzen bâzuia basoa zêkin eîñe dan, zûntzat izan deilla zaku-urreea, ta bestela nêtzako izen dittezela zûn goamenak (arimak).

Bi anaiêk etxea jûn ementzien, eta Jainkôri maiz errezatze'ementzioên arren baso ue zêkin eîñe zeôn azaldu ZEIZKIELA (=zizaiela). (XXIII, Ataun, Gip.). Adizkera hau oker dago, normalki ZEGIELA baita eta laburturik ZEIELA. Eztu pluralizadore beharrik.

97. Illea oso nâstuik daukezu eta zerbait zuzentzea obe izengôzu. Neonek orraztuko'izut.

— Oinbesteaño diozun ezkeo, orraztu IAZU bâ (=zaidazu). 53'gn. horrialdeko "eazu" hemen "iazu" egiten zaigu (XXV, Ataun, Gip.).

101. Esa'IUZU zuk eskolea nun daôn (=zaiguzu). Etorkia: egiguzu → eiguzu → eiuzu → iuzu (XXVI, Ataun, Gip.).

120. Ta txerri batekin zetorrek... Ken (t)ZAYOUN (=zaiogun/dizaiogun). (XXXII, Oiartzun, Gip.).

124. Biali ZADAK erretekin norbatekin olako tokitara (=zaidak). (XXXII, Oiartzun, Gip.).

Aztarrikatzen ari garen liburuak, herri-ipuiñen ondoren, Juan Kruz Zapirain bertsolariaren "Santa Genobeba'ren bizitza" deritzan poema hunkigarria dakar. Juan Kruz, Errenteriarra zen eta etzekien ez irakurtzen, ez idazten. Poema hau 1899'gn. urtean diktatu zuen, Santa Genobeba'z irakurri zioten biografia batez baliaturik.

143. Konbeni zaigun ixtoriya bat kantatu al ba'geneza... Orretarako lagun ZAIGUZU zeru-lurreko Jueza (=zaiguzu); Komeni ba'da eman ZAIGUZU ondo itzeko graziya (173).

151. Kontu ixillik ba'zeukan ezer, arren, esan ZEAYOLA (=zizaiola/ziozala); zijuanian biatzetikan kendu-ta eman ZEAYOLA (158).

152. Papera, argiya, tinta ta pluma ekarri ZEIZKIYOLA (=zizaizkiola). Erregulariki: *zegizkiola*.

153. Begiyak tapa AKIZKA (=zaizkiok). Kasu hontan bertsolaria adizkera aktiboaz baliatu beharrean pasiboaz baliatu da. Usadio hau oso herrikoia da, aginkorrean batez ere. Halabaiña, pasiboko forma egokiena aktiboaren zuloa betetzeko AKIZKIO da. Halabaiña, egiazko pasiboak ez dezake "-zki-" pluralizadorerik har, zeren objeturik ezpaitago. Beraz, "joan hakio" esanen dugu eta ez "hakizkio". Iñoiz esan dugun bezala, Donostiar zaharrek "esan hakio" (eta zoritxarrez baita "esan akiok" ere) hitzetik hortzera zerabilten "esan zaiok"en partez.

154. Ire zakurra akaba zugun... bertan zaukagu guziya... Aren begiyak eraman-da oni (Golo'ri) utzi ZAYOGUN biyiya (=dizaiogun); eska ZAYOGUN Jesus'i (165).

158. Eratzun ori eman ZAYOZU (=zaiozu).

160. Amatxo, orain Jaungoikuari eman ZAIZKAGUN graziyak (=zaizkiogun/dizaizkiogun).

Jose Migel Barandiaran'ek bere “Mitología Vasca”n (Ediciones Minotauro, Madrid, 1960, 118 hor.) dio: “En Ceráin saludan a la luna diciendo: Illargi amandre santue, Jainkôk bedeinkautzala (bedeinkatu dezala); nere begi ederrak gaitzik ez DEIOLA (=dizaiola); ikusten duen guzik ala esan DEIOLA. (Luna abuela santa, que Dios le bendiga; que mi ojo fascinante no le traiga ningún mal; que cuantos la ven, de igual modo le hablen)”.

Oharra.—Dakuskegunez, Goiherri'n (Ataun eta Zerain) “-egi-” aditzerroa darabilte eta Oiartzun'en eta Erreterria'n “-za-”, eskuarki beñepein. Zapirain'ek “EZA” aldakera darabil bi bider (zezayola) eta behin “E(G)I” (zeizkiyola). Pasiboko edo hobeki esan pasibotik eratutako AKIZKA (=akizkio) ere badarabil. Adigarri hauekin bildu nahi izan ditugu gure herri landugabeak XX'garren mende hasieran zerabilzkien adizkera batzuek. Esan dezakegu gaur ere herriak tankera beretsuan erabiltzen dituela.

XIX. TEXTOS VASCOS DEL SIGLO XVIII, EN TIERRA DE ESTELLA

(MATERIAL PARA EL ESTUDIO DE LA VARIEDAD DIALECTAL DEL ALTO NAVARRO MERIDIONAL DE LA ZONA ESTELLESA)

Horra zer dion D. Manuel Lekuona'k (1) lan ernagarri hontaz:

“Se trata de un Sermonario, hallado en el pequeño lugar navarro de Muzqui, Valle de Guesálaz, al norte de Estella. Un fajo de 33 cuartillas de papel de hilo, conteniendo cuatro sermones en vasco, predicados en el ultimo tercio del siglo XVIII, sin duda en las Parroquias del Valle guesalaztarra.

El curioso documento se conservaba en el archivo familiar de la Casa Infanzona de los Martínez de Morentin, en aquella localidad.

Los sermones son de los “de Misión”, del Santo Tiempo de Adviento, más bien que de Cuaresma.

Los dos primeros están escritos en letra corrida; los dos últimos, en trazos más premiosos, de mano diferente, a pesar de la semejanza de contenido y de lugar del hallazgo.

El autor de los dos primeros, a juzgar por la letra, comparada con la de los Libros de Partidas de la Parroquia muzquiiana, resulta ser D. Francisco Martínez de Morentin, Abad de aquella Parroquia a partir de 1765, que venia siendo antes Beneficiado de la misma, por los años 1763, y muere en 1782. El autor de los dos restantes, debe ser el que en los Libros Parroquiales aparece como Abad desde 1783 hasta 1797, D. Francisco Antonio Martínez de Morentin, familiar sin duda del D. Francisco.”

Cap. I - 375. O, nere Jauna, ya ke ta ez gaden (garen) digno zure erreñura joateko, konzedi ZAGUZU zure piedade andi orrengatik egotea sikiera zure oñen azpien! (=zaiguzu/iezaguzu).

(1) *Fontes Linguae Vasconum*, año V, núm. 15, setiembre-diciembre, 1973 (Pamplona).

I - 376. An eskribizen zitu (zituen) bekatarien kulpak eta errausean (errautsean) eskribizeareki manifestatu zigu (zigun) fazilidade andiereki borraratu DEZAZKIGU-KELA (=dizaizkigukela/diezazkigukela).

II - 376. Beldurtu ze (zen) Herodes bietatik batek ekenduko ziola bere Erreñue, eta orgatik publikatuarazi zue (zuen) Edikto inpio eta kruel ure zeñeki manazen (manatzen, agintzen) zue bi urtetik berako aur guziegi (guzieri, guziei) ekendu ZEKIO-TELA bizie ustes (ustez) gisa ontan illen zituen (zituela) biok (1), eta gerostik geldituko zela beldurrik gabe (=zizaiela/ziezaiela).

II - 378. Erran ZADAZU orai: nauzu (nahi duzu) zuk inbentatu dezan Jangoikoak zuretak berze medio at (bat) igozeko zerura? (=zaidazu/iezadazu); Erran ZADAZU bekatarie, galdeiteinu (galdegiten dizu) San Agustiñek: sartu baledi emen eliza ontan argin maisu et (bet, bat), sar baledi aingeru et (bet, bat), eta erran balez (baleza): Jaunak, atera beize (bitez) pronto, zergatik eliza onek amenazazen du ruina, erorzera duei (dihoa)... Esperatuko zinduke geroko aterazera? (378); Erran ZADAZU deshonestoa: noiz uzi (utzi) bear duzu amistade profano ori eta kostumbre torpe ori? (379); Erran ZADAZU: Ill balakizu anaia bat aniz estimazen duzuna eta alba-zenzake erresuzitetu akto kontriziosko ateki (batekin), esperatuko zinduke (zenduke/-zenuke) berze egun bateraño erresutizazeko? (382); Erran ZADAZU kristioa: ezta-kizu eze Jangoikue apartatu zela zureganik zuk ofenditu zinduenean (zenduenean) Jangoikue? Erran ZADAZU: ezta-kizu eze zuk kometitu zinduenean (zenduenean) juramentu falsori (falso ori) eta zuk daukezun odio perbersoreki zure proximo lagunen kontra, eta zure enbidie malbatu orreki, eta zure torpeza infame orreki ofenditu zenduela Jangoikue eta apartatu zela zureganik eta zure arimeti? (IV - 388).

II - 379. Karrikan zuazelarik eman BALEZAZUTE puñaladaren bat edo eridaren bat mortalea, alborotatuko zinduka (zenduke) barrede (barride, hauzo) guzie ius (oihuz) konfesio eskazen; eta egonikan zure anima ori eriturik bekatuareki, nai duzu uzi konfesioa geroko? (=balizazute/balizazute/baliezazute).

II - 379. Badago arraziorik (arrazoirik) ontako? Eta badago arrazionik (arra-zoirik) egonikan ya infernuko atarietan zure bekatuek dirala medio eta ofrezizein zularik (ofrezitzen dizularik) Jangoikuek eskua aterazeko eta librazeko, errespondatu DEZOZUN eztuzula nai berze egun bateraño? (=dizaiozun/dieziaiozun).

II - 380. Katolikoa, bekatu mortalean zaudena: ezta burlesko negozioa, salbazeiko negozio au: *Ne diferas de die in diem*, errateinu (erraten dizu) Espiritu Sanduek: ez gabilzela luzezen egun batetik berzera. Egun bizi zada (zara, zera, zira), egun ofrezizeizu (ofrezitzen dizu) Jangoikoak barkazioa arrepintizen bazada (baza-ra). Baña ez dizu ofrezitu biar ori (biharko egun hori) arrepintizeko, erraten du San Agustín'ek: *Diem crastinum non promisit*. Zein ongi minzazen da assumpto ontara Errege Profeta David: *Quemadmodum* etc.: minzazen delarik Jangoikoareki, erraten dio: "Oreña joaten den bezala prisakan iturriek billezera (billatzera) egarrie duenean, ala, Jauna, juaten da ene anima zure billen (billa). Eta zer prisa eramaten du oreñek? Adi ZOZE San Epifanio'ri: Du oreñek propiedade bat: juaten da, serpienteak, suge eta berze sabandije benenosoak billara (billatzera), eta sarturik bali (balin, baldin) badaude beren kuebetan, atra arazteintu (atera-arazten ditu) asareki (asa: *aliento*; *atsa: aliento pestifero, hedor*) eta jateintu (jaten ditu) eta asezen denean bianda perni-

(1) "Biek" eta goraxeagoko "bietatik", Jaun-done Ioane Bataiatzailea eta Jesu-Kristo gure jauna dira.

zioso oneki, egarriak itorik juaten da al duen prise guziareki ura billara (ur billa). *Bal-gate Dios*. Oreña: zertako ainberze prisa? Eske bizia duakio ontan. Baldin etan iru orduren denburuen (buruan: badirudi “den buruan” edo “burua denean” dela) ezpa-du opazen (topatzen) urik, ilzen da erremediorik bage belenoaren (benenoaren) biolenziareki. Nola bada estu (eztu) laster egin bear juan prisakan ain denbora gutxi gelditzen bazaio bizizeko ezpadu edaten? Orgatik dio David’ek, laster egiten (korritzen) duela oreñek bezala, zergatik eztu arkizen iru ordurik ere egosteko (botatzeko, jaurtikitze) bere animatik bere kulpen benenoa, eta beldur ze (zen) arrapatuko zuela eriozeak bekatuen zegolarik (=zaiozute/zaiozue/iezaiozue); A fielak, akabatu bazenezate (akaba bazenezate, akabatu bazenute) entendatus (entendituz, ulertuz) zer peligroan arkizen zadaten (zaraten)! Adi ZOZE erraten Espiritu Sandueri: *Subito enim veniet ira illius*. Erraten du bada: eztezazula luzetu egunetik egunera izulzea Jangoikuen gana, bear eta nezesarioa den penitenziareki, zergatik berzela derrepente *subito* etorko da Jangoikoan kastigoa zure gañera (380).

II - 381. Eta karta eraman zuan (zuán/zuén) propioari erran zio (zion): Tori kartau (karta au), eta non arkizen duzun sujetoa, an berean eman ZOZU eta erran ZOZU bereala leitu dezala, zergatik da inportaziosko negozio at (bat) (=zaiozu/iezaiozu); Arrepentizeareki emateinzu (ematen dizu) lizenzie aterazeko infernue baño estado gaiztoagotik baite (baita) bekatuena. Eztezazule galdu okasio au; ellegatu zeit (aillegatu zaitetz) (1) bada oin sagratu (Jesukristo’renak) ebetara (hauetara) eta sentimendu andi bateki erran ZOZU: Jesukristo nere Jaune, etc. (382).

II - 378. (Hutsegitez tokiz atzeratua). Sentizen zitue (zituen) Sando onek (San Agustín’ek) bere biozean Jangoikuek ematen zizkion alabadak, atera zaien (zedin) bere errore eta kulpetatik. Egiten ziote (zioten) fuerza inspirazio berdadero aiek, eta ez atrebiturik erratera, ezez, errespondazen (zion) Jangoikuari, gero konbertituko zela, uzi ZEZOLA gutxi bat bere bekatuetan: *sine paululum*. Bañe ezautu zuenean bere errorea, erran zue (zuen), gero izan bear balin badu, zergatik ez bereala? Berala konbertitu ez (zen). (=zizaioa/ziezaioa).

II - 381. Suzenditu DIZAKEZU zuri (= dizaikezu/diezakezu).

II. 382. Trabajatu zue (zuen) konfesoreak bere alegin guziareki, baña errespondazen zio (erantzuten zion): Uzi BEZADA, Aite, ez nazala kansatu (= bizait/biezat).

III. 386. Orei arteño bizitu barimagada (baldin bagara) desagradeziturik Jaun Soberano arri, eta oreitu bege (oroitu bage, gabe) Juizio egunas (2), ofrezitu ZOGUN serbiziera emendik aurrera amorio andi bateki (= dezogun/dizaiogun/diezaiogun).

IV. 389. Eta au suzedizen dakiote (zaie) *por lo común*, amanzebaturik daudene-gi (daudeneri/daudenei), enbriagazen direnegi (direnei), eta odio eta errenkore dauketenegi (daukatenei), bada etorriko dire abek konfesazera, eta konfesatuko dituste beren frajilidadeak, eta konfesatu eta *al instante* edoriko (eroriko) dire konfesatu ditusten bekatu aietara; eta zer señaile da au? Eze ezauketela dolorerik eta proposito-

(1) Badirudi ZAIT edo ZEIT, “zaitetz” aginkorra dela. Ikus beste adigarri hau: “Edo apartatu behar duzu bekatuaren okasiotik edo izan demonioaren esklabo eternoa; edo barkatu bear diouz biozes grabia zaituenari edo erre bear duzu infernuen eternidade bates. Gauza fuertea! Eztago berze mediorik? Desengañatu ZAIT (zaitetz) eztagola”.

(2) Testuan, hutsegitez, noski: “Juizioa, egunas”. Esaldiak zentzua har dezan —asmatu uestez— aldatu dugu.

rik eta gisa ontan prosegizen dute, beren konzienziek egin arteño kalloek eta gero konfesio on bat egiteko bear dute, aniz ausilio eman DEZOTEN Jangoikuek, zergatik gogorzen dakiote (zaie) bioza bronzeta maño (baiño) geiago (= dizaioleten/dieziaioten).

IV. 390. Ikusazu nola portazen da(n) demonioa zureki eta nola serbizen zaitun zure gusto eta des(e)o guzietan, eta ala errazio (arrazoi) izanen da zuk korrespondi ZOZUN eta egin DIZOZUN alako serbizioaren bat demonioari (= dizaiozun/dieziaiozun: Forma osoa eta laburtua ageri zaizkigu alkarren ondoan).

IV. 390. Ai Jauna: ni naiz munduen den bekatarieen andiena eta ezin sinistatu dezakit (dezaket) Jangoikuak barkatu DEZAZKIDALA nere bekatuek (= dizazkidala/dizaizkidala/diezazkidala).

Oharra.—1. Eskuarki “i” datibo ezaugarria ez darabilte: *dezazkigukela, baleazazute, dezozun, zezola, bezada, dezoten, dezazkidala*. Besteok, ordea, “i”rekin: *dizakezu, dizozun*.

2. DE (DI) haskiña erortzen da zenbait aldiz: ZOGUN (dezogun), ZOZUN (dizozun).

3. “T” datiboaren ordeztu, “DA” (lehenen pertsonakoa): BEZADA (= bezat, bieztat, bizait). Indikatiboan halaber: “Iduri ZAIDE ez ez” (382 p.) = Iduri ZAIT ezetz. Kaso hontan DE agertzen da DA ordeztu, aurreko silabako “i” letraren eragiteztu. Beraz, ZAIDE = ZAIDA = ZAIT.

4. Aztertzen ari garen —*eza*— errodun aditzekin, eskuarki, —*tu* (1) aditz-izen atzizkia darabil, baiñan —bidezkoago denez—, kaso batzutan ez du eraxten. Atzizkiarekin: *borratu dezazkigukela, errespondatu dezozun, utzi zezola, suzeditu dizakezu, utzi bezada, ofrezitu zogun, barkatu dezazkidala*. Atzizki gabe: *konzedi zaguzu, adi zoze, korrespondi zozun*.

5. Behin bederen intransitiboko adizkera darabil transitiboaren ordeztu: *ekendu zekiotela* (= kendu ziezaiela).

Irakurleak barka bizaizkit —ez baitu —*eza*— aditz-erroarekin zer ikusirik— *zait-zeit* adizkera bitxiaz bi adigarri gehiago:

1. Aski da orain artio ofenditu duzuna Jangoikue. Paratu ZEIT (jar zaitetz) salboan, zergatik eztaukezu ordu segurorik (381).

2. O katolikoak! Ikusten duze (duzue) zertara ellegazen den anima bat luzezeangatik egun batetik berzera konfesioa eta konbertizea? Determinatu ZAIT (= zaitetz) bada ez egoter (egotera) orduetes (ordu betetz) ere bekatuen, bada posible da ez ellegazea biarko egunera (382).

Aditzera eman gura nuke ere IV-390 esaldian ageri den DEZAKIT (= dezaket) adizkera (sinistatu dezakit = sinistra dezaket), ez dela hutsegitea, zeren beste zenbait tokitan ageri baita. Horra:

1. Admirezen naiz eze dagokela munduan persona ain juizio gutitakorik eze zildu (ixildu) dizatela bekatuek konfessore bategi (bateri, bati) jakinin (jakiñean) ezin erran DEZAKILA daus (deus) ere (383).

2. Ezautu zu (zuen) bere konfessoreak zer estaadotan arkizen zen eta esan zio (zion) konfesatu ZEZAKIELA bere bekatuek (390).

Bukatzeko, aditzera eman dezadan sermoi-iskribu hauetan ez direla “z” eta “tz” hotsak bereizten (halaber “s” eta “ts”). Beti “c” edo “z” agertzen da. Zenbait kasotan zailla da bereizten “z” ala “tz” ahoskatu behar den eta, horretxegatik, okerrean erortzeko arriskuari ihes egin nahirik, beti “z” erabiltzea erabaki dut. Irakurleak bereiz bitza bere irizpideak agintzen dioneztu.

(1) *Barkatu, jorratu, lapurtu...* Halaber, —*i* aditz-izen atzizkia, hala nola, *ikuski, irakurri, bereizi, utzi...*

XX. IUAN BERIAIN

“TRATADO DE COMO SE HA DE OYR MISSA, ESCRITO EN ROMANCE, Y BAFCUENCE, LENGUAGES DE EFTE OBISPADO DE PAMPLONA”

(Compuesto por el Licenciado don Iuan de Beriayn, Abad de Uterga. Año 1621. En Pamplona. Con licencia del Real Confejo de Nauarra).

Honela dio Villasante-k “Historia de la Literatura Vasca”n (97 p.): “Ioane Beriaingo lizenziatua, Uterga-ko erretorea edo —orduan esaten zenez— abadea (abad) zen. Iruñeko herri-barrutiko hirixka bat da hau eta hiriburutik hamazazpi kilometrotara dago. Beriain, bi liburu mintzairabikoen egile da. Bata, *Doctrina Christiana* izenekoa, Iruñean argitaratu zen 1626-gn. urtean. Tekstua bi hizkuntzetan dator, alegia, gaztelaniaz eta euskaraz. Besteari honela deritza: *Tratado de cómo se ha de oír Misa, escrito en romance y bascuence, lenguajes de este Obispado de Pamplona*. Hau ere Iruñean argitaratu zen 1621-gn. urtean.

“Bi liburuok oso arraroak dira. Aditzera eman behar da euskara aspaldi suntsitu zela Utergatik eta beronen inguruetatik, baina, Beriain-en denboretan hizkuntza hau “abadea”ren eliztiarrena zen, A. Legarda-k demostratu duen bezala. A. Legarda-ren ustez, Beriain,Utergakoa bertakoa zen noski, eta herri honetan hil bide zen 1638 inguruan”.

18. Guk igor DRAZOGUN (=diezaigun); nai du dei DRAZOGUN Aita gurea (91); eta aren medios otoitz egin DRAZOGUN barka drazkigun geuren bekatu guziak (126).

19. Eta ala erran dezakegu eze Birjina Mariari, eta bertze sanduei ezin eman DRAZKEGUTELA anbat honra, eta kontentu (=dizaiekegula).

28. Nola atrebitzen den eskatzera Erregeri mertzede egin DRAZON, jakinika dagola aren desgrazian (=diezaion); eta aditzera eman DRAZON aren honrako, eta zerbitzatzeko konbeni den guzia, eta eman DRAZON fabore obratan ezartzeko (56); Sazerdoteak ofrezitzen dio Iaungoikoari duena baita ogia, eta ardoa andik fite itzul DRAZON obeturik (58).

30. Zeren mezan eskatzen diogu (Iaungoikoari) barka DRAZKIGUN aren dibina Majestadearen kontra egin ditugun faltak (=diezazkigun); batzuetan eskatzen dio barka DRAZKIGUN bekatuak (44); eta otoitz egin, eman DRAZKIGUN bere bizia, eta heriotzean merexitu zizkigun ondasunak (70); Borzgarrena, eskatzen dioguna da, barka drazkiguzu gure zorrak, guk barkatzen dizkiotegun bezala gure zordunei, eskatzen diogula onetan barka DRAZKIGUN geuren bekatuak, eta dakigun zenbat eskatzen diogun onetan (93); Alaber eskatzen diogu barka DRAZKIGUN bekatuen gatik zor dugun pena (93); Eta guri obekiago eman DRAZKIGUN berak, Mezan gure partes eskatzen dizkio bere Aitari (95); Alaber erdesteko (ardiesteko) Iaungoikoaren ganik mundu oneta bizitzeko, bear ditugun gauzak, osasuna, hazienda, eta bertze gauzak, mediorik oberena da, Meza ongi entzutea, eta otoitz egin eman DRAZKIGUN Iesu Kristoren amorekatik on diraden bezala bienabenturanza erdesteko (109).

39. Iaungoikoaren aurrean Mezako misterioak zelebratzen, eta egiten dirade-nean, otoitz egiten dutela aren Majestadeari eman DRAZOTEN fabore, eta grazia Sazerdoteari erran dezan meza ongi, eta an daudenei, alaber entzun dezaten (=die-

zaien); Denbora onetan, da ongi Meza entzuten dutenek ofrezí DRAZOTEN (=diezaíoten) Iaungoikoari zerbait (59); Laugarren intenzioa da IesuKristoren medios eman DRAZOTEN (=diezaíen) (kristio fielei) Espiritu sanduaren grazia, eta libra ditzan Iaungoikoak (kristio fidelak) gaitz guzietarik (72/73); deklaratu DRAZOTEN (125: ondorena jana dago); ofezí DRAZOTEN (= diezaíoten) bere Aita eternoari (126).

44. Eta humildadereki, eta debozioreki erran BRAZO: Iauna, Meza ematen duenak eskatzen dizuna Elizako ministrok bezala, nik neure partetik areki batean otoitz egiten drauzut eman drazaguzun Iesu Kristo gure Iaunaren medios (= biezaio); Ebanjelioan zer dion aditzen eztuenak latinik, ez jakin faltas otoitz egin BRAZO Iesu Kristori (56); eta onetas oroiturik otoitz egin BRAZO, erraten duela (98).

45. Iauna, Meza erraten duenak eskatzen dizuna Elizako ministrok bezala, nik neure partetik areki batean otoitz egiten drauzut eman DRAZAGUZUN Iesu Kristo gure Iaunaren medios (= diezaguzun); otoitz egiten drauzut eman DRAZAGUZUN Iesu Kristo gure Iaunaren medios (98).

69. Bereala Meza erralleak abisatzen ditu guziek graziak eman DRAZKIO-TEN Iaunari arengatik errezi bitzen ditugun ondasunen gatik (= diezazkioten); Irurgarren intenzioa eramo (eraman) bear duena da, ofrezitzea Mezan ofrezitzen den sakrifizioa bere, eta bertzen bekaturen gatik, aren medios barka DRAZKIOTEN (= diezazkien / 72); eta eman DRAZKIOTEN (= diezazkien) (Iaungoikoak) gauza aiek guziak aren honrarako, eta zerbitzuko diradenak (73).

70. Eta non nai, denbora guzietan, eta leku guzietan graziak eman DRAZKIO-GUN, nola egiten baitute aingeruek (= diezazkiogun); eta ango gauzak eskatzen dizkiogunean dauzkigun han geuren pensamentuak, eta gauza ohek eska DRAZKIO-GUN konfianza andiareki emanen dizkigula (91).

71. Ene Aita eternoa, nik ofrezitzen drauzkizut neure trabaju guziak, neure odola, baitakizu zenbat balio duen, eta neure bizia, ene amoreakatik barka DRAZKIOTEZUN bekatariei, beren bekatuak (= diezazkiezun); Alaber ofrezitzen drauzut ene Aita, eta Ama gatik, Aiden, Adiskiden, eta ondasun egillen gatik, barka DRAZKIOTEZUN beren bekatuak (76).

75. Alaber ofrezitzen drauzut Iauna sakrifizio au, onen medios urrikari zakizkidan, eta barka DRAZKIDAZUN neure bekatu guziak (= diezazkidazun).

76. Eta alaber eman DRAZOTEZUN bitoria (Aita Sanduari, Perladoei, Erregeri eta Prinzipe Kristioei) Elizako etsaien kontra (= diezaíezun).

77. Alaber urrikari zaites, federik eztutenes, eta herejes; eman DRAZOTEZU argitasuna, ezagun ditzaten gure fedeko misterioak, eta ezagun dezaten nola doazen engañaturik, eta ala konberti ditezen gure legera (= iezaíezu); Hara non den zure etxea. Zoaz, eta erran DRAZOTEZU Iaungoikoak zure baitan egin duen marabilla ain andia (113).

78. Iaun onek beronek (Iesu Kristok) guregatik otoitz egiten dionean bere Aitari aren amoreakatik eman DRAZAGUN eskatzen dioguna (= diezagun/diza(i)gun).

92. Geuren egunorosko ogia, eman DRAZAGUZU egun (= iezaguzu/zaiguzu).

93. Barka DRAZKIGUZU gurezorrak, guk barkatzen dizkietegun bezala gure zordunei (= ieazkiguzu/zaizkiguzu).

98. Iauna, Meza erraten duenak eskatzen dizuna nik neure partetik otoitzegiten drauzut eman DRAZAGUZUN Iesu Kristo gure Iaunaren medios (= diezaguzun).

107. Eta dakarren urrikimentu, eta damu bear duena bere bekatues izatera, eta ala barka DRAZKION bekatuak eta demon (eman diezaion?) bere grazia (= diezazkion); Eta ala guregatik pasatu zituen trabajuak, eta ixuri zuen odol guzia, daude oius Iaungoikoa urrikari dedin bekatarias, usatzen duela miserikordias, eta ala barka DRAZKION bekatuak (108).

108. Argatik, bekataria, nai baduzu bekatuetatik atra (atera), eta Iaungoikoak barka DRAZKIZUN, eta dizun (eman diezazun) bere grazia, eta faborea konfesio bat ongi egiteko, zoas Meza entzutera (= diezazkizun/diza(i)zkizun); urrikari daki-zun, eta barka DRAZKIZUN zeure bekatuak, Iesu Kristoren amoreakatik(108); Hau bear den bezala egiten duzula da gauza ziertoa, barkatuko dizkizula zeure bekatu guziak zeren Iesu Kristok zuregatik otoitz egiten dio bere Aitari barka DRAZKIZUN, eta ala aren partetik eztate (ez da noski) faltarik, zuretik ezpada (108).

108. Zoas Meza entzutera, eta ofreziz DRAZOZU an ofrezitzen den sakrifizioa, eta eska DRAZOZU damu (= iezaozu/zaiozu).

122. Iesu Kristo ene Iauna, suplikatzen drauzut eman DRAZADAZUN zure faborea, eta grazia (= diezadazun/dizadazun).

DATOZENAK

Hirugarren zatia

I. Voltaire	673
II. Joanes Etxeberri Ziburukoa	674
III. Jean Hiriart-Urruty	676
IV. Joanes Etxeberri Sarakoa	679
V. "Gudu Izpirituala"	680
VI. Joanes Haraneder	686
VII. "Chiberoua eta Marceline" eta "Recoquillart eta Arieder"	694
VIII. Jakes Oihenart	696
IX. Iuan de Tartas	697
X. Jean Pierre Arbelbide	698
XI. Duvoisin Kapitaina	702
XII. Axular	706
XIII. Xurio	715
XIV. Bernat Larregi	719
XV. Kristobal Harizmendi	723
XVI. P. Argaiñaratz	724
XVII. Ioanes Leizarraga	725

HIRUGARREN ZATIA

I. VOLTOIRE

“TRESORA HIRUR LENGUAYETAKUA: FRANTZESA, ESPANOLA, ETA HESKUARA”

(Obra ona eta necesaria nork desiratcen baitu erran den lenguaje horrentzat. Thresor des trois langues: françoise, espagnole et basque. Livre tres util et necessaire pour ceux qui desirent en avoir l'intelligence de ses dites langues... A Bayonne: chez Antoine Fauvet, imprimeur de Monseigneur l'evesque de la ville. Avec permission et Privilege. 1.^a edic. 1620 (?) - 3.^a edic. 1684. “Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo”, Tom. V, 1971. Exema. Diputación de Guipúzcoa. San Sebastián. 175 hor. ald.).

“Voltaire” nor zenik eztakigu. Ez noiz eta nun sortu zen, ezta pontizenik ere. “Voltaire” deitura zuenik ere ez jakin, gaitzizen bat izan baititeke soilki, egiazko izenaren gordegarri. Halabaiña, bere obratxo honek zenbait ediziño ezagutu ditu. Guk azkenekoa erabilli dugu, alegia, P. Urkizu jaunak “Seminario de Julio Urquijo” urterokoan argitara emandakoa. Jaun honek, bere argitaratzearen osagarri bi ediziño zahar erabilli ditu, hots goian aipatu dugun Baiona'ko hirugarren ediziñoa, 1684'gn. urtean egiña eta Gipuzkoa'ko Ahaldundegian “Fondo Urquijo” deritzaionean dagoe-na. Badirudi, hau, lehendabiziko ediziñoa dela, alegia, 1620 ingurutsuan Lyon'en egindakoa, zeren P. Urkizu jaunak honela baitio: “Por supuesto que también se hallarían lapsus y errores en esta comparación reconstructiva de las ediciones de 1620 (?) y de 1684”. Danera hiru ediziño izan zituen XVII'garren mendean, beste lau ediziño fetxa gabe eta beste bat 1882'an. Villasante'k dio: “Contiene diálogos, adagios y sentencias dispuestas a tres columnas: en la primera trae el texto castellano; en la segunda, el francés; en la tercera, el vasco. Es un libro hecho con el fin de facilitar la inteligencia o aprendizaje de las dichas tres lenguas. No hace falta decir que los proverbios o sentencias vascas que figuran en él no son recogidos del pueblo, sino traducciones del texto español o francés”. Irakurlearen jakingarri esan dezagun aintzin-lumeruak ez direla horrialdeenak, galderenak baizik. Horrela errazago arkitzen baita eta edozein ediziñotarako balio baitu.

23. Iainkoak DIGULA grazia sarri ikusteko, egia da Piarres hil dela? (= dizai-gula). Osorik: “eman dizaigula”.

27. Eztuzula (= eztezazula) hartaz ansiarik, baiñan ekar DIETZADAZU aha-lik lasterenak (= zaizkidazu).

28. Orhoit zaite Simón'i erraitera ihardets DIEZADAN eta eskriba DIEZA-DAN maizago, egiñ duen baiño lehen denboran (= dizaidan).

29. Jainkoa(k) DIZULA biaje ona egiteko eta bihurtzeko grazia (= dizaizula). Hots: “eman dizaizula”.

42. Nahi duzu zerbait erran DIOZADAN? (= dizaiodan).

57. Jauna, othoi egiten derautzut konarazi DIAZADAZU ehun eskutuak zeñ nauziak (nausiak) prestatu baiterautzu (= zaidazu). Aditz joko honek pluralean behar luke eta ez singularrean. Hots: DIATZADAZU (= zaizkidazu).

76. ESTIZADAZULA (= ez DIZADAZULA) karestiregi sal (= dizaidazula).

76. Zerbait ezkein (eskein) DIEZADAZUE (= zaidazue/zaidazute).

81. Neur DIEZADAZU resta hau (= zaidazu).

92. Har DEZADAZU neurria (= zaidazu).

99. Pierres jauna ene nauzia (nausia), zure Señoriaren eskuei muzu (musu) egi-ten du, othoitz egiten derautzu haiñ berze ohore egin DIEZAZUN haren etxera etor zeiten baraskariaren (barazkariaren) harzera (= dizaizun).

Oharra.—Alderdi batetik, *-(e)za-* aditz-erroaz baliatzen ez diren *digula/dizula* subjuntibo boko jokaerak ikus ditzakegu. Bestetik, *-(e)za-* aditz-erroa darabilenean, *i + (e)za* jatorrizko formaz baliatzen da eskuarki: *d-i-eza-dan*, *d-i-e(t)za-dazu*, *d-i-eza-dazu*, *d-i-eza-zun*, *d-i-eza-dazue*. Behin: *i + aza* (diazadazu); beste behin *i + za* (dizadazula); beste behin *e + za* (dezadazu), eta behin ere *i - (o) - za* (diozadan).

II. JOANES ETXEBERRI ZIBURU'KOA

“NOELAK ETA KANTA ESPIRITUAL BERRIAK”

(Testu zaharraren berrikusia, sarrera ta oharrak egin ditu Lino Akesolo'k. Argitaratza-ilea: “Sociedad Guipuzcoana de ediciones y Publicaciones, S. A.” de la Real Sociedad Vascon-gada de los Amigos del País y de la Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Liburu hau Donosti'ko Izarra Irarkolan inprimatu da Aranburu'tar Xabier'ek zuzenduta 1970-ko Egube-rritarako. Liburu honek 9 edo 10 inprimaldi izan ditu eskuartean daukagunaren aintzinetik).

Joanes Etxeberri Ziburu'koaz ezer gutxi dakigu. Bere liburutan “doctor teologoa” zela dakar; beraz, jakinduriko gizona. Hiru liburu argitaratu zituen, hirurak erlejiño gaiezkoak eta bertsotan idatzita, berak diogunez euskaldunek bertsotarako duten griña bereiziari erantzunik. Liburuen izenak hauetxek dira Villasante'k dakarrenez: “Manual Devotionezcoa”, Bordele, 1627; “Noelac eta berce canta espiritual berriac Jesus Christoren biciaren misterio principalen gañean eta sainduen ohoretan besta buruetacotz”, Bordele, 1631; “Elicara erabiltecoo libu-rua”, Bordele, 1636. Jaiota eta heriotza urterik ere ezutgu ezagutzen.

19. Zeru-lurrek DIOZOTEN bethi elkharri ihardats (= dizaioten), hots, haiek hari.
19. Molda DIETZAGUTZUE, arren, geure mihiak (= zaizkiguzute).
19. Bihur DIEZAZUEGUN laudorio doblea (= dizaizu(t)egun).
30. O Jesukristo, Profeta sailduz agindua, balia DIEZAGUZU zeure iauste saildua (= zaiguzu). Arren, bada, Iainko gizon gure gatik sorthua, balia DIEZAGUZU zeure sortze saildua (61).
36. Gure mihiak kanta BIOTZO haurrari eresia berriak (= bizaizkio).
48. Eta DIETZADATZUE laster bidal postean (= zaizkidazu(t)e).
99. Eta DIETZAKIDATZU barkha neure hobenak (= zaizkidazu).
104. Zuk haiza DIEZADAZU infernuko belea (= zaidazu); ardiats DIEZADAZU hala-faborea (148); ungi bizitzeko ardiats DIEZADAZU grazia (150); ardiats DIEZADAZU fiñ on baten dohaiña (155).
104. Eta errenda DIOZODAN (Jesus'i) esker ahal egiña (= dizaiodan).
106. Nola aingeruak manatu zituen Apostoluei berria ekhar ZIEZEN (= zizaien).
120. Begira DIEZEZUE eskutan tudan gauzei (= zaiezute?).
120. Ezin eman ZINIEZEKEN, Iaun noblea, ioiarik zeure gorputz saildian baiño pre-tiatuagorik (= zenizaieke(a)n). Apostoluei, alegia.
131. Ardiats DIEZAGUZUE ahal faborea (= zaiguzu(t)e); ardiats DIEZAGUZUE eske-gauden grazia (131).
132. Barkha DIETZETZU pena hobenek mereziak (= zaizkiezu).
133. Labur DIEZEU, Iauna, arren, bere ephea (= zaiezu); Egin DIEZEU, Iauna, othoi, fabore hura (133); Isur DIEZEU zeure graziaren ihintza (133).
133. Isur diezeu zeure graziaren ihintza, su beroaren DIEZEN iraungi khar bortitza (= dizaien). Alegia, su beroaren khar bortitza iraungi diezen.
133. Manatzatzu, othoi, hekin aingeru guardariak, ekhar DIETZETEN (purgatorioko arimei) bere librantzaren berriak (= dizaizkieten).
133. Eta DIETZAKITZUTEN presenta aitzinean, pagurik lauda zaitzaten dohatsuen artean (= dizaizkizuten). 133'gn. horrialdeko adigarri guziak eta 132'koa, purgatorioko arimei buruz dira, hots, “Purgatorioko arimentzat othoitza” deritzan bertso-bildumatik atereak dau-de.
142. Iainko Seme, enegatik gizonegin zifena: ezin bihur DIEZAKEZUT laudorio zuzena (= dizaiezut/dizaizuket).

Oharra.—Ikus dezakegunez, Etxeberri Ziburu'koak, pluraleko hirugarren pertsonaren datibo ezaugarri bezala “e” darabil “ote”ren orde. Horrela, “ziezen”, “diezeue”, “zinieze-ken”, “dietzetzu”, “diezeu”, “diezen”, “dietzetzen”. Jokabide burutsu honen bidez zenbait nahaspil bazterzen da.

III. JEAN HIRIART-URRUTY

“MINTZAIRA, AURPEGIA: GIZON!”

(Aintzin-solasa: Piarres Lafitte. “Jakín” liburu sorta (2). Zuzendari: Joseba In-txausti. “Jakín”-historia saila. Buru: Koldo Larraínaga. Jean Hiriart-Urruty-ren liburu hau Baiona’ko “Ikas”ek eta Arantzazuko “Jakín”ek elkarrekin ematen dute argitara, ipar eta hego Euskal Herrian batera heda dadin. Ed. Franciscana Aránzazu. Izarra irarkola-Peña y Goñi, 13. Donostia.)

Jean Hiriart-Urruty (1859-1915), Hazparne’n jaio zen. Apaiz-ikaskuntzak Larresoro’n eta Baiona’n egin zituen. 1881’ean Larresoro’ko seminariko irakasle izendatua izan zen. Urrengo urtean apaiztu zen. “Eskualduna” astekariaren zuzendari eta eragile sutsu izan zen beronen hasieratik heriotzak jo zuen arte gure apez gudu-zalea. Bere euskal-lana albistaritza egin zuen. Villasante’k dio belaunaldi baten mai-xu izan zela eta Lafitte’k dionez berau izan dugu Ipar-Euskalerrria’n belaunaldi berri-ko euskal-idazleen formatzaille benetakoa. Bere albistaritza lanekin “Jakín liburu Sorta”k bi tomo argitaratu ditu: “Mintzaira, Aurpegia: Gizon!” eta “Zezenak Erre-publikan”.

48. Jainkoak begira DEZAUKULA (= dizaigula) dugun erlisionea!

50. Eta nehork ez ZEZOKE burutik ken (Christophe Colomb’i) harat joaite-ko xedea (= zizaiokean).

70. Jainkoak DEZOTELA eman berekin bertze munduan hemen Elizarentzat ezin ardietsi duten bakea (= dizaiela). Harek haiei.

71. DETZOTELA eman halaber heien ondokoeri, bakerik ez dutenaz geroz, gerlaran jasaiteko behar dituzten ergiak eta laguntzak! (= dizaizkiela). Jainkoak haiei.

78. Norbeit senda baneza nik nere eskuz, berehala jaun mediku horiek *proze-berbal* bat egin LEZAKEDATE (= lizaidakete).

82. Gaizki mintzatu bada ere, nehork ez DEZOKI erran, ez dela bederen *gar-biki* mintzatu (= dizaioke).

92. Anartean, ez ZEZOKE TEN eman holako gizonari etsaiek nahigabe mina-gorik, nola bere sor-lekuaren gal-araztea (= zizaioketen). Hots, “haiek” “hari”, etsaiek gizonari.

97. Lore bat badakar mahats horrek xoragarria, bainan arno egiteko ez ZINE-ZOKE eman bi ardit! (= zenizaioke).

127. Arrota’ko (Arrueta = Arraute, Nafarroa-behereko hiria) auzapez dohakabearen adixkide edo ahaide hurbiletan balitz nor edo nor, *bera hobendun ez delarik*, hartaz erran behar izan ditugun egia latzek bihotzean zimiko egin diotenik, barka DEZAGULA (= dizaigula).

145. Jainkoak eta “Eskualdun Ona”ren irakurtzaleek barka DEZAGUTELA (= dizaigutela).

172. Aipatzen ere ez zuen Doniane'n (Doniane Garazi) sortua zelakorik, eta haren berri dakitenek diotenaz, ez omen zuen laket, bertzek aipa ZEZOTEN ere sor-herria (= zizaioien). Haiek hari.

177. Duela zonbeit hilabete, beldurturik burua har ZEZON paralesiak, nahi izan zituen, zer gerta ere, hiltzerako eginbideak bete (= zizaion).

178. Adixkidea, maite zaitut, eta EZTEZAKEZUT froga hoberik eman, galdatzea baino etzinukenez nahi, zer gerta ere, kofesio on bat egin?... (= eztizaizuket). Osagarriak: ez dezakezut (= ez dizaizuket).

186. Ama, zertako zoazi hoin maiz gizon dohakabe horren ikustera? Nik ez DEZOKET beha (= dizaioket).

199. Eta zeri berma ere balukela ostiko bat begitartera kask eman LEZOKEN etsaierik azkarrenari eginarazteko buruzkain itzulipurdi (= lizaioke(a)n).

200. Bertze begiz beha LEZAGUKETE (= lizaigukete).

208. Eskuara ezta dioten bezen itsusi ez izigarri. Denarentzat ezagutzen bazi-nute, laguntza onik egin LEZAKEZUE, zuen sehien eskuratzeko, bidatzeko, zaintze-ko baizik ezpaltiz ere (= lizaizukete).

210. Eskuararen ez ikastea, gure auzo gurekin hainbertze egiteko duketenen-tzat, beren buruen asko errextasunez gabetzea da, ikasteak berak eman LEZOKE-TEN atsegina bertzalde (= lizaieken). Ikasteak haiei.

213. Eztugu zeren deus hanbat igurik eskualtzale jakintsun arrotzetarik ere. Hoberenek aitorturen dautzute, deus eztezaketela, edo deus kasik ez, gure laguntze-ko eskuararen begiratzen; deus baino gutiago, beren gain utz BAGINEZOTE (= ba'-genizaie).

213. Auzoek eta adixkidek, egin DEZOKETENA, lanaren errexta (= dizaie-ketena?). Ezta garbi-garbi ikusten baiñan badirudi “auzoek eta adixkidek” “eskual-tzale jakintsunei” dela, hots, haiek haiei.

214. Kuku Eskualdun uzkurak; eskualduntasunaz ahalgeturik, beren herriari eta mintzaiari giblez edo sahetsez itzuliak; zaharrek utzi on guziekin eskuararen ehorzteari esku eman LEZOKETENAK (= lizaioketenak). Hots, haiek harri, “es-kualdun uzkurak” “eskuararen ehorzteari”.

219. Eskuara hunen ohiko goiti-beheiti, xoko-moko guziak ezagutu nahiz dabiltzanei bertze laguntza handirik egin ezpa DEZOKETEGU, erakuts bederen esker on gehixeago (= ezpa'dizaiekegu).

“ZEZENAK ERREPUBLIKAN”

(Antologi-biltzaile: Piarres Lafitte. “Jakin” liburu sorta (4). Arantzazu-Oñati. Gaiñerako xehetasunak berdin. Ez liburu honek eta ez aurrekoak eztakarte inprimaldi urtea).

36. Galdatu zion beraz emazte geiak gizon-geiari, harekin ezkontzekotz, egin ZEZOILA (= zizaiola) lehenik atsegin bat. —Baietz, gogotik, harek egin zezakeena

balinbazen. —“Zer nahi duzu egin DEZAZUDAN? —Beharko zira ibili zenbeit egunez eske. —Ni eske? —Ba, zu eske; edo ez gira ezkonduko” (= dizaizudan). Ori, adixkidea, berehala erran DEZAZUDAN (= dizaizudan), zerbeitxe baino nahiago nuke, zu eta ni, iragan egunetan elgarrekin ibiliak bagine (49).

38. Galda DEZODALA, ez badut sinesten, Ximun'i eta bertze askori (= dizaiodala).

66. Laborari etxaldeen erraiten dudana bardin erran DEZAKEZUT bertze edozoin etxez (= dizaiketut). Jauna, ez DEZAKEZUT erran (72). Gipuzkeraz “dizaizuket” ere esan ohi da.

71. Jainkoak DIZULA egun on. (Idikaticboko adizkera subjuntibo bezala erabili. Subjuntiboko “dezazula”ri dagokio, gipuzkeraz “dizaizula”).

89. Hura baino anitzez hobea izanen dela buruzagi berria, erran DEZAKEZUET; bi begiak hetsirik (= dizaizuketet).

100-101. Egun hautako berria da: gobernamentuak ministro baten ahoz eskolatako fraideen buruzagi lehenari galdatu diozkala zenbeit fraide otoi, *otoi* igor DITZON Madagascar delako Frantziak berritan beretu leihor handi hartako haurren altxatzeko (= dizaizkion). Apika “zenbeit”ekin DIZON hobeki legoke (= dizaion), esaera mugatugabea baita.

127. Jaun erretora bertzetarik bazter, otoitzean. Hari buruz doa lehenik xapela eskuan kontrolura; idek DEZON eliza (= dizaion).

127. Badoa (kontrolura) jendeari buruz; idek DEZOTEN. Ezetz orok (= dizaioten). Hots, jendeak kontrolurari, haiek hari.

127. Oro mintzo ziren azkenean; eta orok ezetz. Izkribuz eman ZEZOTELA (kontrolurari) beraz eza (= dizaioleta), hots, haiek hari, jendeak kontrolurari.

138. Bakotxak bere berri daki; nik neure. Ala nahuzue aitort DEZAZUETADAN egia? (= dizaizut(edan)). Hots, nik zuei.

179. Bainan ikusiko duzue, luzamen handirik gabe, ez baitute utziko nehor nehora bizitzera (1) erlisione horrei erakats LEZOKETENIK (= lizaieketik). Apika “lizaieketik”, baiñan eztut uste.

Oharra.—Hiriart-Urruty'k, Joanes Etxeberri'ren eskolari jarraituz, ziozak = zezoken egiten du, diozatela = dezotela, liezakedate = lezakedate, ziozaketen = zezoketen, ziniozake = zinezoke, diezagula = dezagula, diezagutela = dezagutela, ziozaten = zezoten, ziozan = zezon, eztezazuket = eztezazuket, diozaket = dezoket, liozak = lezoken, liezagukete = leza-

(1) Testuan “bitzitzera”, baiñan badirudi hutsegitea dela.

gukete, liezazukete = lezakezue, liozaketen = lezoketen, baginiozate = baginezote, diozaketena = dezoketena, liozaketenak = lezoketenak, ziozala = zezola, diozadala = dezodala, diezazudan = dezazudan, diezazuket = dezakezut, diezazukete = dezakezuet, diozan = dezon, ziozabela = zezotela, diezazuedan = dezazuetadan, liozaketenik = lezoketenik. Hontaz gaiñera, behin bederen Lafitte'k salatutako “dezaukula” monstrokeria darabil bere sistemako “dezagula”ren orde (= diezagula, gip. diza(i)gula). Hiriart-Urruty'ren erabil-legeari ez derizkiogu egokia “i” datibo ezaugarria gal-erazten duelako. Irakurlea ohartuko da ere noski lapurteraz zer nahastea sortzen den “diozate”, “diozakete”, “ziozaten”, “liozakete” eta tankerako formakin. Alegia, berdin izan ditekela “haiek hari”, “harrek haiei” edo “haiek haiei”.

IV. JOANES ETXEBERRI

“JOANNES ETXEBERRI SARA KOAREN LAN HAUTATUAK” (KRISLU-21)

(Lan Hautatuak (euskal klasiko). J. Etxeberri Sarakoa. Lur Editoriala. 1972 - Otsaila. Xabier Kintanak moldatuak. Villa Zutik, P.º Arbola, Donostia. Inprentatzen du Juanma-k. Av. Ametzagaña, 13. Donostia. D.L.S.S. 127/72).

Joanes Etxeberri (1668-1749) Sara'n jaio zen. Badirudi Pabe'ko jesuitetan edukatua izan zela. Dena dela, medikutza Frantzia'n estudiatu zuen eta Maria Itsasgarate'kin ezkondu zen, familia luze bat haziz. Sara'n bertan eman zion hasiera medikulangintzari, baiñan 1716'an Bidaso'ko Bera'ra aldatu zen. 1722'an Odarribia'ko sendagille izendatu zuten eta 1725'ean Azkoitia'n ekin zion bere ogibideari. Joanes Etxeberri'ren seme bat, Agustin, Mutriku'n egon zen mediku eta Villasante'k dionez, seguru aski bera izan zen Zarauz'ko Antxikotarren eskuetan utzi zituen bere aitaren lanak. Zarauz'ko komentuko esku idazkiok, tomo bikain batean argitaratu zituen Julio Urkijo'k Paris'en, 1907'an (“Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri”). Nik ediziño hau etxean edukiarren, lan honarako “Lur-Kriselu”ren ediziñoaz baliatu naiz, ediziño hau ene aditz-bilduma egiten ari nintzen garaian atera zelako eta pentsatuz gaiñera irakurleak hemen errezago konsultatu ahal izanen duela Urkijo'renean baiño, zeharo akitua baitago hau. Lau obra utzi zizkigun Etxeberri'k: 1) “Lau-Urdiri Gomendiozco Carta edo Guthuna”, Baiona, 1718. 2) “Laburdiri escuararen Hatsapenak” edo beste izenez “Escuararen ethorquia”. 3) “Escual Herri eta Escualdun guztiei escuarazco hatsapenak latin ihasteco”. 4) Euskal-Latin-Frantses-Español hiztegia. Aita Larramendi'k bere eskuetan erabili zuen hiztegi hau, baiñan Zarauz'ko esku-idazkien artean etzen azaldu. Orain artean galdutzat jo baldin ba'da ere, Xabier Kintana'k uste du hiztegi hau Julio Urkijo'k Sbarbi jaunari erositakoa dela (Lan Hautatuak, 10 hor.).

25. Erakuts DEZOU mundu guziari zure zuhurtzia (= zaiozu).

38. Zerenetariak ezin ediren baitzetzaketen berbo pasiboari justuki erantzun ZEZOKION sinifikantzarik (= zizaiokean).

58. Arrazoinak, eta oraino naturalezak berak ere onhesten du, bentzutuek amor eman DEZOTEN garaitiarren usantzei, hazturei, eta egiramuei (= dizaieten). Hots, “haiek” “haiei”.

77. Egiazki hemen Marianak aurthikitzen dio eskualdunari, aurthik ahal ZEZOKEEN harri ukhaldirik borthitzena, edo ahaphaldirik gogorrrena (= zizaiokean).

136. Eman DEZON (Axular'i) bere hautuentzat preparaturik dadukan bakhezko lekhu (= dizaion): Eta lehen bai lehen egin DEZON (= dizaion) garazia entzuteko bozkariozko berria.

158. Gisa hunetan egiten dute saltsa hanbat saltsakari diferentz aphaindua, eta hain zaphore gaitzetakoa, non mundun den sabeldarraiorik handienari ere eman BAITEZOKE higuintza, edo goragalea (= baitizaioke). Osagarriak: bait-dezoke (= bait-dizaioke). Zeren batak bertzeari ezin adiaraz BAITEZOKE, zer duen bere gogoan (277).

208. Beretzat (berentzat) eztakitenek, nola erakuts, ahal DEZOKETE? (= dizaiekete). Badirudi "eztakitenek" "besteei" dela eta ez "besteari" (= dizaio-kete).

212. Hargatik bada EZTEZOZULA beha xoilki ene obra huni (= eztizaiozula). Osagarriak: ez dezozula (= ez dizaiozula).

282. Baldin arima gabe diren gauza soinu egiten dutenek, edo dela xiolak, edo manjurak ez baDEZOTE eman soinuei mudantzarik, nola ezagutuko da, zer kanta suerte den xirola xistua, edo manjura soinua? (= ba'dizaiete). Hots, "haiek" "haiei", soifugailuek (gauza soinu egiten dutenek) soifuei.

290. Galdegin BETZO eskuarazteko zenbait perpaus, latinez ihardesteko, eskuara latinera ganbiaturik (= bizaizkio); edo bertzela eman BETZO (idem.) zenbait autor, edo liburu latinezko eskuaraz esplikatze. Ene ustez, bi kasuotan "zenbait"i erantzunaz BEZO (= bizaio) hobeto legoke, esatera mugatugabeak aditza singularran eskatzen baitute eta ez pluralean.

Oharra.—Aixa ikus dezakegunez, Etxeberri'k Lapurdi'ko irabiakera tradizionala urratzen du "io" ezaungarria "e" bihurtuz eta era hontan datiboaren "i" ezaungarria suntsitu-aziz. Honela, "diozozu" = "dezozu" egiten du, "diozoten" = "dezoten", "diozon/diozan" (diezon) = "dezon", "diozoke/diozake" = "dezoke", "diozokete" = "dezokete", "diozozula" = "dezozula", "badiozote" = "badezote" eta "biotzo/biotza" = "betzo". Badakigu laburkera lege natural bati jarraitzen egin zuela eta seguru aski garai hartako euskal-mintzoan (alegia, kalekoan eta base-rrikoan) oiñarriturik, baiñan uste dut idazterakoan hobe zuela literatur tradizioari jarrai, adizkerak gramatikaren arabera itxuragabetu gabe. Etxeberri'ren ondorengo belaunaldiek aixa onartu zuten, ondikotz!, usadio berria.

V. "GUDU IZPIRITUALA"

(Geinetan aurkhitzen baitdire pasioneen bentcutceco eta bicicen garaitceco moyenic hoberenac eta segurenac. N.I.D. Donibane Lohitxuco Jaun Apheçac berrio Escuararat itculia. Saltcen da Bayonan, I. M. Cluzeau, liburu eta paper marchantaren baithan, Cathedralecò Plaçan, n.º 13. 1827).

Guk erabili dugun “Gudu Izpirituala”ren ediziñoa, goian diogun bezala, 1827’koa da eta itzultzailearen izena (Scupoli’ren obraren itzulpena baita), N. I. D. letra haskitetan gordetzen zaigu. Villasante’k ez tigu ediziño honen berri ematen. Lehenengo Frantzia’ko Tolosa’n atera zen 1750’gn. urtean. Ediziño honek itzultzailearen ezaugarri bezala letra hauek omen dakarzki: Nl. Ih. Dr. Daranatz’ek jakin-erazten digu bazela aldi hartan Donibane-Lohitsu’n (hala dakar hiri honen izena) apaiz jaun bat Noel-Josephe Duvergier izena zuena. Bi ediziñoen egille-letra ezaugarriak izen honekin bat datoz: 1750’ekoa, izen bakoitzaren aintziñeko eta ondarreko letrak bilduz eta 1827’koa letra haskiñak erabilliz soilki. Beraz, eztut uste liburu honen egilleaz zalantza izpirik izan behar gendukeanik. Bestalde, Villasante’k dio, Haraneder’ek 1749’an argitaratu zuen “Philotea”k eta “Gudu Izpirituala”k, luma berberak sortzea emandako aizpak diruditela. Gaiñera, “Philotea”n iragartzen omen da “Gudu”ren argitaratzea. Guztihau gogoan harturik Lafitte’k uste omen du bi obrak Haraneder’-enak direla, baiñan Duvergier’ek argitaratzen lagundu ziola eta beharbada azken-ikutu bat eman bide zion. “Berriro eskuararat itzulia” dionean, Silvain Pouvreau’k ehuntsu urte lehenago (1665) egin zuen itzulpena aditzera eman gura du, noski: “Lehen itzulia izatu da eskuarara; ordean eskualduna ez zen itzultzaile batek egin ohi zezakean eskuara gaitz eta arranyu gabeko batera; eta ordukoan ez ziren hogoi eta hamahirur kapitulu baizen; huntan aurkhituko dituzu bietan hainbertze”. Zer esan bi obra hauen senidetazunaz? Ene iritzi apalean “Philotea” euskara landuago eta garbiago batean idatzia dago “Gudu Izpirituala” baino eta bestalde 1827’ko ediziñoan argi ta garbi dio N. I. D. (Noel-Joseph Duvergier) Donibane Lohitsu’ko jaun apezak eskuarat itzulia dela. Hau dela-ta nik hobeto uste dut Duvergier izan zela “Gudu Izpirituala”ren idazlea eta Haraneder’ek, idazle goragokoa zenez, maixu gixa, gain-begiratu bat eman eta behar beste ikutaldi eta zuzentze egin bide zizkion. Ezkaitezen harritu bada, Haraneder’ek parte hartu baldin ba’zuen Duvergier’en liburuan, hau laister ateratzeko zutela aditzera ematea. Honela dio Yoanes Haraneder’ek “Philotea”n: “Ordean Saindu handi haren sentimenduak eta izpiritua eskaldunek hobeki ezagut dezatentzat, promes ematen zaye, hunen ondoan berehala, emanen zayotela “Gudu Izpirituala” deitzen den liburutto bat”. Haraneder’ek eztizu bere burua agertzen liburu honen egilletzat, baiñan badirudi argitaratze eginkizunean parte hartu zuela. Beraz, ene iritzia Aita Lafitte’ren besterakoa da, alegia, Duvergier izan zela idazle eta Haraneder laguntzaile. Gaiñera, Haraneder’ek oso-osorik ematen du bere izena “Philotea”n. Zer interes izan zezakean bada urtebete geroago ezkutatzeko? Hobeto dirudi Duvergier zela lotsakor edo herabe zegoena bere izena osorik azaltzeko bere buruari idazle kaxkar iritiziz.

VIII. Zeronek aplikatzen DIETZAKIDATZUN... fruitu eta progotxu guziak (= dizaizkidazun).

IX. Ezagutza humil batekin ofritzen DIEZAZUDAN Biktima Saindu hau (= dizazizudan); ofritzen DIEZAZUDAN ene bihotza (162); arroba DIEZAZUDAN (170-171); galde DIEZAZUDAN (231).

XI. Zer sokhorri efetuzkoagorik eman ahal othe DIOZOKETET (= dizaieket). Ahaide, adiskide eta ongille batzuez dio.

XII. Bainan, ó miserikordien Jainkoa! egun idek eta eman DIOTZOTZUTE zure Semearen satisfakzioenen tresor ezin akhitzuzkoak (= zaizkiezu); barkha DIOTZOTZUTE (Jauna) eta errezihi zatzu (itzazu) zure hautatuen nonbrean (kopuruan) (294).

XII. Aurrkhiaraz DIOZOZUTE (ó miserikordien Jainkoa!) bere (beren) zor guzien pagatzeko moyena (= zaiezu); Adora zazu Jainko Seme, Gizon egina: eta bihur DIOZOZUTE halaber haren Ama sainduari eta Gabriel Arkanyeluari merezi duten ohorea (125); Beha DIOZOZUTE zure penei (263).

XIII. Aplika DIETZAGUTZU (= zaizkiguzu); zuk gure gaizkiak barrkha DIETZAGUTZU (XXIV).

XIII. Ager DIOTZOTZU Jainkoari zure flakeziak (= zaizkiozu); indarrak eskasten bazaizkitzu, galde DIOTZOTZU Jesus gure Salbatzaileari (76); Nekhe eta trabailu hauk gorde DIOTZOTZU zure buruari (103); ongi guzien Aita liberal hari akzione errespetuzkoenak errenda DIO(T)ZOTZU (124). Hutsegitez (T) falta zaio. Errenda DIOTZOTZU (124). Hutsegitez (T) falta zaio. Errenda DIOTZOTZU ondoan esker onezko milla akzione Miserikordien Aita huni (142); garbiki deklaratu DIOTZOTZU zure Aita izpiritualari (146); erran DIOTZOTZU hitz hauk (282).

XIX. Barkha DIETZAKIDATZU ene ofentsak (= zaizkidazu); Barkha DIETZAKIDATZU ene bekhatu guziak (XXV); Ager DIETZAKIDATZU, Jauna, zure aintzinerari (326); Barkha DIETZAKIDAZU (350 eta 351); aplika DIETZAKIDATZU zure Biziazen eta zure Heriotzearen merezimenduak (359); barkha DIETZAKIDATZU ene bekhatuak (363).

XX. Nola deus errefusa ahal othe DIEZAKEGU? (= dizaikegu); hark bakharrik ardiets araz DIEZAKEGU bitoria (17)...

XXII. Egin DIEZADAZU horren merezimenduak ene gainera yaute arazteko Grazia (=zaidazu); zure Aitaren baithan Grazia ardiets DIEZADAZU (XXIV); erakuts DIEZADAZU (326); Khen DIEZADAZU begietan emaiten darotan estalkia (327); barkha DIEZADAZU (335); eman araz DIEZADAZU (342); ene erraizen funtseraino erreberri DIEZADAZU inozientziaren izpiritua (351). Ahazturik: XII. Permitti DIEZADAZU.

XXII. Ofri DIOZOZU bere Aita Jainkoari (= zaiozu); Begira DIOZOZU zenbait aldiz urrundik (XXIII); Presenta DIOZOZU, diot, zure izpituari monstro furios hura (78); Presenta DIOZOZU (79); Gero beha DIOZOZU gurutze hari berrari (86); Bainan ager DIOZOZU garbiki (98); ofri DIOZOZU zure bihotza (124); errenda DIOZOZU Jainkoari (171); presenta DIOZOZU Aita Eternalari (284); bihotzari yunta DIOZOZU othoitz bokala (300); Xoilk markatu DIOZOZU (309); galde DIOZOZU (324); yunta DIOZOZU (324); beha DIOZOZU zure buruari (354).

XXIV. Ez DIETZAKIGUTZULA errefusa neurrimendu arimakoak eta gorputzekoak (= dizaiakigutza). Hutsegitez, noski, "neurrimendu" dakar.

XXVIII. Eta ene ahal guziak ez dut ixurtzera utziko ez hitzik, ez obrarik, ez dut formatuko ez desirarik, ez pentsamendurik, entzun dudana Mezaren fruitua gal araz DIEZAKEDATENIK (= dizaidaketenik).

17. Berak eman DIETZAKITZULA argi egiazkoak (= dizaiakitzula).

37. Ez DIOZOGULA eman libertate guti baizen gure izpituari (= dizaiogula); ez DIOZOGULA permeti (37); ez DIOZOGULA gure bihotzari permeti (43).

37. Ez DIOTZOGUTELA behinere beharriak idek, dabilzan berriei eta habarrotsei (= dizaiakiegula).

38. Ezen haren diszipulu egiatzko direnek, ez diote bertzerik galdetzen, baizen eman DIOZOTEN zenbeit laguntza, bera ongi zerbitzatzeko (= dizaiei); Mundutarrak hastantzen dute bereganik, ithotzen dute bere baitan pentsamendu hau (“Herioaz” mintzo zaigu), beldurrez gal araz DIOZOTEN lurreko gauzetan hartzen duten atsegina eta gozoa (311).

47. Permetiturik norbaitek lan hura utz araz DIOZAN (= dizaion).

48. Ifernuari ihes egin DIOZOGUN (= dizaiogun); ofri DIOZOGUN Jainkoa-ri desira berri hura (138); Hortarik ezagutuko dugu zer manieraz nahi duen marka DIOZOGUN harentzat dugun ezagutza (289).

104. Gerla egin DIOZOZUN (= dizaiozun).

109. Ez DIOZOZUTELA sobera libertate utz zure sentsuei (= dizaiezula). Eztakit “sentsuei” ala “zentzuei” irakurri behar den.

110. Ez DIOZOZULA objet hari beha kanpora agertzen duen aldetik (= dizaiozula); ez DIOZOZULA horrengatik enplegu harri ukho egin (197); ez DIOZOZULA horren gainean errepustarik eman (314); ez DIOZOZULA haren laguntzari beha zure merezimenduen sari bati bezala (319). “Beha” deduziñoz atera dut, hitzaren erdia pipiak jana baitago.

113. Ezin esplika DIEZAZUKET ene bozkarioa (= dizaizuket); Zergatik ezin ihardets DIEZAZUKET! (356); nola bihur ahal DIEZAZUKET (357).

114. Ez dela Kreatzailea baizen... hain gozo zaitzun gostua eman ahal DIOZOKENIK (= dizaiokenik); bere estatu ondikozkoa ezagutaraz DIOZOKEN guzia (147).

132. Ixiltasuna gudu izpirituean laguntza handi bat da; eta hau guardatzen dutenek bere (beren) buruei agin DIOZOKETE bitoria eramanez dutela (= dizaieketek). Inprentako hutsegitez “egin” agertzen da “agin”en orde. Gero: Hauk guziak ongi praktikatzeko artha izanzen duten Gristinoek bere (beren) buruei agin edo prometi DIOZOKETE (162). Berriz ere “agin”en orde “egin” jartzen du. Geroxeago birritako hutsegite hau zuzendurik agertzen da: Hainek, diot, bere (beren) buruei AGIN DIOZOKETE (163); (Guziek) ongiak egin diotzokete gaizkirik handienak egiten dioztenei; eta hutsik xumeenei ihes egin DIOZOKETE (216). Adigarri hauetan beti “haiek” “haiei” da, hots, “dizaieketek”. Eztut jaso ahal izan ordea “harrek” “haiei” (gip.: dizaieke). Berdin ote?

138. Errekeri dezagun, arren ezagut araz DIEZAGUN, ea haren ganikakoa den, ala Sathanen ganikakoa (= dizaigun); egin araz DIEZAGUNTZAT (Sathanek) zenbeit huts handi eta ahalkagarri (214).

140. Berthutea higuin araz ba'DIEZAGUKETE (= ba'dizaigukete).

142. Barkha DIETZADAZU ene hoben guziak (= zaizkidazu).

163. Ala desira hau Jainkoak inspira DIOTZOEN (= dizaizkion).

164. Gal araz LIOZKE bere merezimendutik gehiena (= lizaioke).

182. Bakharrik eta xoilki, zure ahalaz, ihes egiozute, lohikeriazko tentatzionei bide eman DIOZOKETEN gauza guziei (= dizaieken). Hots, ihes egiezu “zuk” “haiei”.

189. Nork bere buruari goiz guziez proposa DIOZON (= dizaion).
197. Zaren bethi dispoziotionean, gehien pena egin ahal DIEZAKEZUN guzia sofritzera (= dizaizezun).
198. Ez diote (die) ihes egin behar trubleak eta khexagunak kausa ahal DIO-TZOKETEN gauza guziei (= dizaizkieken).
216. Ongiak egin DIOTZOKETE gaizkirik handienak egiten dioztenei (= dizaizkiekete). Hots, "haiek" "haiei".
227. Eskerronezko akzioneak bihur DIOTZOGUN (= dizaizkiogun); yustu da beraz errenda DIOTZOGUN bethi eta bethi eskerrak (288).
227. Erran ahal DIOZOKEGU (= dizaiokegu); Jainkoari egin ahal DIOZO-KEGU otoitz haxe (231).
227. Ez DIEZADAZULA errefusa (= dizaidazula).
229. Zeren Guziz Botheretsuak ezin deus errefusa baitDIOZOKE (= dizaioke); zure Salbatzaileari ezin damurik egin DIOZOKE (321).
230. Nahiz akorda DIETZAKIGUN gure galdeak (= dizaizkigun).
231. Fagore hori galde DIEZAZUDAN (= dizaizudan).
235. Zeinek pazientziaren amodioa eman baitDIEZAZUKETE (= dizaizuke-te); zeinek orduan egin ahal baitDIEZAZUKETE penarik gehiena (312).
236. DIZULA pazentziatzko berthutea (= eman dizaizula). Alegia, "u" aditzerrodon adizkia, subjuntibo eran erabillirik. Badakigu, antziña idikatibotasuna edo subjuntibotasuna etzutela aditzerroek aditzera ematen, "-(e)la" eta "-(e)n" atzizkiak baizik. Beraz, "u" aditzerrodon adigarri hau ematen dugu "za"ren ordezkia egiten duelako.
239. Arren, eman DIEZAZUN indarrak aski zure etsaien, eta beregainki presentean gerla krudelkien egiten darotzunaren bentzutzeko (= dizaizun); ardiets DIEZAZUNTzat harengatik sofrikari hetaz progotxatzeko grazia (241).
244. Leyaltasunaren eta amodioaren gatik eman DIEZAZULA nezesario duzuna (= dizaizula).
246. DIZUTELA ararteko partikulartzat San Ioseph (= eman dizaizutela). 236'garrenean (dizula) esandakoak oro balio du hemen.
265. Zer laguntza eman ahal DIEZAZUKEN Aldareko Sakramendu Sainduak (= dizaizukun).
272. Baldin nahi baduzu aldareko sakramendu sainduak eman DIETZAKI-TZUN Jainkoaren alderako sentimenduak, orhoit zaite hark zuretzat duen amodioaz (= dizaizkizun).
288. Grazia berriez borthiztua izan ondoan kurayoski kontra egin DIOTZA-TEDAN ene etsaiei (= dizaizkiedan?). Badirudi DIOZATEDAN izan behar lukela (= dizaiedan).
292. Batzuetan Jainkoari, egia da, ofri DIOTZOKEGU gure buruak (= dizaiz-kiokegu).

292. Adora zagun haren Probidentzia, eta itsuan sumeti gakizkoten haren Ordenei. Sakrifika DIOTZOTZIGUN gure inklinazione eta afekzione guziak (Badi-rudi “dizaizkiogun” dela).

292. Erran DEZOGUN (= dizaiogun).

294. Guziak, othoi, barkha DIOTZOTZUTE eta errezihi zatzu (itzazu) zure Hautatuen nombrean (kopuruan) (= zaizkiezu).

295. Errekeritu behar du Aita eternala Miserikordia egin DIEZAGUN semearen Pasionearen merezimenduen amoreagatik (= dizaigun).

299. Zureganik urrun egor zatzu (itzazu) Munduak eta kreaturak eman ahal DIETZAKITZUTEN kontsolazione bano eta enganiosak (= dizaizkizuten edo dizaizkizuteken/dizaizkizuketen).

311. Zeren urrundu nahi baitdute, hain itsutuki maite dituzten onthasunak egun batez galdu eta utzi behar dituztela orhoitzeak kausa LIOZOKETEN damua eta bihotzmina (= lizaieketen).

315. Ihardets ZOZU, Elizak sinhesten duela egia (= zaiozu).

322. Has gaitzezen nausitu nahi zaizkigun pasionei gerla egiten, errexkiago kontra egin DIOZOGUTENTZAT eta bentzu detzaguntzat hain ikharagarria eta latzgarria izanen den denboran (= dizaieguntzat).

326. Ezagut araz DIETZADATZU, ó guziz Saindua! eta egin ditudan gaizkiak, eta egin beharrik utzi ditudan ongiak (= zaizkidazu).

337. Zure graziaren laguntzarekin batean, bethi egonen bainaiz ene guardien gainean, eta atzarriago zuri desplazer egin DIEZAKEZUN deus ez egiteko (= dizaikezun).

341. O ene arima! eskerrak bihur DIOTZOK hire Jainko Jaunari (= zaizkiok).

341. Ordean nola ene ezagutza marka ahal othe DIEZAZUKET! (= dizaizuket).

348. Bai, hori sinhesten dut, eta ene sentsuek eta ene arrazoinak erran ahal DIETZAKEDATEN guzien bortxa, ukho egiten diotet ene sentsuei eta ene arrazoinari, ene burua Fedearen azpian sumetitua atxikitzeke (= dizaizkidaketen. Baiñan ez ote hobe “dizaidaketen”?).

356. Zuek Zeruko eta lurreko Sainduak, presta DIETZAKIDATZUE zuen bihotzak, indazue zuen amodioa, ene Jesus maitea maithatzekotzat (= zaizkidatzu(t)e).

359. Ez, ezin deus errefusa DIEZAKEDAZU, ene Jesus adoragarria, egun zeroni eman zaizkidanean egin darotazun graziaren ondoan (= dizaidakezu).

Oharra.— DIEZON'en ordeaz, “diozan” (47) eta “diozon” (189) darabil euskaratzaileak (gip. “dizaion”). Halaber, DIOZOU normalaren alboan ZOZU (315), gipuzkeraz “zaiozu”.

VI. JOANES HARANEDER

"PHILOTEA"

(Edo debocioneraco bide eracuszaillea, San Franses Salescoac, Genebaco Aphezpicu eta Princeac, Bisitacioneco Ordenaren fundatzailleac eguina. M. Yoanes de Haraneder, Donibaneco yaun aphezac lehen escararat itzulua eta orai berriz imprimatua. Bayonan, Andre Lamaignère alhargunaren inprimerian, Pont-Mayuco carrican, 43. Salcen da Anyere C. Bernain baithan, Pont-Mayuco carrican, 45. 1853.)

Joanes Haraneder 1669 urte inguruan sortu zen Donibane Lohitzun'en (Lohitzune'n edo Lohitsu'n) eta doi-doi dakigu bertan egon zela apez. "Philotea", 1749 garren urtean argitaratu zuen Frantzia'ko Tolosa'n, berak laurogeitsu urte zituelarik. Urtebete geroago, alegia, 1750'garren urtean, hiri berberan, "Gudu izpirituala" atarazi zuen, hots, Aita Laurenti Scupoli'ren "Combattimento spirituale". "Gudu izpirituala" komentatzean diogu, gure irudiko, Noel Joseph Duvergier dela egillea eta Haraneder gainbegiratzaillea eta zuzentzaillea. Lafitte'n ustez, ordea, Haraneder da bion egillea eta Duvergier'ek "Gudu izpirituala" argitaratzen lagundu besterik etzion egin. Hontaz gaiñera. Haraneder'ek Testamentu Berria oso-osorik euskaratu zuen. Uztaritz'eko (edo Uztaritze'ko) Seminarioan kontserbatzen da eta katoliko-eran egin dako lehendabizikoa dela gogoan hartu beharra da. 1855'ean, Baiona'n, liburu hontatik lau Ebanjelioak argitaratu zituzten, "Iesu-Christo gure Iaunaren Testamentu Berria" izenez, baiñan esan bezala, ezta Testamentu Berri osoa, lau Ebanjelioak baizik. Ikus dezakegunez, Haraneder'ek etzuen jatorrizko obrarik izkiriatu; itzultzaille izan zen soilki.

VI. Eman DIOZOLA bada bere benedizione saindua obra huni (=dizaiola).

VII. Aitzitik egin ezazu, ô ene Jainkoa! mendez mende hekiekin batean kanta DIETZAZUDAN zure amodioaren Triunfako Kantikatzat, orai ene bihotz guziaz, bizitze hilkor huntako hirriskuen erdian, atxiki nahi darotzudan fidelitate osoaren senaletzat, erraten dudan hitz hau (=dizaizkizudan). Badirudi, ordea, esaldi hontan DIEZAZUDAN (=dizaizudan) erabilli behar zukeala.

XI. Hark berriz erakutsi izan ziotzan memorio hek Jainkoaren zerbitzari sabant eta debot bati, zeñiak estimaturik haiñitzei progotxu ekhar ahal ZIOZOKETELA, ertxatu baininduen (behartu ninduen) eta seguratu hek inprimaraztera (=zi-zaiketela).

6. Beha DIOZUZUTE xarpotaren gaiñean ibiltzen diren erlei (=zaiezu) (1); Beha DIOZUZUTE, othoi, zurubi hetan ibiltzen direnei (7); Boz zakizko Birjina Ama Sainduak eta Saindu guziek presentatzen darotzuten sokorriari eta laguntzari. Agin DIOZUZUTE bihotz onez hots emanen diozula hekien ganat heltzeko bideari (57); Bihotza zabal DIOZUZUTE (afekzioneer eta gogokundeei) eta errezibi zatzu bethi (97); Gomenda zakizkote (aingeruei) eta galde DIOZUZUTE (2) bere (beren)

(1) Gaurko lapurteraz ZOZUTE, Campion'ek dakarrenez, hots, *ekar zozute* (zuk haiei). Gipuzkeraz ZAIEZU (edo Campion'en arabera *zaiotezu*). Xarpot = hinojo.

(2) Gomenda zakizkie aingeruei eta eska zaiezu beren laguntza.

laguntza zure egiteko guzietan (124); Egin zaite beraz pobren zerbitzari: zohaz hek zerbitzatzera bere (beren) ohetan eri direnean. Diot zure esku propialez zerbitzatzera; prepara DIOZOZUTE jatekoa (229); Kontsidera zazu estatu eta kondizione guzietako sailnduen etsenplua. Zer ez dute egin Jainkoa maitatzeko, eta Jainkotiar eta debot izateko? Beha DIOZOZUTE, bere (beren) diseinu sailnduetan deusek ezin eragotzizko martir hei (443); Beregainki beha DIOZOZUTE andre eder eta loren pareko hei (443); Beha DIOZOZUTE hanbat elizagizon, ermitau, fraide eta bertze presuna jainkotiarrei (443-444).

6. Debozitoneak gozoa eman ahal BADIOZOKETE tormentarik garratzenei eta heriotzeari berari ere (=ba'dizaieke); Deus ere ez da ezen munduko ontasunei hanbat irabaz-araz DIOZOKETENIK, nola baita amoiña (limosna) egitea (228); Garbitasunaren etsaiei eskudantzia (atrebentzia) har-araz ere DIOZOKETENETARA (350); Hurbiltzen da Jesusen ganat eta xukhatzen dio Aingeruek eta Sailnduek ikhararekin baizen beira ez DIOZOKETEN begitharte (arpegi) desegin hura (501). Aurritzki eta atzizkidun aditz-jokuok DIOZOKETE (=dizaieke) adizkera dute ardatz.

12. Hori da nik eman ahal DIEZAKEZUDAN abertimendurik inportantena (=dizaiekezudan/dizaizukedan).

14. Hain inportant denaz geroz, Philotea, gidari on baten izatea debozitonearen bideari jarraitkitzeko, egiozu lehiarekin Jainkoari othoitz eman DIEZAZULA bat haren bihotzaren araberako ditekera (=dizaizula); Ez nazazula khen, ò ene Jainkoa, zure begien aintzifetik, eta ez DIEZAZULA idoki (atera) zure izpiritua (87); Zakizko Jainkoari deihadarrez hel dakizula eta eman DIEZAZULA bere graziaren bozgunea (408); Othoiztuko duzu Majestate dibinoa arren har DIEZAZUN (=dizaizun) guzia (461).

15. Errespetu sailndu batekin beha DIOZOZU (gidariari), (=zaiozu); Galde DIOZOZU (eska zaiozu) Jainkoari (15); Eman DIOZOZU ene arimari zure benedizione sailndua (32); Ofrenda DIOZOZU zure bihotza (36); Galde DIOZOZU bere grazia (40); Humilia zaite eta galde DIOZOZU hel dakizula (48); Iratxiki (erantxi) DIOZOZU berriz orai ikhaskari eder horri bertze bat ez gutiago ederra (50); Erreportxa (erreprotxa) DIOZOZU zure bihotzari bere gogo hurritasuna (52); Beha (begira) DIOZOZU Errege higuigarri haren gorthetiar dohakabe guzien egoteko moldeari edo erramanguari (58); Atxik DIOZOZU erregela horri zure orazione guzietan (80); Galde DIOZOZU zure salbamenduaz zer izanen den (109); Heda DIOZOZU eskua haur xume batek bere aitari bezala (109); Beha DIOZOZU ardi gaixo horri (114); Galde DIOZOZU barkhamendu zure bekhatuez (119); Ager DIOZOZU nolakoak diren zure jaidura eta inklinazioneak (136); Beha DIOZOZU maiz barreneko begiez Jesu-Kristo gurutzefikatuari (166); Aitzitik beraz sakrifika DIOZOZU berriz ere guzia milla gogokundez eta agintzez (254); Ofrenda DIOZOZU eta emozu maitenik eta preziatuenik duzun gutia (gutxia) (317); Baiñan xoilki beha DIOZOZU gure Salbatzaile Jaunari (376); Zohaz zure kofesoragana; zabal DIOZOZU ongi zure bihotza (408); Agin DIOZOZU bethi (438); Beha DIOZOZU zure bihotzaren hedadurari (440); Baiñan ihardets DIOZOZU emeki eta arraiki zure herbaltasuna (argaltasuna) hain handia dela, non bertzek baiño beharrago baituzu norbeit hel dakizun eta alde dakizun (456); Beha DIOZOZU ifernuari, eta ez dezazula harat (1) aur-

(1) Oker ez baldin ba'naiz, Lafitte'k bere Gramatikan dio, *harat*, *mendirat*, *etxerat*, *zerurat* formak erabiltzen dira norabait joaten denean bertan gelditzeko, eta *hara*, *etxera*, *mendi-*

thik zure burua (457). Adizkera hontatik eztitugu denak jarri, asko direlako. Jakineraz dezagun ere, egungo lapurteran, *Campion'ek* dakarrenez, aditz-joko hau ZOZU oguzten dela. Gipuzkeraz: ZAIOSU.

18. Eta hala ez gaitzela altara (alteratu) gure eskasen (falten) eta inperfekzioen gatik; ezen gure perfekzioa hei gerla egitean dago. Eta alabaiñan ezin gerla egin DIOZKEGUTE, non ez ditugun ikhusten (=dizaiekegu); Bethi goardia ematen diogularik sentitzearen eta kontsentitzearen artean den diferentziari: ezen senti detzakegu gaitzhesten ditugun orduan ere; ordean ezin kontsenti DIOZKEGUTE, non ez zaikun hetan lakhetzen (364).

19. Bada inperfekzioek eta bekhatu benialek ezin khen DIEZAKEGUTE bizitze izpirituala (=dizaiekgute/dizaigukete); Sainduen bizitzen artean badire batzu gure biziaren gobernutzat argi gehiago eman DIEZAKEGUTENAK (=dizaiekgute-nak), bertzek baiño (127).

19. Beldur izateko duguna beraz da gogoa hil araz DIEZAGUTEN (=dizaiguten); Bera (Jesu-Kristo) izanen da gure fama onaren begiraille: eta baldiñetariak permititzen badu eraman DIEZAGUTEN; hobeago bat guri bihurtzeko egiñen du (191); Nahi dugu zuzenez zor zaikuna hertsiki eman DIEZAGUTEN (322); Gure herrunkari (tokiari) atxiki nahi diogu zorrozki, eta nahi dugu bertzeak humilki jar daitezen eta amor egin DIEZAGUTEN (322).

23. Afekzioe miserable hek eman LIOZOKETE zure izpirituari langidura (languidez?) eta pisutasun bat (=lizaiokeke).

29. Birjina sainda, presenta DIOTZOTZU ene partez zure seme urrikalmenduz betheari. Gomenda DIOTZOTZU halaber ene othoitzetan parte izan behar duten guziak (=zaizkiozu); Ah! beraz, khen DIOTZOTZU zure bihotzari hunelako edo halako atsegin (35); (Badirudi hemen DIOZOSU erabili behar zukeala). Emotzu eskerrak Jainkoari eman izan darozkitzun pentsamendu eta erresoluzione on horietaz. Ofrenda DIOTZOTZU haren Majestate dibinoari (43); Eri izanen zarenean, ofrenda DIOTZOTZU zure doloreak, penak eta lazeriak Jesu-Kristori (166); Erakuts DIOTZOTZU (kofesorari) zure arimako xokho-mokho guziak (408); Eska DIOTZOTZU Izpiritu Sainduari bere argiak, zure burua ongi ezagutzeko (427). Gaurko lapurteraz, *Campion'ek* dakarrenez, TZOTZU.

42. Ah! Jauna!... Egin DIEZADAZU oren hura, zure graziaz fagorezko eta zorionezko oren bat (=zaidazu); Eman DIEZADAZU endelgamendua edo izpirituko argia (87); Orduan Jaunak erran zioen: zure bihotzeko gogoramendu hok, erran DIEZADAZU, atsegin egiten zarotzuten, ala damu? (368); Bihur DIEZADAZU, Jauna, zure Izpirituaren boztasun salbagarria (408); Desiraraz DIEZADAZU eta ardiets-araz heien amodioa (470); Barkhamendu akorda DIEZADAZU, nik zure amoreak gatik bihotz onez ofentsatu nautenei akordatzan diotedan bezala (473); Bainan permeti DIEZADAZU bil detzadan bederen erortzen diren papurrak (474); Barkha DIEZADAZU, ô ene Jainkoa! ene izpirituko barraiamendua (disipación) eta ene bihotzeko hotztasuna (475-476). Egungo lapurteran, *Campion'ek* dakarrenez, ZADAZU. Gipuzkeraz: *zaidazu/zadazu*.

ra... joan eta berriro etortzeko. Hemen, dudarik gabe, kunplitzen da lege hau, zeren oraindik ezpaitakigu iñor itzuli denik infernutik.

42-43. O ene adiskide eta ahaide maiteak eta onhetsiak! permeti DIEZADA-ZUE ez zaitzatedan gehiago maita eternitatean iraun ahal dezaken amodio eta one-
rizte saindu batez baizen (=zaidazute). Egungo lapurteraz, Campion'ek dakarrenez,
ZADAZUE. Gipuzkeraz: *zaidazute*.

46. Beha DIOZAK, ô ene bihotza, eternitate handi hari (=zaiok). Egungo
lapurteraz, Campion'ek dakarrenez, ZOK. Gipuzkeraz: *zaiok*.

50. Hura (bekhatua) denaz geroz heriotze eternal hura erakhar ahal DIEZA-
KEDANA (= dizaikedan/dizaidakena): *diezadake = dizaidake*.

73. Ez bada mahats hek hordi zetzaten beldurrez, baiñan bai, mahats ondu
gabeak ere jateak onduagoen jateko, eta onduak berriz arnoa edateko irritsa eta guti-
zia eman ahal ZIOZOKETEN perilla gatik (= zizaioketen) (Ikus 44).

76. Jainkoak DIZULA grazia hei ongi jarraikitzeo (=dizula. Subjuntibo eran
diezazula/dizaizula); Egiozu othoitze DIZULA indarra hek fidelki konplitzeko eta
obretaratzeko (36). Aditzok eztira *e-za* errodonak, baiñan haien ordezkoa egiten
dutelako ezarri ditugu.

82. Zeren eta othuruntza ondoan berehala egin baziñeza eta jan dukezuna ongi
eho baino lehen, logaleak har baitzintzake eta zure osasunari kalte ekhar BAITZI-
NOZKE (=baitzenizaioke).

87. Ispira DIETZATZULA (Aingeru begirailleak) behar bezalako gogoetak eta
pentsamenduak (=dizaizkizula).

93. Hirurgarrena da Jainkoa othoitzea eta errekeritzea eman DIEZAGULA
grazia haren Seme dibinoaren merezimenduetan partale izateko (=dizaigula); Nahi
ginduke gure hauzoak sal DIEZAGUN (=dizaigun) bere ontasuna (321).

93. Eman DIOZOTELA (Jainkoak) bere benedizioa gure gogokunde edo
erresoluzioei (=dizaiela); Zeren Jainkoak egin baititu halako (emazteak), zuen
menean eta beharrean izanak errespetu gehiago ekhar-araz DIOZOTENTZAT
(=dizaien-tzat) (331).

101. Pentsa zazu aintziñetik zer egiteko, zer tratu, zer okasione gerta ahal daki-
kezun egun hortan, zer okasione Jainkoa zerbitzatzeko, zer tentazione erakhar DIE-
ZAKEZUN kolerak, banitateak edo bertze zenbeit pasione dserregelatuk (=dizaik-
zun); Ordean, Jainkoak bihur DIEZAKEZUN artean, bethiere hain bertzez pobretua
egonen zare (228).

102. Baldin heldu bazait gogora eri bat ikusi behar dudala, hartuko dut hortat-
kotzat mugarik hoberena eta arrimatuko (ordenatuko) neure gogoan hari eman ahal
DIOTZAKEDAN kontsolazioneak eta laguntzak (=dizaizkiokedan).

102. Ofrenda DIOZAZU haren Majestate Dibinoari zure gogokunde edo erre-
soluzione guziekin (=zaiozu). Gipuzkerazko “zaiozu” aditzera emateko, hainbeste
DIOZOU'ren artean DIOZAZU bakar haxe aurkitu dugu. Gaurko lapurteraz:
ZOUZU.

104. Jainkoari eskerrak eman DIOTZOGUN (=dizaizkiogun); Eta gure Espos
dibinoari ezin presenta badiozakegu konfutura hezerik, presenta DIOTZOGUN bede-
ren idorrak (410).

104. Ondoan gomenda DIOZOGUN Jainkoaren probidentziari gure gorphutza
eta arima (=dizaigun); Baldin desohoratzen bagaituzte injustuki, egia oposa DIO-
ZOGUN faltseriari (191); Ofrenda DIOZOGUN gure bihotza, den bezalako idorra
ere (410) (Ikus 316).

106. Ala dohatsua izanen baita arima gure Salbatzaille Dibinoari egiaz erranen DIOZAKENA: Zu zare, Jauna, ene etxea eta ene iheslkhua (=dizaioke-na). Konju-gaziño hau oso bitxia da, zeren naturala baita “erranen dioena” (esango diona) edo “erran diozakena” (esan dizaiokena), baiñan orain artean enaiz ohartu “erranen diozakena” (esango dizaiokena) formaz. 133^{garrenean}: Ezen horla mintzatzean, ez duzu deus ere erraten klarki zure kontzientziako estatua zure kofesorari ezagut-araz DIOZAKENIK (=dizaiokenik). *Diozake* = *dizaioke*.

107. Eta geroztik zer nahi asaldu (asaldapen) eman ZIOZAN munduak ez zuen traba garabik (alerik) sentitzen (=zizaion/ziezaion).

123. Bidal DIOTZOGUTEN (=dizaizkiegun) beraz eta junta, Philotea Maitea, gure bihotzak izpiritu zerutiar eta arima dohatsu hei (aingeruez ari da).

128. Inspirazioneak iraun BALIEZAKEGU ere bizi gareñoko guzian, ez gintezke batere Jainkoaren gogarako (=ba^llizaiekegu/ba^llizaiguke).

140. Guziaz-gatik-ere, haiñitiz traba justu eta arrazoinetako gertha dakikezu bizia daramazun presunen partetik, zeinei behaturik, gidari zuhur batek erran BAILIEZAKEZU ez dezazula hain maiz komunian (=bailizaizuke). *Liezakezu* = *lizaizuke*.

141. Zure gidariak nahiko du amor egin DIOZAZUN hekien umoreari (=dizaiozun).

159. Uz DETZOGUTEN, gogo-onez, bertzez gorago ibiltzeko lehiak eta irrisak gutaz goragoko arima handiei (=dizaizkiegun).

162. Bizkitartean, maiz gerthatzen den gauza da bi gizon prestuk, biek xede ona dutelarik, zein bere usteari jarraikiz, bata bertzeari kontraktotasun handiak egin DIOTZATEN eta pena handiak ekhar DIOTZATEN (=dizaizkien); Ibaia handien-gaiñean zurezko zubiak dituzten hiriak beldur dire, uholde borthitz guzietan, bere zubiak eraman DIOTZATEN (189).

164. Baldiñetariak komeni bada norbeiti egin DIOTZOTZUN zure errenkurak (kejak) kontseillu galdetzeko (eskatzeko) edo zure izpiritua deskantsatzeko, egin behar diotzotzute (dizkiezu) gizon bakezkoei eta Jainkoa ongi maite dutenei (=dizaizkiozun).

171. Egia da bat bederak (bakoitzak) atxiki (heldu) DIOZOKI bere herrunkari (gizamaillari), humiltasuna zaurthu gabe, baldiñetariak (baldin eta), ezin bertzez bezala eta ihardukitzerik (borrokarik) gabe, atxikitzen badio (=dizaioke); Jende komunari gogoak ezin eman DIOZOKENA (214); Erhokeria hori ezin barkha DIOZOKI gaztetasunari baizen (278).

175. Hau ere erran behar dut bada: kortesiak nahi duela batzutan eskain DIOZOGUTEN abantaila (bentaja) segurki ez dutela hartuko dakusagunei (=dizaiegun).

195. Zer nahi armadalege eta ordena begira-araz DIOZOTEN bere soldaduei (=dizaiei).

201. Siñhets nazazu, Philotea, aita batek bere umeari eztiki eta amultsuki egiten *diozoken* (egiten *dizkien*? egin *dizaizkioken*?) erreportxuek indar gehiago duten bezala, hura bere eginbiderat erakhartzeko, ezen-ez hasarraturik eta liskarrez egin LIOTZOKENEK (=lizaizkiokenek).

201. Kolera butheadazko (1) batek ekhar eta kausa LIOZOKEN (=lizaioiken) urriki despikorrak (sentikorrak); Hortan jar litekenak asko lan eman LIOZOKE bere buruari (=lizaioke) (382) (Ikus 325).

203. Aithor EZOZU Jainkoari egin diozun ofentsa (=zaiozu). Behin bakarrik arkitu dugu adizkera hau hainbeste DIOZOZU'ren artean.

210. Borondatezko obedientzia deithzen dugu nihorkbertzek zuzenez ezin galde (eska) DIEZAKEGUNA (=dizaikeguna); Hargatik beraz tentazioneak iraun arren denbora luzez, ezin kalterik egin DIEZAKEGU, gaitzhesten duguiño (=dizaikegu) (364) (Ikus 285).

211. Ordena-araz DIOTZATZU zure aita izpiritualari egin behar ditutzun debozinezko praktikak; zeren hark ordenaturik hobeak izanen baitire (=zaizkiozu); Ager DIOTZATZU humilki eta garbiki zure kofesorari edo bederen zenbait arima fidelei eta prudentei, iraganeko gauzen ariaz (kausaz), ethorriko zaizkitzun gogora-mendu eta tentazione guziak.

212. Ez DEZOZUTELA gogoa eta afekzioea iratxik (josi) beharretsiak eta manatuak (beharrezkoak eta aginduak) diren plazerei (=dizaiozutela).

263. Baiñan bihotz hark berak, zeinetarik nahi baituzu hasi gizonaren hobekaritzen (hobetzen), galdetzen du irakhats DIOZOZUN nola behar duen moldatu bere kanpoko ibilpen eta erremangu (prestaera) guzia (=dizaiozun); Ez DIOZOZULA (=dizaiozula) beha tentazioneari (376); Ez DIOZOZULA sekulan ihardets hitz bakar hau baizen (377); Ez DIOZOZULA ukho egin munduaren gatik (457).

270. O arima gaixoa! hire haragia mintza ahal baledi, Balaam'en astoa bezala, erran bide LIEZAKEN: zergatik horla jazartzen derautan, miserablea? (=lizaiken, hots, lizaikiek eta lizaiketu/lizaizuke'ri dagokiona).

270. Jainkoak orduan erran bide LIEZAKEZUE: jazar diozozue (eraso zaiezu-te) zuen bihotzei (=lizaizukete/lizaiketzute).

270. Jainkoak orduan erran bide liezakezue: jazar DIOZOZUE zuen bihotzei: hauts, arrailla (urra), porroska-zatzue (purruka itzazute) zuen bihotzak beregainki (batez ere, guziz ere, baitipat, bereiziki) (=zaiezute); Ekhar DIOZOZUE beraz, ô senharrak, amodio samur zin-ziñezko bat eta bihotzezko bat zuen emaztei (331).

275. Zeiñetan libertate gehiagorekin, erakhar baitezakezu zure izpiritua zure bihotzera, eta han lakhet-arazi BAITIOZAKEZU gogoeta sainduetan eta zenbeit irakurtze onetan (=baitizaiokezu, bait-dizaiokezu); Baldin ager ahal BADIOZAKEZU zure khexagunea (kezka, axanpa, larrikara, estuasuna) zure arimaren gidariari (388). *Diozakezu = dizaiokezu/dizaiozuke.*

284. Grekoek *eutrapelia* deithzen duthen (sic) berthute bati darontzate (1) eta guk solhasteria (berriketa) gozoa (2) erran ahal DIOZKEGUNARI (=dizaiokegu-

(1) Lhandek, “Kolera butheadazko” *emportement de colère* itzultzen du, hots, *arrebato de cólera*.

(1) Ezin igarri diot adizkera honi. Badirudi *erauntsi* (charlar) aditz-izenarekin zer iku-sirik duela.

(2) *Eutrapelia*=virtud de la moderación en las diversiones y recreos. Donaire o jocosidad inofensiva. Discurso, juego, recreo honesto y moderado. Haraneder-ek “solhasteria gozoa” itzultzen du.

nari); Zeren, batzuez eta bertzez orobat berdin guregana DIOZKEGUNAZ geroz bihotza eta irabaz haren amodioa (317). *Diozkegu* = *dizaiokegu*.

285. Eremagun dosteta (jolas, jostaketa) honest bati emanen diogun denbora, debozioneak segura DIEZAKEGUN bezala eternitate saindua (= dizaikegun) (Ikus 210).

302. Philotea, ez dagizula holako behar gabarik: ezen Jainkoaren ofentsaz bertze-alde, milla inkontru (ez-behar) gaixto horrek ekhar LIETZAKETZUTE (=lizaizkizukete). Esaldiaren zentzuagatik ordea, badirudi "lizaizkizuke" izan behar lukeala, hots, LIETZAKETZU.

314. Horra nik eman ahal DIETZAKETZUDAN abisuak gauza horren gainean (=dizaizkizukedan).

316. Nahiz beha DIOZOGUN hura travaillatzen den moldeari (=dizaiogun) (Ikus 104).

325. Baldin desiratzen banu Chartrusen (Kartujoen) bakhartasuna, gal nezake ene denbora, eta desirkunde horrek traba egin LIOZKE, orai naizen estatuari datxeizkon (itsasten zaizkion) obligazionen ongi bethetzeko izan behar dudana desirari (=lizaioke) (Ikus 201).

354. Hauta zazue gidari on bat zeinaren gobernuaren azpian saindukiago kontsekra ahal BAITIOZAZUEKE Jainkoaren majestate soberanoari zuen bihotza eta zuen gorputza (=baitizaiozuketete, hots, bait-dizaiozuketete).

362. Othoitz dezagun Jainkoa, arren eman DIETZAGUN usoenak bezalako hegialak (=dizaizkigun).

363. Bekhaturako zein nahi den tentazionek iraua BALIEZAGU ere gure bizitze guzian, ez gintzake egin Jainkoaren desgogarako, non ez zaikun hartan lakhetzen eta non ez diogun kontsentitzen (=ba'lizaigu).

364. Gure arimen etsaiek ekhar BIEZATEGU beraz gure aintziñera nahi duten bezanbat peita (beita=cebo) eta eskaintza; egon beitez bethi gure bihotzeko athean, han sartu nahiz; eras (erausi, jardun, hitz egin) BIEZATEGU nahi duten guzia (=bi-zaigute).

364. Gogorki eta zinki gaudezeiño horiez guziez atsegiñik ez hartzera, ezin ofentsa dezakegu Jainkoa, erran dugun printzesaren senhar jaunak gaitzik ezin nahi ZIOZOKEN bezala, egin izan zitzaion mandatuagatik, atsegiñik batere hartu ez bazuen mandatu hartaz (= zizaiokean).

374. Orobat bada nihork irakhats BALIEZAT zenbeit asmu arteziaz (abildadez) betherikako, ene etsiari aspertzeko (bengatzeko) (=ba'lizait).

374. Eta ez badut gogorik hari aspertzeko, ez atsegiñik hari egin NIOZOKEN gaizkian (=nizaiokean).

380. Zeren eta horiek guziek ezin kalterik egin BAITIEZAKEGUTE, nekha ahal gaitzaketen arren (=baitizaiguketete, bait-dizaiguketete).

398. Baiñan denbora hartan berean amak eskatzen badio eskuan duen sagar bat edo zerbeit goxo eman DIOZALA, ez dio eman nahiko (=dizaiola); Ama batek goxoak haurrari ematen diotza (dizkio), haurrak musu eman DIOZAN nahiz (402);

Errekerituko (solicitar, requerir) duzu ofrenda DIOZALA adimendua Aita eternalari (461); Ofrenda DIOZALA zure memoria Semeari (461); Ofrenda DIOZALA zure borondatea Izpiritu sainduari (461). Beraz, *diozala/diozan* = *dizaiola/dizaion*.

410. Eta gure Espos dibinoari ezin presenta BADIOZAKEGU konfitura heze-rik, presenta diotzogun bederen idorrak (=ba’dizaiokegu).

427. Erran ere DIOZKEZU San Frantsesekin (=dizaiokezu).

440. Erakhar-atzu gogora ausarki lehenago zure bihotza hartua zadukaten plazer eta atsegin maiten eta borthitzen guziak, eta juja zazu, egia erratera, ea ez ziren griñaz, khexagunez, gogoeta tristez, eta lazeriaz (mixeriaz) hain nahastekatuak, non zure bihotz gaixoak ezin aurkhi BAITZIOZOKETEN gaitzik eta miseriarik baizen (= baitzizaioketen, bait-zizaioketen) (Ikus 73).

453. Baldin egun oroz egin behar balire etserzizio horiek guziak, egiazki denbora guzia ereman LIEZAKEGUTE (=lizaigukete).

461. Eta arren, zure egoki (ahaide) eta adiskide guziei eman DIOZATEN on eta behar duten guzia (=dizaioten).

464. Eta ardiets DIEZAGUZUE bekhatuen barkhamendua (=zaiguzute).

465. Eta memento guziez, bizi naizeno, erran BANIEZAZU: *Jauna! nauzun urrikari*, ez liteke oraino aski ene bekhatuen nonbrearentzat (numeroarentzat) eta handitasunarentzat (=ba’nizaizu).

468. Errezibi zazu, Jauna, ezin erranezko sakrifizio hau amultsuki eta gozoki, eta sofri zazu ofrenda saindu horri junta DIOZADAN ene gorphutzaz, arimaz, ontasunez, biziaz eta ditudan guziez egiten darotzudan sakrifizioa (=dizaiodan).

469. Hortarakotz bat egiten naiz Aphezarekin, akorda DIETZAGUTZUN amoreakgatik Jesu Khristo gure Jaunaren bidez eta izenean (=dizaizkiguzun).

469. Eta desterruko lekhu huntan erran DIEZAZUGUN hek loriaren egoitzan kantatzen darotzutena (=dizaizugun).

472. Barkha DIETZAKIDATZU ene faltak (=zaizkidazu).

475. Nahi duzu, Jauna, arterik utzi gabe gure othoitzak adreza (zuzendu) DIETZATZUGUN (=dizaizkizugun).

476. Bainan egizu, zuzenki konportatzen naizelarik, bethi begira DIEZAZU-DAN ene gogoeten, en hitzen, eta ene obren erregelari eta asken (sic) finari bezala (=dizaizudan).

499. Barkha DIETZADATZU, othoi, iragan hutsak (=zaizkidazu) (502).

500. O dolorezko Ama! ardiets DIEZAGUZU mendi sainduraino Jesu-Khristo segitu zinduen (zenduen) amodio hura (=zaiguzu).

Oharra.—Ikus dezakegunez, Haraneder’ek, eskuarki, aditz aginkorrak “d” letrarekin hasten ditu, baiñan baditu salbuespen gutxi batzuek. Horrela *diozozute* (=zaiezu), *diozozu* (=zaiozu), *dioztotzu* (=zaizkiozu), *diezadazu* (=zaidazu), *diezadazue* (=zaidazute), *diozak* (=zaiok), *diozazu* (=zaiozu), *dioztatzu* (=zaizkiozu), *diozozue* (=zaiezute), *diezaguzue* (=zaiguzute), *dietzakidatzu* (=zaizkidazu), *dietzadatzu* (=zaizkidazu), *diezaguzu* (=zaiguzu). Gaiñerakoan,

nahiz aginkorrean, subjuntiboan edo ahalkorrean, *dio* eta *die* aditz-hasierak nahas-mahas darabilzki. Bestalde, *diozOzu* tankerakoak eskuarki eta *diozAzu* formakoak bakanki. “D” gabeko aginkor bakarra aurkitu duguna: Aithor EZOK (zaiok) Jainkoari.

VII. “CHIBEROUA ETA MARCELINE” ETA “RECOQUILLART ETA ARIEDER”

“Estos dos charibaris que copiamos íntegramente y con grafía exacta a la de los manuscritos que se hallan en la Biblioteca Nacional de París —fonds celts et basques—, corresponden: “Recoquillart et Arieder” al número 138, pudiéndose datar como de la segunda mitad del siglo XVIII, y “Chiveroua et Marceline” al número 136, en copia de la primera mitad del siglo XIX”, dio Patri Urkizu jaunak, bi zintzarrots, galarrots edo tobera hauen argitaltzaille eta komentatzailleak alegia, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” urtekarian (Tomo VII, 1973, 117^{gn}. hor-ald., Excma. Diputación de Guipúzcoa, San Sebastián). Gure lan hontan grafia —ohi bezala— berriturik ematen dugu. Bi lumeroz seiñalatzen ditugu aditz-esaldiak: lehendabizikoa horrialdearena eta bigarrena bost bertsotatik bost bertsotarako lumeraziñoa. Gure esaldia honen inguru-inguruan dabil beti.

XIBERUA ETA MARZELINA

122/105. Hara unduan (1) erran IZADAN (=zaidan, iezadan); Erran IZADAN ene haurra (132/340).

123/130. Unduan (ondoren) sogin EZAGÜZÜ (=begira zaiguzu, izaguzu, iezaguzu). Campión'ek: IZAGÜZU.

125/165. Abis galthazaler ere (2) DIZEGÜN egin gure gisa (=dizaiegun, diezaiegun).

133/180. Erran EZADAK ene mitila (mutilla) (=zaidak, izadak, iezadak); Erran EZADAK ene gizuna (164/1150); Erran EZADAK hik (187/1725). Ikus: IZADAK (145/655).

137/470. Erran EZADAN orai egia (=zaidan, izadan, iezadan). Ikus: IZADAN (132/340).

137/480. Xerka IZOZÜ pratika (= billa ZAIÖZU klientea).

141/560. Jinkuak gai hun (gabon) DEIZÜLA (=dizula). Aditz-joko hau ezta I + ZA aditz-erroduna, baiñan beronen ordezkua egiten du, hots *dizazula/dizaizula/-diezazula*’ren egitekoa betetzen du. (152/830): Jinkuak egün hun DEIZÜLA.

(1) Badirudi “hara unduan” “hara joan unduan”, hots, “joan ondoan” edo “joan ondoan” ulertubehar dela. Lhande’k “unduan” = après (después) itzultzen du.

(2) *Aholku eskatzalteei ere*. Testuak, “ere” jarri beharrean “era” jartzen du, baiñan hutsegite bat da noski.

145/655. Ezar IZADAK berhala (=zaidak, iezadak). Ikus: EZADAK (133/380).

146/685. Erran IZADAZÛT zuk (1) ere (=zaidazu, iezadazu). Ikus, “Recoquillart eta Arieder”en: EZADAZÛ (193/130).

147/710. Jinkuak gai hun DEIZIELA (=deizuela, dizuela, dizutela).
141/560’an esandakoak gogoan har hemen ere.

178/1510. Eztin zer eni ere aipa DIZADAN deus ere (=dizaidan, diezadan).

RECOQUILLART ETA ARIEDER

193/130. Ordeñü (testamentu) bat othoi eni egin EZADAZÛ (=zaidazu, izadazu, iezadazu). Ikus, “Xiberua eta Marzelina”n: IZADAZÛT (146/685. Ene ustez, bai “ezadazü” eta bai “izadazüt” (hau bi datiboduna delako) baztertu egin behar lirake, “izadazü” forma normalari leku egiñaz. Baiñan hontan Zuberotarrek dute hitza (201/325): Zer phensatzen düzün erran EZADAZÛ.

194/160. Semiari phürü (2) zerbait ordeña (3) EZOZÛ (=zaiozu, iezaiouzu).

198/260. Erran EZADAZIE bertarik (=zaidazute, iezadazue); Fachous (fâcheux = enojoso, enfadoso) ezpazaizie (ezpazaizute) erran EZADAZIE (200/300).

203/380. Jauna ordeñatzen dirot (4) beste ororen gaiñeti, jar DIEZAZUN egünian behin südürä üzküti (ipurditik). Zuberoa’ko forma normala, ordeä, ordeä, DIZAZUN (=dizaizun) da.

(1) Testuan: yçadaçout çouq (izadazut zuk). Ezin uler daitezke bi “ou” horiek, zeren Zuberoraz “izadazüt” eta “zü”k izan baita beti, nahiz-ta “zü”k “zure” eman eta ez “züre”. Halaber, “gü”k “güre” ematen du eta ez “güre”.

(2) Zentzuok izan ditzake: surtout/sobretudo/batez ere; au moins/al menos/behintzat-bederen. Hitz honek baditu Lhande’reñ arabera zazpi zentzu liferente, baiñan beste bostak nekez onart daitezke hemen.

(3) Ordeñatü (=testar), testamentuan utzi.

(4) Dirudienez, “ordenatzen diot” da hemen eta ez “testamentu egin” (testar), arestian aldatu dugun bezala. Gure itzulpen desberdiñaren aditzera-emangarri, bi kasoak argitzen dituzten inguruko ahapaldiak aldatuko ditugu. Horra hiru ahapaldi “ordena” edo “agindua” aditzera emanaz:

Notaria: Jauna plazer badüzü
Behar düzü mintzatü
Eia zer plazer derozün
Dama huni ordeñatü

Recoquillart: Jauna ordeñatzen dirot
Beste ororen gaiñeti
Jar diezazün egünian behin
Südürä üzküti.

VIII. JAKES OIHENART

“KANIKO ETA BELXITINA”

“Kaniko eta Belxitina” pastoral komikua Larribarre'n (Amikuze, Behe-Nafarroa) aurkeztua izan zen 1848'ko Apirillaren 30'ean. Gabriel Aresti'k dionez, Jakes Oihenarte trajerigillea “ez zen zuberotarra izan, nafarra baizik, Amikuze-tarra, bertako Uharte izeneko burgukoa. Haren izena Jakes Oihenarte zén, baina Larrondo goitzenarekin izan zén ezagunagoa; berak bere burua “instituteur de pastorales”-tzat jotzen zuén. Honek esan nahi du ez berak pastoralik eskribatzen zuela, teatroa eramaten zituela baizik. Eta hala dakigu bera jaio baino lehen eskribatutako pastoralak beraren zuzendaritza-pean jokatu zirelako. Baina kasu honetan komediaren haritik bertatik tira ahal dezakegu gure Larrondok ez bakarrik personaiei ofizioak errijitu,

Eta jan dazen egün oroz
Hamalaur libera xahürki
Bai eta gero edan
Etxe gibleko barga xiloti.

Lehendabiziko ahalpadiako “derozün”, literatur-zuberoeran “deiozün” da (Intxauspe'k: *déyozu. eta deózü*) eta bigarren ahalpadiako “dirot” en ordeiz “deiot” erabiltzen da (Intxauspe'k: *déyot, derót eta dériot*). Gipuzkeraz: *diozun eta diot*. Hirugarren ahalpadiako “dazen” ene ustez hutsegite bat da. “Dezan” behar du izan (Intxauspe'k *dézan*). “Dezen” (Intxauspe'k *dezén*) gure “dezaten” da, baiñan hemen eztu zentzurik. “Barga” = *agramadera*.

Orain ikus dezagun beste kasua, hots, “ordeiñatü = testamentua egin”. Har ditzagun ahalpadi batzuek:

Arieder: Zure semia eta ni
Biak malerus gütüzü
Arranjamentürük egin gabe
Begiak zerratzen batüzü.

Hartakoz arren orai
Othoitzen zütügü
Gure danger tristia
Ikhus ezazü.

Ordeñü bat othoi
Eni egin ezadazü
Eta zure semia ere
Orhit ükhen ezazü

Semiari phürü
Zerbait ordeña ezozü
Nahi badüzü gero zihaurk
Leher egin ezazü.

Lehendabiziko hiru apaldiak 120, 125 eta 130 bertso lumeroei dagozkie (193 paia); laugarrena 160'garrenari (194 paia). Lehenengo ahalpadiako “malerus gütüzü” = “zorigaitzeko gaituzu” (gara). “Arranjamentü” = “arrangement”(arreglo). “Batüzü = badütüzü” (badituzu). Bigarren ahalpadian: “arren” = “bada”. “Zütügü” = zaitugu. “Danger” = “peril, arrisku”. Hirugarrenean: “Ordeñü” = “testamentu”. “Orhit ükhen” = “oroitu izan”. Laugarrenean: “Phürü” = “behintzat” edo “batez ere”. “Ordeña ezozü” = “utz zaiozu testamentuan”. “Leher egin” = “lehertu”. Uste dut, hainbestean argi gelditzen dela “ordenatü” = “ordenar” eta “testar”.

komedia bera ere eskribatu egin zuela” (Kaniko eta Belxitina, Kriselu - 18, LUR editoriala, Donostia, 1971, Gabriel Arestik moldatutako lehen inprimaldia). Esaldiak bi lumeroz seiñalatzen ditugu: lehenengoa horrialdearena eta bigarrena ahapaldiarena.

28/49. Hartü libertatia pharka DEZADAZIEN (=dizaidazuten, dizadazuten, diezadazuten). Hartü libertatia = hartutako libertatia.

67/223. Biek har EZADAZIE (=zaidazute, iezadazute).

104/407. Jinkuak eman DIZAZIELA (=dizaizutela, di(e)zazuela).

105/413. (Jinkuak) Eman DEZAZIELA grazia etxilat irüski ützültzeko (=dizaizutela, di(e)zazuela). Hobeki: DIZAZIELA.

11/445. Hik aldiz eman EZOK salda gibel-aldeti (=zaiok, iezaiok). Campión’ek, hobeki: IZOK.

16/470. Zer plazer düzün orai othoi erran IZADAZÜ (=zaidazu, iezadazu). EZADAZÜ eta IZADAZÜT baiño forma jatorragoa.

IX. JUAN DE TARTAS

“ONSA HILCECO BIDIA”

(Ivan de Tartas Arveco Erretorac euscaraz egvina. Moneineco Iavn Marquizari dedikatia. Orthecen Iacques Rovyer, Erregueren Imprimacalia baitan, Biarnon, 1666 (1)). Guk bigarren eta hirugarren ediziñoak erabili ditugu, hots, Paris’en egindakoa, 1911’garren urteaan, Honoré Champion’en moldiztegian (Extrait de la Revue internationale des Etudes basques) eta Andolin Eguzkitza’k antolatutako “Ontsa hiltzeko bidea” (JAKIN, Arantzazu, Oñati, 1975). Horrialdeak bienak ematen dira, lehendabizi Paris’koa eta gero Arantzazu’koa. Testua bigarrenetik hartua dago.

Zuberotar lehen euskal-liburua esaten zaio “Onsa hilceco bidia”ri, eta halaxe da, izan ere, baiñan euskara ideki batean izkiriatura, hauzoko euskalkietara hurbilduz eta batasunerako urrats sendo bat emanaz, euskaldun guzientzat ulergarri izan nahian. Beronen egillea, Juan de Tartas, 1610/1612 inguruan jaio zen Zuberoa’ko Sorhueta edo Sohüta hirixkan. Arue’ko edo Aibe’ko erretore bezala ezagutua da. Eztakigu noiz hil zen. Xehetasun gehiago aipatu liburuetan. Villasante’k Darricarrère’ri jarraiki dienez, egilleak liburu hontan bere buruaren irudia agertzen du.

3/4. Ibiliko da büria gora Euskal herri orotan, zük solamente egin BADIZOZÜ so hanbat, eta begitarte hon, herri mündü güzietan zure amorekatik honki jin izanen da (=egin ba’dizaiozu, egiten ba’diozu).

5/8. Jinkoari othoi eginen dü bizi nizan egünetan zure hilziaz lürrian orhitürük, saindüki bizirik, eta saindüki hilik, mündü hontarik landan, zelüko resuma eternala eman DIZAZÜN (=dizaizun); Eta zeren komunski herioak gure arimari edekiten,

(1) Lerro hauetan agertzen diren “v” letrak “u” irakur bitez. Arue edo Aibe hirixka Zuberoa Pettarrean dago eta Monein Biarno’n.

edo emaiten baitü bere koroa, edeki EZTIZAZÛN (=ken ez dizazun/dizaizun/dieza-zun) pündü hertsu hartan zuri zure arimarena, herioaz orhit zite ahal bezain ardüra (maiz) (49/72); Noizik behin, kofesa zite intenzione hontan, eta rezebi ezazü gorpitz saindia, Jenkoak eman DIZAZÛN hilze hona (100/145): Bide saindü hontan ma-khür etztian, ennuia etztian, eta Jenkoak eman DIZAZÛN dohaiña, eta grazia per-seberatzeko, eta hon edu.kiteko (102/148).

23/35. Neure adeskide maitia, nahi ezpadüzü deabrü süge gaixto hark zure ari-mari ausikirik, edo zauririk egin DIZON, edukazü zure bihotzaren kanberan, herioa-ren herhautsa (=dizaion/diezaion).

23/35. Eztüzü perilik, minik egin DIEZAZÛN (=dizaizun/dizazun). Normalki "dizazün" darabil.

27/41. Othoitzez zegoen Jenkoari igor LIZON grazia haren bihotz gogorraren, eta hotzaren, Espiritü Saindiaren süiaz beratzeko (=zizaion/ziezaion).

43/64. Galda BANIEZAZÛ nontik heldü zen hamar birjina haien dixa eta ben-türa diferenta, erranen dü, bortz zühürak orhitü zirela herioaz, eta bortz erhoak etzirela orhitü herioaz (=galde ba'nizaizu, galdetzen ba'nizu, galdetuko ba'nizu).

64/95. Anderia, egiaz erran behar drauzüt, zure penaren, eta tribailliaren (tribu-lación) rekompensütan, eta pagütan, Jenkoak EZPADIZAZÛ eman infernia, ogen handi bat, eta injurio handi bat egin drauzü (=ezpa'dizaizu eman, ezpa'dizu ematen); Konsidera ezazü, bekhatü mortalian, herioak eman BADIZAZÛ bere kolpü mortala, zuriak egin dila (duala/duela) (102/147).

85/123. Baiña Jainkoak eman draukü, Sanson handi bat, gure konsolatzeko, eta gure nigarren üxükatzeko (txukatzeko), Jenko honak eman BADIZO osagarri, eta bizitze lüze, gure desira den bezala, gure Eliza, eta gure herria, handi, eta azkhar izanen da gure etsaiez trüfatzeko, eta haien beldürrik ez ükhaiteko (=eman ba'dizaio, ematen ba'dio).

101/146. Aletsandre handiak egün batez manatü zian Apelles pintazale famatü hura, konpazpe (maitari, amorante, ohaide) ederra, eta bere gortian zian maitena figüra LIZAZON, eta pinta bere esküz ahalik hobekiena, eta ederkiena (=zizaion/-ziezaion).

104/153. Eman IZAGÛZÛ egünerozko ogia (=zaiguzu/iezaguzu).

104/153. Barkha ITZAGÛZÛ gure bekhatiak (=zizkiguzu/iezazkiguzu).

X. JEAN-PIERRE ARBELBIDE

ERLISIONEA

(Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak. Heren-Ordreko chehetasunekin eta Mez-Bezperen othoitzeekin, J. - P. Arbelbide aphezak egina. San Agustinen El-gartasuneko, Jaun Desclée, de Brouwer, eta hekien lagunak moldetegian. Lille, du Metz karrikan, 41-1890).

Jean-Pierre Arbelbide (1841-1905), Nafarroa-Behereko Zaro'n sortu zen eta 1867'gn. urtean apez ordenatu. Hazparne'ko Misiolari-etxeko Aita Nagusia izan zen eta Belloc'eko Beneditano komentuari fundaziñoan parte handia hartu zuen. Azken urtetan Baiona'ko katedraleko kalonje izan zen (Xehetasun gehiago nahi dezanak, ikus Villasante'ren H.L.V.). Obrarik nagusienak aipatutakoaz gaiñera: 1. *Bokazionea edo Jainkoaren Deia*. Lille, 1887. 2. *Igandea edo Jaunaren Eguna*. Lille, 1895. 3. *Heren Ordrea*, 1890.

10. Eta ez othe da meneko baten, eta bereziki bere izaitea bera bertzeren ganik deraukan baten eginbidea, bere nausiari eta egileari ohore eta jauspen (mendetasuna, obedikuntza) ekhar DEZON? (=dizaion/diezaion); Eta elizatik elkhi (atera) baino lehen, belhaunikatu ziren Jaundone Betiriren (Petiri, Petri) hobi-aintzinean, othoitz egin zuten Leone (Leon) hamahirurgarrenarentzat, Jainko onak eman DEZON bere laguntza eta etsai guzien gainean garhaizia (garaipena, garaitia, garaita) (180); gal-detzen du (eskatzen du) zeren zuzen baita ohoinak (lapurrak) itzul DEZON jabeari ebatsi duena (203); Errozue othoi Jaunari, berehala idek DEZON biderantari (bidari, bidazti) (379).

10. Bai, zuzentasunak galdatzen (eskatzen) du Jainkoari eskerrik handienak bihur DIOTZOGUN (=dizaizkiogun/diezazkiogun).

17-18. Premia da menekoek buruzagieri jauspena ekhar DIOZOTEN (=dizaieten/diezaieten). Hots, haiek haiei.

20. Ezen buruzagitasunik ez da Jainkoaren ganik baizen; eta Jainko handi horren nahia da buruzagien manu guzieri agur eta jauspen ekhar DAKIOTEN (giris-tinoek). Hots, haiek haiei. Beraz: *dakieten*. Gramatikalki ordea “dizaieten/diezaieten” behar luke. Honela: “etor dakieten” (pasiboki), “ekar dizaieten” (aktiboki).

25. (Lur) hura ez badezaket izan, eman EZADAZU beraz baratzearen ezkerre-ko pentze edo sorho handiaren erdia (=zaidazu/iezadazu).

39. Elizaren soldadoa, barkha ZOZU zure adixkideari (=zaiozu/iezaiozu).

52. Jainkoak eman DIEZAGULA De Sonis bezalako jeneral zonbait (=dizai-gula/dizagula/diezagula).

53. Jainkoak DIZULA egun on, Jauná (Indikatiboko jantziaz subjuntiboaren ordezkoa egiten du. Erregulariki “dizaizula-dizazula-diezazula”esan beharko litzate-ke. Ez aditz-joko honek eta ez goraxeagoko “dakioten”ek ez dute -(e)za— aditz-errorrik, baiñan hauen ordezkotza egiten dutelako aipatzen ditugu).

60. Bederen oraino urrikizko oihu bat egin BALEZO Jainkoari! (Hots, ba'lezo = ba'lizaio/ba'liezao).

62. Ikhus dezagun hortik, zoin gezurrez eta zuzenkontra hartzen duten sineste-gabek, Erlisonearen etsaiek, gure adiskide eta ongi egileen izena. Gizona ezin athera dezakete bizitze huni datxeizkon gaitzetarik, eta azkenean hil-beharretik. Zer diot? Idekitzen (kentzen) diote (gizonari) beren ahalaz hek (haiek) arhint eta gozo DIOT-ZOTEN gauza bakharra, Erlisioea (=dizaizkien/diezaizkien). Ene ustez aditz-joko hau gaizki erabillia dago, zeren “gizonari” baldin ba'da, DIOTZON (=diotzan) behar luke izan, alegia “dizaizkion” eta ez DIOTZOTEN (=diotzaten), hots! “dizaiz-kien”, hau “gizonei” baita. Hontaz gaiñera potenzial eran jarri behar luke, “diotzo-ken” (diotzaken) edo “diotzoketen” (diotzaketen), gipuzkeraz *dizaizkioken/dizaiz-kieken*.

67. Hari ohore bihur DIOZOGUN (= dizaiogun/dieziaiogun); DIOZOGUN erran Jesus-Jainkori (388).

72. Etsayik muthirienerei (okerrenei, makurrenei, ankerrenei) bereri barkha DIOTZETUGULA eginen derauzkiguten gaizki guziak. (Aditz joko hau oso arrarua da. "Diotzotegula" normala irudiko litzaguke. Halabaiña, forma "ofiziala", "Campiön'en arabera, "diotzategula" da (Gram. 472 p.: *diotzategun*). Orobat gertatzen da 62'gn. paiaiko DIOTZOTEN adizkerarekin, "ofizialki" *diotzaten* nagusitu baita eta potenzialean *diotzake/diotzakete* (Camp. Gram. 477 p.). Beraz, oker ez baldin ba'gaude, adizkera bitxi hau gipuzkeraz *dizaizkiegula/dizazkiegula* da eta euskara batuan **diezazkiegula**).

84. Eta orai, atsegin baduzu, joanen gaituzu guziak San Frantsesen aldare aintziner, eta han galda (eska) DEZAKOGUN gure herritar maiteari, bethi eta gehiago Eskualdunen bihotzean hazkar eta finka dezen Erlisioe katolikoa (=dizaiogun/dieziaiogun); Guk ere beraz lehenik beha (begira) DEZAKOGUN Jesu-Kristori, eta gero hobeki ikhusiko dugu zer den Eliza (90); DEZAKOGUN erran San Agustinekin (370); Jesus haurrari galda DEZAKOGUN hek (haiek) zuten bezalako sinestea edo fedea (370); Etsai gaxtoa oldartzen zeraukun (zaikun = zaigun) aldi guziez, buru egin DEZAKOGUN aiphatuz eta errepikatuz Jesusen izen saindua! (371); eta azken orena ethorriko zaukunean (zaiku = zaigu) gure bizia ere Jainkoari eskeint DEZAKOGUN gure hutsen erospenetan (373).

84. Eta zu, bihotz-guziz errekeritzen zaitut ardiets DIEZADAZUN othoi, zure arartekotasun boheretsuaz, dohain guzietarik beharrekoena, sainduki bizitzea eta hiltzea (=dizaidazun/dizadazun).

84. Bestalde, ardiets DIEZADAZUT eta baldin nere galdea (eskea) ez balitz Jainkoaren gorestekoa eta arimaren salbatzeko, ardiets DIEZADAZUT zer-ere bienztat baita hoberenik eta hura (=zaidazu/iezadazu). Ohar datibo bikoiztuari: D + T.

89. Beha DEZOGUN Jesu-Kristori eta jakinen dugu zer den Eliza (=dizaiogun/dieziaiogun); San Joseperi galda DEZOGUN, bertzorduz Jesus eta Maria Herodesen haztaparretatik gerizatu eta zaindu zituen bezala, orai ere Eliza saindua begira dezan bere etsayetarik (376). Ikus daitekenez, "dizaiogun/dieziaiogun" adizkeraren adierazgarri hiru forma darabilzki: *diozogun*, *dezakogun*, *dezogun*.

109. Nola Joanesek, burdinetan (gartzelan) zagoela, ikhasi baitzituen Jesu-Kristoren egintzak, igorri ziozkan bere dizipuluetarik biga, Berari galde ZEZOTEN: Zu zare ethortzekoa dena, ala bertzerik behar dugu iguriki? (=zizaio ten/zieziaio ten).

145. O Jainko, mundu guziak goresten zaituena, irakas DIEZADAZU zeure lege zuzena (=zaidazu/iezadazu); Othoi beraz urrikal nakizu eta barkha DIEZADAZU! (376); Jauna, ja erran dut: ez dut merezi zure mahainean zure haurren herrunkan jartzea: bainan onets (permeti) DIEZADAZU bil detzadan bederen erortzen diren papurrak (451); Barkha DIEZADAZU. ô ene Jainkoa (452). Lau bider darabil "diezadazu" eta behin "diezadazut".

203. Ez da libro (Aita Saindua) ezen duen libertatea, Italia etsayaren eskuan da, eta gobernamentuak egunetik biharrerat khien DEZOKA (=dizaioke/dieziaioke).

203. Bainan guziek dakitena da, Italia okasionearen beha dagola, eta indarririk aski izaitearekin, Aita Sainduari berehala khien LETZOZKELA azken dretxo dituekan (=lizaizkiokela/liezazkiokela).

203. Arrazoinekin galdetzen (eskatzen) du (Aita Sainduak) bihur DEZAKO-TEN hartu dioten erresuma xumea (=dizaïoten/diezaioten).

211. Serorak, irria ezin atxikiz, ihardesten dio: “Jauna, hori ez DEZAKEZUT erran, haina hark (persona harrek) debekatu baitaut.” (=dizaizuket/diezazuket).

214. Behin batez manatu (agindu) zuen (Konstanzio Emperadoreak) soldado guziek sakrifika ZIEZOTEN haren jainko gezurrezkoeri (=zizaieten/ziezaieten), hots, haiek haiei.

227. Aiphatzen diozka bere xedeak eta errekeritzen du othoi erran DEZAKON hea bide onean ala gaxtoan sartzerat abiatu den (=dizaion/diezaion).

233. Nola eta zer hitzez Izpiritu-Sainduak hobeki gogorat sarraraz ZEZAKE-GUN zer premia den gure Erlisioarean ongi ezagutzea? (=zizaïkegun/ziezakegun).

236. Bederen Apostoluek bazuten ikhasteko gutizia. Jesus errekeritu zuten, othoi ageriki xeha (1) ZIOZOTEN hekieri (haiei), bertzeri hitz estaliz erraiten zerayena (=zizaien/ziezaien). Alegia harrek (Jesusek) haiei (Apostoluei).

245. Eta nola nahi dute Jainkoak begi onez beha DIOZOTEN? (=dizaien/diezaien). Hots, Harrek haiei.

247. Hortakotz erraiten zioten Jesu-Kristok bere Apostolueri: Zuek zarete munduko argia; eta beraz argi zazue gizonen aintzinean, ikhus detzazten zuen eginkari onak, eta eginkari horiek ederretsirik, ospe DIOZOTEN bihur zuen Aita zeruetan denari (=dizaïoten/diezaioten). Hots, haiek Harri. Ohartarazi nahi dugu hiru aldiz ageri dela DIOZOTEN aditz-jokoa, baiñan hiruretan esangura liferentez eta horretxegatik aparte ipiñi ditugu. Izan ere, 17-18 paian “haiek haiei” aditzeraematen du, 245^{garrenean} “harrek haiei” eta 247^{garrenean} “haiek harri”.

392. Galda DEZAZKOGUN (Ama-Birjinari) bi grazia (=dizaizkiogun, diezazkiogun).

408. Zoazte, haur hartaz arthoski (arduratsu) argi zaitezte, eta aurkhitu dukezuenean, adiaraz DIZADAZUE, nathorren ni ere haren adoratzera (=zaidazu(t)e, iezadazue). Eskuarki, DI ordezk DIE darabil: diezadazun (84), diezadazut (84), diezadazu (145).

440. Eta ardiets DIEZAGUZUE bekhatuen barkhamendua (=zaiguzu(t)e/iezaguzue).

440. Memento guziek, bizi naizeino, erran BANIEZAZU Jauna! nauzun urrikari (=ba’nizaizu/ba’nizazu/ba’niezazu).

444. Eman DIETZAGUTZUN Jesu-Kristo gure Jaunaren bidez eta izenetan (grazia guziak). Gipuzkeraz: *Dizaizkiguzun/dizazkiguzun*. Euskara batuan: *diezazkiguzun*.

449. Barkha DIETZAKIDATZU ene hutsak, penitentzia egiazko batez zerurat hel nadien (=zaizkidazu/iezazkidazu).

(1) Testuak “checha” dakar, ene ustez inprentako hutsez. Arbelbide’k “cheha” izkiria bide zuen zalantzarik gabe, zentzuak hori eskatzen baitu eta, bestalde, “xexatu” aditzik ezpaitago.

449. Barkha ZAGUTZU gure zorrak, guk gure-ganat zordun direneri barkhatzen dioztegun bezala (=zaizkiguzu/iezazkiguzu). Ohar gaitezen aditz-joko aginkorrei batzutan “die” edo “di” (azken hau behin bakarrik) ezartzen diela aintzinetik eta bestetan ez. Horrela: *diezadazu, diezadazut, diezaguzue, dietzakidatzu* eta, bestalde, *ezadazu, zagutzu*. Azken biotan ere bada bereiztasunik, zeren lehendabizikoak “eza” osorik kontserbatzen baitu eta bigarrenak “e” galdua ditu.

451. Nahi duzu, Jauna, arterik utzi gabe, gure othoitzak erantzun (entzun-arazi, hots, *faire entendre, hacer escuchar*) DIETZATZUGUN (=dizaizkizugun/diezazkizugun).

Egin behar oharak kaso bakoitzean egin ditugu.

XI. DUVOISIN KAPITAINA

“LABORANTZAKO LIBURUA”

(Edo bi aita semeren solasak laborantzaren gainean. Bayonan, Andre Lamaigeneren moldiztegian, Pont-Mayuko karrikan 39 numeroan. 1858. Berorren gortasunari, gure Jaun eta Printze Bizar Luis-Luziano Bonaparteri, Eskaldunen amodioa, Gogoa eta Bihotza, eta ordoen arteak, Berorren eskupeko apha, bainan bethi eskerdun, Duvoisin, kapitainarenak).

Joane Duvoisin kapitaina (1810-1891), Ainhua'n jaio zen, baiñan txipitandik Ezpeleta'n bizi izan zen eta gero Donibane-Lohitzune'n eta Bardoze'n, hots beti Lapurdi'ko barrutian. Larresoro'ko seminarioan apez-ikaskuntzak egin zituen, baiñan asmoz aldaturik, apezgoa utzi eta Aduanatan sartu zen 1830'gn. urtean, bere aitaren langintza berberari jarraituz eta ogibide hontan kapitan maillara heldu zen. Aduana karguarekin Donibane-Lohitzun'en bizi zelarik, Luis Luziano Bonaparte euskaldunen Printzea ezagutu zuen 1856'gn. urtean. Geroztik gure Printzearen lankiderik bikaiñena izan zen. Luis Luziano Bonaparte'ren eskabidez egin zuen lanik inportanteena Biblia'ren (Bible edo Testamentu zahar eta berria) itzulpen osoa izan zen. Sei urtetan (1859-1865) euskaratu zuen Lapurdi'ko euskalkira. Hontaz gaiñera izkiriatu zuen hemen aztertzen dugun “Laborantzako liburua” eta itzuli “Jesu Kristoren imitazionea”, Hariztoi'ek bukatua eta argitaratua. Halaber itzuli zuen “Liburu ederra” izenez Kardaberatz'en “Aita San Ignacio'ren Egercicioen gañean afectoac”, lapurdieraz emanik eta Iturriaga'ren “Diálogos basco-castellanos”. Hauetaz gaiñera argitaratu gabeko lan franko badizu: Fenelon'en “Telemakoren Menturaldiak”, lapurdieraz emanak. Frantses-euskara hiztegi bat. Demostenes'en sail batzuek eta Quijote'ren zenbait atal ere itzuli zituen. Gaiñera kazetaritzan jardun zen eta estudio historikoak eta gramatikazkoak egin zituen. Poeta eta musikalaria izan zen eta Villasantek dionez: “5.000 horrialde eskuz izkiriaturik utzi zituen Euskalerrri'ko historiaz, hizkuntzaz eta literaturaz”.

21. Egin DIOZOGUTEN ongi, eta ongi izanen dugu (=dizaiegun).

31. Jo DEZOGUN bihotzez lanari (=dizaiogun); Jo DEZOGUN lanari, ene semea (94).

79. Lehenik xeha DIEZADAZU zer den uztalda (=i)zaidazu/(i)zadazu); Aita maitea, aipha DIEZADAZU idiaz (233); Barkha DIEZADAZU (255); Erran DIEZADAZU nola behar diren gizenarazi (258).

90. Semeak: Aiphamen egin duzu zaldi-babaz; ¿zer da hura? Aitak: Beranduegia ez-balitz, erran NEZAKEZU orai (=nizaizuke/nizazuke/niezazuke).

90. Jaun onari egin DIOZOGUN othoitza (=dizaiogun/dieziaiogun); Egin DIOZOGUN beraz othoitza eta gomenda gaitezen Jaun onari (390).

166. Urin hortarik ogitan edo bertze zerbaitetan hartzen diozunaren arabera, bihur DIOZOU ongarritan (=zaiozu/izaiozu/ieziaiozu).

227. Ohartzen bazare badela bat edo bertze jana histua duenik, begira ZOZU ongi heya gaitzik ageri duenetz (=zaiozu/izaiozu/ieziaiozu); Aberea ilhun ikhusten duzunean, khien ZOZU janetik (228); Urkhila hautsi nahi duzunean, mendebal aldeko adarra utz ZOZU nihondik ahal bada (358).

235. Bakotxak irabazi gehiena eman DEZOKREEN mota (erosi behar du) (=dizaiokeen/dieziaiokeen).

264. Eman DEZOGUTEN beraz (aziendei) faruxa (pagotxa) berotua freskoa- ren aldean, eta dugun ikhus zeini lothuko diren gogotikenik (=dizaiegun/dieziaiegun).

314. Eta bizkitartean gizona itsua izan behar da ez-ikhustekotzat zahartzte on bat segura LEZOKEEA bere buruari, baldin arbolaz bethe baleza bere onthasuna (=lizaioke(e)la, lieziaioke(e)la).

330. Landareak hastapenean elkhar ganik hurbil utziz, lerdénago eta legunago ethortzen dira. Bainen urthe oroz aintzina bakhandatzen dira, handitzen direnaren arabera; bertzela, usuegi geldituz elkharri bidegabe ekhar LEZOKETE (=lizaioke/ lieziaioke).

Oharra.—Dakuskegunez, Duvoisin'ek *dizaiegun/dieziaiegun* adierazteko bi forma darabilzki: *diozoguten* eta *dezoguten*; halaber, “zaiozu” aditzera emateko *diozozu* eta *zozu* darabilzki eta *dizaiegun/dieziaiegun*: *diozogun* eta *dezogun*.

Essai de Traduction Basque de DON QUICHOTTE Sur la demande du Colonel X

(Antze handitako Aitoren seme Don Kichote Mantchakoaren gerthakariak *Don Miguel de Cervantes Saavedrak* Erdaraz ezarriak *Duvoisin Kapitainak* Eskararat itzuliak. Ernest Seitz, Imprimazale, Biarritzen, 1904-garren hurteko Uztailan).

3. Aita bati gertha badakio seme bat itsusia eta moldegabea, bere haurarentzat duen amodioak ezartzen dio begietan bela (velo) bat ez dadin ohart haren baieri (akatsei, defektuei), bainen haz detzan hobeki zerbait maithagarri eta panpoxik balire bezala, eta bere adiskideeri aipha DETZOTEN, hala nola izpirituko xorginkeria eta pollit batzu (=dizaizkien/diezazkien). Campiön: *dioztaten*.

7. Halaber sonetaz (soneto) hastapenean eskas izanen da ene liburua, edo bederen duke, markis, konde, andre handi, aphezpiku edo bertsulari ospe handitakoek egin sonetaz; nahiz galda BANETZOTE bizpahirur adiskide ofizioko direneri, eman LAKIZKITEDALA segur naiz, eta hala-hulakoak non gure Espainia huntan gehienik aiphatzen diren bertsularienak ez bailitazke heien berdineko (=ba'nizaie/ba'niezaie eta zizaizkidatela/ziezazkidatela). Badirudi "banetzote" gaizki erabillia dagoela eta "banezote" behar lukela izan. Campión'en arabera "baniozate". Ostera, "banetzote" edo "baniotzate", ba'nizaizkie/ba'niezazkie izanen litzateke. "Lakizkitedala" berriz oso adizkera arrarua da. Campión'en arabera "zietzadatela" dateke (482 p.).

7. Guzien buru, ene adiskide jauna, gogoari eman diot utzi behar dela Don Kixote jauna Mantxako bere liburutegian ehortzia, Jainkoak igor DEZON arteo horrenbertze gauza eskas dituenek nork ederztatuko duen (=dizaion/diezaion). Campión'ek lapurdieraz DIOZAN ematen du (471 p.).

28. Eta oraino, arrazoin soberatua zen nausia ofizioz ganbiatzen zen ordutik, zaldiari ere alda ZIOZON izena eta bat eman famatua eta harrabots handitakoa, eta hartzen zuen ordena eta ofizio berriari zegokiona (=zizaion/ziezaion). Campión'ek lapurdieraz "ziozan" ematen du (483 p.). Don Kixotek erran zion berriz, handik aintzinerat haren amorekatik egin ZIOZOLA fagore ezartzeaz Doña bere izenaren aintzinean eta deit zadin Doña Tolosa (63).

48. Bainan ezin eman ZEZOKETEN edatera, eta ezina geldituko zen hori, baldin mentazainak zilhatu ez balu kanabera bat, eta muthur bata ahoan ezarririk, bertetik ixurtzen zion arnoa (=zizaioketen/ziezaioketen). Campión'en arabera "ziozaketan" (488 p.).

49. "Naizen tokitik ez naiz sekulan xutituko, zaldun balenta, zure kortesiak onhets DIAZADAN arteo galdegin nahi darotzudan (dizudan) dohain bat, hura izanen baita zure bethiko ohoretan, eta gizon kasta guziaren onetan." (=dizaidan/diezaidan). Campión'ek: *diezadan* (471 p.).

57. "Ene laguntzera egizu, oi ene andrea, zure zerbitzari jarria den bihotz huni egiten zaion lehenbiziko laido huntan, lehenbiziko atheka (egoera) txar huntan ez BIAZATET hutsik egin zure fagoriak eta laguntzak!" (=bizaidate/biezaidate). Campión'ek: *biezate* (473 p.).

60. Zuen ahal guziaz jazar DIADAZUE (=zaidazu(t)e/iezadazue). Badirudi lapurdierazko "diazadazue" laburtua dela. Campión'ek *zadazue* dakar (473 p.).

62. Hori egin ondoan andretto hetarik bati manatu (agindu) zion espata loth ZEON gerrian, eta hala egin zuen hainitz artexki eta gurbilki (zuzen eta arduratsu). Lehenago (28 p.) "ziozon" erabilli du kasu honetan (=zizaion/ziezaion/ziozan).

62. "Jainkoak egin beza zure eskerra (vuesa merced) zaldun dohatsu eta alde ezar BEZO gudueta zoria." (=bizaio/biezaio). Campión'ek lapurteraz: *biazio* (474 p.).

BIBLE SAINDUA JOSUE

210-I-15. Jaunak zuen anayei sesua (lasaitasuna, trankiltasuna) eman DEZOTEN arteo zuei eman izan darotzueten bezala (=dizaion/diezaion); eta ethorkizunean

zuen semeek gure semeei erran ez DEZOTEN: Pharterik ez duzue Jauna baithan (232-XXII-27).

212-IV-3. Eta mana (agindu) ZOZUETE Jordaneke erreka erditik har detzaten aphezak baratu diren tokian hamabi harri gogorrenetarik (=zaiezute/ieziaezute); Bat-tasuneko arkha dakharten aphezei mana ZOZUETE Jordanetik ilkhi (atera) ditezela (213-IV-16).

216-VII-19. Ene semea, ospe bihur ZOZU Israelgo Jainko Jaunari (=zaiozu/ieziaiozu).

216-VII-19. Aithor eta erakhuts DIZADAZU zer egin duzun (=zaidazu/zadazu/iezadazu).

223-XIII-7. Eta orai lurra zathi DIOZOZUETE gozatzeko bederatzi leinuei eta Manaseren leinu erdiari (=zaiezute/ieziaiezute).

225-XV-18. Eta elkharrekin zihoazelarik, Aksa bildua izan zen bere senharraz aitari galda ZEZONE landa bat (=zizaion/iezizaion).

227-XVIII-4. Hauta zatzue leinu bakhotxetik hirur gizon, igor detzadan, goan ditezten, inguraka dezaten lurra, xeda (demarcar, limitar) dezaten oste bakhotxeko nombreak arabera, eta niri erran DEZADATEDAN nola xedatu duketen (=dizaidaten/dizadaten/diezadaten).

227-XVIII-6. Hekien artean den lurra zazpi zathi egizue, ta ethorriko zarete hunat enegana, zortea hemen athera DEZADAZUENTZAT zuen Jainko Jaunaren aintzinean (=dizaidazuten/dizadazuten/diezadazuten); Ingura zazue lurra eta xeda, eta itzul zaizte ene gana, hemen Silon Jaunaren aintzinean athera DEZADAZUENTZAT zortea (227-XVIII-8).

ERRUTH

262-I-9. Phausua (atsedena) eman BEZAZUETE hartuko ditutzu senharren etxetan (=bizaizute/bizazute/biezazute).

252-I-16. Erruthek ihardetsi zuen: Ez BEZAIKIZIT trebes (trabeska) jar, utz zaitzadan eta goan nadientzat (=zakizkit?). Zentzuaren arabera hala dirudi, nahiz-ta lapurtera ofizialean, gipuzkeran bezala, “zakizkit” izan, hots! “zu ez *zakizkit* trebes jar” eta “haiek ez *bekizkit* trebes jar”.

262-I-17. Edozein gaitzez jo beneza (benaza, naza) Jaunak, eta egin BEZAT gehiago oraino (=bizait/bizat/biezat).

263-II-9. Manatu diotet (agindu diet) ezen ene muthilei (morroiei), nihork ez DEZAZUN nahigaberik eman (=diza(i)zun/diezazun).

263-II-12. Bihur BEZAZU Jaunak zure egintzaren arabera (=bizaizu/bizazu/-biezazu).

263-II-16. Zuen eskumenetarik ere berariaz arthik zatzue (apropos bota itzazute), eta utz gibelerat, ahalkerik (lotsarik) gabe bil detzan, eta biltzen dituenan niork ez BEZO gaizkirik erran (=bizaio/biezaio).

Oharra.—“Josue”ren saillean, gipuzkerazko “zaiezute” edo euskara batuko “jezaiezue”-ren ordez Duvoisin’ek ZOZUETE (212-IV-3) eta DIOZOZUETE (223-XIII-7) darabilzki. “Zaiozu/jezaiozu”ren ordez ZOZU (216-VII-19), baiñan “Laborantzako liburua”n ikusi dugunez DIOZOZU ere badarabil. “Zaidazu/iezadazu”ren ordez DIZADAZU darabil, hots, “D”-dun forma bakarrik. “Erruth”en “zakizkit”en ordez BEZAIZKIT (262-I-16), ene ustez makurki. “Diza(i)zun/diezazun”en ordez DEZAZUN (263-II-9) darabil, konjugaziño zuzenarekin zeharo nahasten delarik. Alabaiña, ohitura txar hau sobera sartua dago Bidaso’z handik eta, oker ez baldin ba’naiz, baita Nafarroa’n ere.

XII. AXULAR

“GERO”

(Bi partetan partitua eta berezia: Lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak, egitekoen geroko uzteak. Bigarrenean kidatzen da eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik, berehala, bere eginbideari lotu nahi zai-kana. Eskritura saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debosizinozkoetarik, Axular Sara’ko erretorak bildua. Ne tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem. Eccles 5. Bordele’n, G. Millanges Erregeren Inprimazaillea baitan. M.DC.X-LIII).

Aurreneko erabakibeharra lerro hauetan zera dugu: zer soñekoz jantzi bere pont-izena, zeren Bertrand de Etxauz (Echaus) Turs’ko Arzipizpiku jaunari egindako “Gomendiozko karta”n, “P. de Axular” firmatzen baitu soil-soilki. Beraz, hizkuntza maillan, zer adierazten du “P” horrek? Petri? Pedro? Pierre? Petrus? Villasante’k dio Axular’ek beti firmatzen zuela “Pedro de Axular” (1) eta firma ez den dokumentu batean ere, behintzat, honela dio euskal-letren patriarkak: “Yo Pedro de Axular retor del lugar de Sara” (2). Baiñan, badakigu, bestalde, bere aitari “Petri de Axular” esaten ziotela: “Filiū legitimū Petri de Axular et Mariae de Azpil(c)ueta” (3). Beraz, euskaldunen artean, eguneroko euskal-giroan, ez ahal zuten, bere aita bezala, “Petri” izenaz ezagutuko? Nik baietz uste. Eta “Petri”ri dagozkion erdal-izenak baztergarri baldin ba’zaizkigu, uste dut ere baztergarri jo ditzakegula “Petrus”i dagozkion beste euskal-izenak: Petria (4), Petiri, Betiri, Betri, Pette, Peillo, Peio, Perua, Peru, Txeru, Pedroa, Piarres, Pierra... Gaiñera, Axular’ek “Iondone Petri” erabiltzen du “San Pedro” adierazteko (adibidez “Gero”ren 258 puntuari). Uste dut guztihonek ematen didala eskubiderik aski beste guzien artean Petri izen-aldakera onartzeko.

Beraz, Petri d’Agerre eta Azpilkueta, Axular bere sortetxearen izenaz ezagutua, Nafarroa’ko Urdazubi’n jaio zen 1556’gn. urtean. Iruñea’n ordenatu zen diakonupeko (1584), Lerida’n diakonu (1596) eta Tarbes’en apeztu (1596), berrogei urtetsukin. Iruñe’ko eliz-barrutia utziz, Baiona’kora aldatu zen eta Donibane Lohitzun’en egin

(1) “Axular: mendea, gizona, liburua”, 32 paia.

(2) Idem., 49 paia.

(3) Idem., 42 paia.

(4) Petria eta ondorengo Perua ta Pedroa, Petriarena, Peruarena eta Pedroarena deituretatik atera ditugu.

zituén lau urtetan predikari bezala gailendu zen. Bertrand de Etxauz Baiona’ko apez-pikuak Sara’ko erretorgoa eman zion 1600’gn. urtean eta herri hontako erretor iraun zuen hil arteraño, 1644’gn. urtean. “Gero” bere liburu ospatsua 1643’an argitaratu zen Bordele’n lehenbiziko aldiz, hots, Axular hil baiño urtebetetsu lehenago. Gero, beste ediziño hauek izan ditu: bigarrena, “Geroko Gero” izenez, nun eta noiz atera zén segurtamenik gabe; hirugarrena, Baiona’n, 1864’an; laugarrena, Zarautz’en, 1954’an; boskarrena, Villasante’reñ gaztelaniazko itzulpenaz, Barcelona’n, 1964’gn. urtean; seigarrena, Usurbil’en, hau ere Villasante’reñ itzulpenaz, 1976’gn. urtean. Zazpigarren ediziñoa iragarririk dago. RIEV aldizkaria gerla aurretik zatika argitaratzen ari zen Axular’en testua “facsimile” eran ta Añibarro’reñ bizkaierazko itzulpe-na. Berri gehiago nahi dezanak konsulta bitza euskal-literatura liburuak eta baitipat Villasante’reñ “Axular: mendea, gizona, liburu” (1). Gure lanerako bi azken edizi-ñoak erabili dtugu. Lehendabizi Usurbil’ko ediziñoaren paia dakargu, gero Barzelo-na’koarena eta ondoren bioi eta beste ediziño guziei dagokien puntua. Beraz, hiruga-rren lumeraziñoak ediziño guzientzat balio du.

13-51/6. Abisu eman DIAZADAN (=dizaidan/dizadan/diezadan); beldur naiz bigarreneko gathiba (katigatu=zoratu/lilluratu) nadin, eta neure desira desordena-tuak behar eztena eragin DIAZADAN (443-508/257).

17-56/11. Hari eskerrak errenda IATZOTZU (=zaizkiozu/iezazkiozu); Nahi baduzu sua iraungi dadin, egurrak edeki (ken) IATZOTZU (329-386/194); Edeki IATZOTZU beraz egurrak (445-520/264).

33-73/21. Iguzkiak arrazoiñekin erran ahal DIAZAIIO beranduraino ohean datzanari: zerk (h)aratzta (2) hor alfer-nagia? (=dizaioke, diezaioke); halako faborea, garazia, indarra eta haizea eman ahal DIAZAIIO zure gogoari (89-131/55); Hark libertate hari eta haren iraupenari, gutien uste duenean, bortxarik egin gabe, utz arazi DIAZAIIO, herts ta traba (itxi eta trabapetu), daraman bide gaixtoa (127-170/76); Zeren Iainkoak ezin barkha DIAZAIIO bekhatoreari, bekhatutan dagoeiño (161-206/95); Konzientziak ez Aita Sainduri, ez Enperadoreri, ez Erregeri, eta ez mun-duan den bertze presunari, EZTIAZAIIO (=ez DIAZAIIO) barkha (477-542/274); Utzi du Iainkoak (arima), har dezagun beraz guk, daramagun, zeren gurea da, eta nori berea, ezin nehorke edeki (ken) DIAZAIIO (629-708/357); Bada (pues) lurrak ere egin ahal DIAZAIIO erantzute (639-720/363).

35-74/21. Bada (pues) aniamalia adimendurik eztutenek ere (3), behintzat erleek eta xinhaurriek, arrazoiñekin erranen derakute (digute), beha DIAZEGULA, heken (haien) nekeak, trabailuak eta ioan-ethorriak konsidera ditzagula (=dizaiegula/die-zaiegula).

(1) “Jakín” editoriala, Arantzazu-Oñati, 1972.

(2) Zerk haratzta hi, edo berdin dena, zerk etzan-arazten hau hi ohean? Erantzuna: alfer-keriak, nagikeriak. “Eratzan” (hacer acostar, hacer tumbar, hacer yacer) aditz-eragillearen bigarren personari dagokio. Era berean: “erakarri”tik: harakari; “eraman”etik: harama; “era-billi”tik: harabil; “eragin”etik: haragi... Gaur “zerk hauka” esango genuke gipuzkeraz (zuka: “zauzka”).

(3) “Bada, adimendurik eztuten animaliek ere” esango genuke Bidaso’z honuzkuok eta uste dut hobeki legokela. Axular’ek darabillen joskera ez dut uste euskal-senak agindua denik. “Bada” (=pues). Ez nahas afirmaziñoarekin. “Aniamalia” (aniamale, aliamale, animale, arima-le): animal.

37-76/22. Are gehiago, hozidurak (ernamiñak, kimuak) ianez gero ere, lurraren humidurak (umedadeak) eta hezetasunak gaiñerakoa ustel EZTIAZON (ez DIAZON), atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzerara: eta orduan denbora onaren seinalea dateke (da noski). DIAZON = dizaion/diezaion. Ezta lainkoa halako moldez miserikordios, non iustiziar bide gabarik egin DIAZON (159-206/94); hala da halaber, erhokeria ez ttipia, kolera handi batean itsutua eta irakitua dagoenari, hala dagoenean, abenikoaz (bakeak edo onezkoak egiteaz) minzatzea, bere etsaiari barkha DIAZOLA (=dizaiola/diezaiola) erraitea (339-398/201); ukhon-doaz utzi (ukalondoaz ikutu) dezan edo begiaz kheñu egin DIAZON (359-418/211); Aitzitik, orduan behar du permatuago (saiatuago) eta emlegatuago, hartaraz gero garaitia (garaipena) bertzek eraman EZTIAZON (517-586/298).

55-96/34. Zeren beldur zen, enzun zezan berehala Iainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin, bere gogoan zerabiltzenak, gibela (atzera) ZIATZON (=zizaizkion/ziezazkion).

79-121/49. Iguriki ahal DIAZAIZU (=dizaizuke/dizazuke/diezazuke).

85-128/53. Zeren baldin obraren akhabatzera utz bazinitza peril bailluke, akhomet (eraso) LIAZAZUTEN zuzen (eskubide) dutela lur haren gaiñean (=zizaizuten/ziezazuten).

11-154/69. Eta halaber guztien athei dagote (guztien atetan dago), guztietan deitzen du, ideki BALIAZOTE nahiz (=ideki nahi ba'lizaiote/ba'liezaiote); eta erran BALIAZOTE: "etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko" (297-352/177); Zeren hain da klar ez tirela iustu, non baldin bertzetan ibili gabe, galdegin BALIAZOTE berék bere konzientziari hark berak erakuts baillizaie egia (473-539/273); Baldin galdegin BALIAZOTE orai ludasi: Errazu, diszipulu gaixtoa, zeure nabusiaren saltzaillea, zenbat denbora du (da), barren horretan, ifernuko pena horietan zaudela? (677-761/387).

125-170/76. Iraun arazi ahal DIAZAIOLA (=dizaiola/diezaiola); Zeren ezta, soberaniak (gehiegiak) gaiñez eragin EZTIAZAIONIK (ez DIAZAION-ik), ezta bere neurria baiño gehiago dadukaionik (127-172/77); eta berak bertzeri egiten ez tioena, EZTIAZAIOLA (ez DIAZAIOLA) berari ere bertzek egin (505-574/292); Gauza gaizki egina da eta itsusia, adiskideari, deiez dagotzunean, ez ihardestes, athean iguriki (itxodon, itxon) arazitzea; eta berehala eman ahal DIAZAION errepuestaren, eta egin ahal DIAZAION zerbitzuaren gerozo luzatzea (625-704/355); Erran komuna da (lehen ere erran dugun bezala) EZTIAZAIOLA nehork ere nehoi, hanbat kalte eta bidegabe egin, nola berak bere buruari (697-782/399).

151-197/89. Misericordios da Iainkoa, maite gaitu, on derizku, bereak, bere odolaz erosiak gaitu, men menara gaitezinean EZTIAZAIGU (ez DIAZAIGU) falta: beraz har dezakegu esku eta lizentzia zenbait bekhaturen egiteko (=dizaiguke/dizaiguke/diezaguke).

165-211/97. Hamar ezkuturen (1) behar zarenean edo bertze premia bat eta eskastasun bat duzunean, etzara fidatzen, eztuzu esperantzarik, prestuki bizitzen zarela eta bekhatuik egin gabe egoiten zarela, zeure premia eta eskastasuna estal ahal DIAZAIZULA Iainkoak (=dizaizula/dizazula/diezazula).

(1) Escudo (txanpona).

183-230/110. Baldin merkatarik batek eman **BALIAZO** bere semeari diru suma bat bere eskuko, manai lezan, enplega lezan, tratuan eta merkatalgoan erabil lezan (=ba'lizaio/ba'liezaio); Baiña areago egin liazaio, baldin Errege berari bere presunan eman **BALIAZO** (287-340/170); bere buruari ere zenbait kolpe gaixto eman **BALIAZO** (349-407/206).

183-230/110. Ordea, baldin seme hark bere aitaren eman hek (haiek) guztiak, iokoa, ian edanean eta arloterian gasta balitza, arrazoiñekin lizateke seme hura beldur, ez **LIAZON** bere aitak aitzinarat gehiago eman eta ez fida (=zizaion/ziezaion).

183-230/110. Eta are lehen emanak ere edeki **LIATZON** (=ken zizaizkion/ziezazkion).

183-230/110. Hala bada, arrazoiñekin izanen gara gu ere beldur edeki (ken) **DIAZAGUN** geure laungoikoak ethorkizuneko denbora, iragana hain gaizki enplegatu dugunaz geroztik (=dizaigun/dizagun/diezagun); Behar diogu geure etsaiari barkhatu, guri ere geure Iainkoak barkha **DIAZAGUN** gatik (379-437/222).

191-238/115. Manatzen (agintzen) zuen Iainkoak Lege Zaharrean, fruitu guztietarik primizia eman **ZIAZOTELA**, guztietarik parte bat, eta parterik hoberena, prinzipalena eta estimatuen, nola komunzki ohi baita lehenbizikoa, oferenda **ZIAZOTELA** (=zizaioleta/ziezaioleta); Hek (haiek) eta halakoak dira eskriba fariseoak bezala, zeñek konsentitzen baitzuten, egin **ZIAZOTEN** (=zizaioleten/ziezaioleten) Iesu Kristo gure Salbatzaileari eta haren izen sailduari, heken (haien) etxekoek eta bertze guztiek hanbat irri eta eskarnio (293-347/174); Eta hain aitzina iragan zen egitekoa, non ikusi zuenean emazte gaixtoak, nola zen obeditua, manatu baitzuen errege berari burua edeki (ken **ZIAZOTELA** (391-451/229); deliberatu zuen (erabaki zuen) eta manatu (agindu) iustizia egin zedilla, bere semea atzeman **ZIAZOTELA**, eta begiak legearen arauaz athera ziazotela (393-453/231); athera **ZIAZOTELA** aitari berari bere begietarik bata, eta semeari beretarik bertzea (393-454/231); haren (Dario'ren) alaba ederrak bertze presoen artean hartu zituztenean, etzuela nahi izatu (Alexandro handiak) ekhar **ZIAZOTEN** hetarik (haietatik) bat ere bere aitzinera, beldurrez ikhushi eta gero, behar etzena eragin **ZIAZOTEN** (445-508/257).

191-238/115. Manatzen zuen halaber Iainkoak berak, usoetarik, ez uso handiak, baiña usakumeak ekhar **ZIATZOTELA** (=zizaizkioleta/ziezazkioleta); begiak legearen arauaz athera **ZIATZOTELA** (393-453/231).

203-251/123. Ez lizateke bada arrazoin, zuk ere bitarte hartan, eskerrak errenda (eman) **ZINIATZON**, zerbitza zenezan, lauda eta ohora zenezan? (=zenizaizkion/zeniezazkion).

231-280/138. Ha, iauna, othoi barkha **IAZADAZU**, bizia indazu (=zaidazu/iezadazu); euzu (ezazu) bada nitzaz miserikordia: eta egor **IAZADAZU** Lazaro, hark bere erhi (behatz) puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan (673-755/384).

249-299/147. Dudan (daukadan) guztia probei eman **BADIAZET** ere, eta neu-re burua erratzera utz badezat ere, etzaizkit hek (haiek) guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik ezpadut (=ba'dizalet/ba'diezaiet).

251-303/149. Baldin emaiteko gaietan (moduan) bagara, edo debozinorik badugu, eman **DIAZOGUN**, eta gaiñerakoan utz dezagun (=dizaigun/diezaiogun);

Oraiño, egia hunen frogatzeko, beha DIAZOGUN ongi, gizonaren bekhatuagatik egin zen pagamenduari (685-769/392).

265-317/157. Hunenbat meza eta trentena eman arazi DIATZADALA (=dizaizkidala/diezazkidala).

265-318/158. Are gehiago, erremusinen eta bertze obra onen ondokoetara utzteaz, emaiten duzu aditzera gibeletik eta urruititik nahi duzula argi DIAZAZUTEN (=dizaizuten/dizazuten/diezazuten); erran EZTIAZAZUTEN (ez DIAZAZUTEN), hiltzerakoan emaiten duzuna, bortxaz emaiten duzula (269-322/160); Eta halatan lekhuko harekin batean eman DIAZAZUTEN zeure erranean fede eta sinheste (283-336/168).

265-318/158. Zer zenerrake (erranen zenuke), baldin gau ilhunean, pausu hertsia (paso estu), gaitz, perilos batean iragan behar duenak, erran BALIAZE bere muthilei (morroiei), daudela gibelat, eta gibeleti eta urruititik dagiotela argi? (=ba'lizaie/ba'liezaie); Baldin Aingiru batek erran BALIAZE Iainkoaren partez ifernuan daudenei: Ea, iende penatuak, indazue albiriste (emaidazue opari), berri on bat eman nahi deratuet (679-763/388).

269-321/159. Heriotzera baiño lehen egiozu ongi zeure adiskideari, eta duzun indarraren arauaz hedatzen IAZOZU zeure eskua probeari (=zaiozu/ieziaiozu); Eta ezpe-re (bsestela) beha IAZOZU hasarretua dabillan bati (315-371/187); Beha (begira) IAZOZU bada halako bati (315-371/187); beha IAZOZU urkhabeari berari (587-663/335).

269-322/160. Egun batez egin zioen othoitz Santa Luziak bere amari, gero egin gogo zuena, geroko begira egon gabe, egun beretik egin zezala, eritasunaren eta heriotzearen hersturan iarri gabe, sendo zela berak bere eskuz bere onak pobrei parti ZIATZELA (=zizaizkiela/ziezazkiela).

281-334/167. Eta hobe da halaber utz DIAZUZUN zeure umeari edo ondo-koari guti, eta on, ezen ez anhitz eta gaixto (=dizaiozun/dieziaiozun); Nehork (iñork) bidegabe bat egiten deratzunean (dizunean), eztu nahi Iainkoak zuk ordaiñik bihur DIAZUZUN (375-434/220); EZTIAZUZULA (ez DIAZUZULA) beha, emazte arin, airatu (aizetu), lehiariari (aldakorrari): behin ikhusiz gero, *ne respicias*, ez bir-ikhus, ez berriz bihur (441-505/256); Errege, ezta egundaiño lurraren gaiñean hain emazte ederrik sorthu, merezi du hain bertze ohore eman DIAZUZUN, merezi du behin ikhus dezazun (443-507/257); EZTIAZUZULA beha urkhabeko bide ederrari (587-663/335); EZTIAZUZULA (=ez dizaiozula/dieziaiozula) beha bekhatuaren egitean hartzen duzun atseginari (587-663/335).

283-336/168. Eztuzu eginen iuramenturik Iainko falsoez, zeren hartan bidegabe egin ZINIAZAIIO egiazko Iainkoari, hari dagokan ohorearen, bertzeri emaitiaz (=zenizaioke/zeniezaioke); mirets zenezake, eta arrazoiñekin erran ZINIAZAIIO, erhoa dela (613-692/350).

287-340/170. Iben baleza Errege batek legea, eztiola nehork ere biziaren penan nehoari behar-ondokorik (belarrondokorik) emanen, eta guztiarekin ere gertha balekio zenbaiti, emaitera zenbaiti, halakoak bidegabe egin LIAZAIIO Erregeri, zeren haren lege, eta mandamentu hautsi baitu (=lizaioke/liezaioke); Baiña areago egin LIAZAIIO, baldin Errege berari bere presunan eman baliazio (287-340/170); Zeren baldin geldi baledi, hark midizinari eta ezartzen den erremedioari, indarra flaka

LIAZAIIO, eta berthutea edeki (381-440/223); zer gozo, zer zaphore, zer atsegin eta plazer har ahal LIAZAIIO bekhatuari? (587-664/335).

297-352/177. Nola baldin gizon bati, erraiten dituen hitz guztietan nehor kontra balekio (iñor kontra jar ba'lekio), eta erran baliazote: “etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko” (testigu), desohore eman BAILLIAZAIOTE. (Badirudi, aditz prefijodun hau, deskonposaturik, “bait-liazaite” dela. Baiñan, dirudienez ere, “bait” ez da hemen aurrizki kausagarri (causal), afirmagarri baizik. Beraz, “desohore eman LIAZAIOTE” berdin litzateke. Villasante’k, “se le haria deshonor” itzultzen du. Bestalde, “liazote” (ikus BALIAZOTE sailla, 111-154/69) eta “liazaite” adizkera berberaren jazkera liferenteak direla esan daiteke. Uste hontan sendotzen gaitu aztertu berria dugun LIAZAIIO adizkera senideak (287-340/170). Gipuzkeraz, forma soil hauen hutsean, itzulpen hurbillena bezala, potenziala erabili behar (orain artean tankera berekotan egin dugun bezala), hots: lizaioke/liezaioke. Konpara bedi kaso hau aintzinagoko (473-539/273) BAILLIZAIE’rekin.

333-390/197. Baiña baldin baten bia bihur BADIATZOT, egin zaitan baiño gogorkiago mintza banakio, erranen dute, gizona naizela, ohoreaz prezatzen naizela, eta balentki egin dudala (=ba’dizaizkiot/ba’diezazkiot).

333-391/198. Egun batez galdegin zeraukaten (zioten) Dionisio filosofoari, ea zertaz egin ahal ZIAZAIION gizon batek bere etsaiari damurik (kalterik) eta atsekaberik gehiena? Eta ihardetsi zuen hitz gutiz eta laburzki prestu izaiteaz (=zizaion/ziezizaion); Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen faborerik, ahaidetik eta ez urrerik, eta ez zilharrik hauts arazi ahal ZIAZAIIONIK (ZIAZAIION-ik) (391-452/230).

340-398/201. Aitzitik baldin orduan nehork halako gauzarik, abenikoazkorik (onezkoak egitekorik), aipha BADIAZO: aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da, erratzen da, arneguz (biraoz) eta iuramentuz hasten da (=ba’dizaio/ba’diezaio); Baiña bere amoranteak, bere plazereko dadukan gizon gaixto batek, burua hauts BADIAZO ere ixil pairatzen (sufritzen) du (583-659/333).

345-402/203. Zeure etsaiek anhitz bidegabe egiten deratzute, eta ikhusteintu Iainkoak bidegabe hek (haiek), badakizki, eta nahi balu ez LIAZAIZUTE halakorik egin (=lizaizukete/liezazukete); Baldin zure zapatak, eta etxean zeure zerbitzuko dituzun bertze gauzak mintza albalitezi, erran LIAZAIZUTE (635-715/360).

345-403/204. Eta Iainkoak uste balu etzarella harentzat izanen, halako penarik eta atsekaberik ez LIAZAIZULA eman (=zizaizula/ziezazula).

345-404/204. Nahi du (Iaungoikoak), dituen (eduki ditzan) etsaiak, eta egin DIATZOTEN bidegabeak (bekhatore eriarri) (=dizaizkioten/diezazkioten); eta gero ediren duenean, alegeratzen baita, eta kontatzen baiteraue (baitie) bere hauzokoei bere sendagaiila (ustegabekoa, “miraria”), eta erraiten egin DIATZOTELA bozkarioak (zorionak) (619-697/352).

349-407/206. Beraz nola, baldin bazendu anaia bat erhoa, eta adimendutik iauzia, eta hark anhitz gaizki egin, eta erran BALIAZAZU (=ba’lizaizu/ba’liezazu); Eta ihardets BALIAZAZU, midizina bat hartu nahi gabez, eta midikuagana ioan nahi gabez eztelea sendatzen: mirets zenezake (613-692/350).

349-408/206. Aita, barkha IAEZU, eztakite zer hari diren. Zeren koleran baitaude (=zaiezu/iezaiezu).

359-417/211. Anhitz balio du adiskide leial baten bere konpaiñian izaiteak, hark egiak erran DIATZON (=dizaizkion/diezazkion).

369-430/217. Elkhar onhets (maite) dezazuela, etsaiari barkha DIAZOZUE-LA (=dizaizutela/diezaziozuela), etsaiari ene amoreakgatik barkha DIAZOZUE-LA (373-433/219).

373-432/218. Aitak manatzen (agintzen) nau barkha DIAZAZUEDALA (=dizaizuedala/diezazuedala/dizazuedala).

379-439/222. Erraxki barkhatuko diozu zeure etsaiari, Iainkoak zuri barkha DIAZAZUNGatik (=dizaizun/dizazun/diezazun); Etzaituela ezagutzen, berandu duzula, eztuzula erremediorik erran DIAZAZUNean? Eta hunela erranik, athea herts (itxi) DIAZAZUNean? (649-731/370).

379-439/223. Egizu kontu, ea zenbat bekhatu egin dituzun orainokoan, eta zein handiak, eta nahi baduzu zuk barkha DIATZATZUN hek (haiek) zuri zeure Iaungoikak, barkha iatzotzu (1) zuk ere zeure etsaiari, egiten derauzkitzunak (dizkitzunak) (=dizaizkizun/dizazkizun/diezazkizun); beraz eztuzu nahi barkha DIATZATZUN (bekhatuak) zuri ere zeure Iainkoak (381-442/224); hark zuri guztiak barkha DIATZATZUN (383-442/224).

381-441/224. Etzaika barkhatu behar, barkhatu nahi eztuenari. Eta halakoak eztu berak ere nahi barkha DIAZOTEN (=dizaioleten/diezaioten); hala bada (asi pues), konzientzia gaixtoa duena ere, lehenbiziko aldi gaitzean, den buruko minik tti-pianean, da beldur hil dadin, bizia edeki DIAZOTEN (487-554/281).

381-441/224. Iauna, barkha IATZAGUTZU geure zorrak, guk guregana zordun direnei barkhatzen derauztegun (dizkiegun) bezala. Erran nahi du: Iainko Iauna, barkha IATZAGUTZU zure alderakotzat egiten ditugun faltak, eta bekhatuak, guk gure etsaiei, gure alderakotzat egiten dituzten hutsak eta gaizkiak barkhatzen derauztegun bezala (=zaizkiguzu/iezazkiguzu).

389-450/229. Eta noiz, eta amorio hura baitzegoen gorèn puntuan, eta graduan, iduriturik ezen orduan zela okhasinorik eta paradarik (abagunerik, mugonik, okasiñorik) hoberena nahi zuenaren egiteko, egin zioen emazte gaixtoak othoitz erregeri arren denbora aphur batez, bortz egunez, eman ZIAZOLA bere zuen eskua, eta botherea, bitartean utz zezala erresuman manatzera (=zizaola/ziezaola); Etzeikan (etzitzaion) ausartu othoitztera egor (bidal) ZIAZOLA pitxer bat ur (673-755/384); Baiña haren desirkunde guztia zen, erhi punta urean sar zezan, eta hartaz mihia utki ZIAZON (= zizaion/ziezaion), plazer hura egin ZIAZON (673-756/384).

411-473/240. Bere eskutik eduki nintzala (Iainkoak), erortzetik begira nintzala, eta garaitiarekin gelditzeko indar eta antze eman ZIAZADALA (=zizaadala/zizadadala/ziezadala).

473-539/273. Zeren hain da klar eztiela iustu, non baldin bertzetan ibili gabe, galdegin baliazote berèk bere konzientziari hark berak erakuts BAILLIZAIE (bait-LIZAIE) egia. Eta handik berèk kondena baillitzakete (bait-litzakete) bere buruak. (Hemen ere, BAILLIAZAIOTE aditz-jokoarekin esandakoak (297-352/177) berritu

(1) Adizkera honek IATZOTZU saillean (17-56/11) joan behar zuen, baiñan ahantzirik gelditu zitzaidan. Gipuzkeraz: zaizkiozu. Euskara batuan: iezazkiozu.

behar ditugu. Aurrena jakin-araz dezagun bi aldiz azaltzen den “berèk” izen-ordea “merkatariek” izenaren (aktibo-plural kasoan) ordezko dagoela, goragotik merkatariez ari baita Axular. Hemen ere, “bait-” aurritzia bi aditz-jokotan (baillizaie eta baillitzakete) afirmagarria da eta ez kausagarria. Beraz, *erakuts lizaie* eta *kondena litzakete* esatea berdin da eta guretzat ulerterezago. Villasante’k, “èsta les mostraria la verdad” eta “ellos mismos se reconocerian culpables” erdaratzen ditu bi kasuok. Gipuzkeraz, beti bezala, potenzialaz baliatuko gara —Axular’ek ez baitu “ke” ezau-garri ahalkorra erabiltzen datiboko adizkeratan— jokaldi soil hauek emateko, hots: “lizaieke/liezaieke”, alegia, konzientziak erakuts liezaieke egia merkatariei. Gogoan har, “liazaio” eta “liazaioite” bezala, “liazaie” erabiltzea zegokiola Axular’i, eta ez “li-zaie”, baiñan ez dugu zertan harriturik, zeren, gure irazle zahar guziak bezala, aditz-jokoak ez baitzitu gramatika molde zorrotzez ematen, jendearen erabil-moldez bai-zik eta hau oso aldakorra izan ohi zen.

507-575/293. Nola etzara beldur ahalke (lotsa) gabe dakizkitzun, eta eztena badela erran DIAZAZUTEN? (=dizaizuten/dizazuten/diezazuten).

545-617/313. Pontu huni ihardesteko, iakin behar duzue ezen baldin alde bate-tik Iainkoaren lege sailduari berari, hain osoki eta konplituki, konplitu eta begiratu behar denari eta bertzetik geure haragiari ere berari, hain gauza flakoari, eta flaka-tzen erraxari, soilki eta bakharrik beha BADIAZEGU, latz eta gaitz dela Iainkoaren zerbitzatzea, eta haren lege sailduaren begiratzea eta konplitzea (=badizaiegu/badie-zaiegu).

559-632/320. Erran bazeneza: Hegaztina haur (egazti hau) trabatzen, eta kar-gatzen dute bere hegalek, eta urrikaldurik, edeki (ken) BAZINIATZO (ba’ziniatzo), kalte gehiago egin ziniazaio (1), probetxu baiño. Zeren airatzen, eta hegaldatzen zena, lurrean geldi bailliteke (2) (=ba’zenizaizkio/ba’zenieazkio).

559-633/321. Galdegiten dute Teologoe, ea guk geure bekhatuakgatik, geure Iainkoari, satisfazionerik, eta pagamendurik egin ahal DIAZAI OGUNZ (diazaiogun-z). Eta badirudi ezetz (=dizaiozun-z/diezaiogun-z). Gipuzkeraz *di(e)zaio gunez* edo *ote di(e)zaio gunez* esango genuke. Ohar gaitzen Axular’ek Bidaso’z handiko beste izkiriatzaillek bezala, “badirudi” irabiatzen duela, nahiz-eta gero “iduri du” erabili. Honek esan gura du lehen forma “irudi” zela, Bidaso’z honuztik bezala, eta “iduri” metatesis berantiarrago bat dela.

561-634/321. Beraz ezin egin DIAZAI OGU guk geure Iainkoari pagamendu-rik (=dizaiokegu/diezaiokegu).

567-642/325. Emaztètara emana den batek, eztu uste, emaztèkin segitu gabe, nehor bizi ahal ditekeiela. Baldin erran BADIAZOUZU badela anhitz segitzen eztue-nik, eztu sinhesten. Zeren ezpaita bera egoiten (=ba’dizaiozu/ba’diezaiozu).

585-660/334. Nola Iainkoaren zerbitzatzeko bidea, gogotik (gogoz) dagoena-rentzat, baita plaun (lau) eta zabal, ezluke nahi Deabruak zabaltasun hari beha

(1) Adizkera honek ZINIAZAI O saillean (283-336/168) joan behar zuen, baiñan ahan-tzirik gelditu zitzaidan (=zenizaioke/zeniezaioke).

(2) Hots, “bait-liteke” afirmagarria. Beraz, “geldi liteke” bezala. Gipuzkeraz, *geldituko litzake* (litzateke) esango genuke.

XIII. XURIO

JESUCHRISTOREN IMITACIONEA

(M. Chourio Donibaneco Erretorac, Efcararat itculia. Emendatua Meçaz eta Igandetaco Befperez. Emendatua othoitz eta pratica batez Capitulu baccoincharen akhabançan, çoinac itculiac içatu baitire Franceffetic Efcararat Bayonaco Dioceffaco Jua Aphez Miffioner batez. Bayonan, Trebos, Liburu, Saltçaille baitan, Apoumaiouco carrican. M. DCC. LXXXVIII. Permissionearekin.)

“Mitxele Xurio —dio Aita Villasantek—, Lapurdiko Azkainekoa zen sortzez. Herri hontako *Martzeenia* etxean jaio zen. Donibane Lohizuneko erretore izan zen eta 1718-gn. urtean hil zen saindu hotsean. Bi urte geroago, 1720-an alegia, Kempisen bere itzulpen famatua atera zen: *Jesu-Christoren Imitacionea*. Obra honek, gero, franko edizino berri ezagutu du.

“Kempis-en lehendabiziko itzulpena ez baldin bada ere —zeren lehenago obra hau Aranbillaga-k eta Silvain Pouvreau-k itzuli baitzuten—, hau askoz ere perfetago zen eta euskaldun herriaren gogorako hobeki ekarria zegoen. Xurio, lapurtar klasiakoaren aurkezlerik gorenetakoa dugu, bere hizkuntzaren duintasunez, prestutasunez eta jauntasunez” (1).

IV. Ardietz DIEZAGUZUE bekhatuen barkhamendua (=iezaguzue/zaiguzu)(te).

IV. Erran BANIEZAZU: Iauna! nauzun urrikari (=banizaizu/banizazu).

VIII. Desira-araz DIEZADAZU (=zaidazu/zadazu); Barkhamendu akorda DIEZADAZU (X); permeti DIEZADAZU bill detzadan (XI); Barkha DIEZADAZU (XII); Ianaraz DIEZADAZU nigarrezko ogia (95); Barkha DIEZADAZU, othoi (165); irakatz DIEZADAZU zure nahiaren egiten (191); khi DIEZADAZU othoi gutizia hura (236); Desiraraz DIEZADAZU bethi (237); errex DIEZADAZU ene baitan (250); irakats DIEZADAZU zure manamenduen bidean ibiltzen (262); heda DIEZADAZU eskua (286); Iraun-araz DIEZADAZU, othoi, gogo on huntan heriotzeraino (321); Galde DIEZADAZU beraz (356); urrikal nakizu, eta barkha DIEZADAZU (372); Begira DIEZADAZU (408); Prepara DIEZADAZU sala handi bat (469).

X. Barkha DIETZAKIDATZU ene faltak (=iezazkidazu/zaizkidazu); irakats DIETZAKIDATZU zure manu sainduak (198); Barkha DIETZAKIDATZU (344); ahantzaraz DIETZAKIDATZU munduko gauzak (352); Barkha DIETZAKIDATZU ene falta guziak (453).

XII. Nahi duzu, Iauna, arterik utzi gabe gure othoitzak adreza DIETZATZUGUN (=diezazkizugun/dizaizkizugun).

XII. Baiñan egizu, zuzenki konportatzen naizelarik, bethi begira DIEZAZUDAN ene gogoeten, ene hitzen, eta ene obren errege eta asken fiñari bezala (=dizai-

(1) *Historia de la Literatura Vasca*, 107/108 paiak.

zudan/dizazudan); Nahi baduzu beraz hura eman DIEZAZUDAN, hastan zatzu (aparta itzazu) zure ganik traba guziak (374).

33. Eta nola beha DIOZOKET nere buruari, nere buruaz nardatua izan gabe? (=diezaioket/dizaioket). Beha = kontu egin.

48. Ez DIOZOZULA edozeiñi ager zure bihotza (=diezaiozula/dizaiozula); halere ez DIOZOZULA zure buruari agiñ segurantz osorik (116); O Israelgo, Jainko podoroso, giristiñoen arimak haiñ samurki maite dituzuna, ikhusazu zure zerbitzariaren penak, eta nekheak, eta ESTIOZOZULA (EZ DIOZOZULA) falta zure laguntza bere behar guzietan (253). Ene ustez, gipuzkeraz, *ez dizaiozula ken zure laguntza* itzuli behar da, bestela, *ez dizaiola falta zure laguntza* itzuli behar baita.

48. Jainkoari gomenda DIOTZOTZU (=iezazkiozu/zaizkiozu); Ofrenda DIOTZOTZU bethi ere Jainkoari zure othoitzak (107); eta ofrenda DIOTZOTZU bethi ere zure othoitzak Jesu Christori (128); Eskerrak bihur DIOTZOTZU Jainkoaren miseriardiari (355).

56. Jainkozko gauzei gostu har GINOZOKETE (=genieziaieke).

68. Amudio kharsu batek sakrifika DIOTZAN gure arrazoiñ eta argi guziak (=diezazkion/dizaizkion).

71. Guziak zure gatik eragin DIETZAKETEDAN bezala (=dietzadaketen, diezazkidaketen, dizaizkidaketen).

71. Eman DIEZAGUN indarra hekin ungi iasateko (=dizaigun/dizagun).

73. Barkhe DIETZAGUTZU gure zorrak (=iezazkiguzu/zaizkiguzu).

90. Barkha DIETZAKITZUN zure bekhatuak (=diezazkizun/dizaizkizun).

95. Galde DIOZOZU (=iezaiozu/zaiozu); maiz beha DIOZOZU (118); aphain DIOZOZU (126); Idek DIOZOZU beraz zure bihotza Jesu-Christori (126); senti-araz DIOZOZU, othoi, ene bihotzari (149); Senti-araz DIOZOZU zure boz sakratuaren aditzea (187); beha DIOZOZU, Jainkoari, zure ontasun bakharrari bezala (241); Iauna, idek DIOZOZU ene bihotza zure lege sainduari (262); eta hobeki beha DIOZOZU bertzeren progotxuari (461).

105. Ensaia zaite orai halako maneraz bizitzera, non zure heriotzeko orenak beldur baiño bozkario gehiago eman BAITIEZAKEZU (=baitizakezu, bait-dizakezu).

108. Sar-araz zatzu beraz, Iauna, zeronek ene gogoan pentsamendu salbagarri hauk. Eragin DEZADATEN orduan eginik kausitu nahiko dudana (=diezadaten/dizadaten).

115. Bahi (prenda) preziatu hortaz (zure odola) errekeitzen zaitugu (te suplicamos, te rogamos), barkha DIETZAGUTZUN gure bekhatuak (=diezazkiguzun/dizaizkiguzun).

131. Ezen gizonen maleziak eziñ egiñ DIOZKE bidegaberik Jainkoak lagun-du nahi duenari (=diezaioke/dizaioke).

133. Delibera zazu beraz, egin DETZAKETZUKETEN eskarnio guziak hartuko tutzula (dituzula) errenkuratu gabe (=diezazkizuketen/dizaizkizuketen). Deliberatu: erabaki. Eskarnio: atsekabe. Errenkuratu: kejatu.

133. Eta graziaz goritua beha DIOZODAN munduko estimuari ikhararekin (=dieziadon/dizaionan).

136. Nola hori? Egin DETZAKEGUTEN, edo gutaz erran detzaketen gaizkiak, pazienki Jainkoaren amorea-gatik iasanez (=dietzaguketen/diezazkiguketen-/dizaizkiguketen).

146. Eta izpirituko penetan, asaldatu gabe, humilki behatzen da hartako kontseilu eman DEZOKETENEI (=diezaiketenei/dizaiketenei).

149. Ezen gizonak Jesu billhatzen eztuenean, bere buruari kalte gehiago egiten dio, mundu guziak eta bere etsaik handienak egiñ DIOZOKOTEN baiño (=diozaket-/diezaiketeten/dizaiketeten).

151. Hortaz zer probetxu ekhar DIEZAZUKE mundu guziak ere Jesus gabe? (=dizaizuke/dizazuke); Jesus zurekiñ bada, eziñ nihork kalterik egiñ DIEZAZUKE (151); Zer bidegabe egiñ DIEZAZUKE gizon batek bere solasez, eta hitz gaixtoez? (311).

153. Neke, eta hainitz gogor da, izaitea gure barrena idek DIOZOGUKEIEN adiskide bat gabe (=diezaiokegun/dizaiokegun).

162. Ez DIEZADAZULA eman, ô ene Jainkoa, konsolazionerik ene bekhatuen urrikiaz (damuaz) gabe nezakenik (162).

166. Eta behiñ ere konsolazionerik eman ez BALIOZATE ere, ez litezke geldi hargatik bere laudorioak, eta eskerrak hari bihurtzetik (=baliezaie/balizaie). Hots: kontsolazionerik eman ez baliezaie Jesus maite dutenei.

168. Zure bizia, eta zure odola, zuk enetzat eman tutzun (dituzun) bezala, zureztat sofritzeari, eta hiltzeari, dohatsutasunik handienari bezala beha DIOZOTEDAN mundu huntan bizi naizeno (=diozatedan/diezaiedan/dizaiedan); Egidazu grazia munduko gauza guziei beha DIOZOTEDAN gauza iragankorrei bezala (282); Egizu, othoi, gauza guziei beha DIOZOTEDAN zure probidenziaren ordenan, eta hortan pausa nadin (318/319).

177. Nihork ethorri nahi badu ene ondotik ukho egiñ BIOZA bere buruari, ekhar beza bere gurutzea, eta iarraiki bekit (=biezaio/bizaio).

194. Gogoan erabiltzazu zure bekhatuak damu eta bihotz miñ handirekiñ, eta zure obra onek ez BIEZAZUTE eman buruperik (=biezazue/bizaizute).

217. Baiñan halaber nahi dut hertsiki bihur DIETZAKIDATZUN, zor zaizkidan eskerrak (=diezazkidazun/dizaizkidazun).

224. Edo zelo gaizki neurthu batez bertzeei eskandala eman DIOZOGUTEN (=diezaiegun/dizaiegun); gaurko lapurdieraz: *diozategun*.

232. Egin DIEZAGUZU, othoi, grazia (=iezaguzu/zaiguzu); Ah! Iauna, sentiaraz DIEZAGUZU othoi, zer ondiko (zorigaitz) den gureztat zure graziaren galtzea (336).

247-248. Othoizten zaitut enetzat izatu duzun pazieniaz, egin DIEZADAZUDAN arren grazia, zure urhats dolorosei kuraioski (bulartsuki) iarraikirik, zure loriara heltzeko (=diezadazun/dizaizadazun). Xurio-k —DA— datiboa errepetitzen du. Gaurko lapurtar literarioak, orde, DIEZADAZUN egiten du.

260. Zure grazia bihur DIEZADAZUN arteraño (=dizaidazun/dizadazun); Zer nahi pairaraz (sufriaraz) DIEZADAZUN (361).

268. Berrez (ugaldu) DIETZADATZU zure graziak (=iezazkidazu/zaizkida-zu).

269. Zure bothereak bakea eman DIETZADANTZAT (=diezadantzat/dizadantzat). Lapurteraz DIEZADAN (=dizaidan) singularra da eta DIETZADAN (=diezazkidan/dizaizkidan) plurala. Esaldiaren zentzuak singularra eskatzen du, baina egileak, hutsegitez, plurala erabili du.

269. Mana DIOZUZUTE haizeei eta tenpestei (=iezaiezu/zaiezu); Iauna, barkha DIOZUZUTE miseriakordia galdetzen darotzutenei (dizutenei) (455); barkha DIOZUZUTE bertzei bihotz onez zuri egin darozkitzuten (dizkitzuten) ofensak (458).

272. Adiaraz NIEZAZUKE gogotik (gogoz) ene hitza, eta ager sekretu gordeak (=nizaizuke/nizazuke).

278. O ene Jainkoa, atseñi egiazkoen ithurburua, ganbia DIETZADATZU behazunetarat haragiaren gezurrezko konsolazione guziak (=iezazkidazu, zaizkida-zu).

280. Iakin zazu deusek ere eziñ hanbat kalte egiñ DIEZAZUKELA nola zure buruarentzat duzun amudioak (=dizaizukela/dizazukela).

296. Lekhu, eta gauza guzietan present den Jainkoak, igurikitzen du (itxoiten du) gure bihotzen sakrifizioa, eta bethi bihur DEZOGUN zor diogun ohorea, gure gainerat bere grazien gaingiduraren (ugaritasunaren), eta gozoez ixurtzeko (=diezaigun/dizaigun).

309. Nahi zinduke (zenduke/zenuke) eman NIEZAZUN berehala hanbat sainduak haiñ neke, eta nigarren ondoan izatu dutena (=nizaizun/nizazun).

324. Eztut nahi loriarik, eta bozkariarik hartu zure baitan baizen, ene bizi guzian, ezen nitaz denaz bezanbatean eztut deus loria, eta burupe (handinahia?) eman DIEZAKEDANIK ene flakeziak, eta ez deustasuna baizen (=diezadakenik/dizadakenik); Nondik duket ausartzia zure ganat ethortzeko ni, zeñak ez baitut ene baitan sentitzen deus onik, zerbait burupe (buru-jabetasun?, agintaritza?), edo segurantzaz eman ahal DIEZAKEDANIK? (413).

334. Gor izan ere behar duzu hañitz solasentzat, eta erne hagitz (asko) bakea eman ahal DIEZAZUKETEN gauzentzat (=dizaizuketen/dizazuketen).

353. O egia eternala! hel zakizkit eztezazula sofri banitateak egiñ DIEZADAN daiñurik (=dizaidan/dizadan).

353. Zure miseriakordia infinituak barkha BIETZAKIT othoitzean nagoenean zure ganik ene gogoa hasantzen (apartatzen) duten errebelamendu (extravio) guziak (=biezazkit/bizaizkit).

354. Manera hortan bere konzienzia soseguan emanik othoitz garbia ofrenda DIEZAZUNTZAT (=dizaizuntzat/dizazuntzat); zer nahi den atakada (eraso, atake) egiñ DIEZAZUN (=dizaizun/dizazun, 457).

377. Ala gauza ezdeusa baitzaut lurra zeruari behatzen diodanean, erran DEZAKEZUKET Iauna, S. Ignazioarekin! (=diezazuket/dizaizuket).

382. Naturalezak iakin nahi tu (ditu) gauza gordeak, eta sekretuak: aditu berriak ilkhi (atera) kanporat, eta dastatu gauza guzietarik. Nahi du izan ezagutua, eta zerbait egiñ bederen laudorioak, eta estimua erakhar DIOZAKETENIK (=diezaioketenik/dizaioketenik).

405. Sainduei (1) bihur DIOTZOKETEGUN ohorerik lakheten zaiotena da, heien imitatzea, heiek J. Khristo egin duten bezala (=diozaketegun/diezaieketegun/diezaieketegun). Hutssegitez “T” pluralgilea darabil.

420. Nork konpreni, are gutiago esplika dezake J. Khristok aldareko sakramenduan erakusten daukun jenerositatea? Bera emaiten da guri den guzia. Halako gisaz non erran baitezakegu S. Augustinekin, Jainkoak bere podore guziarekin ez DEZAKEGUKELA egin emaitza handiagorik, bere aberastasun guzietan ez baitu emaiteko (=diezagukela/dizaigukela).

427. O! amodioaren Jainkoa, hunenbat egin duzunaz geroz, garbi zazu, othoi, ene arima, susta (pizkortu, zuzpertz, sutu) zazu ene bihotza, zuk erakusten darotazun (didazun) amodioari ihardets DEZOKEIEN khar batez (=diozaken/diezaioeken/diezaioeken). Zehatzago: diozakeen/diezaiokeen/diezaioeken.

454. Manera hortan bere pena guzietarik ilkhirik bere eskerrak bozkariorekin bihur DIETZAKIZUTENTZAT (=dietzatzuentzat/diezazkitzuentzat/dizaizkitzuentzat).

470. Zeiñak eziñ bere ezagutza erakuts BAILIOZAKE bere miseriaren aithorrez (=bait-liozake/bait-liezaioke/bait-lizaioke).

472. Ezen egiazki zurekiñ duzu (Jainkoa), eta mundu guziak ere eziñ idek (ken) DIETZAKEZU (=diezazuke/dizaizuke). *Diezakezu* behar luke izan eta ez *dietzakezu*. “T” sobra dizu.

476. Orduan Iaunak erran LIEZAKET (=liezadake/lizaidake) enekiñ: Egon nahi baduzu, nik ere nahi dut zurekiñ egon: eta nik ihardets NIOZOKE (=niozake/-niezaioke/nizaioke): Ah! Iauna, gogotik, egidazu fagorea enekiñ egoteko, nik nahi dut zurekiñ egon ene bihotz guziaz (2).

479. Zure miseriak, Iauna, eman DIEZAKET errexki hanbat desiratzen dudana grazia hori (=diezadake/dizaidake).

XIV. BERNAT LARREGI

TESTAMEN ÇAHARRECO ETA BERRICO HISTORIAO

(M. de Royaumontec eguin ičan duenetic berriro escararat itçulia; Exemplan eta erreflexione sainduequin; bi Liburutan ezarria. Lehembicico Liburua: Testamen

(1) Tekstuan, inprentako hutsez, noski: *Sainduci*. Gogoan har oso erraza dela “e” eta “c” letrak nahasten.

(2) Badirudi hemen nahaste bat dagoela eta horrela behar lukeela: Orduan Iaunak erran LIEZAKET: Enekiñ egon nahi baduzu, nik ere nahi duk zurekiñ egon:

Çaharra, Bayonan, Fauvet-Duharten Imprimerian eguina. M.DCC.LXXV. Permissionearequin).

Villasante-k dio: “Uztaritzeko erretore izan zen lehendabizi eta gero Basusarriko. Lafitte-k badizu susmorik hura izan zela *Cantico Izpiritualac* izeneko liburuaren egilea, 1763-an argitaratua eta gero aunitz aldiz bir-inprimatua. Baina haren obrarik nagusia *Testamen zaharreko eta Berriko Historia* da, M. de Royaumont-ek frantsesez egindakotik euskerara itzulia. Bi tomotan agertu zen Baionan. Lehenbizikoa 1775-ean, eta Testamentu Zaharra hartzen du bere baitan. Bigarrena, 1777-an; Testamentu Zaharraren azken parteaz, Testamendu Berri guztiaz eta 150 orrialde sermoiez eta Saindu Bizitzet horniturik dago” (1). Guk, eredu garri bezala aski dela koan, lehendabiziko tomoa bakarrik erabili dugu gure lanerako.

V. Erran behar da lan idor eta nekagarri huni lotzeak ematen duela ageriki erakusterat obra hunen, moldatzailearen amodioa bere eskal herriarren alderati zuzen da guziok bihur DIOTZAGUN gure eskerrak (=diezazkiogun/dizaizkiogun).

16. Hartan kausitzen (aurkitzen) ziren begiari eta gostuari atsegin egin ZIOZOKETEN guziak (=ziezaiekeen/zizaiekean); Ezagutu zuten alferretan zela elkharganatzea, eta etzela deus ere isrraeldarrei buru eman ahal ZIOZOKETENIK (196): ziezaiekeenik/zizaiekeanik.

40. Nola ikhusten baitzuen, aitzinetik, Sara bere emaztearen edertasunak ekhar ZIOZOKELA bidegabe (=ziezaiokeela/zizaiokeala).

57. Bihur DIOZOZU senharrari bere emaztea (=iezaiozu/zaiozu). Erran DIOZOZU populuari (175); ofrenda DIOZOZU holokausta bat Jainkoari (224).

60. Jainkoak, nahiz (nahirik) Abraham frogatu, manatu zioen (agindu zion) har zezan Isaak bere seme maitea, eta imola ZIOZON mendi gain batean(=ziezaion/zizaion); othoitztu zuela Jainkoa ezagutaraz ZIOZON, esplikatzen ziotzoten (2) seinaletarik, Isaakentzat zadukan emaztea (67); Ordu zela beraz hari zadin beretzat, eta eman ZIOZON buru bere etxearen gobernuari (80); Arrazoin hortaz, populuak othoitztu zuen Moise bera mintza zakion, eta erran ZIOZON, Jaunaren partez, manatu nahi ziotzon (zizkion) gauza guziak (141); egin zezaten, zazpigarren egunean, betan (denok batera), harramantza (zalaparta) borthitz eta min bat, eta populu guziak ihardets ZIOZON harramantza hari (190); Gedeon-ek othoitztu zuen aingerua arren eman ZIOZON seinale bat segurantzatzat erraten ziotzanak (zizkionak) egiak zirela (206); Gero errekeritu zuen igurikitzeaz (itxoiteaz) aphur bat jateko zerbeit ekhar ZIOZON artean (206); Nahi zuen oraino Jainkoak eman ziozan (ziezaion) bere borondatearen seinale berri bat, eta ezagutaraz ZIOZON hura hautatzen zuela bere populuaren aintzindaritzat hortan (209); Gedeon-ek errekeritu zuen Jainkoa eman ziozan (ziezaion) segurantza berri bat, hartaz baliatu nahi zela bere populua etsaietarik libratzekotzat, eta erakuts ZIOZON nahi hura, mirakuillu berak esleitzen zion (3) huntaz (209).

(1) Aita Villasante Kortabitarte, “Historia de la Literatura Vasca”, 109 paia.

(2) Badirudi “berak haiei esplikatzen zizkien” dela eta ez “haiek berari esplikatzen zizkionten”.

(3) Esleitu: designar, indicar, determinar. “Mirakuillu berak esleitzen zion huntaz” = berak esleitzen zion mirari hortaz.

66. Eliezer, alde hetarat (haietara) zenean, eta hurbildu zenean Nachor hiritik, othoitztu zuen Jainkoa, ezagut-araz ZIOZAN Isaak-i bere emaztetzat eman gogo zioena (ziona) (=ziezaion/zizaion); othoitztu zuen (Moisek Faraon), egundaino beza-la, permeti ZIOZAN eramatea Jainkoaren populua morturat (basamortura), hari sakrifizio bat ofrendatzekotzat (121); nahi zuen oraino Jainkoak eman ZIOZAN bere borondatearen seinale berri bat (209); Gedeon-ek errekeritu zuen Jainkoa eman ZIOZAN segurantzta berri bat hartaz baliatu nahi zela bere populua etsaietarik libratzekotzat (209); Handik laster, Dabit-ek, Joab-en erranetararat eta othoitzetarat, permetitu zion Absalon-i, egin ZIOZAN salutantzia (311).

72. Har ezatzu (itzazu) zure armak; zohazi ihiztatzerat (ehizatzerat), eta ekhar DIEZADAZU edirenen (aurkituko) duzuna, hartarik jan ondoan, eman zaitzadan (diezazudan) ene benedizioea (=iezadazu/iza(i)dazu); Bihur DIEZADAZU lehen nuen indarra iazartekotzat philistindarrei ene begien gal-arazte sari (235); Othoi, erran DIEZADAZU non den profetaren etxea (264); Ordean egizu lehenik enetzat ogi xume bat, errearaz zazu hautspear, eta ekhar DIEZADAZU (350); Aski da, Jau-na, khi DIEZADAZU bizia, ezen ez naiz ene aitzinagokoak baino hobea (355).

“Kalkulu honen arabera, hortaz, berezkunea Kristo aurretikako 5.000 urtean jarri behar litzateke.”

“Ba dirudi, beraz, beti Swadesh-en hipotesiaren arabera, euskara eta Kaukaso-ko hizkuntzen berezkunea *urrutienik* Kristo aurretikako SEIGARRREN MILAURTEAREN HASTAPENEAN jar daitekeela.”

[Los subrayados y mayúsculas son de Txillardegui.]

A la vista de estas puntualizaciones de ambos, parece que, dentro de los márgenes que es preciso conceder a las evaluaciones de este género, nuestras estimaciones (no se olvide “el período de convivencia”), pueden considerarse concordantes, y compatibles también con la antigüedad asignada por Zytsar’ a los fenómenos por él estudiados.

Nos permitimos recordar que, en estos estudios, debe tenerse presente lo que en aquel trabajo (p. 173) llamábamos “substrato pre-euskaro”, constituido por elementos pertenecientes “a la lengua o lenguas que hablaban, en la zona pirenaica —antes de la lengua procedente del Cáucaso— los pueblos de raza vasca que vivían ya en aquella zona, como hemos visto, cuando menos desde el aziliense o incluso desde el magdalenense”.

Por último, en coincidencia con lo anteriormente expuesto, reproducimos las siguientes palabras de Barandiarán [J. M. de Barandiarán. *El hombre prehistórico en el País Vasco*, 1953, pp. 156-157]:

“El parentesco que varios lingüistas contemporáneos (Trombetti, Marr, Dumézil, Uhlenbeck, Lafon, Bouda) descubren entre la lengua vasca y las lenguas caucásicas, se explicaría procediendo de una cultura y de una lengua euskarocaucásica primitiva. Como ésta se hallaba, al parecer, emparentada con el indoeuropeo primitivo que se habló durante el Neolítico final en las regiones al Este del Ural, y con las lenguas fino-ugrianas habladas en la región del Volga medio, cabría señalar en los confines de Europa y de Asia la cuna y el foco de donde se irradiaran hacia los países occidentales las lenguas de la familia euskarocaucásica. Esto ocurriría hacia el III milenio antes de

nuestra era. De confirmarse tales sugerencias, la lengua vasca, de origen asiático, habría sido importada hace próximamente 4.000 años por un pueblo inmigrante o habría llegado asociada a un movimiento cultural que al principio del Eneolítico introdujo nuevos modos de vida en la población pirenaica. Pero todavía es pronto para formular en esta cuestión una solución categórica, que está reservada sin duda a las futuras investigaciones de antropología y de arqueología prehistóricas y de lingüística comparada.”

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKARAZ HITZ BERRIAK MAILEGUAN HARTZEKO PREMIA LEGOKEENEAN NOLA HAR LITEZKEEN BUKAERARI DAGOKIOLA

II. HITZ BUKAERAK

Arau nagusitzat hurrengo hauek ematen dira:

1. Iturri zaharra latina delarik mailegu berriak hartzen direnean orainarteko hitzek izan duten ohizko bideari jarrai dakioke hitzaren bukaerari dagozkionetan, eta, euskal literaturaren tradiziozko usuarioa bikoitza denean, ahozko mintzairan ere beste horrenbeste gertatu izanik, ahal dela joera hedatuenari eutsiko zaio, literatura zaharrean izan duen pisua ere gogoan hartzen dela, edo, erraz ezin erabaki baledi, oraingoz biak har litezke; jakina, bestelako fenomeno fonetikorik ez dago zertan kontuan hartu, hala nola, bokal artean **-l- > -r-** bihurtzea, **-n-**ren ondoko kontsonante oklusiboa ozen egitea, eta abar, bide zahar eten gabekotik baletoz gertatuko litzatekeen erara.

Puntu honetarik abiatzen garela hona hemen sor daitezkeen problemetarik zenbait:

Latinez **circulus**, **-i**, forman ezagutzen zenez gero, orain **zirkulu** hobetsi beharko litzateke, bai izkribuz erabiltzeko eta bai ahoskatzeko, eta ez ***kirkuru**, latinez **calculus**, **-i**, orain **kalkulu**, era horretara **artikulu**, (Ax.), **kapitulu**, (Ax.), **titulu** (P. Ab., 48), **mirakulu** (Leič., 209, Ax.: **mirakuillu**), eta abar, aspaldidanik euskaraz korritzen dutenak baitira, latinez **articulus**, **-i**, **capitulum**, **-i**, **titulus**, **-i**, **miraculum**, **-i**, izanik. Era berean **pendulu**, eta ez ***benduru**, latinez **pendulus**, **-a**, **-um**.

Latinez **apparatus**, **-us**, orain **aparatu**, era berean **mandatu**, (Ax., P. Ab., 107, sustantiboa), egiten baita, latinez **mandatus**, **-us** izanik.

Latinez **decretum**, **-i** orain **dekretu**, era berean **sekretu**, (Leič., 310: **secretuac**, Ax.: **sekeretu**), baitugu, latinez **secretum**, **-i**.

Latinez **creditum**, **-i**, orain **kreditu**, era berean **infinitu**, (Ax.), baitugu, latinez **infinitem**, **-i**, eta **meritu**, (Ax., Leič., "Fedeco Articvlvez", 19: **merituz**), latinez **meritum**, **-i**.

Latinez **institutum**, **-i**, orain **institutu**, latinez **statutum**, **-i**, orain **estatutu**.

Latinez **documentum**, **-i**, orain **dokumentu**, Iparraldeko zenbait mailegu zaharretan, Zuberoakoetan izan ezik, **-mendu** bukaeraz agertzen bada ere, gainera berrekailu moduan beste zenbait euskal hitz iturri zaharrekori itsatsirik, hala nola, **aitzinamendu**, (Ax.), **luzamendu** (Ax.), eta abar, **iuramendu**, (Ax., Leic., 210: **iuramenduz**), latinez **iuramentum**, **-i**, **tentamendu**, (Ax.), latinez **tentamentum**, **-i**. Badira akabuan **-ment** dutenak ere Iparraldean, azken bokalik gabe: **monument**, (Leic., “Testamentv berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu”), baina autore beraren tituluan ikusten denez **testamentu**, eta ez **testament**, hori ere ezaguna baita han, latinez **monumentum**, **-i**, eta **testamentum**, **-i**, eta abar.

Latinez **solidus**, **-a**, **-um**, eta **liquidus**, **-a**, **-um**, orain **solidu** eta **likidu**, edo **solido** eta **likido**, gogoan izanik **partidu** erabiltzen dela Hegoaldean, **-u** bukaerari analogiaz eutsi dion hitza hain zuzen ere, nahiz eta jatorri zuzenez latinetikoa ez den, gaztelaniazko **partido** partizipioarekin zer ikusia duena baizik, euskaraz **partitu**, ‘banatu’, ere badela. Iparraldean, ordea, **soldadu** hitzak badu aukeran **soldado** ere, gaztelaniaz **soldado**, partizipiotik datorrena hau ere, (Ax.: **soldadu** eta **gradu**, latinez **gradus**, **-us**), eta, beste alde batetik, **solido** eta **likido** erabiltzeak ere oinarriren bat baluke, eta izan ere berrikitan hala proposatu izan da, baina tradizioaren arauera sustrai sakonagokoa litzateke **-u** daramala amaitzen dena.

Latinez **planum**, **-i**, orain **plano**, latinez **meridianus**, **-a**, **-um**, orain **meridiano**, latinez **decanus**, **-i**, orain **dekano**, beranduko direnetan **-n** bokal artekoa galdu gabe, Iparraldean autore zaharrek erabili izan duten modura, baina zenbait lekutan korritzen duen **-anu** bukaera ere tradizio berriagoari loturik dago. Jakina, lehenengo aipatu den hitza euskaraz bide arruntetik **lau** bilakatu zen, **kristau** eta **garau** bezala, esan nahiaren aldetik beste bidetik letorkeena bereiz daitekeela.

Latinez **infusorium**, **-i**, orain **infusorio**, latinez **primarius**, **-a**, **-um**, orain **primario**, euskaraz normalki **-io** bilakatzen baita, beste alderdi batetik euskaraz **-ari** berrekailua ere badela, latinezko **-arius**, **-ii**, delakotik datorrena, eta, horrela, latinezko **bibliothecarius**, **-ii**, grekozko **bibliothékē** forman oinarriturikoa, orain **bibliotekari** litzateke, ohitura zaharrari eutsirik.

Latinez **integratio**, **-onis**, orain **integrazio**, mailegu arruntetan agertzen den bukaerako **-zio** berrekailua gorderik, **-zino**, **-zione**, eta abar, itxuraz ere ezagutzen dena, latinez **administratio**, **-onis**, orain **administrazio**, latinez **manifestatio**, **-onis**, orain **manifestazio**.

Latinez **datiuus**, **-i** kasuari dagokiona, orain **datibo**, (Leic., “Çvberoaco herrian vsançatan eztiraden hitz bakoitz batzu”, ey, er: **datiuo**), (J. d’Etcheb., 124: ..., **ceinec datiuo eta ablatiuo pluralecoan eguiten baitute abus**).

Latinez **modernus**, **-a**, **-um**, orain **moderno**, latinez **alternus**, **-a**, **-um**, orain **alterno**, zaharrak diren **gobernu**, (Ax., Leic., 378: **gubernua**), **ifernu** / **infernu**, latinez **infernus**, **-i**, izanik ere, **-ano** bukaeradunekin bat eginik (Ax.:

eterno): Aita eternoa. Hala ere badira **kuadernu** gisara **modernu** ere normalki egingo luketen eskualdeak.

Latinez **minimum**, **-i**, orain **minimo**, Axularren **lejítimo** formaren erara, latinez **legítimus**, **-a**, **-um**.

Latinez **universum**, **-i**, orain **uniber(t)so**, zaharrago den **ber(t)so** bezala, latinez **versus**, **-us**.

Latinez **neuter**, **-tra**, **-trum**, orain **neutro**, latinez **spectrum**, **-i**, orain **espektró**, arrunta den Bizkaiko **laratro** bezala (P.Ab., 152: **laatro**), aldaera modura **taratelu**, **taratilu**, **taratulo** ere badituela geografian zehar, latinez **tara-trum**, **-i**, eta bada **ministro** ere, (P. Ab., 80: ... **ta justicijaco beste ministruen ibilli ta procesuac?**), baina hala ere Axularrek **zentru** darabil, ikus beherako grekozko **kéntron**.

Latinez **pluralis**, **-e**, akusatiboan **plurale(m)**, orain **plural**, lat. **neutralis**, **-e**, orain **neutral**, lat. **naturalis**, **-e**, orain **natural**, lat. **vocalis**, **-s**, orain **bokal**, eta berdin **horizontal**, oinarria **horizon**, **-ontis** latinekoan duela, grekozko **horizōn**, **-ontos** formatik hartua, eta **katedral(e)**, oinarria **cathedra** latinekoan duela, grekozko **kathédra** formatik hartua, lehenagoko zenbait mailegu arruntek azkenengo **-e** ta guzti korritu izan badu ere: **ospitale**, latinez **hospitalis**, **-e**, eta **materiale**, latinez **materialis**, **-e**, eta baita **katedrale** ere, gorago ikusi denez.

Latinez **sculptor**, **oris**, akusatiboan **sculptore(m)**, orain **eskultore**, azkenengo **-e** gorderik, forma arruntan arteko kasu bakanen batzuetan artikulua ipintzerakoan **motorra** bezalakoak erabiltzen badira ere, latinez **motor**, **-oris**.

Latinez **singularis**, **-e**, euskaraz **singulare** moduan erabili izan da (J. d'E-tcheb., 145: **singularean Iauna**), egungo egunean **singularrean** esateko joera zabaldu bada ere, **militarrean** bezala, latinez **militaris**, **-e**.

Latinez **universitas**, **-atis**, akusatiboan **universitate(m)**, orain **uniber(t)si-tate**, bukaerako **-tate** hobetsirik.

2. Euskaraz badira, alabaina, atzerriko hizkuntzen eraginez arrunt bilakatu direnak, hala nola, **mitín**, ingelesez **meeting**, **tenis**, ingelesez **tennis**, eta abar, lehenago **tabako** eta halako hitzekin gertatu zen erara.

3. Iturri zaharra grekoa denean, formaren aldetik latinean zutena oinarritzat hartzen bada ere, amaierako **-o** gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez datorrenean.

Hona hemen adibide batzu:

Grekoz **diálektos**, latinez **dialectos**, **-i**, kasu honetan grekoak bezala **-o** duela latinak, orain **dialekto**.

Grekoz **arkhitéktōn**, latinez **architectus**, **-i**, orain **arkitekto**.

Grekoz **ástron**, latinez **astrum**, **-i**, orain **astro**, bide arruntetik **asturu-gaitz**, 'zorte txarra', eta horrelakoak baditugu ere.

Grezoz **philólogos**, latinez **philologus**, -i, orain **filologo**.

Grezoz **philánthropos**, latinez **philantropos**, -i, grekoz bezala -ō duela latinak, orain **filantropo**.

Grezoz **antídotos**, latinez **antidotus**, -i, orain **antidoto**.

Grezoz **amphóteros**, orain **anfotero**.

Grezoz **pétalon**, latinez **petalum**, -i, orain **petalo**.

Grezoz **parállēlos**, latinez **parallelus**, -on, edo **parallelus**, -a, -um, orain **paralelo**.

Grezoz **typos**, latinez **typus**, -i, orain **tipo**.

Grezoz **kylindros**, latinez **cylindrus**, -i, orain **zilindro**.

Grezoz **khristianismós**, latinez **christianismus**, -i, orain **kristianismo**. Gainera -ismo berrekailua bestelako zenbait hitzi ere ezar dakioke, ikus Leič., 332: **iudaismoan**, latinez **iudaismus**, -i.

Grezoz **kéntron**, latinez **centrum**, -i, orain **zentro**, baina Axularrek **zentru** darabil bide arruntaren arauera, ***genduru** edo ***zenduru** egin gabe hala ere.

Hona hemen autore zaharretan agertzen diren zenbait:

Leič., 382: **guiçõ hereticoa**, latinez **haereticus**, -i, grekozko **hairetikós** hitzetik datorrena.

Ax.: **paralitiko**, latinez **paralyticus**, -i, grekozko **paralytikós** hitzetik.

Leič., 335: **pedagogoren azpian**, latinez **paedagogus**, -i, grekozko **paidagōgós** hitzetik.

Leič., "Testamentu berrico hitz eta mincatzeco manera difficil batzu": **proselytoa**, latinez **proselytus**, -i, grekozko **prosélytos** hitzetik.

Éta modu berean beste zenbait, hala nola, P. Ab., 53: **anatomico**, Leič., "ABC", 3: **diphtōgoa**, Ax.: **martirio**, P. Ab., 84: **microcosmo**, Leič., 355: **mysterioa**, P. Ab., 83: **pronostico**, Belap., 39: **simboloac**, Leič., 437: **thronoan iarria**, Ax.: **tirano**, eta abar.

Grezozko **análysis**, eōs, grekozko **katékhēsis**, -eōs, latinez **catechesis**, -is, neologismoa den **psykhis**, grekozko **psychḗ**, -ēs, forman oinarritua, neologismoa den **neurosis**, grekozko **neuron**, ou, forman oinarritua, grekozko **metrópolis**, -eos, latinez **metropolis**, -is, nominatiboko azken -s gabe har daiteke: **analisi**, **katekesi**, **psikosi**, **neurosi**, **metropoli**. Baina hala ere -s gorderik -itis bukaera dutenak: **flebitis**, **otitis**, **meningitis**, edo silaba bat edo biko hitzak direnean, **iris**, grekoz **írís**, -idos, **atlas**, grekoz **átlas**, -antos, **kosmos**, grekoz **kósmos**, -ou, eta abar.

4. -a organikoaz. Mailegu berrien -a organikoari eustea gomendatzen du Euskaltzaindiak: **Biologia**, **filosofia**, **kultura**, **historia**, ... Honek, ordea, ez

du esan nahi hitz elkartu eta eratorriak sortzerakoan **-ia** bukaera duten hitzetan azken **-a** hori ezin kenduzkoa denik: **Biologi ikerlanak, Filosofi Fakultatea, ...**

Nolanahi dela, hitz elkartu eta eratorriei dagokienez maileguzko zein euskarazko hitz jatorren **-a** organikoa konposizioan nola erabil litekeen erakusteko arau zehatzagoak emango ditu bere egunean Euskaltzaindiak.

5. Beste alde batetik adierazten da, grekotikako hitzetan, latinean erabiltzen zen ortografiaren arauerako usarriotik, hau da, **ph, th, y**, eta abar, erabiltzetik saihestuarren ere, horrek ez duela esan nahi herri hartarik datorren erro zaharra kulturazko mundurako ezerezturik gelditzen denik, eta, hizkuntza klasiko horren ezagupidea, latinarena bezala, euskaldun ikasien arterako zabalik uztea eta bultzatzea beharrezko dela, Europako kulturaren iturburu denez gero.

Laburpen gisa

Latinez -ulus, -i	bukaera, euskaraz	u
Latinez -atus, -us	”	u
Latinez -cretum, -i	”	u
Latinez -itum, -i	”	u
Latinez -utum, -i	”	u
Latinez -entum, -i	”	u
Latinez -idus, -a, -um	”	u
Latinez -anum (-anus), -i	”	o
Latinez -arius, -a, -um	”	ari
Latinez -tio, -onis	”	zio
Latinez -ivus, -i	”	o
Latinez -ernus, -a, -um	”	o
Latinez -imum (-imus), -i	”	o
Latinez -versum, -i	”	o
Latinez -ter, -tra, -trum	”	o
Latinez -alis	”	al
Latinez -tor, -oris	”	ore
Latinez -aris, -e	”	ar
Latinez -itas, -atis	”	tate

Grekoak ” **o**
 (S bukaera dutenek, letra hori galtzen dute, salbu **-itis** bukaeradunak eta silaba bat eta bikoak direnak)

A organikoa gorde, salbu hitz elkartu eta eratorrietan

(Bilbon, 1984eko Martxoaren 30ean onartua)

III. G, J, I, Y

“Mailegu zaharretarako **j** eta baita ere **i** ukitu gabe, orain mailegatzen diren hitzetan **g** grafia hobetsiko da: **biologia** (biologo), **geografia** (geografo), **filologia** (filologo), **dramaturgia** (dramaturgo). Jakina da **g** grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean.

Bestaldetik, erdaretan **i/j/y** agertzen denean bide honi jarraituko zaio:

- 1) Bokak artean beti **i** idatziko da.
- 2) Gainerako kasuetan silaba hasieran baldin badago, beti **j**, **jaiegun** eta **jaia** hitzetan bezala”.

(1984.eko Maiatzaren 25ean hartutako erabakia)

IV. X

1. Hasieran eta bukaeran **x** duten maileguak puntu honi dagokionez aldatu gabe idatziko dira, hala nola **xenofobia** eta **fenix**.
2. Bokal artean **x** idatziko da **taxi**, **sexu**, **oxigeno**, eta abar.
3. Kontsonante aurrean ez da **x** idatziko, **s** baizik, honetan tradizioari (estrainio, esplikatu, testu, eskumiku, espresuki) jarraituz.

(1984.eko Uztailaren 27ean hartutako erabakia)

**EUSKALTZAINDIAREN
BATZAR AGIRIAK**

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko urtarrilaren 27an egin du bere hileroko batzarrea Euskaltzaindiak. Arratsaldeko 4etan ohi den otoitzarekin hasi da bilera. Etorri dira: L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, P. Charritton, J. Etxaide, J. G. Etxebarria, M.^a Pilar Lasarte, J. L. Lizundia, L. M. Mugika, P. Zabaleta eta A. Zatarain, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Goizeko batzarrean L. Mitxelena ere egon da. X. Diharce eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Abenduko batzar agiria onartu da.

A. Irigoien jaunak lortu berria duen doktoradutzagatik zorionak eman dizkio Euskaltzainburuak.

Goizeko batzarraren berri

Argitalpen Erregela Bereziak aztertzea zen goizeko saioaren lehen gaia. Hamarrak et'erditan hasi dira lanean. Lerroz-lerro irakurri dira proposamenaren artikuluguziak eta edukiari nahiz erredakzioari oharra eta zuzenketak egin ondoren, Argitalpen Erregela Bereziak aho batez onartuak izan dira.

Erabaki honen bidez, orain arteko Argitalpenen Batzordea suntsitu da.

Era berean, Erregela berrien 3. artikuluan aipaturiko batzorde osaketa egiteko, P. Altuna eta F. Krutwig euskaltzain jaunak izendatu dira.

Maileguzko hitzen bukaerak. Bigarren gaia, Maileguzko hitzei buruz I Jardunaldietan "Hitz bukaerak" deitutakoa zen. Orduan X. Kintana eta L. M. Mujika jaunek aurkeztutako txostenen arabera, A. Irigoien jaunak egin du erabaki proposamena. Arazo hau garrantzitsutzat jotzen da eta izan ditzakeen ondoreak kontuan harturik, puntu guztiak zehatz-mehatz aztertu beharra ikusten da. Oro har, gaztelania eredu bakartzat edukitzerik ezin dela onar, esan da. Adibideak ere banan-banan ikusi beharko dira.

Egun aurkeztutako proposamenari dagokionez, lehen atala ontzat era honetan eman da:

1. *-a organikoaz*. Mailegu berrien *-a organikoari* eustea gomendatzen du Euskaltzaindiak: Biologia, filosofia, kultura, historia... Honek, ordea, ez du esan nahi hitz elkartu eta eratorriak sortzerakoan *-ia* bukaera duten hitzetan azken *-a* hori ezin kenduzkoa denik: Biologi ikerlanak, Filosofi Fakultatea... Hitz elkartuen gaia beste bat da.

Nolanahi dela, hitz elkartu eta eratorriei dagokienez maileguzko zein euskarazko hitz jatorren *-a organikoa* konposizioan nola erabil litekeen erakusteko arau zehatzagoak emango ditu bere egunean Euskaltzaindiak.

Proposamenaren beste puntuak datorren batzarrean aztertzen jarraitzeko utzi dira. Norbaitek oharrik egin nahi badu aurrez idatzirik ekartzea eskatzen zaio.

Txostena

R. Badiolak "Euskara gaurkotzeko zenbait ahalegin" izenburuarekin irakurri du bere txostena. Itzultzailearen madarikatu antzeko itzal txarra aipatu du lehenik, ekintza honek dituen zailtasunak agertuz. Itzultzaileak hizkuntza menperatu behar du, hala nola hitzen etorkia ezagutu, beste hizkuntzarekiko esaeren kidetasuna baliatu eta gero bere funtsa adierazi. Itzulpena norentzat den ere ezin ahantz. Bat-bateko itzulpena besterik da. Elkarriketa luze eta mamitsua sortu du txostenak.

Eta horrela amaitu da gaurkoa.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

Donostian, Txurruka kaleko bere ordezkaritzan, 1984.eko otsailaren 24an bildu da Euskaltzaindia goizeko hamar t'erdietan. Bezperan Donostian izandako hilketa tamalgarriaren ondorez, Manterolaren omenez arratsaldean egitekoa zen ospakizuna beste egun baterako utzi da. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak; X. Kintana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, L. Mitxelena eta F. Ondarra jaunek ezin etorria adierazi dute.

Goiz-arrats egitekoak ziren batzarre biak gai arruntei buruz bateratzea erabaki da. Euskaltzain osoen bilera egin da lehenik, batzar orokorrari kontu emanez azken orduan.

Aurreko agiria onartu da, E. Knörr jaunak bere garaian ezin etorria adierazi zuela gehituz.

Lehen bilerako gaiak

L. Villasante jaunak aditzera eman duenez, gaur amaitzen da A. Irigaray zenaren hutsunea betetzeko euskaltzaingaien izenak aurkezteko legezko epea. Hiru jaun hauen izenak jaso dira epe barnean: Pello Salaburu Etxeberria, Patxi Zabaleta Zabaleta eta Juan Apecechea Perurena. Datorren batzarrean egingo dira bozketak.

Datorren hileko batzarrea Bilbon izango da martxoaren 30ean, Lan Kide Aurrezkiak pertsona Izendegiaren hirugarren argitalpena babestu duenez, aurkezpena elkarrekin bertan egiteko.

Euskaltzaindiaren ekintza guzien zabalkunderako urteko Memoria baino zabalago argitalpen bat plazaratzea onartu da. Gerorako ere urtebiko irteeraz jarrai dezakeela ikusten da. Lehenengo hau, bereziki zaintzea komeni dela aipatu da. Publizitate etxe baten laguntzaz egingo da eta idazkari orokorrak emango dio gaingiroko onspena.

Azken batzarrean onartutako Argitalpen Batzordearen Erregeletan, urriaren azkena baino lehen prestatuko dela hurrengo urteko plangintza eta programaketa, esaten du 12. artikulua. Erakundeek urteko aurre-kontuak lehenago egiten dituztenez, Euskaltzaindiak prestaketa hori ekainaren azkena baino lehen egingo duela, Erregeletan agertzea onartu da.

Maileguzko hitzak

Maileguetako hitz-bukaerei jarraituz, F. Krutwig jaunak bere aburua idazki baten bidez agertu du. Jakintza hitzak hartzeko tradizioz ez dagoela eta jatorrizko grafia dagoen-dagoenean hartzea gomendatzen du.

“Euskal hitzen akabuko -O eta -U zenbait autoreetan” izeneko txosten berria eskaini du A. Irigoyen jaunak. Urtarrileko erabaki proposamena egiterakoan Uztartzen aurkeztutako txostenak eta Mikel Zalbidek Euskaltzaindiaren aginduz egindako birmoldaketa zituen oinarri.

Euskaltzainburuak, bere aldetik, erabaki orokor eta oinarrizkoetara eraman gintzakeen laburpena ekarri du. Kultur hitzak zein eratan hartu behar diren jakiteko, iturrira joatea nahi luke. Lan hau laburregia gerta baledi ere, abiapuntu oso baliagarritzat eman da eta datorren batzarrera osoturik ekartzea eskatu zaio A. Irigoyen jaunari.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

Bilbon, Lankide Aurrezki Kutxak Areatzan duen egoitza berriztatuan bildu da Euskaltzaindia, 1984.eko martxoaren 30ean, arratsaldeko lauretan. Bertara etorri dira: L. Villasante, burua, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala, euskaltzainak, L. Akesolo, J. A. Arana, R. Badiola, J. Bilbao, P. Charriton, J. G. Etxebarría, J. Fdz. Setien, X. Gereño, J. L. Goikoetxea, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Uribarren eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. Gorostiaga, J. Haritschelhar, J. Hiriart-Urruty, P. Larzabal eta K. Mitxelena jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Goizeko bilkuraren berri

Bi gai nagusi erabili dira goizeko batzarrean: A. Irigaray zenaren hutsartea betetzeko bozketak, eta maileguzko hitzen bukaerari dagokion erabaki-proposamena aztertu eta onartzea.

Euskaltzain berriaren izendapena. Araudiak dioen epe barnean aurkeztutako izenak hiru izan dira: *Patxi Zabaleta* jauna, A. Irigoyen, F. Krutwig eta J. L. Davant euskaltzainek izenpetua. *Pello Salaburu*, J. M. Satrustegi, J. Haritschelhar, J. San Martin eta E. Knörr jaunen izenean. *J. Apecechea*, P. Altuna, P. Lafitte eta X. Diharce jaunen babesean.

Batzar agiri honen buruan aipaturiko hamahiru euskaltzainez bestalde bost euskaltzainkidek bidali dute bozketako euren ahalmena. K. Mitxelenak E. Knörri eman dio bere eskubidea, J. Gorostiagak, J. M. Satrustegiri, P. Larzabalek, J. L. Davanti, J. Haritschelhar eta J. Hiriart-Urrutyk, E. Larreri. Hemezortzi txartel sartu dira, beraz, bozketan.

Arautegian gertakizunari dagozkion artikulua irakurri ditu lehenik Euskaltzainburuak, eta lehen itzulian ez du inork legezko gehiengorik lortu. Elkarriketa labur baten ondoren egin da bigarren bozketak, eta aldi honetan Pello Salaburuk 13 botz lortu ditu, Patxi Zabaletak 4, eta J. Apececheak bat. Pello Salaburu baztandarrak, beraz, gehiengoa lortu du eta euskaltzain oso izendatu du batzarrak.

Maileguzko hitzen bukaera. Azken batzarrean eskatutako laburpena zehaztuz, A. Irigoyen jaunak egin du gai korapilotsu honen erabaki-proposamena. Gaur aurkeztutako txostena onartu du Euskaltzaindiak, aurrez erabakitako puntuak ere barne diralarik. Erabaki hauen indarra eztabaidatu dute batzartuek gero. Euskaraz hitz berriak maileguan hartzeko premia legokeenean nola har litezkeen, esan nahi da bakarrik. Gida arauak izan nahi lukete.

Aurkezlearen lanak laudoriozko aipamena izan du.

Gaiarekin jarraituz, datorren hileko batzarrean mailegu hitzen beste atal bat aztertuko da: *g, j, i, hi-, y*, letrek hitz-hasieran ala hitz-barnean sortu ohi dituzten arazoena, alegia.

Eskuarteko gaiak

Akademien harremanei jarraipena emanez, Marino Donega A. Galegaren idazkaria Bilbon egon berri dela, esan du J. M. Satrustegik. Ekainean biltzeko asmoa baguen ere, Urria denontzat egokiago dela ikusi da. Bitartean Errege ikusteko jesi-otxoak bizkortzea komeni da, eta galegoak arduratuko dira eskariak.

Parisen egin berri den *Expolangues* izeneko liburu erakusketa aipatu du J. L. Lizundiak. Liburuena baino gehiago, Europako hizkuntzen presentzia omen da azokaren helburua. Baikorra gertatu omen da ekintza hau, baina ikusiak-ikusi, hainbeste liburu gabe eta kalegiro hobean antolatu behar omen litzateke beste aldian.

Egun hauetan Bilbon bildu garelarik, J. Gorostiaga euskaltzaina ikusten izan zen Zuzendaritzako batzordeño bat ostegun arratsaldean. Pozik hartu gintuen eta luzaz mintzatu ginen. Oleaga zenaren ehun-urteburua dela eta Euskaltzaindiak egin nahi duen goratzarrerako txosten bat eskatu zitzaion, eta egingo duela hitzeman zigun. Erkiaga ikustera joateko asmoa era baguen, baina ez genuen bere etxetik erantzunik jaso. Kanpoan zatekeen, nunbait.

Udazkeneko Gramatikaren X. Biltzarrari buruz, Antolakizun batzordeak urrats batzu eman dituela, esan da. Iruñeko alkatea ikusi ondoren Udalaren harmarriko irudia erabiltzeko baimena badugu. Kongreso lanetarako tokia ere bideraturik dago.

Batzordeen berri

Argitalpenen batzordea bildu zen ostegunean, arratsaldeko lau t'erdietan Bizkai-ko Diputazio Jauregian. 1983.eko argitalpen guzien berri eman zuen lehenik R. Badiolak. Beste arazo batzuren artean, aspaldi argitara nahi genuen Azkue-ren hiztegia aipatu zen. Villasanteren hitzaurrea eta Mitxelenaren "Fuentes del Diccionario de Azkue", beronek egindako zuzenketen hiztegitxo batekin, sartuko dira argitalpen honetan. Hiztegi honen erdara-euskara delako fitxeroa berreskuratu dela jakinerazi du arduradunak.

Zuzenketek asko berantzen dutela zenbait idazleen eskuetan, esan du argitalpenen eragileak. Hemendik aurrera, hogeai egunen buruan itzuli ez diren lanen zuzenketak, beste norbaitek zuzendu eta argitaratzea erabaki da. **Euskera** agerkariaren gerra ondoreko zenbakiak oraikoz ez birrargitaratzea erabaki da.

Jagon Sailburuak esanaren arabera, JAGON-2, bertsolariei buruz egina den liburua izango da.

Euskararen Lekukoen plangintza ere aipatu da, eta eskuartean diren pare bat libururen edukina aztertzeko izenak eman dira.

Besterik gabe amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

Pertsona Izendegiaren aurkezpena

Hileroko batzarraren ondoren, *Euskal Izendegiaren* hirugarren argitalpena aurkeztu da toki berean. Iñaki Gorroñok eman die batzartuei ongiatorria Lan kide Aurrezkiaren izenean. J. M. Satrustegik eman du argitalpen honen berri. Beste bi argitalpenetan bultzagarri zen liburu honen eragina, izen berrien bila baitzebilan herria. Guraso bakoitzak bere izenak sor ditzakeelarik azken erabakien eremu zabalean, izen egokienak jaso eta beste asko baztertzen hasteko ordua etorri zaio Izendegiari.

L. Villasante mintzatu da azkenik. Egile baten lana zergatik izan daitekeen Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala, agertzera eman du. Batzutan, zuzenean egin ohi ditu Euskaltzaindiak, batzordeen bidez, bere lanak; eta beste batzutan, bere aginduz egin ditzake norbaitek. Lehen kasuan, Euskaltzaindiarena da erantzunkizun osoa. Bigarrenean, lana onartu arren, egilearena da puntu bakoitzaren erantzunkizuna. Eskerak eman dizkio Lan kide Aurrezkiari, lehen ere elkarrekin egindako lanak gogoraziz.

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko apirilaren 27an, Euskaltzaindiak arratsaldeko lauretan egin du hileroko bere bilera. Etorri dira: L. Villasante, burua, J. Haritschelhar, buruordea, P. Altuna, J. Hiriarrt-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, J. San Martin eta J. M. Satrustegi eta A. Zavala, Euskaltzainak. J. A. Arana, J. M. Aranalde, X. Aranburu, J. A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, I. Barriola, P. Charritton, J. Estornes Lasa, J. Etxaide, J. M. Etxebarria, J. G. Etxebarria, J. Garmendia, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, J. Oleaga eta J. M. Velez de Mendizabal, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

Goizeko batzarrean L. Mitxelena eta F. Ondarra egon dira.

J. L. Davant, X. Diharce, P. Larzabal eta P. Salaburu jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Argitalpen batzordeak martxoan egindako bileran Charrittonek aipaturiko Broussain eta Azkueren arteko gutunak IKER sailean argitaratzea onartu zela, gogorarazi du Villasante jaunak.

Azken batzarreko agiria onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Eusko Jaurlaritzak Autonomi Lurraldeko hiru Diputazioekin batera, L. Mitxelena jaunaren ardurapean "Euskal Hiztegi Orokorra" burutzeko finantziabidea onartu duela, jakinerazi zion aurreko astean J. Arregi jaunak Euskaltzainburugari. Laguntza honen funtsa honela bideratuko da: 1) Eratzailleek Euskaltzaindiarekin izenpetuko dute lehenik akordioa. 2) *Campion-Broussain, S. A.* azpi-elkargoaz eramango du Euskaltzaindiak L. Mitxelena jaunarekin, zuzenean, ekintza honi dagokion legezko hitzarmena. Eta, 3) Eratzailleen aldetik lau ordezkari eta Euskaltzaindiak izendatuko dituen beste laurek osotuko dute lanaren jarraipen-batzordea. Euskaltzaindiak goizeko bileran gehiengoaz onartu ditu baldintza guztiak, eta aipaturiko bi lehen urratsak eman ahal izateko baimena jaso dute arduradunek. Jarraipen-batzorderako izenak ematea beste egun baterako utzi da.

Europako Kontseiluak bere Kultur-Gizarte arazoetako batzordearen bidez, Lurralde ttipietako hizkuntzen Jardunaldiak eratu ditu datorren maiatzaren erdialderako, Estrasburgon. Gomita Euskaltzaindiari ere bidali zitzaiolarik, J. Haritschelhar buruordea eta J. L. Lizundia idazkariordea izendatu ziren bertara joateko.

Apirilaren 4an P. Larzabal euskaltzaina ikusten izan zirela Sokoan San Martin eta biak, adierazi du idazkariak. Jeikirik zegoen eta luzaz jardun zuten elkarrekin. Uste baino hobeki kausitu zuten bere eritasunean.

Maileguzko hitzen idazkera

A. Irigoyen jaunak maileguzko hitz berriei buruz bere bigarren erabaki proposamena aurkeztu du. Latin nahiz grekotik datozen hitzetan **g** grafia hobesten duen proposamena onartu da, zenbait adibide aldaturik. Era berean, **i** eta **e** letren aurreko **g** grafema, ebakieran ere bere fonemaz —*gero* bezala— ahoskatzea gomendatzen duen proposamena, ontzat eman da.

Beste hizkuntza batzutatik datozen mailebuei buruz esandakoa, hala nola salbuespenak aipu dituen zatia, **j** edo **y** letren arazoan ari delarik, orokorki harturik proposamen berria egiteko eskatu zaio A. Irigoyen jaunari.

Grekozko *hieros* hitzari dagokiona kendu egin da, erregela orokorra ez denez. Ildo beretik, —*ject*— multzoari buruzkoa, erregela orokorreaz birmoldaturik ekartzea eskatu zaio aurkezleari. X. Kintana izan du A. Irigoyen-k lagun erabakigiaia prestatu duen batzordeñoan.

Batzordeen berri

Bertsolaritza. J. San Martinek dio, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren babesean “Bertso paperen” Xenpelar saria birrantolatu dela aurten. Beste mahaikide batzuren artean honako hauek izango dira epaile Euskaltzaindiaren izenean: A. Aranburu, A. Irigoyen, E. Larre, J. M. Lekuona eta A. Zavala.

Euskalkiak. J. Haritschelhar-ek esan du, Atlasen batzorde ttipiak ba dituela zenbait gai eskuartearen prestaturik. Fonetika gaiak euskalkiz-euskalki, lexikoari buruz erabiliko diren zenbait hitzen bilduma, hala nola aditzena. Joskera lana ere prestatzen ari dira. Laster aholkulariak deituak izango dira batzar batera.

Batzarre irekia

Besterik gabe, toki berean hasi da J. Manterola zenaren omenaldiko ospakizuna. Euskaltzainburuarekin mahaian jarri dira, Imanol Murua diputadua, J. A. Ardantzaren ordezkaria, Xabier Aizarna Batzar Nagusietako Lehendakaria, J. M. Velez de Mendizabal, Eusko Jaurlaritzako Kultur Kontseilariordea, J. San Martin eta J. A. Arana.

Imanol Muruak ongietorria eman die laburki batzartuei.

L. Villasantek euskal kultura jator bat sortu nahi zuela J. Manterolak, esan du. Bere kantutegia ez da herri kantuen bilduma, olerkari ikasiena baizik. Egunkari bat

sortu zuen, ardura horren zama eta nahigabeak hilobiratuko bazuten ere. Euskaltzale ospetsu hau Donostian sortu zela eta donostiarren omenaldia merezi duela esanez, amaitu du bere hitzaldia.

J. San Martin-ek eman du Manterolaren nortasun eta biziaz ikuspegi zabala. Gazterik hil bazen ere, bere 34 urteekin egile eta eragile izan zela esan du. Bere aita, Gregorio Manterola, Gipuzkoako Diputadu jenerala izan zen. Joseren kultur arloko ekintzen artean, berak sortutako "Euskal Herria" egunerokoa aipatu du. Bi amodio zituen: euskara eta Foruak "Euskara, Euskal Herriaren arima", eta Karlisten gerra ondoren idatzi zuen beste hura, "Foruak hil dira, gora Foruak!", izan daitezke bere nortasunaren adierazgarri argiak.

J. A. Aranak Manterolaren kantutegia hartu du bere txostenaren gaitzat. Aurretik beste zerbait esan du: Donostiako Udal Bibliotekaren zuzendari izan zela, alegia, Manterola. Nor hoberik hauta! Kantu guzien sailkapena egin du lehenik, eta berdin bilduman diren hamabi doinuena. Gure artean oso ezagunak dira gehienak, baina aldaketa jakinarririk ba omen dute, abestuz azaldu duen bezala.

J. M. Velez de Mendizabal mintzatu da azkenik. Duela urtebete, gaurko egunarekin izan zela Gasteizen euskaltzain urgazle izendatua, esan du. Euskaltzaindiaren lana txalotu du, eta Kultur Kontseilaritzaorde postutik elkarrekin lan egitera beharturik gaudela aitortuz, Euskararik gabe ez baitago Euskal Herririk, errepikatu du, omenduak bere egunean zioen bezalaxe. Baina, gaur badugu bestelako itxaropenik, eskuratu den agintearekin.

Eta horrela amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

Donostian, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian, 1984.eko Maiatzaren 25ean egin du Euskaltzaindiak arratsaldeko 4etan bere hileroko bilera. Bildu dira: L. Villasante, J. Haritschelhar, P. Altuna, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi euskaltzainak. J. A. Arana, M. Atxaga, M. Azkarate, R. Badiola, P. Charriton, J. Etxaide, J. M. Etxebarría, P. Goenaga, M.P. Lasarte, J. L. Lizundia, J. A. Loidi, X. Mendiguren, K. Otegi, P. Uribarren, M. Zalbide eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohizko otoitzarekin hasi da batzarrea.

Apirileko batzar agiria onartu da.

Manex Erdozaincy-Etchart euskaltzain urgazlearen hil berria eman du Euskaltzainburoak, eta zenduaren aipamenean euskaltzale gazte honen idazlan, ekintza eta merezimenduak azaldu ditu.

Migel Anjel Astiz kazetari nafarra ere itzali zaigula adierazi du gero Villasante jaunak eta euskaltzain urgazle honen aipamen berezia datorren batzarrean egingo da.

Goizeko lanaren berri

Eskuartearen dugun maileguzko hitzen arazoan, apirileko batzarrean eskatu zitzaion erabakigai laburtua aurkeztu du A. Irigoyen euskaltzainak. Eztabaida luze eta ohar zehatz batzuren ondoren, honela gelditu da gaiari dagokion azken erabakia

“Mailegu zaharretarako *j* eta baita ere *i* ukitu gabe, orain mailegatzen diren hitzetan *g* grafia hobetsiko da: *biologia* (biologo), *geografia* (geografo), *filologia* (filologo), *dramaturgia* (dramaturgo). Jakina da *g* grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean.

Bestaldek, erdaretan *i/j/y* agertzen denean bide honi jarraituko zaio:

1) Bokale artean beti *i* idatziko da. 2) Gainerako kasuetan silaba hasieran baldin badago, beti *j*, *jaiegun* eta *jaia* hitzetan bezala.

Maileguzko hitzen hurrengo puntua, *x/(k)s/ts* arazoei dagokiona alegia, erabakigaitza aztertu duen batzordeñoaren izenean F. Ondarra batzordeburuak aurkeztu du. Gaiak sortzen dituen istiluengatik eta eztabaidatzeko denborarik ez zegoelako, beste aldi baterako utzi da erabakia finkatzeko lana.

Azken orduko gaiak

J. Haritschelhar jaunak Europako Kontseiluak hizkuntza ttipiei buruz egin duen bileraren berri eman du, J. L. Lizundia-rekin biak egon dira han Euskaltzaindiaren izenean, beste 70 hizkuntzen ordezkariarekin batera. Hizkuntza hauek dituzten esku-bideen adierazpena egin nahi dela, esan du, hiru puntu nagusitan lekuan-lekuko hizkuntza zabalduenaren berdintasuna eskatuz: Irakaskintzan, Komunikabideetan eta Administralgoan alegia.

Gasteizko egoitza berrian sartu direla jakinerazi du E. Knörr, Arabako gure ordezkariak. Etxe honetan hutsik dagoen beste solairuan Hiztegi Orokorren Batzordeak lan egiteko bidea dagoela, aipatu du gero. Koldo Mitxelena ikusten egon da eta tokia atsegin zaiola esan du. Hori kontuan dela, Arabako Foru Diputazioak datoren irailerako prestatuko duela esan omen du. Hiztegi lanak beste nunbait hasiko dituzte bitartean. Etxe horretan egongo garen talde guztion sarrera-aurkezpen ofiziala udazkenean batera egin litekeela ere aipatu da.

Zarauzko udalaren eskariz berek antolatutako Lizardi sariaren epai mahairako, Literatur batzordearen buru den F. Krutwig izendatu du Euskaltzaindiak.

Batzordeen berri

Gramatika. Patxi Goenagak gramatika batzordearen lanak zertan diren, adierazi du. Gertu daukaten txostenaren orrazketa aipatu du eta erabilitako liburu kopurua. Hemezortzi bat lanen laburpenak eskuratu dituzte eta beste zenbaiten zai daude. Atzerriko gramatikalariekin harremanetan jarraitzen dutela, esan du.

Antolakizuna. J. L. Lizundiak Iruñeko Kongresoaren antolakizun batzordea Maiatzaren 11an bildu zela, esan du. Iruñeko agintariekin tokiaz azken erabakia zehaztea bakarrik gelditzen da. Orri buruetako idazkia, kartelak, dominak eta prentsa adierazpenen ardura bideratuak zirela aditzera eman du.

Txostenak

Euskaltzainburuak ongi-etorria eman die gaurko txostenak dakartzaten bi euskaltzain urgazle berriei.

J. M. Etxebarriak, agertu berri den *Atlas Etnolingüístico de Euskal Herria* izeneko lanari oharra egin dizkio bere txostenean. Itaunketaren eredu aipatu du, mintzaren mugaketa-eza, azterle batzuren egoera arraroa eta traskripzio fonetiko minimo baten hutsunea salatu du, besteak beste. Txostengilearen izenarekin emandako lanen erantzunkizuna zenbatetarainokoa izan daitekeen esan du azkenik, jokabide ez hain txalogarri baten eredu.

Mikel Zalbide mintzatu da gero, “Hiztegigintza hitz-eraketa: egindakoak eta egitekoak” gaitzat harturik. Hitz-konposaketaren zenbait arazo agertu ditu, ohizko joeren eta joera berri batzuren arteko ondorioen aldea azpimarratuz. Eztabaida bizia sortu du txostenak.

Eta besterik gabe amaitu da gaurko batzarrea.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

* * *

Euskaltzaindiak argitaratu duen Azkue-ren hiztegia aurkeztu da berehala. L. Villasante, “mardula, ezaguna eta estimatua” dela Azkue zenaren lana aitortuz, mintzatu da lehenik. Euskal idazleek, hizkuntzalariek eta ikasiek estimu haundian duten liburua. Larramendiren bidetik baztertuz, berri-berritik egin zuela bere hiztegia, esan du. Hainbeste hiztegi sortu zaigun une honetan, Azkuerenak ez duela bere baliorik galdu.

“Legortea edo zaparrada” izan ohi dugula esanez, hasi du L. Mitxelenak bere hitzaldi laburra. Hiztegien aldi dugula oraikoan, baina ugaritasuna hobe dela hutsa baino. Zergatik argitaratzen den berriz hiztegi hau? Lekukotasuna da bere ezaugarri bereziena, orain jasotzerik ez legokeen gauza asko jaso bait zuen bere denboran egi-leak. Ahozkoak du, batez ere, lan honetan garrantzia.

Ia larogei urteren buruan bir-argitaratzen den hiztegi honek, L. Villasanteren aurkezpena darama. L. Mitxelenak egina zuen “Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue” lana dator gero, eta lan honetan aipaturiko hitzen zerrenda, eraskin.

Uztaritzeko Landagoien Etxean, 1984.eko ekainaren 23an egin du Euskaltzaindiak hileroko bere batzarre arrunta. Bildu dira: L. Villasante, J. Haritschelhar, P. Altuna, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoien, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu, J. San Martin eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. J. M. Etxebarria, J. L. Lizundia, B. Oihartzabal, K. Rotaetxe, X. Videgain, eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, F. Krutwig eta P. Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

IV. Dialektologi Jardunaldiak

Atzo, ekainak 22, eta gaur goizean, Atlas Linguistikoa delakoaren galdekizunen proposamena finkatzeko, IV. Jardunaldiak burutu dira Landagoienen. Txosten hauek eman dira:

J. M. Etxebarriak sarrera orokorra egin du lehenik, emandako urratsen eta presaturiko lanen aipamenarekin.

G. Aurrekoetxea. Goizeko hamaikak aldera, fonetika eta fonologia alorretan agertarazi behar diren fenomenoen erabakigaia aurkeztu du Gotzon Aurrekoetxeak. Ez ziren helburuak ongi ikusten eta eztabaida luzea sortu da. Jasotako oharrekin aholkulariei beste eredu bat bidaliko zaie oharrak egin ditzaten. Eguerdian amaitu da lehen saioa.

Arratsaldeko ordu bi t'erdietan Morfologiaz ekarri duen txostena irakurri du J. M. Etxebarriak. Berrelaborazio baten beharrean gelditu da erabakigaia.

Ekainak 23, larunbata.

Xarles Bidegain. Lexikoaz aritu da goizeko 9etatik aurrera X. Bidegain eta luzaz eztabaidatu da gaia, arratsalderako utziz amaiera. Ordu bi t'erdietan eman zaio jarraipena. Bertan zirenek eta aholkulariek jasoko dituzte txostenak eta datorren hilaren 20-rako egin bitzate, idatziz, oharrak.

G. Rebuschi ez da etorri eta joskerari buruz egin duen txostena B. Oihartzabalek irakurri du. Zernahi bada ikerketa honetan. Mardula eta baliosa. Proposamena onartu da.

Atlasgintzaren arazo tekniko, ekonomiko eta azpiegiturazkoek bete dute gero hainbat denbora. A) *Arazo teknikoak*. Mapak, esate baterako, garrantzi haundia dute honelako lanetan. Hizkuntzarekikoak dira zuzenean lanari dagozkionak. Eredua, neurria eta beste puntu batzu aipatu dira. Mapa lagungarriak ere badaude, bestalde, hala nola herrialdeena, elizbarrutiena, merkatu eta bazkena, besteak beste. Aipamen soilean gelditu da gaurkoa, bere egunean aukera egiteko. B) *Diru arazoak*. Datozen lau urteko ekintzen aintzin-asmoak Erakunde ofizialei aurkeztea eskatzen zaigunez, zehaztasun batzu eta, ahal den neurrian, epea ere mugatzea komeni da. Hori dela eta, langile bakoitzaren egoera eta dedikazioa ikusi da. Bulego-langile baten beharra legoke oraikoz, eta hiruen bat laguntzaile hartu beharko omen dira geroxeago. Galdekizunen zerrenda osotzea da orain lehen helburua. C) *Azpiegitura*. Horrelako lanak egin izan dira bazterretan eta haien esperientziak baliatzeko harremanetan sartzeari komenigarri ikusten da. Barcelona, Tolosa Frantziakoa, Estrasburgo eta beste zenbait hiriburutara itzuliren bat egin beharko da. Eskuarlean ditugun magnetofoi eta tresnen ardura aipatu da. Atlasean sartzerik izango ez duten hainbat eta hainbat gauza argitaratzeko barne-aldizkari bat sortzea eskatu dute batzorde arduradunek.

Azken orduko berriak

Kanbon, Ekainaren 22an, *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) idazlanak*, izeneko liburua aurkeztu zen. Beste agintari batzuren artean, Eusko Jaurlaritzako Kultur-kontseilari ordeak egin zuen aurkezpena. Labegerie, Kanboko andere auzapezak eman zien batzartuei ongiatorria. M. Itzaina, Euskaltzaleen Biltzarreko lehendakaria mintzatu zen gero. P. Lafitteren hitzaurrea irakurri zuen J. Haritschelhar euskaltzain buruordeak. Azkenik, P. Charriton, liburuaren egileak, bildumaren zenbait berezitasun jakingarri azpimarratu zuen bere hitzaldian.

Uztailaren lehenean Maulen egitekoa den bertsolarien egunerako gomita jaso dela aditzera eman da. Bertan izango diren euskaltzain osoek izango dute Euskaltzaindiaren lekukotasuna.

Diruzainak esan duenez, Hiztegi Orokorren ekintzetarako lehen diru emaitza jaso du Euskaltzaindiak babesleengandik eta *Campion-Broussain S. A.* azpi elkar-goarekin kontratua izenpetu bitartean, gastuentzat diru aurreratze bat egin zaie arduradunei.

Datorren Uztailleko Euskaltzaindiaren Batzarrea Bilboko egoitza berrian egin nahi litzatekeela aditzera eman du idazkari-ordeak. Nazario Oleaga zenaren jaiotz -ehunurteburua ospatuz omenaldia eskainiko zaio bertan.

Batzordeen berri

Gramatika batzordearen izenean J. Haritschelhar mintzatu da. Bukatuxea dute-la Iruñeko Biltzarreko txosten nagusia, esan du. Azken orraztapena ematekoa den batzordeñoa ere izendatua da, eta mekanikaz idazteko lana laster hasiko dute.

Mailegu Hitzen erabakigai

Bigarren aldiz atera da mailegu hitzetako x erabilpenaren arazoa. Gaurkoan, A. Irigoyen, F. Krutwig, P. Salaburu eta L. Villasantek ekarri dituzte beren oharrak.

Mailegu berrietan letra hori aldatu gabe, dagoen-dagoenean hartzearen alde agertu dira batzu; eta mailegu zaharretan egin ohi izan den joeraren alde besteak. Aurkeztu-tako oharrak jaso eta irakurtzeko eperik ez zegoenez, beste aldi batean erabakitzeko utzi da.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua

Fr. Luis Villasante

Idazkaria

Jose M.^a Satrustegi

1984-VI-24

Lapurdin-Milafrangako Herriko Etxean, 1984.eko Ekainaren 24ean, eguerdiko 12etan, Jean Saint-Pierre euskaltzain zenaren mendeurrena dela eta, egin du Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra, batzar ireki erara. Bildu dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buru-ordea, P. Altuna, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte eta J. San Martin euskaltzainak; M. Atxaga, R. Camblong, P. Charritton, J. M.^a Etxebarria, J. L. Lizundia, B. Oiartzabal eta J. J. Zearreta euskaltzain urgazleak. J. L. Lizundia Idazkari-ordeak, egiten du Idazkari erara. Beste zenbait euskaltzale eta milafrangar ere han zen.

B. Larramendi jaun auzapeza mahaiburuan dela, hasi da batzarra.

a) Beñat Larramendi Milafrangako auzapezak eman dio batzarrari hasiera, bildeui ongi etorria emanez. Aipamen berezi bat egin die aintzinean diren Saint-Pierren ilobei.

b) Luis Villasante euskaltzainburua, mintzatu da gero. Euskaltzaindia honelako paradekin baliatzen dela esan du, euskararen amodioa eta grina izan duten gizon ospetsuak, hala nola, egun Saint-Pierre jaun apezpikua eta euskaltzaina omentzeko eta bestalde, Euskal Herriko eskualde guztietan, Euskaltzaindia zer den eta zertan ari den agertzeko.

d) Jean Haritschelhar jaunak, joan den egun bietan, ostiralez eta larunbatez, Uztaritzen egin diren IV. Dialektologi Jardunaldien berri laburra eman du, esanaz, prezeski Euskal Herriko Atlas Linguistikoari atxikiak izan direla.

e) Pierre Lafitte jaunak, Jean Saint-Pierreri buruz egin duen txostena, Jean Haritschelharrek irakurtzen du. Hitzaldian, Saint-Pierre herrigizona, eliz-gizona eta euskaltzalea azpimarratzen ditu, bere bizitzako xehetasun ugari emanaz.

f) Pierre Charritton jaunak, bere txostenean, Saint-Pierren obrak aztertu ditu. *Eskualduna*, *Gure Herria* eta *Herria* aldizkarietan idazle izan zela eta azkenengo honen sortzailetarikoa ere bai. *Euzkadi* egunkarian, Iparraldeko berriemaile ere bai, 1919-20an. Baionan egin zen Eusko Ikaskuntzen Kongresoaren buru izan zela ere azpimarratu zuen. Beste bere lan askoren berri emanaz, amaitu zuen Charrittonek bere txostena.

Eta besterik gabe amaitu zen batzarra, ondoren Herriko Kontseiluak bilduei aperitif bat eskainiaz.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villasante

Idazkari-ordea
J. L. Lizundia

1984-VII-27

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan bildu da lehen aldiz Euskaltzaindia, 1984.eko Uztailaren 27an, arratsaldeko lau terdietan. Etorri dira: L. Villasante, J. Haritsche-lhar, P. Altuna, J. Gorostiaga, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, F. Krutwig, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, P. Salaburu eta J. M. Satrustegi, euskaltzainak. L. Akesolo, J. A. Arana, R. Badiola, J. Berrojalbiz, Jon Bilbao, J. A. Etxebarría, J. M. Etxebarría, X. Gereño, P. Goenaga, L. Goikoetxea, J. L. Lizundia, J. Oleaga, J. A. Retolaza, K. Rotaetxe, P. Uribarren, X. Videgain, P. Yrizar, M. Zalbide, J. J. Zearreta eta A. Zubikarai, euskaltzain urgazleak, J. M. Satrustegi idazkari dela.

J. L. Davant, X. Diharce, P. Larzabal, L. Mitxelena eta A. Zavalá euskaltzainek ezin etorria adierazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Ekaineko batzar-agiria onartu da.

L. Villasante Euskaltzainburiak ongietorria eman die batzartuei. Etxe honetan sartzean aro berri bat hasten dela Euskaltzaindiarentzat, esan du. Erribera kaleko egoitza behin-behineko etxetzat hartu zuenetik urte asko igaro dira eta bultzada haundia izan dute Euskaltzaindiaren eskuarteko lanek. Hori dela eta, Biblioteca toki batean, Bulegoak bestean eta liburuen gordailua auskalo non, ibili gara oraintxe arte. Baina, Bilbotik sortu zen gure Elkargoa bideratzeko lehen bultzada, eta Bizkaiko Diputazioaren eskutik datorkigu orain ere ekintza guziok etxe batean biltzeko laguntza paregabea. Bi bizkaitar ospetsuren omenaldiarekin egiten dugu etxesartzearen aurrerapena.

Migel A. Astiz euskaltzain urgazle zenaren biziaz eta lanaz mintzatu da J. L. Lizundia, idazkariordea. Kazetari nafarrak bere luma euskal gauzen alde agertu zuen egoerarik arriskugarrienetan ere, nahigaberik aski bere bizian horregatik jasanaz. Adiskiderik ere sortu zion, noski, jatoritasun horrek, udaberriko omenaldi handian ikusi zenez. Esker oneko agiria opa zion orduan Euskaltzaindiak.

Golzeko bilkuraren berri

Euskaltzain osoen batzarreko gai nagusia maileguzko hitzei zegokion, eta x letraren erabilpena eztabaidatu da. Hirugarren aldia da gai hau mahai gainean aurkeztzen dena, eta euskaltzainburiak bere aldetik Mitxelenari iritzia eskatu ziola, adi-

tzera eman du. Mitxelenak idazkariari bidali dio erantzuna, denbora berean, jaso berria duen “Menéndez Pidal” sariaren zorionagatik Euskaltzaindiari eskerrak emanez. Mitxelenak eginiko oharrak irakurri ditu gero Satrustegik.

Aurreko batzar-agirian aditzera eman zenez, lau euskaltzainen oharrak jaso ziren gaiari buruz eta, bestalde, Villasantek orduko bere ikuspunduen erabakigai laburra banatu du euskaltzainen artean. Hauek guziak aurrean zirela hasi da alde nahiz aurkako iritzien eztabaida. Azkenean, bototara iritsi dira, hiru ataletan sailkatuz eskuarteko lanak. Banan-banan aurkeztu dira puntuak. Azken erabakia hau izan da:

1. Hasieran eta bukaeran *x* duten maileguak puntu honi dagokionez aldatu gabe idatziko dira, hala nola, *xenofobia* eta *fenix*.

2. Bokal artean *x* idatziko da: *taxi*, *sexu*, *oxigeno*, eta abar.

3. Kontsonante aurrean ez da *x* idatziko, *s* baizik, honetan tradizioari (*estrainio*, *esplikatu*, *testu*, *eskumiku*, *espresuki*) jarraituz.

Mailegu hitzen lehen Jardunaldietako gaiari erabaki honekin eman zaio amaiera.

Maileguzko hitzekin jarraituz, bigarren Jardunaldietako txosten eta oharren azalpena egin du Mikel Zalbidek. Magnetofonez jasotako zenbait pasarteren zailtasuna eta ezin-entzuna adierazi ditu. Euskaltzainburuaren eskariz egin duen lana, datoren udazkenean jarraipena izan dezakeenaren oinarri da. Gaur ez gara gaian sartu.

Batzordeen berri

Dialektologia. Atlasgintzako arduradunen alogera nahiz lan-orduak zehazturik, irailaren hasieratik lanari lotuko direla, esan du Haritschelhar jaunak. Galdekizunen zerrenda burutzea eta inkesta tokien hautapena egitea izango da urte azkenerako amai gogo duten lana.

J. M. Etxebarria mintzatu da gero. Eskuartekoak zertan diren agertu du. Alfabeto fonetikoari buruz iritziak bateratzea eskatu du. Traskribapenetan azentua zenbateraino kontutan har, izan da gero arazo estilugarriena.

Ekonomia. Langileen soldatak gaurkotzea egin dela esan du E. Knörr, diruzainak, eta Eusko Jaurlaritzako gorapenekin batera egin ere. Kargudunen asignazio eta dietak ere neurri berean jasotzea onartu da. Osasun azterketa langileei urtean behin egingo zaie hemendik aurrera. Gasteizko Udalak diru eskaintza egin dio Euskaltzaindiari argitalpenen bat babesteko asmoa agertuz. Dagokion batzordeari uzten dio erantzunkizuna. Gordailu berriaren egoera aipatu da gero.

Gramatika. Iruñeko Biltzarren egitaraua gaurko inprimatu ez bada ere, ekaineko batzarrean esandakoak atzerapenik gabe doaz. Agintariekin mintzatu ondoren, lehen eguneko aurkezpena “Museo de Navarra”-ko ordezkaritza dagoen aretoan legikeela, esan du Satrustegik.

Hiztegitzinta. Hiztegi Orokorren arazoan Euskaltzaindiak Mitxelena jaunarekin izenpetu beharra duen hitzarmena —kontratua— luzatzen doala, aditzera eman du diruzainak. Izan ere, *Campion-Broussain S.A.* azpi-elkargoak du, Euskaltzaindiaren aginduz, legezko erantzunkizuna eta luzapena ez doa inoren mesedetan. Egoeraren berri emateko besterik ez da.

Azken orduko berriak

Expolangues, Europako hizkuntzen erakusketarako lanak jadanik hasiak direla, esan du Haritschelhar jaunak. Aurtan ere joan nahi badu Euskaltzaindiak eskaria egin behar du. Iazko lekua ona izan omen zen eta guretzat aski. Joatea onartu da. Hitzaldirik eman nahi balitz, aretoa bestalde ordainduko da.

Euskaltzainburugoko batzorde bat Karlos Garaikoetxea ikusten izan zen uztailaren seian. Kargu-berritzeen ondoren egin ohi den agurra zen helburu nagusia. Urrutia eta Arregi Hezkuntza eta Kultur kontseilariak ere han ziren lehendakariarekin. Giro lasaian hartu gintuzten eta euskararen egoera nahiz Euskaltzaindiaren lanak aipatu ziren. Euskaltzainburuak eskerrak eman zizkion lehendakariari euskararen alde Gobernua egiten ari den lanagatik.

Txostenak

Nazario Oleaga zenaren omenaldia. Euskaltzaindiak Bilbon laster izango duen egoitza berrian sartzearaz poza agertuz hasi du J. Gorostiagak bere hitzaldia. Adiskide mina zuela omendua, esan du. Legegizon ospetsua eta zuzena hautatu zuela Euskaltzaindiak idazkaritzarako, eta oso zehatz bete zuen bere eginkizuna. Arazo pertsonalak ukitu ditu gero. Gorputzez mengala zela, eta perretxikozale haundia: 30 mota bereizten omen zituen. Lagun bion jardunetan erabili ohi zituzten gaiak aipatu ditu, euskal hitzen jatorriari buruz txostengileak eman ohi zizkion iritzien argibide ugari azalduz. Pozgarri izan da Euskaltzaindiarentzat urteburu honetan, hainbeste denboran bere erretiro isiletik atera ez den euskaltzaina batzarrean ikustea.

Jesus Oleaga, omenduaren semea, mintzatu da gero. Ronda kalean mundura etorri zen bere aita, Euskaltzaindia sortu zen une berean izendatu zutela euskaltzain urgazle, esan du, eta nork daki zenbat ordu, egun eta urte sartu zukeen Erriberako egoitza zaharrean, paper, ohar eta agirietan murgildurik. Omenaldi hau urrats haiek eman zituen kale inguru honetan bertan jasotzen duela, esan du. Adinaren zamak bai eta osasunaren arrangurak eragotzi diote omenduaren emazteari bertan egotea. Familiaren izenean esker ona agertuz amaitu du bere hitzaldi laburra J. Oleaga, euskaltzain urgazleak.

Sebastian A. de Gandara, idazlea, izan da egun honetan omenaldia eskaini zaion beste bizkaitarra. J. A. Arana-Martija, Azkue Bibliotekako arduradunak egin du merezimenduen aipamena. XVIII.mendeko egoera aztertu du lehenik, Gandaren bizia eta lana hobeki ulertarazteko. "Gabon kantak" eta liburuan diren bertso motak aipatu ditu. Larramendirekin izandako harremanetan, honen erantzun-eza agertzen omen da.

Datorren irailean Iruñean egitekoa den Euskaltzaindiaren X. Biltzarreko egitaraua aurkeztu du Patxi Goenagak.

Patxi Zurikaray, Bizkaiko Aldundian Kultur saileko arduraduna den Diputaduak esan ditu azken hitzak. Makua jaunaren ezin etorria adierazi ondoren, gaurko festaren esan nahia azaldu du. Plaza Barriko egoitza honen legezko azken joan-etorriak laster bukatzekoak omen dira eta, asko berandu gabe, ofizialki eskainiko zaiola Euskaltzaindiari. Bitartean, gaurko sartze hau sinbolikoa dela esan du.

Eta besterik gabe amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburua
Fr. Luis Villasante

Idazkaria
Jose M.^a Satrustegi

**HERRI-IZENEI BURUZKO
ADIERAZPENAK**

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca-EUSKALTZAINDIA y Secretario de su Comisión de Toponimia, emite el siguiente...

DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco, preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 185 y denominado hasta ahora en la versión oficial de la Administración: Castillo y Elejabeitia, es en su versión oficial académica vasca: (*ARRATI-*) *ARTEAGA*.

Que *arteaga* significa “la encina” y que dicho término como topónimo, aparece siempre como *arteaga*, que como indica el ilustre coautor de la *Geografía del País Vasco Navarro*, Julio Albadill, significa: “lugar de encinos”, es decir: que la función del sufijo fósil *-AGA* es precisamente en la generalidad de toda Euskal Herria, distinguir *el lugar de*, del objeto, en este caso, un árbol. En *La Reja de San Millán del siglo XI* se ve otra forma más arcaizante, *aha*, como: *Hamezaha*, conociéndose modernamente otra forma, *aa*: *Altzaa*, barrio de la anteiglesia de Etxebarria en la merindad de Markina.

Que existen tres localidades en el País Vasco con el nombre de *Arteaga*. Una, en la merindad de Busturia con el nombre compuesto de Gauteguiz de *Arteaga*; otra, en la merindad de Estella siendo el lugar donde se hacían las Juntas del valle de Allin, hasta que modernamente este valle se dividió en dos municipios, uno con capitalidad en Metauten y otro en Larrión y la tercera, en la merindad de *Arratia*.

Que *Arteaga* es un topónimo que se repite a lo ancho del País Vasco, apuntándose, a título de ejemplo, los siguientes: término en Ullibarri-Jauregi (Alava), ficha n.º 1665 de Toponimia alavesa de Gerardo López de Guereñu, Anuario de Eusko Folklore; caserio de Urrestilla-Azpeitia (Guipúzcoa); id. de Zumaia; id. de Oiartzun; id. de Idiazábal; id. de Mutriku; id. de Apatamonasterio; id. monte de Barakaldo. Abunda asimismo en formas compuestas como: *Arteagabe*, término de Sestao; *Arteagabeitia*, término y caserio de Barakaldo; *Arteagagoikoa*, id. id. id.; *Arteagabaso*, monte de Apatamonasterio; *Arteagazar*, caserio de Abadiño; id. id. de Garai.

Que la distinción entre los dos *Arteagas* de Vizcaya, habría de hacerse en todo caso, o bien con el añadido de la merindad, como lo hace el escritor

clásico vasco y arratiano de nacimiento Fray Pedro Antonio de Añibarro, en su *Lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX*, o sea, *Arteaga (de Arratia)*, *Arteaga (de Busturia)*, o como lo ha hecho la anteiglesia busturiarra, introduciendo la forma compuesta de *Gautegiz de Arteaga*.

Que Juan Ramón de Iturriza y Zabala, en su obra *Historia General de Vizcaya* inicia el capítulo LXVIII diciendo: "en el territorio llamado de *Arteaga* tienen situación en bello planicie dos repúblicas, unidas en lo temporal... pero en lo espiritual con sus parroquias... la de *Castillo* con la advocación de Santa María y la de *Elexabeitia* con la de San Miguel". Si tenemos en cuenta que castillo en lengua vasca es *gatzelu* y existe una ermita con la advocación de Santa Marina en el barrio de *Gatzelu* se colige lo siguiente: este caso puede ser semejante a los de Arbatzegi/Munitibar, Murelaga/Aules-tia, Mendiondo/Lekorne, Bearin, etc., es decir un cambio de emplazamiento de la población y que al fundirse con posterioridad las primitivas iglesias medievales de Santa Marina de *Gatzelu* y San Miguel de *Elexabeitia* en una sola anteiglesia civil, ésta se emplazó en un término mejor ubicado, en el territorio o término denominado *ARTEAGA*.

Que la forma vulgar de *Arteaga* ha desembocado en Artea o Artia. Las tres formas se confunden en la localidad de Gauteguiz de *Arteaga*, como se desprende de la adjunta fotografía. *Arteaga* forma documentada, en la señalización de azulejos de la Diputación; de *Artea*, nombre de la Herriko Taberna, sita en los bajos de la Casa Consistorial y *Artia*, que es como lo pronuncian habitualmente en la variedad euskérica local.

Que Artea al no pasar de ser una contracción vulgar, parece conveniente mantener la forma completa de los vocablos y ser fiel a la forma literaria y culta de *ARTEAGA*, única documentada, no sólo en las tres localidades citadas, sino también en la toponimia menor.

Que por todo lo cual se estima que la denominación correcta de ese municipio es *Arteaga de Arratia* y en euskara *ARRATI-ARTEAGA*, tal como figura en el Nomenclátor.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dicho municipio, expido la presente en Bilbao, a siete de Marzo de mil novecientos ochenta y cuatro.

V.º B.º

Luis Mitxelena Elissalt,
Presidente de la Comisión.

NOTA-ADDENDA 1

De reconocerse como forma oficial esta contracción y similares, habría de otorgárseles el mismo trato a: Zeani, que es como se dice en la variedad euskérica local y no a Zeanuri, que es la forma literaria y culta, adoptada por la Corporación municipal y esta Corporación académica, Dime y no Dima; Iburri y no Ibarruri; Abaño y no Abadiño; Elantxu y no Elantxobe; Zatamo y no Zaratamo; Atxabaleta y no Aretxabaleta; Gernike o Gerrinke y no Gernika, etc. Lo mismo sucede con otras lenguas, como el castellano en el que se dice en la variedad dialectal local Zeviya, Juerva, Badajó, etc., pero la forma oficial es la literaria o culta Sevilla, Huelva o Badajoz. Por lo tanto es permisible que en el habla coloquial se siga diciendo Gernike, Zeani, Artea o Zeviya, pero sin embargo las formas oficiales sean las otras, las literarias cultas.

INDICE DE ANEXOS-ADDENDA 2

1. Julio Altadill, *Geografía General del País Vasco Navarro - Provincia de Navarra*, Tomo segundo, Barcelona 1921.
2. Real Academia de la Historia, *Diccionario Geográfico Histórico de España, Reyno de Navarra, Señorío de Vizcaya y Provincias de Alava y Guipúzcoa*, Madrid 1802.
3. J. Carrasco, *La población de Navarra en el siglo XIV*, Universidad de Navarra, Pamplona 1973.
4. Instituto Geográfico, Catastral y de Estadística, *Nomenclátor de las ciudades, villas, lugares y demás entidades de España - Provincia de Vizcaya*, Madrid 1923.
5. L. de Eleizalde, *Toponomástica vasca*, Revista Internacional de Estudios Vascos, Tomo XIII, Donostia-San Sebastián 1922.
6. Fr. Antonio de Añibarro, *Lista de pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra de principios del siglo XIX*, transcripción y notas de Fr. Luis Villasante, Publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País, San Sebastián 1956.
7. Juan Ramón de Iturriza, *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*, Volumen I, Ediciones Librería Arturo, Bilbao 1967.
8. R. P. José A. Lizarralde, *Ensayo iconográfico, legendario o histórico ANDRA MARI, El culto de la Virgen en los valles de Arratia y Orozko*, Bilbao 1934.

D. José Luis Lizundia Askondo, Vicesecretario de esta Real Academia de la Lengua Vasca (EUSKALTZAINDIA) y Secretario de su Comisión de Toponimia, emite el siguiente

DICTAMEN:

Que según el Nomenclátor de Municipios del País Vasco, preparado y aprobado por esta Corporación académica, el clasificado con el número 4 y denominado hasta ahora en la versión oficial de la Administración: Abanto y Ciérvana, es en su versión oficial académica vasca: ABANTO-ZIERBENA.

Que el nombre de ese Concejo del valle de Somorrostro, aparece ya en la forma Cierbena, escrito en la grafía antigua C, actualmente en desuso.

Que tanto si el segundo elemento es *-bena*, como si lo fuera el sufijo *-ena*, tan abundante en la antroponimia vasca: *Perurena*, *Enekorena*, *Mitxele-na*, etc., la forma euskérica evidentemente sería *Zierbena*. Puede ocurrir que haya sufrido la tendencia castellanizante de abrir la vocal, es decir, *-ena* ha pasado a ser *-ana*. Esto ha ocurrido en este siglo con el barrio de Abadiño: *Matiena*, en el que los castellanoparlantes lo habían convertido en *Matiana*, pero afortunadamente al conservarse allí la lengua vasca, los vascoparlantes seguían diciendo *Matiena* y se ha recuperado la forma autóctona.

Que por otra parte, tanto en el *Diccionario Histórico Geográfico* de la Real Academia de la Historia, Madrid 1802, como en la *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones* de Juan Ramón de Iturriza y Zabala, aparece Ciérbana conservando la *-b-*. Se ve que se había abierto ya la vocal *e > a*.

Que lo que no parece procedente es solamente adoptar la grafía académica euskérica y escribirlo *Zierbana* y seguir con la forma castellanizada del segundo elemento o sufijo *-ana*.

Que por todo lo cual la versión euskérica, de la castellana *Ciérvana*, sería *Zierbena*. Excepto éstas las demás formas *Cierbena*, *Ciervena*, *Ciérbana*, *Zierbana*, etc., o son formas arcaicas de las grafías castellana o vasca, actualmente en desuso o incorrectas.

Y para que conste y su remisión al Ayuntamiento de dichos Concejos, expido la presente en Bilbao a dieciocho de Octubre de mil novecientos ochenta y cuatro.

BATZAR TXOSTENAK

ITZULPENEZ

EUSKARA GAURKOTZEKO ZENBAIT AHALEGIN (*)

Donostia, 1984-I-27

Ricardo Badiola Uriarte

Duela bederatzi urte hasia naiz Euskaltzaindian lanean eta, urte hauetan gorabehera anitz izan ditugu gure inguruan eta, nola ez, itzulpen eremuan. Orain arte buruturiko itzulpen lanez, hogeit bat karpeta haundi dauzkagu. Askotan, hanka sartze haundiak egin izanen ditugu, baina nora jo ere ez genekien, batez ere hasierako aldian.

Orain arte buruturiko itzulpenetan oinarriturik, sarrera gisara aurkezpena egin dugu Euskal Herrian itzultzailearen zailtasunak eta beste zenbait arazo ikuturik.

Hemen ez ditugu aipatuko, gure kasuan, burutu lan mota guztiak ez eta aurkitu ditugun zailtasunen zerrenda osorik ere; baina bai zenbait arazo eranskin erara.

Lehendabizi, eskerrak emon beharrean aurkitzen naiz euskarazko nire irakasle eta maisu izan zen Imanol Berriatua zenduari, berau izan baitzen nire irakasle zuzpertzale eta euskal alorreko gidaria.

Bestalde, eskerrak baita nire Bilboko bulegoetako lankideei ere, hain zuzen, hauengana jo baitut une larrietan. Berauei esker burutu baititut aipaturiko itzulpenok. Hau dela eta, eskerrak Jose Antonio Arana Martija jaunari, beronengana jo baitut lege-arazo, bibliografia eta beste zenbait kasutan; Jose Luis Lizundia jaunari, toponimia, izendegi eta administral alorrean; Juanjo Zearreta eta Xabier Gereño jaunei, finantza eta administral eremuan; Rosa M.^a Arza andereari, liburu eta bibliografian; Nere Altuna andereari, enpresetako hitzarmenetan zalantzak eta zehaztasunen beharrian; Resu Orbe, Bego Amundarain eta Lutxi Alberdi andereei, askotan berauengana jo beharra baitaukat Euskaltzaindira datozen itzulpen eskaleen nahiak zeintzu diren jakiteko, makinatze lanetarako eta baita kontsulta sailean zenbait argitasun jaso ahal izateko. Berriz ere, eskerrak guztioi eta aipatu barik uzten ditudan kide eta ezagunei urte hauetan eta orain ere elkar laguntzeagatik, hain zuzen,

(*) Txosten hau, Gasteizen, 1983-IV-28an, Euskaltzain urgazle izendatzearen erantzuna da.

udal itzultzaileei, Diputazioetakoei, zenbait institututan euskara irakasten dihardutenei, etab, etab.

ITZULTZAILEAREN PRESTAKIZUNA

Itzultzaileak sortu egin behar du eta ez kopiatu. Itzulpen batetan jatorrizko testuaren mamina edo funtsa zeharo jaso behar da eta ez komentario edo honelako zerbaitetan aritu.

Itzulpen eremuan sartzea nahi duen batek hizkuntza -gure kasuan euskara- trebeki menderatu behar du, eta hemendik aparte unibertsitate mailako jakitun jabe izan; ezta nahiko titulu bat izatea, baizik eta kultur maila bikaina edukitzea ere beharrezkotzat jotzen dugu. Euskal itzultzaile trinko batek, Euskaltzaindiko B maila eduki beharko luke, edo honen mailarako eskatzen denaz jabetua, gutxi gora-behera.

Itzultzaile batek hitzen jatorria eta konposaketa eremua ezagutu behar ditu, bestalde, hiztegi enziklopedikoek ere ez diote inolako kalterik sortuko; baita gaureguneko itzulpen saileko oinarrizko ezagupenak, jokaerak, etab, etab, ere.

ITZULTZAILEAREN ARAZO ETA LARRITASUNAK

Itzultzailea pertsona madarikatua da. Batek baino gehiagok galdetu ere egiten du ea posible den itzulpenik egitea: hizkuntza batetan emana, bere mundua duelarik, pentsamolde, hitz, bizitza eta gainerakoa, ea bene-benetan ahal den beste hizkuntza batetan ematea.

Alde batetik, galdea hori aidean utzirik —eta agian, ibiltea ibiliz erakusten delako—, beste zenbait punturi heldu behar genioke.

Gaurko hizlariak mundu berezi bat aurkezten digute, eta idazleak beste mundu bat eman behar du. Benetan, egiten dena, esaten dena, pentsatzen dena edo somatzen dena; dena hitz batetan, hitzetan irauli eta hertsu behar du. Eztu beste biderik, ez bada lerro bakoitzean marrazki bat egin eta horrela gauzak azaltzen saiatzea. Baina orduan ez dizute esango idazle zarenik: komikigilea edo agian artista modernista edo horrelako zerbait, esango dizute. Baina ez sekula idazlea.

* * *

Gizarteak eta gainerako tradizioak hiztegia eta gramatika jarri ditu. Ez diote besterik eman, luma kamustua ezik, eta hura ere gaizki erabil baleza, gainetik datorción kritika zorrotza. Beraz, idazlea ere gizajo bat da, besterik ezinean.

Eta itzultzailea?

Itzultzailea, idazlearen prozesioan, kandela eramailea —eramaile giza-joa— dugu. Batez ere Euskal Herri mailan —hemen denok baikara sasi linguistikak edo antzerako zerbait. Hemen, itzultzaileak udaletan, bankuetan, merkatalgoan... muturrean eta astirik gabe jarten diotena, itzuli eta bota behar du, nola edo hala, txarto, zuzen, oker, gramatikari jarraituz, ala ahal duen moduan edo eran. Baina, ematen dioten guztia, ahal duen tokitik pasa, eta ahalik ulertzeko erarik errazenean eta ulerkorrenean eman behar du, berekasa; eta batzutan, euskalki batetara moldaturik.

* * *

Zer da, beraz, itzultzailea? Zer egin behar du, bizi nahi badu, azterketak igaro nahi baditu, eta beraren ekinaren balioa aintzat eta kontutan hartzea nahi baldin bada?

Hizkuntza guztietan, batez ere, lehendabiziko kultur urrats eta goi mailara jaso nahi izan denean, idazleak itzultzen saiatu dira. Beste norbaitek sorturikoa hartu dute, eta gero literatur jator baten jatorria zabaldu. Euskal Herrian be, bada horrelakorik. Baina gauzak okertu direnez gero, gaur berriro aurkitzen gara hiztegia sendoturik, agian gainerakoak —literatura, hizkuntza mintzatua... hainbeste garrantzirik ez zuela adieraziz. Gramatikatik aparte dena dugu murrizturik, argalduta eta galdua.

* * *

Eta mitoak mito direnez eta ez gehiago, euskararen mitoa ere alde batetara utzi behar genuke. Hau da: euskara hizkuntza arrunta, normala... munduan dabiltzaneko beste askoren antzeko eta pareko hizkuntza da, eta fetitxismoa baztertu behar genuke oraindik gehiago edo areago: “euskara maite dut”, batek baino gehiagok dioena da: “euskaraz maite baleza hobe litzateke”. Euskara eztut uste beste munduko gauza denik, maitatu ahal izateko.

Hizkuntza oro komunikabide da. Tresna bat, besterik ez. Tresna horren maitasun gairik badenik, eztu inork ezeztatzen, eta baita mundu oso bat eskutatzen dela hitzen ostean: hori ere ez. Hitzetan sentimenduak, eritziak, balioak eta mundu ikuspegi osoa barnetzen zaigu. Baina hitzak eta hiztegiak maitatzea, hori ez dakit ez ote dugun euskaldunok oso geure-geurea. Maitasun honi buruzkoa edozein delarik ere, hizkuntza erabili behar den tresna da, gure nahiak, pentsakerak, ikusmoldeak adierazteko balio duena, eta horrela hartu behar genuke, gainerako teorizaketa guztiak alde batetara utzirik.

Gaur gaurkoz, gure tresna hau nahiko edo aski herdoildua eta uhertua daukagu, kamustua be bai, inoiz zorrotza izan bada ere. Eta, itzultzaileak tresna hori hartu behar du eskuetan, mila posibilitatez beterik, beste edozein hizkuntza bezala, baina oraindik bat ere harrotu gabekoa. Oraindik gutxiago itzultzailearentzat.

GAURKO ITZULPEN JOERAK

Aintzinako itzulpenetan mezuaren forma azpimarratzen zen gehienbat eta xehetasun estilistiko guztiak ematen ahalegintzen ziren, alegia, *hitz jokoak, errima, erritmo, paralelismoak* etab. ...

Gaurregun, aldiz, jaramon handiagoa egiten zaio mezu-hartzailearen erantzunari; itzulpenaren jasotzailearen erantzuna eta jatorrizko testuaren hartzailearena, alderatu behar dira. Honetaz, begira zer dioen Xabier Mendigurenek bere: *Itzulpen teoriatzko ezagupenak* (1), 48 eta 49 orrialdeetan: "Itzulpen bat *zuzena* (*) ote den erantzuteko, *norentzat* den jakin behar da aurrena. Itzulpen horren erdi-mailako irakurleak zenbaterainoko egokitasunarekin ulertuko lukeen jakin eta gero finka dezakegu itzulpen horren zuzentasuna edo egokitasuna (correctness). Beraz, jendeak seguraski gaizki ulertuko dituen esamoldeak eta astunak eta zailak direlako mezua jasotzetik irakurlea saiheraziko luketenak alde batera utzi behar dira.

Irakurleagoaren portzentaia handi batek oker ulertzen duen itzulpena ezin daiteke egokitzen eman.

Bestalde, badirudi gaurregun nahikoa hedaturik dagoela hizkuntza bakoitzak bere *izaera* edo *nortasun berezia* duelako iritzia eta behar bezala komunikatu beharra dagoela. Eta itzulpena "ezinezkoa" dela aldarrikatu dutenen aurka, gaur gehienek onartzen dute, hizkuntza batean esandako edozer esan daitekeela bestean, baldin eta forma funtsezko osagai ez badu mezuak.

Eta, azkenik, leialtasunari buruz izan diren iritziz desberdinak gorabehera, gaur nahiko argi ikusten da, mezuaren edukina nahi baldin bada zenbaite-tan derriorezkoa dela forma aldatzea".

Bestalde "nolabait esateko —dio Xabierrak (2)—, gaurregun ez da posible Leizarraga eta Orixeren erara itzultzea, nola hizkuntza hala mezu hartzailea, biak aldatuz bait doaz. Harako *traduttore, traditore* hura neurri batean egia delarik, itzultzaileak adi egon behar du bihurtzen ari den testura, iruzur egiteko arriskuaren beldurrez, baina, bestela, egitura linguistikoen komunikaezinezko tesia, egiazki komunikagaiztasuna baizik ez dela ere ez du ahortzi behar".

GRAMATIKA EREMUA ETA PRAKTIKA

Hainbat arazo barnetzen da izenburu zaku honetan. Guk ere sartu beharko ditugu zenbaitzu.

(*) Azpimarratzea nire da.

(1) Xabier Mendiguren: *Itzulpen teoriatzko ezagupenak*, Lazkao (Gipuzkoa) 1983.

(2) Ibidem, 70. orr.

Euskararen gramatika, batez ere azken bolada honetan, ahozko euskararen gainean egina daukagu, idatzi eta hitz egitea edo egina bat bezala jo dira, alde guztietan, nahiz eta aspaldidanik bereziak izan gure artean; hizkuntzaren eredu bezala, ahozkoa hartu dugu, ahantzirik beste euskara bat ere badugula, alegia, idatzia. Eta gramatika egiterakoan, sarri, bigarren hizkuntza —idatzia— ahaztu, baztertu eta mesprexatzen da. Baina, itzultzailea, liburu, orrialde, fitxa, komunikazio itzultzaile denez, ezta ahozko hizketa baten itzultzaile —salbu itzulpen zuzen edo aldi bereko edo simultaneo— nahiz eta irakurria, batzutan, entzutekoa ere izan, irakurterakoan baizik.

Idatzia alde guztietan hitzegina baino gatxagoa edo zailagoa da, esaldi edo perpausak, agian, beteagoak direlako, elipsiari leku gutxiago uzten zaio-lako, esaldiak osotu egin behar direlako. Ahozkoan hainbat arazo alde batetara baztertzen dira, esaldiak laburtzen direlako, eskuak be, hizlari bihurtzen direlako, hitzen soinuen laguntzaile keinuak ere daudelako, etab.

Baina idaztean, hiztegia eta gramatika geratzen dira. Eta haiekiko burruka ezta gehienetan gozoa izaten.

* * *

Itzultzailegai guztiok nabari dugu itzultzearen zailtasuna, gure hizkuntzaren eta ingurukoaren egitura eta sintaxia ezberdinak baitira. Frantsesetik gaztelaniara itzultzeko eragozpenak eta zailtasunak izan ohi badira, gaztelanitik euskarakoetan zailtasunak ugariago eta nabarmenagoak dira. Eta zenbait gramatikak, euskara eta gaztelaniaren arteko aldea oraindik areagotu egin nahi duenak, ez gaitu asko lagunduko gertatzen zaigunari irtenbiderik bilatzeko eta aurkitzeko.

Kontutan hartu behar duguna, agian, norbaitek zerbait adierazi edo esan nahi duela, eta esaten duena ahalik eta garbien esan behar duela, besteak ahalik eta errazen ulert dezan. Hori da garrantzitsuena eta gainerakoa, tresnaz baliatzea, ondo ala txarto, baina komunikabideaz baliatzea da. Zalantzarik gabe, gramatika hizkuntza baten mugen eta posibilitateen adierazlea dugu. Mugak jarten ditu, tradizio baten berri ematen duelako, eta zer den zilegi eta zer ez, aditzera ematen duelako. Eta posibilitateak ere agertzen dizkigu, bertan aurkitzen baitira maiz tradizio eta kosmoikuspide baten aztarna garbiak.

* * *

Gure gramatikaren tradizioa, ordea, ez da hain garbia. Idazle zaharren balioak, idazkera, joskera, e.a. gaurko zenbait gramatikan ere jaso gaberik dugu, zenbait puntu minimotan ez baldin bada. Gainerakoa, eta batez ere, itzultzaile batentzat tresna egokia izan zitekeena, kendurik dago. Eta honi buruz, bai, honi buruz pentsatu behar da, zeren hemen agertzen baitira beste era batzu, egokiagoak eta zabalagoak, gaurko zenbait joeren parean; zeintzu-

tan euskara baliozko bezala hizketarako erabilten dena hartzen den. Adibide gisara besterik ezean —eta norbait haserre balekit, barkazioa eskatzen diot aurrez, besterik ezean, ez nazan ni neu gero, eta konturaturik bazterturikako aberastasunak nahiko garrantzizkoak ditugula gaurko kinka honetan— jar ditzadan Duvoisin eta Erraimun Olabide, biok bi biblia itzultzaile zintzoak. Garbi ikusten denez, bi tradizio diferente eta dirudienez —eta ez literaturaren arazoengatik— etsai. Duvoisin, Lapurdiko tradizio zaharraren jarraitzailea da, lapurtarra izanik noski, baina garai hartako Gipuzkoa beheko eta Bizkaiko idazleak bezala.

Olabideren sena beste zerbaitengatik zabaldu da. Bibliak duen espresio zabalagoa joskera itxi batetan sartu du, bildu eta lotu, hartarako behar diren buruzorrozkeria guztiak eginda. Ez daukat honengatik Olabide alde batetara zertan utzi, ez haren balioa gutxietsi nahi ere: alderantziz, erizpide eta mundu jakin batek zer pentsatzen zuen, eta zergatik jotzen zuen bide horretatik ikusteko, nahiko eredu garbia dugu.

* * *

Benetan, herriak erabilten ez badu, ez dugu ezer egiten. Baina, herriak erabilten du hori, harentzat —eta hari ere ez diot ezer kenduko— non edo han kokaturik zegoen herri puntta bateko bereizikeria izatea esan zezakeen, beste norbaitentzat biltzea batetatik datorren zantzoa izan daitekeen bezala.

Areago, esan nahi nuke beste zerbait gramatika elkor horri buruz. Maiz gertatu zaigula gramatikaren laguntza oztupo izatea. Mila gauza dago galtzen ari dena, eta indarren ekonomiarengatik beragatik ere, galduko dena, beste hizkuntza guztietan galdu den bezala. Baina haren ordeztu beste zerbait jasotzen du hizkuntzak, edo asmatzen. Euskaraz ere ikus daiteke, dagoeneko, joera hori edo horren antzeko joera: aditzean, adibidez, potentziala urritzen ari zaigu, eta gaur berriro potentzialaren —errealaren nahiz supositiboaren— formak bilatzen ibiltea, denbora alferrik galtzea litzateke. Geratuko dira, noski, zenbait forma ximpleago, arruntago, eta haiek gordeko eta geratuko dira. Gainerakoak, gramatikalarien eta hizkuntzalarien bitxikeria bezala geratuko dira, nire ustez.

Gauza bera esan daiteke aditz tinko edo sintetikoari buruz. Gaur oraindik nola edo hala erabilten dira; baina joera, perifrastikora doa; hau da, aditz nagusia eta laguntzailea erabiltera. Joera hauek ezin ditugu ahaztu, ez badugu nahi gu geu ere gramatika posible edo idea baten parean ibiltea.

* * *

Beste gauza bat aipatu nahi genuke ordea, guk oraindik garbi ez duguna, baina derrigor ikusi behar duguna, aztertu eta sakonduz posibilitate berriak izan ditzagun. Esaldi edo perpaus batetan nagusiak eta menpekoak lotzeko moduak. Euskararen atzekoz aurrerako joera —batez ere inguruko hizkun-

tzez gonbaraturik— nahiko garbia da, eta gaur oraindik gramatika batetan baino gehiagotan aurki daiteke, atsegin morbosoz kasikan idatzia eta deskribatua batez ere gonbaraketa deskribatzen denean. Baina, dudarik gabe —eta hemen— bai ez dugula bat ere aurrera botatzen duena. Erlazioa edo menpeko esaldia, esaldi nagusiaren zehaztapena da, beraren lekuan mugatu eta hesituz egiten dena. Hartaz, zehaztapenak errazago eman ahal dira geroago, gauzarik nagusia eman ondoren aurrez aitzakiak botatzen ibilteke. Dudarik gabe horrelako tradizio mota bat azaltzen da Iparraldeko idazleengan, batez ere zaharrengan, eta lotsarik gabe botatzen dizkigute ikaragarritzko esaldi luzeak, mila loturazko konjuntzioak erabiltzen dituztelarik, eta —zailena hori da— irakurleari beste munduko nekerik eskatu gabe. Tradizio hori gaitzetsia, moztua eta desterratua izan zen gure artetik “hitzegiten zen euskaraz erabat garbi aurkitzen ez delako, beraz ez delako euskara egokia”. Eta nor ausartuko litzateke gaur esaten Axularrek ez duela euskaraz idazten eta ez dituela euskararen berezitasunak ezagutzen, etab. ...?

Kanpoko hizkuntzek kutsatua zegoela, esaten zuten, adibide gisa latina eta frantsesa eta gaztelera jarritz. Agian, baina gu, nahiz joera hartaz ez baliatu, kutsatuago ez ote garen gara beldur. Areago, eta honetan itzultzaileen penak, negarrak, aieneka eta miseria gorriak kontatzen ditugu, tradizio hori —zaharra eta berri daitekeena esan nahi dut—, ahazteagatik sortzen zaizkigun arazoak, batzutan, irtenbiderik gabeak, ematen dute.

* * *

Nola itzul, adibidez: “Los trabajadores, que, habiendo cumplido diez años de servicio quieren jubilarse, quienes cobrarán un 3 % del salario real, más la antigüedad, por año o fracción”. Eta horrelako esaldi bat ez da aldrebesena. Denak horrelakoak balira..., agian itzultzaileok aberastuko ginатеke... “Hamar zerbitzu urte egin dutelarik, jubilatuta nahi duten langileek egiazko soldataren % 3a gehi antzinatasuna kobratuko dute, lanurte edo beronen zatirengatik”. Baina ez digu horrek irtenbiderik eskaintzen. Seber Altubek esaten zuenez, esaldi bakoitza itzuli behar omen da: Hala: “Los trabajadores cobrarán... (I). Que quieren jubilarse (II); eta Habiendo cumplido diez años de servicio (III); “cobrarán un 3 % del salario real”... honela zatika, eta azkenik esaldi osoa taxutzen.

Baina, eta itzulpena batbatekoa edo simultaneo baldin bada? Nondik hasi? Hasierakoa ahantzen denean? Horretarako ere bideak ireki behar dira. Egina dugu frogatzen batbateko itzulpenetan, eta itzultzeko penaz aurkitu izan dugu geure burua, edo penaren penaz eta eguna bukatu aurretik itzultzeko —geure etxera esan nahi dugu— puntuan egon izandu gara. Eta hemen ez dago errezetarik, botikarik ere ez dagoenez gero. Orduan bakoitzak ahal duen eta datorkion moduan itzultzen du. Baina hori ez da bidezkoa: euskara normal batetara itzuli behar da, ulertzeko moduan, agian gozatzeko eran.

* * *

Gerora bide hauek moztu egin dira, eta ondorioak berehala ikusi ditugu. Adibide gisa: erlatiboak ematen dituen posibilitateak garbi daude, besterik esaten ihardun gabe: “la amiga con quien vivo” euskaraz jartean, batek baino gehiagok errazera jo du, eta erraz itzuli du: “Nirekin bizi den adiskidea edo laguna”. Baina intentzioz —onez zein txarrez— beterik dagoen esaldia bada, zer egin? Jo dezagun: norberekoikeriaren aztarnak deskribatzen ari den idazle batek horrelako zerbait esaten duenean, eta esaldiaren eta psikologiaren pisua “ni” horretan ezarri nahi badu, itzulpena egokia izango litzateke. Baina ez alderantziz: behingoz behintzat psikologia hori urratzen duelako, eta beste bide batetara jo nahi duelako. Orduan, itzulpena eskasa ezezik, faltsua eta gezurrezkoa litzateke. Norbaitek, ordea, itzul dezake: “Adiskidea, harekin bizi baitnaiz”, edo horrelakoren bat. Pisua eta eta nahiko traketsa dela ikusteko, ez da begi argiegirik behar, agian belarri apur bat, eta ez gehiegi afinatua.

Orduan, tradizio zaharrak —nahiz garai batetako gramatikak horrelakorik onartu ez, purismoaren aitzakiz agian honela itzuliko luke: “adiskidea, norekin ni bizi naizen (baitnaiz)”, eta gauzak idazlearen zentzuan geratzen dira.

* * *

Baina, zenbait gramatika garbizaletan —eta oraindik aurkitu ahal da horrelakorik— ez dago horrelako itzulpenetarako lekuri: —gutxienez, bedein-kaziorik ez—. Adibidez: “sobre el tema, hay mucha bibliografía” euskaraz jarteko, batzuk ez dizute “gainean” jarteko baimenik emongo; “Agirre Asteasuakoak” liburuaren izenburuan bertan jarten duela, Axularrek eta Lizarraga Elkanokoak ere (1). Noski, bikoitz ulertu ahal dela eta bikoitzasunak alden du eta uxatu egin behar direla? Noski. Baina, norbaitek irakur baleza, gure Kiri-kiñok “apaizari txapela kendu”-ren gainean idazten duena, dudarik gabe ez luke gauza hauetan muturrik sartuko. Nire adiskide batek behin: “sobre la Esencia artikulu bat idatzi zuen”, ez irakurri zuelako, baizik haren gainean eseri zelako. Eta ez da aski “frontoiaren gainean bertso batzu jarten” esatea, frontoi gainera igon behar denik aditzera emateko.

Izan ere, gauza bat da benaz eta egiazki esaten dena, eta beste bat esan nahi dena. Eta esan nahi dena, testuinguruak ematen digu, batzutan aditzera eta bestetan tronpatzera. Eta horretarako, batzutan gramatika lagungarri gertatzen zaigu, eta maiz —zoritxarrez gehiegitan— eta zenbait gramatika arago, arerio edo etsai, ez baikaituzte gauzak argi eta zehatz esaten laguntzen, baizik buruxorroxkerietan aritzen.

(1) “Itzgaia Orden Sagratuaren Sacramentuaren gain”, *Lekuonatar Manuel Jaunaren omenezko Idazki-Bilduma II* (Vitoria, 1977), 23-27. “Itzgaia Esperanzaren ta Oracioaren gain” *Scriptorium Victoriense* 30 (1983), 65-89. “Itzgaia Doctrina Christioaren gain”, *Misce-lánea J. Zunzunegi II* (Vitoria, 1975), 98-111.

Garai batetan, latin eta greko ikasteko arrazoiatariko bat hori zen: buruaren ariketa erara, ariketa ona baitzen. Eta gaurregun ere, gramatika zenbait nahiko buru-ariketa astun eta lehor dela, uste dugu. Tamalez diogu, sarri idazleak salbuespenei heldu behar izaten bait die, zerbait itxuraz eta taxuz esatekotan. Beraz, idazleak eta itzultzaileak gramatikaren gainean txilipurdika egin behar dute, eta gu geuk pozarren, ahalik eta erregela, arau, agindu, oharpen kontseilu, aginte, salbuespen gehienik urratuz, pentsamendua ez batzaigu askotan haren pintxoalanbrezko itxitura hesituetan barnetzen. Eta guk diogu: "Pentsamendua, ideia ala gogo, jalgi hadi kanpora, jaldi hadi kulturara..."

* * *

HIZTEGIA DELA ETA

Galdea eginez —Imanol Berriatua zenduak honela erabilten zuen eta ez "galdera", beraren ustez azken hau "galde" egiteko era baitzen— hasi ahal dugu:

Zelan itzuli ahal da: "Los organismos, instituciones y entidades dependientes del sector..." eta gainerakoa? Itzultzaile madarikatuari horrelako gauza asko heltzen zaio egunaren buruan, eta nahiz buruari heldu eta eguna alferrik gastatu ez daki nondik heldu, zer egin eta azken batetan, nola itzuli: "Sektoreko erakunde, instituzio eta entitateak?". Sektorekoak diren... e.a.? Adibide gisa ez da txarra. Baina hori baino zailagoak ere tokatzen zaizkio itzultzaileari. Denok dugu gure lotsa, eta gure izen ona zaintzeko eta handitzeko eskubidea ere bai. Baina, horrelako gauzen eta esaldien aurrean, burua makurtu, eta lotsaz benetan, erdaratiko hitzetara jotzen dugu. Ez gara hiru hitz, beste edozein lekutan bakarka arruntki erabilten ditugunak, bata bestearen ondoren jarten ausartzeko. Iruditzen zaigu txarto egiten dugula, ez dugula itzultzen, baizik eta jolasean gabiltzala.

Gure ustetan, lotsa hau alde batetara utzi behar genuke. Erabat eta betiko. Beste hitzik eskuetan ez dugun artean, dauzkagunak hartu behar ditugu, eta haietaz baliatu, geure pentsamendua edo itzultzeko ematen digutena adierazteko. Mezua argi eta garbi esatea, ulertzeko moduan ematea da idazle baten edo itzultzaile baten zereginik nagusia.

* * *

Nahiz batzutan lotsa ere gure baitan izan, golkoa urratu eta hitz zerrenda osoa bota behar genuke, besterik gabe. Noski, bat baino gehiago etor lekiguke esanez, egiten duguna euskarazko itxuran erdara bera ematea dela.

Datorkigula eta eskaini diezaiogun berari itzul dezan, eta ikus sermoia botatzea benetan egoki eta argi itzultzea baino mila aldiz errazagoa dela.

Beraz, alde batetik hitz gutxi daukagu, areago gure erakundeak hedatzeko ditugularik, eta administralgoa, gaurregun ere, gehienbat erdaraz eramaten delarik, ia ez dugu eremu horretarako hiztegi finkatu eta zehatzik salbu geroxeago aipatuko ditugun zenbaitzu. Eta gure zeregina inork ulertzekotan, ohizko hitzetara jo beharko dugu, erdarazkoetara, alegia; baina inolako lotsa barik. Tradizioa egin egiten da, sortua ez dagoenean; eta horretarako eskubiderik ez digu inork lapurtuko, ezta ukatuko ere, zeren guztiau inoren ondarea ez baita.

Gure ustez, beste zerbaiti ekin eta jaramon egin behar genioke, hots: hizkuntza guztia, oro, aldatzen doalarik, eta gurea ere ez dela jadanik Leizarraga, Axular, Duvoisin, edo agian, Asteasuko Agirre batena. Adibidez, gaurregun ezta “ekusi” aditza erabilten “ikusi” baizik. Beraz ez daukagu zertan aditz hau birreskuratzen hasi beharrik. Arkaismokeriez kontu haundia, beste-l...

Hemen, bestalde, salatzeko arazoa delarik, aditzera eman behar dugu, itzultzaileak burutzen duen lanetik argitaratzen denera, desberdintasun nabarmenak gertatzen direla, alegia, atzizkiak kendu, hitz baten ordeztatu bat ezarri... Honen lekuko zera dugu, Bilbo hirian ditugun hainbat eta hainbat publizitate hesi berarietan hurrengo hau irakurten ahal delarik: “Bilbao os saluda: Bilbo agurtzen zaituzte”. Kasu honetan ergatiboetako adierazgarria kendu egin diote, zeren hau ipini zuen enpresako arduradunak adierazi zigunez “-k” itsusi ematen zuela eta baztertu egin zutela; noski aipatu arduraduna arinaiztarra, “euskara ikasten ari naiz...” hutsa baitzen, eta honelakoez, zoritxarrez, josita dugu gure ingurua, hots, sasijakintsu eta euskarari kaltea baidiz sortzen ez diotenak.

Hizkuntzaren garapenak ere ba dauka zeresanik franko. Beste puntu bat daukagu ordea, guretzat askoz garrantzitsu eta beharrezkoagoa dena. Euskarak atzizki asko ditu, eta aurrizki gutxi. Hau bai dela garrantzizkoa garbitzea eta ikustea: hemendik sor litezkeen posibilitateak ez dira oraindik agortuak izan. Eta hemendik heldu behar genioke gure hizkuntzari. Adibidez, zer esan nahi du “-zale” atzizkiak? Zerbait gustatzen zaiola jendeari? “Arrantzale” daukagu garbi asko, denok ezagutzen duguna. Beste horrenbeste: kamioizale, edo idizale, edo ogizale... eta abar; ogizale eta okina ez baitira gauza bera: ogizale ogia gustatzen zaiona, eta okina ogia egin eta zabaltzen duena. Baina Azpeitian, adibidez, “ogizalea, esnezalea, taxizalea...” eta ez okina edo ogiduna, esnesaltzailea edo esneduna; honelako atzizki bat, ez dut uste, jakina, ofizio edo bizibide guztietara hedatu ahal denik, baina bai, nolabait, berriro aztertu eta sakondu beharko litzatekeena. Eta atzizki honekin gertatzen dena, beste askoz ere gertatzen da.

Aurrizki batzu ere ba dauzkagu, jakina, *goi*, *behe*-, e.a.... baina inondik ere ez gure inguruko erdarek adina. Eta itzultzailea, berriro diot, inguruko

erdaretan murgiltzen da itzultzeko. Haietatik jasotzen ditu hitzak, beraren euskal giroa ere, erdaraz beterik dagoenez gero.

Horien ondoan beste hitz zerrendak dauzkagu, azter beharrezkoak hauek ere; adibidez, “Bide” hitza, hainbat bide bideratzeko bidelagun ez bide dugun! Erizpide hau zuzenbidezko argibide ez bazaigu, galbidetik bideratzen dugu geure euskara bide guztia! Horri “artxisemema” deitzen omen zaio, agian “artxinahidena” delako. Eta bide guzti horietaz, beste zenbait hitz jasotzeke ez geratzeko, jaso, sartu, jo, ibili, e.a.: denetarako hartzen ditugun hitzak dira. Hau da, besterik gabe: gure hiztegia erabat aproximatihoa dela, hitz gutxi erabilten ditugulako, eta zehaztasuna galtzen zaigula, bidean, itzulpenak egiteko tresna izan ordez, martirio tresna zaigula, askotan, gure euskara. Eta ematen ditugun itzulpenek sarri ez dutela jatorrizko testuaren itxurarik, agian batzutan ulergaitzak gertatzen zaizkigula.

* * *

Une berean, eta bestalde, lau, bost, hamar hitz desberdin dauzkagu gauza bera esateko: “kutxiloa” eta “labana”, “ganibeta” eta “ahiztoa”... gauza bera edo antzekoak, behintzat, adierazteko. Ez dira bat ere bereizten, ez bada zenbait tokitan kutxiloaren neurria bereizteko. Baita baditugu, “tximeleta”, “pinpilinpauza”, “bitxilota”, “marisorgin”,... etab. etab. Bi gauza, beraz, esan behar dira hemen: hots, alde batetik hiztegi teknikorik ez dugula apenas U. Z. E. I. delakoak, azken bolada honetan argitaratu dituenetik kanpo edo zenbait testuliburutan dagoenaz at, eta literatur eremuan oso urri gabiltza, eta itzulpenak burutzeko orduan makal sentitzen garela, ñabardura guztiak jaso eta euskaraz emoteko. Edozeinek frogatu ahal duen kezka dugu aipaturiko hau. Jakina, eta hemen esateko eta aitortzekoa dugu komenigarria, eta ezinbestean preminazkoa dugula oraintsu argitaratu barri den *sinonimoen hiztegia* (2) bai eskola mailarako, bai idazle eta itzultzaileentzat. Honelako hiztegiak inondiko aberastasuna ekarten digu hizkuntza mailan, argitasunak eskainiz, ideiak finkatzeko bideak errazturik, eta agian esannahiak zertuz. Zorionak “bostak bat” taldeari eta nire ongietorri sutsu eta hoberena liburuari.

ITZULPEN TEKNIKOA ETA ITZULPEN LITERARIOAZ ZERBAIT

Aurreko bi puntuen ondorio bezala har daiteke hemengo hau. Bi itzulpen mota hauek berezi behar direnik, ez du inork eztabaidatzen, ez eta ere, noski, bion artean nahiko bereizkuntza dagoenik, ez baita gauza bera udal agiri bat itzultzea eta poesia bat itzultzea, nahiz biak nahiko zail eta aldrebesak izan.

(2) *Sinonimoen hiztegia*, Adorez 1, Bostak bat, Bilbon 1983.

Itzulpen teknikoak hitzen balioketasuna eskatzen du, eta zehaztasun osoa. Adibidez, ezin hasi ahal dugu harako hura esaten: “mugikor lantegikoa” “haltzari denda” esateko; nahiz biok “muebles” itzuli. Hartarako, dudarik gabe, hitzen etimologiak zerbait lagundu ahal bagaitu ere, ez digu dena ematen, batez ere jatorrizko hizkuntzan etimologiak bere zentzua galdu badu. Adibide bera hartuz: “Bienes muebles y bienes inmuebles” deretxoko kontzeptua da; baina “Muebles de cocina”, etimologia beretik etorri arren, ez da gauza bera. Horregatik, batzutan etimologiak ere ez digu bat ere laguntzarik eskainiko. Hemen, noski, tradizioz bagenu, ez genukeen bat ere eragozpenik ez zailtasunik izango, deretxo kontuetan baliokideak errazago direlako eta alde guztietan deretxoko oinarritzko kontzeptuak berdintsuak direlako. Baina gure artean, ezer gutxi dago tradizioan, eta liburu zaharretan aurkitzen dena bera ere arakatzeko aurkitzen dela, uste dut.

Hitzak sortzera ere jo daiteke esannahi horiek euskaraz emateko. Baina, beldur gara ez ote zaigun gerraurrean gertatu zitzaiguna berriro gertatuko: disimuloz baina burugogorkeriaz garbikeriara jotea, eta idatzitakoa ez irakurtea.

Dena den, eta batez ere itzulpen tekniko mailan, garrantzitsua dugu europear standard horretara jotea. Hau da: kultur maila berezirik gabe, alde guztietan erabilten den hizkuntza eta sintaxis horretara. Euskara bera normalizatu gabe daukagunez, ez da erraza benetan baina bai derrigorrezkoa. Hala ere, gauza bat esan behar da: itzulpen teknikoak ahalik eta garbiena, argiena, zehatzena izan behar duela, eta bestela ez duela ezertarako balio. Hau, benetan gauzak adierazteko, zehatz esateko eta mugatzeko da, eta ez nolabait aditzera emateko, susmoak aberasteko. Hemen hizkuntza dibulгатiboa bage-nu, poztasun haundia hartuko genuke, handik aurrerakoa beronen zehaztasunez egin baitaiteke; baina, zoritxarrez hori ere falta zaigu.

ITZULPEN LITERARIOAZ

Erabat desberdina da itzulpen literarioa. Hemen ere hutsune haundiak nabarmentzen dira gure artean. Lan haundia burutu da, bai joera batetakoak, bai bestekoa, hau da: aspaldidanik hasi ziren euskal idazleak lanak itzultzen, beren preminen arabera: eta maizenik, gure literatura sortzailea baino gehiago itzultzailea izan da. Hor ditugu euskararen lekuko edo klasikoak. Itzulpen literarioan joera desberdin eta diferenteak aurkitu ahal dira.

A) Berbaz berbako itzulpena

Hemen, ez mezuari bakarrik, baizik eta mezua emona izan den berbei edo hitzei ere garrantzi haundia ematen zaie. Adibide erara hartu ahal dugu J. Leizarragarena: beronek eztu “Afaria” hitza itzulpenean sartzen, “Cena” berbak berarentzat eta beraren tradizioaren arabera, beste zentzu bat bait zuen.

Itzulpen gehienak horrela daude eginak. Idazleak esaten duenari ematen zaio inportantziarik handiena, eta ez nola esateari. Nola da, noski, literatura egiten duena; baina hala ere hitzei eman ohi zaie inportantzia, agian soinuei garrantzirik emateke.

Areago, esan behar da, ordea, itzulpen batek itzuliaren mamina jasoten ez badu, ez dela itzulpen ona. Hor dabilta, oraindik, normalizaturiko hizkuntza guztietara klasikoak —zein latinoak, zein grekoak— berriro, behin eta berriz itzultzen, aurreko itzulpenetan mamina guztia jasoten ez delakoetan. Horrek esan nahi du itzultzailearen jarrera bestelakoa izan dela, eta berak ez duela aurrekoan nahi zuen guztia aurkitu.

B) Itzulpena zentzua jarraikiz

Zentzuari jarraiki buruturiko itzulpenak, adibidez “se puso rojo como un tomate”. Gaztelaniaz gaurko mundu kulturalean gorriaren gonbaraketa gaia tomatea baldin bada, gaurreguneko euskarazkoa eztaigu, baina atzokoa “gerezia” zen. Beraz, nola itzuliko genuke aipatu perpausa? Jatorrizko gonbaraketa emanik, gai hura jasoz, ala geure kultur mundukoa harturik? Zein da itzulpen jatorra:

gerezia bezain gorria?
ala
tomatea bezain gorria?

Hor dago, beraz, itzulpen literario batek daukan kokxa.

Ortega y Gassetek zioenez, itzulpen orok ez duela soinu egokirik izan behar; alderantziz, jatorrizko hizkuntzakoa hark izan behar duela soinua eta erritmoa, eta hori ezin dela inola ere beste hizkuntzan emon. Adibidez: nola itzuliko litzateke gaztelaniazko “pura encendida rosa, émula de la llama”?

Hitzez hitz:

— Pura: garbia.
— Encendida: biztua.
— Rosa: arrosa.
— Emula: imitatzailea.
— Llama: garra.

Hitzak hor ditugu; baina orain erritmoa, soinua, gonbinaketa burutu behar da, gure hizkuntzan ere poesia izan dadin. Gonbaraketa aldatu? Soinua aldatu?... “sutan garbia arrosa...”.

ITZULPEN LITERARIOAREN ARAZOA

Honelako hainbat eta hainbat itzulpen burutu behar ditugula, gure hizkuntzaren ahalbideak bizkortu eta gaurkotu nahi baldin baditugu. Honela

hartara euskara bera behartzen eta bortxatzen dugu, bide eta ahalbide berriak urratuak.

Estilistika arazo guztiak be hemen barnetzen zaizkigu. Honela zera gertatu ahal da, jatorrizko hizkuntzak erritmo bat izan ahal duela, eta besteak beste bat. Eta erritmo hori emon ezin baldin balitzaio —ezin balekio— beste erritmo bat bilatu beharko da, ezin baita literatura lan edo obra bat, estilo barik itzuli.

Honela, aldaketa eta parekatze bat izanen litzateke, baina ez literatura. Literaturak bere legeak dauzka, eta behar-beharrez gorde beharko ditugu, geure hizkuntzan be literatura izan dadin, eta ez norbaiten lanari buruz emoten dugun informaketa zabala eta zehaztasun zenbaituz horniturik.

Berriz ere esan nahi dugu, itzultzaileak inolako konplexu barik saiatu eta lan egin behar lukeela. Beste zenbait eskualdetan itzultzaileak idazleek duten status bera dauka; baina gure artean ez, makina baten erara hartua delarik, beste inolako garrantzirik gabe. Itzultzaileei, idazleari zor zaion erara, begirunea eskaini behar zaie, zeren itzultzaileari bururik jaso eta atsedetik gabe lan egitea eskatzen baitzaio; bururik altxatzeke, arinka eta zehastasunak eskatzen zaizkiolarik etab. etab.

* * *

ERANSKINA

Eta orain, eranskin erara zenbait perpausen itzulpena, neronek buruturiko itzulpenetatik jasoak. Askotan kritikagarriak izango dira, baina nik neuk honela itzuli ditudanez, ez dut nahi izan inolako berriztapenik sartzerik.

Hona hemen, beraz, zenbait adibide:

ACTUACIONES DE PLANIFICACION DE LA ZONA: *Tokiarekiko plangintza ekintzak; edo herrialdean plangintza ekintzak.*

CERA TORCIDA, CERILLA QUE SE PONE EN LAS ARGIZAIOLAS: *Aldeka.* El día del entierro, la oveja y la cera torcida que llamamos aldacas se vuelven a casa del hermano cofrade difunto (libro de la Hermandad de los sacerdotes de la villa de Lesaca, 1677.urtea).

ANGULOS CORRESPONDIENTES: *Angelu aldeberekoak.*

ANGULO DE DESTALONADO DEL CONO (EN MACHO): *Sarreraren azpijan angelua.*

ANGULO DE LA HERRAMIENTA: *Aho angelua.*

ANGULO NULO: *Angelu ezdeusa.*

ANGULO OBTUSO: *Angelu kamutsa edo kamuts angelua.*

ANGULOS OPUESTOS POR EL VERTICE: *Erpinez aurkako angeluak.*

ANTICIPO HORAS ACCIDENTE: *Istripualdi orduetako aurredirua.*

ANTICIPO MENSUAL: *Hilabetearen aurredirua.*

ARBITRIO NO FISCAL SOBRE EDIFICACION DEFICIENTE: *Akas-dun eraikuntzaz erizpiderik eza.*

ARBITRIO SOBRE ORDENACION URBANISTICA: *Hirigintz-antolaketaz erizpidea.*

ARCHIBEBE COMUN: *Zaldun (ornt.).*

ARCHIBEBE CLARO: *Zaldun zurizka* (ornt.).

ARISTAS DE UN TRIEDRO: *Triedro baten ertzak.*

ASOCIACION DE ANTIGUOS ALUMNOS DEL INSTITUTO POLITECNICO NACIONAL “ESCUELA DE ARMERIA”: *“Armagintza eskola” institutu politeknik nazionaleko ikasle ohien elkartea.*

ASOCIACION DE INGENIEROS TECNICOS INDUSTRIALES DE GUIPUZCOA: *Gipuzkoako teknik-industri ingeniarien elkartea.*

ASOCIACION DE TRANSPORTES DE VIZCAYA: *Bizkaiko garraio elkartea.*

ASOCIACION GUIPUZCOANA DE INVESTIGACION Y PREVENCIÓN DEL ABUSO DE DROGAS: *Gipuzkoako drogen ikerketa eta gehiegikeriaren errezelu elkartea.*

Atabaka: “Arrantzaleek tabakua gordetzeko txalupetan erabilten duten kaxatxua” (Ondarroa).

R.M. Azkuek zera dakar: “Urna de votación, cepillo de la iglesia, córbona”.

Atzeko: Itsas untzietako patroia edo lemazaina (Ondarroa).

R. M. Azkuek: cola de vestido, placenta.

Azi: ESPECIE DE CUCHILLO CON DOS MANGOS PARA REFINAR Y PULIR LAS TIRAS DE MATERIAL DE CASTAÑO PARA HACER CESTOS: (Iruñean Euskaltzaindiko D mailarako azterketa batetan Leitzako bati entzuna).

R. M. Azkue: “Habrá significado algún tiempo un instrumento cortante, como p. ej. tijeras? R. M. Azkue, Diccionario tomo 1., 115 orr. 4.º.

Baka: ARRANTZAN, ARRASTA-ERAN, BAKARRIK IBILTEN DEN UNTZIA (ONDARROA).

BARRIO: *Auzune* (Barrio en un sentido estricto y restringido. En algunos municipios vizcainos esta acepción, hasta ahora, de uso más bien rural, ha pasado a designar grupos o polígonos de viviendas).

Bataparrabi: Pilota jokoan. Gernika inguruan, ERABILTEN DEN HITZA. (Biren artean, Taldeka jokatuze eliminatzen, galtzen nori tokatzen zaion zaila denean, biek jokatzeko dute, baina baldintza batez, sakea ateratzen duenak tantua egiten baldin badie, aipatu biak kanpora irteten dira).

BIENES DE AGRUPACIONES Y MANCOMUNIDADES MUNICIPALES: *Udalen mankomunitate (amankomunazgo) eta elkarteen ondasunak.*

BIENES TRONCALES: *Jaiotetxeko ondasunak / etxe basoak.*

BISETRIZ DE UN ANGULO: *Angelu baten erdikaria.*

BRAZALETE DE ARQUERO: *Arkulari besauztaia.*

BURILES DIEDROS LADEADOS: *Zulakaitz diedro okertuak.*

BURIL SOBRE TRUNCADURA RETOCADA: *Ikutudun mozturazko zulakaitza.*

C

CENTRO DE TRANSMISION CULTURAL: *Kultur emanaldi gunea.*
CIRCUNFERENCIA TANGENTE INTERIORMENTE: *zirkunferentzia barrenez aurkitzailea.*

COLEGIO DE GESTORES ADMINISTRATIVOS DEL PAIS VASCO: *Euskal Herriko Administral Artekarien Kolejioa.*

COLEGIO OFICIAL DE PERITOS E INGENIEROS TECNICOS INDUSTRIALES DE GUIPUZCOA: *Gipuzkoako Peritu eta teknik-industri ingeniarien Kolejio ofiziala.*

COLEGIO OFICIAL DE AYUDANTES TECNICOS SANITARIOS Y DIPLOMADOS EN ENFERMERIA DE VIZCAYA: *Bizkaiko teknik-sanital laguntzaile eta erizaintzan diplomatuena kolejio ofiziala.*

COLGANTES EN DIENTES DE CIERVO: *Orein-hortzezko zintzilika-rioak.*

COMISION DE SERVICIOS Y EMPRESAS MUNICIPALES: *Udal zer-bitzu eta enpresen batzordea.*

COMPRAS DIARIAS GRATIS A GOLPE DE TALON: *eguneroko erosketak dohainik, taloiaren trukez edo truketan.*

COMPRESOR DECORADO CON FIGURAS DE ZORRO: *Azeri-irudiz apainduriko konprimagailua.*

CAPITAN DE LA MARINA MERCANTE: *Zama ontziko kapitaina.*

CONSEJO DE ADMINISTRACION SERVICIOS MUNICIPALES: *Udalduriko administrari kontseilu zerbitzuak.*

CONTRIBUCION SOBRE LA UTILIDAD DE LA RIQUEZA MOBILIARIA: *ostilamendu aberastasunaren erabilteaz zerga.*

CH

CHARNELA EN EL VASTAGO: *ateorpo urtumean.*

CHARNELA SOPORTE: *Ateorpo euskarria.*

D

Dar-dar: ukapen "NEGACION". R. M. R. M. Azkuek ez zu ukapen bezala erakusten, "temblor" baizik.

DELIMITACION DEL AREA DE PLANEAMIENTO: *planeamendu sailaren mugaketa.*

DENTON: *hortz errozel (arrain mota).*

DERECHO DE RENUNCIA A LA ESTIMACION OBJETIVA SINGULAR: *estimatu objektibo bereziari uko eskubidea.*

DESCOMPOSICION DE UN NUMERO EN SUS FACTORES PRIMOS: *zenbaki baten bidergaiketa lehena.*

DIAS IMPARES: *egun bakoitiak.* Batoi eta bakoiti: pares y nones.

DISPOSICION LEGISLATIVA DE CARACTER HORIZONTAL: *zeharketa izaerazko lege disposapena.*

DIVISIBILIDAD ENTRE NÚMEROS NATURALES: *zenbaki arrunten arteko zatigarritasuna.*

DEFICIENTES SENSORIALES: *Somamen urridunak.*

DESPRENDIMIENTO DE ROCAS: *harkaitzen erioa; harkaitz jauzia.*

E

EJE ROSCADO DEL TORNILLO DE BANCO: *tornuzila.*

EKARKIO *ekarr(i) + -kio:* “bertsotako gogoa berezkoa ekarkio: resulta que traía una afición innata a los versos (Leitza, Nafarroan jaso).

ELEVAR A POTENCIA: *Berre(tu); berretzaille batetara jaso.*

ELEMENTO NEUTRO RESPECTO DE UNA OPERACION ARITMETICA. *eragiketa arimetiko batekiko elementu neutroa.*

Erru: eutsigarri: TENTACULO. R. M. Azkuek: “Culpa, brío, valor, dificultad, consecuencia, abundancia; flema, gargajo; lodazal; piel que se renueva en la convalecencia”.

EVACUACION DE AGUAS RESIDUALES: *kondar edo ur hondarren jariapena.*

Enparu: gogait eragin. Enparata Laga. Enpara eduki (Ondarroa) fastidio, hastio...

Ezpeta: Haga luzea, arrantzarako erabilia: “Vara larga que se coloca en los lados de la embarcación para sostener a los aparejos” (Bermeo-Ondarroa).

ENSALADA DE FRUTAS DE MAR: *itsas etinezko entsalada.*

F

FORMA DECIMAL DE UN NUMERO RACIONAL: *zenbaki arrazional baten era hamartarra.*

FRAGMENTO DE UN HACHA PULIMENTADA: *Aizkora leundu baten zatia.*

FUSION DE TERMINOS MUNICIPALES: *Udal dermioen fusioa. Udal mugen elkartze edo bateratzea.*

FINCA PARTICULAR: *etxalde jabeduna.*

G

Galarreta: TABLILLAS QUE SE PONEN DEBAJO DEL CALZADO PARA NO HUNDIRSE EN LA NIEVE (Gorbeia).

GRIETA DE TEMPLE: *urebagi* “Ocurre generalmente a las piezas sometidas varias veces al proceso de temple; y ello sucede cuando la pieza se enfría bruscamente, debido a los efectos de contracción. No tiene nombre propio en castellano” (J. San Martín).

GUBIA DE BRONCE ENMANGADA EN CUERNO: *burdinorizko gubia adarrezko kirtenez.*

H

HACHUELA DE RETOQUE BIFACIAL: *aldebitako ikutudun aizkora-txoa.*

HACHA DE TALON CON ANILLAS: *eraztundun aizkora orpoduna.*

HAZ DE RECTAS CONCURRENTES: *zuzen topakor sorta.*

HERMANDAD DEL MAESTRAZGO EN EL SENORIO DE VIZCAYA: *Bizkai jaurgoan anaiarteko maestrerria edo maestrerri anaiarte.*

HORAS IMPORTE DE RENDIMIENTO DE TRABAJO PERSONAL (R.T.P.): *norberaren lan ekoizpenaren zenbatekoa (N. L. E.).*

INCREMENTO DE VALOR DE LOS TERMINOS: *hitzetako balio gehikuntza.*

INFRAESTRUCTURAS DE COMUNICACIONES A NIVEL ZONAL: *herrialde mailako komunikapenen azpiegiturak.*

J

JURISDICCION CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO: *auzitan harturiko administral-jurisdikzioa.*

JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA: *aurre mailako auzitegia.*

K

Kala: arrantzu tokia: CALADERO, CALA.

Arrantzaleen artean, kalek edo arrain tokiek, askori eman izan diote nortasuna. Hala nola: andra kala. Arrain kala. Besigu kala. Kostarren kala. Justo kala (Gaminiz edo Plentzian). Mutriku kala. Tribis kala (Izaro).

Ketu: joanketu, eginketu, emanketu... Elemento de conjugación que se aglutina inmediatamente después del infinitivo e indica la idea de soler, acostumbrar: *Joanketu gara; eginketu dute.*

L

LAMINILLA DE DORSO ABATIDO: *ijelkitxo hegal-zanpatua.*

LA MULTIPLICACION ES DISTRIBUTIVA RESPECTO A LA ADICION: *Biderkaketa banakorra da batuketarekiko.*

LIQUIDACION DE INGRESOS DE LA GESTION DE ABONADOS: *abonatuen gestio sartzeen kitapena.*

LIQUIDACION DE LA PARTICIPACION DEL CONSORCIO EN EL RENDIMIENTO DE LA TARIFA GENERAL DE LA COMARCA: *Eskualdeko tarifa nagusiaren errendimenduan, partzuergoaren partehartze kitapena.*

LL

LLUVIA QUE SE DESPRENDE DE LA NIEBLA: *langar* (Naf. Garaia).
(Iruñeko azterketa batetatik jaso) eta Ajuria-Muxikan (Bizkaia): *lanbar*.

M

MEDIOS Y EXTREMOS DE UNA PROPORCION: *Proporizio baten erdikariak eta buruak*.

MINIMA DISTANCIA DE DOS RECTAS QUE SE CRUZAN: *Gurutza-tzen diren bi zuzenen arteko distantziarik txikiena edo laburrena*.

MUTUALIDAD BENEFICA DE PERITOS E INGENIEROS TECNICOS INDUSTRIALES: *Peritu eta teknik-industri ingeniariaren benefizentzi elkarkidegoa*.

N

NO PASAR CON MARCAPASOS: *Ez pasa bihotz-eragingailua dutenak (bihotz-eragingailudunak)*

NORMAS SUBSIDIARIAS: *arau sorosgarriak edo lagungarriak*.

NUDISMO; PLAYA DE NUDISTAS: *Biluztasuna; biluzizaleen hondartza*.

NUMERACION DE CADA SUBPOLIGONO: *azpipoligono bakoitzaren zerrenda*.

NUMERO SIMETRICO DE OTRO RESPECTO DE LA SUMA: *batuketarekiko zenbaki baten simetrikoa*.

O

ORIGEN Y EXTREMO DE UN SEGMENTO: *zuzenki baten abiadura eta helburua; segmentu baten abiadura eta helburua*.

Ozkil (hozkil): *hotzakil, bai eta nahastetsu, setatsu edo antzeko ere*.

R. M. Azkue: fresco, enclenque, fiático, persona apocada; pero también le llaman así al individuo ensimismado, terco (Ondarroa).

P

PARCELAS SOBRANTES DE VIA PUBLICA: *bide publikoko edo herribideko sail edo partzela enparatuak*.

PARTICIPACIONES EN LA CONTRIBUCION TERRITORIAL SOBRE LA RIQUEZA RUSTICA Y PECUARIA: *basa eta abere aberastasunaz lurralde zergan partzuergoak edo partaidetzak*.

PLAQUETA DECORADA CON UNA FIGURA DE CABALLO: *zalditrudiz apaindutako plaketa*.

PLIEGO DE CARGO POR RECIBOS DE LA REFERENCIA, QUE SE FORMULA AL RECAUDADOR MENCIONADO: *erreferentzia errezibuentatik aipaturiko biltzaileari formulatzen zaion zama-plegua*.

PUNTA DE LANZA ACANALADA: *erretendun lanza muturra.*
 PUNTA DE PEDUNCULO CENTRAL Y ALETAS LATERALES: *Erdi-ko txortendun punta saihets-hegats bikoa.*
 PUNTA Y RAEDERA DE HUESO: *hezurrezko punta eta karraskailua.*
 PUNTO DE INTERSECCION DE DOS RECTAS: *bi zuzenen ebaki-puntua.*
 PUNZON SOBRE ESQUIRLA DE HUESO: *hezur zatiz eginiko zikaia.*
 PLAN ESPECIAL DE REFORMA INTERIOR DEL NUCLEO URBANO DE MATIENA: *Matienako hiriguneko barne erreformaren egitamu berezia.*
 PLAN GENERAL DE ORDENACION URBANA DEL MUNICIPIO DE ABADIANO: ZONIFICACION Y VIABILIDAD: *Abadiñoko udal-erriaren hirigintzako egitamu nagusi alderdiketa eta bide eraketa.*
 PROYECCION DE GRAVILLA: *hartxintxor jaurtiketa.*

R

RASPADOR EN CRISTAL DE ROCA: *harlozezko marraizkora.*
 RÉCARGO EN EL ARBITRIO PROVINCIAL SOBRE EL PRODUCTO NETO: *ekoizpen garbiaz erreargua ariel probintzialean.*
 RECTA INTERSECCION DE DOS PLANOS: *Bi planoren arteko ebakidura zuzena.*
 RECTAS PARALELAS CORTADAS POR UNA SECANTE: *Ebakigailu batez moztutako zuzen paraleloak.*
 RÉGIMEN DE TRIBUTACION DE PROFESIONALES Y ARTISTAS: *profesionari eta artisten edo artelarien zergapen arauak.*
 RELACION DE RAMALES PRINCIPALES DE SANEAMIENTO CON EL PROYECTO DE INFRAESTRUCTURA SANITARIA DEL DURANGUESADO: *Durangaldeko osasunbide sare sail behinenen arteko zerrenda sanital azpiegitura proiektuaz.*
 RELACION VALORADA DE LAS OBRAS DE EJECUTADOS CON ARREGLO A LOS PRECIOS DEL PRESUPUESTO Y PROYECTO: *Baloraturiko lanen zerrenda: aintzin-kontua eta proiektuaren arabera burutuak.*

S

SEÑALES DE LOS AGENTES DE CIRCULACION: *bidezainen seinaleak.*
 SITUACION DE PASO A NIVEL SIN BARRERAS: *langa gabeko (tren-bide) pasagunea.*
 SUPERFICIES VINCULADAS A LA EDIFICACION: *eraikuntzaz loturiko gainaldeak edo zoluak.*
 SOLUCIONES INFORMATICAS PARA LA ADMINISTRACION LOCAL: *tokian tokiko administralgorako irtenbide informatikoak.*

T

TABLA DE RETENCIONES FAMILIAS NUMEROSAS DE HONOR: *ohorezko familia haundien atxekidura taula.*

TESORILLO DE PEQUEÑOS BRONCES DEL BAJO IMPERIO ROMANO: *Behe-inperio erromatarreko burdinori txikiz osaturiko altxortxoak.*

TRIBUNAL ECONOMICO ADMINISTRATIVO PROVINCIAL: *ekonomi administral epaimahai edo auzitegi probintziala.*

U

UNIDAD DE INFORMACION Y RELACIONES PUBLICAS: *argibide edo informazio eta harreman publikoetako unitatea.*

UNIDAD TECNICA DE ASISTENCIA SOCIAL: *gizarte laguntzako unitate teknikoa.*

USOS DE SUELO URBANIZADO: *hirituriko behe edo zolu erabilerak.*

V

VALORACION PAISAJISTICA DEL ENTORNO URBANO: *hiri inguruko edo aldeko paisaiaren balorapena.*

VASO CON DECORACION DE IMPRESIONES DIGITALES: *hatz markez apainduriko ontzia.*

VOCALES DE LAS JUNTAS VECINALES: *auza-juntan edo batzarreen bokalak.*

Y

YACIMIENTO EN CUEVA: *haitzuloko aztarnategia.*

Z

ZONA DE AGLOMERACION: *Samalda leku edo aldea.*

ZONAS EXCLUIDAS DEL TRAFICO: *trafikorik gabeko esparruak.*

* * *

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

- GARCIA YEBRA: *Teoría y práctica de la traducción*. Madrid, 1982.
- LAD-MIRAL, J. R.: *Traduire: théorèmes pour la traduction*. Paris, 1979.
- MOUNIN, G.: *Les problèmes théoriques de la traduction*. Paris, 1963.
- MENDIGUREN, X.: *Itzulpen teoriako ezagupenak*. Lazkao (Gipuzkoa), 1983.
- NIDA, E.: *Toward a science of traslation*. London, 1957.
- VINAY-DARBELNET: *Stylistique comparée du français et de l'anglais, méthode de traduction*. Paris, 1958.
- PAZ, O.: *La traducción: Literatura y literalidad*. Barcelona, 1971.
- SAVORY, TH.: *The art of traslation*. London, 1957.
- U. Z. E. I.: *Administrazioa-zirkulazioa hiztegia*. Donostia, 1983.
- U. Z. E. I.: *Finantzak hiztegia*. Donostia, 1983.
- U. Z. E. I.: *Maileguzko hitzak ebakera eta idazkera*. Donostia, 1982.
- U. E. U.: *Autonomi estatutuaren itzulpenak*. Iruñea, 1980.

DIALEKTOLOGIAZ

**EUSKAL HERRIKO ATLAS
ETNOLINGUISTIKOA DERITZAN LANARI
OHAR BATZUK**

Donostia, 1984-V-25

Jose M.^a Etxebarria

Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa. —EAEL— Lehen tala. Lehen zatia, Donostia 1983 XXI-277 orrialde. ISSN 0027-3414.

Ezkerreko orrialdean Euskal Herriko mapa, ikur batzuk hitz batzuk zenbat herritan agertzen diran eta ohartxo batzuk.

Eskubiko orrialdean agertzen dira herriak, erantzunak eta probintzia.

Gainera alfabetoz doaz eta orduan Oiartzungo erantzunaren atzean Oñatikoa dator probintzi berdineko herriak izanik, euskalki desberdinak dituzten arren.

Txosten hau zati bitan banatuko dut. I.an lana bera, eta bigarren inguruko zenbait gauza.

Atlas etnolinguistiko izeneko eta izaneko lan baten honelako datuak kontutan hartzen dituzte:

1. Zuzenean egindako grabaketa edo postaz egindakoa.
2. Aukeratu den lurraldea eta hizkuntza edo mintzaira baten eremua.
3. Galdeketa edo itaunketa bera.
4. Erantzunen grabaketa.
5. Herrien edo lekuen aukera bilketarako.
6. Lekukoak eta biltzaileak.
7. Traskribaketa fonetikoa.
8. Azpiegitura.

1. **Zuzenean egindako bilketa.** Sarreran, XXV-XXIX orrialdetan adierazten duenez, biltzaileek zuzenean jaso dituzte erantzunak. Zuzenean jasotzeko era bi daude. Bat galdera egin eta grabatu, magnetofoi, kasete edo nolabaiteko tresna baten. Edo ta bigarrena, galdera egin eta erantzuna fonetikoki edo erdi fonetikoki traskribatu. Bigarrena izan da erabilitako bidea. Kasu honeta-

rako belarri oso zorrotza behar da eta *oso ohitua traskribaketetara*. Ez da nahikoa traskribaketetarako “Filosofi eta Letretan lizentziatuak, euskarako irakasleak, Euskaltzaindi edo Euskerazaintzakoak” izatea (V orr.). Edmonton kasuak ondo adierazten du esan dudan hau. Belarri zorrotza behar da alde batetik. Eta ariketa asko bestetik.

Horrelako tituloak nahiko ez izanik traskribaketa lanetan aritu gabe, beste akats bat ere agertzen da: asko izatea. Gutxi izanda ere traskribaketak egiterakoan oso zaila da traskribatzaile guztiak batera etortzea. Are zailago 100 biltzaile edo 120 biltzaile bide berdinetik joatea. Elkarrekin ariketak eginda ere ez da hori lortzen eta askoz gutxiago bakoitzak bere bidetik erantzunak biltzen baditu, kasu honetan gertatu den bezela, 100/120 biltzaile izanik.

Baten batek prestatu zuen alfabeto konbentzionalean oinarrituta gipuzkerarentzat eta bizkaierarentzat, behintzat. Baina ez dakit hori inork erabili zuen. Ez dute ezertarako aipatu behintzat.

2. **Lurraldea.** Euskalherri osoa agertzen da baina muga administratioboak azalduz bakarrik. Adibidez ez da inolako mugarik agertzen Arrasateko euskera bizkaiera denik adierazteko, mapetan. Edo Oiarzungo euskera zein euskalkitakoa den edo Zugarramurdikoa, edo Beraskoitze edo Urtetako euskera zein euskalkitan sartu daitezken.

Etnolinguistikoa bada, bidezko da mintzaira bakoitzaren mugei buruz zerbait esatea, etnia eta mintzaira lotuta daudelako.

Atlas etnolinguistikoa izeneko lan batek mintzaira baten mugak adierazi behar ditu lehenengo eta gero beste muga batzuekin duten zerikusia, mintzaira horren edo euskalki horren lehena ondo ezagutzeko eta geroa prestatzeko, mintzaira horrek iraun dezan edo irauteko bideak zabaldu ditzan. Gainera hortik atera daitezke beste ondorio batzuk nondik hartu duen kutsurik nagusia, mailebu hitzak, zergatik gorde dituen forma batzuk eta beste batzuk galdu, etabar. Mintzaira batek dituen espazioa eta denpora eskuratu nahi baititu atlas batek. Eta bere egoeraren denpora mugatu baten.

3. **Galdeketa edo itaunketa.** Hau izaten da atlas linguistiko guztietan ardatz nagusienetako bat.

AIS-ekin hasi eta bai Frantziko NALF edo Rumaniko Noul Atlas linguistic roman pe regiuni’ (NALR), denak alderdi bi izaten dituzte; mintzaira eta etnia. Hizkuntza eta mintzaira kultura bati lotuta daude. Barandiaranek esaten dituen galdera nagusi batzuk egiten ditu gizatalde bakoitzak: ni nondik nator, nola lortu nagon lurraldean bizitzeko behar ditudanak, nola komunikatu besteekin. Eta gure arteko atlasak ere bi alderdi hauek behar ditu.

Orduan Euskalherrian ezin daiteke galdetu atlas etnolinguistiko baterako: mulo, caballo, camello, 81.ean, buey, búfalo, reno, 82.ean, león, 90.ean, pan, tortar o cuscus, 133.ean, león, tigre, puma, oso blanco, pantera, hiena (Cohen 430-431) chacal o coyote, elefante, hipopótamo, morsa, mono, jirafa, canguro, foca, cocodrilo, tiburón, pinguino (Cohen 431-436) flecha, manto,

toga, túnica, raqueta, patin o esqui, lanza o venablo o rompecabezas, bome-rang, escudo o coraza (Cohen 494-506); edota, hechicero (Cohen 40), edo honelako esakuntzak: “Los hijos del jefe han estado de caza durante dos días”; “La madre del jefe ha guisado su propia comida” (Cohen 247-248). Cohenen “Questionnaire” delako hori, osorik baztertu gabe, egin zitekean adibidez, *lesikoa* biltzeko galdeketa bat.

Zati bat Cohenen itaunketatik hartu eta beste zati bat, beste batetik. Esate baterako, ALEANR-erako Alvarrek prestatu zuen galdeketatik, askoz hurbilago dagoelako euskaldunen kulturatik. Cohenen 400 galdere eta Alvarren 1700 bat hartu eta lesiko bilketa zehatzago bat eta probetxugarriago bat egin zitekeen. Baina esate baterako *lesiko* bilketa hutsa, fonetika, morfologia eta sintasia alde batera utzita.

Cohenen itaunketa dagoen dagoenean harteak akats handi hori utzi du: bidelariantzat egina da eta hizkuntza ezezagun eta arraroen kasurako, batez ere Afrika, Asia eta Hego Amerikarako. Eta horrelako itaunketa oso osoan hemen erabiltzea desegokia da.

Hemen beste ohar bat egin beharra dago. Atlas bat geografiarako egin daiteke era batera edo bestera mapa gehiago edo gutxiago jarrita, ibai gehiago edo gutxiago afluente batzuk jarrita eta besteak utzita, eta holako mendiak jarrita eta besteak utzita, eta Euskalherriaren bi, hiru eta lau atlas egin daitezke. Baina etnolinguiistikoa denean, bat bakarra egin daiteke. Hori izango da zehatzagoa lekukoen sarea hestua duelako edo ez hain zehatza. Baina etnia baten mintzaira eta kultura jasoko dituen izan behar du. Gure kasu honetan, Afrika eta Asiako hizkuntzentzat egindako itaunketa bat hartu dute.

Egin zitekean Atlas orokor bat. Edo euskalki baten atlasa. Baina inolaz ere ez Afrikarako egindako itaunketa batekin.

Orduan gure kasuan ez dago izenaren eta edukiaren artean erlazorik: galderak edozein tokirako egokiak dira eta izenak jartzen du “Euskalherriko Atlas Etnolinguiistikoa”.

POP-ek, Cohenen itaunketa hau ez du jartzen gainera atlas baterako itaunketa bezela. Honelako izena jartzen dio: “Un questionnaire pour la rédaction des vocabulaires de voyageurs” (Pop, 27. orrial. eta oharra). Horregatik 1950 arte egindako atlas guztien galdeketak aztertu ondoren, hau esaten du: ‘Les questionnaires linguistiques I et II publiés en 1928 (sous le titre général: ‘Instructions pour les voyageurs’) par L’Institut d’Ethnologie de Paris et republiés dans une nouvelle édition par le Comité International Permanent de Linguistes semblent avoir le même but. Le second de ces questionnaires rédigé par le savant Marcel Cohen, ne tient pas suffisamment compte des questionnaires employés dans le domaine des langues romanes, mais le doit servir surtout à l’exploration des langues moins connues. Il contient cependant un bon nombre de phrases’ (Pop. 1137. Nik azpimarratuta).

Itaunketa hau orokorra delako, ez da egokia mintzaira baten atlas bat egiteko. Bestalde atlasak mintzaira baten argazki bat eman behar du. Eta hau

da 'un questionnaire pour voyageurs'. Orduan ezin du eman euskalkien argazki bat, zati batzuk jaso baino. Eta hitzak eta edukinak bortxatu gabe, ezin daiteke deitu atlas, honekin egindako lan bat.

Askoz egokiago zitekeen, liburu horri 'Euskerari buruzko galdeketa lesiko bat' edo honelako zerbait jartzea izenburutzat.

4. Erantzunen bilketa. 1977an lan hori hasi zutenean, bazeuden kasete txiki batzuk grabaketa osoa jaso gabe ere, zati batzuk grabatzeko, eta gero sortzen ziren zalantzak, argitzeko eta lan probetxugarri bat egiteko. Baina lan honen koordinatzaileak, fonetika zalantzarik ez dauka. Etnografia lanetan ibilia da eta etnografia bilketekin nahastu zuen seguraski, mintzaira bilketa bat.

Biltzaileak. Biltzaileen borondate ona eta gogo beroa ezagutzen ditut. Borondaterik onenarekin danek lan egin dute. Eta gehienek dohan, uste dut. Borondate onak galdu egiten gaitu euskaldunok sarritan. Borondate ona dago baina honelako lan bat egiteko, borondatea ez ezik beste egitura eta erakunde batzuk behar dira. Eta hori biltzaileei prestatuta eman behar zaie. Ezin dituzte alde batetik erantzunak jaso, bestetik dena eratu, eta bestetik argitaratzeko prestatu, eta dana dohan. Hemen diruaren kontua ere sartzen da eta hori geroago aipatuko dut. Honelako lan bat euskeraren eta Euskalherriaren onerako behar den bezela egiteko presupostu bat behar da, biltzaileak prestatu, azpiegitura bat sortu. Eta ezuste asko agertuko dirala kontuan izan. Bestela txapuzak egiten dira euskeraren kalterako eta geure buruaren parregarri. Gainera lan honek irakurle asko engainatu baino ez ditu egiten 'atlas etnolinguistikotik' izenarekin agertzen delako, atlas etnolinguistikotik ez den zerbait.

5. Herrien aukera. Herriak aukeratzekoan, atlas etnolinguistikotik baterako, muga administratiboak ez dira inportanteenak, muga linguistikotik baino.

Herriak, erizpide linguistikotik kontuan izanik aukeratu behar dira atlas etnolinguistikotik baterako behintzat. Adibidez, euskalki biren arteko mugan daudenak. Lezo eta Hondarribia esate baterako edo Ondarroa eta Mutriku.

Aukeratu daitezke baita, sare sarratu edo zabalago bat egiteko asmoarekin edo herri nagusienak, edo, subeuskalki edo banatasun bakoitzaren erdiko herri bat, eta bazterreko bat. Baina ez da inolako argibiderik agertzen lan honetan aukerari buruz. Adibidez aukeratzen dira Mungian bi, B5eta B6, eta ez dago ez Getxo, ez Plentzi, ez Sopela. Lapurdi 'probintziaren' barruan herri hauek daude: Arbona, Hazparne, Beraskoitze, Itsasu, Sara, Urketa, Ziburu. Bonaparteren eta Irizarren zatiketaren arabera Arbona, Sara eta Ziburun *lapurtera* egiten da, eta Hazparne, Berazkoitze, Itsasu eta Urketan, *baxenafarrera*. Nafarroan Zugarramurdi agertzen da eta horrela da. Baina euskalkiz *lapurtera* egiten da hor, Bonaparteren iritziz. Orduan ez da inolaz ere *linguistikoa* atlas hau.

6. Lekukoak. Lekukoak aukeratzeko, adina jartzen da neurri bat bezela: herrikoak bertakoak, bertan jaioak eta kanpoan luzaro ez ibiliak, gura-

soak bertakoak zituztenak eta ahoz ondo. Erizpide hauek egokiak dira, baina betetzen diran jakin behar da. Bakarrik aipatzen da adina eta herria (XXV-XXIX orrialdeak sarreran). Ez da agertzen beste datorik eta sinistu egin behar gainontzekoak. Atlas baten horrelako datoak ere jarri egiten dira, gaur behintzat, 'Atlas Linguistique de L'Est du Canada' deritzanean jarri dituzten bezela (I tomoa 45-118). Edo beste edozein NALFen barruan dauden atlase-tan. Edo ALIn.

7. **Traskribaketak.** "Inkestagileek erabilitako fonetika zeinuak interpretatzea izan da gure eginkizunik zailenetako bat. Izan ere argi dago ez gaude-la ohituta, gure artean egiten diran lanetan ez gara ohitu idatz-arau xume batzuk betetzen, gure inkestetan gertatutakoa lekuko, guk emandako arauak nahiko zehatzak izan arren; bestalde, inkestak berak arau batzu ditu eta baita ere, norberak erabilitakoak adierazteko orri bat. Hala eta guztiz ere askotan ez dira guzti hauek kontutan izan. Ondorioa haxe izan da: Behin eta berriz joan behar dela halako lekutara, halakori dei egin behar izan diogula gure zalantzak argitzearren tab." (XII orrialdean). Talde teknikoak jaso ez baditu inkesta guztiak, zeintzuk dira zalantzazko erantzunak? Ez da inolako oharrik agertzen hau adierazteko.

Lanaren beraren egileak zalantzak eukitzea eta hara ta hona joan beharra ondorio normala da aurretik zehatz biltzaile danak ohitzen ez ba dira galdera berdina, era berdinean eta alfabeto berdinarekin traskribatzen. Eta biltzaileek era desberdinetan egindako galderak, eta alfabeto desberdinarekin idatzita ekartzen badituzte, ez da posible euskalkiak hobeto ezagutzea.

Horrelako hutsuneetan katigatuta ez gelditzeko aurretik prestakuntza egokia behar da. Bestela irakurlearentzat ez da ezer berririk ateratzen. Eta lehenengo eta behin alfabeto fonetiko bat, API, AFil, edo beste alfabeto bat. Adibidez *Diccionario de Lingüística* deritzan liburuan, XXI orrialdean hasita badaude 6 alfabeto fonetiko desberdin. Edo argitaratuta dagon edozein atlas linguistikotan ere badaude. Jakina, beti euskeraren soinuuntzat ego-kituta.

Bokaleak

35. Galderan Mungian *andré*. Ondarroan *andri*. Bukaerako bokale hori azentoduna da bakarrik ala luze xamarra ere bai? Ezin dezakegu jakin dato hauekin.

Bokalak nolakoak dira: luzeak eta bikoitzak, ala luzeak bakarrik? Oroz-kon 54. galderan: *zaarrak in dire*. Zeberion *saartu in dire*. Bokale bikoitza esaten dute ala *a* luzatua?

Ataunen *zaartu* eta Bidanian *zaartu*. Errenterian berdin. Bokale hori bikoitza da ala luzea mintzairan?

Altzai, Bildoze-Domezain, Domitxinen, *zahartü*. Bokale bikoitza da silaba birekin? Aspirazioa dago bitartean? Urepelen ordea *xaartu*.

62. Galderan Bildoze-Ozamizen, *badü* eta Santa Garazin *bädü*. Zein da bion arteko diferentzia fonetikoki?

63. Galderan Santa Garazin *emán du* eta Altzai, Bildoze-Ozamizen, Domitxiñen, *eman du*. Zein da bion arteko diferentzia fonetikoak?

69. Galderan Bildoze-Ozamizen *püztu* eta Santa Garazin *pützu*. Alternantzia dago ü/u-ren artean? Zer esan nahi du azento horrek?

Bokalen barruan esan ohi da badaudela bokal sudurkariak xibereraz. 94. galderan Xiberuan *papillu* agertzen da. Baina baxenafarreraz *papillona / papilluna*. Mailebu hitza izanik eta sudurkari bat duela, ez dakit *papillu* hori zuzen dagoen. 73. galderan Zuberoa izenaren azpian datozan bost herrietan *zühaiñ*, *zühañ* formak azaltzen dira. Bukaera sudurkariak eta bere aurreko bokalak ez ote dira biak sudurkari? Zalantza berdina gelditzen zaigu 83. galderan eta 98garrenean. Nolakoa da ü bokalea *ahüntz* forman eta *üñhuri* forman?

Aramaion 86. galderako *iri* eta Mungiko *idí* berdinak al dira? Zer diferentzia dago *i* eta *i*-ren artean?

Diptongoak

Idazkeran ez dituzte bereizten. Orduan ez dakigu euskera normatiboak esaten duenetik kanpora ezer berririk hitz zerrenda hauek irakurrita.

Goi Naparreratik hasita sortalderantz nola ebakitzen dituzte euskaldunek honelako konbinaketak:

- e + a mugatzailea
- i + a mugatzailea
- o + a mugatzailea
- u + a mugatzailea?

ea ala *e-a* ala *ia* ala *i-a*? Silaba bat egiten dute ala bi? Eta galdera berdina besteentzat: *oa* ala *o-a*; *-ua* ala *-u-a*? 2. galderan *begi-a* ala *be-gia*? *bilhu-a* ala *bil-hua*? 6garrenean. 13. galderan, *es-ki-a* ala *es-kia*? 17. galderan *zangu-a* ala *zan-gua*? 72garrenean berdin. 82. ere horrela.

Orduan herri bateko edo besteko euskal soinuek ebakiera lortzen ez badugu dato hauekin, zertarako bidali dituzte kolaboratzaileak borondaterik onenarekin herrietara? *Be-gi-a* dela euskera normatiboan badakigu. Baina interesatzen zaiguna, *ia be-gia* esaten den jakitea da eta noraino irixten den fenomeno hori. Horretarako, eta beste gauza asko jakiteko egiten dira atlasak.

Bokalen artean alternantziarik ba al dago? 69. galderan Santa Garazin *pützu* eta Bildoze-Ozamizen *pützu* agertzen da. Hau kasu bakarra da ala beste bikote berdinak agertzen al direnean berdin gertatzen da?

Adibide bezela uste dut nahiko direla hauek. Goazen orain kontsonanteetara.

82. galderan Bermeon *ididyé*; Etxarri-Aranazen *iriye*; Irañetan *idiye*; Lesakan *idiya*. Grafia desberdina duten kontsonante horiek fonetikoki berdinak ala desberdinak dira?

86. galderan Arabako eta Bizkaiko herri batzuetan *txakurra* / *txakurre* erantzunak agertzen dira. Bidarrain, Irisarrin *xakurra*. Urketan eta Ziburun *zakurra*. Dardarkari gogor hori bietan berdina al da fonetikoki? Idazkeran behintzat horrela agertzen da.

95. galderan Bermeon *sugoie* eta Mungian *sugoia*. -i- hori zer da bokalea, erdi bokalea, erdi kontsonantea edo zer?

Galdera honetan Beraskoitzan erantzun bitxi bat agertzen da: *zubi*, *zubia*.

/j/ fonemaren ebakieran B-eraz baditu bereizketak:

[j] [z] [dz] [x]

Gernikako banatasunean [x] bezela ebakitzen da ala [x] / [ʒ] alternantzia dago? [xo] [ʒo] 25. galderan? Ezin genezake jakin atlas honekin. Zer da 242 galderan y: N14 eta G8 *ogi y ori*?

Hortxe bertan BNeran: yuten da, yuanik, yuan da. Eta horren azpian agertzen den *doie*, *doia* soinu berdinak dira? Idazkeraz behintzat ez da berdintasun hori agertzen. Edo AN-eran agertzen dan *badoie*, *badaie*, edo *yoan da*, berdinak dira? 25. 26. galderetan S-eraz *žiten/yiten* [ž/j] alternantzia agertzen da. Baina alternantzia hau nola dago: herri berdinean ala herri bate-tik bestera?

S-eraz s/š agertzen da 54. galderan *zahartu*, *xahartu*. Lapurteraz ere bai. Baina euskalki osoan dago alternantzia ala toki bat edo bestean?

tx-/tt alternantzia zenbateraino gertatzen da? 209. galderan agertzen da, baina zenbateraino eta zein kasutan gertatzen da?

Lekarotz beti sartu izan dute Baztango euskeraren barruan. Baztango txistukariak bereziak dira. A. ALONSOk 1923 agirian jarri zituen, eta oraintxe bertan tesi bikain bat egin du P. SALABURU jaunak. Baina hemen ez da ezer agertzen Lekarozko txistukarien berri jakiteko.

S-eraz Larrasquet jaunak 1931an eta 1935an RIEVen argitaratutako lan baten bereizten ditu s ozena eta gorra eta z ozena eta gorra. Hemengo datuekin ezin dugu ezer argitu honetaz.

tx/x alternantzia ere agertzen da, 92. galderan. Noraino erabiltzen dira bat eta bestea?

Hasperapenkari edo aspirazioak.

56. Galderan agertzen da adibide bat BN, L eta X-eran. Baina muga dagoen Zugarramurdin ez dator erantzun erdia baino. Zer gertatzen da? 58. eta 75. galderetan Urepelen, Bidarrain, Donamartirin, Uharte-Garazin ez da

agertzen h-. Zer gertatzen da? Eta 76. galderetan ere bai baina ez Xiberoako herri guztietan. Zer gertatzen da? 204. galderan alternantzia agertzen da th/t. Zenbateraino dago hori?

kh: 70, 116, 124 eta 127 galderetan. Ba aldago alternantziarik kh/k? Edo zenbateraino gertatzen da: herri berdinean ala herri desberdinetan?

ph: gutxitan agertzen da adibide bat: 188. baina hemen ere alternantziak herri batetik bestera: phartetatik/partaik. Nolakoa da alternantzia hori?

r/rr/R: 126. galderan *egurra* ala *eguRa* da BN, L, eta S-eraz?

96 eta 97. galderetan berdin. Ez da ezer agertzen hori jakiteko. Gauza danak ez ditut aipatu. Baina nahiko dela uste dut oraingoz.

Atlas baten jasotzen diren erantzunak berdin berdin egindako galderekin jaso behar dira. Bestela nola konparatu adibidez 70. galderako Altzai, Eskiula, Etxarri eta Santa Garaziko *merkhatü* eta Amenduze, Bidarra, Donamartiri, eta Irisarriko *merkatiä*? Lesema biak konparatzeko ez zegoen zertan joan beharrik herri bakoitzera. Badugu Lhanderen hiztegia hori jakiteko.

Jasotako datu batzuk ez dira egokiak ba konparaketarik egiteko. Eta horrek agirian jartzen du lan honen beste hutsune bat: galderak bakoitzak bere erara egin dituela. Galdera desagokiak askotan eta gainera bakoitzak bere erara eginda. Atlas baten kartografia hizkuntzaren zerbitzuan jarri behar da eta ez dira nahikoa muga administratiboak.

8. Azpiegitura

8.1. Kolaboratzaileak

Talde honen barruan lekukoak eta biltzaileak sartuko ditut nik. Eta biak sartu behar direla uste dut.

Lekukoek borondaterik onena izaten dute eta beren denpora dohan eman, beste zeregin batzuk utzita. Orduak eta orduak ematen dituzte. Sari-txoren bat ematea komenigarri da, orduz orduko soldata bat eman ezik ere. Eta gero jasotako datuak ez nolanahi erabili edo nolanahiko lanak egin datu horiekin. Hori egiten duena, gizon eta emakume batzuk bihotzeko duten zerbait zapuzten ari da. Eta gainera kasu honetan, euskeraren mesedetan baino kaltetan doan zerbait egiten.

Biltzaileak ere lan honetan borondate onenarekin ibili direla badakit. Baina beste arrisku batzuren artean, arrisku hau ere badago Euskal Herrian: borondaterik onenarekin dabilenaren lepotik lan batzuk besteek egiten dituztela. Gure borondate onak eta euskeraren zaletasunak gauza batzuetan itsutu egiten gaitu. Eta lan bat eskatzen digutenean nola egingo duten jakin behar dugu. Bestela borondate onagatik nahi ez luketen tokian azaldu daitezke izen

batzuk. Eta galdetu behar da ez bakarrik *nola* egingo den. Baita *nola* ematen ari diren lanaren pausu bakoitza, batez ere elkar lanak askoren artean direnean. Eta alde batera utzi behar ditugu izenak, eta izanari jarraitu. Badaudelako beste lan batzuk ere akats hau dutenak zoritxarrez. Aipatzen dugun atlas hau ez da bakarra bide horretan.

8.2. Koordinatzailea eta talde teknikoa

Atlas motako lan baten, hauen lana garrantzi handikoa da. Eta txarto egiten badute beste guztia ankaz gora gelditzen da. Honako gauza batzuk dituzte betetzeko:

1. Galdeketa egoki bat prestatu, lortu nahi dituzten hitz, soinu, morfologia egitura edo sintasirako. Bestela lan handi batetik oso frutu gutxi jasotzen dira. Lanaren helburuak argi jarri.

2. Alfabeto fonetiko edo erdi fonetiko bat prestatu behar dute kolaboratzaile denek berdina erabili dezaten. Bestela gorago aipatu ditugun gauzak agertzen dira. Eta orduan lan handi bat alferrekoa bihurtzen da.

3. Lan taldearekin zehatz erabaki nola egin behar den galdera bakoitza, eta nola traskribatu behar den. Eta horretarako alkarrekin ariketak egin behar dira, denek oinarritzko prestakuntza bat badutela bermeatu ondoren. Oinarritzko prestakuntza hori gaur behintzat ez da bakarrik karrera bat bukatuta izatea.

4. Ezin daiteke pentsatu etnografiarako egiten den bilketa bat eta mintzaira bilketa bat berdinak direnik.

Adibide batzuk jarriko ditut. 247garren galderan: 'Los hijos del jefe han estado de caza durante dos días'. Erantzunak:

L1 nausiaren; L2 gudariaren; L3 xef^an; L4, L5 nagusiaren, nausiaren; L6 aintzindariaren.

Jefe hori Afrikako edo beste toki batzuetako tribu baten erakundeekin lotuta dago. Baina erakunde horiek balio ote dute gure Euskal Herriko gizarte honetarako? Eta galdera berdinean honelako erantzunak agertzen dira: uga-zaba, alkatea, jefia, buruzagia, erregia, agintaria. Nolako isoglosak atera daitezke honelako galdera batekin?

265. galderan: 'quiero guisar la comida'. Lapurdi, Nafarroa eta Zuberoan *nahi dut...* Galderarekin ez ote dute behartu lekukoa *nahi dut* aurrean jartzera? Eta horrela agertzen ez denetan, lekukoak agertzen den ordenan erantzun du, ala biltzaileak zuzendu ote du erantzuna? Ez zaigu inon azaltzen lekukoaren erantzuna zuzenduta dagoen, zenbateraino behartu duen biltzaileak, ala berez berez eman duen erantzuna. Ikusi honetarako 271 eta 275. galderak esate baterako.

Badago lan bat beharrezkoa dena atlas linguistiko bat edo nolanahiko mintzaira bilketetarako: Manuel COMPANYS, *Les nouvelles methodes d'en-*

quête linguistique, *Via Domitia*, 1956, 90-137, eta *Via Domitia*, 1958, 51-167.

Etnografia mintzairarako lagungarri izango da, baina ez da nahikoa. Eta honekin lotuta dagoen beste gauza bat. Euskal Herriko Atlas Etnolinguistiko honetan arduradun direnetariko bat eta biltzailereren bat edo bik ez dakite, euskalki desberdinak ulertzeko adina euskerarik. Galderak bildu zituztenean ez zekiten behintzat eta gero baten batek behintzat ez du ikasi. Etnografia egin daiteke interprete edo itzultzaileak erabiliz. Baina hizkuntza baten atlasa ez. Behintzat lehenengo munduak erabiltzen dituen parametroak erabili nahi baditugu.

Horregatik euskera ez dakiten batzuk zer, eta euskal atlas etnolinguistiko bat egitea gehiegi dela uste dut. Dena den, bide hori hartu duten aurrenengoak ez dira zoritxarrez. Bide berdina eta urte batzuk aurrerago, M. Alvar jaunak eta bere kolaboratzailearen batzuk hartu zuten, *Atlas lingüístico y etnográfico de Aragón, Navarra y Rioja* egiteko. Adibidez lan horretan ez du inork eta inon adierazten honelako erantzunak bi hizkuntza desberdinetakoak direnik. Behintzat euskerak eta Aragoi, Nafarroa eta Errrioxako erderak bi hizkuntza desberdinen neurriak betetzen dituzte eta. Ez ditut hemen jarriko bere traskribaketa, lesemak baino.

11. laminan, adibidez, galdera *erial* da
Bera: landie
Goizueta: larrea sasie
Lekarotz: irezelaye
13. laminan eta galderan: *rozar, quitar las zarzas*.
Bera: garbitu, belasarak kendu
Lekarotz: eskardar / yorratu
17. laminan galdera: *roturar*
Bera: goldia irauli
Goizueta: —
Lekarotz: luberjetu, luerri
18. mapan, galdera: *hormiguero maleza amontonada cubierta de tierra quemada*
Bera: mulswua
Goizueta: xundarra
Lekarotz: ziken'pille
66. mapan, galdera: *deshacerse un haz* (porque se rompe el vencejo)
Bera: zabaldu
Goizueta: —
Lekarotz: gaizkilotwa
124. mapan, galdera: *coyunda*
Bera: ediak

- Goizueta: edea
Lekarotz: ramalillos / edeak
219. laminan, galdera: *taberna*
Bera: sagardotegiya/ardotegiya
Goizueta: taberna/taska
Lekarotz: taberna/ostatwe
284. laminan, galdera: *salvado*
Bera: zaya
Goizueta: zaje
Lekarotz: zaye
439. laminak, galdera: *ciruelo*
Bera: aranarbola
Goizueta: ziruelo
Lekarotz: ziruelo/anana
460. laminan, galdera: *bellota de la encina*
Bera: ezkurra
Goizueta: bellota
Lekarotz: bellota/ezkurra
604. laminan, galdera: *rebaño*
Bera: rebaño/artaldia
Goizueta: rebaño/artaldea
Lekarotz: rebaño artaldia
689. laminan, galdera: *cordero de un año*
Bera: anxua
Goizueta: bildoze
Lekarotz: primal/anxue

8 tomo argitaratuta daude eta erdal edo gaztelera hizkuntzako ez diren horiek zer diren jakiteko lorratz bakarra 5garren galderak ematen digu. Galderak honela dio: *nombre del habla local*.

Habla local delako hori Beran deitzen dute *uxkara*; Goizuetan *baxko* eta Lekarotzen *euskera/basko*.

Baina euskerarik ez dakien batek euskerari buruzko lan bat egin deza-keela, beste lan batek ere adierazten du. Badago 'Estudio sociológico del euskera en Navarra' izeneko proiektu bat. Honen berri agertzen da *Fontes Linguae Vasconum*, aldizkarian, 1982. urtean 539-554 orrialdeetan. Arduradun bezala Hortensia Viñez Rueda agertzen da eta koordinatzaile bezala Ramón Blanco Carril jauna. Proiektu hori aurkeztu zuenean aipatutako emakumeak ez zekien euskerarik. Are gutxiago, Nafarroan erabiltzen diren 6 euskalkiak edo Goi Nafarrera biak euskalki bat bezela hartuta 4 bat euskalki.

Tradizio hori badago egon. Baina ez dut uste linguistikaren izenean sortu den joera bat izan denik. Orduan utzi dezagun bide hori, baina jakinik baten batzuk badabiltzala bide horretatik.

8.3. Erakundeak

Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoaren sarreran aitortzen da laguntza lortu dutela Gipuzkoako Foru Aldundiarengandik, Eusko Ikaskuntzarengandik eta Lankide Aurrezkiarengandik. Eusko Ikaskuntza 40 urteko derrigorrezko loalditik esnatu berria zen eta ez zituen arau argiak. Eskertzekoa da laguntza eta uste dut erakunde guztiak ados egongo direla euskerari laguntza emateko, euskera delako ondasunik handienetako bat Euskal Herrian. Baina laguntza emateko berme batzuk eskatu behar dira. Edo bestela argi ta garbi esan edozein lani emango zaiola laguntza, batez ere izena duen norbaitek eskatzen baldin badu. Izenak ez duela garrantzirik esan dezatela argi, gorago aipatu ditudan kolaboratzaile horietakoek, gerizpe on baten ondoan, laguntza lortu dezaten. Interesgarri litzateke baita jakitea nolako metamorfosiak behar diren laguntzak lortzeko, inguruan ikusten direlako sikiatrak soziologo bihurtuta, linguistak ere bai, eta injineru tekniko edo tekniko batzuk hizkuntzalari. Hemen proposatzen dut karrera bakoitzean horrelako metamorfosiak egiten irakasten duen gai edo asignatura bat jarri dezala dagokion ministeritzak.

Erakundeentzat beste ohartxo ere badaukat. Edozelan egindako lanak ez dira batere mesedegarri euskerarentzat. Eta denon ondasuna den euskera-ren administrazioa, erakunde guztien gain dago. Orduan nolanahiko lanak, ogi bedeinkatutzat ez zabaltzeko, beharrezkoa da kalitate berme bat. Eta erakundeetan sarritan ez dira egoten hizkuntzalari jaioak ezta dialektologia gauzetan adituak, gorago aipatu dudana metamorfosiaren baten bidez agertzen ez bada baten bat. Baina, Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean badaude filologia ematen den fakultate batzuk. Horko aholkulariak egokiak ez balira, atzerriko jakitun batzuren zuzenbideak emateko prest daude bat baino gehiago. Eta etxeakoak ez badira ere, kanpokoen eritzi helduak ongi etorriak izan daitezela, euskeraren onerako bada.

Eta azkenik aztertu dudana lan honi beste ohartxo bat. Lan horretan Markinako eta Zornotzako inkestak Joxe Mari Etxebarriaren izenarekin agertzen dira. Ez dira nireak eta nik ez daukat zerikusirik lan horrekin. 1981.ean utzi nuen lan hori eta koordinatzaileari argi eta garbi adierazi nion eskutitzez nere inkesta biak nireak bezela argitaratzeko behar nituen baldintzak. 1981-III-16an idatzitako hitzak hauek dira: 'Por tanto no me responsabilizo de las encuestas del vizcaino hechas por Labayru (ni erakunde horren izenean egon baitnintzen kolaboratzen). Unicamente me haré responsable de las encuestas que he hecho yo. Hacerme responsable significa que yo les daré el último retoque antes de mecanografiarlas. Si no doy ese retoque, tampoco me haré responsable ni garantizaré con mi nombre los datos que aparezcan en ellas. Si esto ocurriera, lo comunicaria a los posibles lectores'.

Irakurleak badaki orduan, metodo, galdeketa, erantzunen bilketa, transkribaketa fonetiko eta beste akatsen gainetik, beste akats hau ere baduela lan honek: nire inkesta bi bukatu gabe zeudenak eta nik eskatzen nuen bezala zuzendu behar nituenak nik zuzendu gabe, argitaratu dituztela. Gora behera honetan kolaboratzaileek ez dute zerikusirik, koordinatzaileek baizik.

Bukatzeko nahi nukeen baino sarriagoko esperientziak erakutsi didan eritzi bat jarri beharrean aurkitzen naiz: euskera gauza askotarako jostailu bezala darabilgu eta hori beronen kaltetan doa. Konturatuko ote gara behingoan?

HIZTEGIGINTZA

HIZTEGIGINTZARAKO HITZ-ERAKETA: EGINDAKOAK ETA EGITEKOAK

Donostia, 1984-V-25

Mikel Zalbide

Ez da noski eguneroko aukera izaten gaur bezalako entzulego baten aurrean norberak bere hizkuntzaz duen zenbait uste-aburu azaltzekoa. Egia aitortuko badizueta, gainera, errespetu-puntua bat ere sentitzen dut, ikasketaz eta azkenaldiko ogibidez hizkuntzaren gibel-erriak aztertzetik aldenduxea nagoen honek, halako gai bihurri bati aurrez aurre ekiteko. Puntua neronek jarria da dena dela, onerako edo txarrerako, eta honez gero hobe izango dut hortaz, luzamendu handiegitan sartu gabe, bertsoaren grazia nekez izango duen bapateko idazlantxo hau osatu eta aurkeztea.

Hitz-eraketaren eremua ez da, giza zientzietako beste hainbat esparrutan ere sarri gertatu ohi denez, bere luze-zabalean zehazten hain erraza: hamaikatxo puntu daude, hor nonbait bere gerri-bueltan, aztergaiaren mugaz kanpora ala barrura eroriko erabakizun. Horiek asko ez direla, gainera, eremu barneko banaketa-arazorik ere ez da han-hemenka falta: gogora dezagun, hartaraz gero eta gainerakoen seinale, hitz elkartu eta eratorrien arteko hesiaren ahula.

Aldeak alde eta eskolak eskola, halaz ere, badirudi oinarritzko puntu batzutan bederen halako eritzi-batasun bat gailendua dela alor honetan: Hans Marchand-en *The Categories and Types of Present-day English Word-formation*¹ lan ezagunak duela hogeitazko itzala arrunt galdua ez badu, behintzat, ez da orain ere oso oker ibiliko hitz-eraketa nagusiki hitz-elkarketaz eta eratorpenaz ari dela dioena. Nagusiki diot, noski, jakina bait da bi atal horiezaz gainera beste hainbat puntu ere, xume nahiz lodi, berariaz aztertu ohi duela alor honetako zenbait espezialistak: **OHO** edo **EBB** gisako laburpen-siglak, **plasti-plasta** edo **tiki-taka** moduko **ablaut**-taldeak, **handi-mandi** edo **ikus-makusi** bezalako errima-bikoteak, **mahainguru** moduko sasi-akronimoak eta, *last but not least*, aspalditxo honetan itxuraz iturri horretara ur-bila joaten lotsatu-antxak bagaude ere inoiz erreparatu handiegirik gabe pitxarkada betean edandako

¹ H. H. MARCHAND: *The Categories and types of present-day english word-formation. A synchronic-diachronic approach.* Otto Harrassowitz, Wiesbaden, 1960.

(edo, maizago gertatu ohi zenez, besteri eskainitako) txadon, arauli, poielgin gisako hitzarte hots-errenak.

Zailagoa da, noski, hitz-elkartearen nahiz eratorpenaren alorretan ahobatezko onarpena eskura lezakeen sailkapenik aurkitzea. Hizkuntza batetik bestera egon ohi diren tarte ohargarriez gainera hizkuntz fenomenoari buruzko ikuskera osoa izan ohi da horrelakoetan, sarri baino sarriago, aniztasun-iturri nagusia.

Sailkapen-erizpideen garrantzi aparta ezertan gutxietsi gabe ere, dena dela, desberdintasun guzti horien gainetiko bateraguneak aski den adinako neurrian jaso litzake, erdal bibliografia jori-aberatsean nahiz euskal baratza aukeran utzi samarrean, horien bila dabilkeen aztertzaile saiatuak.

Eta, euskal baratza aiputan hartu orduko, ezin saihestuzkoa da, alor honetan ere, mende-hasieratik gerra-garairarteko ahaleginen aipamena: taldekako nahiz norbanako lan haiek arrasto zabala utzi bait dute, egungo egunerrate, euskal hitz-eraketaren azter-eremuan. Gure hizkuntzaren morfologiaren zoko-bazter gehienak luzez eta zorrotz miratutako R.M. Azkue, bereziki, ezinbesteko erreferentzi gunea da, beste hainbat puntutan bezala, euskal hitz-elkarketaren nahiz eratorpenaren azterpidean barrena abiatu nahi duenarentzat. Eta ez da hartarako, noski, arrazoirik falta: bere Morfologia Vasca-ren lehen partean eratorpen-atzizkiez eta bigarreanean hitz-elkarketaz emandako definizio eta azalpideak, adibide solteak eta guzti, biziegi daude gai honetaz oraindik orain kaleratzen diren zenbait liburu eta liburuskatan, iturburura jo gabe bigarren edo hirugarren eskuko argibide horien muga-barrutipean ase-beterik gelditzeko.

Azkue-ren ekarpen zabalaz gainera ezin ahaztuzkoak dira, bide batez eta besteak beste, orduko RIEV-en zein **Euskera**-n argitara emaniko hainbat eta hainbat artikulua: C. C. Uhlenbeck-ek RIEV-en euskal hitz-elkarketaz² esandakoak, bere labur-bilduan ere, ezin adibiderik hutsalena izango dira diogunaren fabore.

Badu gainera, buruan darabildan auzi-mauziari bertatik bertara heltzen hasteko, hitz-elkarketa dela-eta Azkue eta Uhlenbeck hurrenez hurren aipatzeak bere esanahia.

Aita Luis Villasantek, Eleizalde Bildumako 3. zenbakiaz argitara emandako Palabras Vascas Compuestas y Derivadas³ liburuska hain ezagunean, autore bi horien sintesi-lana egin nahi izan duelarik aski jokabide eklektikotara jo behar izan du inoiz baino gehiagotan gramatikari bataren eta bestearen ikuspegiak nola edo hala uztartu ahal izateko: "Composición impropia-

² C. C. UHLENBECK: "Quelques observations sur les noms composés en basque": RIEV 5, (1911.urtea); 5-9 orr. (G. Lacombe-k alemanetik itzulia).

³ L. VILLASANTE: *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Colección Eleizalde, 3. Arantzazu. 1974.

mente dicha"-ren sailean sartzen ditu, horrela, Karmadharaya moduko justaposizioak, lehen begiratu batean lirudikeen baino erizpide kontrajarriagoetarako atea zabalik utziaz.

Eta ez da harritzekoa: sailkapenerako orduan Uhlenbeck-ek nahiz Azkuek agertutako diferentzien iturri nagusia ez da izan ere, nere ustez, bata bestea baino galbahe estuagoa erabili izana edota nor "bere" izendapen-sistema bereziaz baliatua.

Kakoa beste nonbait dagoela esango nuke, ezer esatera ausartzekotan, korapiloa behar bezala askatuko dudan hain seguru ez banago ere. Auziak, diodan lehenbait lehen, morfologiarekin bezainbat edo are gehiago sintaxiarekin du, nere irudiz, zerikusia.

Azkueren azalpenetan zehar *elipsi* hitza ageri da behin eta berriro, hitz-elkarketaren muina definitzerakoan, giltzarri moduan: *la elipsis u omision de desinencias casuales, proverbiales, conjunciones, sufijo - d u n, frases...* eta abar. Lehen paragrafoan bertan, A. Darmestetter-en ⁴ liburu ezagunaren hasieran ⁵ ageri diren baieztapenak bere gogora ausnartuz honako erizpide hau hartzen du handik aurrerako guztiaren abiaburu: *No la unión más o menos íntima, sino la elipsis es el alma de la composición vasca*. Eta nahi adinbat adibide ematen ditu ondoren, han eta hemen, delako elipsi hori nola ulertu behar litzatekeenaz. Aipa ditzadan hemen, azaldu nahi nukeenaren frogagarri, honako banaka hauek:

- Uriarte, Mendiando, Aizkibel, Aitorde, Otondo..., *son* Uriaren artea [...], mendiaren ondoa (393, 12).
- Odeigari es [...] odeiak [...] *uxatzearren ematen dan garia* (393, 30).
 - *Cuando el sufijo - d u n se aplica a un adjetivo precedido de un sustantivo, su omisión da lugar a vocablos compuestos [...] posesivos: surrandi, ipurloka, auzikin, betoker [...] valen por sudur andidun, ipurdi lokadun* (399, 8).
- *Compuestos copulativos son aquellos cuya elipsis consiste en la omisión de la conjunción t a, e t a* (396, 26).

Ondorio bi ateratzen ditut nik, beste ororen gain, azalpide honetatik:

- a) Hitz-elkarketa gehienetan, funtsean, *morfema-galeraren* bat gertatzen da Azkueren ustez. Segun zein morfema galdu, halako motatakoa izango ere da hitz-elkarteak: - (e) t a *kentzen* bada kopulatiboa

⁴ A. DARMESTETTER: *Traité de la formation des mots composés*. E. Bouillon. Paris. I. argitaraldia 1874, 2.a 1894.

⁵ Beraz, liburuaren zati berrituan.

(alta-semeak); - d u n *kentzen* bada posesiboa (begiluze); deklinabide-atzizki bat *galtzen* bada menpetasunezkoa (behi-esne), eta abar.

- b) Hitz elkartuak forma “herrenak” dira, nolabait esateko, Azkueren azalpide horren arabera. Forma normalak, orbanik gabeak, elipsirik gabeko erlazio-morfemadunak lirateke, eta hitz-elkartuak haietatik sortuak: *quando el sufijo - d u n se aplica a un adjetivo precedido de un sustantivo, su omisión da lugar a vocablos compuestos* (399, 8). Eraikuntza d u n-dunetatik sortzen dira hortaz, oker ulertzen ez badiot, d u n-gabeak.

Lehen ondorioak, egia esango badut, ez ninduen garai batean gehiegi kezkatzen. Morfema-galera hori aspaldidanik susmagarria iruditu izan bazait ere, mesede on bat aitoritzen nion eta diot, gutxienez, ikusmolde horri: konposizio-mota desberdin bakoitza kasuan kasuko oinarriko perpaus-eskema banarekin lotzen saiatu izana. Generatibisten eraginez azken hama-bost urteotako lexikologi lanetan berriro indartzen ari den azterbideak ere, iruditzen zaidanez, parte ohargarri batez ezin ondo baizik ikusi ahal izango luke jokamolde hori.

Nolanahi ere, ordea, begien bistan dagoela deritzot, gauzak bere xehetan aztertzeraz bagoaz, *bihar-etzetan* moduko eraikuntza batean eta konjuntzioaren galera baino zertxobait gehiago gertatzen dela eta, oso bereziki, *errezil-sagar*, *artzain-zakur*, *hodel-gari* edo *limol-ur* gisako izen-konposizioak ezin direla besterik gabe *Errezilgo sagar*, *artzainaren zakur*, *hodel(eta)ko gari* eta *limoiaren ur* moduko eraikuntza sintagmatikoen forma eliptikotzat hartu.

Bigarren ondorioa da ordea, askogatik ere, gutxienik betetzen nauena: zer dela-eta *gibelurdinak*, *hotz-beroak* edo *esne-behiak*, uso lumagalduen pare, behialako haurrak Paristik omen gentozen moduan etorri behar dute nor bere eraikuntza osatuagotik?

Zer hankatatik daude, bada, *kantu-kantari dema-eskedatozen harri-jasotzaileak* herren?

Puntu honetan ez zuen Azkuek, nere uste apalez, hitz-elkartearen muina azaltzen asmatu. Eta geroztik, oker ez banago, errazegi joan gara guztiok, Hamelingo neska-mutilak txistulariaren ondotik bezala, nora gabeko bide horretan barrena.

Badago beste esplikabide bat, gauzak gehiegi bihurritu gabe aski arrazoizko emaitzetara eraman gaitzakeena: hitz-elkarteetan ez da ezer galdu. Ez dago inolako *omisio*-rik. Hitz-elkarteak beste eraikuntza sintagmatiko guztiak bezain osatuak dira, eta ez dute inolako orbanik ez herrenik. Forma osoak dira, bete-beteak.

Esplikabide honen arabera, *hodel-gari* ez dator *hodeliak* uxatxearren ematen den *gari*-aren laburtzapenetik, *hodel-gari*-tik baizik.

E. Coseriu-k ⁶ hain aspaldi ez dela gogorarazi duenez, Brugmann-ek esana zuen bere garaian hitz-elkarteetan esanahi gehiegi ikusi nahi izan ohi dela. Jespersenek ere adierazia izan behar du, ildo beretik, hitz-elkarteek kontzeptu arteko erlazio zabal-lazoak adierazi ohi dituztela huts-hutsik, erlazio horien zer-nolako zehatzez ezer esan gabe.

N. Morciniec-ek ⁷, azkenik, *Sommerhut* moduko konposatu batean ikuspegi linguistiko hutsetik *Hut durch Sommer bestimmt* (uda-k mugaturiko *sonbrero-a*) besterik ez dagoela dio. Hots, aspaldi-aspalditik ondo ezaguna genuen mugatzaile/mugakizun harreman zaharra. Gainerako esplikazio zehatz-mehatzak, tarteko morfema-galerak barne, kasuan kasuko gauzei buruz dugun ezagueraz finkatu ohi ditugu sarritan gizabanakook, lekuan lekuko inguramendua eta egoera kontuan izanik.

Esanahiaren alorretik berriro joskerarenera itzuliz, bestetik, aski aproposak iruditzen zaizkit E. Benveniste-ren ⁸ hitz hauek: *es preciso ... considerar los compuestos no ya como especies morfológicas sino como organizaciones sintácticas. La composición nominal es una microsintaxis. Cada tipo de compuestos tiene que ser estudiado como la transformación de un tipo de enunciado sintáctico libre*. Gure hizkuntzara itzuliz eraikuntza sintagmatikoen plano beretsuan daudela alegia, berdin-berdinean ez bada ere, *trapu-saltzaillea* eta *trapuaren saltzaillea*; edo-eta, beste era batera esanaz, lehenengoa ez datorrela bigarrenetik, nor bere oinarriko perpaus-eskematik baizik.

Itzul-inguru guztiokin ezer berririk esaten ari ote naiz, ordea, euskal sorotan? Apenas.

C. Uhlenbeck-en 1911ko artikulua labur hura irakurtzea aski da, nere ustez, orduko esplikazioen azal horiztaren pean oraingo aurkikuntza-usteko hauen enbor bereko izerdi-giharrak aurkitzeko: bertako pasarte batean esaten duenez ⁹, izan ere, euskarak hitz-jokorik ez zuen garaiko hedabide sintagmatiko zaharraren ondorengo beti gazte eta joria da hitz-elkarketa. Behinolako euskara hitz-jokorik gabea ala jokoduna ote zeneko auzia alde batera utziaz zinez arrazoizkoa iruditzen zait, gainerakoan, Uhlenbeck-en ikuspegi hori. Hemeretzigarren mendeko hainbat hizkuntzalari konparatista handiren erizpideen islada begien bistan dagoela esango nuke, gai horietan espezialistatik baino ezjakinetik hurbilago nagoen honentzat ere, azalpide horretan: aski da

⁶ E. COSERIU: *Perspektiven der Wordbildungsforschung. Beiträge zum Wuppertaler Wortbildungskolloquium 9-10*. E. Brekle eta D. Kastousky, Bonn, 1977, 48-61 orr.

⁷ N. MORCINIEC: *Die nominalen Wortzusammensetzungen in den westgermanischen Sprachen*. Breslau. 1964

⁸ E. BENVENISTE: *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*. C. Klincksieck. 1967. Gaztelaniazko itzulpena, in "problemas de lingüística general" II. Siglo XXI. 1977.

⁹ *La composition se présente comme une survivance d'une période antérieure pré-flexionnelle* dio bertan, hitzez hitz.

horretarako, urrutirago gabe, H. Jacobi-ren *Compositum und Nebensatz*¹⁰ gihartsua eskuztatzea. Badakit noski, nere gutxijakinean ere, Jacobi-ren eritziak puntu honetan ez direla askoren, ez eta bere garaikide eta lagun Jakob Wackernagel-en ere¹¹, gogo-betegarri.

Guztiarekin ere, dena dela, ez dut uste *Compositumeko* azterpidea euskal hitz-elkarketarentzat, liburua argitara eman eta handik laurogeitazaz-pigarreneko urtean, batere antzua gertatuko litzatekeenik.

Edozein kasutan ere, hitz-elkarteen eremua oraindainokoan baino joskerari lotuago landu beharko dela esatea ez zait ausarkeria handia iruditzen.

Norbaiti gogoak emana izango ere dio, honez gero, kontu xahar guztiok zertara datozkeen galdetzea. Ur joan horrekin nongo errotarri lanean jarri nahi dudan jakin nahi izango du, alegia, batek baino gehiagok. Eta ez dakit, egiaz, ganorazko erantzunik daukadan ere. Horra, dena dela, nere ustea.

Euskal hitz-elkarketa lau hitz-andana ihartutako museo-kontua dela uste duenarentzat ez dago, seguru asko, gai honi azalpide teoriko bat ala beste eman alde handirik. Hitz-elkarketa oinarri-oinarriz eta ezer baino lehen gure joskera-bide jator, aberats eta, hainbat eginkizunetarako, ordaineko adierazpiderik gabea dela komentzitua dagoenarentzat aldiz garrantzi handikoa da, beste eginbehar asko baino agitz premiazkoagoa, hitz-elkarteen izakera sintaktiko bizi eta emankor hori ageri-agerian jartzea, bestela ere lehendik beren mintzamen-idazmenetan itxuratzarki erasanak eta zarpailduak dauden euskal belaunaldi gazteei gaur eguneko eta bihar-etzietako gizarte hiritar-industrialdu honetan bere eguneroko langune eta bizimoldeetan euskaraz jardun ahal izateko hain beharrezkoa duten hedabide sintagmatiko hau nola erabil ikas dezaten. Ikasi diot, hogeitabost urtetik beherako euskaldun gehiegik ahaztua bait dauka, baldin inoiz jakin badu, hainbat eratako hitz-elkarketak nola eratu eta zelan erabil.

Hitz-elkarketaz sintagma berriak osatzen ez dakienari erakusten hasi aurretik, edo hastearekin batera, badago ordea beste eginbeharrik: jakinaren gaineko ezaguerarik ez izan arren hitz-elkarteak erabiltzen badakien euskaldungoarentzat hizkuntz egitura horren adierazpide teoriko bat osatuz joatea, bere izakera emankor etengabea azpimarratuz. Ondoko puntuok, bederen, kontuan hartzekoak lirateke, nere ustez, lan horri ekiteko orduan:

- a) Hitz-elkarte mota desberdinen banakako azalpena, bakoitzaren erabidea, emankortasun-maila eta erabilpen-eremu nagusiak zehaztuz.

¹⁰ H. JACOBI: *Compositum Und Nebensatz*. Studien über die Indogermanische Sprachentwicklung. Verlag von Friedrich Cohen. Bonn. 1897.

¹¹ J. WACKERNAGEL: *Altindische Grammatik*. II, 1. Einleitung zur Wortlehre. Nominalkomposition. Vandenhoeck eta Ruprecht. Göttingen. 1905.

- b) Osagaien arteko hitz- (edo morfema-) junturetan erabili beharreko jokamoldeak: lehen osagaiaren bukaerako a organikoa galdu ala ez; inoiz bateko beste zenbait hots-lege orain aplikatzekoa den ala ez (gari → galeper, baina safari → safal urte);...
- c) Hitz-elkarteen azentuazio-bidea, hitz-andana ihartuei honetan ardura berezia eskainiz.
- d) Hitz-junturetarako ortografiako arauen finkapena: marratxoaren erabilera, hitzak loturik ala bereiz idatz, eta abar.

Honelako puntu batzuei badie Euskaltzaindiak, lehendik ere, erantzuna emanik.

Egindakoaren ondoan askotxo dago ordea, itsuenak ere ikus dezakeenez, eginkizun.

Eratorpenaz ez noa, entzulegoaren aspermenak ere bere mugak bait ditu, aipamenetan hastera.

Inoiz komeniko da, halere, gai horri ere piskana-piskana heltzea.

Euskaltzaindiak badu, orain urte t'erdi inguru sortua, Hiztegitza Batzordea.

Iaz eta aurtan maileguzko hitzekin ibilia da eta hartan ibiliko ere da, agian, beste puskatxo batean. Ez legoke gaizki, dena dela, hurrengo pauso moduan hitz-eraketaren atalari helduko balio eta bertan, duen eraginagatik, hitz-elkarketarekin hasiko balitz.

Esanak beude, honenbestez, esatekoak nituenak. Gaizki esanak barkatu, eta hurrengorarte.

BERRIAK

EXPOLANGUES

Hizkuntz eta Kulturaren II. Nazioarteko Astea

1. Prestaketa

1983.eko Maiatzaren 30ean EXPOLANGUES delako Erakusketaburuak gomitaketa eta igorri zion Euskaltzainburuordeari hurrengo erakustaldian Euskaltzaindia partaide izan zedin.

Euskaltzaindiak Uztailaren 29an Bilbon egin zuen batzarrean onartu zuen gomitaketa eta joatea erabaki, honen antolaketaarako Batzordea izendatuz: J. Haritschelhar, J. L. Lizundia, J. A. Arana, J. J. Zearreta eta R. M.^a Arza.

Zenbait harreman izan, dirulaguntza eskari eta prestatze bilera batzu egin ondoren, antolaketa batzordea Abenduaren 16an bildu zen Donostian, Abenduaren 30ean Euskaltzaindiari aurkeztuko zitzaion egitaraua burutzeko. Euskaltzaindiaren batzarrean hainbat ohar eta aholku jaso ondoren, 1984.eko Urtarrilaren 10ean, Bilbon egindako bileran, EXPOLANGUESen agertuko zen azpiegitura, eramango ziren liburuen zerrenda, bidaia gestioak eta abar erabaki ziren. Era berean, Aduanan eta UZEI, Elkar, Hordago argitaratzaileekin izan ondoren eramango ziren gauzen zerrenda egiten hasi ziren. Denetara 401 liburu bildu ziren eta Bilboko Merkatal Ganbararen laguntzaz “Cuadernos ATA” direlakoak bete.

Urtarrilaren 21ean komunikabideentzako txostena prestatu eta France Press, Sud-Ouest, Cambio 16, Vasco Press, Irratiak, ETB eta abarri banatu zitzairen.

Urtarrilaren 23an J. A. Arana eta J. J. Zearreta jaunak arduratu ziren prestatuko liburu kutxak Irunetik Parisera igortzeko. Berberak egun berean abiatu ziren Parisera trenez. Biharamunean, Parisen, Olivier Giry parisarra, Aitor Orobengoa arrasatearra eta Iñaki Arriola bergararrak lagundurik, Austerlitz geltokitik Gran Palais erakustokira eraman zuten material guztia. Bertan Standa ikustatu eta beharrezko zituzten mahai, aulki eta abar alokatu ondoren, Standa atontzeari ekin zioten.

Urtarrilaren 25ean, asteazkenez, goizeko hamarretan zabaldu zen EXPOLANGUES Erakusketa. Baina arratsaldeko 3ak arte ez zen ofizialki ireki, Frantziako Hezkuntza Ministeria zen Alain Savary jauna agertu zenean, noski. Hirurak inguruan izan genuen lehen bisita ofiziala: Espainiako Enbaxadorea, Joan Raventos jauna etorri zen gu agurtzera hainbat laguntzaileekin: Arturo Morales jauna, Enbaxadaren Kultur Saileko Kontseilaria; Fernando Belloso jauna, Kultur Laguntzailea; Mariano Alonso Aberasturi, Atzerrietako Ministraritzan Kultur Harremanetan Buruorde Orokorra eta Carlos Romany Sanchez, Atzerrietako Ministraritzan Entzunikusgailuen Burua. Catalunyakoak eta Galiziakoak bezala Espainiako standean gu ez egotea penagarria zela adierazi ziguten eta hurrengo batetan beste era batetara egin beharko direla gauzak aitortu zuten. Enbaxadan datzan Biblioteka ikustera gon-

bidatu gintuzten eta baiezkotan geratu ginen. Atzetik zetorren Alain Savary Frantziako Ministraria eta gu agurtzera aurreratu zen; gure erakusketaren azalpentxo bat egiteko aukera eman zigun eta argazkietan geratu zen bisita honen lekukotasuna.

Erakusketa goizeko hamarretatik arratsaldeko zazpiak arte zabalik egon zen egunero, baina bederatzi t'erdietatik eta arratsaldeko zazpi t'erdia arte egon beharra ikusi zen gauzak ongi zuzentzeko eta lapurketak ez gertatzeko.

Erakusketaren egunetan, Standean egondakoak ondoko hauek dira: J. Haritschelhar, E. Knörr, J. A. Arana, J. L. Lizundia eta J. J. Zearreta.

2. Euskaltzaindiaren Standa

Stand nahiko nabarmenean gertatu zen, alde batetik UNESCOren Stand ondo ondoan kokatua baitzegoen, eta bestetik ikurrina eta guzti harturik zegoelako.

Bestalde Hizkuntzen erakusketa bat den aldetik, guztiz interesgarri gertatzen da gure hizkuntza bezalako batek Stand bakar eta berezia izatea, gehiago nabarmentzen baita.

Xehetasunkeria gehiegi izan zuen Standak. Bisitarien galderak orokorrak ziren. Lehen aipatu bezala, 401 liburu eraman ziren, baina hango giroa ikusiz ez du merezi hainbeste iiburu eramatea. Jon Bilbaoren Bibliografia eta irakasbideak izan ziren gehien erabiliak, baita ere Bonaparteren Mapa ere. Beraz, egin zitzaizkien galdeetatik, badirudi, interesgarriena, Euskararen Status, Estadistika, Grafikoak eta honelako materiala eraman beharko litzatekeela.

3. Bisitariak

Lehen hiru egunetan jende gutxi etorri zen. Asteburuan gehiago. Etorritakoetan gehienak frankofonoak izan ziren. Euskaldun zenbait ere agertu ziren. Etorri zirenetarik %10 edo gelditzen zen standean eta horretatik hiruk edo egiten zuten galdearen bat.

Bisitari guztiak aipagarri badira ere, etorritakoen artean **J. Olson:** Parisen telefonoz euskara irakasle; **Erwin Wenrli:** suizarra, aurtan Catalunyako kultur gaiei buruz erakusketa bat antolatu duena eta datorren urtean euskararekin berdin egin nahi duena; **Asher Steru:** Ulpan Akira-ko ordezkaria; **S.I.A.C.E.:** Hiztegiaren berezitasuna daramana eta euskal hiztegien zerrenda bat eskatu zuena; **Beatriz Traburu:** *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariaren ordezkaria Parisen; **Paul Arnald:** *Le mystère de la Langue Basquene* egilea; **Montserrat Beses:** Catalunyako Telebistaren ordezkaria Parisen.

4. EXPOLANGUES, orokorki

Erakusketa hasi orduko datu ofizialak baizik ez dauzkagu eskuartean eta horregatik honekin eta guk hartutakoez baliatu behar gara. Erakusketaren planoan agertzen denez 150 stand jarri dira aurtan; baina kasu batzuetan stand bakoitzean bi edo hiru erakunde zeuden, esaterako, Espainiako stand ofizialean, Espaina bera, Catalunya eta Galizia agertzen ziren. Politika ez ezik kulturak eta hizkuntzak hartuz gero, 25 herri egon dira aurtengo Expolangues-en: Hegoaldeko Afrika (stand 1), Alemania

(6), Alsazia (1), Arabia (1), Armenia (2), Belgika (7), Canada (2), Catalunya (1), Corcega (2), China (1), Errusia (1), Espainia (4), Estatu Batuak (1), Euskadi (2), Frantzia (30), Alizia (1), Grezia (1), Ingalaterra (11), Irlanda (1), Israel (1), Italia (5), Kurdistan (1), Marokko (1), Okzitania (1) eta Portugal (2). Euskadiko biak ginen Euskaltzaindia eta Iparraldetik Seaska, beste batzuekin batera haurren irakaskuntza sailean. Hizkuntza konkretuak erakusten zituztenetatik aparte, bazeuden beste stand batzu ere: ugarienak hizkuntzen irakaskuntzarako, eta itzulpenetarako tresnak agertzen zituztenak, hots, ordenagailuak, videokasetak, magnetoskopioak, etabar.; halakoak 25 stand zeuden, benetan ikusgarriak, eta hurrengo batean komeniko litzateke teknika berri hauek ikusteko baten bat joatea. Hizkuntzen pedagogia irakasteko beste 20 stand zeuden. Hiztegiak eta hiztegi saltzaileak, 10 stand. Linguistikako argitaratzaileak 10. Turismoa bultzatzen zutenak 13. Eta azkenean, Ministraritzen eta erakunde ofizialak (ONU, UNESCO, etabar) 15 stand. Zenbait ikusle azaldu diren EXPOLANGUESera zaila da jakitea, gure ingurutik ez ziren denak pasatzen eta. Gure ingurutik 6000 ikusle edo pasatu zirela esango genuke, baina hauetatik 600 edo geratuko ziren gure erakusketa ikusten.

5. Bestelako harremanak

Urtarrilaren 31an, Espainiako Enbaxadorea Arturo Morales jauna agurtu ondoren, Biblioteca Española ikustera joan ziren gure ordezkariak. Gerra denboran Euskal Gobernuak zeukan egoitzan datza orain Espainiako Enbaxada, hots, Avenue Marceau, 11. Bibliotekako zuzendaria zen Fernando Martinez jaunarekin izan ziren.

Euskal gaiak urri dira Biblioteca honetan eta Euskaltzaindiaren katalogoa bidaltzeko balditu ziren.

6. Gerora begira

6.1. Antolaketa eta azpiegitura

Ez da posible ez eta komenigarri pertsona bakar batzu egun osoa eta egun guztietan erakusketan izatea. Bestalde, euskaraz gain, frantses eta ingeles dakiten laguntzaile batzuren eza nabarmentzen zen.

6.2. Erakusgailuak

Aurrez prestatu behar da Euskararen Historia eta egoera azaltzen duena. Bestalde gorago aipatu bezala, grafiko ugari eta ikusgarri.

Ikus-entzun materiala ere oso ona dela dirudi (Bertsolariak, ETB, Krilak, Musika).

Saltzeko materiala eramatea alferrikoa da. Hobe, Euskaltzaindiaren eta bestelako argitaratzaileen katalogoak eramatea. Elektronik tresnak ere bertatik eramatea hobe baino ez.

6.3. Hutsune nabari bat aurkitu zen Parisko egonaldian: euskal gaien biblioteka baten eza. Euskal Etxeak ez dauka ezertxo eta izateko tokirik ere ez. Euskal Etxea Rue Duban delakoan dago, Euskal Gobernuaren egoitzatik hurbil. Etxe honetan,

gerra denborako artxiboa dagoela esan zaigu. Euskal Biblioteka bat hemen kokatzea posible izango litzatekeen ikusi beharko litzateke.

6.4. Ikusleen artean bat baino gehiagok galdetu zuen EXPOLANGUESen euskal liburudendarik Parisen dagoen. Hutsune hau ere bete beharko litzateke. Pariseko liburudenda batzuetatik jasotzen dira katalogoak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan. Halako batekin hitz egin eta behar bada, bertan euskal sail bat bertan jar daiteke. Euskal Herriko Argitaratzaileekin akordio batera helduz gero halako irtenbide bat bideratzea egokia izango litzateke, baina zeregin hau ezta zuzenean Euskaltzaindiari dagokiona.

Amaitzeko, esperientzia oso interesgarri eta oparotsua gertatu da.

Hurrengoa prestatzen hasi beharko dugu.

NOTA SOBRE EL USO EN LA LENGUA HABLADA DE ZEREN O ZERREN EN SENTIDO CAUSAL Y DE ZEIN CON VALOR ANAFORICO EL SIGLO XVI

Bilbao, a 30 de abril de 1984

Alfonso Irigoyen

En la presentación de la publicación **Historia lingüística vasco-románica, Intento de aproximación** de M.^a Teresa Echenique que tuvo lugar en San Sebastián el 26 de abril de 1984, en la que participaron L. Michelena, I. Sarasola y el P. Francisco Altuna, este último se preguntó, por si alguien le pudiera aportar alguna luz, si el uso de **zeren** en sentido no interrogativo, sino con valor causal, y de otros elementos —recuérdese: **Hilez vnsa orhit adi ilherrian sarçian / hi nolaco ciradela vici ciren artian / hec veçala hil behar duc eta ez iaquin orduya**, ‘al entrar en el cementerio acuérdate bien de los muertos, que eran como tú mientras vivían; igualmente tienes que morir como ellos y no sabes cuando’—, eran creación del propio Dechepare o procedían de la lengua hablada, como en general procede su lenguaje poético.

La razón inmediata de esta averiguación tiene evidentemente sus fuentes en lo que el P. Luis Villasante tiene escrito en **Sintáxis de la oración compuesta**, Oñate, 1976, p. 12: “También en el vasco se observa que el habla vulgar echa mano de pocas conjunciones, al paso que los escritores clásicos que escribieron obras de estilo lógico-discursivo de alguna extensión se vieron en la necesidad de desarrollar el sistema de coordinación y subordinación y lo lograron en una gran medida. De este modo crearon el instrumento que se precisa para la prosa. Con ello dieron un gran paso en orden a capacitar a la lengua para que pueda ser vehículo de cultura. También ellos se vieron precisados a adaptar ciertas partículas a funciones y finalidades un tanto distintas (aunque no muy distantes) de las que tienen en el vasco coloquial”.

Creo que se puede probar que este uso, al menos el de **zeren / zerren** y **zein**, estaba implantado en la lengua hablada, independientemente de que en cuanto a su origen se tratara de desarrollos convergentes con los del mundo románico circundante.

Blas Fagoaga publicó en **Euskera**, VI (1961), p. 29, una frase vasca procedente de una carta de Juan de Irañeta a Pedro de Itero, famoso canonista en su tiempo, ambos navarros, fechada en Roma en 1549, que dice: **eta Jaincoac parcaderozola Miguell, çerren ni emen nayzala eçuen scribatu bear berçeri**, ‘y que Dios le perdone a Miguel, porque estando yo aquí no debía

escribir a ningún otro'. Ciertamente está escrita cuatro años después de la publicación en 1545 de la obra *Lingvae vasconvm primitiae* de Dechepare. Sin embargo, dada la naturaleza del texto, seguramente críptico, de la frase vasca, no destinada a ser leída por los demás, y, por ello mismo, sin pretensiones literarias, no cabe dudar del carácter espontáneo de lo que se expresa, reflejo del uso hablado.

Por otra parte, Dechepare tiene **zeren**, mientras que en la carta señalada aparece la variante **zerren**, que es la que se empleó en la literatura occidental del País Vasco y que se documenta antes en la carta del primer obispo de México, Fray Juan de Zumárraga, fechada en 1537, ocho años antes de producirse la edición de la obra de Dechepare, y editada por Enrique Otte y después por Antonio Tovar y Luis Michelena, cfr. *Euskera*, 26 (1981), pp. 5-14, donde en vascuence vizcaino, su lengua originaria, podemos leer: **ene erechian oba da guarda ditean exilje, orco miocaytj, çerren mylla bider gueyago dala dan vaño esango dabeen**, 'a mi entender es mejor se guarden bajo silencio a causa de las lenguas de ahí, porque han de decir que es mil veces más de lo que es'. En los cantares de la quema de Mondragón, que tuvo lugar el siglo XV, cfr. Michelena, *TAV*, p. 82, tenemos: **cerren ceuren jauna ezcencan empara**, 'porque no defendisteis a vuestro señor'. Villasante, en la p. 145 de la obra señalada, al estudiar las oraciones causales, recoge esto último, así como también la frase de la carta de 1549, bajo el epigrafe "Algunos ejemplos tomados de los autores y de la lengua hablada".

En los cantares de la quema de Mondragón, *op. cit.*, p. 83, se documenta también **çein** con valor anafórico: **Gamboarroç su emaytean / asi dira, ta onegaz vrten daude beralan / oñeztar barruangoac, / çein erre ez citeçan**, 'los gamboinos han comenzado a prender fuego (a Mondragón), y de esta manera han salido inmediatamente de dentro los oñacinos, los que no se quemaron' —se ha traducido literalmente el pretérito perfecto histórico vasco, el cual es equivalente del presente histórico castellano—. Como es normal bajo el punto de vista del origen y luego en un área de la lengua, **zein** carece de número y puede servir para cualquier supuesto, tanto singular como plural.

La confirmación de que el uso que estudiamos circulaba en la lengua hablada está además en consonancia con el carácter popular de la lengua poética de Dechepare.

EUSKAL IZENDEGIAREN 3. ARGITALPENA AURKEZTATZEAN

Bilbon, 1984, Martxoak 30

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andreak:

Ospakizun honi buruz esan behar zen dena, edo ia dena, esana dute jadanik ene aurretik mintzatu direnek. Amaierako hitz hauetan labur izango naiz, bada. Bi punturi lotuko natzaio soilki. Bata: Euskaltzaindiak Lan Kide Aurrezkiarekin dituen lotura zahar eta aspaldikoak. Bestea: Izendegi honek Euskaltzaindiarentzat duen balioa.

Gaur kaleratzen edo plazaratzen da Euskal Izendegia bere hirugarren argitalpean. Eta beronen aurkeztapena hemen Bilbon egiten dugu, Lan Kide Aurrezkiaren etxean, hain zuzen. Arrazoi bat zen horretarako, hitzetik hortzera gogoratzen zaidana: argitalpen hau koedizio gisa egingo dela, ateratzen diren aleak erdi bana edo ordaintzen dituztela, alde batetik etxe horrek, eta, bestetik, Euskaltzaindiak. Baina gure har-emanak eta loturak Lan Kide Aurrezkiarekin ez dira oraingoak, zahar xamarrek baizik. Atsegin zait Euskararen Liburu Zuria eta Estudio Socio lingüístico del Euskara direlako lan gotorrak hemen aipatzea. Horiek ere Euskaltzaindiak Lan Kide Aurrezkiari eta Siadecori esker burutu ahal izan zituen.

Eta orain Pertsona Izendegia ere, bere hirugarren argitalpen honetan, Lan Kide Aurrezkiaren laguntzaz ateratzen du Euskaltzaindiak.

Liburuska horren lehen argitalpena 1972an egin zen; bigarrena, berriz, 1977an. Oraingoa hirugarrena dugu, beraz.

Beste gauza askotan bezala, Euskaltzaindia, arazo honetan sartu bazen, kanpotik zetorkion eskeari erantzuteagatik sartu zen. Gurasoek nahi izaten zuten euskal izena jarri beren umeei. Legeak ataka hertsia uzten zuen horretarako, baina zerbait bai, eta orduan Euskaltzaindira etortzen ziren euskal izenen bila edo sinestamendu bila. Horrela konturatu zen Euskaltzaindia honelako Izendegi bat prestatzea oso beharrezkoa zela. Ordutik hona denborak aldatu egin dira. Gaur legeak ez du trabarik bat ere jartzen. Eta, dakigunez, gaur edozein hitz pertsona izentzat hartzeraino heldu dira gauzak. Horregatik, kanpoko giroa arras aldatu delako, argitalpen hau ezin izan zitekeen beste biak bezalakoa.

Zer egin behar zen? Erabiltzen diren izen guztiak zakuan sartu? Batetik, hori ez zen posible, eta, bestetik, gomendagarri ere ez. Euskaltzaindiak behar du nolazpait gidari eta ispilu izan. Ez dena sar, baina ez aterik itxi ere. Beraz, halako aukera zabal bat egin da.

Eta lan horren egiteko ardura Euskaltzaindiak Satrustegi euskaltzain jaunari egotzi zion, bera zeregin horri aspaldiko urtetan emana dagoelako eta arlo horretan trebea eta aditua delako. Hori egiaztatu nahi duena bihoa Urdiainera, Satrustegi jaunak han dituen fitxategi galantak miaztera.

Nik badakit gauzak ez direla behin ere denen gostura egiten, eta gutiago eremu honetan. Azkengabeko osina, osin beltza da izenen arlo hau. Arlo edo sail honetan gauza asko dugu oraindik erabaki gabe eta liburu honetan ere ez dira erabakitzen. Baina itsumustuan dena egiterik eta erabakitzerik ez dago. Behar bezalako azterketak egin gabe eta gauzak bere umotasunera heldu artio ezin dira erabakiok hartu. Honekin esan nahi dut liburu hau ez dela zerbait itxia eta osotoro bukatua, urrats bat dela, eta geroago eman daitezkeen urratsentzat ez duela aterik ixten.

* * *

Zerbait gehiago gaineratu nahi dut liburu honen balioaz. Euskaltzainburu naizen aldetik, uste dut hitz bat esatera behartua nagoela, zeren eta zurrumurru batzuk heldu baitira ene belarrietara, liburuak autore jakin baten izena daramalako eta gero segituan Euskaltzaindiaren bilduma ofiziala dela esaten delako. Baina, jaunak, nik horretan ez dut ikusten kontradiziorik edo bitxikeriarik bat ere.

Euskaltzaindiak bere lanak egiteko modu edo prozedura bat baino gehiago du, eta haren agiri eta erabakiak ere ez daude denak maila berean. Esan nahi dut Euskaltzaindiaren agiri eta erabakietan badela mailakatze bat. Ikus hortaz gure Idazkariordearen lana "Akademia-onartze maila desberdinez", gure agerkarian agertua: **Euskera** (1977), 761.

Akademiak gauza batzuk zuzenean egiten ditu, edo, nahiz eta batzorde batek aurre-lana egin, gero batzarreak dena zehatz-mehatz aztertzen eta azkenean erabakitzen du. Honela erabakitako gauzek lehen mailako onarpena izan ohi dute. Hala onartuak izan dira, esate baterako, aditz batua, "H" letrarako hitz zerrenda, ortografi edo gramatika arazo nagusiak, etab.

Beste bide bat izan daiteke batzorde esku uztea gauza eta batzordeak, Euskaltzaindiak emandako ahalaz erabakitzea.

Eta beste bat oraino —eta hau da gure kasua— euskaltzain bati lana agintzea, beste euskaltzainek oharrak eta aportazioak eginez, eta horrela egindako lana Euskaltzaindiak gero orokorki, hau da, hitz denak bana-banaka aztertu gabe, onartuaz. Hau izan da kasu honetan hartu den bidea. Euskaltzaindiak bere onarpena eman dio, ez lehen mailakoa, noski. Ez da posible Euskaltzaindi osoa izen guztiak, hemen dau-denak eta agian egon behar luketenak, arakutzen ibiltzea. Ez luke lana sekula bukatuko eta ez beste ezer egiteko astirik ere izango. Gerta daiteke, beraz, eritzi desberdinak egotea kasu partikularretan, baina Euskaltzaindiaren ageri ofiziala dela ezin daiteke uka. Onarpen maila bat du, ez lehenbizikoa, baina bai bigarren edo hirugarren mailakoa.

Beraz, hemen ez dago kontradiziorik bat ere, eta nahi dut hau garbi geldi dadin. Lanak autore jakin bat du. Beste aldetik, lan hau egiteko ardura Euskaltzaindiak egotzi zion, eta lana Euskaltzaindiak onartua izan da. Beraz, Euskaltzaindiak balio ofiziala eman dio. Ipi-apa guztietan euskaltzain denak bat ez etortzea edo eritzi bereko ez izatea, gerta daitekeena da, baina horrek ez du, den gutiena ere, esan dudana

ezeztatzen edo arriskutan jartzen. Beraz, Satrustegi jaunaren lana da, baina Euskaltzaindiarena ere bada, zeren Euskaltzaindiaren aginduz egin baita, eta Euskaltzaindiak onartu eta beretu egin baitu.

Bukatzeko, Satrustegi jaunari eta Lan Kide Aurrezkiari eskerrik beroenak Euskaltzaindiaren eta neure izenean.

MITXELENAREN HIZTEGIA EGITEKO AKORDIOA SINATU ZEN EGUNEAN

Gasteizen, 1984, Maiatzak 16

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaunak:

Zinez, egun haundia eta pozgarria da hau neretzat (eta barka, *ner*e hori sartzen badut Euskaltzaindiaren izenean mintzo naizen une honetan).

Hogeitamar urte igaro ez badira, ez da urrun egongo, Euskaltzaindiak Hiztegi hau prestatzeko agindua K. Mitxelena euskaltzain jaunari eman ziola. Baina behar bezalako bide eta laguntzen eskasiagatik, eta obra haundi horretarako behar zen girorik ez zelako, eta egileak beste zereginei aurpegi eman behar zielako, eta abar, burutu gabe dago oraindik. Tarte horretan zerbait eta zerbait baino gehiago ere egin dela uste dut, baina maiz gertatzen den bezala, obraren neurriak haundiagotuz joan dira, gizon bakar baten indarrak eta ahalmenak gainditzera.

Zintzoki aitortu behar dut ni euskaltzainburu naizen denbora guztian hau izan dudala kezka eta arrangurarik nagusiena: Hiztegi honen ekintza nola bultzatzea, nola aitzina. Eta noizbait heldu da eguna. Horregatik nioen haundia dela benetan egungo egun hau.

Euskararen auzia bideratu nahi badugu, alde askotarik lagundu beharko diogu. Baina premia bat dago, benetan gorria dena, hots: Hiztegi orokor, oinarrizko, luze, zabal, sakon, ugari eta ondo egindako batena. Horretarako behar da iturrietara jo, euskaraz idatzi den guztia arakatu, euskararen lekuko horiek aztertu eta Hiztegi horretan azterketa guzti horren emaitza eskaini. Zer lana! Gizon bakar batek egiteko, gehiegizkoa. Baina zorionean Mitxelenak gaur baditu laguntzaileak ere.

Euskararen munduan behar aina azterketa egin ez delako, bada oraindik puntu ilunik: zalantza, iratxo, laino eta korapilorik aski. Honelako Hiztegi haundi, zabal bat, euskararen iturburuak xurgatuko dituena, behar-beharrezkoa dugu iluntasun horiek aienatzeko, euskalarien ikerketei laguntzeko, idazle, irakasle eta hizlarietarako behar diren argibideak eskeintzeko.

Badakit jendeak maizenik sakeleko hiztegiak edo liburuska eskuarrak nahi izaten dituela. Kontsultako liburu astunak iraultzeko ez du izaten ez astirik, ez gogorik. Bai; liburu arin horiek ere ongi etorriak izan bitez. Baina bistan da: hiztegi laburrak ongi eginak izateko, luzea eginik egotea eskatzen dute. Zabaletik mehea atera daiteke, baina ez alderantziz. Hori ez dugun bitartean nekez emango dugu ganorazko urratsik.

Honekin ez dut esan nahi orain arte ez dela ezer egin. Guztion gogoan dago Azkuek egindako Hiztegia. Baina hura egin zela badira 80 urte. Bere garairako Azkuek lan oso ona egin bazuen ere, hiztegi horri gaurkotu eta osatu beharra antz ematen zaio. Alde batetik, ordutik honera euskarak bere bidea egin eta hitzetan halako hazkunde bat ezagutu duelako; eta bestetik, joan mendeetako altxorra ere ezin izan zuelako erdizka baizik baliatu. Gaur, berriz, orduan ez zeuden tresnak ditugu —ordenadorea etab.— lan guzti hori behar bezala egiteko aukera ematen digutenak. Hain zuzen, Azkueren hiztegia hobetzeko asmotik sortu zen gaur eragin nahi dugun beste Hiztegi hau.

Baina ez naiz hemen hasiko hiztegigintzaren arloan orain arte egin diren lanak kontatzen. Arlo honetan lan egin duten guztiei esker ona zor diegu, noski. Eta badira laguntza eskasiagatik oso aspaldiko hiztegiak oraindik argia ikusi gabe daudenak.

Aita Larramendiren hiztegia Gipuzkoako Diputazioaren laguntzari esker agertu zen. Azkuerena, berriz, Bizkaiko Diputazioari esker. Bi horiek bezain “suertoso” edo areago gertatu zara zu, Mitxelena!

Bai. Euskaltzaindiaren aginduz Mitxelenak egiten duen Hiztegi orokor honek aurkitu du noizbait eta zorionean behar zuen Mezenas, eta ez nolana hiko: Eusko Jaurlaritza eta Diputazioak. Eskerrik asko, jaunak!, Euskaltzaindiaren izenean. Berriz ere diot: Egun haundia da hau euskararentzat eta Euskal Herriarentzat.

Segur naiz, laguntza honekin burutuko den Hiztegi hori tresna ezin utzizkoa bihurtuko dela ikasle, irakasle, euskalari, hizlari, idazle, eta, hitz batez esateko, euskara sustraitik ikasi eta menderatu nahi duten guztientzat.

Eskerrik asko, bada, Jaurlaritza eta Diputazioei, eta zorionak zuri, Mitxelena, hainbeste urtez itxaroten egon ondoren, azkenean zeure ordua heldu zaizulako!

MAHAI INGURUA BILBON (1984-V-23)

Alfonso Irigoien

Bilboko Aurrezki Kutxak Euskaltzaindiko zenbaiti dei egin digularik “Euskarekiko gaurko ekintza eta gerorako asmo”-en gainean hitz egin behar omen dugu. Zehatz esaten ez bada ere, programa irakurririk edozeinek normalki pentsatuko luke Euskaltzaindiaren ekintzez jardun behar dugula, baina berez berdin izan liteke Euskal Herria orokorki harturik hitz egitea, azken finean euskararen motorra euskaldun ororen artean eraginik aurkitzen ez baldin bada, edozein koloreko direla, alperrik baita Euskaltzaindian aurki dadin nahi izatea eta mirakuluren baten zain gelditzea.

Edozein modutan ere argi dago ni ez naizela hona Euskaltzaindiaren apologia egitera etorri, baina ezta kritikarik ere. Hori zuei dagokizue.

Euskaltzaindiaren zeregin nagusia, gure artean behar beharrezkoa dena, ingelese artean horrela ez bada ere, eta Akademiarik batere behar ez badute ere bere hizkuntzak munduan zehar nahikoa hedadura handia izan dezan, Euskaltzaindiaren zeregin nagusia, diot, gure hizkuntzaren erabileraz normak ematea da, eta hori da hain zuzen ere bere existentzia justifikatzen duen ardatz nagusia, jagon saila hastape-netik bertatik ezinbestean sortu bazitzaion ere, azken finean jagon saila, gure artean ulertzen den bezala, hau da, Euskararen bizirik irautea bera zaintzea, Estatuari baita-gokio. Agian hori ere egunen batean zeharo bere bidera etorriko dela espero izan dezagun, lehenago teilagin-tejeroak eta miru-milanoak, nolabait eta ahal izan den era-ra jartzen hasirik dauden zimendu berriak desegiten saiatzen ez baldin badira.

Arlo honetan Euskaltzaindiak zerbait egin du gerra ondoko urteetan hasirik:

Lehenengo planteatu zen problema oso sinplea izan zen, baina axola handikoa. 1959-garren urtean, hain zuzen ere hemen, Bilbon bertan, Diputazioaren Bibliotekan, Euskalzaleen Biltzarra izan ondoan adirazpen bat zabaldu zuen euskal hitzak zein diren definizioa eginik. Gaur askori harrigarria iruditzen bazaio ere beharrezkoa zen hori egitea, eta **zeru** hitza erabili behar zela eta ez **donoki**, **eliza** eta ez **txadon**, esatea, mitoa deseginik, hau da, euskal hitza zein den usuarioak markatzen duela finkatzea, zenbat eta zaharrago, hedatuago eta sustraituago izan, hainbat eta erabilgarriago dela oinarritzat hartzea, duen jatorria alderdi batera utzirik. Halakoak, noski, bide horretarik abiatuz gero, ez lirateke erdal hitzak, erdaratikoak baizik. Beraz euskararenak (1).

(1) Mahai inguruan esanikakoari ohar hau eransten diot. 1956-garren urtean neuronek nuen Aita Berriatua-k sorturikako **Anaitasuna** aldizkaria ateratzeko ardura osoa, eta hiru aletan **Euskalzaleen txokoa**

Adierazpen horrek bere denboran hautsak astindu zituen bazterretan, eta geroago burruka hatxistikoak sortu zituen adina esames ekarri zituen, orain ahaztuxerik gelditu badira ere. Egia esateko, geroago hatxearen inguruan sortu ziren eztabaidek ahaztu eragin zituzten aurrekoak, eztabaidotan beretan praktika bestelakoa bilakatu baitzen, bestela ezin baitzitekeen, harriak berantz erortzen baitira, gorantz erortzen direla esan nahi bagendu ere. Artean iragana zen Krutwig-ek Lapurdiko euskara klasisokoz, hori ere Bilbon bertan, Aita Luis Villasante Euskaltzaindian sartzerako hitzaldiari egin zion erantzuneko garai hura. Ene ustez adierazpen simple horrek posible bihurtu zuen gure hizkuntzak geroago ezagutu duen eta oraindik ari izanik garatzen duen bidea, purismoaren muga hestuak apurturik gelditu baitziren. Alderdi horretarik axola handikotzat har daitekeela uste dut.

Gero 1968-garrenean Arantzazuko bigarren Biltzarra egin zen, —lehenengoa 1956-garrenean izan zen Euskaltzaindia, frankismoaren denbora bereko giro bihurri eta itogarri hartan, jendartera modu zabalago batez nolabait agertu zenekoa—, eta han euskara batuaren problematikari adarretarik eusten hasi zitzaion, harako arrazoi biologiko famatuak ere aipatu zirela, jende gazteagoa, Krutwig lehenago bezala, ha-

(**aberastu zure iztegia ta konzeptuak**) zeritzana neure eskuz bete nuen, hain zuzen ere orduan korritzen zuen ohitura bat zuzentzeko asmoz. Ohitura horren arauera esan nahiaren aldetik berdintsu —baina ez zeharo berdín—, ziren hitz pare askotan bakoitzak zuen ñabardura bereziaren kontra jokatzeko, erdaratikakoa zena zeharo baztertzearen bitartez besteari, —ustez garbia zenari—, ematen baizitzaion bakarka indar osoa. Arrazoi horregatik **oben** eta **pekatu** ez zirela bat adierazten nuen, **mirari** eta **milagru** ere bat ez ziren bezala, ez **santu** / **saindu** eta **guren**, —gogoratu Orixe-ren **Agustiñ gurenaren aitorkizunak**, Zarauz 1956—, ezta **apostolu**, **mandatari** eta **bidali** era —gogora ekarri Zaitegi-ren **Bidalien egiñak** liburua—, ezta **abade**, **fraille** eta **sazerdote** ere.

Honela dio **oben** eta **pekatu** hitzei dagokienak: “Erlojuak obenak egiten ditu. Kristiñauak pekatuak. Pekatua egiteko borondatea bear da; obenak egiteko ez”.

Apostolu eta abarri dagokiona: “**Apostolua**, **mandataria** ta **bidalia** ez dira bat. Apostoluak amabi dira, Jesukristo-k bidaliak, Jesukristoren mandataria. Bidali bat ezta iñok bidaltzen, mandataria bat baiño. Jesukristo-k bere mandataria bidali euskuzan bere mandatu miragarriagaz: evangelioagaz. Mandataria apostoluak dira. **Apostolu** izenak, gero, bere zentzuna zabalago egin dau, eta apostolua erlegiñoaren alde fede aundiagaz lan egiten dauenari be esaten jako, eta edozein metaforatan erabili leiteke, itz guztiak lez. Adibidez: “Mogimentu orren apostoluak...” Esakuntza onetako **apostolu** itza eztagoko Jainkoaren mandatarieri, ezta erlegiñoaren alde lan egiten dauenari be; irudi bat baiño ezta”.

Eta abar, ikus **Anaitasuna**, n.º 32, martia-aprila-maiatza 1956, n.º 33, bagilla-garagarrilla 1956, n.º 34, agostua-iraila, 1956.

Egia esateko Larramendi-ren 1745garren urteko hiztegi hirueldunean agertzen da **mirari** hitza, honela: “**Milagro**, **mirá**, **miraria**, **milagroa**”, eta ‘mirakulu’ zentzuan Lardizabal bere gramatika jarraitzaileak ere erabili izan du joan den mendean **Testamentu zarreco eta berriko condaira edo historia** liburu 1855-garren urtean lehenengo aldiz argitarata zenean, —Azkue-ren hiztegian Mogel-en **Peru Abarka** aipatzen da, 46 orr., 14 lerr., ‘prodigio, milagro’ itzulirik—: **Jaincoaren escuetate artutaco mesede miraritsua**, bigarren ediz., 123 orr., **Moises-ec**, **bada alimbeste mirari eguindaco maquilla Cucha santaren ondote arturice**, **aurrean ceucan arrian bi aldiz jo zuen**, ..., id. 110 orr.

Azkue-k, bere joeraren arauera, ez du Larramendi aipatzen, Mogel baizik, eta gainera itzulpenean ‘prodigio’ zentzu zabalagokoa ere ipintzen du. Honela dio **Peru Abarka**-k: **Ac uste dau eztaguala bea leguezo Barberuric Bizcal guztijan: bein banaan ateraco deusuz eguin dituban osagintza mirarirao jo eraguitecuac**, 46 orr.

Ifarraldekoen artean normalki korritzen duen **mirakulu** forma mundu kristauan duen zentzu zehatzeko Euskal Herri osora hedatu ezinik ez dago. Horrela **mirari** erabiltzerakoan **mira** egin, **miraritu**, **miratsi**, **miragarri** eta halakoetan duen zentzu zabalagoan murgil liteke, erdaraz ‘cosa admirable’.

Beste alde batetik **sazerdote** hitza normalki agertzen da, esaterako, Olatxearen Bizkaiko dotrinan, XVIII-garren mendean zabaltzen hasi zen hartan: **Noc ofrecietan dau Sacrificio au? Jesu-Cristo gueure Errendoreac Sacerdoteagaz batera**, eta ..., 117 orr.

txe zalea bilakatzen hasirik agertzen baitzen, euskararen batasuna bide horretarik abiarazteko asmoz.

Horren ondorik aditz batuarena bi txandatan egin zen eta berez esamesen alde-
tik, erabaki zailagoa baitzen, hatxearenak baino gehiago ekarri behar zituzkeen, teo-
riaz behintzat, baina nahikoa mantso joan zen dena.

Hamar urte geroago Bergara-koa egin zen eta handik atera ziren euskal erakus-
leen finkatzea, deklinabidearena, busti palatalen grafiaren kontua eta hain zuzen ere
hatxearena zehazki zein hitzetan erabili behar zenarena, zeren Arantzazu-koa
gomendiozkoa besterik izan ez baitzen, nahiz eta praktikan azkenengo mutur eta
ondorioetaraino eraman izan zen inola bultzatu behar izan gabe ere.

Orain maileguzko hitzekin gabiltza: Euskaraz hitz berriak maileguan hartzeko
premia legokeenean nola har litezkeen, eta jadanik zenbait erabaki harturik badaude
ere, oraindik beste batzu falta dira, eta amaitu bezain laster emango dira argitara.
Jakina, hemen esan beharra dago, begien bistakoa bada ere, gu Europako herri bat
garela, eta Europa-ko kulturaren erroak Grezian ditugula, gure artera latinaren bidez
hedatu badira ere, eta guk ere hor parte hartzen dugula.

Gogora ekarri nahi nuke, hain zuzen ere, Arzallus-i, gaur bertako **Deia**-n irakur
daitekeenez, "el Loco de la colina" erradioko lokutoreak gaueko emisio batean galde-
tu berri diona: "El euskera es un idioma muy limitado? ¿Puede escribirse sobre eco-
nomía o sobre filosofía en euskera?", behin Suarez Espainiako gobernu presidente
ohiak, konturatu gabe eta publikoki ager zedin nahi ez zuela, abioian aidean hegan
zihoanean adierazi zuen gisara. Nik neuk itauna alderantziz egingo nuke: eta gaztela-
nia gauza ote da gai horiezaz berezaz idazteko Greziako iturrietara jo gabe, eta, jaki-
na, Greziako hitzetara, latinaren bidez iraganik? Eta haiek ezinbestez, eta gainera
dotoreziaz, hori egiten baldin badute zein legek galerazten digu guri iturri komun
berean edateko eta dotorezia berdinaz erabiltzeko?

Gaztelaniaz, esate, baterako, mundu guztiak ezagutzen du **dosis** hitza: **Ha
muerto de una dosis excesiva de heroína**, edo **de una sobredosis**, maiz irakurtzen
denez berrikitan hedatzen hasi den droga mundu erotu horren inguruan. Baina **dosis**
hitz grekoa besterik ez da, medikuek zabaldu dutena, nahi ta nahiez aspaldidanik
Unibertsitate munduan mugitu behar izan baitute, enplastero huts izan nahi ez baldin
bazuten, eta azken finean **enplasto** hitza bera ere grekotikoa da: latinez **emplastrum**,
-i, grekoko **έμπλαstron**, ou, eta bada **emplastón**, -ou, aldaera ere.

Hitz bakoitzak bere historia eta ingurua du eta gu ezin geldi gaitezke historia
horretarik bazterturik, gure hizkuntza zeharo desager dadin nahi ez baldin badugu.
Hori berori egin dute Europako hizkuntzarik nagusienean, alemana eta ingelesa leku-
ko, nahiz eta hizkuntza germanikoen kasuan haiek latinean eta grekoan iturririk ez
duten, indoeuropeoak badira ere, eta izan ere hizkuntza klasikoek ikertzea guk ere,
haiek bezala, berdin berdin dugu beharrezkoa. Horrek ez du esan nahi geure iturri
bereziak ere begiratu behar ez ditugunik, hori, jakina, ahal denik eta sakonen ikertu
behar baitugu.

Eta honekin bete dut nire txandari eskaini zaion denbora.

(Mahai inguruan parte hartu zutenak:

nizaz landara,

J. Haritschelhar,

J. San Martin,

J. M.^a Satrustegi,

E. Knörr-ek moderatzaile egin zuela)

AZKUEREN HIZTEGIAREN ARGITALPEN BERRIA AURKEZTEAN

Donostia, 1984, Maiatzak 25

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Jaun-Andrea:

Pozez beterik aurkezten du gaur Euskaltzaindiak Azkueren Hiztegi handiaren argitalpen berria. Tomo gotorra eta galanta, Mitxelena jaunaren azterketa lan bat sarrera gisa duelarik. Bai. Bazen ordua, baina noizbait heldu da ordu hori!

Hiztegi honek ez du aurkezpen luze baten beharrik. Esan hau inoiz ongi esana egon bada, kasu honetan, noski. Azkueren hiztegia ezaguna da, oroz estimatua da. Igaro dira 80 urte kasik lehen aldiz agertu zenetik, eta bitarte horretan euskal hizkuntzaz arduratu izan diren guztien estimua bereganatu du. Euskal idazleek honera jo behar izan dute argibide fidagarrien bila, eta berdin hizkuntzalari eta linguistek.

Orixek zioen bezala, Hiztegi hau izan da mende hontako guztiontzat “euskera onaren iturri” (Euskal literaturaren atze edo edesti laburra”, *Euskal Esnalea* (1927), 250). Eta Schuchardt hizkuntzalari famatua loriaturik eta pozez jauzika jarri zen, orain euskarari buruz berri zehatzak non ikasi bazuela eta. Mitxelenak sarrerako lanaren Eskeintzan esaten duenez, Azkuek Bizkaiko arbola zaharren gisara, eskuak betean zabaldu zituen ondasunak, euskaldunontzat eta erdaldunontzat, guztiok ezagun eta maita genitzan.

Gure mendean euskara lantzeko arrangura sentitu duten guztiak Hiztegi honetara jo dute, bada. Hegoaldean behintzat. Ez dugu ahaztu behar Iparraldean badutela Lhanderena. Eta Hegoaldean ere, Azkuerenaz gainera, badira beste zenbait; baina guztion aita, aita erraldoia, Azkueren Hiztegia dugu.

Azkueren Hiztegi hau, lehen esan dudan bezala, orain dela 80 urte egina da. Lehenagoko euskal idazleek nora jotzen zuten? Larramendirenera, noski. Baina hiztegi honetan ondasun franko badela ukatu gabe, bestelakorik ere asko dela aitortu behar, garia eta oloa nahas-mahas.

Horregatik, Azkuek Larramendirena baztertu behar izan zuen, eta obra berria zimendutik egiten hasi. Horretarako herriz-herri ibili zen, txango luzeak mendiz egin zituen baserritar, artzain eta ikazkinekin egoteko, zahartegietako aiton-amonatxoekin mintzatu zen, euskal idazle zaharren liburuak miratu zituen, etab. Horrela eskeini ahal izan digu uztza ugaria, jatorra eta fidagarria.

Bere burutik asmatzen ibili gabe zuzenean iturburuetara jo zuelako eta iturri horien sinestamenduak beti leialki ematen dizkigulako, eskubide osoz du Azkueren Hiztegiak fama ona irabazia.

Ez da, noski, Azkue izan gure artean hiztegi sailean lana ongi egiten saiatu den bakarra. Zaharretan hor dira, adibidez, Pouvreau, Harriet eta Hiribarren, baina zoritarrez horien lanak gaur ere oraindik argia ikusi gabe daude. Gure mendean eta gure egunetan izan dira eta badira beste zenbait hiztegitza sailean lan egin dutenak: Iparraldean Tournier-Lafitte eta Haize Garbia; gure artean Plazido Mujica, Bera-Mendizabal, Gaztelu-Auñamendi, Diccionario Retana de Autoridades, Kintana, L. M. Mujika, Montiano, eta barka denak izendatzen ez baditut. Denei esker ona zor diegu, noski. Baina horrek ez du den gutiena ere kentzen Azkueren Hiztegiaren balioari buruz esan duguna.

HAUTA LANERAKO EUSKAL HIZTEGIA

1. tomoa: A - Aurten

Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialeko Ordezkararen hitzak

Arratsaldeon, jaun-andereok! Eta eskerrik asko *hauta lanerako euskal hiztegia*-ren aurkezpen honetara etorri zaretelako. Ibon Sarasolak daraman lana duzue hau eta honetarako Koldo Mitxelenaren lankidetzeta eta aholkularitzarekin kontaktatzen du.

Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintzialak babestu eta argitaratzen du lan hau. Hori dela eta, argi eta garbi diogu lan honen argitaratzea benetan garrantzi handikoa dela. Garrantzi handikoa, ez prexiso gure hizkuntza eta kultur ondarearen kutxan obra bat gehiago sartzen delako. Ez horregatik bakarrik. Garrantzitsua da, batez ere eta funtsean, hiztegi honek euskararen finkapen eta aurrerapenari begira ekarpen erabakiorra suposatzen duelako. Hau da arrazoi nagusia. Zentzu honetan, gaurko egingintza hau, jendeari lanerako eskaintzen zaion lan-prozesu luze eta aberats baten lehen emaitza da, ondoko urteetan segida izango duena.

Egokiera dugunez gero, ez genuke esan gabe utzi nahi, alegia Gipuzkoako Aurrezki-Kutxa Probintziala beti egon dela kezkatua euskararen sustaketari dago-kion guztian.

Gauza jakina da, bestalde, Kutxa finantz erakunde bat dela eta beraren eginkizun nagusia, noski, gehienbat ekonomikoa dela. Arazo ekonomikoek, batzutan, ez daukate zerikusi handirik kultur mailako planteamentuekin. Zentzu honetan, ordea, esan behar da gure erakundea asko saiatu dela, berak ahal izan duen neurrian saiatu ere, bi helburu horiek, ekonomikoa eta kulturala, batera bideratzen eta herriaren zerbitzura jartzen. Euskarak, gaurregun, garrantzi handia du Kutxaren bizitzeta finantzarioan. Euskara sartuta dago erakundearen antolakuntzan bertan, zerbitzu-sailean eta baita gestioan ere.

Inguruan daukagun gizarte honi egunero eskaintzen zaion zerbitzu honen barruan euskara presente baldin badago ere, aipagarriena, Kutxaren alderdi soziala bera da, gizarte-helburu honek ematen bait dio bere esanahi beteeta kultur zeregin osoari.

Honela, euskal kulturaren arazoa, gizarte-ekintzaren ikuspegitik begiratzen bada, esan behar da beharrian kolektibo asko daudela egiteko eta mota askotakoak, gainera. Hor daude, batzu aipatzeko bakarrik, asistentzia lana, ikerketa-lana edo irakaskuntzarena, eta besterik. Kutxa, guzti hauetan hor baldin badago ere, batez ere euskararen aldeko iharduera-mota desberdinetan dago, esaterako: sorkuntza-sailean,

argitalpenetan, kultura gizarte-maila guztietara zabaltze-lanean eta, bereziki, gazteen artean, irakaskuntzan eta herri-mailatik datozen inizatiben sustaketa eta laguntzan, eta antzekoetan.

Hemen laburki azaldu ditugun ideia solte hauek aski dira guk lana nolako erizpideren arabera egiten dugun jakiteko. Lortzen diren emaitzak, positiboak direla uste dugu. Gure lanaren jarraitasun honen barruan, egiten diren lan guztiak garrantzitsuak badira ere, liburu honen aurkezpenak esanahi berezia du. Zergatik? Ba, gure hizkuntzaren eboluzioan oinarritzko zutabeak finkatzen dituelako. Oinarri horien gainean eraikiko dira, neurri handi batean, geroke beste lanak.

R. M.^a AZKUE-REN GORAZARREZ LEKEITION

1984-VIII-5

Alfonso Irigoien

Agur Bilboko Apezpiku jaun, Gasteizeko Parlamentuko buru, Eusko Jaurlaritzako kultura ordezkari, Bizkaiko Diputazioko ordezkari, Lekeitioko alkate eta gainerako jaun andre guztioi.

Euskaltzainburua ezin etorri izanik niri utzi dit bere ordez R. M.^a Azkue Lekeition honetako seme handiari egiten ari gatzazkion gorazarre etortzeko kargua, eta Eusebio Erkiaga euskaltzain lekeitiarra ere hemen dugunez gero bion artean egingo dugu.

Euskal Herriak zor handia duela orain ehun eta hogeitaz urte hiri honetan jaio zen gizon erraldoiarekin esaten badut, ez dut egia aitortzea besterik egiten.

Sabino Arana Goiri-rekin batera, Azkue-k Euskal Herrian Foruak galdu ondoko aro berria markatzen du.

Euskal munduan eta ikerketa lanean ari garenok denok edan eta edaten dugu haren iturritik eta egungo egunean ere, zehaztasunaren bila goazenean, bere hiztegi nagusiaz baliatu beharrean aurkitzen gara, oraindik ez baita osoagoa, hura oinarri harturik, agertu, hark lehenengo aldiz argitara eman zuenez gero laurogei bat urte iraganarren, eta gero ere haren lekukotasuna behin baino sarriago begiratu beharrean geldituko gara.

Beldurrik gabe esan daiteke gerra ondoko euskara idatziaren bideek haren lorratza daramatela.

Izan ere Azkue-k euskara batuaren lehenengo urratsak eman zituen eta geroago hartu izan den abiadaren aurrelari agertzen zaigu. Hor dugu lekuko **Ardi galdua** literatura lana, elaberria, lehenengo, eta bere lan teoriko, **Gipuzkera osotua**, gero.

Euskaltzaindia sortzearen atarian Azkue oinarritzko gizona izan zen eta behin sortuz gero gorputz eta arima lotu zitzaion hari, buru izanik bizi izan zen artean.

Ez dugu ahaztu behar gure hizkuntzarentzat urte latz izan ziren gerra ondoko haietan, bere zahartzaroan, Euskaltzaindiari segida eman ziola Bilboko Erribera kaleko bulegoetarik, behinik behineko baino izan ezarren luzaro iraun duten haietarik, eta apurka apurka handik hasi zela bide hartzen kanpora begira, plazara begira, gure hizkuntza, eta ilunbetarik atera, aldakuntza politikoaren aurretik eta atari modura.

Orduan egin zitzaion, oraindik bere jaiotzaren ehunurteurrena bete gabe, gorazarre handia Bilbon. 1956-garren urtea zen eta **Euskera** aldizkari bigarren aldiz ate-

ratzen hasi berrian tomo bat osoa eskaini zitzaion, eta jende euskalduna beldurrak uxatzen hasi zen gerra ondoko giro hestu eta itogarri hartan.

Baina egungo egunean egiten ari garen bigarren parte hau falta zen.

Euskaltzaindia sortu ondoan, Aita Sainduari ere bisita eginik, behar ziren tokietan Azkue-k ahaleginak egin zituen orduko Apezpiku jaunek, eta bereziki Gasteizekoak, ofizialki euskarari ere leku eman ziezaien fidel euskaldunei izkribuz zuzentzerakoan, gauza hau egungo egunean harrigarri iruditzen bazaigu ere. Apeza zen aldetik fin jokatu zuen horretan. Goizeon Bilboko Apezpikua euskaraz eta erdaraz oro gogoan harturik ari izan da, orain ohitura den legez eta orduan Azkue-k nahi zuen bezala, edo hobeto oraindik, Apezpikua gainera orain euskalduna baita.

Azkue-k, alabaina, beste zenbait alderdi ere izan zituen, hala nola musikarena eta folklorearena. Goizeon, hain zuzen ere, gozatu ditugu belarriak haren zenbait konposizio entzunik. Haren lanek, zerrendan ipiniz gero, Bibliografia luzea osatzen dute, liburu ugari utzi baitzizkigun.

Orain haren gorpua Lekeitioko Elizan ehortzirik dago eta ohore egiten zaio eliza aurrean ipini zaion irudi sinbolikoaren bidez.

Izan ere bere jaioterrian egiten diogun omenaldia zorra betetzea besterik ez da eta ezin geldi gaitzke erantzuna eman gabe eta erantzun hori euskarari dagokionez haren bideetan zehar joatea da euskaldun erako burua landuz eta geroago eta hobeto jantziz, gure herrian jakituriaren giroan euskalduntasunak etorkizunean sekula sekulorunetan iraun dezan. Hala izan bedi.

HILBERRIAK

MAÑEZ ERDOZAINTEZ-ETXART (1934-1984)

Frantxiskano eta apez; idazle eta poeta.

Mañez, 1934-eko uztailaren 15-an sortu zen Ibarla herrian, Pekoetxean. Zortzi senide ziren familian. Zortziak mutikoak. Eta Mañek senideetan seigarrena. Bedera-tzi urte zituelarik etorri zen Donapaleuko frantxiskanoetarat eta hemen hasi egun batez frantxiskano izaiterat helduko zuten ikasketak.

Mutiko argia zen, Mañex, eta langilea. 17 urtetan hartuko du frantxiskano ar-ro-pa Pabeko konbentuan. Eta urte berean, 1951-ean, nobiziadoa egiterat Quimpererat joanen da. Lendabiziko botoak egin eta, erran nahi baita frantxiskotar anai gisa lehen engaiamendua hartu eta, joanen da Beziers-erat filosofia ikasterat. Handik Paberat eta Orsay-erat teologia egiterat.

23 urte bete berriak zituen LARRART Apezpiku misionest ohiak apeztu zuela-rik 1957-ko uztailaren 20-an Donapaleuko frantxiskanoen elizan. Apeztu eta urte bat eginen du oraindik Parisen, Pastoral ikasketak egiten. Eta gero bere nagusiek Dona-paleurat igorriko dute, eta hemen predikari gisa ainitz herri kurrituko du. Euskaldun Gazteriaren omonieraren laguntzaile suhar eta segurra bilakatuko da denbora berean.

Zenbait kargu eta lan

1963-an Akitania Probintziako Frantxiskanoen kapituluan edo biltzarre nagu-sian, probintziako idazkari edo sekretario eginen dute. 1965-an Nagusiek Pariserat igorriko dute estudioen egiterat. Eta ikasketak bururatu eta Tolosarat frantxiskano gaien maisu eta artatzaile. 1969-an beste zerbitzu bat gehiago galdegina izanen zaio; ikasleen arduradun segituz, konbentuko nagusi edo guardiano izendatuko dute. 1978-ean Probintzial izendatua da. Erran nahi baita Akitaniako Probintziako frantxiskano guzien buru edo nagusi.

Horra frantxiskano mailan edo gure artean ukan ditun zonbait kargu, eta egin dituen zonbait lan. Bainan bertze kongregazione zonbeitek ere galdegin izan dizkiote, Mañexi zonbait zerbitzu. Hala nola serora batzuk ukan duten gidari eta argitzaile beren konstituzioneak berritze eta egungotze lanean. Karia hortarat izana zen orai dela bi urte Ipar Ameriketara eta iaiz Inghaterran.

Bainan nik uste Euskal Herrian ereman duen saila ere haundia izan dela eta abe-ratsa. Etxarriko eskolan eskola emaila ezaguna eta estimatua zen. "Fededuna" k tal-dearekin ere egin zuen lan. Bere ikasketak psiko-soziologia eta talde-dinamikaz egi-nak zituenez, ainitz elkartek galdatu diote laguntza. Hoiene artean "Seaska" k. Amnesty-Internazional-eko partaide ere zen. Ikusten duzuten bezala, aita Mañexek hunkitzen zuen eremua eta zeraman hildoa garrantzitsua edo inportantea zen.

Euskaltzale suharra

Euskaltzale bete-betea izan da. Eta nik uste bere bihotzaren taupada edo pilpirarik hoberenak Euskal Herriari eskaini dizkio. Eta Euskaltzaindiak edo akademiak haren lan ederra eskertzeko eta aintzina eginen zituenak akulatzeko, Euskaltzain urgazle edo laguntzaile hautatu zuen 1983-eko apirilaren 27-an.

Ba du aintz idatzirik, artikulua eta beste, hitz neurtuz eta prosaz. Bietan luma gozoa, atsegina eta aberatsa erakutsiz. Bere lan eta poesiak agertu izan ditu: *Gure Herria* eta *Herrian*; *Gazte* euskaldun gazteriak zuen aldizkarian. *Elkar*, *Euzko Gogoa*, *Egan*, *Jakin*, *Olerti* eta *Maiatz* ipar alde huntan agertzen den aldizkari berrian.



Ba ditu bi liburu argitaraturik: “Hinki-Hanka” 1978-an agertu zen poesi liburu; eta “Gauaren atzekaldean” 1982-an atera zen nobela.

Bere poesia batzu kantatuak ere izan dira: hala nola, “Sinesten dut” Peio ta Pantxoak kantatzen dutena. “Egia garesti dela” eta “Mundu Zabalerako” Gure-Bidea taldeak kantatua. Ortzeikin taldeak ere erabili ohi zuen bere emankizunean Mañexen poesia bat. Nekez ari, Garaziko taldeak kantatu ohi ditu bizpahiru poema.

Ez dugu ahanzi behar “Herriz-Herri” astekariaren legezko zuzendaria, aita Mañez zela.

Beste poesi eta lantxo batzuek ere aurkitu ditugu bere paperen artean, sekulan argitaratu gabeak. Eta baginakien ere teatro bat izkiriatzeko asmotan zebillela. Eta zenbat aldiz etzaukun agertu izkiriatzeko sendi zuen tirria. Bainan denborarik etzuen gure Mañexek. Lan ainitz eta okupazione nasaiak zituenez, ebaska bezala arizen bere poematxoak zirri-marratzen. Eta gero, noiztenka, gauari denbora ebatsiz garbian ezartzen zituen

Egia da, ainitz utzi daukula. Oparoa eta emankorra izan dela bere bizia. Bainan oraino ainitz igurikatzen ginuen aita Mañexenganik. Baina, Mixel Xalbadorrek, hortzketako egunean kantatu zaukun bezala: “Adinik eta ordurik errespetatzen ez duen horrek” ereman zaukun betikotz gure artetik. Ez adiorik, Mañez! Egun haundia arte!”


Santos Beloki

MIGEL ANGEL ASTIZ (1919-1984)

Migel Angel Astiz Iglesias, Iruñean jaio zen 1919.eko Irailaren leian eta Barakaldon hil aurretik, Maiatzaren 16an.

Iruñeko Eskolapioetan egin zituen bere ikasketak, lehendabizi, eta gero Donostiako Merkataritza Eskolan. “Perito Mercantil” titulua zuen batetik eta bestetik, kazetari. Beste euskaltzale askoren antzera autodidakta zen beste arlo ugartan.

Kazetari zen batez ere beste gauza guztien artean. Bihotz handiko kazetaria eta euskaltzalea.



Nik ere kazetari bezala ezagutu nuen. Hain zuzen 1962 urtean Gerediagako Salbadore ermita erori zen eta “La Gaceta del Norte”ra deituta bera etorri zen erreportaria egitera. Berari esker arduratu ziren orduko agintariak —oroitzen naiz Ibañez Freire zela gobernadore zibila, eta berak bultzatu izan behar izan zuen Diputazioa

eta baita merinaldeko hamabi alkateak ere laguntza emateko— eta Durangaldeko monumentu historiko hura berriztatu zen. Handik egun batzuetara, 1962.eko Otsailaren 23an bion artean egin genuen lan bat, hain zuzen Atxondoko hiru udalek: Arrazola, Axpe eta Apatamonasterio udal batetan fusionatzen edo elkartzen zirela. Arrezkero, hainbeste ekintzetan, batez ere kulturakoetan izan dut lagun, laguntzaile edo lankide eta baita ere adiskide min. Herkide ere bai, biok, hiri beren sortuak bai ginen. Hori ere ez zitzaion ahazten.

Oraintsu, Martxoan hain zuzen, omenaldi bat eskaini genion askoren artean, gure Foru Diputazioa aurrea zelarik. Egundak haretan ikusi nuen azkenengoz. Omenaldi bikaina. Egia esateko, orain hogeitatu urte eskeini zitzaion Begoñako jatetxe batean beste bat, behar bada barnekoia goa, zeren eta orduan ikusi bai zen zenbat adiskide zituen, kolore guztietakoak gainera, erakunde ofizialekoak, ordukoak noski, kultura mundukoak, eta baita ere ez zen asko igarri behar klandestinatean zebiltzatenak ere... Ororrena bai zen adiskide eta lagun.

Euskaltzaindiak 1958.eko Apirilaren 24ean izendatu zuen euskaltzain urgazle, bakarrean. Esan behar da Francoren garaian ez zuela izango Euskaltzaindiak bere ekintzen pregonerua hobeagorik Migel Angel baino. Zenbat artikulua Akademiari eta euskarari eskainiak! eta orduan urri ziren, hori ere kontutan izan behar da. Euskaltzaindia gerra ondoren bertsolari saioak egiten hasi zenean han egongo zen Migel Angel, bere erreportaia egiten. “Euskerazaleak” elkartearen Zuzendaritzako ere izan zen, eta laguntzaile purrutakua. “Kili Kili” umeen alfabetatzen aldizkari eta ekintzarena ere.

Kazetaritzan 19 urterekin hasi zen eta horretan iraun du azkenerarte. “El Pensamiento Navarro”n 1939tik 1955erarte, handik arrezkero “La Gaceta del Norte”n, hau itzali arte, edo hobeto esan, honek bera zokoratu arte. “Gaceta”k hainbeste irakurle euskaltzale beragatik zituen urte ilunetan, gero egunkaria, egoera demokratiko batean, gezurra badirudi ere, bera ilundu bai zen inoiz baino bortitza. Hara horretaz zer esaten zidan Migel Angelek joan den Gabon Zahar egunean egindako gutunean: “... Mi querido amigo: Cuando pasa la nube de las tarjetas de Navidad, puedo escribirte unas líneas. Estoy al borde-borde de la jubilación, y seré libre si tengo lugar en el que decir algo que no he podido. He vivido una etapa triste, discriminado, pagando lo que he hecho durante tantos años, sufriendo el “cambio a peor”, muy a peor según creo. La jubilación creo que será como una liberación, después de salir de la mañana de la dictadura de antes, y el corsé de acero de la nueva línea (¿nueva?)...” eta hurrengokoan, Urtarrilaren 26koan: “... Querido José Luis: Un abrazo, nada más llegar a casa, después de vivir unas horas en paz, con el caldo de la nueva amistad, de los recuerdos, y de tantas cosas, de “matar” el tiempo gratamente. Quiero puntualizar cómo con los cambios de dirección en “La Gaceta”, terminó la etapa de lo vasco, y ha vuelto a la peor etapa de su vida. Te digo esto, para ampliarte un poco la respuesta a tu pregunta. He vivido, trabajando densamente durante una larga etapa de años, entregando todo mi tiempo, todo mi esfuerzo, yo di mi amor, medular, a nuestra tierra vasca. Ya es historia, tristemente...”.

Gizon gutxi egongo zen hainbeste eta hainbeste elkarte, erakunde edo lekutan partaide, burukide, laguntzaile edo bultzatzaile izango zenik. Bateron bat utziko dut baina hara hor burutu ahal izan dudana zerrenda:

Euskaltzaindia eta aipaturiko elkarte bietatik landa, “Euskal Dantzarien Biltzarreko” bultzatzaile eta baita ere une zail baten lehendakari ere; Euskal Herriko Txis-

tularien aldizkariaren zuzendari, burukide eta laguntzaile; “Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País”eko kide, eta baita ere Iruñeko “Real Sociedad de Amigos del País”eko ere; Iruñeko “Ediciones Egin”en sortzaile; Iruñeko “Muthiko Alaiak”en lehendakari 1941tik 1948ra; Nafarroako “Caritas”ko burukide 1941tik 1947ra; Nafarroako “Congreso Eucarístico”ko Zuzendaritzako eta baita “Santa Maria la Real”ko Koronazioko Juntako; “Oberena”ko Betiereko Kontseilari; Iruñeko Pasio-ko Hermandadeko bazkide; Loiolako Lagunen elkarteko; Aralarko San Migelen Patronatoko sortzaile 1943an, eta bertako burukide; Gerediaga, Durangoko Merinaldeko Adiskideen Elkarteko bazkide, laguntzaile sutsu eta hasieratako unean bere aldizkariaren zuzendari; Bizkaiko “Hogar Navarro”ko sortzaile eta burukide; Bilboko “Conciertos Arriaga”ko bazkide; “Asociación Vizcaina del Acordeón-Bizkaiko Badekifien Alkartasune”ko sortzaile eta burukide; ASCUL-Asociación Cultural Hispano-Norteamericana”ko lehendakari; C. I. T.-Centro de Iniciativas Turísticas-eko burukide; Id. Asociación de Donantes Benéficos de Sangre de la Cruz Roja de Vizcaya; Bilboko “P. I. N.-Parque Infantil de Navidad” delakoaren burukide; eta honen aldizkari “Oye”ren zuzendari; Bizkaiko “Hermandad de Alfereces Provisionales” elkartearen lehen Zuzendaritzako; Bilboko “Banco de los Pobres” deitzen zenaren bazkide; Id. Bilboko Cofradia Penitencial de la Vera Cruz”eko; Id. “Chaîne de Rottiseurs” internazionalako; Id. Asociación Española de Publicistas Agrarias eta arlo bereko Nazioarteko elkarteko; Id. Asociación de Amis de Saint-Jacques”eko; Id. “Circulo Cultural Vazquez de Mellako; Id. Bizkaiko “Amigos del Caserio” elkarteko; Bizkaiko dantza talde askoren sustatzaile, batez ere Lutxana-Barakaldoko “A-maia” eta Galdakaoko “Andra-Mari”, eta abar.

Astiz ez zen liburugile izan, artikulugile baizik, kazetari bai zen goitik behera. Dena dela “*Romerías Navarras*” izeneko liburua egin zuen Dolores Baleztenarekin batera, Iruñean 1944an argitaratua; *Por San Miguel de Aralar*, Pamplona, 1943; *Historia de San Gregorio Ostiense: Mozos y toros por las calles de Pamplona*, Pamplona, 1945 eta *Encierro-Reportaje literario y gráfico del trayecto del encierro de los Sanfermines de Pamplona*, Pamplona 1950, liburuskak ere bereak ziren.

Bere kazetaritza lana, esan bezala, euskal gaietara murgilduta zegoen: gure dantza eta folklore oro, hizkuntza, ohitura eta usadio, mendizaletasun, baserri mundauren aurreramen du eta berriztatzea, historia, eta antzerako. Euskal Herriko bazter guztietara irekirik bazegoen ere, Nafarroa eta Bizkaia zituen gogokoan, eta tartean, agian, Durangaldea (eskualde hau barreiatu zuen herriz herri, auzoz auzo eta erromeriaz erromeria). Eta gaur, hemen Bilboko Zazpi Kaleetan, hemen alboan Korreo kalean bizi izan bai zen urte askotan, esan behar da oso Bilbozalea zela, Iruinsemea izanik. Berak zuen Iruñea-Bilbo “entente cordiale” delakoa oso pertsona gutxiri eza-gutu diot, bien arteko harreman eta elkar-ulertzea ugaritzen ahalagindu bai zen beti, ongi bai zekien euskal hiriburu historiko eta ekonomikoen arteko eztabaidak, noren mesedetarako ziren!

Dakizuen bezala, Migel Angel Astiz ez zen abertzalea, bere zentzu politikoan esan nahi dut. Gerra aurretik Nafarroako A.E.T. (Agrupación de Estudiantes Tradicionalistas) delakoaren buru izan zen 1934an, gero Estatu mailan ere une batez. Gerra Erreketen kapitai izan zen eta Somosierran aritu zen “Tercio del Rey” izenean. Ez zuen hori izkututzen, bere orduko ideiekin kontsekuente bai zen, nahiz eta uste gerra irabazi arren, bakea galdu zutela, berak zion bezala. Gerra garaian bertan eskatu zuen Nafarroan euskara irakastea eta horregatik eta antzerako gauzakatik bi aldiz desterratua izan zen Aragoi aldera. “Hori gerra irabazi genuela, galdu bagenuen auskalo! Nafarroa zen bere kezka, bere mina.

